

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Euskal sintaxia: konplementazioa eta nominalizazioa

Egilea: **PATXI GOENAGA MENDIZABAL**

Urtea: 1984

Zuzendaria: LUIS MITXELENA ELISSALT

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-662-9



Argitalpen honen aurkezpen gisa

1984an aurkeztutako lan honi aurkezpen sarrera bat gehitzeko eskatu didate. Duela 34 urte aurkeztutako lan batek ba ote du egungo irakurlearentzat interesgarri izan daitekeen zerbait?

Gramatika eta hizkuntzak, beti izan ditut maite eta oraindik ere hala ditut. Eta hizkuntzen artean euskara dut maiteen, ahaiderik ez omen duen eta, batek daki zergatik, oraindik umezurtz modura bizi den hizkuntza. Batzuetan pentsatzen dut euskaldunok ez diogula geure hizkuntzari zor diogun maitasuna eta atxikimendua. Baina, ondo pentsatzen jarrita, atxikimendurik gabe, zail da ulertzea gaur arte bizirik (eta osasuntsu?) irautea hizkuntzak. Eta lan hau berau atxikimendu horren fruitu dela esango nuke.

Testuinguru-aurrekariak

Karrera amaitu berrian, atxikimendu berak narama lan honen jatorria nolako testuinguruan kokatzen den kontatzera. Apal-apal. Eta ez da nostalgia kontua bakarrik. Orduan, neure buruari honela mintzo nintzaion: "Patxi, galdetzen badiate karreran zehar zer ikasi duan, beharbada, erantzuna duk, egiazki ez duala gauza askorik ikasi. Oinarri batzuk bai, ikasi ditiat, baina ez gehiegi. Ez behintzat ikasi behar nuena. Agian, zer ikasi behar nukeen ikasi diat, nahiz ez ikasi. Zer ikasi behar dudan hemendik aurrera. Hori duk ikasi dudana. Ez duk gutxi, egia esan." Aho-korapiloa dirudi, baina egia da.

Gure garaian ea gure unibertsitatean hizkuntzalaritzan eskaintzen zitzaizkigun ereduak ea eskatzen zitzaizkigun jakin beharrak ez ziren ugariegiak. Gramatika historikoa, gaztelaniaren historia eta, asko jota, estrukturalismoa. Behin eta berriro entzuten genituen izenak Saussure, Alarcos, Coseriu, Martinet... ziren. Hauek ziren gure apunteetan dantzan zebiltzan izen nagusiak.

Motxila betetzen

Hori karreran eta apunteetan. Apunteetatik kanpo, Mitxelenaren lana edo Altuberena ere gogoan hartzen saiatzen ginen. Geure kontura, gehienbat. Nolanahi ere, *Gramatika sortzaile-bihurtzaile* delakoa pare bat eskolatan 'agortzen' genuen... Horra gure panoramaren aurpegi bat.

Urte asko dira. Lizentziaturako tesina egiteko orduan P. Altunaren eta K. Mitxelenaren laguntza eta gidaritza izan nituen. Eta gogoan dut nola lizentziaturako epaimahaian Mitxelenak, aipatu zuen Rudolf de Rijk-en izena, karreran zehar inork aipatu ez ziguna. Haren lana ere ez genuen ezagutzen. Euskal erlatiboetako buruzko tesi bikaina. Eta ni, une

hartan, BAIT- morfemaz eta euskal erlatiboei buruzko tesina defenditzeko zorian. Kontua da tesi honen berririk ere ez genuela ordurarte. Gogoan dut, aurrerago, egilearen beraren aholkuz, Mitxelenarengana jo behar izan nuen, gure karrerako azken epaiketa hartan eredutzat jarri zitzaidan lan bikain haren kopia bat eskuratu ahal izateko ere. Motxila 'etxeko lanez' betetzen hasia nintzen ordurako.

Motxilan sartu nuen halaber Mitxelenaren *Zenbait hitzaldi* liburutxo polit, mamitsu eta argia. J.A. Letamendiak euskaratu eta paratu zigun lana, egileak erabiliko zukeen molde eta hizkera maixukiro gordeaz. Orrialde gutxitan linguistikaren historiari eta joeren errepaso sakona egiten du egileak: linguistika tradizionala lehenbizi, konparatismoa gero, estrukturalismoa eta, azkenik, gramatika sortzailea eta bihurtzailea. Azken honi eskaintzen dizkio beste ezeini baino orrialde gehiago. Mitxelenak argi erakusten du bere pentsamoldea, bai estrukturalismoaz bai gramatika sortzaileaz. Sintaxi kontuetan bide egokia Chomsky-rena zela defenditzen du, garaitsu hartan bi euskalariren (Larresoro 1972, *Hizkuntza eta pentsakera*, Etor ed.; X. Kintana 1971, *Lingustika orain arte*. Lur ed.) badaezpadako iritzi funts gabeei ere kontra eginez. Txillardegiren arabera, "Chomskyren problematika ez da hizkuntzaren sinkronia, HIZKETAREN erabiltzea baino". Eta Mitxelenak (105. orr.) eranstean du: "Hau (...) ez dut uste arrazoizko denik. Gai hortaz egundaino mintzatu direnek -eta nik ere bai, diodan bidenabar- besterik uste izan dute: guztien edo gehien ustez, Chomskyren *competence/ performance* ez dira agian Saussure-ren *langue/ parole*-ren haurride jator, bai bederen, orde, ahaide hurbil. Eta Chomsky *competence* delakoaz arduratu izan da (*performance*-aren bitartez, ezin bestean), Saussurek *langue* delakoa hautatu zuen bezalaxe linguistikaren gaitzat. Baina 'hizkuntza' ezagutzeko ez dugu 'hizketak' eskaintzen digun sarbidea baizik. (...) Noren mendean dago, bada, joskera? Hizkuntzarenean ala hizketarenean? "Hizkuntzarenean" erantzungo luke edozeinek, eta "hizketarenean" erantzun dute gehienbat ondorengoek. Zer erantzungo zukeen Altube batek esan baliote euskal joskera ez dela, euskal fonemak eta morfemak bezainbat, euskararena, euskaldunen arteko solasarena baizik? Euskaldunak, haren ustez, behartuak geunden euskal joskerari, hizkuntzarena zen zerbaiti lotzera.

Sintaxi hori, egia esan, umezurtz gisa erabili dute maizenik estrukturalistek. Lan ederrik egin dute beste sailetan; honetan, berriz, ez gehiegirik. Gehien saiatu direnak *outsider* batzuk (Tesnière, esaterako) izan dira. Diodan, gainera, Kintanak (142 eta hh.) bestela pentsatzen badu ere, Martineten sintaxiak ez dituela, gehien ustez, eltzetik aterako babak".

Mitxelenak dioenez, "Chomskyk zor zaiona eman dio sintasari; zuzenbidez zegokion eta beti gorde zitzaion erdi lekuan ezarri du berriz ere. Zati hori izan baita beti linguistikaren muina."

Mitxelenaren hitzaldi sortak karreraren zehar eman ez zioten bazka eskaintzen zion ikasleari. Behin eta berriz irakurri nuen.

Motxila horretan sartu nituen halaber garai hartan Sanchez de Zavalak argitaratu zituen testuak ere (Sanchez de Zavala (arg.) (1974) *Semántica y sintaxis (1)*, Alianza ed. eta Sanchez de Zavala (arg.) (1976) *Semántica y sintaxis*, Alianza ed. Horiek behin eta berriro irakurri eta ikasten hasi nintzen. Dexenteko astindua eman nien testu haiei ere.

Motxila berean sartu nituen pixka bat aurrerago beste lan batzuk ere (Demonte (1977), besteak beste).

Norbaitek pentsa lezake prehistoriaz ari naizela. Baina ez, neure historia koxkorren zati dira eta hemen erakutsi nahi izan dut *Euskal Sintaxia: konplementazioa eta*

nominalizazioa lanari hasiera emateko orduan nire soroa nola zegoen osatua eta prestatua.

Perpaus osagarriak

Perpaus osagarriez dihardu lan honek. Perpaus osagarriok, batetik aditz jokatua erakusten ahal dute. Beste batzuek, berriz, jokatugabea. Denetan ere oso morfologia gardena dugu. Jokatueta, adibidez, -(E)N postposizioa nahitaezkoa dugu. Honen ondoren agertuko dira beste osagai batzuk: -EN-Ø/ -EN-A/ -E-LA; -E-NIK (*badakit nork esan dizun/ ezagun duzu parrandan ibili zarena/ badakit norbaitek esan dizula/ ez nekien hemen zinenik...*) Lehenbizikoa zehar-galdera dugu, baina mugagabea delako itxura guztia du, mugatzailerik gabea, alegia. -en-a ere hor dugu, oraingoan mugatzailea agerian duela, antza. Gune berean mugatzaile partitiboa ere aurkitzen ahal dugu: *en-ik*.

Hauen parean ditugu *esango diot etorri zarela* modukoak ere. Hauek perpaus osagarrietan nagusi ageri dira.

Gauzak lehen nola ziren ez dakigu ziur, baina perpaus osagarrietan eskema hirukoitza (-*en-Ø/ -en-ik/ -en-a*) izatea polita zatekeen. Baina -*ena* ia erabat galdua dela esango nuke eta honen lekua -*ela*-k hartu duela: *ezagun du euskalduna dela* (< -*en-la*) vs *ezagun du euskalduna zarena* (< -*en-a*). Nolanahi ere, aipatu dugun laukotearen ondoan -*ela-ren agerpenak* badu bere 'logika', horrela hitz egin badaiteke. Izan ere, garbi dago hor ageri den -*la* hori ez dela mugatzailea. Baina bi formen arteko antzekotasun morfologikoa bistan da: *dena* < *den-a/ dela* < *den-la*). Gainera *hau esan zion* baino askoz arruntagoa da *hala esan zion*, edo *zer esan duzu?* bezain erabilia da *nola esan duzu?* *Hala*, jakina, adberbiotzat ematen dugu, modu-adberbiotzat. Erlazioren bat badute, hortaz [... -*ELA*] osagarriak eta HALA moduko adverbio batek. Bestalde, erlatiboarekin izan dezakeen talka gainditzeko modu bat ere izan liteke -*ELA* nagusitu izana: *egin nahi dudana garbi daukat* anbigua gerta liteke, erlatiboa batetik, osagarria bestetik. Baina *egin nahi dudala garbi daukat* esanez gero, ez dago anbiguotasunerako lekurik. Nolanahi ere, hirukote hori, aurpegian mugatzaileak erakusten dituena, hor dago.

Perpaus jokatugabeek ere pareko egitura erakusten dute. Kanpo aldetik osagaiak bereizten hasita, edozein IS edo PS-ek izan ditzakeen postposizioak aurkitzen ditugu: *etortzea-Ø; etortzea-k; etortze-n; etortze-ko; etortze-ra...*

Bestalde, bai perpaus jokatueta bai jokatugabeetan gramatikak morfologikoki galderazkoak eta adierazpenezkoak bereizten ditu, besteak beste: *ez dut erabaki nora joango naizen baina norabait joango naizela argi daukat* perpaus jokatuak vs. *erabaki dut USA-ra joatea baina ez dut oraindik erabaki zein ikastetxetara joan*. Bide batez, esan dezagun zehar-galderak nolabait mugagabe gisa agertzen direla bai perpaus jokatueta, bai jokatugabeetan.

Subjuntibozkotzat ematen diren perpausak ere hor ditugu. Hauen ezaugarri morfologikoa -*EN* konplementatzailea da, hau ere mugatzailerik gabea: *isil zaitezten nahi dut*.

Osagarri perpausen ikuspegi hau tesiari ekin nionean ez neukan hain argi baina kontua da forma horiek sintaxian modu egokian kokatzen eta konbinatzen direla, eta forma horiek eduki desberdinak adierazteko baliatzen dituela euskarak. Perpaus mota hauek mendeko perpausen, eta, horrenbestez, euskal morfologia eta sintaxi egitura garrantzitsu bat biltzen dute. Hauen azterketa saio bat biltzen da lanean.

Gramatika gorabeherak aski ongi deskribatuak daudela esango nuke. Garai hartan eskura genituen iturriak urriagoak eta urrunagoak ziren orain ditugunak baino. Eta gaur eskura ditugun *corpus*-ek eskaini diezaguketen informazioa ere askoz handiagoa izango litzateke. Hala ere, iruditzen zait funtsean, alde handirik ez genukeela aterako egituren deskripzioa egiteko orduan.

Eskasia gehiago ikusten ditut beste alde batetik. Konplementazioaz eta nominalizazioaz dihardu lan honek eta gorago aipatu denez, *nominalizazio* deitu dugun horretan bereziki sintagmaren eskuin aldean ohiko determinatzaile sintagmetan gertatzen diren osagaiak ageri zaizkigu, bereziki egiturazko postposizioak (edo 'kasuak', gure gramatiketan ohikoa den esamoldea erabiliz): *ikastea-ø* (absolutiboa), *ikastea-k* (ergatiboa), *ikastea-r* (datiboa), *ikastea-ren* (genitiboa). Baina adberbiozko postposizioak ere erruz ageri dira (inesiboa eta hemendik eratorriak, esaterako): *ikaste-n*, *ikaste-ko*, *ikaste-ra* etab., eta *ikasiaz*, *ikasi-arren*, *ikasiaz-gatik*... Hauetako batzuk bakarrik sartzen dira konplementazioaren esparruan, baina guztiek jartzen gaituzte arazo baten aurrean. *Ikasteko esan didazu* eta *zer ikasiko duzun esan didazu* aski pareko perpausak dira. Parekotasun horietako bat, hain zuzen, mendeko perpausaren ageri diren postposizioei dagokie: *ikaste-ko/ zer ikasiko duzu-n*. -ko eta -en postposiziotzat hartuta, biak ere perpausari itsasten zaizkio, bata perpaus jokatu gabeari, bestea perpaus jokatuari. Postposizio hauek konplementatzailetzat hartu dira lan honetan. Horrenbestez, KonpS-ak osatzen dira. Aldi berean 'ezker periferian' kokatzen den gune bat ere bada KonpS-ri dagokiona. *Liburu hori nork erosi du?* galde-perpausaren egitura honako honen tankerakoa litzateke [IndarS [+galdera] [MintzagaiS liburu hori [GaldegaiS nork [MintzagaiS idatzi du]]]] (ik. L. Rizzi 1997, "The fine structure of the left periphery", in L. Haegeman (arg.), *Elements of Grammar*, Dordrecht, Kluwer, 281-338), J. Ortiz de Urbina 1999, "Force phrases, focus phrases and left heads in Basque" in Jon Franco eta Alazne Landa (arg.), *Grammatical analysis in Basque and Romance Linguistics*, 179-194. Amsterdam, John Benjamins). Konplementatzaileak eta postposizioak kategoria bereko izan litezke (J. Emonds 1985, *A Unified Theory of Syntactic Categories*. Foris, Dordrecht-Holland/Cinnaminson-USA). Fokoa eta aditza ezker periferiara mugitzeak, praktikan, Konp-era mugitzea esan nahi badu, euskaraz gauzak zertxobait desberdinak dira: aditza ezker aldera mugiarazten dugu eta honen ezkerrera galdegaia: *baserria erosi du* (hurrenkera arrunta) vs *MIKELEK_{GALDEGAIA} EROSI DU baserria*. Jakina, honek esan nahi du bi kokagune ditugula eta aditz inflexioa nola osatzen den, zer mugimendu dauden etab. aztertu behar litzatekeela. Batik bat, euskaraz aditz inflexioak ez ezik topikoak, fokuak eta abarrak hain izaera nabarmena dutelarik.

Perpaus osagarrien barnean ere hurrenkera ez da librea. *Badakit nork esan dizun/ badakit zuk esan diozula* (**badakit esan dizun nork/ ?badakit esan diozula zuk*). *Hortaz*, perpausaren ezker aldean osagaiak mugitu egiten direla argi dago, baina konplementatzailetzat ematen ditugun postposizioek aditzari atxikiak segitzen dute nahiz eta hauek ezker aldean mugitzen diren. _Gure lan honetan arazoa ez da planteatu ere egiten. Gaur egin beharko balitz, aukera baliatuko genukeela uste dut osagaien hurrenkeraren eta KonpS-ren berri ematen saiatzeko. Nolanahi ere, hizpide dugun gure lan honetan kontu hau ez da aztertzen. (ik. X. Artiagoitia 2000, *Hatsarreak eta parametroak lantzen*, Arabako Foru Aldundia. 252-280)

Perpaus osagarrien sintaxia eta semantika

VII. kapitulan perpaus osagarrien sintaxia eta semantikaren arteko lotura aztertzen da eta analisi bat eskaintzen. Kapitulu honek badu xarma, nire ustez, nahiz eta erdibidean bezala gelditzen den. Perpausen morfosintaxia eta adiera elkarren ondotik ibili beharra dute eta sintaxi teoria egokiak bi alderdi hauen loturaren berri eman behar du. Kapitulu honen xarma analisirako iradokitzen diren bideei zor zaie batez

ere. Erabateko azterketarik ez du eskaintzen baina zabalik begien aurrean jartzen digun bidea oparoa izan liteke. Bide hori egiazki nondik norakoa den hobeki aztertu behar litzateke. Hemen bide urratze bat egiten da, batez ere.

Euskaraz subjuntiborik baden ala ez den eta, horrenbestez 'indikatioa' ere zer datekeen aztertu beharreko kontua litzateke. Baina hori gorabehera, aipatu VII kapitulu honetan guk egitea iradoki nion eta guk egingo genuela esan nion moduko bikoteek erakusten duten diferentzia argi dago, morfologiari dagokionez. Diferentzia morfologiko horrek adiera diferentzia bat ere bideratzen du, ordea. Izan ere, Menzel-i (1975) jarraituz, batean EKINTZA bat da proposatzen dena, bestean berriz, esaten dena ez da ekintza bat PROPOSIZIO bat baizik. Proposizio bat egia ala gezur modura kalifikatzen da. Alegia, 'guk egin dugu' edo 'guk egin dugula' hitzunarentzat egia ala gezurra den galdetzeak zentzua du: proposizioa da. Aldiz, galdera bat edo agindu bat ez da proposizio bat, zentzu honetan. Modu berean, 'guk egitea' egia ala gezurra den galdetzeak ez du inongo zentzurik, ez baita proposizio bat, Menzel-en adieran. Honek predikatuek duten sare argumentalarekin, paper tematikoekin eta abarrekin du zerikusia baina, batez ere, konplementazioari dagokionez, modalitate kontzeptuarekin. Etorriko dela esan nion vs etor zedila esan nion perpausen arteko kontrastea argia da. Leiho bat zabaldu nahi izan nuen kapitulu honetan. Gaiaren konplexutasunak arreta handiagoa eskatzen du. Hala ere, *Modua* gune sintaktiko bat badela onartu eta predikatu nagusiaren eta mendekoaren arteko hautapen erlazioa zehaztu behar da. Aginterazko perpaus osagarriak ere hor ditugu eta konplementazioan parte hartzen duten beste oposizio hauek ere, *egiteko esan nion*, *ez du asmatu egiten* eta holakoetan, harrobi aberatsa dagoela esango nuke. Kapitulu honetan bide bat iradokitzen da. Horregatik nioen xarma berezia duela.

Espero dut lan honek, ardo onduaren tankera gehiago izatea sagardo ospinduariena baino eta oraindik ere irakurgarria izatea. Landu eta idatzi zenetik hona urte luzeak, edo laburrak, nork daki, pasatu dira. Gaur eskura ditugun baliabideekin ekingo bagenio hobea izango zatekeen emaitza, agian, baina, dena dela, espero dut onuragarria izatea. Lanak zer hobetu baino areago zer osatu izango luke. Nolanahi ere, euskal sintaxiaren arlo garrantzitsu baten ikuspegi zabala eskaintzen duela uste dut eta horrenbestez, lanaren emaitza erabilgarria dela.

Patxi Goenaga
Vitoria-Gasteiz, 2018-11-6

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA


Historia eta Geografia-Historia Ikerketak

EUSKAL SINTAXIA; KONPLEMENTAZIOA ETA NOMINALIZAZIOA

Patxi GOENAGA MENDIZABALEk

Luis MITXELENA ELISSALT Dre.

Katedradunaren zuzendaritzapean
egindako DOKTOREGO TESIA.

A large, stylized handwritten signature in black ink, likely belonging to Patxi Goenaga Mendizabale. The signature is fluid and cursive, with a prominent loop at the end.

Gasteizen, 1984eko Irailean

S A R R E R A

Lanak, sarritan, garatuz doazen neurrian, hasieran markatutako helburutik pittin bat urruntzen hasten dira, eta, horrela, hasieran gogoan genuen asmoa eta azkenean esku artean izatea lortzen duguna ez dira erabat ados etorri ohi. Hori da lan honen egile honi gertatu zaiona ere.

Hasiera batean nominalizazioaz aritzeko asmoa nuen, baina nominalizazioa zer den ere ez baitzegoen oso argi -batzurentzat fenomeno zabalagoa da besteentzat baino-, azkenean aditz izenari dagozkion gorabeheraz aritzeko erabakia hartu nuen. Aditz izenaz perpausak eta egiazko izen sintagmak osa daitezkeenez, era bateko eta besteko egiturak bereizten sailatu beharra zegoen. Horregatik, hasiera batean neure buruari ezarri nion helburua aditz izenaz -hots: -T(Z)E atzizkia daraman aditz mugagabeaz eta izenki erakarriaz- osatzen ditugun egiturak aztertzea zen. Alde honetatik, beste hizkuntzetan egin diren zenbait azterketaren antzekoa izan nahi zuen. Adibidez, Lees 1960-ren antzeko zerbait nuen orduan gogoan eta bereziki Chomsky 1967-k begien aurrean jartzen zizkigun arazoak. Horiei buruz euskarak zer eskaini zezakeen jakin nahi nuen. Hala ere, agian, lan honek buruan daraman izena bera ere -Euskal sintaxia: Konplementazioa eta nominalizazioa- zabalegia irudituko zaio zenbaiti. Jantzi zabalegia agian, barnean izkutatzen den izakitxoarentzat. Baina izenburu horixe iruditutako zait egokiena.

Lan honen helburua, beraz, euskal gramatikaren zati nagusi bat aztertzea da: aditz mugagabeaz, eta bereziki -T(Z)E atzizkiaz, osatutako egiturak.

Eta azterketa hau aurrera eramateko hautatu nuen bidea Gramatika Sortzaile Bihurtzaile izenekoak eskaintzen duena da. Baina hemen sortzen zaigun lehenbiziko oztopoaz zertxobait esan behar dela uste dut. Gramatika Sortzaileak bere hogeitabost urtetako historia emankorrean gauzak aurkezteko era biziki aldatu du, Newmeyer 1980-k ongi aditzera ematen duen bezala. Teoria bera aldatuz doa, hortaz. Horrek, bizi delako seinale bada ere, alde txar bat badu behintzat. Izan ere, zenbait lan, zenbait artikululu eta artikuluxka, bere garaian behar bada zaparrada handiak eta ekaitzak sortarazi zituen, gaur zeharo gainditua eta ahaztua aurkitzen da, eta ez du interes handiegirik teoriaren bilakaeraren historiaren aldetik ez bada. Askotan, badirudi horrelako lanak irakurtzea arkeologia lana dela. Horregatik, bilaketan ari den teoria azterbide gisa hartzeak buruhauste handiak dakartza berekin. Hain zuzen, ez dakigu zein den biderik egokiena gure aztergaia behar bezala aztertzeke, teoria aldetik ere gauzak ez baitaude zeharo argi. Dena dela, gaur egun sintaxiaren uretan murgildu nahi duenak ezin dio muzinik egin Gramatika Sortzaile delako horri, edo izen horrekin estaltzen diren bidetxigorretariko bati. Hori da, hain zuzen, hemen egin nahi izan dena. Teoriak azken urteotan egin dituen aldaketak ez ditut ia kontutan izan. Baina honek esplikazioren bat eskatzen du: alde batetik euskararen gramatika zati bat deskribatzea delako hemengo helburua eta ez hainbeste, istilu teorikoetan murgiltzea. Inolaz ere ez, behintzat, borrokan ari diren ikuspegien artean epaile modura agertzea. Bestalde, azken orduko formulazioak euskarari zenbatetaraino dagozkion ere ez dakigulako oso garbi. Adibidez, Chomskyrentzat transformazio guztiak "mugi α " agindura mugatzen dira gaur. Baina hau euskaraz aplikagarri den ere ez dakigu, ez eta nola aplikatuko litzatekeen ere. Beste batzuk, lexikalismoa azken muturreraino eramanez,

transformaziorik gabe jokatzeko dute. Horregatik, arazo hauetan sartzeak hasiera bateko planetatik behar eta komeni baino gehiago hastanduko ninduketelakoan, bide apalagoa hautatu dut. Bide hori, funtsean, Teoria Standard delakoa izango litzateke, bateko eta besteko zenbait "erantsi"rekin batzutan.

Hortaz, ikuspegi teoriko hau harturik, euskararen gramatikaren zati bat eskaini nahi luke lan honek. Dena dela, aipatu oztipoa dela eta, ezin izan lan osoa eta erabatekoa. Hori baino lan apalagoa eskaintzen da hemen, ezin bestean, zoritxarrez.

Oztipoak euskararen aldetik ere badatozkigu, dudarik gabe. Mitxelenaren hitzetan esango dugu. Euskal ikerketen geroaz honela mintzo zitzaigun Leioan Euskalarien Jardunaldietan: "Le taux d'incertitude augmente, (...) au fur et à mesure que les configurations linguistiques deviennent plus complexes: autant dire que la syntaxe est le domaine le moins exploré de la langue. Il n'y a pas que les perplexités d'ordre théorique. Il y a nombre de questions élémentaires, dont nous ne connaissons pas la réponse. Rien de plus facile que de dresser une longue liste de questions du type "comment emploie-t-on (a-t-on employé) telle construction dans telle contrée?" Dans ces circonstances, même si nous nous en tenons strictement à la pratique, on ne peut établir et prescrire "le bon usage" faute de fondements pour l'instituer...." Arazoa larriago bihurtzen da hizkuntzalariak sarritan gramatikaltasunaren mugamugan dabiltzan perpausekin jokatu beharra izaten duelako. Askotan muga hori non den ere ez dugu jakiten. Arazo hau konponbidean jartzeko corpus zabal bat izatea ongi etorriko litzaiguke. Hau egin behar den zerbait dugu, hizkuntz elementu bakoitzaren banaketa, edo banaketak, zein diren egiazki jakiteko. Hala ere, hor geldituko bagina, gure lana hizkuntz elementuak kategoria desberdinetan

sailkatzera eta zilegi diren elementu segidak zein diren esatera mugatuko balitz, gramatika mota honek ikusten diren datuen deskribapen soilak emango liguke. Gramatika sortzaileak, jakina denez, datu horiek esplikatzen egin nahi ditu eta elementuen sailkapenetik "gora" jauzi egin behar dela dio. Horregatik, taxonomia beharrezko izanik -eta euskaraz horren premia badugu- gramatika sortzaileak betidanik aldarrikatu du hiztunaren intuiziora jo beharra, egiazki hizkuntza ahalmenaren berri eman nahi bada.

Nik neuk, lehenbizi, eta nonbaitetik hasteko, zenbait autore hartu nituen corpus txiki baten jabe egiteko. Era berean, aditz zerrenda bat ere jaso nuen. Baina gero, normala denez, adibideak neure baitatik asmatzen ibili behar izan dut. Horregatik, lanean zehar autore desberdinen aipamenak erabili ditudanean neure iritziak indartzeko, edo, baita, nere konpetentziarekin bat ez zetozela erakusteko, izan da. Hau, kasurik onenean, hots: adibide egokia eskura zetorkidanean. Baina adibiderik gehienak neure hizkuntza-gaitasunari dagozkio, halaber beharrez, gramatika ezin baita izan corpus baten deskribapen soilak.

Hortaz, gramatikaltasunaren auzia larria izanik ere, lan honetan barrena aurkitzen diren adibiderik gehienak neureak dira eta baita bakoitzari buruz ematen den gramatikaltasun epaia ere. Sarritan ez naiz oso eroso aurkitu era bateko edo besteko iritzia ematerakoan. Batzutan neure ingurukoei galdezka ibili naiz erantzun bila, baina sarritan esaldien bitxitasunagatik edo, erantzunik gabe gelditu behar izan dut. Horregatik, gerta daiteke zenbait kasutan irakurlea eta egilea ados ez egotea. Oso normala. Horrek esan nahi izan dezake biotako bat oker dabilela, baina esan nahi izan dezake, baita ere, sarri askotan euskalki edo hizkera desberdinen jabe garela. Postal-ek esango lukeen bezala: "an irresolvable matter of idiolect difference". Dena dela, aipatu

diren oztopo hauek gogoan ditugularik, lanak ez du horregatik indarra galtzen.

Esana dugu zein den lan honen aztergaia: aditz izena.

Baina ezer baino lehen argitu beharreko auzi bat bagenuen: aditz izenaz osatutako perpaus hauek konpletibotzat hartzen ditugunez, perpaus konpletiboen egitura orokorra zein zen jakin behar genuen, gramatika zati bat osatzen baitute perpaus hauek, mugatuak nahiz mugagabeak direla. Hain zuzen, gai honi eskaini dizkiot lehenbiziko hiru atalak: lehen atalean halako aurkezpen moduko bat egiten saiatu naiz era bateko eta besteko konplementu perpausak begien aurrean jarriaz, alor zabal honetatik bereziki aztertu nahi diren egiturak zein izango diren ikusteko. Gaia dagokion testuinguruan kokatzea da, nolabait, lehenbiziko atal honen helburua, testuinguru horretatik zertan bereizten den argiago jartzeko. Bigarren atalean, berriz, perpaus konpletiboen zenbait azterketaren berri ematen da, alde onak eta txarrak agerian jarriaz. Eta hirugarren atalean bereziki euskal konpletiboei heltzen diegu. Hauen egitura zein izan daitekeen ikusten da. Batez ere, perpaus hauei bide emango dieten erregelak zein izango diren interesatzen zaigu, eta, bereziki, ea perpaus hauek izen sintagma (I S) adabegiaren azpian dauden ala perpaus diren soil soilik. (Hain zuzen, eztabaida horretan sartuko ez bagara ere, Emonds, Chomsky edo Jackendoff-en lanak aztertuz gero era guzti-etako iritziak aurkitzen dira). Eta, beste alde batetik, konplementu perpaus mota desberdinak bereziko ditugu. Dena dela, esan behar dut, konpletiboetan neure hizkuntz gaitasuna dudala oinarri eta, horrenbestez, autore klasikoetan adibidez hain ugari aurkitzen diren bestelako esamoldeak (... ezen ... bait- eta antzekoak) ez ditut gogoan hartuko.

Ondoren, aditz mugagabea duten zenbait perpaus aztertuko dira. Eta, hemen, garrantzi berezia duelako, inesiboaren marka ezaugarritzat duten perpaus txertatuak hartuko ditugu kontuan bereziki. Azken batean, aditz nagusiak agintzen duenez konplementu perpausak izango duen forma, era honetako konpletiboa eskatzen duten zenbait aditz multzo bereziko ditugu. Gramatika sortzailearen historian zehar perpaus hauen baliokideetan zenbait transformazio sartzen ziren jokoan, gero ohizko transformazio horiek denak bazterrera utziak izan badira ere. Guri ere badagokigu arazoa eta, hortaz, perpaus hauen egitura ikusi beharra dago.

Boskarren atalean, hain zuzen, ohizko transformazio bat (EQUI izenekoa) argitzeko eman ohi diren bi aditz "tipiko" aipatuko dira: NAHI eta BEHAR eta hauen konplementu perpausak dituzten berezitasunen berri emango dugu.

Gramatika sortzailearen hasierako transformazioak albora utziak izan direla esana dugu. Dagozkigun perpaus hauetan gehienetan ez da sujeturik ageri ohi, eta askotan ezina da, gainera, agertzea. Honen berri, hasiera batean EQUI edo RAISING izeneko transformazioek ematen ziguten. Gaur, transformazio horien ordainetan kontrol teoria agintzen zaigu. Oraindik ikuskizun den teoria honek euskal datuen aurrean zer esan beharko ligukeen aztertzen saiatuko gara VI atalean. Falta izan ohi den izen sintagma sujetu horren erreferentzia nola finka daitekeen eztabaibatuko dugu. Jakina, hau ere "entseiukarrean" bezala egina izango da, ezinbestean, aldeztu aurretik argitu beharreko auziak bai baitira.

Zazpigarren atalean, forma desberdineko perpaus konpletibo hauek aurkeztu ondoren, konpletibo hauek axalean agertzen duten forma desberdinak zeri zor zaizkion ikusten saiatuko gara.

Alegia, axaleko desberdintasunak inolako desberdintasun semantikorik erakusten ote duten jakiten saiatuko gara. Hots: gure galdera hau litzateke: ea semantikak zenbatetaraino mugatzen duen perpausaren axaleko forma.

Eta, azkenik, lanaren izenburuari zor zaionez, eta hasierako asmoa nominalizazioa aztertzea zenez, zortzigarren atala izenki erakarriei eskainiko diegu. Hain zuzen, Chomsky-k bere "Remarks"-en -ING atzizkidun bi egitura desberdin erakusten dizkigun bezala -batari perpaus egitura osoa zor zaiolarik eta besteari gainerako izen sintagmen egitura- gu ere aditz izena bi inguramendu desberdinetan ageri dela oharturik, aditz izen hori egiazki izen gisa ageri den egitura aztertzen saiatuko gara atal honetan. Aditz izen hau aurreko ataletan hizpidea eman digunak ez bezalakoa dela frogatuko dugu eta, azken batean, gainerako izenki erakarrien antzekoa dela, zenbait testuingurutan doanean. Horregatik, lehenbizi izenki erakarrientzako erakarbide aproposena zein den ikusiko dugu. Ondoren, aditz izena bestelako izenki erakarriak bezalakoa dela frogatzeko.

Baina ez nituzke sarrera hitz hauek nire inguruan ibili diren hainbat laguni eskerrak eman gabe amaitu nahi. Lehenbizi, Koldo Mitxelena irakasle prestu eta maisu handiari, lan honen zuzendaritza bere gain hartu duelako eta hainbat eta hainbat ohar eta aholku zuhurrez gidatu duelako lan hau. Berak eman dit azken batean aurrera jarraitzeko kemenak. Ez daukat zor txikiagoa Rudolf de Rijk irakasle eta adiskidearekin. Ordaindu ezina da euskararen barne muinak hain ederki ezagutzen dituen euskaltzale honenganako ene zorra. Eskerrak, baita ere, nere kezka guztiak

eta galdera ugariak jasan behar izan dituzten ikasleei eta, baita, Euskal Saileko lankide eta adiskide guztiei: I. Sarasola, E. Knörr, L. Oñederra eta I. Pagolari, behin eta berriro beren lanetatik atera arren, beti prest nituelako galderei erantzuteko. Eskerrak, Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeko kideei, eta bereziki Miren Azkarate eta Patxi Altunari. Esker bereziak, baita ere, Pello Salaburu eta Ken Hale irakasleei, lan honen zati batzu irakurtzeko kemena izan dutelako hainbat ohar baliotsu eginez. Eskerrak denei, denei zordielako zerbait lan honek, izan ditzakeen alde onetan. Alde txarrak eta hutsegiteak neure neureak dira.

Eskerrak, azkenik, euskaraz irakatsi zidatenei eta oraindik ere irakasten didatenei. Neu ere beste batzuri irakasteko gai izango ahal naiz! Eskerrak, baita, Itziar, Olatz, Beñat, ... langintza honek hainbat eta hainbat bider "bahitua" euki nauenean konprenitzen jakin duzuelako eta lan hau aurrera eramaten zeuen erara lagundu didazuelako.

Eta, azken hondarrean, aitor dezadan beste zor bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekikoa, lan hau hein batean haren diru laguntza batez egina izan baita.

I ATALA

EUSKAL KONPLEMENTAZIOAREN IKUSPEGI OROKORRA

Perpausak nola txertatzen diren ikusterakoan, euskaraz, eta beste hizkuntzetan ere bai, noski, zenbait mota desberdin berezi behar dira. Hemen -(E)LA atzizki¹az, subjuntiboaz eta -T(Z)E eta -TU formez baliatzen direnez mintzatuko gara bereziki. Beraz, bestelako konplementu perpausak (erlatiboak, konparatiboak, kausazkoak eta abar) albora utziko ditugu. Gutxi gora behera, tradizioz izen sintagmarekin zerikusia dutela pentsatu izan diren egiturak hartuko ditugu gogoan.

1.- Aditz mugatukoak.-

1.1.- -(E)LA perpausa.-

Egitura honi konpletibo ere deitzen zaio eta berezi egin behar da atzizki berdinez baliatzen den perpaus denborazkotik eta moduzkotik. Atzizki bera hirutara erabiltzen baitugu.

-(E)LA konpletiboa aditz iragangaitz baten sujetu gisa ager daiteke. Adibidez:

(1) Gogora etorri zaio ETXERA JOAN BEHAR DUELA.

Era berean, izan daiteke, aditz kopulatiboa duen perpaus baten sujetu ere:

(2) GIZON HORREK HOGEI KILO OKELA JAN DUELA egia da.

Aditza iragankorra bada, ezin daiteke sujetu gisa -(E)LA perpausik ager, baina perpaus horren objetuaren lekuan bai:

(3) a. *Pellok eskuetan odola daukala ez du esan nahi

Miren berak hil duela.

b. Andonik IDI BAT HEGAN IKUSI DUELA esan digu.

Zenbaitetan -(E)LA konpletiboak aditza subjuntiboan eraman dezake:

- (4) "Eta emengo legueak aguintzen du, ecarri daitezela jaiotzatik amar egunen barrunbean".²

Hor ditugu, baita ere, aztergai, nolabait proposizio edo baieztapen baten egiaztapena eskatzen duten perpaus hauek:

- (5) Bi eta bi lau direla?
(6) Olatz dela neskarik politena, aitatxo?

Edo:

- (7) "Au bai dala kontua".³

1.2.- Subjuntiboa.-

-(E)LA perpausak askotan subjuntiboa daramala esan dugu.

Baina beste batzutan subjuntiboa soil soilik agertuko zaigu inolako atzizkirik gabe. Kasurik tipikoena perpaus nagusian NAHI aditza dugunean izango da:

- (8) Nahi du GU ISILIK EGON GAITEZEN.

Euskaraz berehala aurkezten zaigun arazoa da ea zein aditzekin doan subjuntibo soila eta zeinekin subjuntiboa + -ela. Joera, esango nuke, hau dela: NAHI-rekin subjuntibo soila. ESKATU, ERREGUTU, AGINDU,... eta abarrekin subjuntiboa + -ela. Eta, agian, honen arrazoa, azken multzo honetako aditzek [+borondatezko] tasunaz gainera [+komunikaziozko] edo tasuna izatean bilatu beharko litzateke. Alegia, nahiak ez du nahi hori norbaiten aurrean edo norbaiti adierazia izatea eskatzen. Aginduak, eskariak edo erreguak, ordea, nahi eta ez norbaiti adierazi behar zaizkio. Horregatik, [+komunikazio] tasuna.

1.3.- Zehargalderak.-

Funtsean, zehargaldera direlakoek ere perpausaren aditz sintagmaren pean agertzen den izen sintagmaren lekua betetzen dutela dirudi. Hots: objektu baten lekua hartzen dutela:

(9) Asmatu dut NORK EGIN DUEN OKERRA.

(10) DATORREN IGANDEAN ETORRIKO DEN galdetu diogu.

1.4.- -ENIK perpausa.-

Gaur egun gure artean perpaus nagusia ezezka emana bada, sarritan perpaus konpletiboak hartzen duen atzizkia -ELA ez, -ENIK baizik izango da:

(11) Ez digu esan BIHAR ETORRIKO DENIK.

Hala ere, -ENIK forma hau berri samarra dela dirudi. Autore zaharretan -nik dakidala- ez da ugariegi agertzen. Baina gaur egun, zenbait euskaldunentzat, -enik erabiltzea ia ia lege bihurtu da.

Bestalde, neretzat -EN zehargalderaren marka bada ere, zenbait euskalkitan gure -ENIK-en parean ere erabiltzen dute:

(12) Ez dut uste joango den

2.- Aditz mugagabekoak.-

Orain arte eman ditugun perpaus hauen guztien ezaugarria da aditz mugatua izatea, hots: pertsona eta denbora markak berekin dituela, baina bada beste multzo handi bat, aditza inolako pertsona markarik gabe agertzen duena, eta horiek sailkatzen saiatuko gara orain. Hemen bi multzo handi berezi daitezkeela dirudi: a) aditz izenaz baliatzen direnak eta b) aditz erroaz edo partizipioaz baliatzen direnak.

2.1.- -T(Z)E formakoak.-

Lehenbizi, -T(Z)E atzizkidun aditza duten perpausak jasoko

ditugu. Hauek, aditz izen diren aldetik, kasu markak ere hartzen dituzte:

2.1.1.- -T(Z)EA.-

Perpaus hauek ere -(E)LA perpausak bezalaxe, aditz iragan-gaitz baten sujetu bezala ager daitezke, eta baita aditz iragankor baten objektu gisa ere:

(13) a. LAN EGITEA ona da (sujetua)

b. BIHAR MENDIRA JOATEA erabaki dugu (objektua)

Horrelako perpausetan, gehienetan, ez zaigu axaleko egituran sujeturik agertzen, goiko adibideek erakusten duten bezala. Baina kasu horietan, hain zuzen, ez genuke problemarik izango sujetu hori agerrerazteko:

(13') a. ZUEK LAN EGITEA ona da.

b. ZUEK BIHAR MENDIRA JOATEA erabaki dugu

Baina askotan perpaus txertatuaren sujetua ezabatu beharrekoa izan ohi da:

(14) LIBURUA EKARTZEA ahaztu zitzaidan.

2.1.2.- -T(Z)EAK.-

Dударик ez dago: perpausak aditz iragankorra badu, perpaus horren sujetuak ergatiboaren marka behar du, eta, horrenbestez, -T(Z)EA gabe -T(Z)EAK eskatuko du:

(15) BATZARRETAN HITZEGITEAK kalte egiten dio Joxeri.

Horrelako perpausetan, kontrakorik adierazten ez bada, perpaus txertatuko sujetua eta perpaus nagusiko izen sintagmaren bat erreferentzikide izango dira. Beste bat izatekotan, argiro eta zehazki markatu beharko da perpaus txertatuan edo, bestela, testuinguruak esango digu zein den falta den sujetu horren erreferentzia.

2.1.3.- -T(Z)EKO.-

Era honetako egituran hiru funtzio bezala bereizi daitezkeela dirudi: a) objektu funtzioa betetzen duenean, nolabait agindua edo erregua adierazten duen aditz baten mende dagoelarik:

(16) BOTIKA HORIEK HARTZEKO agindu dio medikuak.

b) ZERTARAKO galderari erantzuten dion perpaus txertatuak ere osatzen dago era honetara:

(17) MENDIRA JOATEKO erosi ditut bota berriak.

Bistan da, bai (16) eta bai (17) perpausetan -TZEKO bidezko itzuliaren ordeztu, subjuntiboa erabil daiteke:

(16') BOTIKA HORIEK HAR DITZALA agindu dio medikuak.

(17') ZU MENDIRA JOAN ZAITZEN erosi ditut bota berriak.

eta c) izen sintagma baten barruan ager daiteke, izen sintagma horren buru den izenaren edo adjetiboaren laguntzaile modura edo, alegia izen sintagma konplexu bat osatuz:

(18) MENDIRA JOATEKO gogoa agertu nion Itziarri.

(19) ISILIK EGOTEKO agindua eman digu goiko etxekoandreak.

2.1.4.- -T(Z)EN.-

Egitura hau agertzen duten perpaus txertatuek badirudi, axalean behintzat, adizlagun baten zeregina betetzen dutela. Hona hemen ager daitezkeen testuinguru bereziak:

(20) Zuk ongi KANTATZEN duzu.

Bistan da, (20) perpausaren agertzen den kantatzen hori perpausaren aditzaren lehenbiziko osagaia besterik ez da. Hain zuzen, euskaraz horrelaxe osatzen da aditzaren forma ez-burutua.

Baina guri batez ere interesatzen zaiguna beste era bateko egitura da, alegia, -T(Z)EN formako perpaus txertatua:

a) Lehenbizi, delako perpaus txertatu hori aspektu kutsuko zenbait aditzen menpean agertzen denean:

(21) Andoni INGELESEZ IKASTEN $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

b) Bestalde, hor ditugu zenbait aditz, menpeko perpausa forma hori hartzera behartzen dutenak:

(22) $\left\{ \begin{array}{l} \text{ikasi dut} \\ \text{banekien} \\ \text{asmatu dut} \end{array} \right\}$ IBILTZEN.

c) Erraz da eta zail da-rekin ere askotan -T(Z)EN forma agertzen zaigu:

(23) Liburu hori $\left\{ \begin{array}{l} \text{erraz da} \\ \text{zail da} \end{array} \right\}$ IRAKURTZEN.

Hauen parean -eta esanahiaren aldetik inolako diferentziarik ez da goela dirudi- -T(Z)EA forma ere agertuko zaigu:

(23') Liburu hori $\left\{ \begin{array}{l} \text{erraz da} \\ \text{zail da} \end{array} \right\}$ IRAKURTZEA.

d) "Hautemate" aditzekin ere -T(Z)EN forma agertuko zaigu axaleko egiturean:

(24) Andoni ikusi nuen atzo EGUNKARIA EROSTEN.

(25) Lapurrak entzun zituen ETXERA SARTZEN.

e) Eta azkenik, bada zenbait aditz, AUSARTU, UTZI, eta abar, konplementutzat -T(Z)EN forma eskatzen dutenak:⁵

(26) Ez zen ausartu DENEN AURREAN HITZEGITEN (edo HITZEGITERA).

(27) Ez didate utzi BARRURA SARTZEN.

2.1.5.- -T(Z)E + gainerako erlazio atzizkiak.-

Orain arteko egiturez gainera, badira beste asko, atzizki desberdinez baliatzen direnak. Hain zuzen, atzizkiak hartze hori

izango litzateke taxu honetako perpausak funtsean izen sintagma baten forma hartzen dutelakoaren froga, atzizkiak normalki izen sintagma bati erasten baitzaizkio. Eta, gainera, -T(Z)E atzizki izentzaille honen ondoren, berez, edozein kasu marka edo deklinabide atzizki ager daiteke:

a) NORI:

(28) KRISTALAK APURTZEARI ekin zioten.

(29) DIRUA MODU TXARREZ IRABAZTEARI lapurreta deitzen diote.

b) NOREN:

(30) GEZURRAK ESATEAREN ondorio txarrak denok ezagutzen ditugu.

(31) ZUREGANA ETORTZEAREN arrazoiak garbi daude.

c) NOREKIN:

(32) NIK ETXEA SALTZEAREKIN ez duzu asko irabaziko.

d) ZERTAZ:

(33) LIBURU HURA EROSTEAZ gogoratu behar dut bihar.

(34) ZU HEMEN IKUSTEAZ poz hartzen dut.

baita GERO 'posposizioaren' laguntzan ere:

(35) SAGARDOA EDATEZ GERO, ona edan behar da.

e) NON:

(36) MENDITIK ETORTZEAN aurkitu zituen perretxikoak.

f) NONDIK:

(37) ASKO IRAKURTZETIK datorkio jakituria guztia.

g) ZERTARA:

(38) ZU IKUSTERA joan ginen.

Zenbaitetan, oso erabilia ez bada ere, baldintza balioa du:

(39) "asco dira eztaquienac, nola moldatu guindezquean,
ALA NAI IZATERA, onezco damua sortzeco".⁶h) NOIZKO:

(40) ZU ETXERATZERAKO, hamarrak izango dira.

Eta baita hemendik erakarriak ere, noiz edo zertarakoan galderari erantzungo lioketenak:

(41) MENDIRA IGOTZERAKOAN euria egin zigun.

i) NORAINO:

(42) GAISORIK JARTZERAINO behartu zuen gorputza lanean.

j) PARTITIBOA:

(43) Ez dugu ZU JOATERIK nahi.

(44) Zuekin ez dago BIZITZERIK.

k) ZERGATIK/ ZERTARAKO:(45) ZU $\left\{ \begin{array}{l} \text{IKUSTEAGATIK} \\ \text{IKUSTEARREN} \end{array} \right\}$ etorri dira.Honen ordain gisa eman daitezke -T(Z)EKO taxua duten perpausak ere:

(46) ZU IKUSTEKO etorri dira.

Bestalde, formalki bederen, azken honetatik erakarritzat hartu beharko dira -T(Z)EKOTAN eta antzekoak ere:

(47) ETXE BERRI BAT EROSTEKOTAN genbiltzan.

Honen azpian, agian beste honako hau suposatu beharko da:

(47') ETXE BERRI BAT EROSTEKO ASMOTAN genbiltzan.

Azken perpaus hauek ez dute -iruditzen zait- problema larregirik sortzen, behin -T(Z)E formaren agertzea esplikatuz gero. Horregatik, lan honetan, batez ere 2.1.1¹ eta 2.1.4² bitartean jasotako egiturez arituko gara. Izan ere, hauek dira perpausaren sujetu edo objektu funtzioa betetzen dutenak. Eta horiek aurkeztuko dizkigute arazorik larrienak aditzaren subkategorizatzea aurrera eramateko orduan. Horregatik, ondoren ikusiko ditugunak ere ez zaizkigu, kasu berezi batzuetan ez bada, gehiegi interesatuko. Hala ere, hona hemen partizipio burutuaz, hot³s: -TU formaz, baliatzen diren perpaus txertatuak.

2.2.- Partizipiozko formak.-

2.2.1.- -TU (IZAN)A erako perpausak.-

Funtsean, badirudi -T(Z)EA ager daitekeen testuinguru berean ager daitezkeela perpaus hauek, baina -T(Z)EA-rekin izango lukeen diferentzia bakarra aspektuari dagokiona izango litzateke, ondoko bi perpaus hauek garbi adierazten duten bezala:

(48) Atsegin dut MENDIRA JOATEA.

(49) Biziki poztu ninduen ZU HEMEN IKUSI (IZAN)AK.

Lehenbiziko perpausean hizki handiz markatua datorren perpaus txertatuak ohiturazko ekintza bat edo, adierazten duela dirudi, eta inolaz ere ez, burututako zerbait. Ostera, (49) perpausean burututako zerbait ez ari garela dirudi. (50) esaten dudanean bezala:

(50) Damu dut ZU NAHIGABETUA.⁷

Perpaus honek esan nahi du gutxi gora behera honelako zerbait: "zu nahiagabetu zaitut (beraz, zerbait burutua) eta damu dut".⁸

Era honetan, forma hau zeharo hedatua ez bada ere, badirudi -T(Z)EA ager daitekeen testuinguruetan⁹ ager daitekeela, eta -T(Z)E formak har ditzakeen kasu marka guztiez balia

daitekeela, diferentzia bakarra, esana dugun bezala, aspektuari dagokiolarik. Hona hemen adibide batzu:

(51) ZU HEMEN IKUSIAK harritu nau.

Hala ere, ez dirudi diferentzia handiegirik dagoenik (51) eta (52) perpausen artean:

(52) ZU HEMEN IKUSTEAK harritu nau.

Hortaz, aspektu kontu hori xehekiago ikusi beharko litzateke, zeren zenbait testuingurutan behintzat -agian informazioa erredundantea gertatzen delako edo, zeren perpaus nagusiak markatzen baitigu ekintzaren perfektotasuna edo burutua izatea- neutraldu edo, egiten dela dirudi kontraketasun hori. Hona hemen beste zenbait adibide:

(53) GU KALEAN BERANDU ARTE IBILI (IZAN)AREN ondorioak...

Hala ere, erabilera hau bestea baino dexente mugatuagoa dela ematen du. Dena dela, -T(Z)EA / -TU(IZAN)A oposizio honek argi uzten du gauza bat eta hau da: euskaraz ere aspektu oposizio hau perpaus egitura osoa duten nominalizazio edo konplementazio-etan bakarrik gertatzen dela:¹⁰

(54) ZU NEREGANA ETORTZEA harriagarria da.

(55) ZU NEREGANA ETORRI IZANA harriagarria da.

Alegia, bi formak posible dira perpaus txertatuak perpaus oso bati dagozkion elementuak bere hartan gordetzen dituenean, baina inola ere ez, gero ikusiko ditugun izenki erakarriekin:

(56) ZURE JATEA harriagarri gertatzen zait.

(57) *ZURE JAN IZANA harriagarri gertatzen zait.

Hain zuzen, hau izango da bi izenkien edo egituren arteko diferentziarik nabarmenenetarikoa eta egitura batari eta besteari deribazio desberdina ezartzeko arrazoirik nagusienetakoa.

2.2.2.- Gainerakoak.-

a) Era honetako egiturez gainera, -TU forma izen sintagma baten barruan izen baten ondoan, adjetibo modura edo ager daiteke:

(58) Uso HILAK dira nire ahotik ateratzen diren bertsoak. Horrenbestez, izen predikatu modura ere ager daiteke delako egitura hori:

(59) Gizon hori ZUK IAZ NIRI AURKEZTUA da.

Egitura hauek erlatibozko perpausetik oso hurbil daude eta, erlatibo baten bidez esplika daitezke, erlatibo laburtuak besterik ez bailirateke.¹¹ Hala ere, diferentziaren bat izan daiteke honako perpaus hauen artean:

(60) a. Zaldi hori NIK EROSIA da.

b. Zaldi hori NIK EROSI DUDANA da.

b) -TU perpausa ager daiteke, erdarazko infinitiboaren antzera, zenbait aditzen konplementu bezala ere, batez ere sujetu erreferentzikidea duelarik eta, horrenbestez, EQUI edo antzeko transformazioaren bat¹² gertatzen delarik:

(61) ETXERA LAGUNDU behar diogu Andoniri.

(62) OSTIKADA BAT EMAN nahi izan zidan.

BEHAR eta NAHI izango lirateke jokabide hau eskatzen duten aditzik nagusienak, baina badira beste zenbait ere, beren adiztasuna guztiz eztabaidagarria bada ere: EZIN, OHI, AHAL, ...

c) -TU erako perpausa agertzen da, baita ere, zehargaldera mota berezi batean:

(63) Badakit NORI ESAN.

(64) Ez didate esan ZER EGIN.

Hemen, dena den, euskalki arteko bereizkuntza bat dago: iparraldekoek -TU ez, $\emptyset$ baizik, erabiliko baitute. Bestalde, hau izango litzateke jatorrena:

(65) Badugu ZER EROS.

d) Azkenik, adizlagun bezala ere ager daiteke -TU perpausa, batez ere -Z instrumentalaren markarekin edo -IK atzizkiarekin agertzen denean:

(66) OIHU HANDI BAT EGINEZ aldegin zuen gure ondotik.

(67) OIHU HANDI BAT EGINIK aldegin zuen gure ondotik.

Hemen alpatu beharko genituzke instrumentalaz gainera GERO posposizioa ere erabiltzen dutenak:

(68) Mozkorra ~~harrapatzen~~ da EDANEZ GERO.

(69) NI JOANEZ GERO, hainbat gauza gertatu da hemen.

Eta baita, /partizipio + -IK/adberbiozko perpausaren balio-kide den /partizipio + -TA/itzulia ere: -

(70) OIHU HANDI BAT EGINDA aldegin zuen.

Hemen, eginda egin + eta itzulitik sortarazia dela garbi dago.

e) -TU + ARREN, -TU + AGATIK.-

(71) ZU POZIK IKUSIARREN, nik ez dut poz handirik.

(72) ZU POZIK IKUSIAGATIK, nik ez dut poz handirik.

Hanek, formaren aldetik nola osatuak dauden garbi dago. Esanahia-ren aldetik, berriz, kontzesiboak dira.

Dena dela, esan dugun bezala, lan honetan ez gara hemen azaldu dugun arlo zabal honetaz arituko, arlo honetako zenbait egituraz baizik: bereziki, sujetu eta objektu papera betetzen dutenekin jokatuko dugu.

OHARRAK (I atala)

1. Atzizki honen formaz ez gara arduratuko hemen. Ikus De Rijk 1981, 94-101, adibidez.
2. J.B. Agirre, Erac. I, 68 orr.
3. J.A. Moguel, Peru Abarka, 125 orr.
4. Ikus VI atala.
5. Baina bada problema bat -T(Z)EN perpaus hau dela eta. Izan ere, badira euskaraz zenbait egitura forma hori dutenak baina ez dutenak ematen bereziki aditzak aukeratuak direnik, edo, UTZI edo AUSARTU aditzekin izango luketen lotura estu hori ez dutenak. Gainera, askotan badirudi badutela beste itxura bateko ordain jatorrik: -TU(A)Z formako perpausa, alegia. Hona hemen adibide batzu:
 - (a) "Zeinbat irabazten eztabee ikazgiñak? Zeinbat itzaiñak, ikatzak olara EROATEN, errenterietatik mea EKARTEN, burdifiea bera ERAASTEN?" (Peru Abarka, 85).
 - (b) "An aguertuco dira ni ESETSI, TA SALATUTEN, tentatu ninduen deabruac." (Añibarro, Escu liburua, 30).
 - (c) "ta (hura) ikuskarria da bide agiri ta kaleetati zear IGAROTEN bere obrera erdi gorritu, erdi balzituaz." (Peru Abarka, 85). Dena den, esplikatatu egin beharko litzateke, adibidez, zergatik gertatzen den ondoko perpausen artean dagoen desberdintasuna gramatikaltasunaren aldetik:
 - (d) Liburuak salduz bizi da.
 - (e) ?Liburuak saltzen bizi da.
 - (f) ?Liburuak ordenatuz geratu da.
 - (g) Liburuak ordenatzen geratu da.
 Gramatika arauemaille batek oso kontuan izan behar duen gaia da hau. Azken batean, badirudi perpaus txertatu horiek forma desberdina hartzen dutela semantikaz desberdinak direlako. Horregatik, perpaus horiei galdera desberdinak dagozkie: NOLA bizi da? vs. ZERTAN geratu da?
6. J.B. Agirre, Erac. I, 185 orr.
7. Ikus: "Nik zer kulpa dadukat / zuk ume asko aziya?" (Txirrita)
8. Ikus: "Gure aitzak milagrotzat hartu zuen idia ez amildua" (M. Elizegi eta A. Zavala, Pello Errotaren bizitza).
9. Hots: aspektuarentzako lekua uzten dutenetan, ez -T(Z)EN, -T(Z)EKO eta abarretan.

10. Ikus VIII atala.
11. Ikus daiteke, adibidez, I. Sarasola 1977, 18 orr.
12. VI atalean, azken teoria sortzaileari jarraituz, beste bide bat eskaintzen da.

II ATALA



PERPAUS KONPLETIBOEN ERAKARBIDEA

Aurreko orrialdeetan euskal konplementazioaren errepaso moduko bat egin dugu, oso axaletik izan bada ere. Har dezagun orain, adibide gisa, eta gero zehazteko asmoarekin, perpausaren objektu funtzioa betetzen duten perpaus pare bat. Adibidez, lehen eman ditugun perpaus hauek:

(1) Andonik IDI BAT HEGAN IKUSI DUELA esan digu.

(2) BATZARRETAN HITZEGITEA debekatu didate.

Hauek, axalean behintzat, zeharo desberdin agertzen zaizkigu. Baina nolako itxura izango lukete sakoneko egituran? Lehen hurbiltze gisa, pentsa genezake honelako zerbait izan daitekeela bi perpaus horien sakoneko egitura:



Bi perpaus hauen artean lehenbizi agertzen den desberdintasuna aditzaren osagaiena da. Lehenbizikoan aditza bere osagai guztiekin ageri da, alegia, pertsona, aspektu, denbora eta abarrak ongi markaturik dituela. Bigarrenak, berriz, ez du horrelako ezer aditzera ematen. Bestalde, DEBEKATU aditzak bere konplementua gero-ra bialtzen duela ematen du: debekatzeko dena ez da zerbait gertatua, gertakizun baizik. Hau, jakina, aditz nagusiaren semantikak agintzen digu.

Bi perpaus horien egiazko egitura (3) eta (4)-ekoa den ala besteren bat, eztabaidatu egin beharko dugu eta, batez ere, konturatu behar dugu, adibidez, zenbait aditzek era bateko konplementua eskatzen duela, beste aditz batek beste era batekoa eskatzen duen bitartean. Adibidez, honako bi perpaus hauek zeharo ez-gramatikalak ematen dute direla:

(5) *Andonik IDI BAT HEGAN IKUSTEA esan digu.

(6) *BATZARRETAN HITZEGINGO DUDALA debekatu didate.

Hor ikusten da, aditz nagusiak aukeratzen duela bere konplementuaren zernolakoa. Eta, horrenbestez, garrantzi handikoa dela aditzak behar bezala sailkatzea. Agian, lehenbiziko batean ez dugu taxonomia hutsetik iher egiterik izango, baina gero, taxonomia begien aurrean dugularik, agian saia gaitezke sailkapen taxuzkoagoa egiten, batez ere semantikaren alderdia ere kontutan harturik.

Era berean, nonbait esan beharko da EGIA DA moduko predikatuen baten sujetua /perpaus mugatua +-(E)LA/izango dela, baina GARRANTZITSUA DA moduko batean ezin daitekeela era horretakoa izan, -T(Z)EA erakoa baizik. Gainera, aditzekin bezalaxe, kontutan izan behar dugu zenbait adjetibok ez duela inolako perpaus erako sujeturik onartuko: GORRIA DA-k, adibidez, ez du perpaus konplementurik ez sujeturik ametituko. Eta hori dena, gramatikak nonbait esan

behar digu. Lekurik aproposena lexikoia izango da, aditz bakoitzaren ezaugarri lexikoak baitira horiek.

Lan honen helburua, hortaz, tartean arazo asko badira ere hasi eta buka analisi oso eta erabatekoa egin ahal izateko, euskal konplementazioari hurbiltzea litzateke.

1.- Konplementatzaileak.-

"Complementizer", like so many terms in linguistics, is a rebarbative word. A natural suspicion attaches to objects going by such a name. Unlike such weighty and venerable things as predicates, quantifiers, sentences, and even conjunctions, the so-called "complementizers" lack ready associations with logic" dio Bresnanek.¹

Konplementatzaile deitzen diogu perpaus konpletiboek eraman ohi dituzten zenbait partikulari, nolabait esateko. Perpaus txertatu hauek beren menpekotasunaren marka gisa eraman ohi dituzten morfemak dira konplementatzaileak. Deitura hau Rosenbaum-i zor zaio² eta harrez gero arrakasta handia izan du. Kritikak ez dira falta, hala ere. Hernanz (1982)-k, adibidez, dio konplementatzaile kontzeptu hau Rosenbaum-enean zehaztasunik gabe eta nahasia agertzen dela: "Parece algo vago y difuso" dio.³

Rosenbaum-ek COMP sailean zenbait elementu sartzen ditu, baina agian infinitiboa bera ez litzateke izango COMP horren gauzatzeetariko bat.

Bresnan-ek berak ere zabalagotu egiten du COMP horren azpian ager daitezkeen morfemen multzoa.⁴

Dena den, COMP delako atal bat jadanik beharrezkotzat jotzen dute denek, osagai hau transformazio bidez txertatua dela nahiz perpaus-egitur-erregelaren baten bidez agerreraia dela. Hala ere, "without detailed and careful research into many languages,

one cannot begin to define "complementizer" in an adequate way. But which I do not attempt to define "complementizer", I try to show that those conjunctive particles of English which I call complementizers are a subject of interest, and perhaps even a syntactic category" dio Bresnanek⁵. Eta, hain zuzen, problemak COMP horren azpian zein morfema sartu behar den erabaki nahi dugunean sortzen zaizkigu. Bresnan-ez geroztik COMP atala ontzat ematen da eta, dirudienez, bi tasun dira bereziki kontutan hartze-koak: [+WH] eta [-WH] (hots: [+GALDERA] eta [-GALDERA]). Hortik aparte, eta Hernanz-en argudioari jarraiki, galde liteke ea zergatik Rosenbaum-ek ez duen zehargalderei legokiekeen COMP atala kontutan hartzen. Bresnan-ek hartzen du, eta ez bakarrik hori: zehargalderek COMP berezi bat dutela frogatzen du eta, hain zuzen, COMP berezi hau badelakoak COMP-ek nolabaiteko pisu semantikoa baduela frogatzen digu, Bresnan-en ustez. Dena dela, arazoak, batez ere sail honetan agertuko zaizkigu. Adibidez, Demonte-rentzat gaztelaniaz galde-hitzak ez dira konplementatzaile.⁶

Bestalde, Rosenbaum-entzat zenbait elementu COMP-en agerpen baziren -THAT, FOR-TO eta POSS-ING, hain zuzen- Bresnanentzat abanikoa zabaldu egiten da eta COMP-i dagozkion morfemen artean honako hauek sartuko ditu: THAT, FOR, THAN, AS eta WH. Gainera, ez du kontutan hartzen Poss-ing delako konplementatzailea. Ez dago oso garbi beretzat COMP-en gauzatze den ala ez: "Two particularly obvious defects are my complete disregard of the so-called POSS-ing complementizer and my invidious neglect of the relative clause in favor of a fairly detailed analysis of the comparative" dio.⁷

Problemarik nagusia, hortaz, ez da COMP baden ala ez, konplementatzaileen sailean zein elementu sartu behar diren baizik. Hernanz-ek, esaterako, ez du ontzat ematen infinitiboa konplementatzailetzat hartzea. Hizkuntzalari honentzat, Kiparskytarrentzat

bezala⁸, infinitiboa ez da agertzen perpaus txertatuan aditz nagusiaren subkategorizatzeak hala eskatzen duelako. Infinitiboaren agerpena perpaus elkartu osoari dagokion zenbait baldintzatan bilatu behar omen da, bereziki infinitiboa perpaus txertatuak bere subjektua 'galdu' egin duelako agertuko omen da: "La teoría de los Kiparsky constituye (...) un punto de partida interesante, en la medida en que consigue superar, en el seno de una formulación transformacional, las deficiencias que a ésta se le han achacado: el infinitivo vendría "desencadenado" a partir de una determinada configuración estructural que se diferencia, en un nivel relativamente superficial de la derivación, de la que se adjudica a las restantes completivas"⁹.

Bestalde, infinitiboa COMP ez delakoaren alde Hernanz-ek ematen duen arrazoirik sendoena da infinitiboa subordinazio nominaletik kanpo ere agertzen dela, bereziki adverbiozko perpausetan. Baina horrelakoetan nola esplikatzen da infinitiboaren agertzea?: "La existencia de proposiciones de infinitivo adverbiales constituye una prueba empírica importante en contra del concepto de "complementante" aplicado a dicha forma no personal y en favor de los supuestos de los dos autores mencionados (hots: Kiparskytararak). Recuérdese, en efecto, que los complementantes, tal y como los concibe Rosenbaum, se entienden como rasgos sintácticos que afectan a la subcategorización verbal. Dado que el dominio de ésta no se extiende más allá de la frase verbal, no habría entonces manera de prever las "ocurrencias" de infinitivos que, como es el caso de la subordinación adverbial, aparecen dominados por un nódulo superior a FV"¹⁰.

Eta konplementatzailea zer izan daitekeen jakin nahian gabiltzanez, honela gehitzen du Hernanz-ek ohar batean: "De hecho,

el "status" del complementante inglés correspondiente al infinitivo castellano no coincide en Bresnan (1970) y Bresnan (1972): en el primer trabajo, for... to se trata como un único complementante, a la manera de Rosenbaum, mientras que, en el segundo, solamente /for/ aparece dominado por el nódulo COMP. Semejante disociación dificulta aún más, si cabe, la adopción de las tesis de Bresnan en el tratamiento del infinitivo en español"¹¹.

Dena den, euskarari gagozkiola, COMP delako atal bat guk ere ontzat emango dugu. Baina erabaki egin beharko dugu ea zein elementu hartu behar ditugun konplementatzailatzat. Gauza ez dago oso argi. Perpaus txertatuko aditza mugatua denean gauzak errazago agertzen zaizkigu. Horrelakoetan badirudi agertuko zaigun atzizkia -(E)LA edo -EN har dezakegula COMP-tzat. Hala ere, gaztelan bezala, atzizki hauek aditz subjuntiboarekin ere ager daitezke. Eta orduan ez dakigu egiazki COMP bakartzat hartu behar dugun -(E)LA edo -EN hori ala /indikatioa + -(E)LA / eta /subjuntioa + -(E)LA / bi konplementatzaile desberdintzat hartu behar ditugun. Bresnanez subjuntioa ez du kontutan hartzen. Baina gaztelan, adibidez, garrantzi handikoa da subjuntioa.¹²

Gauzak oraindik nahasiago dira. Zeren, badakigu euskaraz sub untiozko perpausik gehienak -TZE formako aditz mugagabeaz eman daitezkeela. Baina orduan, zein da konplementatzailearen gauzatze morfologikoa? Lehen begiratu batean behintzat, badirudi irakurtzea esaten dudanean hurbilago nabilela ingelesezko reading-etik to read-etik baino. Eta, hain zuzen, Bresnanez bere analisisian alora utzi du "the so-called poss-ing complementizer". Hortaz, aditz mugagabearen aurrean aurkitzen garenean zein da konplementatzailea? Eta subjuntioa daukagunean?. Dena dela, gure lan honetan subjuntioa alde batera utziko dugu.

Hasiera batean pentsa liteke forma hau (-T(Z)EA, alegia), gaztelaniazko infinitiboaren parekoa dela eta tentatuak egon ginatezke gaztelaniazko infinitiboaren sorrera bera izan dezakeela pentsatzeko. Esana dugunez, Hernanz-ek ez du infinitiboa konplementatzailatzat hartzen, eta, gainera, sujetua galtzetik sortzen omen da infinitibo hori gaztelaniaz. Eta euskaraz? Badirudi euskaraz -T(Z)EA perpausa agertzen dela sujeturik ez dugunean:

(7) Olerkiak irakurtzea atsegin du Iñakik.

Hemen EQUI edo antzekoren bat¹³ onartuz, perpaus txertatua sujeturik gabe geldituko litzaiguke. Gaztelaniaz bezalaxe, hortaz. Baina gauzak ez dira horrela. Izan ere, euskaraz goiko perpaus horren ondoan beste hau ere aurki genezake:

(8) Itziarrek olerkiak irakurtzea atsegin du Iñakik.

Hemen ez dago jadanik EQUI-rentzako lekurik eta, horrenbestez, perpaus txertatuko sujetua ez zaigu izkututzen. Kasu honetan gaztelaniaz ez litzateke infinitiboa agertuko. Baina euskaraz hor dugu -T(Z)EA oraingoan ere. Horrek esan nahi du euskaraz aditz mugatua agertzea edo aditz izena agertzea ez dagoela sujetua agertzean edo ez agertzean, perpaus nagusiko aditzaren baitan baizik. Hortaz, forma bat agertzea edo bestea agertzea gehienbat aditz nagusiari zor zaio. Beraz, COMP-en aukera subkategorizatze fenomeno tipiko enetakoa denez, euskaraz -T(Z)EA forma agertzea COMP berezi baten agertzeari zor zaio. Oraingoñ ez naiz ausartzen COMP hori -T(Z)EA dela esaten, baina, nolabait, forma hori konplementatzailea [-GALD] tasuna duena denean eta aditza mugagabea denean agertuko zaigu. Zeren, badakigu euskaraz aditza mugatua ez bada, COMP galderazkoa denean -alegia, [+GALD] denean- agertuko zaigun forma ez dela hori izango, aditz erro soila baizik, edo gaurko hegoaldeko euskaldunak gehienontzat, partizipioa:

(9) Bihar mendira joatea pentsatu dugu ([-Gald])
COMP

(10) Bihar nora joan pentsatuko dugu ([+Gald])
COMP

Omena dugu, behar bada, COMP hori, tasun multzo bat denez¹⁴, eta batez ere +GALD tasuna omen denez garrantzia duena, bere horretan uztea eta gero, perpaus txertatuak, aditza mugatua ala mugagabea duen kontutan harturik, forma bata edo bestea hartzen duela pentsatzea. Hortaz, -T(Z)E- aditzak hartzen duen forma da, besterik ez. Konplementatzailea zein den aurrerago ikusiko dugu.

Alde horretatik, lagungarri gerta lekiguke Chomskyk ematen digun erregela pareta:

(11) a. $S \rightarrow \text{COMP NP } \left\{ \begin{array}{l} T (M) \\ (\text{for}) - \text{to} \\ 's - \text{ing} \end{array} \right\} \text{ VP}$

b. $\text{COMP} \rightarrow P \text{ NP } \text{+WH}^{15}$

Erregela hauen bidez eta beste zenbait erregela zikliko-ekin sortzen omen ditugu konplementu perpaus guztiak. COMP horretara mugitzen direlarik perpaus barruko zenbait atal, sortzen zaizkigu perpaus txertatu desberdinak: that konpletiboak, erlatiboak, zehargalderak, gerundiozkoak eta abar. Euskaraz hori alako mugidarik ez badago ere, COMP elementuaren premia badugula uste dut, zeren perpaus txertatuak forma desberdina erakusten baitu galderazkoa denean eta galderazkoa ez denean. Bestalde, mugida kontuak gorabehera, aurrerago ikusiko dugun bezala, COMP hori beharrezkoa izango dugu kasu markak non koka erabakitzerakoan. Bestalde, ingelesez laguntzaileak hartzen dituen hiru forma horien ordezkuk beste hiru hauek jarri beharko ditugu:

(12) $S \rightarrow \text{COMP NP } \left\{ \begin{array}{l} T (M) \\ -T(Z)E \\ \emptyset / -TU \end{array} \right\} \text{ VP}$

Hau onartuz gero, euskaraz konpletiboak lau motatakoak izango genituzke funtsean, COMP horren arabera:

1) COMP ez-galderazkoa bada, bi aukera ditugu:

a) aditz mugatua badugu, -(E)LA atzizkia agertuko zaigu

b) aditz mugagabea izanez gero, -TZEA, -TZEN, -TZEKO, e.a. agertuko zaizkigu perpausaren ezaugarri modura.

2) COMP galderazkoa denean ere beste bi aukera izango ditugu:

a) aditz mugatuarekin, -(E)N atzizkia eramango du perpaus txertatuak.

b) aditza mugagabea bada, $\emptyset$ edo -TU (euskalkien arabera) izango da perpausaren ezaugarria.

Horrela, honako lau perpaus mota hauek bereziko ditugu:

(13) Esan diot BIHAR JOANGO GARELA.

(14) Proposatu diot BIHAR JOATEA.

(15) NORK ESAN DUEN ez dakigu.

(16) Ez dakigu NORA JOAN.

2.- Hipotesi transformazionalista vs. Perpaus-egitur-hipotesia.


Gramatika sortzailearen helburua hizkuntza bateko perpausen multzoa sortaraziko dituen erregelak bilatzea denez,¹⁶ perpaus hauei buruz bada nahikoa katramila. Eta lehenbizikoa, hain zuzen, konplementatzaile deitu ditugun elementu hauen sorrera dugu. Alegia, honako galdera honi erantzun beharko genioke, hots: COMP hori transformazio bidez txertatzen dugu ala perpaus-egitur-erregela batzuren bidez sakoneko egituren bertan agerrerraziko dugu? Berez, ezin esan daiteke zein den soluziorik hoberena: transformazio erregelek

txertatzen badute konplementatzailea bere garaian, gramatikaren oinarria arintzen dugu. Alderantziz, perpaus-egitur-erregeleri uzten badiegu lan hori, oinarriak pisu handiagoa hartuko digu, baina transformazio erregela bat gutxiago behintzat izango dugu. Baina ikus dezagun nola izan diren bateko eta besteko proposamenak:

2.1.- Rosenbaum (1967).-

2.1.1.- Gramatika sortzailearen barnean konplementazioaz egin diren azterketa guztien abiapuntua den lan honetan bi egitura mota bereizten dira, funtsean: a) perpaus txertatua izen sintagma baten azpian ageri denean eta b) perpaus txertatua izen sintagmaren azpian ez, zuzenean aditz bati loturik, aditz sintagmaren azpian, dagoenean. Adibidez:¹⁷


(a)



Adibidez, honako perpaus honi dagokion egitura (a)-koa izango litzateke:

(17) I think that John will be late.

eta (b)



perpaus honetan bezala:

(18) We forced John to ignore his work.

Izen sintagmaren azpian agertzen diren perpaus konpletibo hauei guztiei sakoneko egitura bera ematen zaie, axaleko egitura desberdina izan arren. Axaleko egiturak desberdinak badira esan nahi du transformazio desberdinei esker sortu direla egitura desberdin horiek. Eta bereziki konplementatzaile baten ordez beste bat aukeratzetik etorriko litzateke diferentzia. Konplementatzaile hauek transformazio bidez txertatzen dira, eta esanahirik gabeak direla suposatzen da, transformazioek, Katz eta Postalen hipotesiaren arabera,¹⁸ esanahirik ezin alda dezaketela uste denez.

Baina konplementatzaile desberdinak agertzen direnez eta a aditz batzuk era bateko konpletiboa onartzen duten bitartean, (that-konplementua, adibidez), beste batzuk beste era batekoa onartzen dutenez, arazoa da perpausak zuzen osatuak izan daitezen behar den tresneria formala bilatzea. Aski da -dio- aditz guztiak lexikoian markatzea aditz bakoitzak onartzen dituen konplementatzaile desberdinen arabera: halako aditzek halako konpletiboa onartzen du; beste halakok bestea, eta abar. Konplementatzailea transformazio bidez txertatzen bada, transformazio erregela bakoitzak bere egitura deskribapenean tasun hauek aipatu beharko ditu. Transformazio erregelak konplementatzaile jakin bati dagokion tasun sorta txertatuko luke perpaus txertatuaren aurrean. Konplementatzaile bakoitza, edozein banako lexikal bezala, tasun sorta batez definitua dator lexikoian eta konplementatzaile egokiaren hautapena aditz nagusiaren arabera egiten da.¹⁹


Adibidez, eta euskaraz sistema honek nola lan egingo lukeen ikusteko, har dezagun USTE bezalako aditz bat. Honek -(E)LA-dun konplementua hartuko du:

(19) Joango naizela uste dut

baina -(E)LA konplementatzailea bada eta konplementatzaileak trans-

formazio bidez agerrerazten ditugunez, Rosenbaum-en arabera, goiko perpaus horren sakoneko egitura, gutxi gora behera eta Rosenbaum-en sistema euskarari egokituz, honako honen antzekoa izango litzateke:

(20)



Alegia, ontzat ematen dugu USTE-k izen sintagma gisako konpletiboa onartzen duela. Bestalde, aditz hori -(E)LA konplementatzailea ezartzea eskatzen dutenetakoa da. Horrela markatua agertuko litzateke lexikoian aditz hori eta, horrenbestez, ziurtatua geldituko litzateke USTE-k konpletibo egokia hartuko duela. Gero, hor agertzen den izenordain hori (guk HURA jarri dugu; Rosenbaum-ek it jartzen du) ezabatu egin beharko litzateke.²⁰

2.1.2.- Rosenbaum-en teoria honek kritika ugariak izan ditu: 1) Lehenbizi aipatu ohi den hutsa teoria honen ahalbide esplikatibo urria da. Badira, izan ere, konplementatzaile bakar bat ez, gehiago baizik, izan ditzaketen aditzak. Hori Rosenbaum-ek berak ere aitortzen zuen eta aditz horren tasunak zehazterakoan horren berri eman beharko du. Baina hona hemen arazoa: konplementatzaileak transformazio bidez agertzen direnez eta zentzurik alda ez dezaketenez,²¹ aurkitzen gara bi konplementu itxura desberdinekorekin baina esanahi bera dutelarik. Aditz bakoitzak konplementu mota bakar bat eraman balezake ez genuke problemarik izango.²²

Baina nola konpondu aditz batek konplementu mota bat baino gehiago onartzen duenean? Euskaraz, adibidez, zenbait aditz ager daiteke edo subjuntibozko konpletibo batekin eta -T(Z)E forma batekin, -(E)LA atzizkidun konpletiboaz gainera. Subjuntiboa eta -T(Z)E forma badirudi baliokideak direla, baina beste batzutan konplementatzaile desberdinak esanahi desberdina erakusten digu. ESAN aditza lekuko:

- (21) Isilik egongo zirela esan nien. (=Indik. + -(e)la)
- (22) Isilik egon zitezela esan nien. (= Subjunt. + -(e)la)
- (23) Isilik egoteko esan nien. (= Perp. mugagabea + -ko)

(22) eta (23) zentzukideak ditugu baina (21) ez da beste bien parekoa. Lehenbizikoak, (21)-ek alegia, balio adierazkor soila du, asertiboa, esango genuke. Beste biek, berriz, agindu bat adierazten dute. Gelditzen den irtenbidea hau izan liteke: edo bi aditz ditugula onartu,²³ ESAN₁ eta ESAN₂, bakoitzak bere konplementatzaile berezia eskatzen duelarik; edo bestela, onartu beharko da transformazioek esanahia aldarazten dutela eta, beraz, badirela axaleko egituran lan egiten duten erregela semantikoak.

2) Honela adierazten du beste kritika nagusi bat Hernanz-ek: "Aunque intuitivamente parece incontestable cualquier hipótesis que de algún modo vincule la completiva al verbo regente, no parece que sea posible dar cuenta globalmente de la presencia de tal o cual complementante recurriendo a determinados rasgos idiosincráticos de aquél. En rigor, no puede negarse que hay verbos que admiten o exigen que y/o infinitivo; sin embargo, esto constituye, sin más una explicación parcial y poco satisfactoria, ya que trata en términos de pura subcategorización "ad hoc" fenómenos cuyo ámbito trasciende la esfera verbal y se sitúa en el plano de toda la ora-

ción compuesta. Más concretamente, el procedimiento utilizado por Rosenbaum no permite relacionar la alternancia [+que] / [+infinitivo] asociada al verbo desear con las peculiaridades específicas de (9a) y (9b) respectivamente:

(9a) María desea que Juan toque el violín.

(9b) María desea tocar el violín.²⁴

Kasu honetan bistan da infinitiboa ez dela libreki agertzen, baina askatasun eza ez zaio zor, besterik gabe, DESEAR aditz nagusiari. Infinitiboa egitura sintaktikoak determinatua dago: batean nahitaezkoa da que + subjuntiboa perpaus nagusiaren eta txertatuaren izen sintagmen artean erreferentzirikidetasunik ez dagoenez. Eta, erreferentzirikidetasun hori gertatzen denean, gaztelaniaz nahi eta ez infinitiboa agertuko zaigu. Hortaz, gaztelaniaz aditzaren subkategorizatzea ez da aski infinitiboaren agerpena esplikatzeko. Hain zuzen, Hernanz-en tesi nagusia da -esana dugun bezala- infinitiboa agertzen dela baldin eta perpausa sujeturik gabe gelditu bada. Lan honetan zehar ikusiko dugun bezala, euskaraz ez dira gauzak horrela gertatzen: euskaraz aditz izena agertuko zaigu zenbaitetan nahiz eta sujetua agerian egon. Horrek esan nahi du euskaraz aditz izena agertzea, /indikativo + (e)la / agertzea bezala, aditz nagusiari zor zaiola. Beraz, euskararen aldetik agian ez luke hainbesteko zentzurik Rosenbaum-i egiten zaion kritikak. Gure ustez, perpaus nagusiko aditzak du erantzukizuna perpaus txertatuak hartuko duen forma erabakitzeko orduan.

Honekin batera egiten zaion kritika da taxonomia hutsean gelditzea: aditz bakoitzak, zergatik ez dakigularik, bere jokabide berezia izango luke. Ez da esplikatzen konplementatzaille bera

eskatzen duten aditzek duten antza. Adierazpen aditzek, adibidez, /indikati^{bo} + -(e)la/ eskatzen dute (adibidez, ESAN, ADIERAZI, AT-TORTU, KONTATU, BAIEZTATU, ...) baina ez aditz izenezko forma, adibidez. "Nahikunde" aditzek, berriz, subjuntiboa nahiz -T(Z)EA (-T(Z)EKO) eskatzen dute. Kontu hau aspaldikoa da baina Rosenbaum-en tresneriarekin ez da gauza handirik esplikatzeko ahal. Badirudi ez duela kontutuan hartzen, perpaus txertatuak honelako edo halako jokabide sintaktikoa badu, aditz nagusiari dagokion klase semantikoak determinatua datorrela jokabide hori.²⁵ Hain zuzen, zaspigarraren atalean arazo honi irtenbidea ematen saiatuko gara.

2.2.- Robin Lakoff (1968).-

Lakoff-en oinarri teorikoak Rosenbaum-enak berak dira:

a) sakoneko egitura bera dute konpletibo guztiek; b) konplementatzaileak esanahirik gabeko partikulak dira eta c) It seems that John is studying eta John seems to study perpausen artean dagoen diferentzia transformazioei zor zaie.

Hala ere, onartzen du aditz batek bi eratako konplementuak onartzen dituenean, diferentziaren bat izaten dela semantikaren aldetik.

Rule government delakoaz baliatuz lortzen du Lakoff-ek lotzea predikatuen zenbait tasun semantiko erregela sail batekin. Lexikoian klase semantiko bateko predikatu guztiei halako eta halako transformazio erregelak dagozkie. Aditzen subkategorizatze erregela moduko zerbait izango lirateke, tasun hauek. Aditzak, hortaz, dagozkien erregelei buruz markatuak etorriko dira. Kasu guztietan aplikatzen den -alegia, gobernatua ez den- erregela bat izango litzateke: konplementatzaile txertaketa. Gobernatua ez den erregela honen bidez konplementatzaile oinarritzkoena jarriko litzate-

teke. Ingelesez, that + aditz mugatua. Gero etorriko litzateke konplementatzailea aldatuko duen erregela. Hau gobernatua litzateke. Adibidez, komunikazio aditzek normalki that eskatzen dute ingelesez. Hemen sartzen dira SAY, TELL, MENTION, SUGGEST, DECLARE, eta abar. Aditz klase honentzat lexikoiak erredundantzi erregela bat izango du esango diguna delako aditz hori ez-markatua bada, ez duela konplementatzaile aldaketa erregelarik ikusiko. Komunikazio aditzen batek konplementatzaile aldaketa nozitzen badu, aditz horrek markatua egon beharko du lexikoian. Alderantziz, aginte aditzetan for-to erregularra denez, klase honetako aditz batek for-to konplementatzailea hartzeko ez du lexikoian erregela horretarako markatua egon beharko. Esan nahi baita, aginte aditzak berezkoa du konplementatzaile hori.²⁶

Hizkuntzalari honen tresneria gramatikala ere ez da kritikarik libratzen.²⁷ Lehenbizi, erregelen aplikazioari buruzko erregela horiek erabiltzea kritikatzeko sortua izan zen. Horrek esan nahi du, adibidez, aditz baten konplementua subjuntiboan joatea nahitaezkoa bada, irregularra den zerbaiten aurrean gaudela. Ikuspegi honetatik, zenbait aditzek subjuntiboa eskatzea zenbait idiosinkratikoa litzateke eta, bestalde, gramatikak ez digu esaten egitura horiek amankomunean ezer baduten.

Egia da Lakoff-ek erregela sintaktiko berek harrapatzen dituzten elementuekin klase semantiko bereziak osatzen dituela, baina ez zaigu oso argi esaten klase horiek nola finkatzen dituen.²⁸ Demontek dioen bezala, aditz sail bati "txartel" semantiko bat ezartzen badiogu, sintaktikoki nola jokatzeko duten ikusi ondoren, Rosenbaum-en analisitik oso aurrera ez gara joan.

Azkenik, transformazio bidezko esplikazio hauetan guzti-

etan kritikagarri den beste zerbait ere bada. Konpletiboak ametituzten dituzten aditz guztiak ezin dira gertatu konplementatzaile guztiekin. Beraz, argi dago perpaus nagusiko aditzak "agintzen" duela menpeko perpausak zein konplementatzaile hartu behar duen. Baina, Bresnan-ek seinalatzen duenez²⁹, konplementatzaile txertaketa-transformazioak aditz nagusiak daraman erregela-tasun hori "ikusi" beharko duenez, arazo bat gertatzen zaigu: ezin du transformazio horrek perpaus batean inolako konplementatzailearik txertatu perpaus horri dagokion transformazio zikloan, goiko perpausak menderatzen duen perpausari dagokion zikloan baizik. Baina "The key point is that complementizer insertion could not occur on the first cycle because the transformation would not 'know' which complementizers are permitted by the verb distress until the next cycle".³⁰ Bestalde, transformazioek perpaus txertatutik materiale zenbait ken dezakete, baina "beheragoko" perpausetan inongo transformazioek ezin du materiale morfologiko berririk sartu.³¹

2.3.- Perpaus-egitur-hipotesia: J. Bresnan.-

Hipotesi transformazionalistaren baieztapenatariko bat da konplementatzaileek ez dutela eduki semantikorik eta konpletibo mota desberdinek sakonean egitura bera dutela. Konplementatzaile desberdinak aditz nagusiak hala eskatzen duelako agertzen dira.

Kiparskytarak izan ziren lehenbizikoak axaleko egiturako bereiztasunak sakoneko egitura desberdinei zor zitzaizkiela frogatzen saiatu zirenak. Baina kritikarik gogorrenak Bresnan-en eskutik etorri zaizkio hipotesi transformazionalistari.³² Bresnanen iritziz, konplementatzaileak ez dira semantikaren aldetik hutsak. Hortaz, konplementatzaileak sakoneko egituran zehaztuak egongo dira. Hain zuzen, ba omen da ingelesez perpaus-egitur-erregela bat -eta

ez ingelesez bakarrik, konplementatzaileak dituen hizkuntza orotan ere, berak dioenez- konplementu motak sakoneko egituran bereizteko bidea ematen diguna. Erregela hori honako hau litzateke:

$$(24) \bar{S} \longrightarrow \text{COMP } S$$

COMP sinbolo horrek sakoneko egiturako gune bat, edo tasun sorta bat ordezkatzen du, konplementatzailea menderatzen duelarik. Gainera, erregela horrek ez du perpaus txertatuetaarako bakarrik balio, perpaus mota guztietarako baizik, perpaus nagusietarako ere bai. Gero, perpaus lokabeetan, edo nagusietan, COMP hori ezabatuko duen erregela bat beharko da.³³

Hipotesi transformazionalistaren arabera, konplementatzaile desberdinak izatean bereizten diren perpausak sakoneko egitura bera zuten. Diferentziak beren erakarbidean zehar konplementatzaile-txertaketa-transformazio desberdinak izatean egongo lirateke. Horrela, honako hiru perpaus hauek.


(25) It may distress John for Mary to see his relatives.

(26) It may distress John that Mary sees his relatives.

(27) Mary's seeing his relatives may distress John.

hipotesi transformazionalistarentzat bestela bada ere, esanahiz desberdinak omen dira. Hipotesi transformazionalista semantikaren aldetik desegokia den seinale, ontzat ematen bada behintzat Katz eta Postal-en hipotesia. Hipotesi honen arabera, transformazioek ez dute esanahia aldarazten. Konplementatzaile desberdinak agertzen direnean aditz nagusi baten mende, esanahi desberdinak aurkitzen baditugu, esan nahi du konplementatzaileek sakoneko egituran gertatu behar dutela, beren esanahia ere interpretazio semantikoazko erregelak kontutan har dezaten.³⁴

Hipotesi berri honen arabera, hortaz, (25) bezalako perpaus baten egitura (28) izango litzateke:




Jadanik erregelari buruzko tasunik ez da behar.³⁵ Konplementatzaileak sakoneko egituran zehaztuak daudenez, aditzak, har dezaketenen konplementu motaren arabera subkategorizatzen dira. DISTRESS aditzak, adibidez, izen sintagma objetua eta FOR-konplementu erako sujetua ametitzen ditu. Horregatik, aditz hori txerta daiteke le-xikoitik goiko egitura horretan. Sarritan, gainera, konplementatzaile bat agertu edo beste bat agertu, esanahia desberdina gertatzen da.³⁶

Baina konplementatzaileak semantikoki "hutsak" ez direla-koaren alde WH delakoa konplementatzaile dela onartzetik dator.³⁷


COMP sakoneko egiturako gune dela frogatzeko bi argumentu nagusi eskaintzen dizkigu Bresnan-ek: a) lehenbizikoa, subkategorizatzeari dagokio. Izan ere, konplementatzailea hautatzea subkategorizatze fenomenorik nabarmenenetarikoa da. Konplementatzaileek aditzak subkategorizatzen dituztela ikusteko, zenbait aditz hartzen ditu kontutan: MEAN, SHOW, IMPLY,... Aditz hauek askotariko konplementuak hartzen dituzte eta elkarren arteko loturak gertatzen dira konplementuen artean konplementatzailearen hautatzea dela eta: that objetuan gertatzen denean, for ezin omen daiteke sujetuan ager. Horrela, COMP sakoneko egiturako 'adabegia' ez balitz, aditzak

ezingo lirateke subkategorizatu konplementatzaileen arabera. Gainera, subkategorizatzearen ezaugarria da horrelako elkar-loturak hedatzea. Naturalago da konplementatzaileen arabera aditzak subkategorizatzea, konplementatzailearen txertakuntzarako erregela tasun batzuez markatzea baino.³⁸

b) Bigarrena, ustezko konplementatzaile txertaketa transformazio baten eta beste transformazioen arteko elkarrekintzan oinarritzen da. Konplementatzaile txertaketan eragina duen transformazio bat konjuntzioaren laburdura da. Laburdura hau ziklikoa omen denez, konplementatzaileak ez baditugu sakoneko egituran agerreraizten, transformazio bidez txertatzen baizik, zenbait perpaus koordinatu ezingo genituzke erakarri. Baina konplementatzaileak sakoneko egituran baldin badaude, orduan erraz erakar daitezke oso ezaugarriak diren erregelen bidez. Honelako egitura bat badugu, hots:



eta konplementatzailea txertatu behar bagenu, P_1 -en (edo P_2 -n) txertatu beharko genuke, AS_1 -eko (edo AS_2 -koak P_2 -ren kasuan) aditzak gobernatzen baitu txertaketa hori. Konjuntzioaren laburdura ezin daiteke P_0 -ren zikloa baino lehenago aplikatu. Baina konjuntzio laburdura konplementatzaile txertaketaren aurretik gertatzen da zenbait kasutan. Adibidez, honako konfigurazio honetan:



Hemen konjuntzio laburdurari dagokion Egitura Deskribapena P_1 -en mailan agertzen da, baina konplementatzaile txertaketari dagokion Egitura Deskribapena P_0 arte ez dugu aurkitzen. Horrek esan nahi du (30)-eko kasuan konjuntzio laburdura nahitaez konplementatzailearen txertaketa baino lehen gertatzen dela. Eta aurkitzen badugu kasuren bat (30) egitura duena eta konplementatzaileak bertan izan behar dituenak, konplementatzaile txertaketa baino lehen konplementatzaileak bertan izango lituzke. Esaterako, (30) egitura izango luke honako perpaus honek:

(31) It is strange that Kip flew to New York and that Mary flew to Chicago.

Perpaus hau anbigua omen da: a) bi gertaeraren konjuntzioa harri-garria dela baieztatzen da edo b) bi harriduraren baieztapenak juntatzen ditu. Eta egitura honetan konplementatzaileek konjuntzioaren laburduraren aurretik egon behar dutenez, konplementatzaileek sakoneko egituren egon behar dute.

Ondoren, Bresnan WH deitzen duen konplementatzaile baten premia frogatzen saiatzen da. COMP guneari esker konplementu mota desberdinak egitura sakonean zehatz daitezke. WH ere COMP dela frogatuz gero, are arrazoi gehiago izango dugu.

WH, beste konplementatzaileak bezala, aditzen konplementu gisa ager daiteke, eta, beste konplementatzaileak bezala, WH-k

ere subkategorizatze loturak erakusten ditu.

Bestalde, konplementatzaileen distribuzioari dagokionez, that, for eta WH-k elkar ukatzen dute, batak bestea baztertzen du. Banaketa konplementarioa dute, hortaz: "... complementarity of that, for and WH follows from the analysis on which they are members of a single category introduced by the phrase structure rule $\bar{S} \rightarrow \text{COMP } S$ ".³⁹


Ingelesez konplementatzaileak perpaus hasieran doaz eta WH delakoa ere hala doa. Onartzen da, bestalde, perpaus guztiek darama-tela beren COMP hori.

Semantikazko arrazoiak ere badira WH beste konplementatzailean sailean sartzeko: "The semantic content of NP's in sentential complements to a predicate does not affect the semantic well-formedness of the predicate + complement reading. That is, verbal 'selection' is not affected by NP's 'below' the complementizer of the embedded clause".⁴⁰ Horrela, honako perpaus hauek ditugularik:


(32) *The truth of her claim was asked.

(33) Whether the truth of her claim was in doubt was asked.

Eta dio: WH konplementatzaile bada, orduan goiko baieztapen horrek esplikatzen ditu (32) eta (33)-ko adibideak. Eta azken batean, Kats eta Postal-en arabera⁴¹ galderazko perpaus guztiek Q delako osagaiak badute, Q hau ez litzateke izango COMP horren gauzatzea baizik. Hots jadanik ez dugu beharko Q hori, zeren perpaus bat galderazkoa den ala ez COMP osagaiak berak esango digu, kontutan izanik COMP hau perpaus guztietan, direla mendeko direla lokabe, aurkituko baitugu. Honen arabera, honako lau egitura desberdin hauek gertatuko zaizkigu:




P erlatiboa



Zehargaldera

Eta perpaus lokabeetan honako bi egitura hauek izango ditugu:



2.4.- Demonte (1977).-

Konplementazioari buruzko analisien errepaso honetan arreta berezia merezi du Demonteren lan honek, hurbilago geratzen zaigulako besterik ez bada ere.

2.4.1.- Gaztelaniazko konplementatzaileak.-

Demonterentzat QUE da konplementatzaile bakarra eta perpaus konpletibo guztien sakoneko egiturean aurkitzen da.⁴² Gainera, QUE konplementatzailea -'subordinante' deitzen dio berak- perpaus txertatua menderatzen duen adabegiak berak menderatzen du, konplementatzaile hau eta perpausa, blak, "senide"⁴³ direlarik. Honen frõga nagusitzat zenbait transformazio erregela aipatzen dizkigu Dementek:

a) Perpaus txertatua izenordain batez ordezkatzan dugunean izenordain hori ez dago perpausaren ordezk bakarrik/que + perpausa/osagaiaren ordezk baizik, honako adibideok erakusten duten bezala:

(32) Esta señora dijo que los consumidores no podían tolerar una nueva subida de precios pero su marido no dijo que los consumidores no podían tolerar una nueva subida de precios.

=> Esta señora dijo que los consumidores no podían tolerar una nueva subida de precios pero su marido no LO dijo.

b) Eskuineko gunearen igoera ('Right Node Raising'):

(33) Decidió imaginar que estaba nevando pero no pudo imaginar que estaba nevando.

$\Rightarrow$ Decidió imaginar pero no pudo (imaginar) que estaba nevando.

c) "Pseudo-Cleft" delakoa:

(34) Quiero que seas bueno $\Rightarrow$ Lo que quiero es que seas bueno.

d) Extraposizioa:

(35) *Que dejes de llegar tan tarde es necesario



$\Rightarrow$ Es necesario que dejes de llegar tan tarde.

e) Gapping:

(36) Mi padre piensa que Federico es liberal y yo pienso que es muy de derechas.

$\Rightarrow$ Mi padre piensa que Federico es liberal y yo, que es muy de derechas.

Transformazio hauek erakusten duten bezala -eta bereziki azkenak- QUE hori ez zaio aditz nagusiari atxikitzen. Perpaus txertatuarekin doa. Baina nolako itxura du perpaus txertatu honek? Berez bi aukera ditugu: a) eta b):



(a)-ko egitura onartuz gero, P ezabatzen dugun momentuan que ere izkutatu egingo zaigu. Edo que ezingo omen litzateke suntsiarazi IS + AS ere aldi berean suntsitu gabe.

Gaztelaniaz balio duen egitura (b) da eta ez (a). Horren alde Demontek hiru transformazio dakartza:

a) Perpausaren adberbialtzea. Hots: perpausaren ordez si edo no jartzea. Hemen /que + perpausa/ itzulia /que + $\left\{ \begin{array}{l} \underline{\text{si}} \\ \underline{\text{no}} \end{array} \right\}$ / bihurtzen da:

(37) ¿Crees que irás al cine?

Creo que sí.

b) Aditzaren parentesiratzea:

(38) a. Creo que Alfredo es de Galicia.

b. Alfredo es de Galicia, creo.


c. Alfredo, creo, es de Galicia.

c) Konjuntzio laburdura:

(39) Yo quiero que estudies y yo quiero que vayas al cine.

=> Quiero que estudies y (que) vayas al cine.

Hortaz, badirudi, bidezkoa dela pentsatzea konpletibo hauei dago-kien egitura honako hau dela:



Gainera, Demontek dioenez eta frogatzen duenez, QUE hori ez da transformazio bidez agertzen. Sakoneko egituran bertan agerri-erazi behar dugu, perpaus-egitura-erregela proposen bidez. Bresnan-en jokabide bera hartzen du, hortaz, konplementatzaile honi buruz. Hala ere, ez du onartzen Bresnan-en harako ideia hura, alegia aditzak onar ditzaketan konplementuen arabera azpikategorizatzen direlakoa.⁴⁴ Hone-la mintzo zaigu Demonte: "no se desprende que las sustantivas caste-llanas exijan una determinada subcategorización de los verbos, por respecto a los subordinantes. En nuestra lengua parece cobrar sen-tido la hipótesis de que hay un subordinante más básico que los

otros, probablemente un único subordinante, y la de que éste debe aparecer explicitado en el primer estadio de la derivación de las oraciones".⁴⁵ Egia esan, Monteren arrazoibidea arretaz jarraitu arren, ez dut ikusten erabateko arrazoirik azken baieztapen hori egiteko.

Zehargalderak ere aztertzen ditu eta dio galdera izenordainak eta SI juntagailuak ez dutela QUE-ren status bera.⁴⁶ Bresnan-ek WH zela zioen galderazko perpaus txertatuei dagokien konplementatzailea. Demontek, ordea, gaztelaniak delako konplementatzaile hori ez duela dio. Alegia, WH (CU jartzen du berak) ez litzateke COMP-en azpian egongo. COMP hori, Monteren ustez, batzutan QUE bezala gauzatzen da eta beste batzutan ezabatu egiten da. Aipatzen dituen argumentuak honako hauek dira:

a) QUE eta galdetzaileak elkarren segidan ager daitezke aditz nagusia DECIR edo PREGUNTAR denean.⁴⁷

b) Ondoren, honako hiru perpaus hauetan jartzen ditu begiak Demontek:

- (40) a. Dile que dónde está el acta de la reunión de ayer.
- b. Dile que viene.
- cc Dile que venga.

Konplementatzailea QUE bada, Demontek hiru perpaus hauen arteko diferentzia semantikoa ezin dio konplementatzaileari egotzi, hiru-retan bat baita konplementatzailea. Horrenbestez, diferentzia perpaus txertatua logikaren aldetik desberdina izatean datza.⁴⁸ Eta ondoren honela dio: "la diferencia semántica entre:

(23) Pregunta si el imperialismo va a existir eternamente.

(24) Afirma que el imperialismo va a existir eternamente.

(aparte el diferente significado de los verbos principales) no puede atribuirse al 'si' de la primera y al 'que' de la segunda, con lo

cual se viene abajo la razón semántica que nos obligaría a marcar esa diferencia en la estructura profunda a través de la introducción de dos subordinantes 'que' y 'si'. (18) (= Pregunta que si has sabido algo nuevo), muestra, además, que estos dos subordinantes pueden coexistir en castellano y que, en casos como éste, el "significado" de 'que' sería absorbido por el de la partícula interrogativa".⁴⁹

Argumentu honek badu harako oiloaren eta arraultzearen lehentasunari buruzko kontu haren antza. Izan ere, morfema bat halako eduki semantiko jakin baten aurrean gaudenean agertzen da ala halako morfema bat dugunean dugu eduki semantiko hori? Nik uste biak batera doazela. Baina gehiegi iruditzen zait arrazoi horretan oinarriturik galdetzaila konplementatzaile ez dela esatea eta, batez ere SI delakoa.⁵⁰

Hortaz, gaztelaniarentzat honako erregela hau proposatzen du: $\bar{O} \rightarrow \text{SUB}$ 0. Subordinatu guztiak morfema batez markatuak egongo dira. SUB forma horrek gauzatze bakarra izango lukeenez gaztelaniaz -QUE alegia- ez da behar aditzak adabegi horren arabera subkategorizatzea. Hala ere, hau horrela izanik ere, ondoren aditzak subkategorizatu egin behar o genituzke, adibidez perpaus galderazko txertatu bat ametitzen uten ala ez jakiteko. Alegia, SUB-i buruz subkategorizatuko ez bagenitu ere, ondoren datorren Q horri buruz subkategorizatu beharko genituzke. Edo bestela esan, aditz batzuk zehargalderak onartzen dituztela eta beste batzuk ez, esan beharko dugu nonbait. Beraz, Monteren analisiak ez digu lan handirik aurreratzen, nik uste.

2.4.2.-Perpaus sustantibo direlakoan sakoneko egitura.-

Konplementatzaileari buruz esandakoaren ondoren, Demontek gaztelaniazko perpaus sustantibo izeneko sakoneko egitura zein

den aztertzeari ekiten dio. Lehenbizi, Demontek espainolezko konpletiboen aurreko ikerketei errepasso bat ematen die (Hadlich 1971; Nuessel 1973 eta Sauer 1972). Analisi hauek guztiak ados daude perpaus konpletibo hauek denek Izen Sintagma adabegia behar dutela gainean. Sauer-ek bi erregela ematen dizkigu:⁵¹

1.- NP $\rightarrow$ N S

eta 2.- NP $\rightarrow$ S

bata konpletiboa izen bati lotua ageri denerako; bestea, berriz, izen hori ageri ez denerako.


Nuessel-ek⁵² konpletibo guztiak erregela bakar honetatik erakartzea proposatzen du, berriz: NP $\rightarrow$ S. Erregela honekin, la creencia de que... eta antzeko izen sintagma ere erakar daitezkeela zioen baldin eta izen sintagma horren buru den izena (creencia) konpletiboa ametitzen duen aditz baten (creer-en alegia) nominalizazioa dela onartzen badugu. Hala ere, Demontek ongi erasotzen dion bezala,⁵³ bide honek oztopoak aurkitzen ditu el hecho de que, la idea de que eta antzekoak modu berean erakarri nahi ditugunean. Demontek dio, berez bi eratako izenen aurrean gaudela: a) subordinatu sustantiboak ametitzen dituzten aditzei dagozkien izen erakarriak (aceptación, afirmación, anuncio, ...) eta b) jarraitzen dion subordinatuaren esanahiaren laburpen antzeko bat ematen dutenak (idea, proposición, hecho, acto, acción, eta agian beste bakarren batzu ere bai). Azken hauek, dio Demontek, ezin kontsidera daitezke aditz izenduak. Aitzitik, ondoren duten perpausa zein klase semantikotakoa den aurrerartzen duten izen abstraktuak izango lirateke.⁵⁴

Demonteren ustez, aditzen sailkatze semantikoa egiterakoan bi sail bereiz daitezke: 1) hikzuntz munduari dagozkionak ("de actitud proposicional" deitzen dituenak berak). Hauek, era berean, beste bi azpimultzotan bana daitezke: a) subordinatuaregiakotzat ematen dutenak (hots: faktiboak) eta b) subordinatuaren egia pre-

suposatzen ez dutenak (proposizionalak). Eta 2) mundu errealarari dagozkionak: adibidez, ekintzak edo gertaerak aipatzen dituzten aditzak. Eta honela dio Demontek: "Obsérvese que los nombres de la segunda serie, los que no se corresponden con una determinada forma verbal, son precisamente los que aluden al contenido de estas varias clases de verbos de subordinación: 'hecho' = factividad; 'proposición' = proposicional; 'acto' = acción." ⁵⁶

Eta, hain zuzen, aditz mota hauetako bakoitzari sakoneko egitura berezia duen konpletiboa omen dagokio. Sakoneko egitura horretan batzutan perpaus txertatuak duen esanahi berezi hori aditzera emango duen izen bat aurkituko dugu. Orduan, perpaus txertatua izen horren konplementua izango litzateke. Honek esan nahi du perpaus konpletiboen artean desberdintasun semantikoak ditugula eta desberdintasun horiek sakoneko egituren isladatzen direla. Bestalde, zenbait aditzek zenbait konpletiborekiko dituzten debekuak, edo konpletibo hauen forma sintaktikoa edo onartzen dituzten parafrasi desberdinak, hobeki esplika daitezke sakoneko egitura desberdinak proposatuz gero, aditz nagusia zein motatakoa den eta, horrenbestez, perpaus txertatuak ere zernolako edukin semantikoa duen ere kontutan hartuz. Soluziobide honekin Karttunen-ek aztertutako inplikatu eta presuposatu egiten duten aditzen arteko diferentziak esplika omen daitezke eta bereizketa semantiko honi dagozkion ezaugarri sintaktikoak eman.

Honen arabera, Demontek, Kiparskytarrek bezala, aditz faktiboen azpian agertzen diren konpletiboek honako egitura hau izango luketela dio:




Proposatzen den egitura honen alde omen datoz honako arrazoi hauek:

a) el hecho de que-rekin agertzen diren perpausak gune lexiko hori ez dutenen parafrasiak dira. b) Aditz faktiboek sakoneko egituran el hecho izen sintagma daramatelako hipotesiak esplikatzen du el determinantea agertzea aditz horiekin bakarrik. Eta c) Aditz faktiboek atxikitako konpletiboak "ugarte sintaktikoak" dira. Goiko egitura hori onartzen bada aditz faktiboen konpletiboentzako, Ross-en Complex NP Constraint⁵⁷ delakoak esplikatuko luke konplementu horiek "ugarte sintaktikoak" izate hori.

Dena dela, Demontek esplikatzen ez diguna da ea zernolako tresneria behar duen era honetako gramatika batek subjuntiboa agerretzeko.

Aditz proposizionalentzat, bestalde, honako egitura proposatzen du Demontek:

(42)




"Las oraciones proposicionales (...) contienen implícito un verbo de significado activo y deben derivarse de una estructura profunda en la que dicho verbo esté explícitamente representado. Así la oración siguiente (14a) se derivaría de (14b), que constituiría su estructura profunda:

(14)a. El profesor aclaró que todos sus alumnos no habían entrado en clase aquel día.

b. El profesor hizo la aclaración de que todos sus alumnos no habían entrado en clase aquel día"

Eta hau izango omen litzateke (14) perpausaren egitura:



Baina ez dago honelako perifrasisirik ekintzak edo gertaerak adierazten dituzten aditzentzat ez eta aditz faktiboentzat ere: *hice la lamentación.... edo *comencé el comienzo...., bistan da, ez-gramatikalak dira.⁵⁹

Ez ote da gehiegi? Nik Antonio ha escrito que dos y dos son cinco esaten badut, honen azpian zer dago? Antonio ha hecho la escritura de que dos y dos son cinco? Esanahiari jaramon egin nahi badiogu, agian horren baliokideagoa litzateke beste hau: Antonio ha formulado la proposición de que dos y dos son cinco por escrito. Preguntar-en azpian formular la pregunta baldin badago, escribir-en azpian formular por escrito la idea edo antzeko zerbait dagoela esan beharko genuke. Gehitxo, nik uste.

Era berean, expresar un deseo eta desear ez dira gauza bera. Batek esaten badu Antonio desea que me calle, ez du horrek esan nahi Antoniok ezer formulatu duenik, ezer esan duenik: gerta daiteke, behar bada, isilik egotea. Eta ikaragarritzko problemekin egingo dugu topo bide honetatik jarraitzen badugu. Ikus bestela zer pasatzen den honako perpaus hauekin:

- (44) a. Antonio ha preguntado quién irá a por la fruta.
 b. Antonio no sabe quién irá a por la fruta.
 c. Antonio ha decidido quién irá a por la fruta.
 d. Antonio se ha dado cuenta de quién ha ido a por la fruta.
 e. A Antonio se le ha olvidado quién ha ido a por la fruta.

(44a)-ren ordez, noski, jar daiteke Antonio ha formulado la pregunta, baina beste guztietan, 'zehargaldera' deitzen badiegu ere, garbi dago ez dela inolako galderarik egiten. Beraz, pregunta izena ere ezingo zaigu agertu sakonean. Beraz, nonnahi problemak besterik ez.⁶⁰


Dena dela, Manteca-k askoz bide lauagoa eskaintzen digu eta ematen duen arrazoia gutxi gora behera honako hitz hauetan laburbil daiteke: "la interpretación semántica no nos permite ahondar tanto y proponer un hipótesis sintáctica en que aparezca el hecho, la idea, ... La hipótesis no es plausible por demasiado abstracta (semántica) y ad hoc."⁶¹

Eta azkenik, ekintza aditzak hiru motatakoak omen dira:

a) Nolabait-ko denboratasuna adierazten dutenak; b) agindua adierazten dutenak eta c) hautemate aditzak. Eta honela ematen du Demonstek bere ondorioa: "La no existencia de paráfrasis con 'acción', el significado implicativo de estos verbos, el dudoso carácter nominal de la subordinada que ellos rigen (...), el hecho de que admitan transformaciones de 'ascenso', y la posibilidad (a veces exclusiva) de llevar complementos en infinitivo indican fundamentalmente dos cosas: a) que estos verbos no pueden regir complementos que sean 'islas sintácticas', b) que la representación profunda que se les asigna debe, de alguna manera, proporcionar una explicación para esa ligazón mayor entre el verbo y su complemento".⁶²


Lehendabizikoei (denboratasuna adierazten dutenei) dagokien egitura honako hau omen da:⁶³

(45)




Agindua adierazten dutenena, berriz, honako egitura hau izango litzateke:⁶⁴

(46)



Eta, azkenik, hautemate aditzena:⁶⁵

(47)



OHARRAK (II atala)

1. Ik. Bresnan 1972, 6. orr.
2. Ik. Rosenbaum 1967, 24. orr.
3. Ik. Hernanz 1982, 29 orr. Eta jarraitzen du: "Si los complementantes se circunscriben a la esfera de la subordinación nominal, ¿por qué no incluir en ellos las partículas interrogativas que encabezan las interrogativas indirectas? Tal inclusión, conllevaría, por supuesto, replantearse la derivación de los mismos por vía transformacional y, a partir de ahí, los fundamentos en que se basa la teoría del citado autor. Por otra parte, si el término "complementizer" no es únicamente aplicable a los nexos o marcas que introducen la subordinación nominal, sino que puede entenderse como sinónimo de "subordinante" en general, ¿cómo se explica entonces que tanto en el campo de las proposiciones adjetivas como en el de las adverbiales el infinitivo coaparezca con otras marcas de subordinación? (...) Todo parece indicar (...) que este concepto, en la obra de Rosenbaum, implica una clasificación convencional y entrecruzada de las partículas subordinantes, que no es capaz de proporcionarnos una descripción coherente y homogénea de las mismas en función de los subconjuntos que las integran".
4. Ik. Bresnan 1972, 28-42. orr.
5. Ik. Bresnan 1972, 6. orr.
6. Ik. Demonte 1977, 107 eta hurr.
7. Ik. Bresnan 1972, 7. orr.
8. Ik. Kiparsky, P. & Kiparsky, C. 1970.
9. Ik. Hernanz 1982, 52-53 orr.
10. Ik. Hernanz 1982, 73. orr.
11. Ik. Hernanz 1982, 84. orr., 32. oharra.
12. Ik. Hernanz 1982, 40-41; eta baita Lleó 1979, Rivero 1977.
13. Ik. VI atala.
14. Ik. Bresnan 1972, 13. orr.
15. Ik. Chomsky 1971, 109-110 orr. COMP hedatzean agertzen zaigun P hori preposizioa da. NP, berriz, gero zenbait mugida-erregelaren bidez ordezkaturiko den izen sintagma hutsa. Ez dut uste, hala ere, euskaraz bigarren elementu honen beharrik izango dugunik, mugida kontu hori zertan den argitzen ez den bitartean behintzat. Hortaz, guri batez ere interesaturiko zaiguna ±WH ta-

16. Ik. Chomsky 1957.
17. Ik. Rosenbaum 1967, 9-21 orr.
18. Ik. Katz & Postal 1964, 64. orr. adibidez.
19. Ik. Rosenbaum 1967, 26-32 orr.
20. Honen antzeko zerbait proposatzen du euskararentzat ere Wilbur-ek (ik. Wilbur 1979).
Bestalde, oraingoz ez gara P-ren egitura zuzenaz gehiegi arduratuko, Laguntzaile izeneko osagaiak eta aberrez, adibidez.
21. Ikus Katz eta Postal-en hipotesia. Ik. 18. oharra.
22. Ikus Demonte 1977-ren kritika, 20. orr.-an.
23. Ikus R. Lakoff 1968, 20. orr.; M^a L. Rivero 1971, 324. orr.
24. Ikus Hernanz 1982, 28. orr.
25. Ikus R. Lakoff 1968, 20. eta hurr.; Menzel 1975, 77. orr.; Demonte 1977, 22. orr.; Hernanz 1982, 29. orr. e.a.
26. Ikus R. Lakoff 1968, 23. orr.
27. Ikus Demonte 1977, 32 eta hurr.
28. Ikus Demonte 1977, 33. orr.
29. Ikus Bresnan 1970, 298. orr.
30. Ikus Bresnan 1970, 299. orr.
31. Ikus Chomsky 1965 eta 1971; Bresnan 1970 eta 1972.
32. Ikus Bresnan 1970 eta 1972.
33. Ikus Bresnan 1970, 303 eta hurr.
34. Hala ere, Extended Standard Theory delakoan bezala interpretazio semantikoak sakoneko egitura ezezik axaleko egitura ere kontutan har badezake, berez ez litzateke arrazoirik izango esanahia aldatzen duten transformazioak, konplementatzaile txertaketaren antzekoak, ez onartzeko.
35. 'Rule feature' delakorik, alegia.
36. Euskaraz, esango nuke, gehienetan hala da. Badira hala ere, zeharo baliokideak izan daitezkeen perpaus pareak konplementatzaile desberdina izan arren, eta baita zalantzazko kasuak ere. Kasurik ezagunena lehenago aipatu dugun subjuntiboaren eta -T(Z)E formakoaren arteko zentzuketetasuna dugu:

Liburu hori eros DEZAZUN nahi dut = Liburu hori (zuk)
erostea nahi dut.

Honek problemak aurkezten dizkigu: zein da, adibidez, kasu honetan konplementatzailea? Izan ere, Bresnan-ek ez du on-tzat ematen that+subjuntiboa erako konplementatzailearik that+indikatioaren parean. Baina, euskaraz zuk liburu hori

erostea moduko egiturak perpaus konpletiboak direla ez dago dudarik. Beraz, nonbait izan beharko dute KONPlementatzailea, nahiz eta jakin ez garbi zein den. Era berean, perpaus horren baliokide osotzat ematen dugun subjuntiboazko ordainak ere beharko du nonbait bere konplementatzailea. Kasu horretan subjuntiboa ere KONP-en barruan sartu behar dugu?

Bestalde, kontuan izatekoa da gaztelaniaz adibidez subjuntiboak garrantzi handia duela, ingelesez ez bezalakoa, noski. Eta horregatik du zentzua, behar bada Hernanz-en kritikak. Baina gaztelaniazko subjuntiboaren ordainik zuzenena euskaraz gehienetan -T(Z)EA forma dela pentsatzen badugu, badirudi bi formei antzeko tratua eman beharko diegula euskaraz.

Zalantzazko kasuak ere badira, gehiegi ez badira ere:

Kale luze batean barrena JOANA gogoan zedukan dio Orixek (ik. Santa Kruz apaiza, 53 orr.) Agian bidezkoago dirudi -niretzat behintzat normalagoa da- beste hau:

Kale luze batean barrena joan zela gogoan zedukan.


Baina gehienetan, berriro diot, ez da honela gertatzen: gehienetan morfema desberdinak esanahi desberdintasunen bat ekarri ohi du berekin.

37. Ikus Bresnan 1970, 310-312.orr.
38. Ikus Bresnan 1972, 16-22 orr.
39. Ikus Bresnan 1972, 31. orr.
40. Ikus Bresnan 1970, 315. orr.
41. Ikus Katz & Postal 1964, 108 eta hurr.
42. Ikus Demonte 1977, 85-86 orr.
43. Arbola batean bi adabegi "senide" direla esaten dugu biak adabegi beretik zintzilika baldin badaude, zuzenean goragoko adabegi horri loturik.
44. Ikus Bresnan 1970, 303-304 orr.
45. Ikus Demonte 1977, 102. orr.
46. Ikus Demonte 1977, 105. orr.
47. Pentsa zitekeen kasu hauetan konplementatzailea 'que + CU' dela (cf. "Dile que dónde estabas anoche"). Baina hau zerbait ad hoc izango omen litzateke erakusten ez bada 'que' eta 'que + galdetzailea' alde batetik zeharo baliokideak direla funtzioaren aldetik eta, bestetik, bi perpaus moten arteko desberdintasun semantikoa hain zuzen 'que + $\emptyset$ ' eta 'que + CU'-ren arteko diferentziatik sortzen dela.

Baina nire galdera hau izango litzateke: zilegi al da hain paradigma mugatutik, eta guztiz zalantzazkoak diren adibide-etatik, ondorio handiak ateratzea?

Dena den, euskaraz ez dago inolako zalantzarik: -(e)la eta -(e)n zeharo banaketa konplementarioan egongo lirateke.

48. Ikus Demonte 1977, 108. orr.
49. Ikus Demonte 1977, 108. orr.
50. Beste zenbait argumentu ere ikus daitezke aipatu lanaren 108 eta hurrengo orrialdeetan. Nire ustez, pisu handiegirik ez dutenak berauek.
51. Ikus Sauer 1972, 2grn. kapitulua.
52. Nuessel 1973, 27 orr.
53. Ikus Nuessel 1973, 31-35 orr.
54. Ikus Demonte 1977, 119. orr.
55. Ikus Demonte 1977, 120. orr.
56. Ikus Demonte 1977, 121. orr.
57. Ikus J.R. Ross 1967, 67 eta hurr.
58. "Esta tesis -dio Demontek- es distinta de la de Ross (1970) aunque se refiera también a las oraciones declarativas. Como se recordará, Ross propone que las oraciones declarativas simples se deriven de una estructura compleja en la que está presente siempre un verbo "realizativo" (performative). El análisis de Ross se inserta en la línea de la sintaxis abstracta en tanto en cuanto en la estructura subyacente encontramos elementos que no aparecerán nunca en superficie. Mi análisis no tiene nada de abstracto (salvo, quizá, por la apelación a un rasgo determinado que caracterice, en común a 'hacer, formular, prestar, expresar'." Ikus Demonte 1977, 128. orr.
59. Ikus Demonte 1977, 129. orr.
60. Faktiboei dagokienez, el hecho moduko izen sintagma bat esan dugu dutela buru. Hori horrela bada, zein izango ote litzateke (44d) perpausaren egitura zuzena? Honako hau?:



Baina garbi dago honako perpaus hauek ez-gramatikalak direla:

(a) *Antonio se ha dado cuenta del hecho de quién ha ido a por la fruta.

(b) *A Antonio se le ha olvidado el hecho de quién ha ido a por la fruta.

61. Ikus Manteca 1981, 122. orr.

62. Ikus Demonte 1977, 136. orr.

63. Ikus Demonte 1977, 143. orr. Dena dela, honek oztopo txiki bat behintzat badu sujetu modura ageri den $\bar{O}$ horrekin. Badaezpada ere, gero (ikus 151. orr.) honako erregela sintagmatikoak proposatzen ditu: 1. $O \rightarrow SN_SV$

2. $SV \rightarrow V (a? SN) (\bar{O})$

3. $SN \rightarrow Det N (\bar{O})$

4. $\bar{O} \rightarrow SUB O$

Baina, jakina, erregela hauetako batek ere ez digu bide ematen (45)-eko egitura erakartzeko.

64. Ikus Demonte 1977, 147. orr.

65. Ikus Demonte 1977, 149. orr.

III ATALA

EUSKAL KONPLETIBOEN EGITURA

Bresnan-en lanaz geroko guztietan ontzat eman ohi den erregelak, $\bar{S} \rightarrow \text{COMP } S$ alegia, onartzen badugu, badirudi euskarari egokitu nahi badiogu, beste era honetara eman beharko dugula, hots:

$$(1) \quad \bar{P} \rightarrow P \text{ KONP}$$

Konplementatzailatzat har ditzakegun osagaiak ($-(E)LA$, $-(E)N$ eta abar) perpausaren azken muturrean kokatzen baitira.

KONP hori, Bresnan-ek dioenez, tasun multzo bat da eta bereziki garrantzia duen tasun zehaztapena $[+GALDERAZKO]$ izango litzateke, zeren perpausa galderazkoa izan ala ez izan KONP hori era batera edo bestera gauzatuko baitzaigu. Adibidez:

$$(2) \text{ Badakit } \left[\underset{\bar{P}}{\text{Andoni etorri dela}} \right]$$

$$(3) \text{ Badakit } \left[\underset{\bar{P}}{\text{nor etorri den}} \right]$$

$$(4) \text{ Andonik } \left[\underset{\bar{P}}{\text{etxean gelditzea}} \right] \text{ erabaki du}$$

$$(5) \text{ Andonik ez du oraindik erabaki } \left[\underset{\bar{P}}{\text{nora joan}} \right]$$

Hemen garbi dago lau perpaus hauek erakusten duten desberdintasunik nagusiena perpaus txertatuak duen formari dagokiola: (2) perpausetan etorri da aditz mugatua dugu batetik eta -(e)la morfema. -(e)la hau perpausa ez-galderazkoa delako gertatzen da. (3) perpausetan ere aditz jokatua dugu, baina -(e)n morfema ageri da: galderazko perpaus baten aurrean gaudelako seinale. (4) eta (5) perpausek (2) eta (3) perpausei begira duten diferentzia da aditz mugagabea izatea, hots: denbora eta pertsona markarik gabea izatea. Baina, bestalde, (4) eta (5)-en arteko diferentzia, (2) eta (3) per-

pausen artekoa bezala da, hau da: (4)-ekoa ez dela galderazkoa eta (5)-ekoa, berriz, bai. Hortaz, honako koadro hau gertatzen zaigu:

	$\begin{bmatrix} -\text{GALD} \\ \text{KONP} \end{bmatrix}$	$\begin{bmatrix} +\text{GALD} \\ \text{KONP} \end{bmatrix}$
$\begin{bmatrix} +\text{Mug} \\ \text{P} \end{bmatrix}$	<u>-(e)la</u>	<u>-(e)n</u>
$\begin{bmatrix} -\text{Mug} \\ \text{P} \end{bmatrix}$	<u>-t(z)ea</u>	$\emptyset$ / <u>-tu</u>

Esan nahi baita perpaus txertatuaren forma bi faktoreren mende dagoela: konplementatzailea $\begin{bmatrix} +\text{GALD} \end{bmatrix}$ den ala $\begin{bmatrix} -\text{GALD} \end{bmatrix}$ alde batetik; eta perpaus txertatuak aditz mugatua duen ala ez.

Hala ere, perpaus ez-mugatueta bada arazo bat: perpaus mugatueta nahikoa bidezkoa dirudi pentsatzea -(e)la eta -(e)n direla KONP-en gauzatze morfologikoak. Alegia, morfema horiek KONP adabegiaren azpian daudela pentsatzeko eskubidea dugu. Baina perpaus ez-mugatuak erakusten duten forma berezi hori KONP-en gauzatzeari zor ote zaio?

Alde batetik, -T(Z)E eta -TU aditzaren osagai direla ematen du: bata aditz-izena eta bestea partizipioa. $\emptyset$ forma onartuko bagenu, berriz, -jatorrena berau, eta gaur ekialdeko euskalkietan bizi dena- aditz erroa izango litzateke. Gainera, -T(Z)EA jarri badugu ere $\begin{bmatrix} -\text{GALD} \end{bmatrix}$ tasuna duen KONP-en gauzatze gisa, perpausa mugagabea denean, bada beste aldaera bat, aski mugatua bada ere:

-TUA edo -TU IZANA:

(7) a. Erabaki dut zuk hori egitea.

b. Zuk hori egin (izan)ak poztu ninduen.

Hemen (a) eta (b)-ren arteko diferentzia aspektu diferentzia dela dirudi. Hortaz, pentsa liteke -T(Z)E hori aspektu marka bat besterik ez dela. Beraz, LAG-en adabegiaren azpian egongo da.

Orduan, zein ote ^{KONP} [-GALD] osagaiaren gauzatze morfologikoa? Agian $\emptyset$ izango litzateke. Baina orduan hor ageri diren -a mugatzaile hori eta askotan ageri diren kasu markak ere non kokatu behar dira? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara ondorengo orrialdeetan.

1.- -(E)LA konpletiboa.-

-(E)LA konpletiboentzako Wilbur-ek² honako sakoneko egitura hau proposatzen du:




Perpausaren erakarbidean noizpait gertatzen omen da "a prefixing transformation of a la-complement with automatic insertion of ko"³. Adibidez, (9) eta (10) perpausak egitura bera izango dute sakonean:

(9) Berria izan duzu loterian irabazi dugula.

(10) Loterian irabazi dugulako berria izan duzu.

Wilbur-ek ontzat ematen duen gramatika markoa Fillmore-ren kasu-gramatika⁴ da. Baina, guri dagokigunez, puntu honek ez du hala-ko garrantzi berezirik. Hortaz, ez dugu kontutan hartuko. Ajola handiagoa du, nere ustez, beste kontu batek eta hau da: Wilbur-entzat ez dago inolako zalantzarik perpaus konpletibo hauek izen sintagma direla. Esaterako (9) eta (10) perpausetan honako izen sintagma hau izango dugu:




"The la-complement here loterian irabazi dugu (...) is the factual of berri"⁵ dio.

Eta azpiegitura bera suposatu behar omen da, axalean/izena + determinantea/ageri ez denean ere. Adibidez:


(12) Ez zion esan andreari mandoak galdu zituela.

Hemen ez da ageri berri-ren antzeko inongo izenik. Hala ere, hauetan "we must assume a deleted pronoun in the underlying structure which corresponds in function to one of those nouns. It is a true completive inasmuch as the la-complement contains the substance of what he said".⁶

Huskeriak albora utziz gero, lehen begiratuan geuk ere Wilbur-ek proposatu duen egituraren antzekoa proposa genezake. Baina agian osagaien ordena aldatzea hobe dugu. Hortaz, perpaus konpletibo hauen izensintagmatasuna onartuz, eta KONP osagaia ere sakoneko egituran ageri dela ontzat emanez, hau izango litzateke proposatu beharreko egitura:




Eta, egia da, konpletiboa izen bati lotua ageri denerako oso egokia dirudi egitura horrek. Adibidez:



Baina gehienetan ez zaigu inongo izenik ageri. Orduan, Wilbur-i jarraituz, axalean ezabatua gertatuko litzatekeen izenordain bat ezarri beharko dugu sakoneko egituran. Adibidez, (15) perpausean dugun konpletiboak (16) egitura izango luke:

(15) Denek dakite loterian irabazi dugula.



Egitura hau, funtsean, Rosenbaum-ek Noun Phrase Complementation delakoarentzat proposatzen duena bera da.⁸ Rosenbaum-ek ingelesez it izenordaina jarriko du izen sintagmaren burutzat eta Wilbur-ek hura izenordaina. Dena dela, ingelesak it proposatzeko arrazoiak baditu axaleko egituran ere noiznahi agertzen baita. Euskaraz, berriz, ez.

Baina I adabegiak, eta honen azpian sakoneko egituran agertu beharko lukeen izenak garrantzi handia du, zeren $I\ S \rightarrow P\ I\ DET$ erregela onartzen bada, salbatua gelditzen baita Emonds-en⁹ erregela sintagmatikoei buruzko harako debeku hura, alegia IS hedatzen duen erregela sintagmatikoak geziaren eskuinetara I (=izen) bat behar duela, AS hedatzen duenak A edo AdjS hedatzen duenak Adj behar duen bezala. Alegia, erregela hauek, perpausarena eta koordinazioarena izan ezik, endozentrikoak behar dutela izan.

Eta, hain zuzen, hementxe dugu oztoporik nagusia. Zeren perpaus hauek izen sintagma baldin badira, eta sintagma guztiek endozentrikoak izan behar badute, $I\ S \rightarrow \bar{P}\ I\ Det$ edo antzekoren bat beharko dugu. Baina ba al dugu inolako arrazoirik perpaus hauek izen sintagma direla esateko? Wilbur-ek ez du inoiz ere zalantzan jartzen hori, baina frogarik eskaini gabe. Ikus dezagun astiroago.

Osagai baten izensintagmatasunaren alde eman ohi diren argumentuen artean honako hauek aipa genitzake perpaus konpletiboei sagokienez:

a) "Pseudo-cleft" delako egituraren bidez eman daitezke:

(17) a. Denek dakitena da loterian irabazi dugula.

b. Nik esaten dudana da bihar inor ez dela etorriko.

Argumentu honek indarrik badu,¹⁰ esan nahi luke (18)-ko perpausetan ageri diren loterian irabazi dugula eta bihar inor ez dela etorriko perpaus konpletiboak izen sintagma direla:

(18) a. Denek dakite loterian irabazi dugula.

b. Nik esaten dut bihar inor ez dela etorriko.

— b) Perpaus hauek izen sintagma baten lekua betetzen dute eta horrenbestez izenordain batez edo ordezkia daitezke:

(19) a. Denek dakite berri hori.

b. Nik zerbait esaten dut.

(20) a. Zer dakite denek?

b. Nik zer esaten dut?

c) Beste hizkuntzetan pasiba transformazioa alpatu ohi da. Guk ezin dugu horrelakorik egin euskaraz, pasibarik ez baitugu.¹¹

Dena den, izen sintagma izatekotan, oso izen sintagma bereziak izango lirateke:

a) Objetuaren edo sujetuaren lekuan bakarrik ager daitezke.

b) Ez dute beste atzizkirik hartzen: -KO bakarrik erantsi dakieke. Eta, hain zuzen, -KO atzizki hau da izenlagunak¹² osatzeko erabiltzen duguna, azpian beste atzizki bat dutelarik. Adizlagun deitzen genituenak izenlagun bihurtzeko balio du. Baina, hain zuzen, normalki ez zaio objetuari aplikatzen beste posposiziodun sintagmei baizik. Pentsa liteke, hortaz, -(E)LA atzizki hori ez dela egiazki absolutuaren marka, nolabaiteko lekuzko kasu baten marka baizik.¹³ Orduan uste izan genezake egiazki KONP -(E)N atzizkia dela -hain

zuzen erlatibozko perpausetan eta zehargalderetan bezala- eta gero atzizki honi -IA erasten zaiola.


Edo -Wilbur-ek honetaz ezer ez badio ere- hor ditugu -(E)LA-¹⁴ ren aldaera diren -NA eta -(E)NIK ere:

(21) a. "inoc ucatu ezin legui (...) gauza chaar asco eguiten diriana"¹⁵

b. Ez nuen uste hori esango zidanik.

Hain zuzen, egitura hauek bakarrik bagenitu, pentsa genezake -a/-ik artikulua eta partitiboa direla, beraz Izen Sintagma baten aurrean gaudela eta elementu hauen aurretik ageri den -en hori KONP-i dagokiola. Hortaz, -a hori izango litzateke izen sintagmaren buru egiten duen izena. Horrelakoetan, hortaz, honako egitura hau izango dugu:

(22)



Hala ere, -(E)LA atzizkian ez da inon ageri artikulurik.

Dena den, izen sintagma direla suposatuz, eta gorago eman dugun erregela ontzat emanaz, oso ongi esplikatzen ahal ditugu / -(E)LAKO + izena / tankerako itzuliak. Aski dugu -KO atzizkia erantsiko duen transformazio bat proposatzea. Transformazio hau kasu hauetatik aparte ere beharrezko dugu. Hortaz, -KO transformazio bidez agerreraizten badugu, perpaus honen egitura:

(23) Fantasma bat agertu zitzaiolako berria zabaldu zen.

(24) izango litzateke:

Hala ere, (23) perpausaren antzekoetan -ELAKO-ren ordeaz, -EN ere ager daitekeenez:

(26) Gehienek aprobatuko duten esperantza dut.

agian onena izen bati lotua ageri den konpletibo hori sakonean bertan agerreraaztea genduke.¹⁷

2.- Zehargalderak.-

-(E)LA konpletiboen izensintagmatasuna onar badaiteke ere, problema larriagoak ditugu -(E)N atzizkiaz baliatzen den zehargalderarekin:

(26) a. Ez dakit nork esan dion.

b. Ez digute esan etorriko diren ala ez.

Perpaus hauek direla eta, honela mintzo zaigu Wilbur: "Not all noun phrase complements with the underlying structure found in Figure 44 (hots: $\left[\begin{smallmatrix} N & Det & S \\ & NP & \end{smallmatrix} \right]$) are necessarily la-complements, that is to say, true completives".¹⁸ Eta hori frogatzeko, honako perpaus hauek dakartza:

(27) a. Nahi duzuea ikhus dezadan nik ere?

b. Ez dakit etorriko den.

c. Badut beldurra oraino ere ogia chuhurtuko den.

d. Nahi dute jaits gaiten.

e. Manatu du ogia jo zazaten.

Eta dio: "The difference between the two kinds of complementation must be the content of the noun in deep structure that is later deleted. On the surface the difference is represented by the lack of la with the simultaneous occurrence or a special class of verbal inflexions, future or subjunctive. According to the scheme presented aura represents a noun that is deleted when the constituent sentence, nik ikusi dut is extraposed. In this latter sentence we might say that it is a noun with the meaning "wish, desire". Or expressed in

terms of modal logic, a deontic proposition. We might even propose a kind of cognate construction that would never be realized on the surface: (75) *Nahia nahi baduzu."¹⁹

Wilbur-en baieztapenak gehiegizkoak direla esango nuke. Lehenbizi: aipatzen den "special class of verbal inflexions" delakoan "eskua joan" egin zaio. Zeren aipatzen duen "future" delakoak ez du zer ikusirik hor agertzen den -en atzizkia agertzearekin. Froga bezala, hona hemen (28) perpausa (27b) bezain gramatikala, -en atzizkirik ez daramana eta futuroan zertan joanik ez duena:

(28) Ez dakit $\left\{ \begin{array}{l} \text{etorri} \\ \text{etortzen} \end{array} \right\}$ den

Honek esan nahi du hor agertzen den -en atzizkiaren arrazoa beste nonbait bilatu behar dela, edo, beste era batera esateko, aditzaren inflexio bereziak eta perpausak agertzen duen atzizkiak kasu honetan ez dutela elkarrekin zer ikusirik.

Bestalde, berak dioen "cognate constructions" direlakoak ere gehitxo iruditzen zaizkit. Izan ere, esan, esaldiak esaten dira; entzun, hotsak entzuten ditugu, eta, horrenbestez, esan egiten den esaldi bat ere entzun daiteke. Baina nahiak ez ditugu nahi izaten. Nahi izaten ditugunak gertaerak edo ekintzak izaten direla esaten ausartuko nintzateke. Adibidez:

(29) Bihar euria egitea nahi nuke.

esaten dudanean, ez dut esaten nahi bat nahi dudala, gertaera bat nahi dudala baizik, nolabait esateko.

Baina Wilbur-i jarraituz, honek dio zorionez nahi-rekin agertzen ez dena beste batzuetan agertzen dela. Adibidez, (27c) perpausuan beldurra agertzen da axaleko egituran bertan. Goiko perpaus horretan, Wilbur-en ustez, ageriko nahiz izkutuko buru-izenaren eduki semantikoak "represents things or events that remain

in unaccomplished potentiality. Neither "fear", nor "wish", nor "order" represent realized facts. In order to characterize the underlying structures that distinguish la complements from the latter kind of complement, it seems necessary to mark the head noun with a semantic feature $[+Fact]$. We can therefore, refer to noun phrase complements with la as factive complements".²⁰

Egia da agindua, beldurra, nahia,... gauzatugabeko "zerak" direla, baina azken batean, konpletibo hauek aditz bati edo predikatu bati loturik daudela onartuz gero, aditz mota batekoek eta beste koek normala da konplementu mota bat edo beste bat eskatzea. Zeren, gainera, ez dago batere argi, adibidez, beldur-ek har dezakeen konplementuak $-(E)LA$ atzizkia ezin duenik eraman. Froga bezala, hona hemen Agirre Asteasukoak eskaintzen digun perpausa:

(30) "Beldur naiz guyenai biotzac eranzungo diela".²¹

Hortaz, $-(E)LA$ eta $-(E)N$ atzizkidun konpletiboen arteko diferentzia ez dago $[+Fact]$ tasun zehaztapen horretan. Faktibotasuna behintzat -iruditzen zait- beste era batera ulertu ohi dugu, Kipar-kytarren lan garrantzitsutik hona behintzat.²²


Wilbur-en ustez faktibo omen direnen eta ez-faktibo omen direnen artean sakonean diferentziarik ez dagoenez gero, diferentzia guztia izen sintagmaren buru egiten duen izenaren edukian bilatzen saiatzen da: "I have tried to find an answer in the content of the sentence, specifically, in the content of the head noun of the complement structure. Ez dakit (...) is unrealized knowledge or, at least, something that is not asserted as a fact" dio.²³ Baina berriro ere, eskua pittin bat joan egin zaio, zeren (27b) perpausetan ageri den konpletiboak daraman $-(E)N$ horrek ez du zerikusirik aditz nagusia ez dakit, beraz "unrealized knowledge", izatearekin. Badakit balitz, eta beraz "realized knowledge", gauza bera izango genuke:

(31) Badakit nora joango naizen.

Hortaz, esplikazioa beste nonbait bilatu beharko dugu. Eta aterabidea begien bistakoa da: $-(\underline{E})\underline{LA}$ eta $-(\underline{E})\underline{N}$ bi konplementatzaile desberdinak dira. Bresnan-i jarraituz,²⁴ KONP-en gauzatzea $[+GALD]$ edo $[-GALD]$ izan badaiteke, euskaraz ere, bidezkoa da pentsatzea konplementatzaile bakoitzari bere morfema berezia dagokiola. Horrela, esan genezake, $-(\underline{E})\underline{N}$ atzizkia dela zenbait kasutan behintzat $[+GALD]$ tasuna duen konplementatzaileak hartuko duen forma.

Baina oraingoan ere -Wilbur-en erara- zehargaldera hauen izensintagmatasuna onartuz, zein izango litzateke sakoneko egitura? Eman dezagun zehargalderek eta $-(\underline{E})\underline{LA}$ konpletiboek funtsean egitura bera dutela sakonean. Adibidez, honako hau:

(32)



Hau bada egitura, $-(\underline{E})\underline{LA}$ eta $-(\underline{E})\underline{N}$ konpletiboen arteko diferentzia bakarra KONP osagaien bilatu beharko dugu. Baina zehargalderen eta $-(\underline{E})\underline{LA}$ konpletiboen artean bada diferentzia nabarmen bat, nere ustez garrantzi handia duena. Lehenago eztabaidatu ditugu / ... -ELAKO + izena / moduko itzuliak. Eta hauek dira, hain zuzen, konpletiboen izensintagmatasunaren aldeko argumenturik bortitzene-tarikoak. Baina zehargalderekin oso bitxiak gertatzen dira horrela-ko esapideak. Nere hizkuntz gaitasunak behintzat ez dit uzten hona-ko perpaus hauek onartzen:

(33) a. *Partidua nork irabazi duen galdera erantzunik gabe gelditu zen.

b. *Aprobatuko ote duen zalantzak ez dio lo egiten utzi.


Eta debeku bera dugu -nik uste- delako zehargaldera hori perpaus ez-mugatua denean ere. Adibidez, (34) zilegi da, baina ez (35):

(34) Bihar erabakiko dugu kantariei zenbat ordaindu.

(35) *Kantariei zenbat ordaindu erabakia bihar hartuko dugu.



Badirudi, hortaz, axaleko egituren behintzat ez dela zilegi galderazko perpaus bat izen lexiko bati loturik ematea. Orduan, (32) egitura ontzat ematen bada, eta, beraz, $I\ S \rightarrow \bar{P}\ I\ Det$ erregela ere bai, aditzera eman beharko litzateke $\bar{P}$ -ren ondoren joan daitekeen izena ezin daitekeela izen lexiko bat izan. Nahi eta ez, ezabatua gertatuko den PRO bat edo, izango dela. Dena den, debeku hau bitxi samarra dela esan behar. Ez ote litzateke hobe zehargalderak izen sintagma ez direla pentsatzea? Izan ere, konpletibo adierazkorretan $-(E)LA$ -ren parean $-NA$ eta $-(E)NIK$ ere baditugun bezala, zehargalderetan ez dugu horrelakorik. Beraz, hipotesi modura bederen, esan liteke zehargalderak ez direla izen sintagma. Baina orduan, honako hiru hipotesi hauen aurrean hautatu beharrean aurkituko gara:

A hipotesia: $-(E)LA$ konpletiboak eta $-(E)N$ konpletiboak (zehargalderak alegia), denak dira izen sintagma. Denek dute honako egitura hau:



Baina zehargalderetan bada debeku bat: $[+GALD]$ dugunean, I (=izena) KONP ezin da izen lexikoa izan. Nahi eta ez, izen "huts" bat behar du izan. Debeku hau, noski, nahikoa ad hoc izango litzateke.

B hipotesia: -(E)LA konpletiboak izen sintagma dira, baina zehargalderak ez. Hots: honako bi egitura hauek izango ditugu eta ez, lehen bezala, bat bakarra:



Hala ere, -(E)LA konpletiboa eta -(E)N zehargaldera, biak, ager daitezke perpausean leku berean: objetuaren lekuan. Ez da, hortaz, oso garbi ikusten bien arteko diferentzia. Bestalde, gorago eman ditugun arrazoiek -(E)LA konpletiboen izen sintagmatasunaren alde, berdin berdin balio dute zehargalderentzat ere. Hortaz, ez dirudi oso bidezkoa denik bi egitura hauek bereiztea. Hona hemen, hortaz, beste hirugarren hipotesia bat.


C hipotesia: Konpletiboak ez dira izen sintagma, $\bar{P}$ baizik. Bestan da hipotesirik sinpleena berau dugula, konplementu perpaus guztiak modu berean tratatzen baititu. Hala ere, elkarren arteko diferentzien berri emateko gauza izan beharko genuke.

Dena dela, hirugarren hipotesi hau onartuko bagenu, ez genuke izango inolako problemarik perpaus hauek izen bati lotuak gero direnean gertatzen dena esplikatzeke. Alegia, (39) perpausari

bide eman dakioke erregela egokia emanaz:

- (39) Bi eta bi hamalau direlako ustea guztiz zabaldua dago ikasleen artean.

Hemen ageri den izen sintagmak honako egitura izan dezake:



Honek esan nahi du honako erregela sintagmatiko hau beharrezkoa dela oraindik:

- (41) $I\ S \rightarrow \bar{P}\quad I\quad Det$

Baina, C hipotesiaren arabera, erregela hau benetan izen sintagmaren buru izen lexiko bat ageri denerako gorde behar dugu. Ez bestetarako.

Era berean, nola esplikatu (42)-ren ez-gramatikaltasuna?

(42)*Bi eta bi zenbat diren galderak nahastu egin ditu ikasleak. Perpaus hau ez-gramatikala bada, esan nahi du $\left[\begin{smallmatrix} \bar{P} & I & Det \\ I\ S \end{smallmatrix} \right]$ egitura onartu ahal izateko KONP-ek $[-GALD]$ izan behar duela. Eta debeku hau ez da, hasieran pentsa litekeen bezala, ad hoc, zeren egiazko erlatibozko perpausak ere debeku bera baitute. Alegia, erlatibozko perpausak erakusten duten KONP horrek nahi eta ez $[-GALD]$ izan behar du.²⁵ Horrenbestez, debeku horrek badu justifikazioa. Eta are gehiago, erlatibozko perpausari eta (40)-ko izenaren konplementu diren perpausen

antzekoei egitura bera emango bagenie. Hots: biak (41) erregelaren bidez sortaraziko bagenitu, nahiz askok erlatiboentzako proposatu duten beste erregela honen bidez:

$$(43) \text{ I S } \longrightarrow \overline{\text{P}} \quad \text{IS}$$

Dena dela, euskaldunak (42) bezalakoen ordez beste itzuliniguru batzutara jo behar izaten du: edo aposizioetara edo bestelako koordinazioetara. Adibidez:

- (44) a. Bi eta bi zenbat diren galdegin diet eta nere galderak nahastu egin ditu ikasleak.
- b. Nere galderak, alegia bi eta bi zenbat diren, nahastu egin ditu ikasleak.

Hortaz, perpaus konpletibo hauek $\overline{\text{P}}$ soilak direla onartzen badugu, ez du zentzurik Wilbur-ek dioenak: "The non-factive nature of the en-complement is determined by the semantic content of the head noun of the complement structure"²⁶. Aski litzateke, nik uste, predikatu nagusiaren esku uztea perpaus txertatuak zein forma hartuko duen erabakitzea: aditz batzuk zehargalderak ametituko dituzte konplementu gisa baina beste batzuk ez. Subkategorizatze kontua, hortaz. Zehargalderak perpaus mota berezia dira eta azken batean [GALD] delakoa nola interpretatu behar den jakitean legoke arazoa.²⁷

3.- Aditz mugagabeko perpausak.-

- (45) a. Mendira joatea erabaki dut.
 b. Ahaztu egin zitzaidan txartela hartzea.
 c. Debekatu egin diote ardoa edatea.
- (46) a. Ez dut erabaki nora joan.
 b. Ez nekien zer egin.
 c. Pentsatuko dut nori lagun(du).

Hemen ere problema bera dugu. (46)-ko zehargalderek aurkezten dizkiguten arazoak aipatu ditugu. Adibidez, badakigu hauek ezin dutela kasu markarik hartu ez eta izen baten konplementu gisa agertu ere:

- (47) *Nora joan erabakia ez dut oraindik hartu.

Horrela, lehengo ondorio berera iristen gara: alegia, zehargaldera hauek $\bar{P}$ soilak direla eta ezin direla $\left[\begin{smallmatrix} \bar{P} \\ I \\ IS \end{smallmatrix} \text{ Det} \right]$ egituran agertu. Hain zuzen, aditz mugatua duten gainerako zehargalderak bezalaxe.


Baina perpaus konpletiboen izensintagmatasuna inon argi ageri bada, -T(Z)E gisako aditz izena daramaten perpaus txertatuetan ageri da. Izan ere, hauek edozein kasu marka onar dezakete, lehenengo atalean ikusi dugun bezala. Izen sintagma baten barruan ere ager daitezke. Beraz, hauekin dugu izen sintagma direla pentsatzeko eskubiderik gehien. Baina hauekin ere, izen sintagma direla onartuz gero, burutzat izen bat jarri beharra dago, izen sintagmaren endozentrikotasuna errespetatu nahi badugu. Zenbaitek²⁸ I adabegiaren azpian EKINTZA edo antzeko izen bat ezartzea proposatzen dute, gero ezabatu egingo bada ere.

Wilbur-ek lehen BERRIA, USTEA, FAMA eta abar proposatzen bazituen, oraingoan ere horien antzeko zerbait proposatu beharko


luke. Hala ere, ez ditu oso egitura mugatuak baizik hartzen kontutan. Ez digu aztertzen, adibidez, gure (45)-eko perpausen antzekorik. Horien orde, (47) perpausari buruz gauza nere ustez bitxi samarrak esaten dizkigu:

(47) Ez dut utzi zure ikustera.

Perpaus honek, Wilbur-en ustez, honako egitura hau izango luke:




Ondoren, bere extraposizio erregelaren bidez, (49) egitura sortzen zaigu:



Eta, azkenik, perpaus txertatuko sujetua EQUI-ri esker ezabatua izan denez, aditz izena agertuko litzateke, eta (50) egitura izango genuke:

(50)



Harrigarri samarra dirudi Wilbur-en analisi moduak. Kasu-gramatika izenekoaren bidetik abiatzea alde batera utzita ere, bada hor zenbait gauza bitxi. Eta bitxiarena, behar bada, hain zuzen -(E)LA konplementuarentzat eta aditz mugagabedunarentzat sakonean egitura bera proposatzea da.³¹ Wilbur-ek konpletiboetan agertzen zai- gun -(E)LA hori lokatiboaren atzizkia dela dio, ikustera forman ager- tzen den -RA bezala. Eta horregatik bi konplementazio motak elkarren parean jartzen ditu.³² Baina bi konplementu perpausak atzizki bera dutela ontzat emanda ere, zilegi al da aditz mugagabea duten per- pausen sakoneko egituren aditza mugatutzat ematea? Eta hori da, hain zuzen, Wilbur-ek egiten duena: "The transformations that lead from the underlying structure in Figure 45 to the final structure in Figure 47 are essentially identical with those for la-complementation. They, so to speak, take the transformation a few steps further. And, too, the structural description of the structures to be transformed

differs strongly from the structures subject to straight la-complementation. It must be noted that the agent of the embedded sentence is identical with the animate object of the matrix sentence. When this structural description is met, the la-complementation transformation is extended inasmuch as it removes all proper verbal inflection from the verb complex of the embedded sentence, yielding a nominalized verb. It must be added at this point that the verbal affix te, which has the variants ite, tze in other class of verbs, plays an important role in other forms of nominalization and the development of tense indicators".³³

Dagokion sakoneko egituratik (47) perpausera iristeko transformazioak honako urrats hauek eman behar omen ditu:³⁴

a) Izen sintagmaren konplementutikako extraposizioa lokati-boaren gunearen azpira.

b) La posposizioaren erasketa.

Esan beharrik ez dago: Wilbur-en ikuspegitik la-konpletiboaren eta (47) perpausaren erakarbidea orain arte berdin doa. Diferentzia hurrengo bi urratsetan dago:

c) Aditz laguntzailea ezabatu perpaus txertatutik. Hau, gora-go jaso ditugun hitzetan esaten denez, Wilbur-en ustez, badirudi perpaus txertatuko agentea eta perpaus nagusiko objektu biziduna "identical" direlako dela. Ongi ulertu badut, hortaz, forma nominalizatua EQUI delakoaren ondorio edo, izango litzateke. Kasu honetan horrela gertatzen da. Gainera, -T(Z)ERA forma hartzen duten perpaus txertatu guztietan izen sintagmen arteko erreferentzirikidetasun hori gertatzen dela dirudi, -T(Z)EN formakoetan bezalaxe, baina ez dut uste esan daitekeenik aditz mugagabea erreferentzirikidetasun horren ondorio denik. Adibidez, (51) perpausaren ere perpaus nagusiaren subjektua (edo "agentea", nahiago bada) eta mendeko perpausarena ere

erreferentzikideak ditugu, baina ez da desagertzen "all proper verbal inflection from the verb complex of the embedded sentence, yielding a nominalized verb":

(51) Andonik badaki ongi hitzegiten duela.

Hemen, interpretazio normalean eta bestelako testuingururik ezean, bi sujetuak erreferentzikideak direla pentsatuko dugu, hain zuzen

(52) perpausean bezala:


(52) Andonik badaki ongi hitzegiten.

Bestalde, forma nominalizatuak agertu ohi dira sujetu eta guzti, (53)an bezala:

(53) Zu isilik egotea nahi du Andonik.


Hemen agertzen zaigun aditz izena esplikazio zuzenik gabe gelditzen da Wilbur-en bidetik abiatuz gero: hemen EQUI-rik, ez antzeko beste ezer, ez zaigu gertatu. Hala ere hor dugu aditz mugagabea. Honek esan nahi du aditz izena, eta oro har aditz forma mugagabeak, oinarriko formak direla, ez forma erakarriak.

Aditz izenak oinarrian agertu behar duela ontzat eman ondoren perpaus txertatu hauei zer nolako egitura dagokien erabaki behar dugu. Perpaus hauek izen sintagma diren ala ez albora utzita ere, $\bar{P}$ izango direla pentsatu behar da, hauetan ere KONP osagaia badela pentsatzeko eskubidea baitugu. Hortaz, aditz mugatuen eta ez-mugatuen arteko bereizkuntza LAG (=laguntzailea) adabegiari egotzi beharko zaio. Adibidez, (53) perpausak honako egitura hau izango luke:



Zehargalderazkoek ere antzeko egitura izango dute $\bar{P}$ -ri dagokionez.³⁶ Adibidez, (55) perpausak (56) egitura izango luke:


(55) Gero esango dizut nora joan.




Gorago aipatu ditugu **-T(Z)E** aspektu markatzat hartzeko arrazoiak (ikus 62.orr.). Bereziki, ETORTZEA / ETORRI (IZAN)A kontrakotasunak ematen digu horretarako eskubidea. Eta (55)-eko zehargalde-

retan ere ba ote da aspektu markarik? Garbi dago guk geuk zehargal-
 dera hauetan partizipioa erabiltzen badugu ere partizipio hori ez
 dela aspektu burutuaren gauzatzea, etortzea/etorri izana bikoteak
 adieraziko lukeen bezala, beste zerbait baizik. Aditz erroa noiz
 erabili behar den pentsa dezagun: ahalezkoan, subjuntiboan eta agin-
 tekeran erabiltzen dugu (ETOR naiteke; LAGUN diezaiodan; EKAR ezazu...)
 Hauetan, aspektu bereizgarria [+gertakizun] dela esango nuke³⁷ eta, hain
 zuzen, gauza bera dugula dirudi aditz mugagabezko zehargaldera hau-
 etan ere: nora JOAN, nori LAGUN, zer EKAR, nondik BIZI, zer PENTSA,
 eta abarretan beti gerora begira ari garela esan liteke, dena dela
 aditz nagusia. Hortaz, zehargalderetan ageri den aditz mugagabeak
 ere aspektu marka badu: $\emptyset$, eta marka horren balioa [+gertakizun] edo,
 izango litzateke.

Hortaz, honako hiru forma hauek ditugu:



$\bar{P}$ IS adabegiaren azpian egongo da. Baina orduan izen sintagmaren endozentrikotasuna gorde nahi bada, IS horren burutzat izen huts bat gutxienez jarri beharko da. Honelatsu izango litzateke orduan (54)-ko egitura:



Hau onar liteke, baina ez du, hain sinpleki behintzat, nora joan eta antzeko zehargalderak esplikatzeke balio. Hortaz, posible ote da, C hipotesiari eutsiaz, konplementu perpaus guztiei funtsean egitura bera eskaintzea? Saia gaitezen.

Lehenbizi, badirudi -T(Z)EA eta antzeko perpausak zenbait adjetibo daramatela ager daitezkeela:

- (59) Jendeak euskaraz hitzegite

hutsa
soila
bakarra

 ez da aski.

Baina adjetibo hauek bakarrik dira zilegi, dirudienez:

- (60) *Jendeak euskaraz hitzegite

harrigarria
miresgarria
kezkarria

 biziki gustatu zitzaidan.

Hortaz, ez dirudi alde honetatik ere aditz *izendun perpaus txertatu hauek ere egiazko izen sintagmatzat hartu behar ditugunik.

Bestalde, askotan -a mugatzaile horren ordeaz erakusleak ere

ageri dira, baina behar bada kasu horietan bakarrik izango litzate-
ke komenigarri izen sintagmatzat hartzea, etorri delako berria
eta antzeko itzulien tankerakoak izango lirateke egitura horiek.
Bestela, nola esplikatu honako perpaus hauek zilegi ez izatea?:

(61) *Mendira joate hura erabaki genuen.

(62) zeharo normala den bitartean:

(62) Mendira joatea erabaki genuen.

Hortaz, -a eta hura kasu batean eta bestean era desberdinez tratatu
beharko dira. Mendira joate hura-ren tankerakoak mendira joateko kontu
hura eta antzekoen itxurakoak dira eta, horrenbestez, problemarik
ez genuke izan behar horiei honako egitura hau eskaintzeko, hots:
[$\bar{P}$ I Det]. Baina (62)-ko perpaus txertatuei soil soilik $\bar{P}$ egi-
IS
tura eskain dakieke.

Kasu markak ordea izen sintagmei dagozkie. Moduren bat izango
bagenu kasu marka horien berri emateko, perpaus txertatu hauek izen
sintagma direla onartu gabe, konpondua genuke arazoa. Eta, hain zu-
zen bide honetatik joango da gure proposamena, nahiz eta sakonkiago
aztertu beharreko kontua izan.

4.- KONP-en osagaiak.-

Bresnan-ek dioenez, KONP tasun multzo gisa har daiteke.⁴¹
Orduan, perpaus konpletibo hauek, eta bereziki aditz izenezkoek,
berekin dituzten kasu markak ere nolabait KONP horren osagaitzat
har litezke. Horrela, (54) eta (56) egiturak oso ongi osa daitez-
ke baldin eta -a mugatzailea eta hortik aurrera etor daitezkeen
kasu marka guztiak ere KONP adabegiaren azpian sartuko bagenitu.
Jakina, planteamolde honek nahikoa urruti eramán gaitzake, baina
 $\bar{X}$ notazioarekin batera⁴² oso ongi konpon litezke hemen agertu zaiz-
kigun arazoak: a) perpaus hauen "izentasuna" alde batetik, zeren⁴³

perpaus barruan dauden izen sintagmen ezaugarri nagusia kasu marka eramatea baita. Hortaz, KONP-ek emango lieke perpaus konpletibo hauei duten izentasuna; b) sintagma hauen endozentrikotasuna ere salbatua geldituko da, zeren ez dugu jadanik IS kategoria erabili-ko $\bar{I}$ edo $\bar{P}$ kategoria baizik.


$\bar{P} \rightarrow P$ KONP erregelak esango digu, Chomsky-k berak⁴⁴ dioenez, KONP dela P-ren espezifikatzailea edo, zenbaitek uste duenez, KONP bera izango litzateke $\bar{P}$ -ren buru. Era berean, pentsa liteke perpaus barnean agertzen diren aditzaz kanpoko osagai guztiek dutela beren kasu marka eta, horrela pentsa genezake, $\bar{P}$ -ren buru KONP izan badaiteke, gainerako IS guztien buru ere KONP-en kideko litzatekeen osagairen bat izan daitekeela. Adibidez, K (=Kasu marka). Bietan, bai KONP-en bai K-n agertuko litzateke kasu marka. Gauzak horrela planteatuta, ez dugu inolako problemarik izen sintagma "normalen" eta perpaus txertatuen arteko paralelotasunaren berri emateko. Adibidez, honako bi perpaus hauetako bakoitzak erakusten dituzten konplementuak zeharo paraleloak dira, biak inesiboan dauden heinean. Kasu marka izentasun seinale bada, bi konplementuak nolabait nominalak ditugu. KONP eta K pareko kategoriak badira eta berak badira ageri diren sintagmen buruak, izen sintagma ohizkoen eta perpaus konpletiboen parekotasuna guztiz begien bistakoa gertatuko zaigu. (63) perpausak eta (64)-ek funtsean egitura bera lukete eta antzekotasun hori adierazten du bakoitzarentzat proposatzen dugun egiturak.⁴⁵

(63) Gizon hori zerbaitetan ari da.


(64) Gizon hori kalea garbitzen ari da.

(65)


(a)



(b)




Jakina, bide honek oso urruti eramán gintzake eta ongi aztertu beharko litzateke ea zein eratak⁴⁶ erregelak diren egokienak X-barra notazioa erabiliaz. Baina arazo horretan sakontzea beste garai baterako utziaz, hemen axola diguna hau da: bai izen sintagmek bai konpletiboek badutela osagai bat non biltzen diren kasu marka eta baita beste zenbait tasun ere. Horiek denak KONP-en azpira bil daitezke eta -(E)LA konpletiboak, adibidez, (66) egitura duela pentsa daiteke:




Dena dela, agian [+Absol.] tasunaren ordez, [+Objetibo] edo hobe genuke, zeren batzutan badirudi -(E)LA horrek bete dezakeela instrumentala eskatzen duen aditz baten objetuaren lekua ere. Hau da, adibidez, OHARTU-rekin gertatzen dena:

(67) Ohartu naiz zuk sagarrak jan dituzula (ez, *dituzulaz). Baina axola duena da -(E)LA konplementatzaileak bi tasun hauek dituela: [+IZ.] (beraz, nolabait izenkia dugu, nolabait nominal) eta Absolutuaren kasu marka. Horregatik, kasu marka hau duenez gero, ager daiteke perpaus barruan argumentu modura.

Zehargalderra mugatuak ere antzeko egitura izango du:




Aditz mugagabeetan ere gauza bertsua izango dugu. Har dezagun lehenbizi zehargalderazkoa, sinpleena baita:




Hauetan ez dugu KONP-en azpian kasu desberdinak agertzeko aukera handirik⁴⁷ absolutuak dira eta kito. Horrenbestez, normalki objetu modura agertuko dira edo sujetu modura⁴⁸. Baina -T(Z)E forma-ko konplementu perpausek erakusten dute honetan askatasunik handiena, edozein kasu markarekin ager baitaitezke. Hauetan ere, bistan da, kasu marka hori KONP-en osagaitzat hartu beharko dugu. Hala ere, bi eratako egiturak ditugu: mugatzailea dutenak eta mugatzaille gabeak. Mugatzailerik gabeek eraman ohi dituzten atzizkiak hiru dira bereziki eta hirurak leku kasuei dagozkienak: -N, -RA eta -KO. Atzizkirik gabe edo $\emptyset$ absolutuaren kasu markarekin ere agertuko da. Baina orduan mugatzailea derrigorrezkoa dugu. Mugatzaile honen zeregina ez da, noski, ezer mugatzea⁴⁹, perpaus konpletiboak perpaus nagusiaren barruan argumentu izateko bidea ematea baizik. Hortaz, mugatzaile hori ere KONP-en barruan sartuko dugu. Horrela bada, (70) Perpausak honako egitura hau izango du:

(70) Etxea saltzea erabaki genuen.



Baina (72)-k (73) egitura izango du?⁵⁰

(72) Tabakoa erostera bidali nuen Peru.



Hortaz, xehekiago lantzea eskatzen duen planteamendu honekin salbatzen dugu konpletibo hauen perpaustasuna batetik eta baita perpaus nagusian beste edozein argumentuk bezala beren lekua betetzeko ahalmena ere. Aski izan da horretarako honako erregela sintagmatiko hau:

$$\bar{P} \rightarrow P \text{ KONP}$$

KONP hori gero tasun desberdinetan analizatuko da eta tasun multzo desberdinak era batera edo bestera gauzatuko dira perpaus txertatuaren arabera: Denbora osagaia baldin badu, era batera (-(E)LA edo -(E)N) eta Denbora osagaia falta bada, kasu marka desberdinak hartuaz: (a)- $\emptyset$ (nora joan eta etortzea perpaus txertatuetan bezala); -N, -RA, -KO eta baita -a-K, -a-RI, -a-REN⁵¹ eta abar. Horrela, bada, hasierako koadroa aldatu beharrean gara:

(74)

	$\begin{bmatrix} -\text{GALD} \\ \text{KONP} \end{bmatrix}$	$\begin{bmatrix} +\text{GALD} \\ \text{KONP} \end{bmatrix}$
$\bar{P} \begin{bmatrix} +\text{Denb} \end{bmatrix}$	<u>-(E)LA</u>	<u>-(E)N</u>
$\bar{P} \begin{bmatrix} -\text{Denb} \end{bmatrix}$	(<u>-a</u>)+ kasu marka	$\emptyset$

5.- Aditz nagusia eta KONP.-

Aditz nagusi bakoitzak gobernatzen badu zein izango den perpaus txertatuak hartu behar duen forma eta bereziki zein izango den KONP, proposatu dugun bide honek alde on asko ditu, zeren aditz batek halako eta halako tasunak dituen KONP-a gobernatzen duela esatea eta halako aditzek halako kasua gobernatzen duela esatea hein handi batean gauza bera da. Esan nahi baita JOAN bezalako aditz batek adlatiboa eskatzen du: uretara joan, adibidez. Eta $\bar{P}$ ere ametitzen baitu, normala da $\bar{P}$ horren KONP-ak ere [+ADLAT.] tasuna izatea. Hitz gutxitan esateko: aditz bakoitzak, dagozkion konplementuak eskatzen ditu, konplementu hauek izen sintagma: 'normalak' direla nahiz $\bar{P}$, baina batari eta besteari antzeko tasunez hornituak egotea eskatzen die. Konplementu horrek zer nolako kasu markak eraman behar dituen aditz nagusiak esango digu. Eta eskakizun honek $\bar{P}$ -rentzat nahiz IS-rentzat balio du, bakoitzak bere kasu markak eraman behar baititu. Esate baterako, ERABAKI, ASMATU, ⁵²AHAZTU, GUSTATU, NAHI eta abarrek beren objektua absolutuan eskatzen dute. Bestalde, objektu hori $\bar{P}$ izan daiteke eta, gainera, aditz mugagabezkoa. Orduan, badakigu [-GALD, +OBJET., +ABSOL.] tasunak dituen KONP-a hautatzen dutela eta, horrenbestez, zilegi izango direla honako perpaus hauek denak:

(75) a. Erabaki dute zinera joatea.

b. Zerbait idaztea asmatu dut.

c. Tabakoa hartzea ahaztu zaila.

d. Andoniri adarra jotzea pentsatu genuen.

e. Ez zait gustatzen tabernaz taberna ibiltzea.

Denek KONP bera baitute eta aditz nagusi horiek denek KONP hori hautatzen baitute.

Era berean, aginte-erreguzko aditzek (ESAN, AGINDU, ERREGUTU, ESKATU, eta antzekoek) [-GALD, +OBJ. +DESTIN.(?)] tasunak dituen konplementatzailea hautatzen dute.⁵³ Horrenbestez, honako perpaus hauek izango genituzke:

- (76) a. Isilik egoteko esan zidaten.
 b. Behera joateko agindu zioten Peruri.
 c. Garaiz etortzeko erregutu zidaten lagunek.
 d. Apur batean itxaroteko eskatu zidan dendariak.

Hau dena, hein handi batean, aditz nagusiari dagokion klase semantikoak finkatua dator. Esan nahi baita, klase bereko aditzek era bateko KONP-a eskatzen dute, oro har. Hau dena erredundantzi erregelen bidez eman daiteke aditzera. Adibidez, aipatu berri ditugun aditz hauek denek [+AGINTE] tasuna dute eta tasun hau duten guztiek ametitzen dituzte -KO kasu marka duten $\bar{P}$ txertatuak.

Beste batzuk, nolabaiteko mugida adierazten dute: JOAN, ETORRI, ERAMAN, BIALDU,Hauetan normala da [+ADLAT.] tasuna duen KONP-a eskatzea. Edo [+INES]⁵⁴ tasuna. Dena dela, kontu hauek denak badirudi hiztegian konpondu behar direla, behar diren erredundantzi erregelez baliatuz. Adibidez, zenbait aditzek [+Erazle]⁵⁵ tasuna badaramate, sujetuan $\bar{P}$ ager daiteke. Jakina, $\bar{P}$ honek ergatibo marka eraman beharko du, aditz nagusiak horrela eskatzen duelako.⁵⁶

- (77) Zu hemen ikusteak { $\left. \begin{array}{l} \text{mindu egin nau} \\ \text{leku txarrean utzi nau} \\ \text{gauzak hobeto ulertarazi dizkit} \end{array} \right\}$

Aditz iragankorren artean, hortaz, gutxienez hiru multzo berezi ditzakegu:

- a) Inolako perpaus konplementurik hautatzen ez dutenak:
JAN, HAUTSI, SALDU, EGOSI, ZAPALDU, eta abar.⁵⁷

b) Aditz mugatuzko perpaus txertatuak hautatzen dituztenak konplementutzat: ESAN, IRAKURRI, USTE IZAN, AHAZTU, ADIERAZI, SINISTU, GALDETU, JAKIN,...

c) Aditz mugagabezko perpaus txertatuak hautatzen dituztenak: ERABAKI, AGINDU, DEBEKATU, LORTU, NAHI, ...

Azken bi hauetan, berriz, [4GALD] tasuna duen KONP-a zeintzuk onartzen duten ikusi beharko litzateke. Adibidez, USTE IZAN-ek edo DEBEKATU-k ez dute zehargalderarik ametitzen konplementutzat. Hautapen debeku hauen oinarrian semantika dugu, noski, eta hiztegian edo, eman beharko da horren berri.⁵⁸

Gure lan honetan aditz mugagabezko perpaus txertatuez aritu nahi dugu batez ere. Berez, arlo honetan ere konplementatzaile desberdin guztiak hartu beharko genituzke kontutan, baina orain arte esandakoarekin aski dela iruditzen zait konplementazio mota hau bere osotasunean ulertzeko. Hala ere, ondoko lerroetan inesibozko (edo adlatibozko, euskalkien arabera) perpaus txertatuez aritzea beharrezko dirudi, besteek ez dituzten berezitasunak baitituzte. Hortaz, ondoko lerroetan -T(Z)EN formako $\bar{P}$ txertatuak aztertzen saiatuko gara.

6.- Euskalkien arteko bereizkuntzak: TO-GEN.-

Atal hau amaitutzat eman baino lehen euskalkiak elkarrengandik bereizten dituen egitura bati buruz ere zerbait esan beharra dago.

Aditz mugagabezko perpaus txertatueta gainerako perpausetan agertu ohi diren izen sintagmak agertu ohi direla ikusi dugu. Hain zuzen, horixe izan da arrazoi nagusia egitura hauek perpausatzat emateko. Gainera, nere euskalkian konplementu horiek perpaus mugatuan eta mugagabeen era berean agertu ohi dira. Baina hau ez da euskalki guztietan horrela gertatzen. Iparraldeko euskalkietan (L., B.N. eta S.), zenbait kasutan, aditz iragankor baten izen sintagma objetua genitibo forman agertzen da. Iragankorraren sujetua, ergatiboa, ez da genitibatzen ez eta iragangaitzaren sujetua ere, nahiz eta iragankorraren objetua eta iragangaitzaren sujetua, biak, absolutuan agertu perpausa aditz mugatuzkoa denean. Guk (78) esango genukeen lekuan, Argaiñaratz-ek (79) jartzen du:

(78) Deliberazione fermu bat hartzea.

(79) "Deliberacione fermu baten hartcea" ⁵⁹

Funtsean, axaleko diferentziak gorabehera, bi perpausai egitura bera eman beharko zaie. Bidezko jotzen dugu, hortaz, Heath-en proposamena: "I will assume that base forms of infinitive clauses are like those of main clauses except that aspect and tense markers are absent"⁶⁰. Oinarritzko forma hori bada, axalean nabari den diferentzia aditz-izendun perpausaren izen sintagma objetua genitibatu izanari zor zaiola onartu beharko da. Objeto genitibatze hau transformazio erregela bati egozten dio Heath-ek, TO-GEN (=Transitive Object Genitivization) deitzen duenari hain zuzen.

TO-GEN hau deribazioaren zein mailatan aplikatzen den jakin behar da. Heath-en ustez, erregela honek kasu-markatze errege-

len ondoren gertatu behar du. Bestela, ezin esplikatu izen sintagma objektu honek partitiboaren marka daramanean, TO-GEN hori blokeatua geratzeari. Garbi dagoena da genitibatze hori ageriko kasu markarik ez daraman izen sintagmari gertatzen zaiola,⁶¹ partitiboaren marka erastea bezala. Baina partitiboaren markatzea TO-GEN dela-koaren aurretik aplikatzen dela ikusteko aski dugu honako perpaus hauei begirada bat ematea:


(80) a. Banca, gizonik ez ikusteko.

b. Banca, gizonen ez ikusteko.


(80a) eta (80b)-k ez dute esanahi bera. TO-GEN Partitiboaren aurretik aplikatzea zilegi balitz, (80b)-k gramatikala behar luke (80a)-ren interpretazioarekin. Baina ez da horrela gertatzen. Beraz, (80a) bezalako egituretan partitiboaren markatzea derrigorrezkoa izango da eta TO-GEN-en aurretik gertatuko.

Bestalde, partitiboa⁶² erregela postziklikoa omen denez, TO-GEN erregela ere aski berandukoa izango da.

TO-GEN honen "input"-a honako egitura hau izango litzateke⁶³



Eta transformazio erregela horren ondorioa hau izango litzateke:



Ondoren Heath-ek planteatzen duen arazoa da ea TO-GEN hau erregela burujabea den ala, ostera, genitibatze erregela orokorraren kasu bat. Heath-entzat erregela berezi bat da.

Bestalde, TO-GEN aski beranduko erregela denez, "the question is whether there is any syntactic difference at this level which would account for the application of TO-GEN to TO's but not IS's. Since case-marking has already applied, IS's and TO's have been grouped together morphologically in opposition to ergative TS's before TO-GEN applies. TO's have no particular tendency to appear closer to verbs than do IS's, so word-order does not provide a way out. All in all, there seems to be no natural explanation of why TO's but not IS's are genitivized, if this genitivization is considered as merely a special case of the general genitivization rule".⁶⁴

Genitibo normalak, dauden izen sintagmatik kanpora ezin atera daitezkeen bitartean (froga (83) perpausaren ez-gramatikal-tasuna), TO-GEN erregelaren ondorioz sortutako genitiboak ez dauka zertan aditzaren ondo ondoan egon:

(83) *Txakurra ikusten dut gizonaren.

Baina (84) "On zatekeiela, gauza hunetzaz liburu baten, euskaraz, guztiz ere euskararik baizen etziakitenentzat, egitea".⁶⁵

Arrazoi hauengatik, Heath-en ondorioa da genitibatze erregela orokor bakar baten barruan ezin esprika daitekeela aditz iragankor baten objetuaren genitibatzea.⁶⁶

- Baina zergatik aplikatzen zaio aditz trantsitiboaren objetuari bakarrik, eta zergatik iparraldeko euskalkietan bakarrik? Honen erantzuna funtzionala dela dio Heath-ek: genitibo honen agertzea anbiguitatea hausteko modu bat omen da. Aditza mugatua denean,

aditzak nor-nori-nork markak jasoak dituenaz gero, gerta zitekeen anbiguitate asko ez dira gertatzen. Baina marka horiek falta direnean, aditz mugagabeetan bezala, komunztadurarik ez denez, egoera askoz txarragoa gertatzen da. "In the conservative subdialects, many otherwise possible ambiguities in infinitive clauses can be resolved by the pitch-accent pattern. In the other dialects substantial ambiguities are probably found in these clauses, but the prior existence of the pitch-accent system helps explain the lack of TO-GEN historically"⁶⁷. Adibidez, (85) perpausa anbigua da:

(85) Txakurrak ikustea ona da.

Txakurrak izen sintagma absolutu plurala nahiz ergatibo singularra izan baitaiteke eta gure euskalkian ergatibo plurala ere bai. Hori, nere kasuan behintzat, azentu desberdinak desanbiguotuko luke:

(86) a. Txakurrak ikustea ona da

(= [[[pro] [txakurrak ikustea]] ona da])⁶⁸

b. Txakurrák ikustea ona da

(= [[[txakurrak] [pro ikustea]] ona da])

TO-GEN erregelaren bidez, berriz, (85)-ek interpretazio bakarra izango luke, hots: TXAKURRAK ergatiboa izango litzateke. Izen sintagma hori objetutzat interpretatzeko, genitiboan beharko genuke, (87)-an bezala:

(87) Txakurren ikustea ona da.

Ez dut uste, hala ere, arrazoi honek indar handiegia duenik. Izan ere, badakigu gehienetan era honetako perpaus txertatuak sujeturik gabe agertzen direla axalean.⁶⁹ Sujetu huts honen interpretazioa testuinguruak finkatuko digu. Gauzak horrela, anbiguitate kasuak ez lirateke hainbeste izango eta, beraz, gehitxo dirudi

esatea anbiguitatea hausteko sortu zutela TO-GEN hori. Izatekotan ere, ez litzateke hori izango arrazoi bakarra ez eta nagusia ere. Antzeko anbiguitateak gertatu behar lukete beste perpaus adverbial batzutan ere, bereziki partizipioaz baliatuz osatzen ditugunetan:⁷⁰

(88) a. Hori eginik (eginda) zer irabazten duzu?

b. Andoni ahotsa galdu(a)z doa.

Baina, nik dakidala, hemen ez da inongo genitibatzerik gertatzen.⁷¹

Letamendiak horrelako adibide mordo bat dakar, Leizarraga eta Duvoisin-engandik jasoak:

(89) "Çuec hori ikussiric, etzarete emendatu guero, haren sinhestera" (Mt. XXI, 32)

(90) "Beguiac cerurat goitituric, gratiác renda citzan" (Mt. XIV, 19)⁷²

Kasu hauetan ez genitibatzearen arrazoiak garbi dago: partizipioa ez delako izena, adjetibo edo antzeko zerbait baizik, izatekotan. Baina hemen hizpidea eman diguten perpaus adverbial hauetan partizipioak bere adiztasuna gordetzen duela pentsa daiteke eta, horrenbestez, ez dela posible aditzaren osagarria genitibo bihurtzea. Baina bai aditz izenarena. Hain zuzen, hemen bilatu behar da aditz izenaren objetua genitibatzearen arrazoiak eta ez anbiguitatea hautsi beharrean, partizipiodunak ere besteak bezain anbiguo gerta bailitezke.

Xubereraz ere honela omen dira gauzak, partizipiozko perpaus adverbial hauetan genitibatzerik ez baita gertatzen. Hala ere, Heath-ek dioenez, aditz erro soilaren aurrean genitibatzea gertatzen da: "As in Labourdin, TO-GEN usually fails in perfective participle complements of nahi, "desire", because the TO is raised into the next clause up. However, when nahi is not part of a verbal

complex, but rather is treated as a noun in an adverbial (usually with instrumental -z), there is no clause into which the TO can be raised. It remains part of the complement clause subordinated to nahi, and the examples I have show that TO-GEN takes place:

(51) haren atçaman nahiz

(52) eta khorpitzaren gal lotsaz

"The limited data suggest that there may be a real restriction on TO-GEN in perfective clauses in adverbial clauses, where the participle has one of the nominal suffixes -(r)ik (partitive) or -(e)z (locative):

(53) hura kitatürrik

(54) zu ikhousiz geroz."⁷³

Baina gauzak orain ere partizipio edo aditz-erroaren interpretazio desberdinaren bidez esplika daitezke. Xubereraz ere perpaus adverbialetakoko partizipioa ez da izentzat hartzen, beraz ez da genitibatzerik. Baina NAHI edo LOTSA-rekin deana nolabait izentzat hartuko litzateke (51) eta (52) perpausetan. Alegia, atçaman nahia eta gal lotsa nolabait izenak lirateke. Baina besteetan, partizipioa dugunez, ez litzateke horrelakorik gertatuko. Ez dut beste esplikaziorik ikusten.

Dena den, genitibatze hori anbiguitatea hausteko sortua delako horrek ez du indar handiegirik, besteetan ere anbiguitate arriskua berdina berdina delarik, ez baita inongo genitibatzerik gertatzen. Nere ustez, genitibatze horren arrazoiak ez dira funtzionalak, egiturazkoak baizik.

Partizipioarekin genitibatzerik ez dagoela konturatzen da Heath eta esplikazio bat eman nahian ez zaio besterik bururatzeko hau baino: "There must be a restriction on TO-GEN that it can not apply in perfective participle clauses"⁷⁴, eta piska bat aurrerago honela mintzo da: "In the Labourdin dialect, we conclude,

there is a major difference between infinitive clauses and the other two non-finite clauses (hots: partizipioa eta aditz erroa). I do not claim to have found a clear functional explanation for this discrepancy. Lafitte says that in this dialect the perfective participle "est considéré plutôt comme un verbe". However, it is hardly a verb in an utterance like (45) ((45) 0 Jainko hoinbertze mirakulu egin-Ø-a). If it could be shown that perfective participle and radical clauses could be derived from finite clauses by a late rule eliminating the auxiliary, there would be no problem. However, I am not prepared to make such a claim with the evidence available to me at this time".⁷⁵

Ene ustez, arrazoiak funtsean Lafittek du: (91) bezalako perpausetan partizipioa aditzat har daiteke. Ez behintzat izentzat:⁷⁶

(91) Hura ikusirik, ez nuen ezer esan.

Eta Heath-ek dakarren (45) perpausoko partizipioa ere perpaus erlatibo murriztu batetik erakarritzat har daiteke,⁷⁷ beraz, hemen ere aditz baten aurrean gaude.

Hortaz, TO-GEN delako honek eskatzen duen baldintza nagusia da aditzak izen forma izatea. Genitiboak izen bati lotua behar baitu, ez aditz bati. Hortaz, noizpait eroste bezalako aditz bat -lan honetan honako egitura hau duela ontzat eman dugularik:

[eros] - [te] - izentzat interpretatu behar da.
A LAG

Eta zergatik trantsitiboaren objektuari eta ez intrantsitiboaren subjektuari? Arrazoi bat eman daiteke: -T(Z)E formako perpaus txertatu hauetan gehienetan ez da subjekturik agertzen, dela ergatiboa dela absolutua.⁷⁸ Horregatik, objektua, aditzaren ondoan agertzen delarik, eta aditz hau -T(Z)E-ri esker "izendua" dagoenez, genitibatzea posible gertatzen da.

Genitibatzeak dituen debekuen artean, -T(Z)EAN eta -T(Z)EA-REKIN formetan ez dela genitibatzerik gertatzen esan behar da.⁷⁹

"It is not entirely clear why this exception occurs (...) Perhaps it is due to analogy with other types of adverbial clause, which do not have TO-GEN. We could explain the case markin in (33) and (34) ((33) hura ikustean eta (34) hura ikustearekin) as due to the influence of semantically (rather than formally) similar clauses".⁸⁰

"Similar clauses" direlako horiek (92)-koak izango liratek:

- (92) a. Hura ikusirik.
b. Hura ikusiz.
c. Hura ikusten dudanean.

Salbuespen horien esplikazioa ez dut oso garbi ikusten, baina, behar bada hau izan liteke: perpaus adverbial hauek ez daude aditz nagusiaren "kontrolpean": aditz horren edo, hobeto, behar bada, perpaus osoaren edo aditz sintagmaren ondoan dagoen zerbait dira, aditz nagusiarekin oso lotuak ez daudelarik. Horregatik, sujetua agertu ezinik ere ez dute:

- (93) a. Zuk hori egitean, gauza polit bat bururatu zitzaidan.
b. Andonik gezurra esatearekin, gu atera gara galtzaile.

Orduan, perpaus hauek "osoagoak" agertzen dira beste zerbait baino. Adibidez, -RA atzizkiduna edo -N edo -KO-duna aditz nagusiaren kontrolpean egon ohi dira: sujetua PRO formakoa izan ohi dute eta kontrolatua. Horrenbestez, perpausk hauek sujeturik gabe agertzen direnez,
$$\left[\begin{array}{cc} \text{[PRO]} & \text{[IS - A}_{izen}\text{]} \\ \text{P[IS} & \text{AS} \end{array} \right]$$
 egitura dute. Besteen joera, berriz, sujetu gisa pro-z gainera, izen sintagma lexiko bat agertzekoa izan ohi da eta, horregatik, perpaustzat, perpaus oso-tzat, alegia, hartzeko aukera hobea dago. Izen sintagma lexikorik ez dutenetan, ordea, izen sintagma objetua genitibatzeko aukera egokiagoa dago A_{izen} aditz "izendua" denez gero.

Iruditzen zait datu honetan bilatu behar dela TO-GEN-en arrazoia.

- Gainera, Heath-ek iradokitzen duen baino zabalagoa dela esango nuke fenomenoa. Geure artean ere -hegoaldeko euskalkiez ari naiz orain- horren arrastoak bai baitira. Hor ditugu, hain zuzen, BILA, ESKE, GALDE eta antzekoak. Hauek -eta IHESI, ZAIN eta beste bakarren batzu ere bai- genitibo bat aurretik dutela ager daitezke:

(94) a. Zure bila etorri dira.

b. Liburu baten eske gatoz.

c. Aitaren galdezka agertu ziren poliziak.

Hauetan zergatik agertzen da genitiboa? Bila, eske eta galde nolabaiteko izentzat hartzen ditugulako. ESKE eta GALDE izenak direla dudarik ez da. BILA askoz arazotsuagoa da. Dena den, hitz hauen gramatika kategoria zein den ez dago oso argi. Villasante-⁸¹ rentzat genitiboa eskatzen duten posposizioak dira. Dena dela, ESKATU eta BILATU aditzekin zerikusia batute, begien bistan dagoenez. Eta, hain zuzen, genitiboaren eta ESKE eta BILA elementuaren artean dagoen erlazioa, objektuaren eta ESKATU edo BILATU aditzaren artean dagoen erlazio bera dela esan genezake:

(95) a. Zu bilatuko zaitut jendetzaren erdian.

b. Liburu bat eskatu ziguten.

AITA eta GALDERen artean dagoen erlazioa ere, atzizkia⁸² gorabehera, objektu-aditz erlazioa dela esan daiteke.

Hala ere, zail da esaten fenomeno honen historia zein izan den. Gaur, fenomenoaren banaketa aski argi dago, baina ez dut uste posible denik esatea diakroniaz lehenbizi egitura bat zuela euskarak eta gero beste bat. Esan daitekeen bakarra da fenomeno aski zabala dela, eta genitibatzearen arrazoiak egiturazkoak direla batez ere: aditz izendua dagoen momentutik interpreta daiteke

nahiz aditztat nahiz izentzat. Gaur guk, mendebaldeko euskalkietakook, aditztat hartzen dugula esan genezake eta genitibatzen dutenek, berriz, izentzat.⁸³

Dena dela, genitibatze hau dutenentzat ere, erregela hori aukerakoa dela dirudi. Argaiñaratz-ek, adibidez, ez du inolako oztoporik perpaus berean bi egiturak nahasian erabiltzeko:


- (96) "Contricionea da dolore, eta / damu landi bat
lencoaren/ ofesatceaz, ceren den haiñ ona, /
eta gauça gucien gaiñean maitatcecoa, eta harcea
boronda-/ te fermu bat ez haren guehia-/ go
ofensatceco haren graciarequin batean".⁸⁴

Ahotan darabiltzagun egitura hauek perpausak baldin badira, noizpait deribazioan aditza izen bihurtua beharko dugu genitibatzea gertatuko bada. Horrela, (97)-ko perpausak noizpait egitura desberdina izango dute, nahiz eta sakonean egitura bera izan:


- (97) a. Deliberazine fermu baten hartzea.

- b. Hartzea borondate fermu bat.


Ohart gaitezen lehenbizi hemen sujeturik ez dela ageri axalean. Ordena gorabehera, perpaus hauek sakonean egitura bera izango dute. Gutxi gora behera, KONP-i buruz aurrerago egin dugun proposamena onartuz, (98) izango litzateke:




Baina gero (97a) eta (97b)-ri egitura desberdina eman behar, eta batentzat hartze-k A izaten segitzen duten bitartean, hartze hari izen bihurtua agertuko da bestean. Ez dakigu xuxen nola:




Perpaus honek, genitibatzearen ondoren honako itxura hartuko luke.



Egitura hau, funtsean, gainerako IS guztiena bezalatsu litzateke:



Genitibatzerik gertatzen ez denean, egiturak, funtsean bere hartan segituko luke:



Anbiguitatea hautsi beharrak ez duela gauza handirik esplikatzeko esan dugu. Baina bada beste galdera bat ere: Zergatik gertatzen da genitibatzea trantsitiboaren objektuarekin bakarrik? Sujetuak status berezia duen bezala, dela ergatiboa dela absolutua, -eta horregatik sartzen da EQUI edo kontrol kontuetan sujetua eta ez objektua- normala da objektuak ere bere statusa izatea. Gehienetan sujetua agertu ere egiten ez bada, objektua bai agertzen da, aditza trantsitiboa bada. Gainera, aditzaren eta objektuaren artean lotura estuagoa dago aditzaren eta beste elementuen artean baino.⁸⁵ Aditza izendua badago, objektuaren eta aditz izenaren artean IS adabegi beraren azpian dauden bi IS-ren artean dagokeen erlazio bera ezarriko litzateke.

Hortaz, bi bide bezala ditugu. Batean aditz izendua izentzat hartuko litzateke eta bestean aditzat. Bigarren kasu honetan, -T(Z)E atzizkiak nolabait perpaus osoa nominalizatuko luke edo, agian, LAG-en gauzatze denez, aditzak aditz izaten segituko luke.⁸⁶ Lehenbiziko kasuan, berriz, aditz izendua izentzat hartuko litzateke eta (100)-eko egituraren antzera interpretatuko.

Eta, hain zuzen, bikoizketa hau ez da bakarrik $\left[\begin{array}{c} \text{Aditza} + \text{-T(Z)E} \\ \text{I} \end{array} \right]$

erakoetan gertatzen. Dirudienez, badira beste era bateko izenkien

adibide banaka batzu ere. Egile izenkiekin adibidez, honako hauek eman daitezke:

(102) a. "Bicia luçagarri"⁸⁷ (=biziaren luzagarri).

b. "bekhatuac hunen latzqui punitçaillea"⁸⁸

Baina Etxeberri penen asmatçaillea eta iraganen ahantzgarri ere erabiltzen du.⁸⁹

Leizarragak, berriz, honako adibide hauek eskaintzen dizkigu, besteak beste:

(103) a. "Gauça hauen-Apostoluey erraileac" (Lk. 23, 10)

b. "etchean egoile" (1Tit. 2, 5)

c. "Iaincoari baino voluptatey hobe erizle" (2Tim, 3, 4)⁹⁰

Adibideak nahi adina ugal daitezke. Denek erakusten dute hemen ere joera bi ditugula: bata, nagusia, -LE, -TZAILE eta antzekoez osatutako izenkiak izentzat hartzekoa eta, horrenbestez, genitiboan ez doan konplementurik ez onartzekoa:

(104) Bekatuen punitzailea.

Eta bestea, askoz mugatuagoa eta marjinalagoa, izenki hori oraindik ere aditzat hartzekoa eta, horrenbestez, aditzari dagozkion konplementuekin agertzea:

(105) Bekatuak punitzailea.⁹¹

(104) eta (105) aldera ditzakegu aditz izenez baliatuz lortzen diren egiturekin:

(106) a. Bekatuen punitzea (TO-GEN gertatu delarik)

b. Bekatuak punitzea.

Badirudi, batean eta bestean, posibilitate hauek denak eskaintzen dizkigula hizkuntzak, kasu batzutan joera bat nagusitzen delarik eta beste batzutan beste bat. Testu zaharrak albora utzirik, adibidez, neure hizkuntz-gaitasunari jarraiki, hau da nere jokabidea: -T(Z)E-ren kasuan aditzak aditz segituko luke, baina beste

atzizki "izentzaile" guztiekin aditza bera izen bihurtua gertatzen da. Hala ere, aurrerago ikusiko ditugu zenbait egitura berezi, non -T(Z)E atzizkia egiazko atzizki izentzaile gisa agertzen den, -KETA eta horien pareko, alegia.⁹²

Eta arlo honetan sartu garenez gero, jokabide bikoiztasun hau ez da atzizki izentzaileekin bakarrik gertatzen. Atzizki "adiz-tzaileekin" ere gertatzen da. Honako adibide hauek oso bitxiak dira nire hizkuntz gaitasunarentzat, baina, dirudienez, hizkuntzak ematen duen aukera bat da. Hona hemen Pr. Bartolomegandik jasotako bat:

(107) "Ceimbat arima diabrubaren sareperatu dituzun".⁹³

Mendibururen obran ere ugari aurki daitezke:

(108) a. Edaririk aren eztarriratzen etzela.


b. Becatu berrien putzuratzen denari.

c. Ceruco echeratzen diranendaco.

d. Iche onetaratzen bagara.


Edozein euskaldunentzat etxera edo burura (edo nora bera) bezalako adizlagun batetik aditz erakarri bat ateratzea zilegi da: etxeratu, bururatu, noratu, e.a. Hauek aditz bihurtuak dauden momentutik aditzari da ozkion konplementuak hartuko dituzte baina ez izenari dagozkion k. Hala ere, goiko adibideetan aditz bihurtutako izen sintagma hauek izenari dagozkion konplementuekin agertzen dira. Gutxi gora behera, hau izango litzateke aditz hauek erakusten duten egitura axalean:

(109)



(108 d)-rena, berriz, honako hau izango litzateke:

(110)



Egitura hauek nere hizkuntz gaitasunarentzat ez dira zilegi, eta euskaldun askorentzat ere, uste dut, gauza bera gertatzen dela.⁹⁴ Neretzat, etxeratu, putzuratu, eztarriratu, sareperatu, eta abar, aditz posibleak dira baina ez bekatu berrien putzuratu edo diabrubaren sareperatu. Nik neuk horrelako zerbait esan beharko banu, bekatu berrien putzura sartu edo diabrubaren sarepera sartu edo antzeko zerbait esan beharko nuke. Hau dela eta, etxeratu, ohertatu eta horrelako aditzak osatzeko behar diren erregela morfologikoak oso erraz eman daitezke lexikoian. Hain zuzen, hipotesi lexikalista onartuz, gainerako izenki erakarrien berri emateko hartuko den bide berak balioko liguke aditz erakarriak -eta adjetibo erakarriak ere bai, noski- esplikatzeko.

Mendibururen eta Pr. Bartolomeren adibideak bezalakoak esplikatzeko, berriz, seguru asko transformazioetara jo beharko dugu. Transformazio horrek JOAN edo SARTU edo ERORI edo aditz hauen tasunak dituen "pro-aditzen" bat (edo aditz-orde bat) beharko genuke. Aditz honen tasunik nagusiena [+MUGIDA] edo antzeko zerbait izango litzateke.

Dena den, adibide bitxi hauek -neretzako bitxiak, noskierkarri baditugu aditz izenaz osatutako perpausek erakusten duten bikoiztasuna argitzeko izan da. Hala ere, puntu honek beste noizpait argitzea merezi luke.


OHARRAK (III atala)

1. LAG ingelesez AUX deitzen dutena litzateke, hots: laguntzailea.
2. Ik. Wilbur 1979, 99-104 orr.
3. Ik. Wilbur 1979, 102 orr.
4. Ik. Fillmore 1969.
5. Ik. Wilbur 1979, 100 orr.
6. Ik. Wilbur 1979, 101 orr.
7. Ik. Wilbur 1979, 105 orr.
8. Ik. Rosenbaum 1967, 9-14 orr.
9. Ik. Emonds 1976, 15-16 orr.
10. Ik. Emonds 1970 1989
11. Ik. Sarasola 1977
12. Ik. Goenaga 1980, 131-135 orr.
13. Ik. Wilbur 1979
14. Honetaz ez dago gauza argirik. Ik. Mujika 1982, 308 eta hurr.
Ikus, baita, Altuna 1981 ere, adibidez.
15. Ik. Pr. Bart. 32.
Dena dela, honek badu antza De Rijk-ek (Ik. De Rijk 1972, 168 orr.) "pseudo extraposition" deitzen duen harekin. Alegia:
(a) Ezagutzen dut neska bat hamar hizkuntza dakiena.
(b) Ezagutzen dut hamar hizkuntza dakien neska bat.
(a) (b)-tik erakarra den bezala, (c) ere (d)-tik erakarra dela pentsa liteke:
(c) Badut esperantza adintsu hilgo naizela (naizena)
(d) Adintsu hilgo naizen (naizelako) esperantza dut.
Baina arazoa inongo izenik ageri ez zaigunean daukagu:
(e) Esan diot joango naizela.
Hemen ez dugu inongo buru-izenik.
16. Ik. Mitxelena 1972, 117-120 eta baita Goenaga 1980, 131 orr. eta Wilbur 1979, 92 eta hurr.
17. Hala ere, Lafitte-k dioena (Ik. Lafitte 1944, 763 parr.) egia bada, erlatibo bidea ere irekia utzi beharko genuke.
18. Ik. Wilbur 1979, 101 orr.
19. Ik. Wilbur 1979, 101-102 orr.
20. Ik. Wilbur 1979, 132 orr.
21. J.B. Agirre, Erac. I, 203.
22. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970.

23. Ik. Wilbur 1979, 102 orr.
 24. Ik. Bresnan 1970 eta 1972.
 25. Ik. Bresnan 1972, 44 orr. Dena dela, norbaitek pentsa lezake honako perpaus honen aurrean erlatibozkoak ere galderazkoak izan daitezkeela:

Nork erosi duen liburua gustatzen zaigu gehien?


Hemen, egia da erlatiboaren barnean galdetzaila dugula (NORK), baina galdera ez dagokio perpaus txertatuari, perpaus nagusiari baizik. Alegia, perpaus horren egitura hau da, gutxi gora behera:




26. Ik. Wilbur 1979, 103 orr.
 27. Ik. Bresnan 1972, 61-19. Ikus, baita ere, lan honen VII atala.
 28. Ik. Menzel 1975; Demonte 1977, 136 eta hurr. orr.; eta abar.
 29. Beraz, hemen ere perpaus txertatua aditz mugatuduna dugu:
harek zu ikusten zitu. Ik. Wilbur 1979, 104 orr.
 30. Ik. Wilbur 1979, 105-107 orr.
 31. Beraz ez da bakarra, egia da. Ikus, adibidez, Hernanz 1982.
 32. Hau horrela balitz, agian -EN / -ELA bereizkuntzaren banaketa dialektalaren antzekoa gertatuko litzateke -T(Z)EN / -T(Z)ERA- ren banaketa ere. Gogora dezagun USTE-ri buruz esaten genuena. Baina oraingoan alderantziz gertatzen da. Eta, bestalde, -T(Z)EN gehiago gertatzen da mendebaldean (cf. banoa zer edo zer egiten (B.) = banoa zerbait egitera (beste euskalkietan). Agian intergarria litzateke bereizkuntza honen arrazoiak bilatzen saiatzea.
 33. Ik. Wilbur 1979, 104 orr.
 34. Ik. Wilbur 1979, 104 orr.
 35. Ik. Chomsky 1980, 170 orr.
 36. Ez baditugu behintzat aditz mugagabeko zehargaldera hauek aditz mugatuzkoetatik erakartzen. Baina VII atalean frogatzen saiatzen

naizenez, ez dirudi gauzak esplikatze modurik onena hori denik.

37. Ik. Goenaga 1980, 190-193 orr.
38. (57a) eta (57b)-ko -a hori oraingoz nondik "zintzilikatua" behar dugun ez dakigu, baina ahotandarabilgun arazorako ez dio ajola kontu horrek.
39. Jakina, Denborarekin batera pertsona markak ere joango dira, baina bata bestea eskatzen duenez gero, nahi eta ez, aski dugu Denb osagaiaz arduratzea.
40. Konpara daiteke (60) perpaus hori gaztelaniazko beste honekin: "El sorprendente hecho de que la gente hablara euskara me gustó muchísimo". Honen ordaina ez dakit zenbatetaraino izan daitekeen (60) perpausa, -a mugatzailearen ordeaz hori edo beste erakusleren bat ezartzen ez badugu behintzat. Dena den, erakusledun perpaus hauek agian beste egitura bat izango lukete, askoz nominalagoa, nolabait. Izen sintagmaren buru erakuslea bera delarik, adibidez.
41. Ik. Bresnan 1972, 13 orr.
42. Ik. Jackendoff 1977.
43. "En ce qui concerne les restrictions sur la base, la voie de recherche la plus prometteuse, (...) concerne la théorie "X-barre", qui considère la base, pour l'essentiel, comme une projection des traits lexicaux +Nom , +Verbe , au moyen de schémas généraux" dio Chomskyk (Ik. Chomsky 1977, 210 orr.)
44. Ik. Chomsky 1981, 52 orr. Honen antzeko arazo bat planteatzen zaio Selkirk-i hitzen erakarpenean gertatzen diren kategoria aldaketak direla eta. Izenki erakarri baten buru atzizkia bera izan badaiteke, zergatik perpaus txertatu baten buru ere atzizkia ez izan? Ik. Selkirk 1982, 78-89 orr.
45. Proposamen hau egiterakoan dudan zorra aitortu behar diot Ken Hale irakasleari, honek proposatu baitzidan bide hori. Hala ere, bistan da, proposamen honek sakonago lantzea eskatzen du, hemen egin dugun baino sakonago behintzat.
46. $\bar{X}$ notazio desberdin asko proposa daitezke. Adibidez, Jackendoff-ek (ik. Jackendoff 1977), gerundiozko izenkientzat (John's having left) egitura bat proposatzen du. Bere ustez, "gerundive nominals are apparently NP's, though they lack a noun head" (Ik. 222 orr.)



Eta "gerundive PP" direlakoentzat (John kept Bill running beza-lakoentzat) -hauek "alternate with PPs rather than NPs" (226 orr.) dio- sujeturik ez dutenez, honako egitura proposatuko du:



Hau dena oso eztabaidagarria da, baina guk egitura bakarra ego-kiagotzat eman dugu. Kontua da, tresneria honek bide ematen digula perpaus hauen izensintagmatasuna eta perpaustasuna, biak, salbatzeko.

47. Hala ere, bada hemen arazo bat. Esan dugu zehargaldera mugagabe hauetan ez dela -a ageri ohi. Baina hori ez da zeharo egia:

- (a) Badugu zer egina.
- (b) Badaukazu nora joana.
- (c) Ez daukat zer eginik.

Baina beste hauetan posible ez denez:

- (d) *Ez dakigu nora joanik.
- (e) *Bihar erabakiko dugu zer egina.

eman dugun legea orokorra dela pentsa daiteke. Eta (a-c) per-pausak nola halako lexikalizazioaren baten fruitu direla edo.

Hots: pentsa liteke nora joan, zer egin eta horrelakoak nolabait izen bihurtuak daudela. Arazo bat, dena dela.

48. Hala ere, zehargalderek, adibidez, nahikoa zailtasun badutela dirudi objektu posiziotik kanpo agertzeko. Ik. H. Huot 1981, 128-131.

49. Ongi dioen bezala Heath-ek. Ik. Heath 1972,47. orr.
50. Hemen, hala ere, arazo baten aurrean aurkitzen gara batez ere mugatzailledun eta mugatzaillegabeko perpaus txertatuak gerta daitezkeenean. Adibidez, inesiboarekin oso ezaguna da bikoiztasuna: a) Liburuak irakurtzen eta b) Liburuak irakurtzean. Baina arazoa konpon daiteke pentsatzen badugu lehenbiziko forma dela egiazki aditza subkategorizatzen duena. Adibidez, liburuak irakurtzen moduko perpaus konpletiboei buruz azpikategorizatua ageri da IKASI. Liburuak irakurtzean bezalako perpaus batek, berriz, ez du aditzik azpikategorizatzen, horrelako adizlagunak libreki ager baitaitezke edo zein aditzekin:
- (a) Liburuak irakurtzean, zigarroak erretzen ditu.
 - (b) Liburuak irakurtzean, beti ikasten da zerbait.
 - (c) Liburuak irakurtzean, gogora zaitez heriotzeaz.
- e.a.
- Baina liburuak irakurtzen perpausak bai subkategorizatzen ditu aditzak. Hain zuzen, badira aditz batzu beren objetua forma horretan joatea eskatzen dutenak:
- Liburuak irakurtzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{badaki} \\ \text{ari da} \\ \text{ikusi nuen Andoni} \end{array} \right\}$
- Dena den, aidean gelditzen zaigu arazoa, alegia, ea zein izan daitekeen liburuak irakurtzean bezalako perpaus zirkunstantzialen egitura. Garbi dagoena da aditzak subkategorizatzen dituzten gisako konpletiboei badutela berezgarriren bat, aditzaren nola halako objetu edo baitira. Esaterako, IKASI-k objetutzat lezioa bezalako izen sintagma bat eraman dezake eta baita adarra jotzen moduko perpaus konpletiboa ere. Baina inola ere ez biak.
51. Hala ere, hauek AS-tik kanpo geldituko lirateke nolabait, normalki, aurreko oharrean esanaren arabera.
52. Jakina, AHAZTU-k inesibo tasuna duen konpletiboa ere onartzen du.
53. -T(Z)EKO beste testuinguru batzutan ere ager daiteke. Adibidez, aditzak subkategorizatzen dituen konpletiboentzat $\left[\begin{array}{c} \text{Objetibo} \end{array} \right]$ tasuna edo horrelako zerbait proposatzen badugu, tasun hori ez badarama destinatibo soiltzat har genezake:
- Mila pezeta eman zizkidan liburu bat erosteko.
- Eta baita $\left[\begin{array}{c} \text{I Det} \end{array} \right]$ testuinguruan ere. Baina orduan lege orokorrako ^{IS}batek (mendiko etxea, etorri delako ustea...) eskatua legoke -KO hori.

54. Jakina da hemen ere euskalki arteko diferentziak ditugula:
batzuk saiatu naiz egitera esango duten bitartean, besteek
saiatu naiz egiten esango dute.
55. Edo sasi-erazleak, Varelak dioenez. Ik. Varela 1977, 296 eta hurr.
56. Hala ere, hemen agian egiazko IS baten aurrean egon gintezke.
Erakusleak ere ager baitaitezke, besteetan ez bezala. Orduan,
behar bada hauen egitura honako hau izango litzateke:
- $$\begin{array}{c} \left[\begin{array}{cc} \bar{P} & I \end{array} \right] \\ \text{IS} \end{array}$$
57. Jakina, gorago esan dugunez, (ikus 53. oharra), objetutik aparte
ere eraman ditzake zenbait adizlagun eta hauetan izan daitezke
 $\bar{P}$ -ak: zuri adarra jotzeko, abarketak jantzi nituen.
58. Ik. Bresnan 1972, 65 eta hurr.
59. Argaiñaratz, 107 orr. Eta baita Haritschelhar 1980, 447 orr.
Dena den, Argainaratz-ek gure erabilera ere jarraitzen du.
Beraz, genitibatzea aukerakoa dela esan genezake.
60. Ik. Heath 1972, 49 orr. Esana dugun bezala, aspektuarena ezta-
baidagarria da, baina bego.
61. "The principle that TO-GEN can only affect a NP lacking overt
case suffixes can also be used to explain why northern Basque
differs from many other languages in genitivization of TO's
and not TS's. In Turkish, for example, TS's but not TO's are
regularly genitivized. If we look at the functions represented
by the NP's which are subject to genitivization in these
languages, the rules appear to be completely different. However,
in both northern Basque and Turkish, it is the morphologically
unmarked case which is genitivized, so from the formal point
of view the same thing is going on in each" dio Heath-ek (ik.
50-51 orr.).
62. Ik. De Rijk 1972b.
63. Ik. Heath 1972, 52 orr.
64. Ik. Heath 1972, 53 orr.
65. Axular, 6. Cf. Heath 1972, 53-54 orr.
66. Ik. Heath 1972, 54 orr.
67. Ik. Heath 1972, 58 orr.
68. Eta baita txakurak ergatibo pluraltzat hartuta ere.
69. Ikus lan honen VI atala.
70. Ik. Letamendia 1979, 456 orr.
71. Ikus hala ere Michelena 1977, 262 orr. Baina hemen aipatzen

diren partizipioak beste era batekoak dira: askoren deseadua, zaharren esanak, eta abar. Gainera, honelakoetan, normala denez, ezin genitiba daiteke objetua. Genitibatzekotan sujetu ergatiboak genitibatu behar du, zeren hauetan erlatibozko perpaus baten antzekoa izango genuke: askok deseatu dutena edo. Hain zuzen, objetu ezabatua dugu. McCawley-ren hitzak erabiltzekotan, "all nominalizations have semantic representations of the form 'the (an) x such that f(x)' (Mc Cawley 1968, 75). Egile nominalizazioetan, berriz, faltako dena sujetua izango da eta, beraz, genitiboan agertuko dena objetua izango da. Baina hone-taz aurrerago mintzatuko gara.

72. Hemen bada beste problema bat perpaus txertatuko sujetua dela eta. Neure joera behintzat, perpaus txertatuko sujetua eta perpaus nagusikoa erreferentzikideak direnean perpaus nagusikoa "ateratzen" da nagusi, nolabait esateko. Esan nahi baita, ergatiboan ala absolutuan joan behar duen, aditz nagusiak agintzen duela. Horrela, neretzat, normalena (a)-k erakusten duen jokamoldea litzateke eta ez (b):

(a) Gizon hori, zerbait esanik, etxera joan zen.

(b) Gizon horrek zerbait esanik, etxera joan zen.

Hots: nere hizkuntz gaitasunaren arabera, hemen kontrol arazoa dugu, -T(Z)E formakoetan bezalaxe, kontrolatzailea perpaus nagusian bilatu behar dugularik.

Baina ez da hori Leizarragak beti jarraitzen duen bidea. Bietara erabiltzen baitu, honako adibide hauek erakusten digutenez:

(c) "Bada regue Herodes ençunic hori trubla cedin" (Mt. II, 3)

(d) "Eta hori ençunic discipuluac eror citecen" (Mt. XVII, 6)

Baina

(e) "Orduan Herodesec ikussiric nola çuhurrez enganatu içan cen, asserre cedin haguitz" (Mt. II, 16)

73. Ik. Heath 1972, 65 orr.
 74. Ik. Heath 1972, 63 orr.
 75. Ik. Heath 1972, 63 orr.
 76. Ik. Inchauspe 1858, 441 orr.
 77. Ik. Sarasola 1977, 18-19 orr.
 78. Adibidez, Lafittek bere gramatikan kontu hauek aipatzerakoan ez du adibide bakar bat ere ematen sujetudunik. Ik. Lafitte 1944, 222-223 parr.
 78. Ik. Heath 1972, 58-59 orr. eta Lafitte 1944, 222-223 parr.

80. Ik. Heath 1972, 59 orr.
81. Ik. Villasante 1978, 47 eta hurr.
82. Ik. Levi 1978. Hizkuntzalari honek, "complex nominals" direla-koen erakarbidez ari delarik, Object preposing izeneko erregelabat proposatzen du eta honela dio: "Although the preceding formulation is written for the sake of simplicity as if it applied only when the object case marker is of, the rule is actually more general. Specifically, it can account not only for the transformation of evaluation of teachers and investigation of industry to teacher evaluation and industry / industrial investigations, respectively, but also for the generation of a wide variety of CNs whose underlying objects are marked with prepositions distinct from of, such as monetary appeal (appeal for money), age discrimination (discrimination according to age), heart operation (operation on the heart) (...)" (Levi, 203 orr.).
83. Capanagak adibidez honela dakar: "Arian etorricoda ilaen eta viçien iuzgaetara (Ik. Capanaga, 6. orr). Eta "Goaça Mairu errira Mairuen caticen" dio Martin de Yturberen kuarteta batek (ik. Lucien Clare 1974).
Beraz, fenomeno aski zabala da edo izan da. Gaur den baino zabalagoa seguru asko.
84. Argaiñaratz, Devoten Breviarioa, 107 orr. Ikus, baita, Haritschelhar 1980, 447-454 orr.
85. Mitxelenak ere, aditz elkartuei buruz ari delarik, objektuaren eta aditzaren artean gertatzen den lotura dela dio estuena: "Como en otras lenguas con verbo pluripersonal, puede ocurrir que uno de los términos nominales de la frase haya desaparecido, aunque el verbo personal sigue llevando una referencia expresa a él, hasta el punto de que no sólo no puede aparecer en la frase, sino que ni siquiera acertamos a adivinar cuál pudo haber sido. En tales casos, es siempre el "objeto directo" el que falta, lo que indica sin duda que era y es el elemento más estrechamente unido al verbo" dio. (ik. Michelena 1977, 262 orr.)
86. Ik. Karmele Rotaetxe 1978, 372 orr. Honela dio: "La parentetización muestra que las relaciones entre /amák/ y /josti/ son muy similares a las que encontrábamos entre /ni etorti/, /gurasuk etorti/ (...) por lo que parece que también aquí puede concluirse que el nominalizador que interviene en /josti/ nominaliza no sólo a la base verbal sino a [amák] joste -a y está

muy cerca, por su débil carga semántica y por las relaciones sintácticas que establece de formas infinitas del castellano". Arrazoi duela dirudi, baina inon ez digu esaten zer nolako itxura izango lukeen nominalizaturik dagoen perpaus oso horrek. Dena dela, parentetización delako horrek ez luke izango Rota-etxek ezarri dion itxura, beste hau baizik:

II $\left[\begin{array}{c} \left[\begin{array}{c} \text{[amak]} \\ \text{P} \end{array} \right] \left[\begin{array}{c} \text{[jos-]} \\ \text{IS} \end{array} \right] \left[\begin{array}{c} \text{-te} \\ \text{AS} \end{array} \right] \quad \text{a} \end{array} \right]$

Dena den, aditzak perpausaren azpian jarraituko luke eta aditz izaten jarraituko gainera.

- 87. Ziburuko Etxeberri, 2.367
- 88. Ziburuko Etxeberri, 2696.
- 89. Ohar hauek P. Altunari zor dizkiot.
- 90. Inchauspegandik jasoa da beste hau:

Populiari Lege-erakasliak

- 91. Multzo honetan sartu beharko lirateke, baita, Mundaka aldean -eta ez dakit beste inon horrelakorik gertatzen den- gaur entzun daitezkeen formak: zu bila, liburuak bila, e.a.
 - 92. Hau da nere joera, baina Rotaetxek jasotako datuak zuzenak badira, etorrera bezalako batek zenbait ondarrutarrentzat ez luke izen gisa funtzionatuko, aditz gisa baizik. Nere etortze-k bezala, alegia. Baina hori nere hizkuntz gaitasunarekin ez dator bat. Ik. Rotaetxe 1978 eta Rotaetxe 1980.
- Problema bera dugu gaurko bizkaieraz noiznahi entzuten diren egiturekin. Neretzat -KERA atzizki izentzailleak egiazko izenak osatzen baditu ere, entzun daitezke honelako itzuliak Bizkai aldean: Durangora iritsikera. Hemen -kera-k osatzen duen aditz izenak aditz izaten segitzen duela ematen du. Lenitz ibarreko -KETA atzizkia bezala, hain zuzen.
- 93. Pr. Bart. 131 orr.
 - 94. Hala ere, ez litzateke txarra izango puntu hau beste noizpait aztertzea.

IV ATALA

-T(Z)EN FORMAKO KONPLETIBOAK

Aurreko atalean esan dugunez, inesiboaren marka daraman konpletiboa eskatzen dute zenbait aditz nagusik. Ikus dezagun lehenbizi, zer esaten zaigun honetaz euskal gramatiketan. Lafitte-k, adibidez, ongi laburtzen du -T(Z)EN-en erabilera:

a) Lehenbizi, jakina, aditz forma perifrastikoetan agertzen da, laguntzaile baten ondoan: ikusten du, ibiltzen da, ...

b) Bigarren, "traduit l'infinitif français qui marque l'état ou l'exercice après:

1) Les verbes de perception, comme voir, entendre, sentir, apercevoir". Eta ematen dituen adibideak, hona hemen:

(1) Jausten ikusi dut, hauteman dut.

(2) Senditu dut (aditu dut) igaiten.

2) "Les verbes de connaissance, comme apprendre, enseigner, savoir, oublier" direlakoek ere eskatzen omen dute 'l'inessif indéfini' delakoa.

3) "Les verbes d'activité, comme être à, être en train de, rester à, commencer à, tenir à, garder à, aider à:

(3) a. Jaten ari da.

b. Berotzen dago.

c. Atzo dantzatzen izan da.

d. Lagun nezazu egur biltzen.

e. Ura berotzen atchiki zuen oren pare bat.

f. Hasten naiz kantatzen.

4) Azkenik: "après les expressions "il est facile, il est difficile".¹

Badirudi aditz mota desberdinak ditugula hemen semantikaren

aldetik, denek itxura bereko perpaus txertatua ametitzen badute ere. Goazen astiroago aztertzeraz aditz horiek:

1.- Hautemate aditzak: IKUSI, ENTZUN, SENDITU, HAUTEMAN, SOMA-TU,

1.1.- Bi axaleko egitura desberdin.

Euskaraz, Lafitte-k seinalatzen duen bezala, hautemate aditz hauek -T(Z)EN eskatzen dute. Hala ere, bi motatako konpletiboak onartzen dituzte hautemate aditz hauek: a) /Indikatiboa + -(E)LA / eta b) /... T(ZEN)/. Har ditzagun kontutan honako perpausok:

- (4) $\left\{ \begin{array}{l} \text{Ikusi} \\ \text{Entzun} \\ \text{Senditu} \end{array} \right\}$ dut Andoni berandu etorri dela bart.
- (5) Andoni $\left\{ \begin{array}{l} \text{ikus} \\ \text{entzun} \\ \text{senditu} \end{array} \right\}$ dut etortzen.
- (6) Andoni berandu etortzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{ikus} \\ \text{entzun} \\ \text{senditu} \end{array} \right\}$ dut

Hemen berehala datorkigun galdera hau da: (4) eta (5)-(6) berdinak al dira? Hots: esanahi bera al dute? (4)-ean IKUSI-ren esanahia, adibidez, ez da zerbait fisikoki ikustea, edo ez daukagu zertan nahitaez horrela ulerturik. Badirudi gehiago dela zerbaiten egiaz edo gezurraz ohartzea. Horregatik esan liteke:

(7) Bazatozela ikusten dut.

eta (8) Etortzen ikusten zaitut.

ez direla zeharo baliookideak zentzuaren aldetik. (7) esaten dudanean, esan nahi dut ezagutza batera iritsi naizela. Ezagutza horretara iristeko nola moldatu naizen beste kontu bat da. Adibidez, etortzen ez ikusi arren, batek esan dezake:

(9) Etortzen ikusi ez bazaitut ere, ikusten dut etorri zarela.

Gauzak oraindik ere argiago gertatzen dira ENTZUN aditzarekin.
Esaten badut:

(10) Entzun dut Aita Santua dibortzioaz mintzatu dela.
entzun dudana izan da norbaitek esaten dituen gertaera bati buruzko hitzak, norbaiten baieztapena. Eta, noski, norbait horrek ez dauka zertan Aita Santua bera izanik. Alegia, norbaitek "Aita Santua dibortzioaz mintzatu da" esan du eta nik entzun dudana norbait horren esana izan da. Eta, horrenbestez, ez luke zentzurik egoera horretan (11) esateak, (11)-k beste esanahi bat baitu:

(11) Aita Santua dibortzioaz mintzatzen entzun dut.
Hau esan ahal izateko, Aita Santua entzun behar dut lehenbizi, neure belarrien bidez.

Hautemate aditz hauek, beraz, bi zentzu desberdinetan hartzen direla ematen du. Batean, zentzu adierazgarri edo proposizional bat dute. Alde honetatik ez litzateke diferentzia handirik egongo ENTZUN, IKUSI, HAUTEMAN, SOMATU eta antzeko aditzen eta hautemate aditz ez diren beste hauen artean: IRAKURRI, IDATZI, ESAN, JAKIN, USTE, ... Baina diferentzia bat badute eta da, hain zuzen, hautemate aditz hauek beste bigarren interpretazio hura ere onartzen dutela, baina orduan egitura sintaktikoa ere aski berezia gertatzen da:

(12) $\left\{ \begin{array}{l} \text{Entzun} \\ \text{Ikusi} \\ \text{Senditu} \end{array} \right\}$ dut Andonik pianoa jo duela.

(13) $\left\{ \begin{array}{l} \text{Irakurri} \\ \text{Idatzi} \\ \text{Esan} \\ \text{Jakín} \\ \text{Uste} \end{array} \right\}$ dut Andonik pianoa jo duela.

- Baina: (14) Andoni $\left\{ \begin{array}{l} \text{entzun} \\ \text{ikusi} \\ \text{senditu} \end{array} \right\}$ dut pianoa jotzen.
- eta (15) *Andoni $\left\{ \begin{array}{l} \text{irakurri} \\ \text{idatzi} \\ \text{esan} \\ \text{jakin} \\ \text{uste} \end{array} \right\}$ dut pianoa jotzen.²

Alde honetatik, hautemate aditzak bitara markatuak egongo dira hiztegian. IDATZI eta antzekoek, berriz, batera bakarrik jotzen dute. HARRAPATU-k bezala. Baina ENTZUN-ek alde batetik IDATZI-k bezala joka dezake, (12)-an bezala, eta bestetik HARRAPATU-k bezala (ikus (14) perpausa).

Guri batez ere -T(Z)EN formako konpletiboa eskatzen duten heinean interesatzen zaizkigu aditz hauek. Baina forma horretako konpletiboa dugunean zenbait betekizun errespetatu beharra dago:

1) -T(Z)EN formako konpletiboak perpaus nagusiaren aldi berekoa izan behar du.³ 2) Zuzenean hauteman daitezkeen prozesuak edo egoerak esijitzen dituzte.⁴ Bestalde, -(E)LA konpletiboak zentzu bidez lortutako konklusio bat adieraziko luke.⁵

Hortaz, badirudi, -T(Z)EN perpausa agertzen denean aditz nagusia hautemate hutsezko aditza dugula. Ostera, -(E)LA perpausa agertzen zaigunean, hautemateaz gainera beste zerbait ere badela dirudi. Konklusio bat ateratzen denez gero, adimenak ere badu zerikusirik.

Eta perpaus hauen balioaz ari garenez, gertaera bat adierazten dutela dirudi edo prozesu bat:

(16) Amona hiltzen ikusi nuen.

(17) Euskara galtzen ikusi dugu zenbait herritan.

Baina (18) *Amona aberats izaten ikusi nuen.


1.2.- Konplementu hauen sakoneko egitura.-

Hautemate aditz hauek aurkezten dizkiguten bereiztasun sintaktikoak eta semantikoak aipatu ditugu. Balio semantiko desberdina dutela dirudienez era bateko konplementua erakusten dutenean eta beste era batekoa erakusten dutenean, ikus dezagun orain zein izan litekeen perpaus hauen sakoneko egitura.


Maurice Gross-ek⁶ "relative complétive" delakoa que duen konpletibotik erakartzen du eta infinitiboa ere bai. Baina gure kasuan behintzat ez dirudi bata bestetik erakartzeko modurik dugunik.

-(E)LA konplementatzaileaz baliatzen diren konpletiboak gainerako -(E)LA-dun perpausak erakarriko genituzkeen bezalaxe erakar ditzakegu. Baina -T(Z)EN forma dutenak -eta hauek dira guri bereziki axola zaizkigunak lehen begiratuan behintzat bi egitura desberdinetatik erakar litezkeela dirudi: (19)-tik, sujetuaren igotzea dela medio, edo (20) egituratik, eta orduan EQUI edo honen antzeko zerbait beharko dugu:

(19)




(20)




Demontek⁷ funtsean (19) egitura hobesten du eta horretarako ematen duen argumenturik nagusienak logikarekin zerikusia du. Arazoa da, Demonstrerentzat, ea hautemate aditzek aditz sintagman bi argumetu daramatzaten ala bakarra. Logika ikuspegi batetik badirudi -dio- hautemate aditzek ez dutela bi aktore baizik eskatzen: nork hautematen duen eta zer den hautemana. Schwarze-k ere⁸ gauza bera edo antzekoa proposatzen du. Je le vois qui vient bezalako perpaus baten irudikatze edo errepresentazio semantikoa honako arbola honen bidez emango genuke aditzera, haren-ustez:

(21)



Arbola hau objektu zuzenezko konplementu bat daraman hautemate aditz batek izango lukeenarena bezalakoxea omen da. Adibidez, Je vois Jean bezalako perpaus batek antzeko egitura izango luke:

(22)



Bi egituren arteko diferentzia bakarra da IKUSI-ren bigarren argumentua batean perpausa dela eta bestean, berriz, argumentu bakurra. Baina zer da hautematen dena? Lehenbiziko argia izenordainez egindako parafrasietatik dator, Demonstreren ustez. Nik "Oiste que la niña estuvo tocando el piano?" galdetzen badut, jaso ditzakedan erantzunak honako hauek izan omen daitezke:

(23) a. Oi a la niña tocar el piano esta mañana.


b. La oi tocar el piano esta mañana.

"Mi interlocutor -dio Demontek- no podría contestar '-Lo oi', es decir con un pronombre que reproduzca a la oración subordinada. Un pronombre objetivo en estas construcciones no reproduce a la oración sino al agente del fenómeno perceptivo que afecta al sujeto gramatical.

Semánticamente, pues, parecería que lo que está en juego en estas oraciones es un causante o agente del fenómeno físico que se percibe, un afectado o experimentador, y el fenómeno en cuestión".⁹

Hala ere, Demonteren lanean ez dago oso argi que + O eta infinitibozkoa zentzukideak diren ala ez. Batzutan baietz dirudi baina gertatzen diren diferentziez ez du ezertxo ere esaten. Horretan askoz zehatzagoa da Manteca: "Ya Bello señaló un grupo de verbos de "acto mental perceptivo" que no tienen su origen en una oración temporalizada: (113) Vimos arder el bosque ≠ (114) Vimos que el bosque ardía. (...) (117) Oigo sonar las campanas ≠ (118) Oigo que suenan las campanas".¹⁰

Dena den, Demonteren analisisian, zenbaitetan behintzat bi perpausak desberdinak baldin badira ere bientzako egitura bera eskaintzen zaigu. Perpaus txertatua ez omen da izen sintagma.¹¹ LO izenordainaren bidez ordezkatu ezinak edo pasibatu ezinak berak hori adieraziko omen luke. Horrenbestez, honako egitura hau proposatzen du Demontek:



Egitura honetan menpeko perpausa ez litzateke inongo IS adabegiaren mende egongo. Zuzenean AS-ren azpian txertatua aurkituko da. Ugarte sintaktikorik ez du osatzen. Acción izenaren bidezko parafrasirik ere ez du onartzen. Horregatik proposatzen du Demontek proposatzen duen egitura.


Errepresentazio hau onartuz gero, frantsesezko eta espainolezko erlatibodun perpausak (Lo oigo que canta eta antzekoak, alegia) esplikatuz nahi badira, onartu beharko da Monteren "formación del objeto"¹² delako transformazioak ez lukeela nahi eta ez aditz txertatuaren infinitibatzea ekarriko. Hortaz, gauzak biziki konplikatzeko zaizkigu bide honetatik abiatuz gero. Adibidez, bi egitura, edo hiru gatzelaniaren kasuan bezala, bai baititugu, eta zail dirudi era egokiz egitura horien arteko diferentziaren berri ematea Monteren abiapuntutik abiatuz gero.¹³

Hemen bi arazo ditugu. Bata ea -(E)LA-dun eta -T(Z)EN formako konpletiboak sakoneko egitura bera duten eta Demontek, argiegi ez badio ere, horrela uste duela dirudi. Eta bigarrena, -T(Z)EN perpausari dagokion egitura zein den.


Schwarze-k bi egitura proposatzen ditu, baina bi egitura horien arteko diferentzia ez du jartzen AS-ren mailan, perpaus txertatuak berekin daraman tasun zehaztapen batean baizik.¹⁴ Bi perpausak esanahi desberdina dutenez, ez dute sakoneko egitura bera. Teoria Standard-aren markoan honako tasun bereizgarri bat proposa omen daiteke, hots: [+directement observable] eta, hain zuzen, tasun hau izango litzateke bi esanahi desberdinak esplikatuko lituzkeena: "La signification de ce trait serait constituée par le fait que, dans le cas de spécification positive, la proposition enchâssée est dans un rapport de simultanéité avec la principale et qu'elle ne contient pas de négation ni de verbe modal susceptible d'empêcher qu'elle soit interprétée comme fait directement perceptible. La

spécification négative de ce trait ne signifierait donc pas que le contenu de la proposition enchâssée serait forcément un fait non perceptible; il dirait tout simplement que les restrictions valables pour les relatives complétives ne s'appliquent pas¹⁵.

Horrela, bi perpaus mota horientzako honako bi egitura hauek proposatzen dizkigu: Je vois qu'il vient perpausaren egitura (25) izango litzateke:




Eta erlatibozkoak, berriz, hots Je le vois qui vient perpausak, (26) egitura izango luke:



Infinetibozkoak azkeneko egitura honetatik sortuko lirateke, zenbait transformazio dela medio.


Diagramak erakusten digutenez, bi perpaus moten arteko diferentzia menpeko perpausak daraman tasun zehaztapen horretan egongo litzateke. Hor behar diren transformazioak zeintzu liratekeen ez dugu esaten Schwarze-k, baina bai erlatibozkoan eta bai infinitibozkoan argi dago (26) bada sakoneko egitura, perpaus txertatuko izen sintagmak goiko perpausera igo beharko duela.

Nire proposamena bestelakoa litzateke. -(E)LA eta -T(Z)EN konpletiboen arteko diferentziak biei sakoneko egitura bera eskaini ordez zeini berea emanaz esplika daitezke. -(E)LA-dunak beste -(E)LA dun guztien egitura bera izango luke. Hots:



Honek, gainera, Demonteren eta besteren harako logika bidezko argumentuarekin ez luke inongo arazorik izango.

Eta -T(Z)EN konpletiboak, berriz:



Proposamen hau egiteko arrazoiak baditugu:

1) Lehenbizi, ikusi dugun bezala, hautemate aditz hauekin bi egitura desberdin agertzen bazaizkigu eta, sarritan behintzat, esanahi desberdina dutelarik, bidezko dirudi sakonean ere egitura berezia ematea batari eta besteari. Eginkizun hori betetzen zuten Schwarze-ren bi diagramek. Nahiz eta oso ad hoc izan hango tasun zehaztapen hura. Alde honetatik askoz bidezkoago dirudi gure planteamenduak, gramatikan ezer berririk asmatzera ez baikaitu behartzen.

Gainera, hautemate aditz hauen konplementua -T(Z)EN forma-koa denean (28) egitura proposatzeak oso ongi esplikatuko du honako bi perpaus hauen arteko erlazioa:

(29) a. Irakasleak Andoni kopiatzen harrapatu du.

b. Irakasleak Andoni kopiatzen ikusi du.

(29a) eta (29b) esanahiz ere oso antzekoak ditugu. Bestalde, (29a) perpausari (28) egituraren antzeko bat eskaintzen ez badiogu ez dakit zein eskaini diezaiokegun.

2) Bigarren arrazoi semantikari dagokio. Esan dugu nola -T(Z)EN egitura (edo frantsesezko eta-gaztelaniazko infinitibozko eta erlatibozko egiturak) hautematen dena zuzenean hautematen denean dela posible. Eta hori zuzenean gertatzea beharrezko bada, badi dirudi hautematen den fenomenoaren egilea ere hauteman behar dela. Hori oso ongi eman daiteke aditzera egile hori sakonean agerrera-ziz perpaus nagusiaren aditz sintagmaren azpian. Esan nahi da (28)-ko egitura onartuz gero, horrexek ematen digula aditzera Andoni IKUSI-ren objektu gisa agertzen zaigunez, egiazki Andoni hori ikusi egiten dudala. Hortaz, alde horretatik hautematea zuzena izatea salbatua gelditzen zaigu.¹⁷

3) Bestalde, euskaraz behintzat agertzen den -T(Z)EN forma horretan inesiboaren marka ere agertzen da: -N. Hain zuzen, atzizki bera agertzen zaigu aztergaitzat hartu ditugun perpaus hauen aski

zentzukideak diren beste perpaus batzutan. Adibidez, kontutan har ditzakegu honako perpaus hauek:

(30) a. Joseba zigarro bat erretzen ikusi dut.

b. Joseba zigarro bat erretzen ari zela ikusi dut.

c. Joseba zigarro bat erretzen ari zenean ikusi dut.

Badirudi (30)-eko perpausak aski zentzukidetzat har daitezkeela. Eta (30b eta c) erakartzeko (28)-ren antzeko egitura bat proposa bali-teke -hots: AS-ren azpian $\bar{P}$ -z gainera beste IS bat ere agerreraiziz-, zergatik ezin da (30a)-rentzat ere gauza bera egin?


4) Bestalde, badira ekintza-izen batzu ere egitura berdi-netan agertzen direnak:

(31) a. Lanean ikusi dut.

b. Dantzan ikusi ditugu.

c. Bertsotan entzun diogu sarritan.

LANEAN, DANTZAN, BERTSOTAN eta antzeko adizlagunek problemak aur-¹⁸kezten dizkigute. Perpaus horien sakoneko egitura axalean ageri dutenaren antzekoa bada, pentsa liteke honelako zerbait litzatekeela:



Semantikaren aldetik begiratzuz gero, ordea, adierazi egin behar da nola edo hala adizlagun modura ageri den IS hori zu-rekin doala (edo oro har AS-ren azpian doan IS-rekin) ikusi-rekin baino areago. Adibidez, kalean ikusi zaitut esaten dudanean argi dago

zu kalean zinela. Baina ni non nintzen? Anbiguo dela dirudi, bi balio desberdin izan baititzake:

- a) Biok kalean ginelarik, nik kalean ikusi zaitut.
- edo b) Zu kalean zinelarik, baina ni ez, kalean ikusi zaitut.

Badirudi (31)-ko perpausen balioa goiko perpaus anbiguo horren b)-ko balioa izango litzatekeela. Honek adjetiboarekin gertatzen dena gogorarazten digu. M. Lujan-ek La profesora llega cansada bezalako perpaus baten egitura honelako zerbait dela dio:¹⁹

(33) La profesora llega [la profesora estando cansada]
Adv

Hor agertzen den cansada hori sujetuari dagokio eta horren berri emateko modua Lujanek proposatzen duen egitura litzateke. Ez ote genuke, hortaz, horren antzeko zerbait pentsatzeko eskubiderik hautemate aditz hautentzat? Hori horrela izanez gero, honako bi perpaus hauek funtsean egitura berdina izango lukete:

(34) Edurne dotore ikusi dut.

(35) Edurne josten ikusi dut.

Bai dotore-k eta bai josten-ek ikusi-ren objektu den Edurne izen sintagmarekin zerikusi handiago dutela dirudi ikusi-rekin berarekin baino. Beste perpaus honetan ez bezala, hain zuzen, non ondo adberbioa aditzari dagokion:


(36) Nik oso ondo ikusten ditut letra horiek.

Ostera, beste perpaus honetan ondo, (34)-eko dotore-ren pareko izango litzateke:


(37) Oso ondo ikusten zaitut.

Perpaus hau bista problemak izan ditzakeen batek esan beharrean sendagile batek esango balu, adibidez, garbi legoke zer den.

Horregatik, ez zait iruditzen hain desbideratua dabilenik Lujan. Adibidez, (34) perpausak honako egitura hau izango luke:



Eta hau honela bada, (35) perpausarentzat ere antzeko egituraren bat pentsa genezake. Adibidez, (39):



Egia da gauzak semantikaren aldetik, edo logikaren ikuspegitik begiratzuz gero, ikusi bezalako aditz bat bi argumentu dituen predikatua dela, ikusten duena eta ikusia dena, baina ezina ote da izen sintagma eta perpausa koordinatuak edo, egotea? Nolabait esateko, goiko (35) perpausak honelako egitura izan lezake:

(40) Nik Edurne ikusi dut eta Edurne josten ari zen.²¹

Horrela izanez gero, gainera, ez dugu inolako problemarik

izango Schwarze-k aipatzen zuen [direct. observ.] delako tasun zehaztapenarekin. Tasun horren beharrik ere ez baitugu izango, jadanik izen sintagma perpaus nagusiko aditzari atxikia agertzen baita. Adibidez, honako perpaus honetan:

(41) Aita Santua ikusi dut jendeari hitzegiten.


garbi dago zuzenean sumatu behar dudala ekintza edo prozesu hori. Baina Aita Santua zuzenean ikustea aski da horretarako. Alegia, zuzenean hautemateak esan nahi du kasu honetan Aita Santua bera ikusten dudala (telebistaz, adibidez) eta zertan ari den ere bai. Hortaz, proposatzen dugun egitura egokiagoa dela dirudi.

Horrela, eta laburbiltzeko, honako bi perpaus hauek bi sako-neko egitura desberdin izango dituzte:


(42) Jon iritsi dela ikusi dut.

(43) Jon etortzen ikusi dut.

(42)-k honako egitura hau izango du:



Eta (43)-k, berriz, (45) egitura izango du:



1.3.- Egitura bera eskatzen duten beste aditz batzu.-


Hautemate aditzekin batera joan daiteke, baita ere, esana dugun bezala, HARRAPATU aditza:

(46) Urarekin jolasten harrapatu ditut haurrak.

Hau esaten dudanean, HARRAPATU-k IKUSI-rekin antz handia du. Esango banu bezala:

(47) Urarekin jolasten ikusi ditut haurrak.

Hemen Demonteren argumentuak, alegia IKUSI logikaren aldetik argumentu bi baino ez dituen predikatua delakoak, ez digu balio. Zeren hemen ezin uler daiteke harrapatu dudana haurrekin jolastea dela. Nik uste. Harrapatu ditudanak, haurrekin dira. Hortaz, kasu honetan ere egitura bera proposatu beharko dugu, hots:




Eta bide beretik, -T(Z)EN erako konplementua nolabaiteko zirkunstantziala edo litzatekeelarik, esplikatu beharko lirateke beste zenbait aditzekin agertzen diren egiturak ere: GELDITU, EGON, IGARO, ²²PASATU, UTZI,... SAIATU bera ere, agian.

(49) a. Bazterrak txukuntzen gelditu da Lourdes.

b. Barrabaskeriak pentsatzen egon naiz.

c. Lana garbira pasatzen igaro du eguna.

Izan daitekeen diferentzia, delako aditz horrek berekin eraman ditzakeen konplementuetan bilatu beharko litzateke. Izan ere, horietako zenbaitek izen sintagma objetua eraman dezakete: UTZI-k, adibidez. Baina orduan UTZI hautemate aditzen tankerakoa litzateke. Izen sintagma objeturik ez dutenek, beste egitura hau izango lukete:



2.- ZAIL, ERRAZ, NEKE, ... predikatuak.-


2.1.- Hiru esamolde.-

Adjetibo hauek ere inesibo formako konplementuak eraman ditzakete, nahiz eta aski mugatua izan itzuli hori. Alegia, adjetibo hauekin honako hiru esapide hauek ditugu zilegi:

- (1) Erraz(a) da liburu hau irakurtzea.
- (2) Erraz(a) da liburu hau irakurtzen.
- (3) Liburu hauek erraz(ak) dira irakurtzen.

Lehenbiziko perpausean dugun perpaus txertatuak ez du inolako problemarik, baldin eta perpaus txertatu hori sujetutzat hartzen badugu. Hala ere, ba omen dira arrazoi semantikoak hori ontzat ez emateko.²³

Problema larriagoak izango dira (2) perpausarekin, non perpaus txertatuak inesiboaren kasu marka duen. Hala ere, (1) eta (2) zeharo zentzukideak direnez, behar bada perpaus horiei, biei, egitura bera eskaini lekiekei.²⁴



"Era honetako perpausak: es difficil (el) decir (...) eta halamoduzkoak, piegu hau dute euskaraz:

[ADJETIBO MUGAGABEA] $\begin{bmatrix} \underline{da} \\ \underline{zen} \end{bmatrix}$ $\begin{bmatrix} \underline{-tzen} \\ \underline{-tzea} \end{bmatrix}$

(...) "joaten" ala "joatea"? "-tzen" ala "-tzea"? Biak zilegi; lehenengoa usuago, agian, Bizkai aldean; eta bigarrena usuago, berriz, Lapurdi aldean" dio Txillardegik.²⁵

Hala ere, esamolde bat non den usuago eta antzeko kontuak oraingoz ez digute axola.²⁶ Guri axola diguna da ea baden inolako diferentziarik bi esamolde horien artean. Edo hobeto esan, aipatu ditugun hiru esamoldeen artean.

2.2.- -T(Z)EN / -T(Z)EA: diferentzia bat.-

Txillardegik dioena gora behera, -T(Z)EA eta -T(Z)EN-ek baldintza desberdinak eskatzen dituzte agertzeko. Har ditzagun honako perpaus hauek:

- (5) "Ezda erraz, (...) eun guzurren artian eguija bat apar-teetan".²⁷
- (6) "Ezda errez sinistuten, sacerdote Jaunac (...) dantzan eguiten daveela".²⁸
- (7) "Errazago da, Ceruba luurragaz batuten, oneec bijoc bat eguiten baiño".²⁹
- (8) "Sinisten dot" au adietan errazago zala".³⁰

Hauetan denetan³¹ badirudi perpaus txertatuko sujetua zehaztugabe gisa, nornahi dela, ulertzen dugula. Hots: erreferentzia zehaztugabeko PRO izango litzateke.³² Gauza bera gertatzen da (9) perpausarekin ere:

- (9) Errech da erortzen, gaitz berriz chutitzen.³³

Hemen sujetu txertatua agerian jarriko bagenu, nik neuk behintzat ez nuke jadanik -T(Z)EN jarriko, -T(Z)EA baizik:

(10) a. Erraz da gizona erortzea

b. *Erraz da gizona erortzen.³⁴

Dena dela, ez du esan nahi honek sujetu hori ageri ez den guztietan -T(Z)EN nahitaezko dugula. -T(Z)EA beti da zilegi, -T(Z)EN ez bezala:

(11) "Gaitz da mihia ongi gobernatzea".³⁵

(12) "Gaitz da,itsuak koloren berri iakitea".³⁶

(13) "Haragiak haragiaren benutztea, naturalezak naturale-
zaren aspiratzea, gaitz da".³⁷

Hortaz, -T(Z)EN agertuko bada sujetuaren erreferentzia zehaztugabea izango da. Horrek esan nahi du perpaus nagusian perpaus txertatuko sujetuaren kontrolatzaile izan daitekeen izen sintagma-rik aurkitzen bada, zail izango dela -T(Z)EN forma agertzea. Alde horretatik, oso harriagarri egiten zait Txillardegi³⁸ ematen duen adibidea:

(14) ?Gaitz du sinisten.

Era berean, (15a) zilegi bada ere, nere belarrietarako behintzat (15b) onartezina litzateke:

(15) a. Errez da erortzen.

b. ?? Erraz zaio gizonari erortzen.

Hortaz, -T(Z)EN / -T(Z)EA arteko diferentzia bat behintzat hori izango litzateke. Horregatik, perpaus txertatuko sujetua agerian badago, erabiliko dugun forma -T(Z)EA izango da.

2.3.- Beste -T(Z)EN bat.-


Har ditzagun kontutan honako perpaus hauek:

(16) "Isatsaz maiz iragaitzen den etxea, erraz baita garbitzen".³⁹

(17)

- (17) "Gogoa airatuz gero, gaitz da sosegatzen eta bere lekhura bihurtzen".⁴⁰

Hain zuzen, egitura hauek ingelesez eta beste hizkuntzetan "Tough movement" deitua izan denaren antzekoa erakusten dutela dirudi. Egitura hau berezi samarra da eta gramatika sortzailean eztabaida ugari ekarri dituen Chomskyk lehenbizikoz aipatu zuenetik.⁴¹ Funtsean bi ikuspegi ditugu: bata, tradizionalena, mugida transformazio bat proposatzen duena da: perpaus txertatuko objektua sujetuaren lekura igoko litzatekeela diote bide honen aldekoek.⁴² Neuk ere, zeharo komentzitua ez banengoen ere bide hori proposatu nuen.⁴³ Igotze transformazio honek perpaus txertatuaren objektua igotzeko luke perpaus nagusiaren sujetuaren lekura. Horrela, (4)-eko egituratik abiatuz (18) egiturara iritsiko ginateke:



Askotan ez da jakiten ahal egiazki igotze usteko hori gertatu den ala (4) egiturak bere hartan dirauen. Hori, batez ere, izen sintagma hirugarren pertsona eta singularra denean gertatzen da. Adibidez, (8) perpausa bitara uler daiteke. Ordena aldaketak askotan sala dezake igotzea baina gauza garbi gelditzeko, egokienak bestelako izen sintagmak ditugu: pluralak edo lehen edo bigarren

pertsonakoak:

(19) Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen.

Hemen dudarik ez da: gu da perpausaren sujetua, axalean behintzat. Hala ere, (19) perpausak -onartzekoa bada- arazo larri samarra jartzen digu begien aurrean eta hau da: umiltzen hori nola ulertu behar da?: inork gu umiltzen ala gu umiltzen soilaz bezala? Alegia, gaitz da gu inork umiltzea eta bakean unitzea modura ala gaitz da gu umiltzea modura? Lehenbiziko modura ulertuz gero, esan beharko litzateke gure esamoldea gaztelaniazko edo ingelesezko itzuliaren parekoa litzatekeela. Beraz, sujetuak erreferentzia arbitrarioa izango luke eta objetua igoko litzateke goiko perpausaren sujetuaren lekura. Egia esan, esapide hauen marjinaltasuna gorabehera, nik neuk uste dut esamolde hauek erdarazkoen nahikoa parekoak direla. Baina ez dirudi mugida transformazioaren alde eman ohi diren argumentuak baliozkotzat jotzen dituztenik beti hizkuntzalariek. Guk geuk eman genituen arrazoiak batez ere semantikari zegozkion.⁴⁴ Eta batez ere ZAIL, ERRAZ saileko adjetiboek eta bestelakoek, ON, EGOKI-ren sailekoek jokabide desberdina dutelako:

(20) a. Liburu horiek zail dira aurkitzen.

b. Liburu horiek aurkitzea zail da.

Agian (20)-ko bi perpaus hauek zentzukideak ditugu eta, horrenbestez, bata bestetik erakartzea posible da. Baina zentzukidetasun hori ez dugu (21)-eko perpausen artean:

(21) a. Liburu horiek egokiak dira oporretan irakurtzeko.

b. Liburu horiek oporretan irakurtzea egoki da.

Horregatik, ZAIL, ERRAZ, nolabait aparte tratatu beharra somatzen da, oso erraz ez bada ere nola tratatu behar diren jakitea.


Lasnik eta Fiengo-k⁴⁵ gogor erasotzen diote transformazio bidezko erakartze honi. Hauek igotzearen orde ezabaketa proposa-

tzen dute, proposamen horren aldeko arrazoi pisudunak eskainiz. Orain objektu hori ez litzateke jadanik perpaus nagusiko sujetuaren lekura igoko. Sujetu hori sakonean bertan "betea" egongo litzateke eta sujetua eta perpaus txertatuko (hautentzat P ez bada ere, AS baizik) objektua erreferentzizikide direlarik, ezabatu egingo litzateke objektu txertatua.

Hizkuntzalari hautentzat adjetibo hauen konplementuko objektuarekin gertatzen dena beste zenbait egituratan ere gertatzen da. Adibidez /IS - Adj+-EGI(a) da -T(Z)EKO / egituretan:

- (22) a. Pilota motela da.
 b. ?Pilota motela da atzeraino botatzeko.
 c. Pilota motelegia da atzeraino botatzeko.

Hautetan konplementua -EGI maila morfemaren konplementu izango omen litzateke:



Hautentzat "the deletion rule required to derive John is easy to please has the same properties as the deletion rule we illustrated. (...) in both cases it is the complement object which is deleted under identity with the subject of the sentence".⁴⁶ Era bateko eta besteko perpausak paraleloak omen dira: denak dira "predicational", eta badute denek konplexutasun bat gehitua: predikatuak konplementu bat du "whose sense specifies an action on the entity which is the understood subject of the predicate phrase".⁴⁷

2.4.- Perpaus txertatuak ala Aditz Sintagma soilak?.-


Lasnik eta Flengo-k diotenez, konplementu hauek ez dira perpausak aditz sintagmak baizik. Egia da, hau honela izanez gero,

ongi esplikatzen dela euskaraz hizpidea eman diguten esapide hauen ezaugarri bat, alegia nahitaezkoa dutela -dirudienez- sujetua erreferentzia zehaztugabekoa izatea. Perpaus ez badira, aditz sintagma baizik, ez lukete sujeturik izango.

Hala ere, objetua ezabatzen duten -EGI edo ASKI-dun egituretan sujetua ager daiteke. Horrek esan nahi du hauek bi eratara subkategorizatuak direla, baina ERRAZ, ZAIL, ... era bakar batera:


"too and enough have dual subcategorization -they take both VP and S complements" diote.⁴⁸

Baina Xenpelarren adibidea bezalakoak zilegi badira, eta era batera ulertuta, euskararen aldetik ERRAZ eta antzekoen kasua ez ote liteke gainerako EQUI kasuen parekotzat har, pentsatuz nolabaiteko perpaus inbertsonalak edo direla? Funtsean, hau izango litzateke perpaus hari dagokion egitura, ikuspegi honetatik:



Esan nahi du $\bar{P}$ inbertsonal gisa interpreta daitekeela aditza berez iragankorra denean. Horrela, (25) perpausak ere (26) egitura izango luke:

(25) Liburu hori zail da aurkitzen.



Proposamen honek nahikoa bidezkoa dirudi zeren (25) perpau-
sak berak beste inbertsonal honen zentzukidea baitirudi:

(27) Liburu hori ez da aurkitzen (inon).

Dena dela, honek alde batetik suposatuko luke EQUI (edo honen baliokidea) gerta daitekeela berez objetua den baina sujetu modura ageri den izen sintagmaren eta perpaus nagusiko izen sintagmaren arteko erreferentzizikidetasuna dugunean. Baina hori ez da gertatzen, hain zuzen, lan honetan EQUI aditzat hartu ditugun⁴⁹ aditzik gehienekin: SAIATU, AUSARTU, JAKIN, ...

Eta bestetik, UMILDU bitara erabil daitekeelarik: a) ni umil-
du naiz eta b) ni umildu naute, nolatan ez da posible (28)-ren an-
tzeko perpaus bat?:

(28) a. *Gu zail gara erortzen.


b. *Andoni zail da etortzen.

Hortaz, badirudi hartu dugun bidea okerra zela eta behar bada euskaraz ere AS gisako konplementuaren aurrean gaudela onartu behar. Baina orduan, Xenpelarren adibidearen parekoak ere inork gu

umildu, inork gu bakean unitu gisa ulertu beharko genituzke.

Horrenbestez, (29) perpausak (30) egitura izango luke:

(29) Giristino onak, (...) gaitz dira edireiten.



Bide hau ontzat ematen bada, baina, inesiboaren marka agertzeko modua bilatu beharko da. $\bar{P}$ dugunean KONP-en azpian ezarri dugu kasu marka. Orain ere, horrelako zerbait pentsatu beharko dugu. Diferentzia bakarra hau izango da: batean P dugunean, bestean AS izango dugula.

Dena dela, euskal perpausak zernolako egitura duen ere jakin beharko genuke. Adibidez, euskara hizkuntza "itxurazaina" ez bada nekez hitzegin genezake AS bezalako adabegi batez.⁵⁰ Hortaz, oraingoz ez dirudi ondorio behinbetikoetara iristeko moduan gaudenik, baina garbi dago ERRAZ-en saileko adjetibo hauei tratu berezia zor zaiela. Arazoak, beste hizkuntzetan ere ez daude konponduak: ez dakigu mugidaren aurrean gauden ala ezabaketaren aurrean, alde batetik.⁵¹ Eta bestetik, eztabaidagai dugu ea ERRAZ-en konplementua $\bar{P}$ den ala AS. Ikusi ditugun adibideetan sujetua agertzen ez denez eta gainera beti erreferentzia zehaztugabekotzat interpretatzen dugunez, AS dela uste izan genezake. Hala ere, Lasnik eta Fiengo-k diotenez

AS konplementua eskatzen duen bakarra ez litzateke izango easy adjetibo saila. Gisa bereko konplementua eskatzen omen du beste zenbait aditzek ere: try-k adibidez, eta oro har sujetua nahi ta ez kontrolatua izatea eskatzen duten aditzek. Gure kasuan, SAIATU, BEHARTU, AUSARTU, JAKIN, ... izango lirateke sail horretakoak. Hala ere, kasu hauetan ez dugu perpaus txertatua ez dela esango. Hauetan (ikus aurrerago) sujetua PRO dela esango dugu. Baina, ERRAZ-en sailekoetan ez bezala, PRO horrek ez du izango normalki erreferentzia zehaztugabea, goiko perpausko izen sintagma batek kontrolatua baizik.

2.5.- Laburtuz.-

Dena den, ez dut uste oraindik baterako nahiz besterako bidea hartzeko moduan gaudenik. Baina ERRAZ, eta bere saileko adjetiboek jokabide berezia dutela argi dago. Laburtzeko esan daiteke adjetibo hauek nolabaiteko "inpertsonalak" edo, osatzen dituztela normalki. "It's easy" edo "il est difficile" eta antzekoen ordain izango lirateke gure (31)-ko perpausak:

(31) {	Zail Erraz Neke Gaitz	}	da (ikasle guztiek) azterketa gaingitza.
--------	--------------------------------	---	--


Hau da egitura normalena. Perpaus txertatuak sujetua eraman dezake, edo zehaztugabetzat interpreta daiteke, edo, baita beste edozein dela pentsa liteke, testuinguruak horretan laguntzen badigu.

Bigarren esamoldea honako hau litzateke:

(32) {	Zail Erraz Neke Gaitz	}	da azterketa gaingitzen.
--------	--------------------------------	---	--------------------------

Hemen nahitaezkoa dugu sujeturik ez agertzea eta erreferentzia zehaztugabekotzat interpretatzea.

Bai (31)-k bai (32)-k, funtsean, sujetua gorabehera, egitura bera izango lukete:




Hau litzateke AHAZTU, KOSTA(TU) eta antzekoekin gertatzen dena ere, zeren jakina baita hauetan ere -T(Z)EA / -T(Z)EN bikoiztasuna gertatzen dela.

Eta azkenik, mugatu samarra bada ere, (34)eko esaldiak izango ditugu:

(34) a. Azterketa haiek zail(ak) ziren ulertzen.

b. Ni erraz(a) naiz engainatzen.

Hauetan, behar bada, biderik errazena, beste hoberik ezean, honako hau litzateke:



Hemen engainatzen-en objetua eta perpaus nagusiaren sujetua erreferentzikidetzat ulertu behar dira. Honek perpaus txertatuko aditza iragankorra izatea eskatzen du. Hortaz, erraz da erortzen eta horrelakoek ez lukete (35) egitura izango (33)-koa baizik. Hortaz, subkategorizatzea lexiko mailako arazoa baldin bada, esan beharko da adjetibo hauek zer nolako testuinguruetan ager daitezkeen. Hain zuzen, adjetibo hauek bestelako adjetiboek bezalako testuinguruak hautatzeaz gainera, berei bereziki dagozkien testuinguruak ere hautatzen dituztela esan beharko da. Adjetibo hauei bereziki dagozkien testuinguruak (33) eta (35) izango lirateke. ON, ZILEGI eta antzekoek, berriz, perpaus txertatua eraman dezakete sujetu modura.


3.- Ezagutza aditzak.-

Orain arte bi predikatu mota ikusi ditugu konplementutzat -T(Z)EN formako perpausa eskatzen dutenak edo eska dezaketenak: hautemate aditzak eta zail-en saileko predikatuak. Baina badira beste predikatu batzu itxura bereko konplementua eskatzen dutenak. Horietako tipikoenak Lafitte-k⁵³ "verbes de connaissance" deitzen zituenak ditugu. Hauek oso multzo berezia osatzen dute eta aski erraz gertatzen da, gainera, beste aditz motetatik bereiztea, bere semantika edukina oso ondo zehatz baitaiteke. Hona hemen horietako aditzik nabarmenenak: ERAKUTSI, IRAKATSI, IKASI, JAKIN, AHAZTU, ATZENDU, ASMATU,...⁵⁴

Aditz hauen objektu logikoa edo, izango litzatekeena -T(Z)EA gabe, -T(Z)EN formako konpletibo gisa agertzen zaigu. Hots: inesibo marka aukeratzen dute absolutuaren ordezt:

- (1) Andonik bizikletan ibiltzen ikasi du.
- (2) Edurnek ez du asmatu atea irekitzen.

Berez, -T(Z)EN konpletiboa aditz nagusiaren objektua bada ere, sintaxi mailan objektu horrek inesiboaren marka erakusten du. Hori "ezagutza" aditz guztien bereizgarria da. Hortaz, aditz nagusiak bere konplementuak eraman behar duen KONP delakoa hautatzen badu eta kasu marka ere KONP-en barruan badao. KONP horren tasunetako bat bezala, perpaus hauen egitura (3)-koa izango da:



Perpaus hauetan ezin daiteke -T(Z)EN konplementuaz gainera beste izen sintagma objeturik ager. -T(Z)EN konplementuak betetzen du aditz iragankor hauen objektuaren lekua. Aditz hauek, beste testuinguru batean objektu eta guzti ager daitezke:

- (4) Abesti berri bat { ikasiko dugu
irakatsiko didate
... }

Baina (4) perpauseko aditza, IKASI nahiz IRAKATSI, perpaus horretan eta honako honetan bera ote da?:

- (5) Abesti berri bat kantatzen ikasiko dugu.

Kasu honetan abesti bat ikastea eta abesti bat kantatzen ikastea gauza bera izan liteke, abestiak kantatzeko izaten baitira. Horregatik, har ditzagun kontutan orain honako adibide hauek:

- (6) Haurrek ez dute oraindik lezioa ikasi.

- (7) Haurrek ez dute oraindik lezioa kantatzen ikasi.

Hemen argi dago gauza bat dela lezioa ikastea eta beste bat, aski desberdina, lezioa kantatzen ikastea. Era berean, honako perpaus hauek ez dirudi balioak direnik:

- (8) a. Andonik zerbait ikasi du gaur.

- b. Andonik zerbaitetan ikasi du gaur.

Zerbait ikastea, lezio bat ikastea bezala, zenbait ideia eta kontzeptu gogoan hartzea izango litzateke. Zerbaitetan ikastea berriz, kantatzen ikastea bezala, beste zerbait dela dirudi: zerbait egiten ikastea ez da gogoan zerbait "jasotzea", ekintza bat (kantatzea, adibidez) aurrera eramateko behar den trebetasuna lortzea baizik. Orduan, alde horretatik, agian zilegi da bi aditz desberdintzat hartzea (6) eta (7)-ko perpausetan agertzen zaigun IKASI hori.

Hala ere, kontu hau nahikoa eztabaidagarria da: egia da bateko aditzak eta bestekoak ez duela gauza bera esan nahi, baina

hortik bi aditz ditugula esatera salto handi samarra dagoela ematen du. Baina ikus dezagun astiroago arazo hau.

3.1.- Aditz bat ala gehiago?.-

IKASI ez da konplementu bat baino gehiago onartzen dituen aditz bakarra. Horrelako asko ezagutzen ditugu: AHAZTU, ESAN,... Aditz hauen konplementuek axala desberdina izan arren esanahi bera balute, ez genuke oztopo handiegirik. Oztopoak, testuinguru desberdinetan agertzen direnean esanahiz aldatzen diren aditzekin sortzen zaizkigu. Esanahi desberdintasuna konplementuari bakarrik balegokio, konplementatzaile desberdinei funtzio semantiko desberdina emanez konponduko litzateke zailtasuna.⁵⁵

Har ditzagun gogoan honako bi perpaus hauek:

(9) a. Joxek igandean mendira joango zela esan zion Kepari.

b. Joxek igandean mendira joateko esan zion Kepari.

(9b) perpausean agertzen den perpaus txertatuko sujetua, badirudi perpaus nagusiko nori sintagmaren erreferentzikidetzat interpretatzen dugula.⁵⁶ Hots: igandean mendira joan beharko duena Kepa izango da. Ostera, (9a) perpausean, konpletiboaren sujetua perpaus nagusiko sujetuaren erreferentzikidea izan daiteke edo perpaus nagusiko beste edozein izen sintagmaren erreferentzikide. Alegia, (9a) entzuten duenak ez daki garbiegi igandean mendira joango zena Joxe zen ala Kepa, ala beste norbait. Agian, normalago litzateke Joxe dela pentsatzea, baina bestea ere izan liteke. "Dado que en ambos casos el verbo regente es el mismo, ¿cómo se explica que las restricciones de correferencia varíen de una a otra secuencia? También ahí nos hallamos ante dos lecturas semánticas bien distintas para un mismo verbo: en el primer caso, decir significa "afirmar", "notificar" y se comporta en todo como

un verbo declarativo; en el segundo, adopta el valor de "ordenar", "instar", etc. y presenta las mismas redes de correferencia que éstos (...): las propiedades de correferencia diferentes (...) preven correctamente que nos hallamos ante dos verbos (o dos significados verbales) diferentes" dio Hernanz-ek.⁵⁷

Autore batzuk⁵⁸ goiko bi perpaus horien arteko diferentziak aditz nagusiaren eta menpekoaren artean "agintezko" aditz abstraktu bat dagoela proposatuz esplikatzen dituzte. Bi aditz desberdinen aurrean gaudela diotenak semantikazko eta sintaxizko desberdintasunetan oinarritzen dira.⁵⁹ Hona hemen bereiztasun sintaktiko horietako zenbait:

a) Ez dago denborari dagokion mugarik indikatiboan, baina bai (gaztelaniaz ari gara) subjuntiboan:

(10) a. Le dije al policía que (él) me había insultado.

b. *Le dije al policía que (él) me hubiera insultado.

b) Agindua adierazten denean aditz txertatuak ez-egoerazkoa izan behar du:

(11) a. Le dije a mi mamá que estaba enferma.

b. *Le dije a mi mamá que estuviera enferma.

c) Gorago aipatu dugunez, agintebalioa daukagunean, menpeko sujetuak goiko datiboaren erreferentzikidea izan behar du.

Sauer-ek dioenez, bi aditzeko soluzioari orokortasuna falta zaio. Decir ez da bikoiztasun semantiko hori agertzen duen aditz bakarra. Komunikazio aditz guztiek erakusten digute bereizketa bera era berean: gritar, escribir, susurrar, chillar, ...⁶⁰

"For each verb of communication there would have to be a corresponding verb of ordering, a solution which misses the generalization that these pairs are all related in the same way. The two verb

solution in essence claims that it is a coincidence that for every verb of communication there is a homophonous (but unrelated) verb of ordering. The member of these pairs are seen as being related only phonetically, like raise/raze and faint/feint. Surely we need to distinguish between accidental and systematic homonymy. The two verb analysis does not do this."⁶¹

Soluzio hobetzat jotzen du Sauer-ek, hortaz, hotsez berdinak eta esanahiz antzekoak diren hitzak zuzenki erlazionatuak daudela pentsatzea. Horretarako, eskaintzen duen bidea da agintezko aditz abstraktu bat jartzeko komunikaziozko aditz nagusiaren eta menpeko aditzaren artean. Euskarari gagozkiola,

(12) Peruk Joxepari oihu egin zion saltatzeko.

perpausaren azpian beste honen antzeko zerbait izango bagenu bezala:

(13) Peruk Joxepari oihu egin zion: saltatzeko agintzen dizut.

Delako aditz abstraktu hori ez litzateke erabat zehaztua egongo sakoneko egituran. Izango dituen tasunak, egitura honetan "uler-tutzat" eman daitezkeen aditz guztiei batera dagozkienak bakarrik izango dira.⁶² Honela, ez omen genuke beharko iadanik komunikazio aditz bakoitzaren ondoan beste hots bereko agintezko aditz bat. Hau ados omen dago gramatikalari tradizionalen intuizioekin, esaten zutenean honelako perpausak zeharkako aginduak edo eskariak zirela.

Sauer-en bide hau behar bada onargarria da komunikazio aditz hauen balio bikoitza esplikatzeke, zeren -TZEKO ageri zai-gunean perpaus horren edukia agindu bat dela badakigu, indika-tibo + -(E)LA dutenetan ez bezala. Baina hemen hizpidea eman diguten aditzak beste batzu dira: ezagutza aditz hauen balio aniztasuna esplikatzeke on ote da bide hori?

"Many generative grammarians would probably consider the form saber as two homophonous but distinct verbs, saber₁ 'to know (how)', and saber₂ 'to know (a fact)', on grounds similar to those advanced for decir" baieztatzen du Sauer-ek.⁶³

JAKIN₁/JAKIN₂; IKASI₁/IKASI₂ eta abarren artean dagoen semantika desberdintasunaz mintzatu gara. Sintaxiari dagozkion diferentziak ere begien bistan daude:

(14) Jonek badaki oheak egiten.

Hemen perpaus txertatuko sujetua nahi eta ez Joxe bera dela interpretatu behar da. Baina:

(15) a. Joxek badaki oheak ongi egiten dituela.

b. Joxek badaki nik oheak ongi egiten ditudala.

(15b) (16)-rekin aldera daiteke:

(16) *Joxek badaki nik oheak egiten.

Bestalde, batek aditz mugatua (egiten dituela) eskatzen du perpaus txertatuan, besteak aditz mugagabea (egiten). Azken hauek, bestalde, ezin dute konpletibo gisa borondatezkoa ez den predikatua duen perpausik eraman:


(17) a. *Andonik ez daki lodiegia izaten.

b. Andonik ez daki lodiegia dela.

Hala ere, Sauer-en ustez, bi aditz (AHAZTU-ren kasuan hiru ere izango genituzke euskaraz) direla onartuz gero, ez dugu esplikatzen ahal aditz horiek, diferentziak gorabehera, duten elkarren antza esanahian, hots-kidetasunaz gainera. Kasu honetan ere, decir-en kasuan bezala, Sauer azpiegitura konplexuago baten alde agertzen zaigu. Lehen aginte-aditz abstraktu bat proposatzen zuen aditz nagusiaren eta perpaus txertatuaren artean. Oraingoan "saber₁ may be best characterized by considering it to be a complex lexical item consisting of the verb saber 'to know' and an abstract


head noun of manner in the complement⁶⁴. Horrenbestez, (18) perpausaren egitura (19)-an ematen dena izango omen litzateke:

(18) El niño sabe escribir su nombre.



Hortaz, Sauer-en arabera, (20) perpausaren egitura (21) edo izango litzateke:

(20) Joxek badaki oheak egiten.



Perpaus nagusiko eta perpaus txertatuko izen sintagma bera denek,
EQUI bidez ezabatua gertatuko da perpaus txertatukoa. Ezabatze

hori dela medio, infinitiboa agertuko omen litzateke erdaraz. Ondoren, manera (edo modua, gure kasuan) izen sintagma nahitaez ezabatuko omen lukeen transformazioa beharko omen genuke. "I believe that even this ad hoc solution in itself is plausible and warrants consideration because it provides an explanation for not only the meaning of saber, but also accounts for its syntactic properties, the constraints being just those imposed by the head noun manera. Since the distributional characteristics of saber are identical to those imposed by the manera head noun, there is now no need to reduplicate the facts as constraints on saber".⁶⁵

Eta aurreraxeago honela dio: "What is important to note is not only that aprender and enseñar share the same manner/factive distinction, but also that they both share a basic meaning of knowing. That is, aprender and enseñar can be paraphrased respectively as

- (1) come to know $\begin{cases} \text{how} \\ \text{a fact} \end{cases}$
- (2) cause to come to know $\begin{cases} \text{how} \\ \text{a fact} \end{cases}$ "⁶⁶

Garbi dago aditz hauetan denetan oinarrian JAKIN osagai semantikoa dagoela. Baina era honetako analisi bat sintaxi mailara ekartzen badugu zer nolako problemak sortzen zaizkigun jakina da. Baina istilu horietan sartu gabe ere, aditz hauen balio bikoiztasuna (how/a fact) bera dela eta, Sauer-en zenbait baieztapen ezaibaidagarri gertatzen da. Hizkuntzalari honentzat aprendi a bailar bezalako perpaus batek izango lukeen ingeles ordaina 'I learned how to dance' da eta ez, guztiz normala izango litzatekeen I learned to dance. Baina euskarari begira, honako bi perpaus hauek baliokideak ote dira?:

(22) Joxek badaki oheak egiten.

(23) Joxek badaki oheak nola egin.

Egia da nahikoa hurbil daudela, baina ez nintzateke ausar-
tuko zeharo baliokideak direla esaten. Galdetu diedanek ere ez
dizkidate parekotsat eman. Adibidez, (24) eta (25) ere ez diru-
di baliokidetzat eman daitezkeenik:⁶⁷

(24) Joxek herria gobernatzen badaki.

(25) Joxek badaki herria nola goberna.

Nik, politikaria ez naizenez, ezin dut esan badakidala herria
gobernatzen, baina, agian, politikari izan gabe ere, esan deza-
ket badakidala herria nola goberna. Beraz, onartu beharko da
(22) eta (23) eta (24) eta (25) ez direla erabat zentzukideak.
Hortaz, ezin onartu Sauer-ek eskaintzen digun bidea. Dena dela,
(23) eta (25) perpausak beste perpaus multzo zabalago batean
kokatzen dira:

(26) Badakit $\left\{ \begin{array}{l} \text{nola esan} \\ \text{zer esan} \\ \text{nori esan} \\ \text{noiz esan} \end{array} \right\}$

(27) Erabaki dut $\left\{ \begin{array}{l} \text{nola esan} \\ \text{zer esan} \\ \text{nori esan} \\ \text{noiz esan} \end{array} \right\}$

Baina badakit esaten-en parean ez dugu *erabaki dut esaten⁶⁸

Eta bien artean kidetasun osorik ez dela ikusteko konpara
ditzagun bi perpaus hauek:

(28) Hitz hori badakit esaten.

(29) Hitz hori badakit nola esan.

Agian norbaitek pentsa lezake berdina direla biak. Baina ez. Adibidez, hemendik aurrera adberbio esapidea askoz normalago da (29) perpausarekin (28)-rekin baino:

(28') ?? Hemendik aurrera hitz hori badakit esaten.

(29') Hemendik aurrera hitz hori badakit nola esan.

Hemendik aurrera hori, hitz hori bezala, aurreratua izan da.⁶⁹ Berez dagokion lekua ez da perpaus nagusia, perpaus txertatua baizik. (29') perpausean ikusten da garbier hori. Badakit aditz forma nekez batera daiteke hemendik aurrera adberbioarekin:

(30) a. ?Hemendik aurrera ona naiz.

b. Hemendik aurrera ona izango naiz.

Horregatik, badakit-ekin baino askoz hobeto aurkituko litzateke adberbio hori etorkizuneko forma batekin:

(31) Hemendik aurrera jakingo dut.

Eta horrek esplikatzeko du nolatan (28') ez-gramatikala den bitartean, (29') gramatikala gertatzen den. Argi dago: berez, bi perpaus horiek beste hauetatik erakarriak direlako:

(28'') ?Badakit [hemendik aurrera hitz hori esaten]

(29'') Badakit [hemendik aurrera hitz hori nola esan]

Hortaz, badirudi ESATEN eta NOLA ESAN ez direla gauza bera. Gutxienez, aspektu edo denbora kontua edo, ez dakit nik zer, bada hemen: nola esan-ek etorkizunera bialtzen gaitu eta, horregatik, joan daiteke hemendik aurrera bezalako esapide batekin. Esaten-ek berriz, ezin ditu ametitu perpaus nagusia joan daitezkeen denbora mugapenak baino.

Era berean, denbora edo aspektu mugak daudela esan daiteke aditz nagusiaren eta -T(Z)EN formako konplementuaren artean:

(32) a. *Joxek badaki aberasten.

b. Joxek badaki nola aberastu.

Beraz, esaten eta nola esan-en artean bada diferentziaren bat, handiegia ez bada ere. Horregatik, gaitz egiten zaigu bata bestetik eratortzea. Eta M. Gross-ek egiten duenak ez du balio, ustezko transformazio hau (alegia, nola dantzatu-tik dantzatzen aterako ligukeena) oso mugatua dela esatea aski ez dela ematen baitu.⁷⁰

Gauzak ez daude, hala ere, oso argi. Ikusi dugu nola Hernanz-entzat, adibidez, bi decir ditugula edo bi esanahi desberdinen aurrean gaudela. Zalantza bat bezala nabari zaio.

Rivero, gaztelaniazko presuposizioei buruz ari delarik,⁷¹ konturatzen da zenbait aditzek subjuntibozko nahiz indikatibozko konplementuak eraman ohi dituztela. Bata edo bestea aukeratzeko ondorio semantikoak ditu. Fenomeno hau esplikatzeko, gramatika sortzaileari bi bide eskaintzen omen zaizkio:

a) Pentsa genezake bai indikatibozko perpausen bai subjuntibozkoen sakoneko egituren badela presuposizioei dagozkien desberdintasunak aditzera emango dituen faktoreren bat. Adibidez, proposa daiteke parecer edo creer gisako aditzetan bi elementu "hoscide" ditugula, hots bereko bi aditz desberdin, alegia. Edo, Kiparskytarrek⁷² aditz faktiboen konplementuentzako egiten duten bezala, presuposizio diferentziak perpaus konpletiboaren sakoneko egitura desberdinei egotzi dakizkieke.

b) Beste aukera bat honako hau izango litzateke: zenbait aditz sintaxiaren aldetik markatzea, era bateko edo besteko konplementatzaileak hartu ahal izateko moduan. Presuposizio diferentziak axaleko egituren kokatuko lirateke eta maila honetan lan egingo luketen interpretazio semantikozko erregelek emango ligukete perpaus bakoitzaren irakurketa.⁷³

Lehenbiziko aukera dela eta, alegia indikatibozko eta subjuntibozko konplementuen arteko esanahi desberdintasuna hoshide diren bi aditz desberdinen bidez esplikatzeaz, honela dio Riverok: "La primera objeción a esta solución es que ninguno de los verbos que hemos discutido en este artículo parece pertenecer a dos grupos diferentes desde un punto de vista sintáctico y semántico."⁷⁴ Decir bezalako aditz bat, ostera -dio Riverok- semantikaren aldetik aginte-aditzen artean sar daiteke edo komunikazio aditzen artean. Eta sintaxiaren aldetik ere, batean eta bestean, konplementu desberdinekin aurkituko gara. "Las interpretaciones de decir y los fenómenos sintácticos que se manifiestan en cada una de esas interpretaciones parecen indicar que hay dos elementos léxicos decir".⁷⁵

Sentir aditza ere bikoitza izango litzateke. Baina "verbos como admitir, confiar, parecer, suponer etc., no tienen interpretaciones diferentes según el tipo de complemento que les sigue. No hay nada en la interpretación del verbo matriz que diferencie No le parece que viene de No le parece que venga".⁷⁶

Semantika diferentziak gorabehera, sintaxi aldetik ere zenbait diferentzia badira bikoiztasun horren alde. Bi aditz A_1 eta A_2 baditugu, hoshideak baina semantikaz desberdinak, inongo transformazioek ezin du horietako bat ezabatu baliokideak direla eta. Adibidez, koordinazioan gertatzen diren ezabaketak gerta daitezten, ez da aski hoshide, fonologikoki baliokide alegia,⁷⁷ izatea. Hala ere, Demontek ez ditu gauzak hain garbi ikusten eta dio lexikoiaren ikuspegitik begiratzen direnean gauzak bi aditz hauek (decir eta sentir, adibidez) ez diruditela tratu bera har dezaketenik.⁷⁸

Hortaz, euskarari gagozkiola, JAKIN, IKASI, IRAKATSI,

ASMATU, AHAZTU eta abarretan aditz bakarra ikusi behar dugu ala gehiago? Adibidez, gorago esan dugu lezioa ikasi eta ibiltzen ikasi esaten dugunean IKASI-k ez duela bietan gauza bera esan nahi, ibiltzeari buruzko lezio praktiko batez ari ez bagara behintzat. Lezio bat buruz ikas daiteke, ibiltzen ezin ikas daiteke horrela. Baina gorago aipatu diren argumentuak aplikatuz, honako perpaus hauek legezkoak ote dira?:

(33) Gaur olerki bat ikasiko dugu eta bihar bareak irentzen. Hemen bigarren perpauseko ikasi aditza ezabatu dugu. (33) gramatikala bada, esan nahi du IKASI bakarraren aurrean gaudela. Baina:

(34) ?Bi eta bi lau direla ikasi dut eta ez, bareak irentzen. Kasu honetan behar bada bi IKASI-ren aurrean gaudela aitortu behar, baldin eta perpaus hori onartezina bada.

AHAZTU-ren kasuan gauzak argiago daudela ematen du:

(35) *Ahaztu egin zait liburua erostea eta oheak egiten. Hemen ere, behar bada, bi AHAZTU-ren aurrean gaudela onartu beharko da. Arazoa, hortaz, ez dago nahi genukeen bezain garbi. Baina beste hizkuntzetan gure jakin-i, adibidez, bi aditz desberdin badagozkio (I can sing eta I know that the book is good, adibidez), agian pentsa genezake gure kasuan ere bi aditz ditugula.

Dena dela, euskaldunak badaki AHAZTU-ren zentzu desberdin guztien azpian badela beti zerbait kasu guztietan aurkitzen dena eta, horregatik, behar bada, lexikoiari utziko genioke gauzak esplikatzen. Kontua litzateke honako hiru perpausei dagokien interpretazio zuzena ematea, lexikoian aditza behar bezala markatuz eta interpretazio erregela egokiak formulatuz:

- (36) a. Ahaztu egin zait liburuak irakurtzea.
 b. Ahaztu egin zait liburuak irakurtzen.
 c. Ahaztu egin zait liburuak irakurri behar ditudala.

Era berean,

- (37) a. Badakit bizikletan ibiltzen.
 b. Badakit bizikletan ibiltzen zarela.

Dena dela, /JAKIN + inesibodun konplementatzailea/ egiturak beti zerbaitetarako trebetasuna izatea esan nahi du. Eta /JAKIN + -(E)LA formako konplementatzailea/ egiturak, berriz, egiazko ezagutza adierazi nahi du. Eta hau sail honetan sartu ditugun aditz guztiekin gertatzen da. Hortaz, bi aditz hoskide ditugula onartzeko problemarik ez dut ikusten, baldin eta bi aditz horiek nolabait erlazionatuak daudela esplikatzen bada.

3.2.- Aditz hauei atxikitako konpletiboen egitura.-

Aditz bakarra ala bi ote ditugun argi ez badago ere, argi dago sail honetan jaso ditugun aditz guztiek elkarrekin badutela zerikusia, bai esanahiaren aldetik,⁷⁹ bai onartzen dituzten konplementuen ikuspegitik begiratuta ere. Azken batean, esanahi hori honetan datza: ekintza bat aurrera eramateko behar den trebetasuna eskuratzean (IKASI, ERAKUTSI, IRAKATSI, ASMATU, aditzen kasuan bezala), edo lortua izatean eta, beraz, trebetasun horren jabe izatean (JAKIN-en kasuan bezala), edo trebetasun hori galtzean (AHAZTU-ren kasua litzateke hau). Hau alde batetik. Gero, denek ametitzen dituzte -(E)LA konpletiboak. Hemen ez gaude jadanik inolako trebetasunen aurrean, beste zerbaiten aurrean baizik. Hortaz, multzo honetako aditz guztiek dituzte ezaugarri bertsuak semantikaren eta sintaxiaren aldetik:


$$\left[\left[\text{Indik.} -(\underline{\text{E}})\underline{\text{LA}} \right] \text{---} \right] \left[\left[\dots \text{T}(\underline{\text{Z}})\underline{\text{EN}} \right] \text{---} \right] \left[\left[\dots -\text{T}(\underline{\text{Z}})\underline{\text{EA}} \right] \text{---} \right]^{80}$$


JAKIN	+	+	-
IKASI	+	+	-
IRAKATSI	+	+	-
ASMATU	+	+	+
AHAZTU	+	+	+
ERAKUTSI	+	+	-

Baina konpletibo hauen egitura dela eta, arazo interesgarri batekin egiten dugu topo. Lezioa ikasi dut esaten dudanean garbi dagoela dirudi lezioa dela perpaus horren objetua. Baina kantatzan ikasi dut esatean ikasi-ri ezin zaio itsatsi kantatzan-ez gainera bestelako objeturik. Hortaz, kantatzan izango litzateke objetua, nahiz eta inesiboan joan. Eta aditz hauek hiztegian era berezian markatuak joan beharko dute, esanaz sail honetako aditz guztiek [+INESIBO] kasu marka duen KONP-a eskatzen diotela perpaus txertatuari. Marka hau ezagutza aditz guztiena izango litzateke. Horren arabera, (38) perpausak (39) egitura izango luke:

(38) Andonik badaki adarra jotzen.

(39)






Baina AHAZTU-rekin ez da objektu kontua, itxuraz behintzat, sujetu kontua baizik, axalean bederen:

(42) Andoniri bizikletan ibiltzen ahaztu zaio.

(43) Andoniri bizikletan ibiltzea ahaztu zaio.

(44) Andoniri gaur jai dela ahaztu egin zaio.


Hemen agertzen diren konpletiboak, aditza iragangaitza denez gero, sujetu edo direla pentsa genezake. Hortaz, hauen egitura, funtsean, honako hau izango litzateke:



Azken batean hemen jokoan dagoena euskal perpausaren egitura bera da. (42) bezalako perpausak, hain zuzen, euskal perpausak egitura "laua" duelako ideia indartzen dute. Zeren badakit ibiltzen esaten dugunean ibiltzen objetutzat hartzeko eskubidea badugu, eskubide bera dugula dirudi (42)-an ere perpaus txertatua (43) eta (44) perpausateko konpletiboan naren ia-

tzeko.

Bestalde, hor agertzen den Andoniri datiboak funtsean beste ezagutza aditz iragankorretan (JAKIN, IKASI,...) ergatiboak betetzen duen funtzioa betetzen duela dirudi. Hots: argumentu egitura bera izan behar dutela dirudi aditz hauek denek:



Baina beste kontu bat da sintaxi mailan zer gertatzen den jakitea, zeren IKASI eta JAKIN-ek x argumentua ergatibo forman eman-go dute, baina AHAZTU-k datibo forman. Arazoa, azken batean, izango litzateke argumentu egitura horretatik egitura sintaktikora iristeko bidea esplikatzea eta, bereziki, osagai bakoitzak behar duen kasu marka eratea. Hau, noski, gure oraingo helburuetatik ate gelditzen da, baina oso arazo inportantea da.⁸¹ Izan ere, hau ez da AHAZTU-rekin bakarrik gertatzen.⁸² Hor dugu, eza-gutza aditza ea bada ere, KOSTA(TU):

(47) a.-Kostako zaizu ni engainatzea.

b. Kostako zaizu ni engainatzen.

Perpaus hauentzat egitura laua dugula onartuz gero ez genuke problemarik izango, baldin eta ziurtatzen badugu aditzaren komunztadura zuzena. ZAIL eta ERRAZ sailekoekin gertatzen zi-

tzaizkigun arazoak ere bide beretik konponduko genituzke.

Dena dela, inesibo marka edo $\emptyset$ marka (hots: absolutu-arena) oso axaleko kontuak direla dirudi. Hori ematen du aditzera, behintzat, honako perpaus honek:

(48) Saiatu naiz liburua ulertzen baina ez dut lortu.
Honen azpian (49) dugula onartuz gero:

(49) Saiatu naiz liburua ulertzen baina ez dut lortu
liburua ulertzea.

Hortaz, -T(Z)EN agertu nahiz -T(Z)EA agertu, ez dago alde handirik. Semantikaren aldetik behintzat hori argi dago. Eta konjuntzioaren laburduraren aldetik ere horrela dela dirudi.

3.3.- Amaitzeko.-

"Ezagutza" aditz hauek nahikoa aditz bitxiak ditugu eta aparteko sail bat osatzen dutela pentsatzeko arrazoiak badira. Bi testuinguru sintaktiko desberdinetan agertzen zaizkigu:

a) /Indik. + -(E)LA/ gisako konpletibo batekin nahiz absolutuan doan izen sintagma batekin, edo b) /Aditz izena + -N/ nahiz inesiboan doan edozein izen sintagamarekin.⁸³ Hala ere, bi konplementu mota hauez gainera, AHAZTU eta ASMATU-k -T(Z)EA formakoa ere onartzen dute.

Konpletibo desberdinek, bestalde, esanahi desberdina dute. Horrenbestez, eztabaidagarri da ea aditz bakarraren aurrean gauden ala itxura bereko aditz bat baino gehiagoren aurrean. Bigarren soluzio hau onartuz gero, konpletibo desberdinek duten esanahi desberdintasunaren arazoa konponduta gelditzen zaigu, baina beste arazo bat sortzen dugu: aditz horiek, hiztunari bere intuizioak esaten dion bezala, erlazionatuak daudenez esanahiz, nola jar ditzake gramatikak elkarrekin harremanetan, desberdinak badira.

Bestalde, -T(Z)EN forma hau, berez sakonean objektuaren balioa duen sintagma bat izanik, nolatan agertzen den jakin beharko genuke itxura horretan. Horretarako ez dugu esplikazio egokiagorik aurkitu aditz nagusiak eskatzen duen KONP horren arabera doala esatea baino. Aditz nagusiak -kasu honetan "ezagutza" aditz deitu ditugun hauek- agintzen duela esango dugu bere "objetua" zer kasutan agertuko den: absolutuan ala inesiboan. Era berean, AHAZTU-rekin "beneficiary"^{S4} delakoa datiboan agertzea ere, besteekin ergatiboan agertzen den bitartean, esplikatu beharko luke gramatikak. Baina hau ere aztergai utzi dugu, arazo oinarritzkoenak ere oraindik konponbide zai baititugu. Dena dela, eginkizun hau hiztegiari egotzi dakioke, aditz bakoitzaren sarrera lexikoan kontu hauek zehaztuz.

4.- Aspektu edo denbora kutsuko zenbait aditz.-

4.1.- Datuak.-

Hizkuntzalariek multzo berezi batean sartu ohi dituzte aditzaren ekintzan nolabaiteko bilakaera adierazten duten aditzak. Aditz klase honetan sartzen dituzte ekintza baten hasiera, iraupena edo amaiera adierazten dutenak. Ingelesezt, adibidez, honako aditz hauek sartu ohi dira multzo honetan: BEGIN, CONTINUE, CEASE. Euskaraz, honako hauek sartuko genituzke -hasiera batean-: HASI, JARRAITU, IRAUN, AMAITU, BUKATU, ARI, JARDUN, eta, agian beste bakarren bat.⁸⁵

Hala ere, aditz hauek semantikaz "senide" diruditen arren, sintaxiaren ikuspegitik begiratzen badiegu, berehala konturatuko gara nahikoa eskema desberdinak erakusten dituztela ondoko adibideok agerian jartzen duten bezala:

- (1) a. Gizona autoa garbitzen hasi da.
- b. Nere landareak zimeltzen ari dira.
- c. Andonik betiko gauzak esaten jarraitzen du.
- d. "Badira baserritar bizar egiten iarduten dabenak".⁸⁶

Adibide hauetan ikusten denez, HASI, ARI, JARRAITU eta JARDUN nahikoa antzekoak ditugu. Hala ere, HASI eta ARI iragan-gaitz bezala agertzen zaizkigu, JARRAITU eta JARDUN, berriz, iragankor modura, nahiz eta objeturik gabeak izan. Hortaz, JAKIN eta antzekoen jokabide sintaktiko bera jarraitzen dute. Baina hori, egia esan, diferentzia handia ez da. Harrigarriago egiten zaiguna da, HASI-k (1)-eko perpausen eskema sintaktikoa onartzen badu, nolatan ez den horrelakorik gertatzen AMAITU edo BUKATU aditzekin. Neu behintzat ez naiz oso lasai gelditzen aditz hauek erabili behar ditudanean, eta galdezka ibili naizenean hiru eratako jendea aurkitu dut: batzuk lasai lasai berdintzen dituz-

te bi aditzak. Beste batzuk, -T(Z)EN-en ordeaz, -T(Z)EZ erabiliko dute eta beste batzuk, azkenik, honako gaztelaniazko perpaus hau hots: 'José terminó de hablar a las cinco' ez lukete euskaraz nola esan jakingo:

- (2) a. ? Joxek hitzegiten bostetan amaitu zuen.
 b. ? Joxek hitzegitea bostetan amaitu zuen.
 c. Joxek bere hizketaldia bostetan amaitu zuen.
 d. Joxek bostetan utzi zion hitzegiteari.
 e. Joxek bostetan amaitu zuen hitzegitez.⁸⁸

AMAITU-k eta HASI-k ez dute, hortaz, zeharo testuinguru sintaktiko bera onartzen.

Aditz hauek guztiek, bestalde, sujetutzat ezin dute eramane perpaus bat:

- (3) a. *Gizonak autoa garbitzea berehala hasiko da.
 b. *Gizonak autoa garbitzea oraintxe ari da.
 c. *Gizonak autoa garbitzea bostetan amaituko da.
 d. *Gizonak autoa garbitzeak jarraitzen du oraindik.
 e. *Gizonak autoa garbitzeak egun osoa iraun zuen.

JARDUN-ek, bestalde, nahi eta ez, sujetu konkretua eta biziduna eskatzen duela dirudi. Eta "deponentea" denez,⁸⁹ ez du objeturik, absolutuan doanik alegia, onartzen, -T(Z)EN formako konplementua baizik.

Baina zenbait izen ager daitezke sujetuaren lekua betetzen, aditzak beste inolako konplementurik ez daramalarik:

- (4) a. Kantaldia bostetan hasiko da.
 b. Meza berandu amaitu da.
 c. Klaseak berandu arte iraun zuen.
 d. Prentsurrekoak oraindik ere jarraitzen du.

Aditz hauen sujetu izan daitezkeenak Newmeyer-en "eventive noun phrases" direlakoak bakarrik dira.⁹⁰ Horregatik dira ez-gramatikalak (5)-eko perpausak:

- (5) a. *Kafesnea bostetan hasiko da.
- b. *Mahaia berandu amaitu da.
- c. *Tomateak berandu arte iraun zuen.
- d. *Harri horrek hor jarraitzen du.⁹¹

(4)-eko eskeman sartu ezinak direnak ARI eta JARDUN ditugu:

- (6) a. ? Kontzertua ari da telebistan.
- b. *Kantaldiak jardun du telebistan.

Bestalde, badirudi trantsitiboak ere izan daitezkeela, hots: sujetuaz gainera objektu bat ere izan dezakete. Adibidez:

- (7) a. Liburu berri bat hasi dut.
- b. Neure lana ez dut oraindik amaitu (bukatu).
- c. ?Jarrai ezazu zeure bidea (hobeki: Jarrai iezaiozu zeure bideari).

Baina:

- (8) a. *Liburu berri bat ari dut.
- b. *Andonik bere lana irauten du.

Alderdi honetatik, hortaz, erregularrenak HASI eta AMAITU ditugu.

Eta azkenik, hauetako zenbaitek -T(Z)EN-en ordeaz, inesi-boan edo beste atzizkiren bat daraman izen sintagma izan dezakete:

- (9) a. Gu LANEAN $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \end{array} \right\}$ gara.
- b. Guk LANEAN $\left\{ \begin{array}{l} \text{jarraitu} \\ \text{iraun} \\ \text{jardun} \end{array} \right\}$ dugu.

c. *Guk LANEAN $\left\{ \begin{array}{l} \text{amaitu} \\ \text{bukatu} \end{array} \right\}$ dugu.

(10) a. Gu FARREZ $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \end{array} \right\}$ gara.

b. Guk FARREZ $\left\{ \begin{array}{l} \text{jarraitu} \\ \text{?iraun} \\ \text{?jardun} \end{array} \right\}$ dugu.

c. *Guk FARREZ $\left\{ \begin{array}{l} \text{amaitu} \\ \text{bukatu} \end{array} \right\}$ genuen.⁹²

Beraz, badirudi sintaxiaren aldetik nahikoa bereziak direla multzo honetan sartu nahi izan ditugun aditz hauek. Orain arteko adibide guztiak koadro batean jar ditzakegu.⁹³

Ergat. Suj. / [...-T(Z)EN —] / [IS —] / [IS —] / [... Alg. —]
 [+Biz.] AS P AS AS

<u>HASI</u>	+	+	+	+	+	+
<u>AMAITU</u>	+	+	?	+	+	-
<u>JARRAITU</u>	+	+	+	+	?	+
<u>ARI</u>	-	+	+	-	-	+
<u>JARDUN</u>	+	+	+	-	-	+
<u>IRAUN</u>	+	+	?	+	-	+
<u>BUKATU</u>	+	+	?	+	+	-


Koadroak argi erakusten digu aditz hauek denak nekez sar daitezkeela eskema sintaktiko bakarraren barnean. Bakoitzak bere jokabidea duela dirudi, nahiz eta semantikaz zerikusia dutenak izan.

4.2.- Perpaus hauen egitura.-

Saia gaitezen perpaus hauei dagokien egitura bilatzen. Har dezagun (1a) perpausa. Argiago izan dadin, (11)-n jasoko dugu berriro:

(11) Gizona autoa garbitzen hasi da.


Berez, bi aukera ditugula ematen du:



P_1 -eko IS (gizona) P_0 -koaren erreferentzikide denez, ezabatu egingo litzateke, EQUI-ri esker adibidez⁹⁵, eta horrela iritsiko ginateke gutxi gora behera (11) perpausaren axaleko egiturara.

Beste aukera bat, HASI aditz aspektualtzat harturik, (13)

izango litzateke:



Hemen ez genuke EQUI-rik izango, IGOTZE (= 'raising') delakoa baizik. (13)-k suposatzen duena da HASI aditz iragangaitza dela eta sujetutzat perpaus bat duela.

Baina zein ote dugu egiturarik egokiena? Konplementazioaz, infinitiboaz eta abarrez aritu diren guztiek ikutu behar izan dute puntu hau. Ikus dezagun, hortaz, zeintzu izan diren gauzak aurkezteko era nagusienak.

1) Perlmutter-entzat,⁹⁷ HASI-ri (ingelesezko begin ordainari, noski) bi egitura dagozkio, bata iragankorra, iragangaitza bestea. Nominalizazioak izan daitezke HASI bezalako baten sujetu, adibidez. Nominalizazio hauen azpian perpaus bat dagoela pentsatzen bada, badirudi bidezkoa litzatekeela egitura iragangaitza onartzea. Hots: (13) moduko zerbait. Baina bestela, ez.⁹⁸

Bestalde, (12) bezalako egitura (hots: egitura iragankorra) balute, ondoko perpausak ez lirateke zentzukideak izango:

(14) a. The noise began to annoy Joe.


b. Joe began to be annoyed by the noise.

Bi perpaus hauen sakoneko egituratzat (12) ez, (13) baizik proposatuz gero, biek sakoneko egitura bera izango luke-⁹⁹ te eta, horrenbestez, zentzukideak izango lirateke.


Egitura iragankorraren premia justifikatzeko, sujetu baliokidearen debekua (= 'like-subject constraint') delakoan oinarritzen da Perlmutter. Alegia, HASI da aditz bat bere mende duen perpaus txertatuko sujetua eta perpaus nagusikoa baliokideak izatea eskatzen duena. (11) bezalako perpaus bat bere aldetik "like-subject constraint" hori duen aditz baten menpean jartzen badugu, -SAIATU-ren mende adibidez- (15) perpausa izango dugu:

(15) Gizona autoa garbitzen hasten saiatu da.

SAIATU-ren "constraint" edo debeku hori errespetatu nahi bada, ezin da ontzat eman (16) egitura (15) perpausaren-tzat. Perpaus honek (17) egitura eskatuko luke:



(16) egituran, SAIATU-ren sujetua, GIZONA alegia, eta P_1 -ekoa ez dira baliokide, azken hau P_2 baita. Hortaz, (17) egitura beharko dugu sujetu berdinen muga hori errespetatu nahi bada:




Horrek esan nahi du, Perlmutter-en arabera, (17)-ko P_1 -i dagokion egitura izango duela (11) perpausak ere. Hots: (12). Egitura honetan oinarritzen da hizkuntzalari hau iragankor/iragangaitz bikoizketaren alde jartzeko. Hala ere, Perlmutter-ek ez digu esplikatzeko nola erlazionatu behar diren egitura iragankorra eta iragangaitza. Bestalde, "like-subject constraint" delako hori duten aditz guztiek sujetu biziduna eskatzen omen dute. Horrek esan nahiko luke HASI-ren sujetu gisa IS bizigabea agertzen bada, egitura iragangaitza izango dugula. Hots: (13)-ren antzeko bat.

2) Newmeyer-entzat,¹⁰⁰ Perlmutter-entzat ez bezala, ez dago egitura bikoiztasun hori. Hizkuntzalari honek dioenez aditz hauek denak iragangaitzak dira eta perpaus txertatua aditz iragangaitz horren sujetua izango litzateke.

HASI bezalako aditz baten iragankortasunari kontra egiteko Newmeyer-en arrazoirik nagusia "like-subject constraint" delakoari dagokio.¹⁰¹ Debeku hau ezin da onartu, haren ustez. Izan

ere, teoriaz delako debeku hori duten aditz askok ez omen dio
 debeku horri jaramonik egiten.¹⁰²

Newmeyer-ek, hortaz, honelako zerbait proposatzen du
 perpaus hauen egituratzat:



Hau da: perpaus txertatua sujetua izango litzateke. Per-
 paus honetako aditz sintagma perpaus nagusiko began (= 'hasi zen')
 aditzaren ondora pasaraziko luke transformazio batek.

3) Demontek ikusmolde hau, ere ez du ontzat ematen, ba-
 tez ere perpaus txertatua IS-ren azpian agerrera¹⁰³ zen duelako.
 Aditz hauek sujetutzat perpaus ez den IS bat eramán dezakete:

(19) La película empezó a las ocho.

(20). Terminó el partido.

Bestalde, sujetuaren leku horretan nominalizazioak ager
 daitezkeenez, IS horren azpian perpaus bat joan daitekeela per¹⁰³sa
 omen daiteke:

(21) El croar de las ranas cesó hace media hora.

Hala ere, kontrako arrazoiak badira:

a) QUE-dun perpaus sujeturik ez omen da:

(22) *Que las ranas croasen cesó hace media hora.

b) Perpaus hori izen sintagma balitz, IS-ri dagozkion transformazioak onartu beharko lituzkete. Adibidez, "galderaren eraketa" delakoa. Baina hau ez omen da gertatzen:

(23) a. Terminó de celebrarse la Junta.

b.*¿Qué terminó?


c) Perpaus hauek egitura "sasi-pitzatu"etan ('pseudo cleft') ezin omen daitezke ager:

(24) *De celebrarse la Junta fue lo que terminó.


Hortaz, Monteren ustez, sakoneko egitura iragankorra onartezina da eta aditz aspektual baten sujetu gisa doan perpausa ezin daiteke IS izan.¹⁰⁴

Beraz, Perlmutter eta Newmeyer-en planteamendu hauen ordez, Demontek beste bat proposatzen du. Aditz hauek iragan-gaiztzat hartzen ditu, sujetutzat IS ez den perpaus bat dutelarik.¹⁰⁵ Horrela, COMENZAR bezalako aditz baten sujetua $\bar{P}$ izango litzateke, $\bar{P}$ hau goragoko P-ren mende dagoelarik. Horrela, (25) perpausaren sakoneko egitura, Monteren ustez, (26) izango litzateke:¹⁰⁶


(25) Juan empezó a bailar.




(26)-tik, sujetuaren igotzea dela medio, (27) lortuko omen genuke:



Eta sujetuaren igotzearen bigarren parteak (28) egitura sortaraziko omen liguke:



4) Demonteren ikusmoldea baino interesgarriago dirudi Bresnan-enak. Hizkuntzalari honentzat "semiauxiliaries" deitzen dituen aditz hauek sujetu logikorik gabeak dira. Horrenbestez, Δ gune huts batez osatua egongo da leku hori. Perpaus txertatua, berriz, AS-ren azpian egongo litzateke, eta hemendik "subject shifting" delako transformazioaren bidez, IS bat aterako litzateke hutsik dagoen P-ren IS-ren lekua hartzeko:



Ikus dezagun astiroago Bresnan-ek proposatzen digun bidea. Urak goragotik hartuaz, Bresnan-ek sujetu logikotzat perpaus bat dutela uste izaten diren zenbait aditz hartzen ditu kontutan:

- (30) The counselor happened to ignore poor students.
- (31) Poor students happened to be ignored by the counselor.
- (32) The counselor wanted to ignore poor students.
- (33) Poor students wanted to be ignored by the counselor.

(30) eta (31) perpausen egitasuna erlazionatua dago: (30- egia izateko, (31) ere egiazkoa behar dugu. Baina (32) eta (33) egia edo gezurra izan daitezke bakoitza bere aldetik. (30) eta (31)-ren sinonimia, biak beste onetatik erakarriak direla proposatuz esplika daiteke, Bresnan-en ustez:

- (34) It happened that the counselor ignored poor students.
- (32)-k, ordea, ezin du (34)-ren antzekorik izan azpian:
- (35) *It wanted that

Transformazio bidezko deribazio hau ezaguna da gai hone-tako bibliografian.¹⁰⁸

Baina analisi hauetan beti sujetuaren lekua perpaus batek betetzen du. Honekin ez dago ados Bresnan. HAPPEN bezalako aditz bat ez omen da sujetutzat perpausak onartzen dituzten beste zenbait predikatu bezalakoa, TO BE OBVIOUS bezalakoa adibidez.¹⁰⁹

- (36) a. *That Mary is quite tall happens.
 b. That Mary is quite tall is obvious.
- (37) a. Mary happens to be quite tall.
 b. *Mary is obvious to be quite tall.
- (38) a. *What happens is that Mary is quite tall.
 b. What is obvious is that Mary is quite tall.

Bresnan-ek dioenez, sujetuaren ordezkatzeari pairatzen duten aditzek zabalagoa den beste aditz klase baten azpimultzoa osatzen dute. Hots: "semiauxiliaries" deituak izan direnen parte bat izango lirateke. "The semiauxiliaries, as their name suggests, share properties of both verbs and, such verbal auxiliaries as modals" dio.¹¹⁰

Infinitibozko konplementuak hartzen dituzten aditz arruntak ez bezala -hots: WANT 'nahi', LIKE 'gustatu', BELIEVE 'uste izan', SUPPOSE 'suposatu'- erdi-laguntzaileek beti konplementuaren sujetua ezabatua egotea eskatzen dute, sujetu hori beren sujetuen berdintzat ulertzen delarik.¹¹¹

Erdi-laguntzaile hauek bi multzotan banatzen omen dira:

a) 'hautapen debekuak' (= 'selectional restrictions') ezartzen dizkietenak beren axaleko sujetuei: TRY, AVOID, BOTHER, HASTEN, SERVE.
 Eta b) horrelako mugarik ezartzen ez dutenak: HAPPEN, SEEM, BE LIKELY.
 Bigarren multzokoetan bakarrik gertatzen omen da sujetu-ordezkatzeko transformazioa.

Aditz hauen lehenbiziko ezaugarria, hortaz, da ez dietela

inolako mugarik ezartzen axaleko sujetuei. Hau lehen jarri dugun¹¹² Rosenbaum-en analisiarekin bat etor daiteke, baina "the fact is, the overwhelming majority of the verbs under discussion never occur with a subject clause" dio Bresnan-ek.¹¹³

Bestalde, aditz hauek ezin omen daitezke FOR perpausekin ager ez eta ere gehienetan THAT perpausekin. Orduan, Bresnan-ek suposatzen du "shifting subject" delakoaren iturria edo abiapuntua perpaus "biluzgorria" dela, hots KONP gabea. Ingelesez behintzat, Bresnan-ek demostratzen duenez, sujetuzko perpausetan KONP hori derrigorrezkoa denez, esplikatua izango genuke aditz hauek perpaus den sujeturik ez izatea. Horrela, Bresnanek proposatzen duen egitura gorago jaso duguna da, (29) alegia. "For those verbs which may occupy V in (7) (gure (29)-n alegia) -the logically subjectless semi-auxiliaries- this structure accounts for the absence of subject selection, the impossibility of sentential subjects, the possibility of subject shifting without violation of the Fixed Subject Constraint, as well as the characteristic properties of Table I: There insertion and synonymy of active and passive. In addition it permits us to remove all special restrictions and exceptions from the Subject Shift transformation: it is now an obligatory rule with no exception".¹¹⁴

Nahikoa bidezkoa dirudi Bresnan-en planteamentu honek.¹¹⁵ Badakigu HASI-k ez diola hautapen debekurik ezartzen bere axaleko sujetuari:

(39) a. Jendea sakabanatu da.

b. Ikasleak sakabanatu dira.

c. *Apezpikua sakabanatu da.

(40) a. Irakasleak rock musika maite du.

b. *Nire autoak rock musika maite du.

Perpaus hauek erakusten digutenez, SAKABANATU eta MAITE aditzek ez dute nolanahiko sujeturik ametitzen. Baina HASI-k ez dio inolako mugarik ezartzen bere axaleko sujetuari. Are gehiago, axaleko sujetu horri debekuak ezartzen dizkiona perpaus txertatuko aditza da:

(41) a. Jendea sakabanatzen hasi da.

b. Ikasleak sakabanatzen hasi dira.

c. *Apezpikua sakabanatzen hasi da.

(42) a. Irakaslea rock musika maitatzen hasi da.

b. *Nire autoa rock musika maitatzen hasi da.¹¹⁶

Alegia, (41c) eta (42b) ez-gramatikalak izatearen arrazoia ez da bilatu behar HASI eta sujetuaren artean izan daitekeen inolako debekuan, ez baita horrelako debekurik, (39c) eta (40b)-ren ez-gramatikaltasunean baizik. Hori da, hain zuzen, perpaus huentzat honako egitura proposatuz iragartzen dena, hots:

$$(43) \begin{matrix} \Delta \\ P_1 \end{matrix} \quad \begin{matrix} [\dots] \\ P_2 \end{matrix} \quad \underline{\text{HASI}} \quad]$$

HASI eta ARI-k sujetutzat edozein izen sintagma onar badezakete, hori sujetu igotzeari mugarik ezartzen ez diotelako dela pentsa daiteke.¹¹⁷ Pentsa liteke, hortaz, HASI eta ARI-rentzat Bresnan-en eta Ruwet-en bide hau baliagarri dela.

Berez, hizpidea eman diguten aditz aspektual hauek bi eratara analiza litezke: edo Igotze bidez edo EQUI bidez: "Les deux analyses, celle qui recourt à EQUI, et celle qui recourt à MONTÉE, seraient (...) également adéquates au niveau d'observation" dio Ruwet-ek.¹¹⁸ Hala ere, behar bada egokiago da IGOTZE bidezko erakarpina EQUI bidezkoa baino. Eta arrazoia da EQUI eskatzen duten aditzek sujetuari buruzko debekuak dituztela. Alegia, aditz

hauek ez dute edozein sujetu onartzen. Eta badakigu HASI-k eta ARI-k ez dietela beren axaleko sujetuei inolako mugarik jartzen.

Ikuspegi hau onartuz gero, hortaz, zein izango litzateke euskaraz / Δ ___ S testuinguruan agertuko liratekeen aditzak, hots: aspektu kutsukoak? Sujetutzat edozein eratako izen sintagmak ametitzen dituztenak izan behar dutenez, HASI, ARI eta AMAITU/BUKATU (?) behintzat bai. JARDUN-ek adibidez, badirudi sujetutzat [biziduna] tasuneko izena eskatzen duela:

(44) a. Liburuak hondatzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ dira.

b. Gizonak eskailerak garbitzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \end{array} \right\}$ dira.

c. Nire loreak zimeltzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \end{array} \right\}$ dira.

(45) a. *Liburuek hondatzen jardun dute.

b. Gizonak eskailerak garbitzen jardun dute.

c. *Nire loreak zimeltzen jardun dute.

JARRAITU-bera ere azken multzokoa dela esango nuke, hots:

JARDUN-en multzokoa:


(46) a. Liburua irakurtzen jarraitu nuen nik.

b. *Liburuek erretzen jarraitu zuten.¹¹⁹


c. *Loreak zimeltzen jarraitu zuten.¹²⁰

Hortaz, bi egitura desberdin izango ditugu aditz nagusia era batekoa ala beste batekoa den kontutan hartuz. Esaterako, (47) perpausak (48) egitura izango luke eta (49)-k, berriz, (50):

(47) Andoni liburu berri bat idazten $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.



(49) Andonik liburu berri hura idazten { jarraitzen } du.
 { jardun }



(48)-an sujetuaren IGOTZEA gertatuko zaigu. (50)-ean, berriz,
 12.1
 EQUI. Dena dela, garbi dago IGOTZEA eskatzen duten aditzak oso
 gutxi direla. Gehienek EQUI edo horren ordaina eskatuko dute.

HASI, ARI eta agian AMAITU-rentzat igotze bidezko


deribazioa ontzat emateko dugun arrazoirik nagusia sujetaari buruzko debekurik eza dugu. Har ditzagun kontutan perpaus hauek:

(51) a. Oilaskoa merke saltzen $\begin{Bmatrix} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{Bmatrix}$ da.

b. *Oilaskoak merke saltzen jardun du.

(51a) eta (51b) arteko desberdintasunaren berri emateko bi bide besterik ez dugu:

a) Perpaus hauek denak era berean deribatzen baditugu, EQUI bidez esaterako, honako egitura hau izango genuke beti:



Beraz, orain arte ez dakigu zergatik (51a) gramatikala den, ba: na (51b) ez. Esplikazio bat izango litzateke esatea ARI eta HASI-k ez diotela betekizun berezirik eskatzen perpaus txertatuari. Beste guztiek berriñ-EQUI aditz guztiek, alegia- eskatzen dute perpaus txertatuak deskribatzen duen ekintza nola edo hala perpaus nagusiko sujetuaren kontrolpean egotea. Adibidez:

(53) Azeria jaten saiatu da.

gramatikala izango bada, nahi eta ez honela interpretatu behar da:

(54) Azeria_i $\left[\text{PRO}_i \text{ zerbait jaten} \right]$ saiatu da.


Beste era honetara interpretatu nahi bagenu, hots:


(55) Azeria_i $\left[\begin{smallmatrix} \text{PRO}_i \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$ jaten] saiatu da.

ez-gramatikala litzateke, zeren azeria saia daiteke bere kontrolpean dagoen eginkizun batean, zerbait jaten, adibidez, baina azeria jaten duena SAIATU-ren sujetu gisa ageri den azeria ez, besteren bat baizik bada, orduan garbi dago hori ez dagoela azeriaren kontrolpean, beste batenean baizik.

Baina kurioa da. Hain zuzen, horixe da, dirudienez, EQUI aditz guztiekin gertatzen dena. Salbuespenak, hain zuzen, HASI eta ARI izango lirateke.

Eman dugun esplikazioan ontzat eman da aditz inbertsonalen egitura aditz iragangaitz "normalena" bera dela. Baina inbertsonal horiek transformazio bidez erakarriak direla suposatuko bagenu,¹²² orduan ere esplikatu gabe geldituko litzateke zergatik HASI eta ARI-rekin posible den gainerako guztiekin ezina dena. Alegia, orain egitura beste hau izango genuke:¹²³







(56) ez-gramatikala gertatzea normala da EQUI-k eskatzen duen erreferentzirikidetasunik ez baitugu. Baina, orduan nolatan da zilegi (55)-ekoa?

Hala ere, soluzio honek eskatuko luke EQUI eta $T_{inpers.}$ delakoa ordena horretantxe aplikatzea eta ez, alderantziz, zeren orduan lehengo egoera berarekin aurkituko ginateke.


Horrela, "igotzea" ere ustezko $T_{inpers.}$ horren ondoren jarrita lor genezake (51a)-ren gramatikaltasunaren berri ematea:



Hemendik, $T_{inpers.}$ dela medio:




Eta IS txertatua igoaraziz:



Hortaz, soluziobide honek EQUI- $T_{\text{inperts.}}$ -IGOTZEA ordena eskatuko luke. Momentu honetan ezin esan nezake egiazki gauzak horrela diren, baina garbi dagoena da HASI eta ARI-k, nahi eta ez, beste aditzek ez bezalako tratua eskatzen dutela. Eta, nahikoa egokia dirudi igotze bide horrek. Hala ere, $T_{\text{inperts.}}$ delako horren statusa ere hobeto aztertu beharko litzateke.

Pentsa liteke, egia da, ez dela oso ekonomikoa horren aditz gutxirentzat bakarrik balioko duen erregela bat proposatzea. Baina ez dut beste biderik ikusten. Zeren eman dezagun ARI eta JARDUN-entzat, adibidez, egitura bera proposatzen dugula, funtsean EQUI egitura bat:



Hau honela balitz ere, zehaztu egin beharko genuke JARDUN-ek debekuak ezartzen dizkiola bere sujetuari, ARI-k inolako debekurik ezartzen ez dion bitartean. Horrek esplika lezake, adibidez, honako bi perpaus hauen arteko diferentzia gramatikal-tasunari dagokionez:

(61) a. Loreak zimeltzer ari dira.

b. *Loreek zimeltzen jardun dute.

Hau besterik ez bagenu, ez genuke inolako arrazoirik izango ARI eta HASI-rentzat sakoneko egitura desberdina proposatzeko. Baina denen azpian EQUI egitura baldin balego, nolatan da posible batzutan EQUI-k eskatzen duen erreferentzirikidetasuna zilegi izatea perpaus txertatuko sujetua berez perpaus "inpersonal" baten objetua denean baina besteetan ez. Hain zuzen,

perpaua txertatuari dagokion debeku hau ez da gertatzen HASI eta ARI-rekin, beste guztiekin bai ordea. Esan nahi baita JARDUN eta ARI-rekin egitura bera baldin badugu, nolatan gertatzen da gramatikala (62a) baina ez (62b)?:

(62) a. Oilaskoa ongi ari da saltzen.

b. *Oilaskoak ongi jardun du saltzen.

Hortaz, hiztegian edo nonbait debeku hauen denen berri eman beharko genuke denentzat (60)-ko egitura ontzat ematen badugu. Horregatik, agian bide sinpleagoa dela dirudi igotze bidea.¹²⁴

4.3.- Zenbait oztopo.-

Hala ere, HASI, ARI eta abarrentzat 'igotze' transformazioaz baliatzen den erakarbidea proposatu eta ontzat eman badugu ere, oztopoak berehala ateratzen zaizkigu bide horretan. Eta, ondoko lerroetan ikusiko dugun bezala, ez da erraz izango oztopo horiek era erosoaz gainditzea. Dena den, oztopoei begiak isteak ez digu inolako mesederik egingo. Horregatik, hobe dugu azterketa batek non huts egiten duen ikustea, soluziorik emateko gai izango ez bagara ere.

a) HASI eta ARI honako testuinguruan agertzen direnetakoak direla onartu badugu, hots: $/[\Delta][P \text{ ---}]$, eta ez EQUI eskatzen dutenak, denak batera doazela^{IS} ^{AS} ematen du honako perpaua hauetan:

(62) a. Gu lanean $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \\ \text{ibili} \\ \text{gelditu} \\ \text{saiatu} \end{array} \right\}$ gara.

b. Guk lanean $\left\{ \begin{array}{l} \text{jarraituko} \\ \text{jardungo} \\ \text{ikasiko} \\ \dots \end{array} \right\}$ dugu

Eta LANEAN bezala, izan daiteke BERTSOTAN, ARTAJORRAN, HIZKETAN, ...; GAIZKIESAKA, SALTOKA, OSTIKOKA, ...; FARREZ, NEGARRERREZ, eta abar. Egia da adberbio tankerako esapide hauek badituztela zenbait debeku. Adibidez, FARREZ ez dut uste ager daitekeenik SAIATU edo IKASI-rekin. Dena den, hemen axola diguna beste zerbait da, hots: (63) perpausen egitura zein da?:

- (63) a. Gu lanean ari gara.
- b. Andoni bertsotan hasten da (ondo afalduz gero).
- c. Haur guztiak algaraz hāsi ziren.
- d. Maistra dantzan ari zen (sartu nintzenean).

Perpaus hauen ordaintzat eman daitezke zenbait parafrasi:



- (64) a. Gu lan egiten ari gara.
- b. Andoni bertsoak paratzen hasten da.
- c. Haur guztiak algara egiten hasi ziren.
- d. Maistra dantza egiten ari zen.

Norbaitek proposa lezake, hortaz, (63)-ko perpausak (64)-ekoetatik erakarriak direla, eta hauentzat (48) egitura proposatu bada (63)-koek ere sakonean egitura horixe izango dutela. Baina ez ote da gehiegi?


EQUI onartzen dutelako aditzek, SAIATU-k, adibidez, bi eratako konplementuak ametitzeko problemarik ez dute: biak egongo lirateke nolabaiteko Alg (=adizlagun) adabegi baten azpian. Dena dela, kasu batean nahiz bestean perpaus txertatuak nahiz ekintza izenak sujeturen bat baduela pentsatzeko eskubidea dugu: LAN, BERTSO, ALGARA, DANTZA eta antzekoak ekintza adierazten duten izenak ditugu eta, horrenbestez, ajenteren bat badutela pentsatzeko eskubidea ematen digute. Horrela, (65) perpausak eta (66)-k antzeko egitura izango dute:

- (65) Gure aitona lanean saiatzen da.
- (66) Gure aitona lan egiten saiatzen da.

Egitura hori honako hau izango litzateke:



Baina HASI eta ARI-k, proposatu dugun bidea ona bada, ezingo lukete era berean jokatu. (64a)-ri (48) egitura eskaintzen bazaio, adibidez, (63a)-ri egitura bera eskaini al diezaiokegu? Perpaus txertatuan egitura aski abstraktua proposatzen ez badugu behintzat, adibidez (67)-ren antzeko zerbait, nekez iritsiko gara, IGOTZE bidez (63a) perpausera:



Kontua da ekintza izen hauei sujeturen bat eskaintzeko bidea aurkitu beharko genukeela. Alde honetatik EQUI bidea eta IGOTZE bidea antzeko oztopoekin aurkituko dira. Alegia, ekintza izen hauei sujeturen bat egozten baldin bazaie, nahiz eta perpaus ez izan, berdin berdin lan egingo lukete ustezko bi transformazio hauek. Baina sujeturik ezin baldin bazaie eskaini, orduan badi-rudi (66') egitura hobetsi beharko genukeela eta, horrenbestez, gure aitona sakoneko egituren bertan IS adabegiaren azpian ageriko litzatekeenez, perpaus txertatua duten egituretan ere, EQUI bidea hobetsi beharko genuke. Hots: (65') eta aurrerago proposatu dugun (48) egitura ez, (50)-en antzeko bat baizik. Hala ere, hipotesi lexikalistak izan behar du arazo honi irtenbidea bilatzeko modua, zeren sujetu arazo hau ekintza izenki guztiei baitagokie.¹²⁵

b) Bestalde, onartutzat eman dugun (48) egitura horretan gertatu ohi den IGOTZE hori dela eta, oso muga hertsia, eta bitxi samarrak, nik uste, ditugu. Har ditzagun honako adibide hauek:

$$(68) \text{ a. } \left[\left[\Delta \right] \left[\text{Andonik adarra jotzen} \right] \left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\} \right] \Rightarrow$$

Andoni adarra jotzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

$$\text{b. } \left[\left[\Delta \right] \left[\text{Andonik ni jotzen} \right] \left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\} \right] \Rightarrow$$

ala $\left\{ \begin{array}{l} \text{-Andoni jotzen hasi zitzaida} \text{ (niri, hortaz)} \\ \text{-Andoni ni jotzen hasi zen?} \end{array} \right.$

Hemen lehenbiziko aukera zilegi bada, badirudi birmoldaketa bat gertatzen dela perpausean: nor sintagma zena, axaleratze-koan nori sintagma bihurtzen zaigu. Badirudi, perpaus txertatuko nor sintagma hori lehen edo bigarren pertsonako izenordaina bada, (68b)-n bezala, gertatzen diren egiturak nahikoa bitxiak direla. Adibidez:

(69) a. Hirugarreneko ikasleak irakasle berria estimatzen
hasi dira.

Baina b. ? Hirugarreneko ikasleak ni estimatzen hasi dira.
 c. ? Hirugarreneko ikasleak zu estimatzen hasi dira.

Dena dela, ez nuke jakingo esaten zergatik gertatzen den ezin onartu hori.

Eta zilegi ote da perpaus txertatuko nor sintagma hori datibo forman ematea, (68b)-n egiten den bezala? Galdetu diedan batzuk, egia esan, errazago onartzen zituzten datibodunak (69b eta c)-koak baino:

(70) a. ?Hirugarreneko ikasleak estimatzen hasi zaizkit.

 b. ?Hirugarreneko ikasleak estimatzen hasi zaizkizu.

Ez dakit arrazoia zein izan daitekeen. Baina pentsa liteke datiboa

batzutan sakoneko egituran ere perpaus nagusian agertuko zaigula

(71) Itziar agur egiten ari zait.

esaten dugunean bezala. Eta ARI iragangaitza den aldetik nor eta nori-rekin ager daitekeenez arazo handiegirik ez dago hemen, batez ere aditz txertatuak ere beste datibo bat baldin badarama, agur egin-en kasuan bezala.

Dena dela, oztopo honekin berin berdin egiten dugu topo EQUI bidea hartzen dugunean ere.¹²⁶

c) Bestalde, ESTIMATU-ren ordez, NAZKATU, KEZKATU, BILDURTU moduko aditz erazle edo emotibo¹²⁷ batekin ari garenean, aditz hauen sujetu gisa agertzen den ergatiboa berez instrumental bat edo, denez, (69)-koen tankerako perpausetan buelta ematen zaio perpaus txertatuari eta esaldiak ez du orduan inolako gramatikaltasun problemarik. Adibidez:

(72) a. ?Hirugarreneko ikasleak ni nazkatzen hasi dira.

b. ?Hirugarreneko ikasleak zu bildurtzen hasi dira.

Baina (73) a. Nazkatzen hasi naiz hirugarreneko ikasleekin.

b. Bildurtzen hasi zara hirugarreneko ikasleekin.

Honako honek ere badu zerikusia aurrekoarekin. Zer pasatzen da (74)-eko perpausak HASI eta ARI aditzaren mendean txertatzen ditugunean?:

(74) a. Langileak lanik ez izatea arazo larria da.

b. Langileak lanik ez izatea arazo larria ^{bihurtu} da.

Honelako zerbait izango dugu:

(75) a. Langileak lanik ez izatea arazo larria izaten

{ hasi } da.¹²⁸
 { *ari }

b. Langileak lanik ez izatea arazo bihurtzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

Badirudi (75)-eko perpausak IGOTZE bidezko analisiaren alde datozela, zeren (76)-ko perpausen ez-gramatikaltasuna zail litzateke bestela esplikatzen:

(76) a. *Langileak lanik ez izatea hasi da.¹²⁹

b. *Langileak lanik ez izatea zertan hasi da?

Arrazoibidea zuzena bada, esan nahi du, berez, HASI-k ez duela perpaus den sujeturik ametitzen. Hortaz, (75) baldin badugu, pentsatzekoa da sujetu gisa agertzen den perpausa igo egin dela.¹³⁰

Baina orain ere igotze horrek debeku handiak aurkitzen ditu bidean. Har ditzagun kontutan honako perpaus hauek:

(77) a. Zu etortzeak pozten du aitona.

b. Gizon hori hain setatsua izateak harritu nau.

c. Txakurra libre ikustekak izutzen du eskalea.

Baina:

(78) a. *Zu etortzea aitona pozten $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

b. *Gizon hori hain setatsua izatea denok harritzen

$\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

c. *Txakurra libre ikustea eskalea izutzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

Nola esplika (77)-koak gramatikalak direlarik (78)-koak ez-gramatikalak izatea? Perpaus hauen arabera, badirudi ezin igo daitekeela edozein sujetu perpaus nagusiko IS hutsa betetzera.

Lehenago esan dugu aditza erazlea denean objetua lehenbiziko edo bigarren pertsona bada, oztipoak handiak direla perpaus txertatuko sujetua axaleko perpaus nagusiaren sujetu gisa ager dadin. Hala ere, hirugarren pertsonakoa bada, perpausa onargarriago gertatzen dela esango nuke, honako adibide hauek erakusten diguten bezala:

(79) a. Maixu berri horrek haur guztiak aztoratu ditu.

b. Maixu berri horrek zu aztoratu egin zaitu.

(80) a. Maixu berri hori haur guztiak aztoratzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

b. ?Maixu berri hori zu aztoratzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

Baina aditz erazle horren sujetua (79) eta (80)-an ez bezala bizigabea bada, orduan (80a) gramatikala bada ere, horren antzekoa den (82) ez dago hain garbi benetan gramatikala den ala ez:

(81) a. Teoria berri horrek haur guztiak aztoratzen ditu.

b. Teoria berri horrek gu aztoratu gaitu.

(82) a. ?Teoria berri hori haur guztiak aztoratzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

b. ??Teoria berri hori gu aztoratzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

Hortaz, aditz erazle hauen sujetua biziduna izan edo ez, badago aldea. Bestalde, aditz hauen sujetu aditz mugagabeko perpaus bat izan daiteke.¹³¹ Aditz erazle hauen sujetua biziduna denean (edo agian gizakia izan behar du) agente modura interpreta daiteke, baina

biziduna ez bada, (81) eta (82)-an bezala, orduan sujetu hori ezin interpreta daiteke ajentetzat, instrumentaltzat edo, baizik.¹³² Hau zeharo bistakoa da sujetua perpausa denean, (84)-ean ikusten den bezala:

(83) a. Teoria berri hori aurkitzeak aztoratu egin du irakaslea.

b. Teoria berri hori aurkitzeak aztoratu egin gaitu.

(84) a. *Teoria berri hori aurkitzea irakaslea aztoratzen ari da.

b. *Teoria berri hori aurkitzea gu aztoratzen ari da.

(83)-koen ondoan (85)-ekoak ere zilegi direnez, (84)-eko perpaus ez-gramatikalen ondoan (86)-koak guztiz onargarriak eta gramatikalak ditugu:

(85) a. Teoria berri hori aurkitzearekin (aurkitzeaz) aztoratu egin da irakaslea.

b. Teoria berri hori aurkitzearekin (aurkitzeaz) aztoratu egin gara.

(86) a. Teoria berri hori aurkitzearekin (aurkitzeaz) irakaslea aztoratzen $\left\{ \begin{array}{c} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ da.

b. Teoria berri hori aurkitzearekin (aurkitzeaz) aztoratzen $\left\{ \begin{array}{c} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{array} \right\}$ gara.

Honek esplikazio bat izan dezake pentsatzen badugu perpaus hauen makurra (nolabaiteko "hautemate estrategia" batekin zerikusia baduela. Chomsky eta Lasnik-ek¹³³ honako "irazki" hau

proposatzen ziguten: (20) $\begin{matrix} * \\ \text{NP} \end{matrix} \begin{bmatrix} \text{NP tense} & \text{VP} \end{bmatrix}$

Eta honela diote geroxeago irazki hau dela eta: "We observe further that the filter (20) is closely linked to a reasonable perceptual strategy, namely (22):

(22) In analyzing a construction C, given a structure that can stand as an independent clause, take it to be a main clause of C".

- Analizatzen den C egitura hori perpaus bat izan daiteke, aditz sintagma bat, izen sintagma bat edo adjetibo sintagma bat. Hortaz, (84a eta b) perpausetan agertzen den azken zatia perpausaren aditz sintagma bada ere perpaus osotzat uler daiteke: irakaslea aztoratzen ari da. Orduan, behar bada, perpaus hau automaten duenaren joera atal hori perpaustzat ulertzea izango litzateke.

Honek esplika lezake, agian, baita ere, nolatan, (84) ez-gramatikaltzat jotzen den bitartean, (87) gramatikala den:

(87) Teoria berriak aurkitzea gure helburu nagusi bihurtzen $\begin{Bmatrix} \text{hasi} \\ \text{ari} \end{Bmatrix}$ dira.

zeren /gure helburu nagusi bihurtzen hasi/ ezin interpreta baitaiteke perpaus osotzat. /Irakaslea aztoratzen ari/, berriz, bai. Horatik etor liteke, behar bada, esplikazioren bat. Eta esplikazio edo esplikazio usteko hau ere baliagarri izan daiteke gorago jaso ditugun perpausen ezin onartuaren berri emateko. Hain zuzen objektutzat lehen edo bigarren pertsonako izenordainen bat duten perpausak.

Beste esplikazio bat agian "ortodoxoagoa" nahi izanez gero, pentsa liteke, /teoriak irakaslea aztoratu du/ eta /teoriarekin irakaslea aztoratu da/ transformazio bidez erlazionatuak daudela onartzen badugu, igotzea eta transformazio hori ordena egokian apli-

karaziz lor daitekeela irtenbidea. Aski genuke IGOTZEA beste transformazio horren aurretik jartzea.

Dena dela, azken aldian aipatu dugun oztopo hau handiagoa gertatzen dela dirudi HASI eta ARI-rentzat gainerako EQUI aditzentzat onartu ohi den bidea onartuz gero. Alegia: EQUI bidea. Zeren, bestela, nola esplikatu HASI eta SAIATU-ren arteko diferentzia honako perpauk hauek?:

- (88) a. ?Hirugarreneko ikasleak ni nazkatzen hasi dira.
b. Hirugarreneko ikasleekin nazkatzen hasi naiz.

- (89) Hirugarreneko ikasleak ni nazkatzen saiatzen dira.

SAIATU EQUI aditzat hartu dugu eta, hain zuzen, aditz honek ez dirudi inolako oztoporik ezartzen dionik perpauk txertatuko sujetuari kasu honetan. Baina HASI-k, bai, antza. Orduan, askoz egokiago izango da HASI eta ARI-rentzat IGOTZE bidea proposatzea, behar diren debekuak edo erregela ordenak ezarriz, EQUI analisisa gainerako aditzentzat gordeaz.

4.4.- HASI, aditz iragankorra denean.-

Eskuartean darabiltzagun aditz hauekiko zenbait objektu batez lagundurik ere ager daitezke: HASI, AMAITU, BUKATU.¹³⁴

- (90) a. Egunoroko paseoa hasi dute aguretxoek.
b. Liburu bat hasi dut.
c. Nork hasi du gazta?
d. Gaurko lanak berehala amaitu ditugu

Gero, hauen ondoan baditugu beste egitura batzu ere: aditzak iragangaitz segitzen dute eta sujetuan zenbait izen ager

daiteke:

- (91) a. Jaialdia bostetan hasiko da.
- b. Gure lana gaueko hamaiketan hasten da.
- c. Klasea hamabietan amaitu da.

Newmeyer-ek ¹³⁵begin-en klaseko aditz hauek sakonean argumentu bakarra ametitzen dutela zioen. Perpaus txertatua, hortaz, aditz horren sujetu da hizkuntzalari horrentzat¹³⁶. Hala ere, hizkuntzalari honek oso era zuhurrez konpontzen du (90)-eko perpausak aurkezten diguten arazoa. Egitura horiek axalean bakarrik izango lirateke iragankorrak, ez sakonean. Horretarako, predikatu abstraktuez baliatzen da: (90)-eko perpausak gutxi gora behera honelatsu parafrasea litezke:

- (92) a. Egunoroko paseoa egiten hasi dira aguretxoak.
- b. Liburu bat irakurtzen hasi naiz.¹³⁷


Parafrasi hauek ez omen lirateke posible beste zenbait egitura iragankorretan. Adibidez, gaztelaniaz¹³⁸ (93) ezin parafrasea daiteke (94) gisa:

- (93) María miraba la televisión.
- (94) *María miraba hacer la televisión.

Euskaraz ere, hortaz, HASI eta IKUSI adibidez, ez lirateke izango taxu bereko aditz iragankorrak, honako adibide hauek erakusten diguten bezala:

- (95) Mirenek film bat ikusi zuen atzo.
- (96) Mirenek liburu bat hasi zuen atzo.

Hau dela eta, Newmeyer-ek HASI eta antzeko hauentzat honako egitura proposatzen du:



Aditz abstraktu horrek "a non-instantaneous non-perceptual activity over which the subject has conscious control" adierazten omen du.¹³⁹

Hau dela eta, honela mintzo zaigu Hernanz: "Esta explicación resulta muy sugerente, ya que de algún modo contribuye a aclarar el complejo fenómeno de la transitividad, que recubre relaciones objeto-verbo sumamente diferentes, más o menos laxas según los casos: no cabe duda de que en (97) (gure (93)-an, hain zuzen), la FN la televisión mantiene una relación semántica con mirar bastante distinta que la que une a la novela con comenzar en (90a) ((90a) María comenzó la novela). El mayor "distanciamiento" que se observa en el segundo caso quedaría explicado a base de postular un verbo "intermedio" en la estructura profunda."¹⁴⁰

Egia da iragankortasuna oso fenomeno labainkorra dela eta ez dela erraz behar bezala aztertzea. Hala ere, duda egiten dut, ea benetan Newmeyer-en ikuspegi berri honekin gauzak konpon ditzakegun. Alde batetik, ikusi dugu nola problemak ditugun eus-


karaz delako parafrasi horretara iristeko: batzutan ez da posible. Bestalde, gaztaren eta hastearen artean dagokeen lotura ez dut uste telebista eta ikusi-ren artean dagoena baino askoz lasaiagoa denik. Horregatik, euskarari gagozkiola, ez zait iruditzen zeharo etsigarria Hernanz-ek dioskun hau: "En definitiva, pues, existen indicios para pensar que el doble carácter transitivo e intransitivo que Perlmutter asigna a verbos del tipo comenzar, etc. es un fenómeno de estructura superficial y que en un nivel de representación más abstracto este aparente doblote se resuelve siempre como una configuración intransitiva"¹⁴¹. Gainera, ez zaigu inon esplikatzen nola iristen den sakoneko egitura abstraktu horretatik axaleko egitura iragankor horretara. Askoz zuzenago dirudi pentsatzea HASI eta honen familiako aditzek, iragankorrek direnean, eduki semantiko berezia dutela, gutxi gora behera Newmeyer-en egitura sintaktiko abstraktu horren ordaina izango litzatekeena. Alegia, esplikazioa ez litzateke sintaktikoa izango, lexikoa baizik. Esan nahi baita, pelikula bat ikustea eta nobela bat hastea sintaxi mailan gauza bera izango lirateke. Diferentzia lexiko mailan izango genuke, HASI iragankorrek objektua era jakin batekoa izatea eskatzen baitu. Azken batean, hastearen eta ikustearen arteko diferentzia izango litzateke.

Bestalde, euskaraz, ARI egitura iragankor honetatik kanpo gelditzen zaigu, zergatik xuxen ez dakigularik. Gainera, AMAITU, /... -T(Z)EN/ erako konplementu baten ondoren nekez agertzen da, baina ez ARI eta HASI. Horregatik, behar bada, hobe genuke esatea HASI eta AMAITU, besteak beste, egitura iragankor batean ager daitezkeela, hots: honen antzeko tasunen bat eramango lukete hiztegian: $\left[+ \text{ IS } ___ \right]$. ARI, berriz, horren ordean, beste

honekin joango litzateke: $[- \text{IS } ___]$. Horrezaz gainera, bai ARI eta bai HASI honako tasun zehaztaper honekin agertuko lirateke hiztegian: $[+ \Delta \bar{P} ___]$. Baina AMAITU -zenbait euskaldunentzat behintzat- behar bada ez.

Baina egitura iragankor hauen parean baditugu oraindik beste batzu iragangaitzak, (91)-n jaso ditugunak bezalakoak. Hauetan ere Newmeyer-ek predikatu abstraktu bat aurkitzen du, predikatu existentzial bat. "Ello viene corroborado -dio Hernanz-¹⁴²ek- por la posibilidad por parte de verbos como los de (100) (empezar, acabar, cesar.), de construirse con los mismos complementos locativos y temporales que aceptan ocurrir, tener lugar, etc." Horrela, (98) bezalako perpaus batentzat (99)-ko egitura proposatuko du:

(98) Borroka bostetan hasi zen.



Eta dio Hernanz-ek: "La ventaja fundamental del análisis representado en (103) (gure (99)-an, alegia) reside en su coherencia semántica. Nótese, en efecto, que en enunciados como (100) (gure (98)-koen antzekoetan, alegia) sólo pueden aparecer en función de

sujeto superficial aquellas frases nominales compatibles con los verbos existenciales, esto es, frases nominales limitables en el espacio y en el tiempo ("eventive noun phrases" en la terminología de Newmeyer)".¹⁴³

Baina ez al da posible SALDU DA / SALDU DU bikotea begien aurrean daukagularik, antzeko zerbait pentsatzea HASI-rekin ere? Hortaz, ez al da zilegi HASI DA / HASI DU bikoteaz ari garelarik, bata bestetik erakarria dela pentsatzea? Jaialdia hasi da esaten dudanean, liburua saldu da esaten dudanean bezala, jaialdi hori norbaitek hasi duela edo jaialdi horri norbaitek eman diola hasiera ulertuko bagenu beti, behar bada (91)-ko perpausak nolabait (100)-ekoetatik erakarriak edo direla esan ahal izango genuke:

- (100) a. (Norbaitek) jaialdia bostetan hasiko du.
- b. (Norbaitek, guk, kasu honetan) gure lana gaueko hamaiketan hasten dugu.
- c. (Norbaitek) klasea hamabietan amaitu du.

Hain zuzen, honelako zerbait proposatzen du Jackendoff-ek ere eta dio iragankor nahiz iragangaitz modura erabil daitezkeen aditzen sailean trata daitezkeela, behar bada, Perlmutter-ek proposatzen zuen begin aditzak dituen bi formak ere.¹⁴⁴

Bikoiztasun hau posible da, nik uste, honako kasu honetan behintzat eta, gainera, oraingoan inolako dudarik gabe SALDU DA / SALDU DU bikotearen erako zerbaiten aurrean gaudela esango nuke:

- (101) a. Gazta aitonak hasi du.
- b. Berehala amaitu dugu sagardoa.

- (102) a. Gazta gaur goizean hasi da.
- b. Berehala amaitu da sagardoa.

Bi perpaus mota hauen artean egongo litzatekeen diferentzia sako-
neko sujetuari legokioke: batean ongi zehaztua dagoen bezala (aitona,
gu), bestean zeharo indefinitua da, inbertsonala baita.

Hala ere, ez nago ziur ea benetan hemengo HASI eta AMAITU
goragokoak berak diren. Esaterako, AMAITU honek AHITU edo AGORTU-
rekin edo antz handiago duela esango nuke klasea amaitu da esaten
dudanean erabiltzen dudana AMAITU horrekin baino.

Dena dela, pentsatzen badugu jafaldiak ez direla bere-
kasa hasten ez amaitzen, agian itxurazkoa litzateke egitura ira-
gankor horietatik erakarriak direla esatea egitura iragangaitzak.
Gainera Newmeyer-en predikatu existentzial direlako horien premia
ez dakit zenbatetarainokoa den, zeren bai baitirudi BEGIN, edo
gure kasuan HASI, bera nolabait predikatu existentzial omen diren
klasekoa dela. Izan ere, borrokak hasi egiten dira, amaitu egi-
ten dira (batzu behintzat), gertatu egiten dira, izan egiten dira
eta abar. Alegia gertaera guztiak, gertatuko badira, hasi egin
behar dute. Horregatik, agian ez dugu (99)-an bezala, predikatu
horien beharrik. Beraz, oraingoan ere aditz iragangaitz hauen
berezitasunak ez genituzke sintaxi mailan utziko, lexiko mailan
baizik. Hain zuzen, gorago aditz iragankorreiei buruz esan denak
hemen ere berdin berdin balio lezake, nik uste.

Planteamendu honek beste alde on bat ere badu, nere ustez.
Hain zuzen, ARI da aditz bakarra ez (90)-eko paradigmari ez (91)-koan
agertu ezin dena. Horrek esan nahi du erabilera bata eta bestea
(iragangaitza eta iragankorra, alegia) erlazionaturik daudela. Eta,
horrenbestez, aski dugula aditz hauek perpaus-konplementua eta
IS objektu bat (ez perpausa) hartzeko gai direla esatea. ARI, berriz,
lehenbiziko konplementua hartzeko gai izango litzateke, ez bestea.

4.5.- Laburtuz.-

Atal honetan HASI eta ARI hartu ditugu bereziki ahotan. Lehenbizi, lehen begiratuan berdina diren zenbait aditzetatik bereizten saiatu gara. Bestalde, bi aditz hauek ere ez dira beti testuinguru beretan agertzen. Esan dugu, adibidez, nola HASI beste edozein aditz iragankor bezala erabiltzen ahal dugun, baina inola ere ez, ARI, egurats fenomenoei dagokiñean ez bada. Baina hemen interesatzen zaigun egituraren aurrean, hots:
$$/... -T(Z)EN + \left\{ \begin{array}{l} \text{HASI} \\ \text{ARI} \end{array} \right\} /,$$
 biek berdin berdin jokatzen dute. Eta, hain zuzen, hauek izango lirateke nolabait "erdi laguntzaile" euskaraz. Duten ezaugarriarik nabarmenena axaleko egituraren edozein sujeturekin agertzea da. Eta, horregatik, ontzat eman dugu hauentzat IGOTZE transformazio bat. Transformazio honen bidez perpaus txertatuko sujetua perpaus nagusiko sujetuaren lekura igotzen da, hutsik aurkitzen baita beran sakonean. Perpaus txertatua orduan sujeturik gabe gelditzen zaigu eta aditz nagusiak eta aditz sintagma txertatuak nolabait aditz sintagma berri bat osatzen dute.

Beste aukera bat litzateke inongo igotzerik ez proposatzea, baina HASI eta ARI-ren axaleko sujetuak perpaus txertatuko sujetu gisa interpretatzeko bidea ematea. Arazoa batez ere lexiko mailan planteatuko litzateke horrela. Kontua da HASI eta ARI gainerako aditzetatik bereiztea.

Hizpidea eman diguten egitura hauetan gertatzen den beste arazoa datiboari dagokio. Egitura hauetan HASI eta ARI iragangaitzak direnez, datiboarekin ager daitezke: hasi zaio, ari zaizkigu, eta abar. Datibo hau perpaus txertatuko beste datibo baten erreferentzikidetzat ulertzen dugu. Datibo hau ere igo egin dela pentsatzea askotxo litzateke. Egokiago da, besterik gabe, axaleko sujetua perpaus txertatuko sujetuaren erreferentzikide modura ulertzen dugun bezala, datibo hau ere horrela interpretatzea. Problema da askotan

datibo hori perpaus txertatuaren beste datibo baten erreferentziazat eman beharrean, objektu zuzenaren, beraz perpaus txertatuan absolutuan joan behar lukeenaren, erreferentziazikide gisa interpretatzen dugula. Hau batez ere IS hori lehen edo bigarren pertsonako izenordain bat dugunean gertatzen da. Alde honetatik, hortaz, interpretazio bidea indartzen zaigula dirudi. Beti ere aditz txertuak duen argumentu egiturak markatzen digularik zein izango den interpretazio zuzena.

Dena dela, axalean berdintsu agertzen diren beste aditzen-tzat ez dugu IGOTZE transformaziorik proposatu, ~~EQUI~~ edo honen baliokideren bat baizik. Noski, hemen ere, interpretazio bidea zabalik dugu. Bide hau onartuz gero, hiztegian esan behar-ko zaigu HASI eta ARI besteak ez bezalako aditzak ditugula.

Honezaz gainera, zenbait aditz (HASI, AMAITU, BUKATU, adibidez), egitura iragankor batean ager daitezke. Dena dela, horrelakoetan, egitura sintaktiko abstraktu baten ordez egokiago iruditu zaigu arazoa lexiko mailan konpontzen saiatzea. Horrenbestez, aditz hauek era aporposean markatu beharko ditugu hiztegian.

Adibidez:

$$\underline{\text{ARI}}: + \left[\underset{\text{AS}}{\Delta} \left[\overset{\text{P}}{\text{---}} \right] \right]; - \left[\underset{\text{AS}}{\text{IS}} \text{---} \right]; \dots$$

$$\underline{\text{HASI}}: + \left[\underset{\text{AS}}{\Delta} \left[\overset{\text{P}}{\text{---}} \right] \right]; + \left[\underset{\text{AS}}{\text{IS}} \text{---} \right]; \dots$$

$$\underline{\text{AMAITU}}: - \left[\underset{\text{AS}}{\Delta} \left[\overset{\text{P}}{\text{---}} \right] \right]; + \left[\underset{\text{AS}}{\text{IS}} \text{---} \right]; \dots$$

Honezaz aparte, saldu da / saldu du erako kontrakotasuna transformazio bidez esplikatzen bada ez genuke inolako markatze lanik egin beharko hiztegian: HASI eta AMAITU iragankor modura markatuak daudenez, bestelako iragankorren legea segituko lukete horretan. Baina hasi da / hasi du saldu da / saldu du bezala erlazionatuak ez badaude, orduan jaialdia hasi da eta antzekoei bide emateko hiztegian markatu beharko ditugu aditz horiek:

$$\underline{\text{HASI}}: + \left[\text{IS} \left[\begin{array}{c} \text{---} \\ \text{AS} \end{array} \right] \right]$$

$$\underline{\text{AMAITU}}: + \left[\text{IS} \left[\begin{array}{c} \text{---} \\ \text{AS} \end{array} \right] \right]$$

5.- UTZI aditza.-

UTZI aditzak ere -T(Z)EN / -T(Z)ERA formako konplementua eskatzen du, baina jokabide berezi samarra duenez, eta adiera bat baino gehiago gordetzen duenez, merezi du arreta piska batekin begiratzea aditz honen inguruan sortzen diren arazoei.

5.1.- Datuak.-

Ikus ditzagun lehenbidzi datuak. Villasantek hiru esanahi ematen dizkio UTZI-ri: "dejar", "abandonar" eta "permitir".¹⁴⁵ Guri perpaus txertatua ametitzen duen UTZI aditza interesatzen zaigu batez ere.

Lehenbizi, bada euskalkien artean diferentzia nabarmena: ekialdean -T(Z)ERA-z baliatzen dira, mendebaldean inesiboko forma erabiltzen dugun bitartean: -T(Z)EN alegia:

- (1) a. "Ez du eskutik erortzen utziko".¹⁴⁶
 b. "Ez zion beñ ere etxetik ateratzen uzten".¹⁴⁷
 c. "Pernandok ez zien utzi ezer esaten".¹⁴⁸
- (2) a. "Ez zion ohitura txarrik hartzera utziko".¹⁴⁹
 b. "Prepara zite aizinetik, bilhoa urdintzera, eta xuritzera utzi gabe".¹⁵⁰

Baina honek ez gaitu gehiegi kezkatu behar, oso hedatua baita bikoiztasun hori, UTZI-ren konplementuetatik aparte ere.

Bestalde, zalantzan bezala ibili ohi gara datiboaren eta absolutuaren artean:

- (3) a. Ez dizut utziko sartzen.
 b. Ez zaitut utziko sartzen.

Etxeparek ere, "Horrelaño vanitatez nyri uztaçu" idazten duelarik,

honela erasten dio Patxi Altunak: "batere bereizkuntzarik gabe
dio poetak niri utzi eta ni utzi; ez da, beraz, atzo arratseko
kontua".¹⁵¹ Dena den, hemen ere badirudi euskalkien arteko diferen-
tzia badela, nahiz eta datibodunak eta absolutudunak, biak, eus-
kalki guztietan agertu. Baina ikus dezagun nola erabiltzen duten
aditz hau euskal autoreek:

- (4) a. "hek (...) utzten bazituen bere plazerera eta
aisiara bizitzera..."¹⁵²
b. "neure obligazio handiek (...) ezterautate utzten
(...) ausartziaren hartzera..."¹⁵³
c. "Utzkizue hazi biak, ona eta gaixtoa, haztera..."¹⁵⁴
d. "Utzten baduzu (...) orai eskuen artean duzun
denbora iragaitera..."¹⁵⁵
e. "Neure burua erratzera utz badezat ere..."¹⁵⁶
f. "Utzkitzu (...) aphur bat hotztera, unhatzera,
eta elkharren biphiltzera..."¹⁵⁷

Perpaus hauetan, perpaus nagusian UTZI-ri bereziki lotua
agertzen den izen sintagma, absolutuan ageri da, (4b)-n izan ezik.

Agirre Asteasukoak honako hau dakar:

- (5) "Uzten citzaten Mezatan egoten sermoya bucatu artean..."¹⁵⁸

Etxeparek eskaintzen dizkigun adibide hauek ere interes-
garriak dira:

- (6) a. "Vztaçu hurrancera amore mayte..."¹⁵⁹
b. "Finian ere eztic vzten harc galcera veria..."¹⁶⁰

5.2.- Datiboaren eta absolutuaren erabileraz.-

Baina esaldi mordo honen aurrean honako galdera hau dator-
kio bati berehala burura: ba ote da inolako legerik datiboa noiz

edo absolutua noiz, jakiteko? Biak nahaste erabil ote daitezke?

Har ditzagun lehenbizi Axularren adibideak. Hauetan, (4b)-n izan ezik, ez da inondik ere datiborik agertzen. Horrekin batera ohartzen gara UTZI-ren mende doan perpaus txertatuko aditza, (4b)-n izan ezik, hain zuzen, iragangaiztzat har daitekeela: bizitzera, haztera, iragaitera, erratzera. Nahiz eta (4f)-n hotz-tera, unhatzera aditz iragangaitzen ondotik elkarren biphiltzera etorri. Azken hau bistan da iragankorra dela, elkarren genitibo horrek salatzen duen bezala. Hala ere, honen aurretik beste bi iragangaitz ageri direnez, pentsa liteke lehenengo biak hartzen direla kontutan. Hortaz, lehen begiratu batean, pentsa liteke aditz erazleek jarraitzen duten bide bera jarraitzen duela kasu hauetan UTZI aditzak. Aditz erazleen erakarbideari dagozkion arazoak albora utzita ere, jakina da aditz erazleen menpean dagoen perpausean bi argumentu agertzen badira (sujetua eta objektu zuzena, adibidez) sujetu denari datiboa dagokiola axaleko egituran.¹⁶¹ Honetarako eman ohi den arrazoiak da ezin direla kasu berean bi IS agertu perpaus bakunean.¹⁶² Dena den, (4b) perpausean problema hau ez genuke izango, zeren perpaus txertatuko objektua genitibatua agertzen baita,¹⁶³ eta, beraz, ez lirateke bi IS absolutuan gertatuko, bat genitiboan baitago. Problema hori TO-GEN delakoa ezagutzen ez duten euskalkietan gertatuko litzateke. Kontua da bai (4b) perpausean eta baita (6a)-n datiboa ageri dela. Eta datiboa agertze hori zail samarra da esplikatzen (6a) perpausean mendeko aditza iragangaitza baita. Beraz, ez luke zentzurik izango kasu honetan, UTZI-k ERAZI-ren jokabide bera duelako kontu horrek. Hortaz, UTZI-rekin ager daitekeen datibo hori aditz horren "erazletasunari" dagokio ala beste nonbait bilatu behar da esplikazioa?

Konpara ditzagun lehenbizi zenbait perpaus ERAZI eta UTZI daramatenak, ea konparazio horretatik ondorio argirik atera deza-

kegun. Menpeko aditza nolakoa den, alegia, zenbat argumentu dituen, garrantzi handiko kontua dugu. Ikus dezagun ondoko koadroa:

		<u>ERAZI/ERAGIN</u>		<u>UTZI</u>	
-IRAGANKORRA		Peruk <u>zu</u> [- <u>etorri</u> <u>joan</u> <u>ibili</u> <u>erori</u>]	<u>erazi zaitu</u>	Peruk <u>zuri</u> [- <u>etortzen</u> <u>joaten</u> <u>ibiltzen</u>]	<u>utzi dizu</u>
		Peruk <u>zuri</u> [- <u>etorri</u> <u>joan</u> <u>ibili</u> <u>erori</u>]	<u>eragin dizu</u>	Peruk <u>zu</u> [- <u>erortzen</u>]	<u>utzi zaitu</u>
		Peruk <u>zu</u> [- <u>aitari</u>]	<u>mintza erazi ?</u>	Peruk <u>zuri</u> [- <u>aitari mintzatzen</u>]	<u>utzi dizu.</u>
IRAGANKORRA		Peruk <u>zuri</u> [- <u>zopa jan erazi</u> <u>etxea saldu era</u> <u>gin</u>]	<u>dizu</u>	Peruk <u>zuri</u> [- <u>zopa jaten</u> <u>etxea sal-</u> <u>tzen</u>]	<u>utzi dizu</u>
		*Peruk <u>zuri</u> [- <u>ni eraman</u> <u>gu gorrota</u>]	<u>erazi ?</u>	Peruk <u>zuri</u> [- <u>ni eramaten</u> <u>gu gorrotatzen</u>]	<u>utzi di</u> <u>/zu.</u>
		*Peruk <u>zuri</u> [- <u>aitari gezu</u> <u>rra esan</u>]	<u>erazi ?</u>	Peruk <u>zuri</u> [- <u>aitari gezu</u> <u>rra esaten</u>]	<u>utzi dizu</u>

ERAZI-ren kasuan Comrie-k aipatzen dituen mugapenak gertatzen dira euskaraz ere. Adibidez, ez da posible bi sujetu agertzea ez eta bi objektu edo zehar objektu agertzea ere. Zenbaitetan debeku morfologikoak ditugu. Izan ere, eraman erazi aditz bakartzat hartu beharko litzateke, horrela funtzionatzen duela baitirudi. Horrela bada, aditz horrek hark-zuri-ni sintagmekin behar luke komunztatu, baina badakigu praktikan hori ezina dela,¹⁶⁴ *Peruk zuri ni eraman erazi naukizu edo antzeko forma arraro bat beharko baikenuke.

Beste kasu batzutan, berriz, bi datibo aurkituko genituzke eta hau ere, beste hizkuntza askotan bezala,¹⁶⁵ ezina da. Baina debeku hauek denak ongi esplikatua gelditzen dira etorrerazi, erose-razi, mintzaerazi e.a. -hots:/aditza + ERAZI/ formako aditz erazleak- aditz bakartzat hartzen badira hiztegian. Etorrerazi, ETORRI-ri ERAZI erakarbide atzizkia erantsiz lortutako aditza litzateke ikuspegi honen arabera. Erreduantzi erregelen bidez aditzera eman daiteke ETORRI $\longleftrightarrow$ ETORRERAZI arteko erlazioa, erlazio morfologikoa, sintaktikoa eta semantikoa.¹⁶⁶

Baina sintaxi aldetik badirudi ERAGIN-ek eta ERAZI-k ez dutela berdina lan egiten. Hau, ERAZI-ren ordez erabiltzen badute ere zenbait euskaldunek,¹⁶⁷ honekin askoz erabiliagoa da datiboa. Baina horrek ere izango luke esplikazioa, EGIN-en erazlea dela onartuz gero: EGIN-i sujetua eta objektua dagozkionez gero, sujetu hori beti ERAGIN-en zehar objektu gisa agertuko da. Eta horrela esplikatuko litzateke ERAGIN-ekin agertzen den datibo hori. Beraz, ERAGIN-ek aditz lokabe bezala funtzionatuko luke.¹⁶⁸

5.3.- UTZI-ren bi adiera.-

Goragoko koadroari begiratzen badiogu, UTZI-rekin ez dugu inolako problemarik. Adibidez, bi datibo ager daitezke eta

ez da ezer pasatzen. Hortaz, ez dirudi oso bidezko ERAZI eta UTZI biak zaku berean sartzea. Baina diferentzia guztiak ERAZI atzizkitzat hartuz eta UTZI aditz lokabetzat hartuz konponduak gelditzen ote dira?

Etxepareren adibideek esplikazioren bat eskatzen dute, nahasmenduaren ondorio soil direla onartu nahi ez badugu behintzat. Nolatan agertzen da batean datiboa eta bestean absolutua? Hona hemen berriro adibide horiek:

(6) a. Vztaçu hurrancera amore mayte.


b. Finian ere eztic vzten harc galcera veria.

Bietan aditza iragangaitza dugu: HURRANDU eta GALDU. Geuk ere, koadroan honako bi esaldi hauek ezarri ditugu:

(7) a. Peruk etortzen utzi dizu.

b. Peruk erortzen utzi zaitu.

Errazenetik has gaitezke, datibodun formetatik hain zuzen. Axularren (ikus (4b)) eta Etxepareren datibodun formek ez dute zalantza izpirik uzten interpretazioaren aldetik: bietan 'baimena eman' edo antzeko zerbait esan nahi dela dirudi. Beraz, DEBEKATU-ren sailekoa izango litzateke kasu horietan UTZI aditza. Bien arteko diferentzia bakarra perpaus txertatuak hartzen duen kasu marka desberdinean egongo litzateke: batean absolutuan agertzen baita eta bestean inesiboan. Hala ere, ERAGOTZI eta DEBEKATU aditzen mende doan perpaus txertatua batez ere ekialdeko euskalkietan badi-rudi ez dagoela absolutuan erabili beharrik. Perpaus horien sako-neko egitura, funtsean honelatsu izango litzateke, hortaz:



Eta honela interpreta daitezke bai perpaus txertatuak aditz iragankorra duenean bai iragangaitza duenean ere.

Hortaz, nere euskalkian behintzat, UTZI-k, ERAZI-k ez bezala jokutzen duela esan genezake kasu hauetan. Hots: UTZI (= 'permititu') aditzak beti datiboa eskatuko luke, jaramonik egin gabe aditz txertatuaren iragankor- edo iragangaiztasunari:

(9) a. Zuk niri ez didazu utzi geldirik egoten.

[−Trans.]

b. Zuk aitonari ez diozu zigarroa erretzen utzi.

[+Trans.]

Dena den, D'Introno-k, gaztelaniaz diharduela, aditzera ematen dituen baino argiago daudela esango nuke gauzak. Zeren hizkuntzalari honen ustez, adibidez, Luis dejó comer la sopa a Juan¹⁶⁹ eta Pedro dejó a Juan recoger sus libros¹⁷⁰ perpausak sakoneko egitura desberdinetatik erakarriak izango lirateke. Gure ustez, euskarari gagozkiola, datiboa agertuz gero, interpretazio normalena 'baimena eman' denez, perpaus horiek funtsean (8)-ko egitura izango lukete.

Egitura hori nere euskalkiari dagokiona litzateke. Beste euskalkietan, datiboaren ordezt absolutua ager daiteke, nahiz eta UTZI-k 'permititu' zentzua gorde. Hori, hortaz, euskalki diferentzia litzateke. Horietan (8) egituraren ordezt beste bat izango genuke, baina funtsean berdina, zeren AS-ren azpian legokeen IS, datiboa izan beharrean absolutua izango litzateke. Aukera bat izango litzateke, beste asko bezala. Eta honek ez du harrigarritik ezer, zeren DEBEKATU-rekin ere posible baita gauza bera gertatzea.

Hona hemen, erakusgarri modura, Ebangelioko pasarte beraren zenbait itzulpen desberdin:

(10) "Utz'itzue aurrac nere gana 'tortzera"
dakar Bruno Echenique-k.¹⁷¹

(11) "Utzi aurtxoak ta ez iezute Niregana etoftzen eragotzi" itzultzen du Olabidek. Euskal Herriko Elizbarrutietako Gotzaiek berriz, honela ematen dute testu hori:

(12) "Utzi haurrei, ez galerazi Niregana etortzen".

Esan beharrik ez, nire hizkuntza gaitasunarekin ados datorena (12) izango litzateke.

Baina (7b)-n bezala, nire euskalkian ere posible da UTZI datiboarekin gabe, absolutuarekin agerrereztea. Alde honetatik, Axularren (4c-f) perpausak neuk ere datiborik gabe eman nitzake:

(13) c. Utzi itzazu hazi biak, ona eta gaiztoa, hazten.¹⁷²

d. Uzten baduzu denbora igarotzen...

e. Neure burua erretzen utzi badezat.

f. Utzi itzazu hozten eta unhatzen.

Hala ere, (4a)-ren ordaina datiboarekin emango nuke nik neuk:

(13) a. (Haiei) uzten bazien bere plazerera eta aisiara bizitzen.

Eta honek esplikazio argia du, nik uste. Esaten badugu datibodunak

'permititu' edo 'baimena eman' esan nahi duela eta, horrenbestez, DEBEKATU, ERAGOTZI edo GALERAZI-k (8) egitura eskatzen dutela, (13)-koek, (a)-koak izan ezik, ez dute zentzu hori. Izan ere, baimena eman edo debekatu aditzen mende doan perpausean borondatea duen agente bat behar dugu. Adibidez, landare bat, edo pertsona bat hazi, edo hil edo nahi dena, egiten da, baina ez bere borondatez, normalki behintzat. Horregatik, ez du zentzurik bati haztea edo hiltzea edo erortzea debekatzea. Eta, arrazoi beragatik, ez eta ere horretarako baimena ematea, hori egiten uztea.

Hona hemen beste adibide bat argiagoa oraindik. Badakigu bat ez dela bere borondatez hiltzen. Gehienez ere, borondatez, batek bere burua hil dezake, baina bat berez hiltzen denean ez da nahi duelako hiltzen. Hala ere, batek nahi izan dezake modu batera edo bestera hiltzea. Adibidez, bedératzigarren sinfonia entzunez. Bigarren kasu honetan zentzua du bati nahi bezala hiltzen uztea^k. Horrela esplikatuko genuke honako bi perpaus hauen arteko diferentzia:

- (14) Aita zaharra bakardadean eta mixerian hiltzen utzi zuten.


Hemen, noski, aita zaharraren borondateak ez du inolako zereginik. Beraz, UTZI-k ez du 'permititu' zentzua hemen. Baina ondoko perpausean bai, UTZI-k 'permititu' esan nahi du, eta horregatik agertzen da datiboa:

- (15) Aita zaharrari nahi zuen bezala, bederatzigarrena entzunez, hiltzen utzi zioten.¹⁷³

(14) eta (15) arteko bereizketa zuzena bada, esan nahi du perpaus txertatuko aditzaren iragankortasunak ez duela zerikusirik UTZI-k datiboa edo absolutua hartzearekin. ERAZI-ren kasuan, berriz, bai.

Hortaz, badirudi bi mutur berez daitezkeela nahikoa garbi: batean UTZI-k 'baimena eman' edo antzeko zerbait esan nahi du. Kasu hauetan neure hizkuntz gaitasunak datiboa ezartzera bultzatzen nau. Hala ere, hau euskalki kontua izan daiteke. Beste muturrean, berriz, erazle kutsua du UTZI-k, ura irakiten utzi dut edo harria erortzen utzi dut esaten dudanean bezala. Hemen ez da datiborik ageri eta, badirudi, perpaus xertatuaren sujetua ez dela borondatea duen agente bat.¹⁷⁴

Baina, gauzak horrela, zenbat aditzen aurrean gaude, aditz bakarraren ala biren aurrean? Badirudi, orain arte esanaren arabera, bi aditzen aurrean gaudela. Hernanz-ek,¹⁷⁵ hala ere, aditz bakarra dugula dio eta egitura bakarra gainera. Ematen dituen arrazoiek, ordea, ez dut uste pisu handiegirik dutenik eta, gainera, ez dute behar bezala esplikatzen datiboaren agerpena. Hizkuntzalari honentzat gaztelaniazko dejar bere mendeko perpausaren sujetua goiko perpauseko objektuaren lekura igotzea eskatzen duten horietakoa omen litzateke, hautemate aditzak bezala. D'Introno-k aditz erazleentzat proposatzen duen egitura ere horrelakoa da.¹⁷⁶ Baina objektuaren igotzearen kontua nahikoa badaezpadakoa denez, gure ustez bigarren UTZI honentzat hautemate aditzentzat proposatu dugun egitura bera proposatzea da egokiena. Horrela, (16) izango litzateke (6b), (7b), (13c, d, e, eta f) eta (14) bezalako perpausentzat proposatuko nukeen egitura:



Hortaz, UTZI bi era desberdinez subkategorizatua legoke: batean absolutua eta perpaus txertatua onartzen dituelarik eta, bestean, datiboa eta perpaus txertatua. Baina bigarren kasu honetan, DEBEKATU edo ERAGOTZI-renean bezala, perpaus txertatuko sujetuak borondate-dun egile modura interpretatzeko modukoa izan behar du. Lehen kasuan, berriz, hautemate aditzena berena litza-teke egitura.

Bi aditzen aurrean gaudela, edo aditz bakarra bada ere, bi erabilera eta jokabide sintaktiko desberdinen aurrean gaudela ikusteko bada oraindik beste datu bat ere. Egia da UTZI-k adiera ugari izkutatzen dituela beregan, baina bi izango lirateke nagusi. Eta bi erabilera hauek nabari dira perpaus txertaturik ez dugu-nean ere. (17a eta b) perpausetan nahikoa antzekoa dela dirudi UTZI-ren esanahia. Eta gauza bera gertatzen da (18a eta b) per-pausetan ere:

(17) a. Andonik liburua mahai gainean utzi du.

b. Andonik liburua erortzen utzi du.

(18) a. Andonik autoa utziko digu bihar.

b. Andonik autoa eramaten utziko digu bihar.

Garbi dago (17)-ko eta (18)-ko UTZI-ak ez direla gauza bera. Hor-taz, nahikoa bidezkoa dirudi egin dugun bereizketa.

Beste kontu bat da, behar bada zenbait euskaldunek (16) eta (8) egiturak ez bereiztea. Alegia, zenbaitek beti datiboa erabiltzeko joera duela esango nuke. Baina, azken batean, horixe gertatzen zaigu zenbaitetan hautemate aditzekin ere, zeren (19)-ren parean, (20)-ren tankerako esaldiak ere entzun bai baitaitezke:¹⁷⁷

(19) Andoni entzun dut pianoa jotzen.

(20) Andoniri ez diot inoiz pianoa jotzen entzun.

Alde honetatik, hortaz, egitura bakarra izango genuke. Egia da,

bestela ere, ez dagoela halako diferentzia handirik bi egituren artean.

5.4.- Zenbait iruzkin.-

Aurreko orrialdeetan aurkeztu dugun panorama neure hizkuntz gaitasunari dagokiona izan da batez ere, autore zaharrei begiradaren bat eman badiegu ere. Baina ez da oso zuhurra izan behar, gauzak ez direla beti horrela gertatzen ikusteko. Gauzak nahi eta komeni baino nahasiago daudela esango nuke arlo honetan. Eta nahasmendu honetan ez nituzke komentatu gabe utzi nahi zenbait jendek nere galderari erantzun nahiz sortu dituen esakuntzak. Adibidez, "Deja que el agua moje bien la tierra" bezalako perpausa itzuli erazi diodanean zenbaiti, honelako erantzunak jaso ahal izan ditut.

- (21) a. Utzi ezazu urak lurra ongi bustitzen.
- b. Utzi ezazu ura lurra ongi bustitzen.
- c. Utzi iezaiozu urari lurra ongi bustitzen.
- d. Utzi ezazu urak lurra ongi bustitzea.

Subjuntibozko erantzunak ere jaso ditugu, baina aditz mugagabeko perpausak interesatzen zaizkigu batez ere.

Eta zer esan goiko perpaus horiei buruz? (21a eta d) niri zeharo bitxiak egiten zaizkit. Azkena, behar bada, salba liteke beste ondoko perpaus honekin duen parekotasunagatik, baina nahikoa bitxia da, dena dela:

- (22) Debekatu egin dute hurrek ardoa edatea.

Baina inolaz ere esplika ezin daitekeena (21a) dugu. -T(Z)EN formako konpletiboak derrigorrezko kontrola eskatzen badu (ikus VI atala) ezin da onartu (21a) bezalakorik. Gainera, (21a) onartzen bada, nolatan (23) ez-gramatikala da baina (24) gramatikala?:

(23) *Utzi ezazu urak irakiten.

(24) Utzi ezazu ura irakiten.

IRAKIN-ek bere sujetua ergatiboan agertzea eskatzen duelarik, (24)-ean absolutua agertzen bada, (21a) perpaus okerraren ordeztzat (21b) edo beharko genuke.

Dena dela, gorago esan dugun bezala, datiboaren agertu beharra gero eta handiago somatzen dut nik neuk, zeren ez dut uste belarrietako minik egiten didanik (24) perpausaren ordeztzat eman genezakeen (25) perpaus honek:

(25) Utzi iezaiozu urari irakiten.

Bestalde, ura irakiten utzi aipatu dugunez gero, esan beharko da perpaus hau anbiguo dela guretzat, baina ez iparraldeko euskaldunentzat, hauek ongi bereizten baitituzte honako bi perpaus hauek:

(26) a. Ura irakiten utzi dut.

b. Ura irakitera utzi dut.

(26a) perpausak NOLA utzi duzu ura? galderari erantzungo lioke.

(26b)-k, berriz, ura irakin arte euki dut surtan edo, bidez parafraseatuko genuke. Guk, ordea, biak forma berean emango ditugu. Dena dela, iparraldekoen jokabideak badu zentzurik: inesiboa erabiltzen dutelarik, egoerazko edo estatiboa den zerbaitez ari direla ematen dute aditzera: ura basoan utzi esango bagenu bezala. Baina adlatiboa erabiltzen dutelarik -eta honek gure -T(Z)EN-en ordeztzat -T(Z)ERA erabiltzen duten guztietarako balioko luke- nola baiteko mugida edo adieraziko lukete.

OHARRAK (IV atala)

1. Ik. Lafitte 1944, 456-459 parr.
2. Frantsesez hautemate aditz hauekin hiru egitura desberdin omen ditugu:
 - (a) Je vois qu'il vient.
 - (b) Je le vois qui vient.
 - (c) Je le vois venir.
 Ikus Schwarze 1974, 22 orr.
3. "Rapport de simultanéité" dio Schwarze-k (ikus 22 orr.). Fenomeno hau berau seinalatzen du bere argumentazioaren barruan Mantecak ere. Ikus Manteca 1981, 141 orr.
4. Hau erlatibozkoekin ere gertatzen da. Frantsesez, adibidez, Je le vois qui vient perpausaren antzekoekin ere gertatzen da.
5. Ikus, besteak beste, Bowers 1981, 114 eta hurr. orr.
6. Ik. M. Gross 1975, 71 eta hurr.
7. Ik. Demonte 1977, 147 orr.
8. Ik. Schwarze 1974, 28 orr.
9. Ik. Demonte 1977, 148 orr. Ik. baita Postal 1974, 7, 11. oharra. Nik neuk ez nuke hain ziur esango "lo of" ezin erantzun daitekeenik. Baina orduan, jakina, entzuten dena ez litzateke izango neskaren piano-jotzea, norbaitek egindako baieztapena baizik. Hori horrela izanez gero, ENTZUN aditzak bi balio izan ditzake, komunikazio aditzen artean sar daitekeelarik. Arazo bat daukagu, hala ere: que + O edo, euskaraz, P + ela, erabiltzen dugunean sumaketa aditz hauekin, zer esan nahi dugu? Alegia, bi balioak izan ditzakeela? Badirudi baietz. Hortaz, batzutan, batez ere perpaus nagusiko ekintza eta menpekoea aldi berekoak direla onar daitekeenean, agian egitura anbiguo baten aurrean egongo gara. Zeren, batzutan agian honako bi perpausak baliokidetzat eman daitezke:
 - (a) Kantatzen ari zinela ikusi nuen.
 - (b) Kantatzen ikusi zintudan.
 Bi perpausak behar bada baliokidetzat eman daitezke, baina lehenbizikoak badu bigarrenak izan ez dezakeen zentzu bat ere. Alegia, Schwarze-k aipatzen zuen "konklusio" hura ateratzen dela esan nahi izan dezake (a) horretako IKUSI-k
10. Ik. Manteca 1981, 137 orr.

11. Ik. Demonte 1977, 148 orr.
12. Ik. Demonte 1977, 187 orr.
13. Mantecak, dena den, ez du onartzen Monteren ikuspegia. Monteren ustez, honako perpausok transformazio bidez erlazionatuak daude, 'formación del objeto' delako erregelaren bidez:
 - (a) Vi que llegaba un coche $\Rightarrow$ Vi llegar un coche.
 - (b) Oigo que suenan las campanas $\Rightarrow$ Oigo sonar las campanas.
 - (c) Vimos que ardía el bosque $\Rightarrow$ Vimos arder el bosque.
 Aditz denbor. funa duen perpausetik abiatuta, sujetua, hautemate aditz hauen objektu izatera iritsiko litzateke. Baina, "postular esta regla -cio Mantecak (ik. Manteca 1981, 141 orr.)- (...) que sólo parece válida en el caso de los causativos (D'Introno 1979), implica aumentar el poder formal de las reglas de la gramática, puesto que dicha regla "crea más estructura de la necesaria".
 Gainera, badakigu badirela erlazio bera duten perpausak baina sinonimoak ez direnak:
 Oi que llegaba Pedro el martes $\neq$ Oi llegar a Pedro el martes.
 Dena den, igotze transformazio honek oso status zalantzazkoa du, Chomsky-ren ustez (Ik. Chomsky 1971, 135, 31.oharra). Ikus baita Chomsky 1981, 38 orr.
14. Gainera, Schwarze-k inolako eztabaidarik gabe IS-tzat hartzen ditu perpaus hauek, honako egitura hau proposatuz: $\begin{bmatrix} N & S \end{bmatrix}$. Ikus NP
 Schwarze 1974.
15. Ik. Schwarze 1974, 26 orr.
16. Eta hemen ez dugu kontutan hartuko Mantecak eta beste zenbaitek egiten duten proposamena. Honela dio Mantecak: "Bello indicó con gran clarividencia que estos verbos formaban una frase verbal, esto es, que eran un solo verbo. En términos nuestros tienen la siguiente estructura: $\begin{bmatrix} V & V \end{bmatrix}$. Esto es, constituyen un complejo verbal único. La prueba de que constituyen un complejo verbal es que, (...) pronominalizan con la forma de objeto no el infinitivo, sino la FV que sigue. En segundo lugar, se transforma en pasiva todo el complejo verbal". (ik. Manteca 1981, 138 orr.)
17. Ikus, hala ere, Postal 1974, 357 orr.
18. Ikus lan honetako 193 eta hurr.
19. Ik. Luján 1980, 159-168 orr.
20. Hemen ez gara arduratuko osagaien ordenaz ez eta ere perpausaren egitura orokorrak. Jakina denez, hau ere eztabaidagarria baita.

21. Dena dela, hipotesi bezala zilegi iruditzen zait. Hain zuzen, honen antzeko zerbait proposatzen zuen Real Academia Española-k ere, Sauer-ek dioskunez: "Further, the Real Academia grammar goes on to identify (30) and (31) with conjoined coordinate sentences, as in (32):

(30) Oigo sonar las campanas.


(31) Oigo las campanas, que suenan.

(32) Oigo las campanas, y las campanas suenan.

"This proposal, inasmuch as it characterizes as identical at a deeper level constructions which are superficially quite distinct, has much intuitive appeal. It can be incorporated rather nicely into a generative grammar of Spanish by considering the underlying structures to be most closely related to the sentences of (32), i.e., the conjunction of two coordinate propositions. Rules for the formation of all nonrestrictive relatives from conjoined Ss give (31) while other rules derive (30) by deletion of que and conversion of the complement verb into an infinitive". Ik. Sauer 1972, 15 orr.

Guk geuk ez dugu hain urruti eramango gure proposamena.

22. Hala ere, ikus aurrerago UTZI-k aurkezten dizkigun arazo bereziak.
23. Ik. Lasnik & Fiengo 1974, 563-564 orr.
24. Egitura desberdina ere proposa liteke. Adibidez, (1) perpausari (4) egitura gabe beste hau ere eskain dakioke:
(4')



Baina hau zilegi bada, pentsa genezake ERRAZ-ek hemen beste zentzu bat duela (Ik. Lasnik & Fiengo 1974, 560 orr. eta hurr.). Hauek ere, Berman eta Szamosi 1972-ren lana kritikatzuz, diote bi zentzuak nahastea ez dela zilegi eta, Tough Movement dela-koari buruzko eztabaidari dagokion bakarra zentzu horietako bat dela eta, hain zuzen, zentzu hori duen adjetiboarekin ez dela posible goiko egitura. Eta arrazoia da "Predicates such as be easy or be hard, in the relevant sense, cannot describe a proposition or a state of affairs. It is only an action or change of state that they can modify" (563 orr.). Baina, hortaz, sujetu den perpausarentzat gordetzen badugu (4'), beste guztietan

- (4) izango genuke, -TZEA / -TZEN aukeran uzten dugularik.
25. Ik. Txillardegi 1980, 50-51 orr. Arejitak ere baliokidetzat ematen ditu. Ik. Arejita 1978, 97 orr.
26. Dena dela, ez dirudi Txillardegi zeharo zuzen dabilenik bere ustekizunetan, zeren adibidez Añibarrok edo Agirre Asteasukoak, dirudienez, ez dute gehiegi maite -T(Z)EN bidezko itzulia. Axularrek, berriz, bai.
27. Pr. Bartol. 36 orr.
28. Pr. Bartol. 68 orr.
29. Pr. Bartol. 156 orr.
30. Peru Abarka, 113 orr.
31. (7) perpausa izango litzateke agian zalantzarriena, baina testuinguruak ceruba ez dela sujetu adierazten digu, objektu baizik.
32. Ikus VI atala.
33. Ik. Lafitte 1944, 216 orr.
34. Behar bada, hemen bi ERRAZ ditugu. Ikus aurrerago.
35. Axular, 311.
36. Axular, 325.
37. Axular, 240.
38. Ik. Txillardegi 1980, 50 orr.
39. Axular, 347.
40. Axular, 263.
41. Ik. Chomsky 1964, 64-67 orr. Baita Lasnik & Fiengo 1974, Brame 1975 eta Chomsky 1981, 308-314 orr.
42. Ik. Rosenbaum 1967, 107 orr.
43. Ik. Goenaga 1982.
44. Jackendoff 1972 ere mugidaren aldeko ageri da: "since complement objects, as far as I know, have no particularly privileged semantic status, it would be preferable to avoid this extension of the power of networks of coreference by adopting the movement rule version of Tough movement (...) Hence Tough movement can be stated as a topicalization-like movement rule, eliminating the need for an extension of networks of coreference on its account" (Jackendoff 1972, 226-227 orr.)
45. Ikus Lasnik & Fiengo 1974, 540-548 orr.
46. Ikus Lasnik & Fiengo 1974, 548 orr.
47. Ikus Lasnik & Fiengo 1974, 550 orr.
48. Ikus Lasnik & Fiengo 1974, 558 orr. Hain zuzen, adjetibo hauen

konplementuak Perpaus gabe Aditz Sintagma direlakoaren alde Bresnan 1971 agertu zen eta Berman eta Szamosi 1972-k kontra egin. Baina hauen kontra nahikoa argumentu sakonak ematen dituzte Lasnik eta Fiengok, eta baita Brame 1975-ek ere.

49. Edo kontrol adiztatzat hartu ditugunekin. Ikus VI atala.
50. Kasu horretan perpausa zeharo laua izango litzateke, De Rijk 1978-k proposatzen digunaren tankerakoa, hain zuzen.
51. Ikus Chomskyk berak zer dioen eta nolako irtenbidea proposatzen duen. Ik. Chomsky 1981, 308-314 orr. Hark easy to please eta antzekoak adjetibo konplexu gisa birranalizatzea proposatzen du: "An approach to this complex of problems that might be explored is one based on the assumption that the adjective complement phrase in (1) ((1) John is easy to please) is subject to reanalysis, with easy-to-please (etc.) taken as a complex adjective" (312 or.)
52. "In earlier work, these constructions were analysed as involving base-generation of the matrix subject (as in Lasnik & Fiengo 1974), an analysis adopted in Chomsky (1977b). Under the approach we are now considering, each of these ideas is regarded as correct in a particular sense, and the paradox of θ -theory is resolved" dio (ik. Chomsky 1981, 312-313 orr.).
53. Ik. Lafitte 1944, 457 parr.
54. Lafittek multzo honetan sartzen ditu USATU eta OHITU ere. Ni neu ez nago hain ziur horiek besteekin batera joan behar ote duten. Besterik ez bada ere, bada detaile txiki bat bi aditz hauek besteengandik bereizten dituen: azken bi aditz hauekin -T(Z)EN eta -T(Z)ERA biak dira zilegi. Hortaz, AUSARTU eta antzekoekin batera hobeto joango lirateke, nik uste. Bestalde, aditz hauek ez dute ametitzen -(E)LA-dun konpletiborik, egiazki "ezagutza" aditz direnek ametitzen duten bezala.
55. Ik. Bresnan 1972, 60-91 orr.
56. Ikus, hala ere, 286 eta hurr. lan honetan bertan.
57. Ik. Hernanz 1982, 134-135 orr.
58. Ik. Sauer 1972, 228-33 orr.
59. Holandesez, adibidez, De Rijk-ek aditzera ematen didanez, ez dira bi esan. Perpaus txertatuan aditz laguntzaile berezi bat sartuz osatzen dituzte itzuli hauek:
 - (a) Ik heb hem gezegd dat hy weggegaan is.
 - (b) Ik heb hem gezegd dat hy moet weggaan.Esan diot joan dela eta esan diot joan behar duela esango bagenu bezala.

60. Ik. Sauer 1972, 230 orr.
61. Ik. Sauer 1972, 231 orr.
62. Ik. Sauer 1972, 238 orr.
63. Ik. Sauer 1972, 240 orr.
64. Ik. Sauer 1972, 241 orr.
65. Ik. Sauer 1972, 242-243 orr.
66. Ik. Sauer 1972, 242 orr. Gross-ek ere bata bestetik erakarri nahi du. Ik. Gross 1975, 141 orr.
67. Adibide hauek De Rijk irakasleari zor dizkiot.
68. Gross-ek, egia da, ustezko transformazio hori oso mugatua dela aitortzen du.
69. Ik. De Rijk 1978;
70. "En fait, une vérification effectuée dans nos tables indique que savoir est le seul verbe de notre lexique qui accepte comment z." dio (Ik. 142 orr.). Baina zergatik da hain mugatua delako transformazio hori? Ez zaigu esaten.
71. Ik. Rivero 1977.
72. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970.
73. Ik. Rivero 1977, 42 orr.
74. Ik. Rivero 1977, 56 orr.
75. Ik. Rivero 1977, 57 orr.
76. Ik. Rivero 1977, 57 orr.
77. Adibidez,
 - (a) Tu padre siente dolor de tripas y tu madre siente la muerte del loro perpausetik ezin atera daiteke beste honako hau:
 - (b) *Tu padre siente dolor de tripas y tu madre la muerte del loro.

Ezabatu ahal izateak aditz hauen identitate semantikoa erabakitzeko erizpidea eskaintzen omen digu. Ik. Rivero 1977, 59 orr.
78. Demontek Chomsky 1967-ren hitzetara bialtzen gaitu. Honek 11. oharrean honela dio: "Carece de importancia para lo que ahora nos proponemos el que se considere que toda rúbrica léxica es una 'función' booleana de unos rasgos determinados o que se la sustituya por un conjunto de rúbricas léxicas cada una de las cuales esté formada por un conjunto de rasgos determinados: no está claro si estos dos enfoques de los problemas de la gama de significados y de la gama de funciones constituyen dos variantes terminológicas o si son empíricamente distinguibles entre sí (...); fijémonos, por ejemplo, en la ambigüedad de book y de proof (...): ciertas condiciones sobre la recuperabilidad

de las elisiones podrían llevar a la conclusión de que cuando es posible reunir dos sentidos de una palabra mediante una aposición, lo que entre en juego es una sola rúbrica léxica; y si asumimos que así es, la elección entre las dos posibilidades en alternativa que acabamos de mencionar en cuanto a book y proof quedaría determinada por la condición de que gocen oraciones tales como this book, which weights five pounds, was written in a hurry (...) y John's proof of the theorem, which took him a long time, is reproduced in the new text". (Ik. Chomsky 1967, 145 - 146, 11. oharra).

Horrela, perpaus hau gramatikala denez:

(a) Dije que te ibas, no que te fueras.

DECIR-en kasuan aditz bakarraren aurrean egongo omen ginateke. Ostera, SENTIR-en kasuan edo PRETENDER-en kasuan (pretendo a tu hermana // pretendo decir la verdad) polisemia kasu bat besterik ez omen genuke izango. Ik. Demonte 1977, 20-21 orr.

79. Ik. Sauer 1972, 243 orr.

80. -ELA, -TZEN eta -TZEA nolabait KONP-en gauzatze badira, aditz hauek KONP horren tasunen arabera azpikategorizatuak egongo dira.

81. Ik. Rappaport 1980 eta Marantz 1981.

82. AHAZTU-k beste aditzekin duen diferentzia bakarra da besteetan ergatiboan agertzen dena hemen datiboan agertzen dela. Badirudi sakonean aditz hauek guztiek egitura bera dutela: funtsean aditz bat dugu eta bi argumentu. IRAKATSI-k, berriz, erazlea denez, hiru izango lituzke. Argumentu hauen artean ez dago, berez, ajenterik. Perpaus konpletiboa, objektu izango litzateke Fillmore-n hitzetan eta tema Jackendoff-enetan. Eta batzutan ergatiboan eta besteetan datiboan agertzen dena, berriz, nolabaiteko "probetxu hartzaile" edo, izango litzateke. Beste kontu bat da ea nola erlazionatzen ditugun funtzio tematiko hauek gramatika erlazioekin: "Ces fonctions sont traitées comme des propriétés des représentations sémantiques, reliées aux relations grammaticales (sujet, objet, etc.) par des règles de projection" (Ik. Ruwet 1972, 185, aipamena Jackendoff 1969-tik jasoa delarik). Azken batean erregela lexikoen aurrean aurkitzen gara. Hots: hiztegian aditz bakoitzari buruz esango zaigu zernolako argumentuak ametitzen dituen eta baita argumentu horietako bakoitzari egitura sintaktikoan zein funtzio dagokion. Baina hau dena hiztegian gertatzen den zerbait da.


83. Dena dela, inesiboan doan IS hau ere ezin da nolanahikoa izan. Nolabaiteko ekintza-izenak dira. Hau, jakina, bi aditz desberdinen aurrean gaudelakoaren alde dator, zeren JAKIN₁-ek, inesiboa eskatzen duenak, alegia, 'trebetasuna izan' edo esan nahi du eta esanahi honek eskatzen du JAKIN-en konplementua ere ekintza izen bat izatea. Horregatik: *Liburuan badakit edo *Liburuan trebetasuna dut arrazoi beragatik dira ez-gramatikalak. Eta, arrazoi beragatik dira beste hauek gramatikalak: dantzan badakit, dantzan trebetasuna dut. Bestalde, -T(Z)EN / -T(Z)ERA bereizkuntza dialektala ere ekintza balioa duten izenekin gertatzen da bakarrik. Esan nahi baita etxera noa esango dutela nahiz eta beharrean noa edo zapatak erosten noa esan. Etxe izen konkretu bat baita. Behar, berriz, ekintza izen abstraktu bat, zapatak eroste bezalaxe.
84. Ik. Fillmore 1969, adibidez. Ik. baita Chafe 1970.
85. Ik. Sauer 1972, 121 orr.; Newmeyer 1975; Demonte 1977, 137 orr.; Hernanz 1982, 247 eta hurr.
86. Peru Abarka, 20.
87. "Errazo asarriac, esatez amaitu ezin leguiz" dio ^{P. Santolomek} ~~Amabarrok~~ (Ik. 78 orr.).
88. Hala ere, 'dejar de escribir' eta 'terminar de escribir' ez dira gauza bera: batek utzi diezaioke idazteari baina bere idazlana amaitu gabe utzi.
89. Ik. Lafitte 1944, 411 parr.
90. Ik. Newmeyer 1975, 56-58 orr.
91. (5 d)-ek honako beste honekin kontrastatzen du: Tomate bilketak berandu arte iraun zuen. Arrazoia izenaren zernolakoan bilatu behar da. Era berean, (5d) ez-gramatikaltzat eman badugu ere, gramatikala dela garbi dago "harri hori hor dago oraindik" edo horrelako zentzu batean. Baina ez (4d)-ren antzeko esanahiarekin.
92. Hau, noski, gramatikala izango litzateke IS objeturen bat suposatuko bagenu. Honako honetan bezala, adibidez: Guk farrez amaitu genuen geure bilera. Baina (10c)-k beste zerbait esan nahi luke.
93. Hemen darabilgun notazio eta "ikurreria" hau aditz bakoitza zein testuingurutan ager daitekeen erakusteko da. Lehenbizikoak sujetu ergatiboa ametitzen duen ala ez esaten digu. Bigarrenak, sujetu hori biziduna den ala ez. Beste guztietan, _____ marraz esan nahi du delako aditz hori marra horren testuinguruan ager daitekeela. Adibidez, [...TZEN _____] zinuak esan nahi du

aditza aditz sintagman -TZEN formako konpletiboaren ondoren ager daitekeela + marka badu. - marka badu, ezin da testuinguru horretan agertu.

94. Ik. Perlmutter 1970.
95. Ikus aurrerago. Eta baita, adibidez, Hernanz 1982, 94 eta hurr. orr. edo Bach 1976.
96. Hain zuzen, "la noción de verbo aspectual se fundamenta básicamente sobre el requisito de que éste posea un solo argumento y con valor oracional" dio Hernanz-ek (Ik. Hernanz 1982, 247 orr.
97. Ik. Perlmutter 1970.
98. Ikus lan honen VIII atala.
99. Ik. Perlmutter 1970, 109 orr.
100. Ik. Newmeyer 1969.
101. Ik. Newmeyer 1969 eta Newmeyer 1975.
102. Adibidez, perpaus txertatua pasiban duen honako perpaus hau har dezakegu kontutan (Ik. Hernanz 1982, 250 orr.):

Juan no se atrevía a ser operado de cataratas.

Perlmutter-en debeku hori sakoneko egiturari dagokionez gero, ez genuke modurik izango perpaus hori honako egitura honetatik erakartzeko:



Hortaz, badirudi Perlmutter-en "constraint" horrek ez duela beti sakoneko egituren lan egiten. Goiko diagrama txartzat ezin eman badaiteke (16) egitura ere ezin eman. Horrela, (13) egitura ere ontzat eman beharrekoa izango litzateke. Hala ere, euskaraz goiko perpaus horren kidekorik aurkitzen kostatzen zaigu. Demontek ere txartzat ematen du Perlmutter-en bikoizketa (Ik. Demonte 1977, 139 orr.).

103. Ik. Demonte 1977, 141 orr.
104. Ik. Demonte 1977, 141 orr.
105. Ik. Demonte 1977, 142-143 orr.
106. Hala ere, (26) bezalako egitura bat aski bitxia da. Perpausaren sujetutzat zuzenean $\bar{P}$ agertzen baita eta ez, IS. Hernanz-ek ere ez du ongi ikusten proposamen hau: "dado que no hay pruebas concluyentes en contra del carácter nominal de O_1 (...) opto por mantener dicho diagrama como base para la representación subyacente de los verbos sometidos a la transformación de Elevación de Sujeto (A). Con ello no pretendo, claro está, que el valor nominal de O_1 quede definitivamente probado: la resolución del problema está lógicamente supeditada a los resultados que arroje una investigación más profunda sobre el tema" dio (Ik. Hernanz 1982, 227 orr.)
107. Ik. Bresnan 1972, 129 orr.
108. Ik. Rosenbaum 1967, R. Lakoff 1968, e.a.
109. Koster 1978-k beste hipotesi bat eskaintzen du sujetuzko perpausik ez dagoela esanaz.
110. Ik. Bresnan 1972, 124 orr.
111. Ik. Bresnan 1972, 124 orr.
112. Ik. Rosenbaum 1967.
113. Ik. Bresnan 1972, 126 orr.
114. Bresnan 1972, 129 orr.
115. Antzeko bat eskaintzen digu Ruwet-ek (Ik. Ruwet 1972).
116. Ikus baita Demonte 1977, 139 orr.
117. Planteamendu bera egin behar omen da frantsesez, Ruwet-ek dioenez, beste aditz askorentzat ere: menacer, promettre, risquer, continuer, sembler, ... Aurrerago, hala ere, honela dio: "A vrai dire ce serait une simplification abusive de prétendre que tous les verbes de (11)-(22) n'entrent que dans des structures profondes du type de (70) (hots: gure (43)-ko egiturean). Si cette thèse semble correcte au moins pour les verbes de (11)-(14), elle exige d'être corrigée pour des verbes tels que menacer ou promettre, notamment. Mais ce correctif même va nous permettre de mieux comprendre un certain nombre de faits intéressants concernant la syntaxe et la sémantique de ces verbes, et rendre du même coup plus vraisemblable l'analyse proposée" (Ik. Ruwet 1972, 76-77).
118. Ik. Ruwet 1972, 69 orr.

119. Honen ordeaz, liburuek surtan jarraitu zuten edo esan beharko genuke, seguru asko.
120. Hala ere, ez nago zeharo ziur JARRAITU-k edozein eratako sujetua ezin onar dezakeelakoaz. Izan ere, hona hemen adibide batzu:
- (a) Gizonak oraindik ere lanean jarraitzen du (sujetu bizi-duna dugu hemen)
 - (b) Liburuek mahai gainean jarraitzen dute (hemen sujetua liburuek dugu, -biziduna, beraz.
 - (c) Irudi horrek bere lekuan jarraitzen du.
- Susmoa dut, hala ere, forma hauek berriak eta kanpotikako eraginez asmatuak direla. Alegia, (b) perpausaren ordeaz, seguru asko, nahikoa genuke liburuak mahai gainean daude oraindik edo horrelako zerbait. Izan ere, euskara jatorrez 'sigue -endo' bezalako itzuliek duten ordaina normalki ez dugu JARRAITU edo SEGITU-rekin egiten, ARI-rekin baizik: 'siguen cayendo piedras' = oraindik ere harriak erortzen ari dira.
121. Ikus, hala ere, VI atala.
122. Ik. Goenaga 1980, 385 orr.
123. Hemen ez zaigu axola KONP adabegia eta, horregatik, labur beharrez, -N atzizkia ere LAG-en azpian ezarriko dugu.
124. Hala ere, gauzak ilun daude. Zeren datiboa ere nolabait igoarazi beharko genuke honako perpaus honen antzekoen berri emateko:
- (a) Andoni liburua eskaintzen $\left\{ \begin{array}{l} \text{ari} \\ \text{hasi} \end{array} \right\}$ zait.
- [Igotze gehiegi ez ote? Agian bai.] Horregatik, behar bada proposa liteke denentzat bide bera, baina HASI eta ARI era berezian markatuz hiztegian. Interpretazio erregelaren batzuk esango ligukete agertzen diren eta ez diren izen sintagma nola interpretatu behar diren, jokoan dabilten bi aditzen arabera.
125. Adibidez, liburu-saltzen, belar-ebakitzen, bizar-mozten eta antzekoek aurkezten diguten problema bera aurkezten digute lanean, bertsotan eta antzekoek. Aditz sintagma itxura badute ere, izen sintagma batez eta aditzaz osatuak, egiazki izenki erakarriztat hartu behar ditugu eta, horrenbestez, izentzat eta ez perpaustzat. Esan nahi baita, ondoko bi perpaus hauek esanahiaren aldetik diferentziarik ez badute ere, egitura aldetik desberdinak dira:
- (a) Andoni bizarra moztzen ari da.
 - (b) Andoni bizar moztzen ari da.

Eta hori esateko eskubidea ematen digu honako bi perpaus hauetan gertatzen denak:

(c) Andonik bizarra moztea erabaki du.

(d) *Andonik bizar moztea erabaki du.

Hortaz, belar-mozte eta antzekoei sujetu bat egozteko arazorik ez badugu, izenkiak diren arren, era berean, lanean eta bertsotan eta horiei ere sujeturen bat aplikatu beharko zaie. Dena den arazo hau igotze bideari nahiz EQUI bideari, biei aurkezten zaie.

126. Dena den, edozein bide hartzen dela, datibo hori, sujetua perpaus txertatuko sujetuaren baliokidetzat interpretatzen dugun bezala, perpaus txertatuko datibo nahiz objetu bezala interpretatzeko bidea eman behar zaigu. Bide hori izanez gero, ez genuke inongo transformaziorik beharko. Hala ere, hau azterkizun dago.

127. Ik. Varela 1977, 313-316 orr.

128. ARI-rekin ez-gramatikala gertatzen dela uste dut baina horren arrazoiak ARI beraren esanahian bilatu behar da, aditz honek ez baitu onartzen bere mendean predikatu estatiborik. Horregatik, *ni aberatsa izaten ari naiz edo *neska hori polita izaten ari da ez-gramatikalak dira. Dena den, beste nonbait aztertu beharko da aditzaren aspektua eta bereziki aditzaren puntukaritasuna ARI tartean ageri zaigunean.

129. Jakina, hau, berez erraz konpon daiteke esanaz HASI-k, iragan-gaitza denean konplementuren bat eskatzen duela: Andoni hasi da-k ez du zentzurik Andoni zerbaitetan hasi da ulertzen ez badugu. Baina, hain zuzen, *Langileek lanik ez izatea zerbaitetan hasi da esateak ere ez du inolako zentzurik.

130. Konpara daitezke (75) perpausak honako perpaus hauekin:

(a) Sagararak usteltzen hasi dira.

(b) Liburuak ongi ari dira saltzen.

(c) *Sagararak hasi dira.

(d) *Liburuak ongi ari dira.

131. Eta, hain zuzen, uste dut horrelako sujetuak onartzen dituzten aditzak erazleak bakarrik direla, hots: ez direla nolanahiko trantsitiboak. Adibidez, HARRITU, KEZKATU, LILURATU, IZUTU, BILDURTU, LOTSATU, eta abar. Ez dut aurkitzen bestelako aditzik, hots: erazle ez denik, eta, jakina denez, aditz hauek bi erabilbide dituzte: kezkatu da // halakok halako kezkatu du;

148. Arratibel, 88 orr.
149. Mirande, I.H., 168 orr.
150. Tartas, 72 orr.
151. Altuna 1980, 221 orr.
152. Axular, 15 parr.
153. Axular, 1 parr.
154. Axular, 79 parr.
155. Axular, 101 parr.
156. Axular, 147 parr.
157. Axular, 201 parr.
158. J.B. Agirre, Erak. I, 76 orr.
159. Etxepare, X, 1.
160. Etxepare, II, 72.
161. Comrie 1976, 268 eta hurr.
162. Honek, hala ere, salbuespen ugari ditu munduan zeharko hizkuntzetan. Ik. B. Comrie 1976, 276-296 orr.
163. Ik. J. Heath 1972.
164. Ik. Altuna 1971, 67 orr. eta Azkue 1923, 571-573 orr.
165. Ik. Comrie 1976, 264 orr.
166. Ik. Jackendoff 1975, adibidez.
167. Eta alferrik dira Azkueren gaitzespenak (Ik. Azkue 1923, 183).
168. Noski, esplikatu gabe gelditzen da zergatik den erosi eragin eta ez, erostea eragin. Hala ere, posible dela esango nuke honen antzeko perpaus bat: Andonik eragin du guk etxea saltzea. Normalena Andonik etxea saldu eragin digu izango litzateke, nire ustez. Comrie-k dioen bezala, "although faire and the following infinitive are both verbs in their own right, when they come together in the causative construction they form a particularly cohesive unit" (Ik. Comrie 1976, 196 orr.).
169. Ik. D'Introno 1979, 171 eta 178 orr.
170. Ik. D'Introno 1979, 190 orr.
171. Ik. Salaburu 1980, 89 orr. (Mt. XIX, 14).
172. Euskal Herriko gotzaien itzulpenak ere hala dakar.
173. Eta oraindik argiago (15) ezezka jarriko bagenu: Aita zaharrari ez zioten nahi zuen bezala hiltzen utzi. Zeren, ez utzi-k debekatu ren balioa oraindik ere argiago hartzen baitu.
174. Hemen ere, agian, aurki daitezke zenbait euskaldun datiboa ezarriko luketenak, baina nik neuk behintzat ez nuke ezarriko. Dena den, datiboa ugaltzeko joera gero eta zabaltzenago ari dela esango nuke.

175. Ik. Hernanz 1982, 282 orr.
176. Ik. Hernanz 1982, 272-282 orr.; D'Introno 1979, 171-191 eta
baita Comrie 1976, 298 orr.
177. Honela dio Mogelek: "Enzun neutsan egun baten esaten" (P.A. 46)

V ATALA

ADITZ BEREZI BATZU: NAHI eta BEHAR

1.- EQUI-ren inguruan.-

Euskaraz, EQUI transformazioaz hitzegitean, beti aipatzen den aditza NAHI da. Egia da, beste hizkuntzetan ere, gauza bera gertatzen dela: eredutzat hartzen da QUERER, edo WANT. Euskarari gagozkiola, paradigma hau eman daiteke:

- (1) a. Nik zu etortzea (=etor zaitezen) nahi dut.
- b. Nik zuek etortzea (=etor zaitezten) nahi dut.
- c. Nik aita etortzea (=etor dadin) nahi dut.
- d. Nik gurasoak etortzea (=etor daitezen) nahi dut.
- e. Nik hi etortzea (=etor hadin) nahi diat.

Baina (2) a. Nik ETORRI nahi dut.

- b. *Nik etor nadin nahi dut.

Bestalde, zenbaitentzat beste hau ere ez legoke zuzen:¹

- (3) Nik etortzea nahi dut.

baina aurrerago ikusiko dugunez, behar bada estuegi jokatzeari li-tzateke (3) ez-gramatikaltzat ematea.

Adibide hauek erakusten digutena da NAHI-ren sujetua eta perpaus txertatuarena erreferentzikideak direnean, perpaus txer-tatuko aditzak hartzen duen forma -T(Z)EA edo subjuntiboa izan beharrean, partizipioarena izaten dela: -TU.

Hala ere, ez du horrela uste Hester-ek.² Honek, artikululu harrigarri batean ontzat ematen ditu, esaterako, honako perpaus hauek:

- (4) Jonek nai du aye joan (sic).³

- (5) Jonek nahi du aye ardian ekarri.

Horrelako adibideetan oinarriturik, Hester EQUI trans-

formazioaren kontrako argumentuak bilatzen saiatzen da: "The Equi rule is said to delete the subject of the for-to complement which is co-referential with the matrix subject. In other words, Heath and Anderson are claiming that the above facts of sentential embedding in Basque parallel the facts of for-to complement embedding in English. However, a more thorough examination of the Basque facts calls into question their Equi analysis."⁴ Adibidez, (6) perpausa hartzen badugu gogoan:

(6) Jonek nahi du ardia ekarri.

perpaus hau EQUI analisiaren arabera sortua bada, (7) perpausak ("the simple declarative surface structure form of the complement in (3)" (hots: gure (6)an)) ez-gramatikala behar omen luke izan:

(7) Ardia ekartzen da.

Baina perpaus hau zeharo gramatikala da. Eta jarraitzen du: "The ungrammaticality of sentences like (...) (gure (7)) would be a basic piece of evidence for the existence of an underlying grammatical subject in the complement of (...) (gure (6)). The fact that (...) (gure (6)) is grammatical in Basque suggests that EQUI is not a rule of grammar for Basque, a rule which deletes an underlying NP in the paraphrase of the embedded clause in (...) (gure (7)-an)".⁵

Hester ez da konturatu, ordea, gauza batez, alegia (6)-ren "the simple declarative surface structure form" ezin daitekeela ardia ekartzen da izan. Eta hori, arrazoi batengatik: (7) moduko zerbait NAHI-ren menpean txertatua dagoenean ez delako (6) gertatzen, beste hau baizik:


(8) Jonek ardia ekartzea nahi du.


Zeren (7)-k duen interpretazioa da "Norbaitek, ez dakigu zehazki nork, baina norbaitek, ardia ekartzen du". Hau izan ohi da (7) gisako perpaus inbertsonalek izaten duten interpretazioa:⁶

(9) Ardia merke saldu da Ordiziako ferian.


(9) esaten dudanean ez dut pentsatzen ardia berekasa saldu dela. Ardia salduko bada, saltzailea behar da. Gertatzen dena da goiko perpaus horretan ez zaigula esaten nor den saltzaile hori. Horretan datza inbertsonalaren funtsa.

Baina (6) diodanean, ardia ekarriko duena ondo dakigu nor den: Jon bera. Hortaz, Hester-ek behar bezalako informatzailea izan balu, ez zuen esango esaten duena. Euskaraz, (6)-k eta (8)-k sakoneko egitura desberdina dute: lehenbizikoan -gero beste hipotesi bat ematen saiatuko gara- EQUI transformazioa izango genuke. Edo bestela esan, bi sujetuak erreferentzifikidetzat hartzen dira. Bigarrenengan, berriz, ez dago EQUI-rentzat lekurik.⁷ Ez (6)-an ez (8)-an, ez da sujeturik agertzen. Baina ez da agertzen bi arrazoi desberdinengatik. Lehenbizikoan, esan dugu EQUI-ren ondorioztat har daitekeela sujeturik eza. Baina bigarrenengan, sujetua indefinitua delako edo, bestela, testuinguruak argitzen digulako zein den, horregatik ez da agertzen. Funtsean, Hester-en diagrama errespetatuz, (10) izango litzateke (6)-ri dagokion egitura, baina (11), (8)-ri dagokiona:






Edo perpaus inbertsonalek $\left[\begin{array}{cc} \text{[ardia]} & \text{[ekartzea]} \\ \text{IS} & \text{AS} \end{array} \right]$ egitura badute, orduan, (12):



Beraz, Hester-en (10) egituraren ordeztu, (13) proposatu beharko genuke:



Eta (13) eta (11) konparatzen baditugu, argi ikusten da bien arteko diferentzia zein den: (13)-n PRO perpaus nagusiaren erreferentziki-
de bezala ulertzen da. (11)-n, berriz, pro-k ez du inolako erre-
ferentzikidetasunik izan beharrik⁸ perpaus nagusiko izen sintagma-
rekin.

Beraz, EQUI-k ingelesez adinako justifikazioa baduela esan daiteke euskaraz ere, Hester-en arrazoiak datu okerretatik eta oker interpretatuetatik abiatzen baitira.

Hester-ek ondoren ematen dituen arrazoiak ez dute zentzu gehiegirik BERA eta AYE (sic) izenordainen artean omen dagoen bereizketa funtzionalean oinarritzen baita.⁹ Baina arazo hau ez da-
gokigu zuzenean eta, beraz, utzi egingo dugu alde batera.

Bestalde, eta komunztadurari gagozkiola, perpaus txerta-
tuan izen sintagma objeturik agertzen bada -zehir objetua nahiz
objetu zuzena- izen sintagma horiek, komunztadurari begira, kon-
tutan hartu behar izaten dira:

(14) Nik zuri liburu batzu ematea nahi du Andonik.

baina (15) Nik zuri liburu batzu eman nahi dizkizut.

Hortaz, esan daiteke NAHI IZAN-en konplementuak hartzen duen forma aditz-izenarena dela, hots: -T(Z)EA, baina EQUI apli-
katzen denean, -T(Z)EA gabe, partizipioa, -TU, agertuko dela, edo
ager daitekeela behintzat.

2.- Partizipioaren agerpenari buruzko hipotesi bat.-

Hala ta guztiz ere, kontu hau nahikoa harrigarri gerta-
tzen da. Zeren batetik oso aditz gutxik jarraitzen dute bide hau.
Aipatzekotan, NAHI eta BEHAR aipatuko genituzke. Eta, agian hauer-
sail berekotsat har daitezke baita honako "aditz" hauek ere: USTE,
GOGO.¹⁰

- (16) a. Etxera joan behar dut.
 b. "Eta onela garaitu uste dezu oitura gaiztoa?"¹¹
 c. "Gero egin gogo dituzun ongiak"¹²

Dena dela, galde liteke ea (17)-ko jokabide bikoitza ikusirik zergatik ez den gauza bera gertatzen (18)-an:

- (17) a. Andonik gu isilik egotea nahi du.
 b. Andonik isilik egon nahi du.
 (18) a. Andonik gu isilik egotea erabaki du.
 b. Andonik isilik egotea erabaki du.
 c. *Andonik isilik egon erabaki du.

Bai (17b)-ren eta bai (18b)-ren egitura sakona funtsean bat da. Aditza dute desberdina:

- (19) a. Andonik_i [PRO_i isilik egon] nahi du
 b. Andonik_i [pro_i isilik egotea] erabaki du

Hau, lehen begiratuan oso bitxitzat har liteke. Hain zuzen, aditz bitxi batzuren jokabide bitxia dela pentsa liteke, baina horren zergatia ez dakigularik. Gauzak astiroago begiraturaz gero, ordea, ez dago zer harriturik, espelikazioa berehala jartzen baita agerian. Izan ere, jokabide "bitxi" hori -hots: sujetuen artean erreferentzirikidetasuna denean partizipioa agertzea- duten "aditz" horiei begiratzen badiegu, berehala konturatuko gara aditz gisa lan egiten duten IZENAK besterik ez direla: NAHI, USTE, GOGO, BEHAR, ASMO,¹³ ...:

- (20) a. Zure NAHIA ezin dugu bete.
 b. USTEAK alde erdia ustel.
 c. GOGORIK ez dut etxetik irteteko.
 d. Horren BEHARRIK ez duzu.
 e. EZINAK ez du legerik.

Hain zuzen, "aditz" hauek, berez izenak direnez, pentsa daiteke partizipioarekin batera izen elkartu bat osatzen dutela. Aditz gisa funtzionatzen duten izen elkartuak izango lirateke, hortaz. Eta "aditz" bakartzat hartu behar direlako seinale da hauekin gertatzen den komunztadura berezia (ikus (14) eta (15) adibideak).

Lehen -ikus (17) eta (18) - NAHI eta ERABAKI-ren jokabide desberdina aipatu dugu. Baina ERABAKI ere ez ote genezake izentzat har, NAHI edo BEHAR bezala, adibidez? Egia da, (21)-ek erakusten duen bezala, ERABAKI-k izen modura lan egin dezakeela:

(21) Ez dugu ERABAKI garrantzitsurik hartuko gaur.

Hala ere, bada datu bat ERABAKI eta NAHI adibidez, maila bereko izenak ez direla erakusten diguna. Eta, hain zuzen, ez dira maila bereko izenak "aditz" gisa ere maila berekoak ez direlako. ERABAKI-k aditz osoen bidea jarraitzen du morfologiaren aldetik:

(22) $\left\{ \begin{array}{l} \text{ERABAKI} \\ \text{ERABAKITZEN} \\ \text{ERABAKIKO} \end{array} \right\} \quad \text{dut}$

Ostera, NAHI eta, oro har, berez izenak diren "aditzekin" ez zaigu horrelakorik gertatzen:

(23) $\left\{ \begin{array}{l} \text{NAHI} \\ * \text{NAHITZEN} \\ \text{NAHIKO} \end{array} \right\} \quad \text{dut}$

(24) $\left\{ \begin{array}{l} \text{BALIO} \\ * \text{BALIOTZEN} \\ \text{BALIOKO} \end{array} \right\} \quad \text{dut}^{14}$

Hortaz, NAHI berez izena delarik, aditz bihurtua edo,

agertzen da, nahiz eta horretarako UKAN laguntzailearen premia izan. Alde honetatik, USTE, BALIO, GOGO, BEHAR, e.a. guztiz antzekoak dira.

ERABAKI, aldiz, berez aditzaren partizipioa da, (22)-k erakusten digunez. Eta jakina da zenbait aditzetatik -partizipio formatik- lor daitezkeela euskaraz (eta beste hizkuntza askotan) izen erakarriak. Izen hauen balioa, askotan behintzat, ekintza baten ondorioarena izan ohi da:

- (25) a. Zure IDATZI hauek kezkatu egin naute.
- b. Zure ERABAKIa guztiz errespetagarria da.
- c. BEGIRATU bat enan iezaiozu lanari.
- d. ESANak eta EGINak ez datoz askotan bat.

Horrelako asko dira euskaraz. ERABAKI bat zer da?

Ez al da erabaki dena? IDATZI bat idatzi den zerbait den bezala, edo ESANA, esan dena den bezala. Hala ere, BEGIRATU bat ez dirudi begiratu dena denik, begiratzea bera baizik. JANA, berriz, ez litzateke, nahi eta ez, jan dena izango, jaten dena baizik.¹⁵

Dena den, garbi dagoela dirudi NAHI jatorriz izena dela eta ERABAKI, berriz, berez aditza den batetik erakarria dugula. Hortaz, ez dago inolako problemarik ERABAKI-k, berez aditz denez gero, bere konplementua den perpausa -T(Z)EA formen eskatzen badu. Problemarik ez dagoen bezala NAHI-k eta bere sailekoek ere -T(Z)EA formaren ondoan partizipioa onartzeko. Baina honetarako zenbait baldintza bete behar dira eta nagusia bi sujetuak erreferentzikideak izatea izango litzateke. Hala ere, eta testuen arabera, bi sujetuak erreferentzikideak direnean, -TU forma erabili behar delako arau hori badirudi ez dela nahitaezko. Agirre Asteasukoak, adibidez, bietara darabil:¹⁶

(26) (Jesusek) "nai izan zuan gure artean gueratu".¹⁷

(27) "Egarri andiarequin nai izan det apari au zuequin eguitea."¹⁸

Norma da, dakigun bezala, bi sujetuen erreferentzikidetasunik ez badago, -T(Z)EA edo subjuntiboa erabiltzea, baina partizipioa erabiltzea erreferentzikidetasun hori gertatzen denean.¹⁹ Hala ere, (27)-k ez dio arau horri jarraitzen, eta, gainera, badi-rudi gehienetan Agirre Asteasukoa (27) perpausak erakusten duen joeraren alde agertzen dela, nahiz eta (26)-koa ere erabili. Hau, batez ere, perpausak elementu gutxi dituenean gertatzen da. Perpausa luzexeagoa denean, orduan (27)-ko joera agertzen zaigu Agirreren lanetan. Eta gaur egungo zenbait euskaldunentzat ere oso jatorra dela dirudi jokabide horrek. Dena den, horrela jokatzeko paradigma berdindu nahia besterik ez litzateke izango: aditz guztien sailera pasaeraztea litzateke, funtsean.

Beraz, beste hitz batzutan esateko, perpausuan "aditz" elkartua dugunean (ETORRI-NAHI, JOAN-BEHAR, ULERTU-NAHI, ...), normala den bezala, sujetu bakarra agertzen zaigu eta sujetu hau "aditz" elkartu osoaren sujetutzat ulertu behar da. Horregatik, hauetan ez dago lekurik bi sujetu desberdinentzat.²⁰

Beste joera, berriz, izango litzateke NAHI aditz bakarizat hartzea. Aditz honek, ERABAKI-k bezala, bere konplementua den perpausa -T(Z)EA formakoa izatea eskatuko luke beti, nahiz bi sujetu desberdin ditugunean, nahiz bi sujetuak erreferentzikideak direnean. Azken joera hau da (27)-k adierazten duena.

BEHAR-ekin ere gauza bera gertatzen da. Normalki, kasu honetan aipatu korreferentzia hori gertatzen da eta, horregatik, normalean, partizipioa agertuko zaigu:

(28) Liburu batzu erosi behar ditugu.

Hemen ere, EROSI-BEHAR "aditz" elkartutzat har genezake eta, horrenbestez, sujetu bakarrarentzako lekua besterik ez da izango.

Erreferentzikide ez diren bi sujetu ere ager daitezke, hala ere. Orduan ez dago lekurik EROSI-BEHAR bezalako aditz elkartu batentzat, (29)-an ikusten den bezala:

(29) Nik zu nere bila etortzea behar dut.

Perpaus honen ordezt, "aditz" elkartuzko forma erabiliko bagenu, ez-gramatikala gertatuko litzateke:

(30) *Nik zu nire bila etorri behar dut.

Kasu honetan argi dago: NAHI-rekin gertatzen zen gauza bera gertatzen da. Baina sujetu bakarra dugunean, edo, nahiago bada, bi sujetu erreferentzikide ditugunean zilegi ote da -T(Z)EA formaz baliatzea? Alegia, (27)-ren antzekorik gerta al daiteke BEHAR-ekin? Nik baietz esango nuke. Hala ere, ez dut uste testuetan horren froga askorik jaso ahal izango dugunik. Dena den, (31) ez nintzateke ez-gramatikaltzat jotzen ausartuko:

(31) Nik zurekin afaltzea behar dut.

Egia da, normalean (31)-ren ordezt, (32) esango genukeela, baina agian ez dugu eskubiderik (31) hori arbuiatzeko:²¹

(32) Nik zurekin afaldu behar dut.

Dena den, hemen arazo bat bada eta da NAHI, BEHAR, GOGO eta abarrek aditz elkartuak osa baditzaizkete, eta beraz, partizipioarekin batera ager badaitezke, zergatik den joera hori askoz bortitizago NAHI eta BEHAR-ekin GOGO edo ASMO-rekin baino, alde batetik. Eta bestetik, zergatik adibidez DESIO edo ESPERANTZA-rekin hori ez den horrela gertatzen. Zeren oso bitxi gertatzen baitira honako izen elkartu hauek:

(33) a. ??Zure etorri desioa ezin dut ulertu.

b. ?? Irabazi esperantza dugu.

Dagoen aldea nabarmenago gertatzen da (34)-rekin alderatzen badugu:

(34) a. Zure etorri nahia ezin dut ulertu.

b. Irabazi beharra dugu.

Dena dela, NAHI eta BEHAR zeharo "adiztuak" daudela esan daiteke eta horren frogara da nahiz eta berez UKAN-en objektu izan, mugatzailerik gabe agertzea: NAHI DUT esaten dugu eta ez, NAHIA DUT. Baina beste guztiekin joera nagusia, esango nuke, mugatzailearekin agertzekoa da: ASMOA DUT normalagoa da guretzat, gaur. ASMO DUT baino eta ITXAROPENA DUT ere bai, ITXAROPEN DUT baino. Honekin batera datorrela dirudi, bestalde, NAHI UKAN-ek edo BEHAR UKAN-ek eraman dezakeen konplementuak ez hartzea -T(Z)EA forma, -T(Z)EKO forma baizik:

(35) a. Gogo handia zuen zu ikusteko.

b. Itxaropena dut Erromara joateko.

(35)-eko perpaus hauek badirudi extraposizioaren²² antzeko zerbaiten ondorio edo, direla. Bi perpaus horiek noizpait beste itxura hau izango zuten:

(36) a. Zu ikusteko gogo handia zuen.

b. Erromara joateko itxaropena dut.

3.- Beste zenbait datu.-

Sarasola 1982 hartzen badugu begien aurrean eta NAHI-ren erabilera gogoan hartzen, berehala konturatzen gara zenbait puntuz:

a) Normalean ondo atxikitzen da etorri nahi / etortzea nahi bereizketa.

b) Gehienetan, partizipioa NAHI-ren ezkerretara eta honen ondo ondoan joan ohi da:

(37) a. Bidea urratu nahi dute.²³

b. Elkarri lagunduz bizi nahi dugu.²⁴

Puntu honek indar ematen dio, hain zuzen, gorago aipatu dugun hipotesiari, hots: partizipioak eta NAHI-k "aditz" elkartu bat osatzen dutelakoari. Eta, Agirreren kasuan bezala, aditz txer-tatua NAHI-ren ezkerretatik eskuinetara pasatzen bada, eta aski urruti joaten bada batez ere, orduan badirudi aditz-elkarketaren "kontzientzia" galdu egiten dela eta horregatik "zilegiago" ger-tatzen dela partizipioaren ordez aditz izena erabiltzea.


c) Dena dela, /NAHI + ... partizipioa/ gisako egitura gehienbat Iparraldeko idazleen joera da:

- (38) a. Bi batasun alaiek nahi dute muntatu harrigarritzko
arroltze-moleta bat.²⁵
- b. Jubilau-beilan parte hartzen duenak nahi du (...) ²⁶
bakean bizi.
- c. Amak nahi izan zuen bururaino bere haurraren ²⁷
ondoan egon.

Hortaz, laburtzeko, esan daiteke NAHI eta BEHAR-en jo-kabidea nahikoa antzekoa dela eta funtsean -T(Z)EA formako kon-plementua eskatzen duten aditzekin batera doazela. Beraz, (39) perpausaren sakoneko egitura (40) izango litzateke:

- (39)
- Zu etxean egotea $\left\{ \begin{array}{l} \text{nahi} \\ \text{behar} \\ \text{erabaki} \end{array} \right\}$ dut

(40)




Eta bi sujetuen artean erreferentzirikidetasuna dagoenean, zilegi dela dirudi NAHI-k ERABAKI-ren jokabide bera jarraitzea, hots: -T(Z)EA -z baliatuz, gorago esan dugunaren arabera:

(41) a. Etxean egotea erabaki dugu.

b. Etxean egotea nahi dugu.


Perpaus hauen egitura (42) izango litzateke. Baina hemen perpaus txertatuko pro hori interpretatzerakoan anbiguitatea sor daiteke berez.²⁸ Anbiguitate hori batez ere NAHI-rekin gertatzen da, (41b)-n, hortaz: hemen ez dakigu etxean egotea nahi duguna²⁹ nor den, geu ala beste norbait. Noski, anbiguitate arazorik ez dago erreferentzirikidetasuna denean partizipiozko forma derrigorrezkotzat ematen dutenen euskaran.



Baina, esana dugun bezala, (41b)-ren ordez, normalagoa eta gramatika arauekin adosago legokeena (43) izango litzateke:

(43) Etxean egon nahi dugu.

Eta honen sakoneko egitura ez litzateke jadanik (42) izango, (44) baizik, non sujetu bakarra dagoen eta NAHI-k eta partizipioak aditz bakar bat osatzen duten:



Eta hemen diogunaren alde datozela esan daiteke (45)-eko perpausaren antzekoak:

(45) Guk nahi duguna da etxean egotea.

(46)-koak, berriz, bata niretzat zeharo ez-gramatikal eta bestea, gutxienez zalantzazkoa, izango lirateke:

(46) a. ?Guk nahi duguna da etxean egon.

b. *Guk nahi duguna etxean egon da.

Honek esan nahi du (42)-an eta (40)-an agertzen diren $\left[\begin{smallmatrix} \text{pro} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \text{ etxean egotea} \right]$ edo $\left[\begin{smallmatrix} \text{Zu} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \text{ etxean egotea} \right]$ perpausaren osagai direla. Horregatik da zilegi (45)-ek adierazten duen bezala, "pseudo-cleft" tankerako egitura. Baina (46b)-ren ez-gramatikaltasunari esker badakigu ETXEAN EGON ez dela atal oso bat eta hori garbi adierazten du (44) egiturak, non atal posible bakarrek $\left[\begin{smallmatrix} \text{etxean} \\ \text{Alg} \end{smallmatrix} \right]$ edo $\left[\begin{smallmatrix} \text{etxean egon nahi} \\ \text{AS} \end{smallmatrix} \right]$ diren eta ez $\left[\begin{smallmatrix} \text{etxean egon} \\ ? \end{smallmatrix} \right]$.

Bestalde, kontutan izan behar da NAHI berez izena dela esan arren, behar bada adjetibo ere izan daitekeela. Horrela dirudi behintzat -AGO maila-atzizkia hartzen baitu:

(47) Nahiago dut etxean gelditzea.

Hemen badirudi ezin dela GELDITU eta NAHIAGO-rekin hitz elkartu bat osatu. Hitz ordenak berak ere horrelako zerbait adierazten duela esango nuke, zeren (47)-ko ordenak askoz normalagoa

ematen du (48)-koak baino, nire belarrien arabera behintzat:

(48) Etxean gelditzea nahiago dut.³⁰

Perpaus hau zeharo gramatikala izan arren, (49)-rekin konparatzen badugu, ikusten ahal dugu (48)-an GELDITZEA eta NAHIAGO-ren artean dagoen lotura (entonazioaren aldetik ari naiz) askoz ahulagoa dela (49)-ko GELDITU eta NAHI-ren artean dagoena baino:

(49) Etxean gelditu nahi dut.

Badirudi (48)-ren ebakera, azken batean (50)-en tankerakoa dela:

(50) Liburu hori ederragoa da.

Perpaus honen ebakera zuzena sujetuaren eta predikatuaren artean eten bat eginez egiten dena da:

(50') $\left[\begin{array}{c} \text{Liburu hori} \\ \text{IS} \end{array} \right] / \left[\begin{array}{c} \text{ederragoa da} \\ \text{AS} \end{array} \right]$

(48') Etxean gelditzea / nahiago dut.³¹

4.- Komunztadura.-

/Partizipioa + $\left\{ \begin{array}{c} \text{NAHI} \\ \text{BEHAR} \end{array} \right\} /$ multzoak aditz elkartu bat osatzen duela onartuz gero, komunztadura ere oso ondo esplikatzen da. Berez, NAHI-k ez du datiborik onartzen, ez baditugu behintzat Jainkoari nahi dakiola eta antzekoak gogoan hartzen. Azken batean, Andoniri ahaztu zaio esaten dugunean duen zeregin bera duela dirudi datiboak perpaus honetan. Hortaz:

(51) a. Nik sagar bat nahi dut.

b. *Nik sagar bat nahi diot Andoniri.

Baina datiboa edo absolutua ametitzen dituen aditz bat daukagularik NAHI-ri lotua, orduan laguntzailean nor eta nori-ri dagozkion markak agertuko dira:

(52) Nik zuri sagar batzu eman nahi dizkizut.

Horrek esan nahi du (52)-an EMAN NAHI nor-nori-nork markak onartzen dituen aditz bat bezala agertzen zaigula, nahiz eta, (51)-k adierazten digun bezala, NAHI-k, berez, datiborik onartu ez.

-T(Z)EA forma darabilgunean, ordea, ez dago horrelako konturik:

- (53) a. Nik zuri liburu batzu erostea nahi du Jonek.
b. *Nik zuri liburu batzu erostea nahi dizkit Jonek.

Hala ere, komunztadura dela eta, gauza bitxi bat gertatzen da NAHI eta BEHAR-ekin. Badakigu berez NAHI eta BEHAR, aditz modura darabiltzagunean iragankorrak direla:

- (54) a. Andonik liburu bat nahi du.
b. Jendeak lana behar du.

Konpletibo bat daramatenean ere gauza bera gertatzen da. Guk geuk (55a) esango dugu, baina ez (55b):

- (55) a. Gurekin etorri nahi baduzu...
b. *Gurekin etorri nahi bazara...

Hala ere, posible da (55b)-ren pareko perpausak gure idazle zaharren lanetan aurkitzea. Eta, gaurko zenbait euskaldun ere zalantzan ibili ohi da BEHAR DU ala BEHAR DA esan behar den ez dakiela:

- (56) a. Etxera joan behar dut.
b. Etxera joan behar naiz.

Azkuek honela zioen: "Se ha dicho arriba que a gura y nai les viene de naturaleza el acompañarse siempre de auxiliar transitivo. Entre los vocablos de su categoría gramatical -modales de verbo infinitivo- hay tres que según sea transitivo o intransitivo el verbo por ellos modificado, así se valen de auxiliar transitivo

o bien del intransitivo: ekarri al du ha podido traer y etorri al da ha podido venir, ezin edan izan du no la podido beber y ezin erori izan da no ha podido caerse, ekarri oi du lo suele traer y etorri oi da suele venir.

Otros cinco -bear, gogo, gura, nai y uste son esencialmente transitivos, pues su objeto está siempre fuera del sujeto: objeto real a veces, objeto verbal en otras. (...)

Es de euskaldun barris o barrioides decir o escribir etorri bear naiz; ibili gura nintzan, yausi (erori) nai da gizon ori. Hasta los escritores modernos no se halla en libro alguno, por lo menos del B. locución semejante. ¿Que etorri, ibili y yausi son intransitivos! Más lo son las cosas. La Lógica, que es, más que la lengua misma, el Norte de sus concepciones, les obliga a escribir sagar bat bear naiz, sagar bat gura naiz, sagar bat nai naiz. Si no están dispuestos a esto, digan y escriban, como han dicho y escrito todos aquellos que nos han precedido, etorri bear dogu, etorri gura dogu, edatera yoan nai dogu. Sepan que, si no quieren ser lógicos porque les repugna sagar bat bear naiz, al pueblo le repugna en el mismo grado la locución etorri bear naiz.

Más respeto al pueblo, como se le guarda y se le ha guardado en todo país culto".³²

Hala ere, nik neuk ez ditut gauzak Azkuek bezain garbi ikusten. Egia izango da behar eta nahi "esencialmente transitivos" direla, Azkuek dioten bezala, baina badira zenbait kasu forma iragankorra gabe iragangaitza eskatzen digutenak, nahi eta ez. Adibidez, (57)-ko esaldiak, aditza iragankorra izanik ere, ez-gramatikalak gertatzen dira, baina beren ordezkotzat ematen diren (58)-koak gramatikalak dirudite:

(57) a. *Aitari mintzatu nahi diogu.

b. *Nik zuri garaiz joan behar dizut deitzera.

(58) a. Aitari mintzatu nahi gatzazkio.³³

b. Ni zuri garaiz joan behar natzaizu deitzera.

Beraz, Azkueren argumentazioa eztabaidagarria dugu.

Badirudi partizipioak eta NAHI-k (edo BEHAR-ek) "aditz" elkartu antzeko hori osatzen dutenean ez dagoela oso garbi aditz elkartu hori iragankortzat hartu behar den ala iragangaiztat. Badirudi (56)-eko JOAN BEHAR aditz elkartu horretan "norgehiagoka" bat gertatzen dela iragankortasunari begira. JOAN [-Trans.] da bere aldetik. BEHAR, berriz, [+Trans.]. Normalean, nire hizkuntz gaitasunaren arabera behintzat, BEHAR-ek irabazten du eta, horregatik, niretzat normalena (56a) da. Baina pentsa liteke zenbait euskaldunen hizkuntz gaitasunaren arabera batzutan JOAN-ek irabazten duela. Orduan JOAN BEHAR iragangaiztat ulertzen da eta, beraz, (56b) gertatzen. Eta idazle zaharren lekukotasuna nahi izanez gero, hona hemen Axularrek³⁴ eskaintzen dizkigun adibide hauek. Perpaus bakar batean eskaintzen dizkigu, gainera:

(59) "Zerori zeure eskuz mendekatu nahi bazara, penatu behar zara, eta (...) gelditu behar zara".

Eta gauzak horrela planteatzeko arrazoi bat gehiago badugu. Lehen esan dugu berez datiborik ez dutela onartzen "aditz" hauek (ikus 51b). Baina datiboa onartzen duen beste aditz bat itsasten zainnean, datibo hori onargarri gertatzen zaiola dirudi berez datiborik onartzen ez omen duen aditz horri. Gauza bera pentsa liteke, hortaz, Azkuek gaitzesten zituen perpausei buruz. Eta, bestela, nola esplika (58)-ko esaldiak.

Dena dela, oraindik ere badira arazoak eta ugari, gainera, puntu honetan. Adibidez, AHAL eta EZIN-en adiztasuna nahikoa za-

lantzan dago. Hala ere, Iparraldeko euskaldunek joaiten ahal zira esaten dutenean badirudi joaiten hori perpaus txertatu bat dela eta, horrenbestez, ahal aditza. Hala ere, joan ahal naiteke edo ezin joan naiteke esaten dugunean, ahal-ek eta ezin-ek modal itxura handiagoa dute.

Bestalde, hor dugu ohi ere. Hau ere nolabaiteko modalizat hartu ohi dugu. Hala ere, puntu batean behintzat NAHI eta BEHAR-ekin batera doa:

(60) a. Joan egin nahi dute.

b. Esan egin behar duzu.

c. Eskatu egin ohi du.

Alde honetatik, hortaz, denak partikula modalak ³⁵lirateke. Dena dela, joan (egin) nahi eta antzekoak funtsean aditz bakar modura ageri dira eta, horregatik, EQUI edo sujetuaren erreferentzikidetasunari buruz gorago esanak zutik dirau. Baina joatea nahi dut esaten dugunean garbi dago bi aditz ditugula eta, horrenbestez, bi perpaus.

OHARRAK (V atala)

1. Noski, (2a)-ren interpretazio bera duelarik. Zeren (1)-eko edozein interpretazio eman baitakioke beti.
2. Ik. Hester 1976.
3. Pentsatzen dut perpaus hori beste honen ordezt eman dela:
*Jonek nahi du hura joan (joatea).
4. Ik. Hester 1976, 28 orr.
5. Ik. Hester 1976, 28 orr.
6. Beste arazo bat da perpaus inbertsonal hauek zer nolako egitura duten jakitea. Transformazio bidez erakar daitezkeela suposatu nuen nik (ik. Goenaga 1980). Gaur hiztegi mailan planteatzen daitezke gauzak, erredundantzi erregelen bidez eta abar.
7. Noski, aurrerago Agirre Asteasuaren zenbait adibide komentatzen dugunean esango duguna zuzena bada, berez (8) perpausa, (3) bezala ambiguo izango litzateke: ekarlea Jon dela interpreta baitaiteke edo, bestela, ekarlea zeharo ezezaguna da, inbertsonala.
8. Zenbait euskaldunentzat ezin izan daiteke erreferentziazitasunik, baina beste zenbaitentzat, pro honek zeharo erreferentzia librea izan lezake, perpaus nagusiko izen sintagma sujetuaren erreferentzia bera ere bai.
10. Adibidez, De Rijk irakasleak gogorazi zidan perpaus honek:
"Atozte, atozte!" ESAN IDURI dute" (Barrenso, Uztaro, 23 orr.) nahikoa harrigarri dirudi. Dena dela, hemen ere partizipio + izen/egitura genduke. Baina ez ote erdararen nolabaiteko kalakoa? (Ik.: "Parecen decir"). Ez dakit.
11. J.B. Agirre, Erac. I, 406 orr.
12. Axular, 145.
13. Agian, AHAL eta EZIN ere hemen sartu beharko genituzke. Hala ere, hauek, eta bereziki EZIN-ek, badituzte berezitasunak. Ik. Azkue 1923.
14. Gainera -eta hau oso inportantea da -esanahiari gagozkiola, badakigu, ERABAKI DUT eta NAHI DUT ez direla maila bereko aditz formak. ERABAKI DUT aspektuaren aldetik [+Perf] da, baina NAHI DUT [-Perf] eta, behar bada, [+Puntukari]. Hots: Nahi dut, aspektuaren aldetik DAKART-en parekoa genduke eta ez EKARRI DUT-en parekoa, ez eta EKARTZEN DUT-en parekoa ere. Euskaldunak badaki NAHI-rekin perfektotasuna aditzera eman behar duenean, IZAN-en edo UKAN-en laguntza behar dela: nahi izan dut.

15. Esanahi aldakortasun honen berri hiztegian eman daiteke, hipotesi lexikalistaren arabera. Ik. Chomsky 1967 eta Jackendoff 1975.
16. Ik. Goenaga 1980.
17. J. B. Agirre, 339.
18. J. B. Agirre, 339.
19. Ikus adibidez Goenaga 1980, 387 orr.
20. Gauzak horrela aurkeztuz gero, EQUI-rentzat ere lekurik ez genuke izango, erregela horren premiarik ere ez baikenuke izango.
21. Eta honen tankerako adibide bat aurki daiteke Agirre Asteasuko-arenean, perpaus honek aditzera ematen digun bezala:

"Bear da beñic beñ becatutik aldeguitea" (J.B. Agirre, Er. I, 353 orr.)

Hau ez da (32)-ren zeharo parekoa, zeren argi dago ez dugula BEHAR-en sujetu izan daitekeenik, inpertsonal deitzen diren horietakoa bailitzateke perpaus hori. ALDEGIN ere inpertsonala litzateke. Hots: bistan sujetu "hutsa" izango genuke. Hala ere, balio dezake adibide honek, zeren (32)-ren ondoan honako hau ere zilegi bailitzateke:

Bekatutik aldegin behar da behinik behin.

Beraz, BEHAR eta NAHI konpara daitezkeenak ditugu.
22. Ikus, adibidez, Rosenbaum 1967 edo Wilbur 1979.
23. Sarasolaren corpus-ea 111606052 zenbakia duena.
24. Sarasolaren corpus-ea, 210317002 zenbakia duena.
25. Sarasolaren corpus-a, 820304187 zenbakia.
26. Sarasolaren corpus-a, 882038007 zenbakia.
27. Sarasolaren corpus-a, 882305013 zenbakia.
28. Ikus aurrerago kontrolaren arazoaz VI atala.
29. Izen sintagma direla esaten ez naiz ausartzen, argumentu honetaz baliatzen badira ere osagai baten izensintagmatasuna frogatu nahi denean.
30. Hona hemen beste adibide bat: "Nik... (...) kale-garbitzaile edo zatar-biltzaile izatea nahiago nuke" (Mitxelena, Idazlan hautatuak, 203 orr.).
31. Ez dakit, baina agian datu honek NAHI eta BEHAR izentzat hartzera baino areago adjetibotzat hartzera bultzatu behar gintuzke (cf. gauza beharrak eta antzekoak). Dena den, adjetibo nahiz izen, ez dut uste dudana jar daitekeenik partizipioak eta NAHI-k (edo

BEHAR-ek) osatzen duten atal horrek hitz elkartuaren batasuna dutela.

Bestalde, horrek ez du esan nahi, NAHIAGO-rekin partizipioa ezin ager daitekeela. Ikus bestela honako adibide hau:

Nahiago dut etxean geratu zurekin joan (edo joatea) baino.

Baina hori ez da NAHIAGO-ren "pribilegioa" beste konparatibo batzurena ere bai baita:

Hobe da etxean geratu, zurekin joatea baino.

Adiskide txarra baino hobe da bizi bakarrik.

32. Hala ere, ikus L. Gèze 1873, 251 orr.

Eta jarraitzen du Azkuek: "gogo y.uste, como tales modificados verbales, son de poco uso entre vascos de aquende el Bidasoa en locuciones semejantes a ésta de Axular (1ª 218-19) gero egin gogo dituzun ongiak (...) (Ik. Azkue 1923, 144-145).

33. Ikus "nahi eçayt minçatu" (Etxepare VII, 9)

34. Hala ere, Etxeparek ez du berdín jokatzen BEHAR-en eta NAHI-ren aurrean. "Obsérvese que, aun con participio intransitivo o no activo, lleva siempre que el auxiliar está expreso, el auxiliar transitivo: cf. hil behar duc (I. 31); heldu vehar duyen (XIII,3) ..." dio Altunak (Ik. Altuna 1979, 33 orr.)

35. Hala dira Wilbur-entzat ere. Ik. Wilbur 1981, 174 orr.

V I ATALA

KONTROLAREN ARAZOA

1.- Arazoa zertan datzan.-

Aditz mugagabezko konplementu hauek perpaus osoak direla onartu dugu. Hots: honako egitura hau dutela: $\left[\begin{smallmatrix} \text{IS} & \text{AS} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$. Hala ere, badakigu IS hori, sarritan, axalean ez dela ageri. Adibidez:

(1) a. Ez zait gustatzen $\left[\begin{smallmatrix} \text{mendira joatea} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

b. Erabaki dute $\left[\begin{smallmatrix} \text{igandean mendira joatea} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

Dena den, horrelakoetan perpaus txertatua egiazki perpaus dela suposatu behar dugu, bere IS eta guzti. Batetik, horrela interpretatzen ditugulako, alegia IS sujetua balute bezala. Eta, bestetik, (1)-en parean (2) ere badugulako eta hemen perpaus txertatua axalean ere sujetu eta guzti agertzen delako:

(2) a. Ez zait gustatzen $\left[\begin{smallmatrix} \text{haurrak mendira joatea} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

b. Erabaki dute $\left[\begin{smallmatrix} \text{gu igandean mendira joatea} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

Baina beste batzutan ezina gertatzen da perpaus txertatuaren sujetua axalean ere agerrereztea. Adibidez:

(3) a. Badakigu $\left[\begin{smallmatrix} \text{jendeari adarra jotzen} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

b. $\left[\begin{smallmatrix} \text{Ardoa erostera} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$ bialdu naute.

(4) a. *Badakigu $\left[\begin{smallmatrix} \text{zuk jendeari adarra jotzen} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$.

b. * $\left[\begin{smallmatrix} \text{Zuk ardoa erostera} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \right]$ bialdu naute .

Onartzen bada sakonean perpaus guztiek dutela sujetua, sujetu hori axaleratzen ez denean zer esan dezake gramatikak? Eta zer esan dezake, baita (1)-(2)-ko perpausetan gertatzen denaz eta zer, (3)-(4) perpausetan gertatzen denaz? Zeren bi gauza desberdinen aurrean gaudela baitirudi.

2.- Soluzioak.-

Hau dela eta, zenbait soluziobide proposatu izan dira teoriaren bilakaeran: bata¹ dio IS hori lexikalki gauzatua dela eta, perpaus nagusiko atalen baten erreferentzirikide delarik, EQUI izeneko transformazioa dela medio, ezabatua gertatzen dela axaleko egiturari. Besteen ustez, berriz, ez legoke inongo hitz txertakuntzarik IS adabegiaren azpian. Horren ordez, IS huts bat, $IS \begin{bmatrix} e \end{bmatrix}$ edo PRO idatziko litzatekeena izango genuke. IS huts horren interpretazioa indexatze erregelen bidez egingo litzateke.¹ Hau, jakina, aditz nagusiaren berezitasunekin lotua egongo litzateke. Baina ikus ditzagun astiroago arazo honi eskaini zaizkion soluzio hauek.


2.1.- EQUI eta Rosenbaum-en "Tarte txikienaren printzipioa".-

EQUI edo Izen Sintagma baliokidearen ezabaketa izeneko erregela (5)-eko egiturari aplikatuz, (6)-ko axaleko egiturara iritsiko ginateke:


(5) Jon saiatu da $\begin{bmatrix} \text{Jonek gauzak ondo egiten} \end{bmatrix}_{\text{P}} \xrightarrow{\text{EQUI}}$

(6) Jon saiatu da $\begin{bmatrix} \emptyset \text{ gauzak ondo egiten} \end{bmatrix}$

Transformazio horrek perpaus txertatuko sujetua ezabatzen du perpaus nagusiko izen sintagmaren bat eta ezabatua izango den izen sintagma erreferentzirikide direnean. Zuhaitz bidez:²



Izen sintagma horiek erreferentzikide ez badira, (8)-an bezala, ez da ezabaketarik gertatuko:



Honela formula liteke delako transformazio erregela

hori:

(9) T_{EQUI}

E.D.: $X - (IS) - Y - \left[\underset{P}{IS} - Z \right] - W - (IS) - R$

E.A.:	1	2	3	4	5	6	7	8
	1	2	3	$\emptyset$	5	6	7	8

Baldintza: $2 = 4$, edo $4 = 7$. Eta 2 eta 7, biak ezin daitezke hutsak izan.

Argumentu asko eman dira transformazio honen alde,³ baina transformazio hori, formulatua dagoen bezala, oztopo batekin aurkitzen da perpaus nagusian teorikoki behintzat bi IS ditugunean, honako adibideotan bezala:

- (10) a. Medikuak debekatu egin dio aitonari erretzea.
 b. Gure haurrei ez die maistrak bizikletan ibiltzen irakatsi.
 c. Isilik egoteko esan zidan Joxek.

Esaldi hauetan guztietan, perpaus nagusian bi izen sintagma aurkitzen ditugu. Eta posible da, berez, bakoitzari sakoneko egitura desberdina eskaintzea: batean EQUI bidez ezabatua izan den izen sintagma perpaus nagusiko izen sintagma baten erreferentziazikide dela suposatuz eta bestean, beste izen sintagmaren erreferentziazikide dela suposatuz:

- (11) a. Medikuak debekatu egin dio aitonari [Medikuak erretzea].
 b. Maistrak gure haurrei ez die [Maistra bizikletan ibiltzen] irakatsi.
 c. Joxek niri [Joxe isilik egoteko] esan zidan.
- (12) a. Medikuak debekatu egin dio aitonari [Aitonak erretzea].⁴
 b. Maistrak gure haurrei ez die [Gure haurrak bizikletan ibiltzen] irakatsi.
 c. Joxek niri [Ni isilik egoteko] esan zidan.


Euskaraz dakienak ongi daki (10)-eko perpausei dagokien

sakoneko egitura ez dela (11)-koa, (12)-koa baizik. Hori da interpretazio zuzena, normalki behintzat.⁵ Baina gramatikak nola ziurta dezake hori? Izen sintagma ezabatua izan omen denez, jakin egin behar dugu zein izan den ezabaketa hori gertarazi duen perpaus nagusiko izen sintagma. Ezabaketa hori perpaus nagusiko izen sintagma batek kontrolatzen duenez, kontrolatzailea zein den ziurtatu behar digu gramatikak. Honi deitzen zaio, hain zuzen, kontrolaren arazoa.

Arazo honi Rosenbaum-ek irtenbidea aurkitu zion. Hark zioen, izen sintagma kontrolatzailea automatikoki hauta daiteke zuhaitzaren egituraren arabera. Hain zuzen, ezabatua izango den izen sintagmarengandik hurbilen dagoen izen sintagma izango omen da kontrolatzailea: "An NP_j can be erased by the identity erasure transformation just in case there is some sentence S_α (a complement sentence) such that (1) NP_j is dominated by S_α ; (2) NP_i neither dominates nor is dominated by S_α ; and (3) for any NP_k which neither dominates nor is dominated by S_α , the distance between NP_j and NP_k is greater than the distance between NP_j and NP_i (where the distance between two nodes is defined in terms of the number of branches in the path connecting them"

dio Rosenbaum-ek.⁶

Printzipio honen arabera, hortaz, ezabaketa kontrolatzen duen izen sintagma perpaus txertatuko sujetutik hurbilen aurkitzen den (hots: bitartean abar gutxien dituen) perpaus nagusiko izen sintagma izango litzateke. Adibidez, lehengo (10a) perpausean kontrolatzailea [aitonari] dugu eta ez, [medikuak], azken honen eta perpaus ^{IS}txertatuko sujetuaren artean ^{IS}abar gehiago dagoelako aitonari eta perpaus txertatuko sujetuaren artean baino?⁷




Ezina da P_1 -eko sujetutzat aitona ez den bat pentsatzea, medikua adibidez. "Tarte txikienaren printzipioak" honen berri ongi ematen du: IS_1 -en eta IS_3 -ren artean lau abar ditugun bitartean, IS_2 -ren eta IS_3 -ren artean hiru baizik ez ditugu.

Hala ere, printzipio honek ez du behar bezala funtzionatzen. Badira kasuak, adibidez, abar kopuru bereko tarteak uzten duten bi izen sintagma desberdin dituztenak. Horrelakoetan zein ote kontrolatzailea?

Printzipio honek, bestalde, ez du funtzionatzen PROMISE 'agindu' bezalako aditz batekin. Kasu honetan kontrolatzailea ez baita hurbilen dagoen izen sintagma, ondoko perpausean ikusten denez. Alegia, kontrolatzailea ez da NIRI, ANDONIK baizik:

(14) Andonik niri [Andoni etortzea] agindu zidan.⁸



Bestalde, zenbait aditzekin ezin da izen sintagma kontrolatzaile bakarraz hitzegin:

(16) Andonik etxean gelditzea proposatu zidan perpausean, zein ulertu behar da etxean gelditzea-ren sujetutzat? Badirudi ezabatua izan dena Andoni nahiz ni izan daitekeela. Eta baita beste hirugarren bat ere. Orduan, ezabaketa hori badela onartzen bada, nola esplikatu gorago eman dugun erregelaren arabera kontrolatzailea perpaus nagusiko edozein izen sintagma izatea edo, okerrago dena, ez bata ez bestea, ez dela kontrolatzailea, perpaus nagusian ageri ez den -baina testuinguruan nonbait agertuko den- izen sintagma bat dela baizik? Horrelako kasuak oso ugari ditugu euskaraz. Kasurik gehienetan lekua hutsik nahiz beste izen sintagma lexikal batez beterik ager daiteke. Hutsik ageri den guztietan EQUI bidez ezabatua izan dela onartu behar ote dugu? Ezetz dirudi. Bestela, nola eman (16) perpausa bezalako baten berri? Bestalde, (17) ere hor dugu:

(17) Andonik BERA joatea proposatu zigun.

Hemen argi dago Andonik eta bera erreferentzizikidetzat interpretatzen ditugula normalki. Hala ere, ez da inongo ezabaketarik gertatu. Hortaz, bi ezabaketa mota ditugula konturatu behar dugu, aurrerago ikusiko dugun bezala.

Izan ere, EQUI erregelaren zeregina bikoitza izan da Gramatika Sortzailearen historian zehar: batetik infinitiboa denboradun aditzetatik erakarri ahal izatea;⁹ eta bestetik, izenordainen agerpena esplikatzeko. Baina euskaraz aditz mugagabedun perpaus txertatuak horrelaxe sortarazi behar direla ikusi dugu, perpaus horiek sujetu lexikal batekin ere ager baitaitezke gehienetan. Hortaz, nahikoa aidean bezala gelditzen dela dirudi gure EQUI transformazio erregela hau.

Bestalde, badira orain arte begien aurrean izan ditugun perpausen egitura bertsua duten perpausak baina EQUI-rentzat lekurik uzten ez dutenak perpaus nagusian inongo izen sintagmarik agertzen ez denez gero:

(18) Komeni da gauzak argi uztea.

Hemen, EQUI-ren ordez, izen sintagma zehaztugabearen ezabaketa edo proposatu beharrean aurkituko ginateke.¹⁰

Hortaz, arazoak ugari. Bestalde, kontrolatzailea zein izan behar duen erabakitzeko Rosenbaum-ek ematen duen printzipio mekaniko horrek ere ez du behar bezala funtzionatzen. Eta, hitz batean esateko, Hernanz-ek ongi dioen bezala, kontrolaren arazoiari sintaxi ikuspegi soiletik eskaini dakizkiokeen irtenbide guztiek era berean porrot egingo dute.¹¹

Alde honetatik, problema bera dute bai Postal-en eta bai G. Lakoff-en soluziobideek. Azken honek, adibidez, erabateko salbuespen positibo gisa tratatzen zituen EQUI derrigorrezkoa zuten aditzak.¹² TRY 'saiatu' bezalako aditz batek bere mende doan perpausoko sujetua eta sujetu nagusia bat izatea eskatzen du. Horrek esan nahi du EQUI transformazioak eskatzen duen Egitura Deskribapena nahitaezko duela TRY aditzak. Kasu hauek, hortaz, Lakoff-entzat salbuespenak direnez, arauz kanpokoak lirateke.

2.2.- Jackendoff-en teoria interpretatibista.-

EQUI bidezko analisi batek berekin dituen arazoak ugari direla esan dugu, eta erregela hori albora utzia izan da jadanik, beste transformazio erregela asko bezala. Hutsik agertzen den IS-ren lekua sakoneko egituren ere inongo izen sintagma lexi-
kok betetzen ez duela suposa daiteke. Leku hori PRO batek betetzen duela pentsa daiteke, alegia "hotsik ez duen" izenordain huts batek.

Hori suposatuz gero, aurkezten zaigun arazo bakarra PRO horren erreferentzia zehaztea izango litzateke. Batzutan perpaus nagusiko izen sintagma baten erreferentzia bera izango du eta besteetan erreferentzia arbitrarioa, (19) eta (20) perpausetan bezala:

(19) Joxeri sua itzaltzea ahaztu zaio.

(20) Gauzak bere lekuan uztea komeni da.

Perpaus hauek funtsean egitura bera izango dute:

(21) a. [PRO sua itzaltzea] Joxeri ahaztu zaio.

b. [PRO gauzak bere lekuan uztea] komeni da.

AHAZTU kontrol aditz bat dela onartuz,¹³ (21a)-n PRO-ren aurrekoa edo antezedentea zein den interpretatzean dago kakoa. Kasu honetan Joxeri axaleko zehar objetua izango da aurreko hori. (21b)-n, berriz, normalki PRO hori zehaztugabetzat interpretatuko dugu.

EQUI-ren arazo nagusia -dio Jackendoff-ek- da erregela horrek bere Egitura Deskribapenean bi izen sintagmak erreferentzi indize berdinak izatea eskatzen duela. Baina teoria interpretatibistak dio erreferentzikidetasuna zer semantiko bat dela eta, horrenbestez, ez dagokiola inongo erregela sintaktikori. Teoria interpretatibistari eutsi nahi badiogu, beharrezko izango da perpaus txertatuko sujetuaren ezabaketa erreferentzikidetasunaren berri osagai semantikoan emanaz tratatzea.¹⁴ Arazoa, hortaz, perpaus txertatuaren sujetutzat eman dugun PRO horren erreferentzia finkatzea da. Hori da, azken batean, kontrol arazoa. Adibidez, honako perpaus honetan:

(22) Jonek (ni) etxetik alde egitera behartu ninduen.

garbi dago ni dela behartu ninduen-en objetua, aditzaren komuntadurak ongi erakusten duen bezala. Beraz, (22)-ren sakoneko

egitura (23) izango litzateke:

(23) Jonak ni [PRO etzetik alde egitera] behartu ninduen.

Perpaus hau zuzen interpretatu ahal izateko, PRO-ri "aurreko" edo antezedente bat bilatu behar zaio. Chomsky 1965-ek erreferentzirikidetasuna markatzeko bide bat eskaini zuen: IS bakoitzak indize bat darama itsatsia, eta bi IS erreferentzirikideak izango dira baldin eta indize bera badute. Hala ere, Jackendoff-en ustez, formalismo hau albora utzi behar da. Horren ordean, erreferentzirikidetasun erlazioak esplizitoki adieraziko dira erreferentzirikidetasun taula batean. Taula honetako sarrera bakoitza IS pare batez eta "erreferentzirikide" edo "ez erreferentzirikide" zehaztapen batez osatua egongo da. Interpretazio semantiko oso batean, taulak perpausko izen sintagma pare bakoitzeko sarrera bat izango du. Zenbait erregela semantikok taulan jadanik badiren sarreretara bidai gaitzakete, baina ez transformazio erregelak. Gure kasuan, perpaus txertatuko IS-ri dagokionez, honako erregela hau izango genuke, erreflexibatzearen oso antzekoa berau:¹⁵

(24) Ezar taulan:

IS¹ eta IS² &erreferentzirikideak dira, baldin eta IS² -T(Z)E konplementuaren sujetua bada, eta IS¹ oraingo zikloko perpaus nagusian badago, eta IS² eta PRO &berdinak badira.

DERRIGORREZKOA.

Baina erregela honek ziurtatzen al digu perpaus nagusian izen sintagma bat baino gehiago dugunean "aurreko" egokia aukeratzeko bidea? Eta, izen sintagma bakarra baldin badugu ere, euskararen kasuan, nola dakigu hutsik agertzen den izen sintagma horrek goiko perpausaren duela aurrekoa eta ez, adibidez, zeharo librea duela interpretazioa?¹⁶

Har dezagun kontutan honako perpaus hau:

(25) Joxe [PRO irakasleari erantzutera] ausartu da.

Perpaus honen interpretazio zuzena, nahi eta ez, PRO eta Joxe izen sintagmak erreferentzikidetzat hartzen dituen da. Derrigorrezko erreferentzikidetasun hori AUSARTU aditzaren ezaugarria izango litzateke. Lakoff-entzat kontu hauek salbuespenak ziren. Kasu honetan, salbuespen positiboa, EQUI transformazioak eskatzen duen egitura deskribapena nahi eta ez betetzea eskatzen baitu. Baina perpaus txertatuko sujetua eta perpaus nagusiko izen sintagma bat erreferentzikideak izan beharra ez da salbuespen bat, aditz bakoitzari dagokion erreferentzikidetasun jokoaren ondorio logikoa baizik: (25) perpausean bi izen sintagmak erreferentzikideak izan behar badute, bidezko dirudi aditz nagusiaren semantikari begiratzea. Ezin pentsa badaiteke ere Joxe ausar daitekeela beste norbaitek zerbait egitera, semantikazko inkongruentzia baten aurrean aurkituko baikinake, arrazoiak aditz nagusian bertan bilatu beharko da. AUSARTU aditza ezagutzen duen euskaldunak, egiazki ezagutzen badu, badaki aditz horrek eskatzen duen zerbait dela bi izen sintagmak bat izatea.

Hortaz, aditz bakoitzaren ezaugarrien artean sartuko litzateke kontrolatzailea zein izango den finkatzea. Hau Jackendoff-ek erreferentzikidetasun sareak ('networks of coreference') ezarritik lortzen du. Sare horiek esango digute AUSARTU-ren kasuan, adibidez, Joxe eta PRO-k erreferentzikide izan behar dutela perpausa ongi eratua egongo bada. Derrigorrezko erreferentzikidetasun hau ez dagokio perpaus txertatuen sujetuari bakarrik. Esapide asko dira, adibidez, derrigorrezko izenordainak edo posesiboak eskatzen dituztenak. Ingeleseko bat aipatzekotan, hona hemen hau:

(26) Bil took Mary at $\left\{ \begin{array}{l} \text{her} \\ * \text{his} \\ * \text{Walt's} \end{array} \right\}$ word.¹⁷

Euskaraz ere, (27) esaten duenak:

(27) Asmo handiak ditut buruan.

noren buruan esaten ez badu ere, argi dago zer esan nahi duen perpaus horrek. Eta argi dago, baita ere, ezin esan daitekeela edo zentzu handirik ez duela behinipehin, (28) bezalako zerbaitek:

(28) ??Asmo handiak ditut zure buruan.

Esapide hauetan, aditzaren edo esaeraren esanahiak eskatzen du bi izen sintagmak erreferentzirikideak izatea. "In a sense the second NP is redundant semantically, but it is present because of the syntactic vagaries of the expressions. If the two NPs are referentially distinct, the semantic reading comes out wrong, in that there are two individuals in evidence where the verb presupposes only one" dio Jackendoff-ek¹⁸ (26)-koaren tankerako esapideei buruz.

Aditz bakoitzaren sarrera lexikalean erreferentzirikidetasun sare bat jartzen badugu, sare honek ongi-eratzte-baldintza (= 'well-formedness condition') modura jokatuko du delako aditz hori daraman perpausaren irudikatze semantikoari buruz. Ongi-eratzte-baldintza honek eskatzen du zenbait izen sintagma erreferentzirikide izatea; eta baldintza hau urratu egiten dugu baldin eta bi izen sintagmak bere aldetik erreferentzirikidetasun erregelek ez-erreferentzirikidetzat markatuak direlarik, baldintza horrek erreferentzirikide izatea eskatzen duen leku semantikoak betetzen jartzen baditugu. Erreferentzirikidetasun sareak erreferentzirikidetasun debekuak dituen aditz bakoitzaren hiztegi sareraren agertuko dira. Aditzak erreferentzirikidetasun sarerik ezar-

tzen ez duenean, perpaus txertatuaren sujetuaren lekua edozein izen sintagmak bete dezake, euskaraz. Hutsik ere agertuko zaigu behin baino gehiagotan. Baina, aditza kontrol aditza ez denez gero, bilatu egin beharko da testuinguruan -eta, baita, jakina, perpaus nagusian ere- zein izan daitekeen hutsik agertzen den izen sintagma horren erreferentzia.¹⁹

Adibidez, IKASI-ren kasuan, erreferentzikidetasun sare horrek zehaztu beharko digu aditz hori ageri den perpausa semantikoki ongi eratua egoteko, IKASI-ren sujetua eta perpaus txertatuaren sujetua erreferentzikide behar dutela. Zehaztapen hau IKASI-ren hiztegi sarreran emango da eta, horrela, debeku hauek ezartzen dituzten aditz guztien kasuan.

Baina erreferentzikidetasun sareak erlazio tematikoen gainean zehazten dira eta ez, gramatika edo egitura erlazioen gainean. AGINDU-k (eta ingelesez, promise-k), aditz mugagabeko perpaus konplementua onartzen duen neurrian,²⁰ kontrolatzailea iturria (= 'source') izatea eskatzen du, helburua ('goal') agertu nahiz agertu ez:

(29) a. Agindu zenuen obra onekin argi egitea.

b. Zuk obra onekin argi egitea agindu zenion Jainkoari.

UTZI aditzak, berriz, perpaus nagusiko helburua ezarriko du kontrolatzaile modura:

(30) Andonik beti uzten dit(niri)bere liburutegian ibiltzen.

BEHARTU aditzaren kasuan, Thema delakoa izango da kontrolatzailea:

(31) Gorkak Koldo bere autoa saltzera behartu zuen.

Hemen Gorka ajentea, egilea, litzateke; Koldo eta autoa, Thema. Eta, azkenik, autoa saltzea perpaus txertatua, helburua. Posible da, hortaz, dio Jackendoff-ek erlazio tematikoez baliatuz izen sintagma kontrolatzailearen lekua zein den finkatzea, markatze soil

baten bidez. Horrela bereziko genituzke aditz klase desberdinak salbuespenetara jotzeko premiarik gabe. "The crucial cases showing that thematic relations are the correct device for get and promise, which have an optional element in the VP. If all verbs with an optional NP behaved like promise, maintaining a fixed control position when the optional object is added, this could argue that grammatical relations determine control. If all such verbs behaved like get, switching the control position when the object is added, this could argue that some restricted variant of the distance principle determines control. But the fact that both types occur, correlated exactly with differences in thematic relations, argues that thematic relations are the factor determining control." ²¹

Erreferentziki-detasun sareak erlazio tematikoen gainean definitzen direlarik, ongi esplikatzen ahal dugu, adibidez, IKASI-ren sujetua izatea kontrolatzailea, baina IRAKATSI-ren zehar objektua:

- (32) a. Andonik, ez du oraindik [PRO₁ eskiatzen] ikasi.
 b. Irakasleak₁ ez dio oraindik Andoniri₂ [PRO₂ eskiatzen] irakatsi.

Azken batean, IRAKATSI IKASI-ri dagokion aditz erazlea denez, IKASI-ren sujetu gramatikalak eta IRAKATSI-ren zehar objektuak paper tematiko bera dute. Beraz, kasu batean eta bestean kontrolatzaileak paper tematiko bera betetzen du, legezkoa den bezala.

Gainera, soluziobide honek beste alde on bat ere badu, eta hau da seguru asko unibertetsala den erreferentziki-detasun erlazioen berri ematen digula. Osagai semantikoari utziko zaio perpaus baten erlazio tematikoak erakartzea sakoneko egituratik. Eta garbi dago perpauseko aditzak finkatzen duela erlazioa:

"The lexical entry of a verb must correlate grammatical and thematic relations" dio Jackendoff-ek.²²

2.3.- Chomskyren soluziobidea.-

Arazo hauek Chomskyren Government and Binding (= 'gobernu eta uztardura') izeneko teoriaren barnean ere badute lekua. Hala ere, funtsean ez du ematen Jackendoff-en prebisioetatik askoz aurrerago joan daitekeenik, zeren kontrol teoria hau hein handi batean eginkizun dugu oraindik, Chomskyk berak aitortzen duenez.²³ Bestalde, Chomskyk berak dio: "A natural suggestion is that choice of controller is determined by θ -roles or other semantic properties of the verb, or perhaps pragmatic conditions of some sort".²⁴

Perpaus bateko izen sintagmak libreki indexatzen baditugu, indize hori edozein zenbaki oso delarik, bi aukeraren aurrean aurki gaitzke: a) edo bi izen sintagma, edozein, indize berarekin hornituak agertuko zaizkigu, edo b) indize desberdina eramango dute. Indize bera daramaten IS-ak erreferentzikidetzat ematen direnez, perpaus bateko edozein izen sintagma interpreta liteke erreferentzikide nahiz ez-erreferentzikidetzat. Beraz, perpaus bati inolaz ere izan ez dezakeen interpretazioa ezarri liezaiokete. Adibidez:

(33) Guk₁ elkar₂ maite dugu.

(33) perpausak izan dezakeen interpretazio bakarra, hala ere, ez da horko indize horiek aditzera ematen dutena, guk eta elkar-ek erreferentzikideak izan behar baitute, nahi eta ez. Horregatik, indexatze zuzena ez da (33)-koa, honako beste hau baizik:

(34) Guk₁ elkar₁ maite dugu.

(33) bezalako interpretazio okerrak baztertzeko, Chomskyk zenbait uztardura baldintza eskaintzen dizkigu:

A.- Anaforak uztartua izan behar du bere gobernu kategorian.

B.- Izenordainez osatutako IS-a aske izango da bere gobernu kategoriaren barruan.

C.- IS lexikal bat aske izango da beti, nonnahi.²⁵

(33) eta (34) perpausetara itzuliz, garbi dago ELKAR, anafora denez, dagokion gobernu kategoriaren barnean uztartua aurkituko dela, aurreko batekin uztartua, hain zuzen. Eta jakina, aurreko posible bakarra GUK denez, interpretazio zuzena ez da (33), (34) baizik.

Printzipio edo baldintza hauek bi esapide kategoria bereizten dituzte: anaforak eta izenordainak. A printzipioa anaforei dagokie. B printzipioa izenordainei.

Esan dugun bezala, kontrol teoria delako horrek ez dakigu zehazki nola lan egin behar duen, ez eta ere ba ote duen zer ikusirik uztardura teoria honekin. Hala ere, hizpidea eman diguten PRO horiei buruz ere zerbait esan beharko dugu.

3.- PRO eta pro.

Uztardura teoria zuzena bada, dio Chomskyk, lau esapide mota posible izango ditugu:

- a. [+ anafora, - izenordaina]
- b. [- anafora, + izenordaina]
- c. [+ anafora, + izenordaina]
- d. [- anafora, - izenordaina]

[+anafora] eta [+izenordaina] denari PRO deitzen dio Chomskyk. Eta bada, honekin batera pro deitzen duen esapidea ere. Honen bereiz-

garriak [-anafora, +izenordaina] izango lirateke.

PRO eta pro, biak, kategoria hutsak dira, fonetikoki hutsak, alegia. Baina "hotsik" ez badute ere, izenordain dira azken batean, bestelako izenordainek bete dezaketen lekua betetzen dutelako, hain zuzen.

PRO-k [+izenordain] eta [-anafora] tasunak dituenaz, esan nahi du kontrolatua egongo dela perpaus mugagabe baten sujetu gisa ageri denean. Hau litzateke, orain arte EQUI transformazioaren ondorioz hutsik agertzen omen zen lekua betetzen duen izenordaina. Hortaz, PRO hau litzateke kontrol teoriak tratatu behar duen gaia.

Baina pro [-anafora] denez, kontroletik kanpo gelditzen da, ez dago kontrolatua. Beste edozein izenordain bezalakoa izango litzateke. Bakar bakarrik diferentzia bat: hutsa dela, ez duela hotsik.


PRO eta pro ez dira hizkuntza guztietan gertatzen. Ingelesean, adibidez, PRO bada, baina ez pro. Gaztelanian, edo italianoan, berriz biak. Eta euskaraz zer? Ondoko lerroetan PRO eta pro-ren arteko banaketa berezia aztertzen saiatuko gara, ez, noski gaia agortzeko asmoarekin -gauzak zoritxarrez ilunegi baitaude-, euskarak teoriari eskaini diezazkiokeen datuak azaltzeko asmoz baizik.

Eman dezagun honako perpaus honetan agertzen den IS hutsa PRO dela:

(35) Jonak ni [PRO etxetik alde egitera] behartu ninduen.

Euskaraz dakienak badaki PRO-ren interpretazio bakarra kasu honetan ni aurrekotzat hartzen duena dela. Hori da, hain zuzen, kontrol teoriak esan behar ligukeena. Baina kontrol teoria oraindik ere oso gordinik dagoen zerbait da, are gordinago -nik

uste- euskararen ikuspegitik begiratzan badiogu arazoari. Manzini²⁶ dioenez, kontrol teoria teoria konfigurazionala da. Eman dezagun euskara hizkuntza konfigurazionala dela. Baina, euskarari dagokion bezanbatean, hizkuntzalari honen ingelesari buruzko prebisioak ez dira betetzen. Bere ustez, kontrolaren teoria teoria konfigurazionala delarik, desberdin jokatzen omen dute objetuaren lekuan txertatutako perpaus mugagabeek eta sujetuaren lekuan txertatutakoek. Adibidez, honako konfigurazio honetan agertzen den PRO uztartua omen dago S barruan:



"A PRO in an object sentence of a sentence S is bound in S" dio Manzini-k.²⁷ Eta kontrolatzailea sujetua ala objetua izan behar duen semantikazko arrazoiek mugatzen omen dute.

Eta, hain zuzen, badira euskaraz objetuaren lekuan ageri diren perpaus mugagabeak, sujetuaren lekua hutsik izan arren, goiko perpausoko izen sintagma batek kontrolatuak ez direnak. Adibidez:


- (37) a. Pentsatu dugu [- joatea]²⁸
 b. Nahi dugu [- isilik egotea]
 c. Proposatu zidaten [- zinera joatea]

Perpaus hauetan, beste testuingururik ezean, goiko perpausoko izen sintagma baten erreferentzirikidetzat ulertzen da hutsik dagoen sujetu hori, baina ez litzateke oso zaila izango

sujetu huts horren erreferentzia bestelakoa izango litzatekeen egoera bat asmatzea.

(37)-an agertzen diren aditzak, lehen begiratu batean bestela badirudi ere, ez lirateke izango kontrol aditzak. Horrenbestez, perpaus hauen sujetua ere ez litzateke PRO izango, PRO honek Chomskyren arabera kontrolatua izan behar baitu edo bestela erreferentzia arbitrarioa izan behar baitu, pro baizik. Hor-taz, badirudi pro ez dela bakarrik perpaus mugatuetan agertzen bestelakoetan ere bai, (37) perpausek aditzera ematen dutenez.

Manziniaren teoriara berriro itzuliz, beste honako kon-figurazio honetan, hots:



"A PRO in a subject sentence (co)refers freely".²⁹

Baina hemen ere aurki litezke sujetuzko perpaus mugaga-beak non PRO sujetua kontrolatua dagoela ematen duen. Adibidez:

(39) Sua itzaltzea ahaztu zitzaion aitonari.³⁰

Eta berdin, beste adibide honetan ere:

(40) Sua itzaltzea asko kosta zitzaion aitonari.

Hemen bai, PRO derrigor kontrolatua daukagula esan liteke.

4.- Euskararen datuak.-

Gauzak dauden lekuan daudelarik, gehienez ere esan daitekeena, edo euskarari buruz kontrol teoriak esan beharko lukeena hau litzateke: euskaraz perpaus txertatua sujetuaren lekuan egon nahi objektuaren lekuan egon, berdin dio, kontrolaren aldetik behintzat. Euskarari buruz egin beharko genituzkeen oharrek honako hauek dira:

1) Lehenbizi, jakin behar da ea zeintzu diren derrigorrezko kontrola edo, ezartzen duten aditz nagusiak. Bereziki inésiboa eta adlatiboa eskatzen duten aditzak sartu beharko ditugu sail honetan: JAKIN, IKASI, SAIATU, HASI,³¹ ... AUSARTU, BEHARTU, eta ETORRI, JOAN, ERAMAN eta antzeko mugida aditzak:

- (41) a. Ez zekien Andonik [PRO isilik egoten]
- b. Saiatuko naiz [PRO gauzak hobeki egiten].
- c. Andoni [PRO tabakoa erostera] joan da.
- d. Peruk elefante bat ikusi zuen [PRO elizara sartzen].

Hemen ez da posible PRO-ren lekuan beste izenordainik edo izen sintagma lexikorik sartzea:

- (42) a. *Ez zekien Andonik [gu isilik egoten].
- b. *Saiatuko naiz [zuk gauzak hobeki egiten].
- c. *Andoni [Peruk tabakoa erostera] joan da.
- d. *Peruk elefante bat ikusi zuen [amona elizara sartzen].

EKIN, AHAZTU eta KOSTA(TU) ere hemen sartu beharko genituzke, zeren, dirudienez, hauetan ere perpaus txertatuko sujetua PRO izaten baita, derrigorrez kontrolatua dagoen PRO nahiz, (43d)-n bezala, erreferentzia arbitrarioa duena:

- (43) a. Txinoera ikasteari ekin zion Jonek (= [PRO txinoera ikasteari] ekin zion Jonek.)³²

- b. Ahaztu egin zitzaidan leihua ixtea (= ahaztu egin zitzaidan niri [PRO leihua ixtea]).
- c. Asko kosta zitzaidan txinoera ikastea (= Asko kosta zitzaidan niri [PRO txinoera ikastea].)
- d. Asko kostatzen da txinoera ikastea (=asko kostatzen da [PRO txinoera ikastea].).

Hortaz, hauetan garbi legoke PRO-ren aurrean gaudela eta ez pro-ren aurrean.

2) Kasu hauetatik aparte, badirudi perpaus mugagabearen sujetua izen sintagma lexiko bat duela nahiz hutsik, ager daitekeela:

- (44) a. Erabaki dut joatea.
- b. Gustatzen zaio bere burua agertzea.
- c. Ez zait komeni ardoa edatea.
- d. Zu hemen ikusteak poz handia eman dit.
- e. a.

(44)-ko perpaus hauetan, normalki perpaus txertatuko sujetua goiko perpausaren izen sintagmaren baten erreferentzirik gisa ulertuko dugu. Hala ere, interpretazio hori ez da derrigorrezkoa. Adibide bat jartzeko, pentsa dezagun GUSTATU aditzeari. Batek (45) esaten badu:

- (45) Ez zait gustatzen neskekin ibiltzea.

eta bestelako testuingururik ez badugu, perpaus hori neskekin ibiltzea aditz sintagmaren sujetua neu naizela ulertuko genuke. Hala ere, ez da zaila bestela interpretatzera bultzatuko gintuzkeen testuinguru bat pentsatzea. Pentsa dezagun, adibidez, ama bat errieta ematen ari zaiola bere semeari nes karen batekin ikusi duelako. Oso normala litzateke (46) bezalako zerbait esatea:

(46) Zenbat bider esan behar dizut ez zaidala gustatzen neskekin ibiltzea?!

Perpaus honen barnean (45) perpausa aurkitzen da, baina kasu honetan ez genuke lehen bezala ulertuko. Eta hori, gainera, zu izenordaina agerian jarri beharrik gabe, zilegi balitz ere agerrereztea.

Jakina, hau lotua dago aditz hauek menpeko perpaus konplementuari izen sintagma lexikoa agertzen uztearekin. Alegia, (44)-eko perpausen parean guztiz zilegi dira (47)-koak ere:

- (47) a. Erabaki dut denok joatea.
- b. Gustatzen zaio ikasleak garaiz etortzea.
- c. Ez zait komeni zuk ardoa edatea.
- d. Peru Londresera joateak poz handia eman dit.

Derrigorrezko kontrola ezartzen ez duten aditz hauen konplementuan aditz mugatuzko perpausetan, eta, bereziki -paralelotasuna gordetzeko- aditz mugatuzko perpaus konpletiboetan, gertatzen den gauza bera gertatzen dela esango nuke. Adibidez, har dezagun kontutan (48) perpausa:

(48) Etorriko dela esan dit Itziarrek.

Nor da hemen etorriko dena? Itziar? Testuinguru zabala-goaren faltan, noski, horrela ulertuko genuke perpaus hori, baina testuinguru aiposean, testuinguru horrek lagunduko liguke, adibidez, etorriko da-ren sujetua Itziar ez, beste norbait baizik, dela pentsatzeko. Eman dezagun eztabaidatzen ari garela ea aita etorriko den ala ez. Badakigu, hortaz, aitzaz ari garela. Hau litzateke mintzagaia, informazio ezaguna.³³ Eta orduan, batek (48) esanez gero, dudarik gabe (49) modura ulertuko genuke perpaus hori, baina (49) esan beharrik gabe, alegia sujetua agerian nahi eta ez jarri beharrik gabe:

(49) Aita, etorriko dela esan dit Itziarrek.

Hortaz, hemendik atera daitekeen ondorioa aski argia da. Euskara pro-drop erako hizkuntza bada,³⁴ perpaus mugatuetan pro era-ko esapide nominalak agertzeko problemarik ez dugu. Chomskyren arabera, pro [-anafora, +izenordaina] dugu. Eta hemen agertu dugunaren arabera, perpaus mugagabeetan ager daitekeen -edo hobeki esanda, ezkutuan dagoen- izen sintagma hori ere pro izango da. Beraz, pro euskaraz ager daiteke bai aditz mugatua duten perpausetan, bai aditz mugagabea dutenetan ere. Eta, gainera, gauzak horrela jartzea askoz sinpleago dela dirudi, perpaus konpletibo guztiak era berean tratatuko baikenituzke, aditz nagusiak besterik agintzen ez duen bitartean behintzat, hots: aditza derrigorrezko kontrola ezartzen dutenetakoa ez bada. Alde horretatik, ezin onartuzkoa iruditzen zait O. de Urbinak dioena: "It seems that the arguments in nominalized expressions may be either R-expressions or PRO's (not pro's): only PRO can be controlled and have arbitrary reference. This distribution of PRO and pro is predicted in our analysis: the only governor at D-structure is INFL, with its agreements features. In tenseless clauses there will be no governor, and PRO's are then possible since they will be ungoverned. The absence of Pro's is also a consequence of the absence of AGR: Pro's cannot be locally determined by AGR in tenseless clauses. Thus, missing subjects, for instance, are not interpreted as referential empty pronouns, but rather as anaphors, depending on external controllers for reference".³⁵ Gauzak ez daude hain garbi. Ikusi dugunez, perpaus mugagabeetan, mugatuetan bezalaxe, posible da pro-ak izatea.

3) Dena den, euskara hizkuntza konfigurazionala baldin bada, ez dago batere argi zernolakoa izan beharko lukeen kontrol teoria horrek, Aditz nagusiaren semantikak agintzen duela dirudi arazo honetan. Aditz jakin batzuk izango dira, hain zuzen, derri-

gorrezko kontrola ezartzen dutenak. Era berean, semantikazko arrazoiak daudela esan liteke kontrolatzailea sujetua ala beste izen sintagmaren bat izango den erabakitzen dutenak. Hortaz, oraingoz behintzat, ez dirudi gramatikak aditzen sailkapen soila baino askoz gehiago eskaini dezakeenik. Hiru aditz klase izango genituzke: 1) Kontrolik ezartzen ez dutenak; 2) sujetua ezartzen dutenak kontrolatzaile, eta 3) sujetua ez den beste izen sintagmaren bat ezartzen dutenak kontrolatzaile modura. Hau aditz edo predikatu bakoitzaren sarrera lexikoan zehaztua etorriko litzateke. Jakina, soluzio honek ez dizkigu gauzak zeharo esplikatuko. Batez ere, gure lana aditz bakoitza hiztegian era batera edo bestera markatzera mugatzen bada. Hori zeharo ad hoc izango litzateke eta inolako ahalmen esplikatiborik ez luke izango. Izan ere, batek galdetuz gero "Nola dakizu IRAKATSI-k objetua ezartzen duela perpaus txertatuko PRO horren kontrolatzaile?", ez dirudi oso erantzun argia litzatekeenik honako honen antzeko zerbait esatea: "Horrela zerrendatua aurkitzen delako hiztegian". Bestalde, kontrola lexikoirako bialtzeak esan nahi duelako kontrola inolaz ere aurrean ezin daitekeen fenomeno dela, arbitrarioa, araupean sartu ezin daitekeena. Eta badirudi hau ez dela egia. Kontua da, aditz bat ikasteak, bat hizkuntzaren jabe egiten denean, aditz horren erabilerak berekin dakartzan katramila guztiak ere ezagutzea dakarrela berekin. Horregatik, aditz baten esanahia jakiteak kontrolari buruz nolakoa den ere jakitea dakar.³⁶ Dena dela, badirudi aditz multzorik ugariena lehenbizikoa dela, alegia, kontrolik ezartzen ez dutenak. Beraz, euskal konplementazioaren barruan pro gehiagotan aurkituko dugu PRO baino. Kontrol aditzak, hortaz, oso gutxi ditugu.

Baina hau dela eta, beharrezko ikusten dut aditz klase bati buruzko oharño bat egitea. Esan dugu nola inesiboan eta adla-

tiboan doazen aditz izenezko perpaus txertatueta, eta beste bakarren batzuetan ere bai, sujetua nahi eta ez kontrolatua dela. PRO, beraz. Eta zer gertatzen da -KO atzizkia dutenekin? Alegia, agindua adierazten dutenekin?

Lehen begiratu batean, horrelako konplementuak ametitzen dituzten aditzak kontrol aditzak direla ematen du:

(50) Aitak Andoniri etortzeko esan zion.

Perpaus hau entzuten duenak ez du zalantza handirik izango. Perpaus hau (51) gisa ulertuko dugu:

(51) Aitak Andoniri₁ [PRO₁ etortzeko] esan zion.

Hortaz, pentsa liteke ESAN (eta era berean, AGINDU, ESKATU, ERREGUTU, eta abar) kontrol aditza dugula eta, gainera, zehar objektua ezartzen duena kontrolatzaile gisa. Baina (52) gramatikala baldin bada:

(52) Berak egiteko esan nion, nahi bazuen.

garbi dago perpaus txertatuko sujetuaren lekua ez dagoela hutsik, nahiz eta perpaus nagusiko izen sintagma baten erreferentzikidea izan. Hain zuzen, honek perpaus mugatueta gertatzen dena bera dirudi, zeren (53)-ko bi perpaussek zeharo interpretazio desberdina izango lukete:

(53) a. Anak uste du hura dela politena (Anak_i ≠ hura_j)

b. Anak uste du bera dela politena (Ana_i = bera_i edo
Ana_i ≠ bera_j)

Jakina, (54)-k ez luke normalean inolako zalantzarik interpreta-
zioaren aldetik, berez bi eratara uler badaiteke ere:

(54) Anak uste du politena dela.

Hortaz, (52) gramatikala bada -eta hala dirudi, galde-
tu diedanek ontzat eman baitidate- esan nahi du (50)-ren egitura

ez dela (51), (55) baizik:

(55) Aitak Andoniri [pro etortzeko] esan zion

Eta, horrenbestez, ESAN eta honen klasekoak ez lirateke kontrol aditzak izango. Era berean, (50) zilegi bada, (56) ere zilegi beharko genuke:

(56) Aitak Andoniri [gu etortzeko] esan zion.

Perpaus hauek, bereziki (56), bitxi samarrak badira ere, pentsatzen jartzen gaituzte, ESAN, AGINDU, ESKATU eta abarrek egiazki zer esan nahi duten eta honelatsu egiten dugu gogoeta: "jakina, aitak zerbait esan diezaioke Andoniri eta zerbait hori agindu bat da, beraz, ongi dago". Azken batean, AGINDU-k edo ESAN-ek (56) bezalako perpausetan ez du esan nahi Andoniri eman ziola zuzenean agindua. Gehiago dirudi beste zerbait, alegia: inoren agindua beste norbaitengana helarazi. Eta interpretazio hau, hain zuzen, berez komunikazioa adierazten duten aditzekin da posible. Ez da kasualitatea.

DEBEKATU-ren kasuan ere antzeko zerbait dugula esango nuke. Aditz hau kontrol aditza ote? Lehen begiratuan hala dirudi:

(57) Medikuak aitonari_i [PRO_i erretzea] debekatu dio.

Hau izango litzateke interpretazio normalena. Eta batek DEBEKATU aditzak egiazki zer esan nahi duen baldin badaki, badaki -edo jakin uste du- debekua aitonari egin bazaio, aitonari berari dagokion debekua dela eta ez beste inori. Hortaz, DEBEKATU-ren semantikak esango digu zergatik den kontrol aditza. Hala ere, AGINDU eta ESAN eta antzekoekin bezala, badirudi hemen ere posible dela DEBEKATU beste zentzu zabalago batean hartzea. Hots: "inoren debekua beste norbaitengana helarazi" zentzuan. Eta horrela, zentzu honetan har badaitেকে DEBEKATU aditz hori, posible lirateke (58) eta (59) perpausak ere:

(58) ?Gobernadoreak debekatu egin dio Alberdiri karta berak idaztea.

(59) ?Gobernadoreak debekatu egin dio Alberdiri karta nik idaztea.

Perpaus hauek zuzenak badira, esan nahi du DEBEKATU-k baduela berezko zentzuaz gainera beste bat, zabalagoa. Berezko zentzu zehatzean, zail gertatzen da pentsatzea karta idatzi behar duen ajentea edo egilea X delarik, beraz hau delarik idaztearen erantzukizuna duena, debekua Y-ri ematea. Y horrek ez badu kontrolatzen, ez badu bere esku, perpaus txertatuko ekintza, ezin ulertu zer esan nahi izan dezaketen (58) eta (59) perpausak, Dena den, hemen ere ez da kasualitatea, DEBEKATU, AGINDU bezala, komunikazio balioa duen aditzat ulertu ahal izatea. Hortik dator, nik uste, nahastea.

Dena dela, adibide hauek argi uzten dute kontrolaren arazoa aditzaren edukiari dagokion zerbait dela. Aditzak kontrola ezartzen badu, sujetuaren lekua hutsik izango du perpaus txertatuak, edo PRO batek betea. Gainerakoetan, perpaus txertatua pro nahiz IS lexiko bat ageriko da. Pro dugunean, pro hori nola interpretatu behar den testuinguruak adieraziko digu eta hau finkatzea, noski, gramatikaren eremutik kanpo gelditzen da. Eta euskaraz horrelako hutsuneak sarri gertatzen dira. Alegia, ~~izenordainak~~ fonetikoki gauzatutako izenordainak erabili beharrean, ahal dela, eta testuinguruak argi uzten duen neurrian, pro edo, hotsik ez duten izenordainak erabiltzen ditugu.³⁷

Baina ez dago argi ea euskara hizkuntza konfiguracionala den ala ez-konfiguracionala. Hizkuntza e³⁸³⁸konfiguracionaletan ez omen da kategoria hutsik. Beraz, PRO-ren beharra ere ez dakigu zenbatetarainokoa izango den. O. de Urbinak³⁹ euskara ez-konfigura-

zionala dela dio, edo, gehienez ere, erdizka dela konfiguracionala. Gauzak horrela badira, kontrol teoriak hizkuntza ez-konfigurazional bati buruz zer esan dezakeen jakin beharko genuke. Chomskyk,⁴⁰ adibidez, dio perpaus guztiek behar dutela sujetua. Alegia, (60) eta (61) aukeren artean, egokia (61) dela:

$$(60) S \rightarrow \left\{ \begin{array}{l} (NP) \text{ to VP} \\ NP \quad \text{Tense VP} \end{array} \right\}$$

$$(61) S \rightarrow NP \text{ INFL VP}^{41}$$

Baina eskakizun hau laxotu egin behar omen da hizkuntza ez-konfigurazionaletan: "We might assume this requirement to be relaxed for non-configurational languages, or we might assume that there is an empty subject of one or another sort. At issue are questions concerning the status of PRO, pro-drop, the nature of nominative Case-assignment, and other questions concerning the structure of languages of the type under consideration. I will simply leave all of these questions open".⁴²

Aurreko orrialdeetan euskarari buruzko zenbait datu eman ditugu. Teoria nolakoa den ez badakigu ere, behar bada interesgarri izan zitekeelakoan agian ez-konfigurazionala den hizkuntza batek zer nolako informazioa eskaintzen digun jakitea. Dena dela, ikusi dugu badirela beste hizkuntzetako kontrol aditzen modura jokatzten duten aditzak, eta arazoa da horren berri nola eman beharko litzatekeen jakitea.

5.- Proposamen bat.-

Euskarari dagokionez, gauzak aurkezteko modu egoki bat honako hau izan liteke: euskaraz konplementu gisa ageri diren

perpaus guztietan sujetuaren lekua, eta beste lekuak ere bai, fonetikoki gauzatu gabe ager daiteke. Sujetu huts honen erreferentzia finkatzeko testuingurua izan behar dugu kontutan edo aditz nagusiaren eduki semantikoa. Normalean, hala ere, sujetu hori izen sintagma lexikal batek bete dezake, batez ere testuinguru eta guzti argi ez badago zein izan daitekeen dagokion erreferentzia. Jakina, aditz berezi batzuk, kontrol aditz deitu ditugunek, duten eduki semantiko bereziagatik, ez dute ametitzen interpretazio bakar bat baizik perpaus txertatuko sujetu horrentzat. Etakasu hauetan, interpretazioak inolako zalantzarik ez duenez gero, sujetua ez da agertuko. Hortaz, hitz gutxitan laburbiltzeko, euskarak honako printzipio honi jarraitzen diola esan liteke:

- (62) IS baten erreferentzia finkatzeko modua baldin bada, testuinguruaren nahiz aditz nagusiaren edukiaren bidez, utzi bedi hutsik.

Honek badu, nik uste, ingelesezko gerundio perpausekin gertatzen denarekin zerikusia. Chomsky-k, honako perpaus honi buruz, hots:

- (63) John would much prefer [his going to the movie]

Honela dio: "I think that the choice of reference for he in (1) (gure (63)-an, alegia) is dictated not by the disjoint reference principle but rather by a principle that we may state in the most general terms as (5), interpreted as imposing a choice of PRO over an overt pronoun where possible:

- (5) Avoid Pronoun

(...) Principle (5) might be regarded as a subcase of a conversational principle of not saying more than is required, or might be related to a principle of deletion-up-to-recoverability, but there is some reason to believe that it functions as a principle of


grammar." ⁴³

Jakina, honek zuzenketa bat eskatuko luke delako izen sintagma hori galdegaia denean eta baita aurreratutako mintzagaia denean ere. Zeren orduan ez da aski erreferentzia finkatzea. Beste zerbait ere markatu behar da eta, noski, ageri ez bada, ezin markatu. Hori da, adibidez, perpaus lokabeetan ere gertatzen dena: haueetan izenordainak ez dira agertuko, aditzak komunztadura bidez jasoak dituenenez gero, baina galdegai edo topiko baldin badira, orduan ez dugu beste erremediorik: orduan jarri egin behar, esan nahi duguna behar bezala aditzera emango badugu.

Gauza asko dira ez dakizkigunak. Gehiegi, bai teoria aldetik, bai euskararen beraren aldetik ere. Nola esplika, bestela, Chomsky 1981 eta 1982 alde batetik, eta Manzini 1982 bestetik, edo Williams 1980, edo Bresnan 1982 arteko tirabirak? Gauza gehiegi, hortaz, eman dugun baino argitasun gehiago eskaintzeko. Hemen euskarari dagozkion zenbait datu eskaini dugu. Egin dugu, baita ere, PRO eta pro-ren interpretazio zuzenari dagokion proposamen badaezpadako bat. Geroko azterketek esango digute zein den teoria zuzena eta zein den euskarak teoria horri eskaini diezaiokeen argi berezia. Oraingoz, ez naiz, ni neu, ezer gehiago esatera ausartzen. Geroak esan beza.

OHARRAK (VI atala)

1. Ik. Jackendoff 1972 eta Chomsky eta Lasnik 1977.
2. Oraingoz albora utziko ditugu zenbait xehetasun: LAG, $\bar{P}$ eta abar.
3. Ik. Postal 1974, adibidez. Baita Demonte 1977, Ruwet 1975, Hernanz 1982, e.a.
4. Hala ere, ikus DEBEKATU eta ESAN-i buruz aurrerago esaten dena: 286 orr.
5. Ikus, hala ere, aurreko oharra.
6. Rosenbaum 1967, 17 orr.
7. Hala ere, "tarte" kontu honek hizkuntza "itxurazain" edo konfigu-razional omen direnetan balioko luke. Alegia, perpausak honako itxura balu euskaraz sakonean:



oso ongi balia gintezke partearen printzipioaz. Baina perpausak egitura laua balu, oso nekez izan daiteke baliagarri delako prin-tzipio hori. Ik. Rebuschi 1984 eta de Rijk 1978 ere bai.

8. Egia esan, niretzat aski bitxiak dira -T(Z)EA formako egiturak AGINDU (= 'hitz eman') aditzaren konplementu gisa. Hala ere:
 "Atzenean aguindu cenduan cere estadu edo vicimoduan obra onaquin arguieguita" dio Agirre Asteasukoak (Ag. Er. I, 89 orr.).

Niretzat normalenak -ELA-dun konplementuak lirateke, ez -T(Z)EA formakoak, batez ere perpaus nagusiko AGINDU horrek zehar objektu bat baldin badarama:

Etorriko nintzela agindu nizun niretzat normalagoa da
Etortzea agindu nizun baino.

Rosenbaum konturatu zen PROMISE bezalako aditz batek sortzen zion oztopoaz, baina ez zitzaion egiazko kontraexenplu iruditu: "Sentences like (85) constitute a major exception to the erasure principle. (85) I promised John to bring the money. The erasure principle predicts that the implicit subject of the complement sentence will be "John" rather than "I". It is quite doubtful that a principle that holds remarkably well for such a considerable number of cases will fail as the result of this one counterexample. The verb "promise" is peculiar in many respects; and there is every reason to interpret this result as advice to look more

- deeply into the analysis of this particular verb, for we are likely to find that the problem lies not with the erasure principle but with our analysis of the constructions in which this particular verb appears" dio Rosenbaum-ek (ik. 68 orr.)
9. Hau da, adibidez, Hernanz-ek, Kiparskytarren bideari jarraituz, gaztelaniarentzat proposatzen duen bidea. Ik. Hernanz 1982, eta baita Wilbur 1979 ere.
 10. Ik. Hernanz 1982, 147 eta hurr.
 11. Ik. Hernanz 1982, 112 orr.
 12. Ik. G. Lakoff 1970, 51-56 orr.
 13. Alegia, bere konplementuko izen sintagma sujetua nahi eta ez kontrolatua eta, beraz, hutsa, izatea eskatzen duen aditz bat.
 14. Ik. Jackendoff 1972, 178 orr.
 15. Ik. Jackendoff 1972, 180 orr. Ikus daiteke erregelak hau zehaztasun handiagoz emana 196 orrialdean.
 16. Ikus aurrerago, 279 eta hurr.
 17. Ik. Jackendoff 1972, 211 orr.
 18. Ik. Jackendoff 1972, 211 orr.
 19. Honetaz ikus 281 eta hurr.
 20. Ik. 8. oharra.
 21. Ik. Jackendoff 1972, 217 orr.
 22. Ik. Jackendoff 1972, 37 orr.
 23. Ik. Chomsky 1981, 74-79 orr.
 24. Ik. Chomsky 1981, 76 orr.
 25. Ik. Chomsky 1982, 20 orr.
 26. Ik. Manzini 1983, 42 orr.
 27. Ik. Manzini 1983, 423 orr.
 28. "batez markatu dugun hutsune horrek sujetuaren lekua hutsik ageri dela esan nahi du. Oraingoz PRO ala pro den erabaki gabe.
 29. Ik. Manzini 1983, 424 orr.
 30. Hala ere, kasu honetan behar bada PRO sua itzaltzea perpaus txertatua ez litzateke egiazko sujetu izango, gorago egindako proposamena onartzat ematen bada. Hau onartzen ez bada, sujetuzko beste perpaus guztiek -T(Z)EAK forma izango dute, eta kasu hauetan badirudi ez daukagula, normalki, derrigorrezko kontrolik, beraz, derrigorrezko uztardurarik ere ez.
 31. HASI, hala ere, agian igotze aditza dugula esan dugu gorago. Dena den, batean nahiz bestean, nola edo hala esan behar da sujetua nahi eta ez hutsik agertuko dela eta perpaus nagusiko axaleko sujetuaren erreferentzikidetzat interpretatzen dela.

32. Adibide hau O. de Urbina 1983-tik jasoa da.
33. Ik. Mitxelena 1981
34. Ik. Chomsky 1981; Ortiz de Urbina 1983 eta baita Miren Azkarate eta beste 1982.
35. Ik. O. de Urbina 1983, 11-12 orr.
36. Hau litzateke, ongi ulertu badut, Bach-ek xede perpausei buruz mintzo delarik iradokitzen duena: "What about the theory of discourse? I believe we must invoke such a theory in order to be able to say anything about the question of "control" in purpose clauses. Consider a complex case: (75) I bought Bambi to give to Mary to pass on to John to take along on the camping trip to read to the children.

To understand this sentence and compute the most likely value for the free variables that our syntax-semantics has put into subject position for the purpose clauses, we need to track the succession of "availability states" through the clause. I buy Bambi; I have Bambi; I'm going to give it to Mary; then Mary will have it (...).

I have just worked out the most likely controllers of the purpose clauses in (75). How did I do it? By understanding what it means to give, pass on, take along, and so on. But then I know English. How much of this can we or should we put into our theories of linguistic competence, into our theories of syntactic and semantic representations? I don't think we'll have a satisfying answer to this question until we've done a lot more work". Ik. Bach 1982, 54 orr.

37. Esaterako, hona hemen lehengo batean neure amari entzuna. Amak galdetu: "Ana Mari ez al da etorri?". Norbaitek erantzun: "Ez. Zer nahi zenuen, ba?" eta hark berriro erantzun: "Ilea moztu erazitzea". Jakina, hemen ulertu behar da honelako zerbait: "Nik Ana Mariri ilea moztu erazi nahi nion neuri". Jakina, hau ezin esan daiteke. Eta orduan, aditz erazleekin adibidez, oso normala da ageri behar lukeen izenordain bat ezkutuan gordetzea, agerian jartzeko trabak ditugulako hain zuzen. Esaterako ezin ditugu bi datibo jarri. Hala ere, bat bakarra, edo bat ere ez, utzi dezakegu, bestea testuinguruak finkatua gelditzen delarik.
38. Ik. Chomsky 1981, 127 eta hurr. Ikus, baita, Rebuschi 1984.
39. Ik. O. de Urbina 1983.
40. Ik. Chomsky 1981.

41. Chomsky 1982-k, berriz, honela dio: "If the Extended Projection Principle is correct, then (a) an EC is present wherever a θ -role is assigned but the corresponding θ -position contains no lexical material, and (b) the category S must always contain an EC as subject if no overt subject is present, as in infinitival clauses or finite clauses in pro-drop languages with missing or inverted subjects. There are, I think, good reasons to believe that this assumption is correct, at least in the class of languages that have so far been seriously studied from the point of view I am considering" (Ik. Chomsky 1982, 17-18 orr.).
42. Ik. Chomsky 1981, 131 orr.
43. Ik. Chomsky 1981, 65 orr.

V I I ATALA

KONPLETIBOEN SEMANTIKAZ ETA SINTAXIAZ

1.- -(E)LA vs. -T(Z)EA.-

Orain arte hizpidea eman diguten perpaus txertatu hauek bi multzo nagusitan bana ditzakegula ikusi dugu: a) aditz mugatua dutenak eta b) aditz mugagabea dutenak. Hauetako bakoitzean beste bi azpimultzo bereizi daitezkeelarik KONP galderazkoa ala ez-galderazkoa den kontutan harturik.

1.1.- Konpletibo desberdinak eta aditz nagusia.-

Baina nola dakigu aditz nagusi batek nolako konpletiboa eraman dezakeen? Normalki, konpletiboak onartzen dituzten aditz nagusiek ez dute askatasunik era bateko edo besteko konpletiboa onartzeko. Esate baterako, LORTU aditzak ez du onartuko /indikativo + -(E)LA/ itxurako konpletiborik, baina bai aditz mugagabeazkoa:

- (1) a. *Ez dugu lortu zu etxean gelditzen zarela.
 b. Ez dugu lortu zu etxean gelditzea.

Pentsa genezake aski dela aditz bakoitza hiztegian markatzea, kasu bakoitzean zer nolako testuinguruan agertuko den esanaz. LORTU-ren kasuan, adibidez, esan liteke ez duela /indikativo + -(E)LA/ erako konpletiborik ametitzen baina bai -T(Z)EA formakorik. Era berean, hiztegiak esango liguke AITORTU bezalako aditz batek /indikativo + -(E)LA / gisako konpletiboa bai baina -T(Z)EA formakorik ez duela ametitzen. Eta zenbait aditzek era bateko eta besteko konpletiboak onartzen dituenaz, hiztegiak esan beharko liguke orain ere, delako aditz horrek - PENTSATU-k, adibidez- bi eratako konpletiboak onartzen dituela. Hau litzateke,

gutxi gora behera, Gramatika Sortzailearen historian zehar egin diren azterketa askok eraman duten bidea.¹

Baina, aditz batek konpletibo era bat eta ez beste bat eramatearen arrazoa zeharo ilun gelditzen da. Eta ez hori bakarrik: aditz batek bi konpletibo motak onartzen baditu, ez zaigu inolaz ere esplikatzeko nolatan den hori posible, ez eta ere zein den bien artean dagokeen diferentzia, diferentzia semantiko, alegia.

Hortaz, susma daiteke, kontua ez dela aditz bakoitzak onartzen dituen konpletiboak modu idiosinkratiko soil batez esplikatzeko. Zerbait gehiago dago hor, dudarik gabe. Zeren garbi dago hizkuntzak ikasi egiten direla eta aski erraz ikasten duela haur batek, adibidez, bere hizkuntza. Hortaz, hizkuntzak ikas badaitezke, ikaste lan hori askoz zailagoa litzateke aditz bakoitzaren errejimena bana banaka ikasi beharko bagenu inolako erregulartasunik ez balego bezala eta aditzak klase desberdinetan sailkatuak ez baleude bezala. Kontua da euskaldun haur batek ez duela normalki problemarik izaten era bateko eta besteko konpletiboak erabiltzerakoan.² Hortaz, pentsa liteke badirela nolabaiteko printzipio orokor batzu azpian, forma batek ala beste batek agertu behar duen esaten digutenak. Beraz, aditz batek bere menpeko konpletiboari zer nolako forma eskatuko dion ez da izango jadanik zerbait idiosinkratikoa, aldez aurretik iragarri ezina, aditz nagusiaren eduki semantikoak eta menpeko perpaus horrek deskribatzen duenak gobernatua dagoen zerbait baizik. Ondoko lehenroetan hipotesi hau frogatzen saiatuko gara.

1.2.- Kiparskytarren sailkapena.-

Kiparskytarrek dioten bezala,³ konpletiboen axaleko forma ez zaio aditz nagusiaren halabeharrezko zenbait tasuni zor -Rosen-

baum-ek ontzat emango lukeen bezala- aditz nagusi hauen semantikazko bereizkuntzari baizik.

Hizkuntzalari hauek aditzen faktibotasuna eta emotibotasuna bereizten dituzte. Bi ezaugarri hauek ez daude jerarkia batean, elkargurutzatutako sailkapen batean baizik. Kiparskytarrek diotenez, for-to konpletiboak predikatu klase natural batekin agertzen dira, predikatu emotiboekin, alegia. "Las completivas emotivas son aquellas hacia las que el hablante manifiesta una reacción subjetiva, emotiva o evaluativa (...) abarca en general todos los predicados que expresan primordialmente el valor subjetivo de una proposición más que el conocimiento acerca de la misma o de su valor veritativo. Las completivas de for-to se limitan precisamente a esta clase de predicados"⁴. Eta ondoren, emotibotasunak eta faktibotasunak gurutzatutako sailkapen bat eskaintzen digute. Zerrenda hori jasoko dugu, ahal delarik euskal ordaina alboan ezarriz, argitasun piskaren bat eskainiko digulakoan zerrenda hori aztertzeak.

FAKTIBOAK

Sujetuzko konpleti- boak:	[+Emot.]	[-Emot.]
	<u>important</u> ('garrantzizkoa')	<u>well-known</u> ('gauza jakina')
	<u>crazy</u> ('zorakeria')	<u>clear</u> ('argi', 'nabari')
	<u>odd</u> ('bitxia')	<u>(self)-evident</u> ('bistakoa')
	<u>relevant</u> ('axola duena')	<u>goes without saying</u> ('zer esanik ez da')
	<u>instructive</u>	
	<u>sad</u> ('tristea')	
	<u>suffice</u> ('aski')	
	<u>bother</u> ('nekarazi')	
	<u>alarm</u> ('larritu')	
	<u>fascinate</u> ('liluratu')	
	<u>nauseate</u> ('gogait eragin')	
	<u>exhilarate</u> ('poztu')	
	<u>defy comment</u> ('txunditzeko')	

surpass belief ('sinistezina')
a tragedy ('trajedia')
no laughing matter ('ez da farre egiteko')

abjetuzko

konpleti-

uekin:

regret ('deitoratu')

resent ('gogo gaiztoz hartu')

deplore ('deitoratu')

be aware (of) ('jakinaren
gainean egon')

bear in mind ('gogoan eduki')

make clear ('argitu')

forget ('ahaztu')

take into account ('kontuan
hartu')

EZ-FAKTIBOAK

[+Emot.]

abjetuzko

konpleti-

uekin:

improbable ('ustegabeko')

unlikely ('gertagaitz'?)

a pipedream ('ametsa')

nonsense ('txorakeria')

[-Emot.]

probable ('daitekeena')

likely ('daitekeena')

turn out ('gertatu')

seem ('badirudi')

imminent ('hurbil', '-tzear')

in the works ('martxan')

aturroan:

urgent ('premiazko')

vital ('ezinbesteko', 'nora-
ezeko')

predict ('iragarri')

anticipate

foresee

abjetuzko

konpleti-

uekin

aturroan:

intend ('saiatu')

prefer ('nahiago izan')

reluctant ('gogoko ez izan')

anxious ('antsiatsu')

willing ('prest')

eager ('irrikitan')

say ('esan')

suppose ('uste izan')

conclude ('ondorio atera')

Predikatu zerrenda honi begirada bat ematen badiogu, ezkerrialdekoek -T(Z)EA forma eskatu beharko luketela konturatzen gara berehala, eta eskuinaldekoek, berriz, -(E)LA. Eta hori, bai faktiboei dagokien zerrendan eta bai ez-faktiboei dagokienean ere.⁵

Badirudi, hortaz, euskaraz faktibotasunak ez digula argi berezirik ematen ahotan darabilgun auzi honetan, alegia -T(Z)EA / -(E)LA formako konpletiboen auzian. Garrantzi handiagoa duela ematen du [+/-Emot.] tasun horrek. Alegia, batzuk, Kiparskytarren hitzetan "el valor subjetivo de una proposición" adierazten dute (emotibo direlakoek, hain zuzen) eta beste batzuk "el conocimiento acerca de la misma o de su valor veritativo".⁶ Euskarari gagozkiola, hortaz, bi bereizgarri hauek ez dute eragin bera konpletiboen axaleko egitura zein den mugatzerakoan. Faktibo direlako horiek the fact (of) egituraren bidezko parafrasia onartzen omen dute. Euskaraz, ordea, horrelako parafrasirik ez dugu. Bestalde, gerundiozko perpausik ez omen dute onartzen faktibo ez diren predikatuek. Perpaus faktiboak bakarrik izan omen daitezke that perpausak nahiz gerundiozkoak. Faktibo ez direnak, berriz, that eta for-to perpausak bakarrik. Euskaraz, ordea, ez dugu aukera bikoitza baizik eta faktiboak -eta faktibo ez direnak ere bai- batzu -(E)LA-rekin agertzen dira eta beste batzu -T(Z)EArekin:

(2) a. Gauza jakina da bi eta bi lau direla.

b. Zorakeria izan da zu hara joatea.⁷

Hortaz, bata eta bestearen arteko bereizketaren bila gabiltzanez gero, faktibotasunak ez digu laguntzarik ematen. HARRITU faktiboa litzateke Kiparskytarren arabera eta JAKIN ere bai, nahiz eta azken hau berezi samarra izan, baina hor dugu diferentzia: HARRITU-k sujetutzat -T(Z)EA gisako perpausa eramango du, JAKIN-ek, berriz, objetutzat, -(E)LA formakoa:

- (3) a. Zuk horrenbeste edateak harritzen nau.
b. Badakit asko edaten duzula.

Hala ere, emotibotasunak ere ez dakit zenbatetaraino esplikatu ditzakeen gauzak. Egia da HARRITU, JAKIN ez bezala, aditz "emotibo" horietakoa dela, baina ez dirudi horrek esplikatzeko di-tuenik gauza guztiak. Adibidez, hor dugu FORGET aditza. Hau [-Emot] omen da. Honen ordaina, bestalde, AHAZTU izango genuke. Hala ere, honek hiru aukera eskaintzen dizkigu, jakina den bezala:

- (4) a. Pastila hartzea ahaztu zaio amonari.
b. Pastila hartu duela ahaztu zaio amonari.
c. Pastila handiak irensten ahaztu zaio amonari.

(4a) eta (4b) gogoan hartzen baditugu, AHAZTU [+FACT.] eta [-EMOT.] litzateke bietan. Ala ez? Baina orduan nola esplikatu bien arteko diferentzia? Bistan da, beste nonbait bilatu beharko dela.⁸

Gaztelaniaz ere, ez dut uste argi handiegirik ematen ahal digunik bereizketa honek, zeren ez baitu esplikatzeko zenbait subjuntiboren agerpena. Hain zuzen, gure -T(Z)EA eta gaztelaniazko subjuntiboa askotan elkarren eskutik doazela esango nuke:

- (5) a. El que bebas tanto me sorprende.
b. Lamento que hayas venido tan tarde.
c. Siento que se hayas arruinado.

- (6) a. Zuk horrenbeste edateak harritzen nau.
b. Zu horren berandu etortzea deitoratzen dut (deitoragarria da).
c. Zuk porrot egitea (edo egin izana) senditzen dut.⁹

1.3.- Beste bide bat: Menzel (1975).-

Menzel, aurreko lanen errepasoa egin ondoren, honako ondorio honetara iristen da: "a deeper understanding of the processes of complementation and nominalization came with the realization that these processes are in part determined by semantic consideration. That is, the actual form of these embedded sentences is due to both semantic and syntactic factors. It is assumed in this work that the insight of the Kiparskys concerning the factivity of certain matrix verbs and their embedded sentences is basically correct. However, the main thesis of their work is that in addition to factivity, there are a number of other semantic factors which determine the syntax of complementation and nominalization"¹⁰

Esaldiak (= 'utterances')¹¹ era desberdinez sailka daitezke hizkuntzalariaren ikuspegitik begiratuta eta filosofilariarenetik begiratuta. Hizkuntz mundua eta mundu erreala gauza bi dira. Hizkuntz sistimaren aldetik, esaldi bati buruz esan daiteke mota bateko nahiz besteko dela (adierazpen soila, galdera, agindua, e.a.); gramatikala edo ez-gramatikala dela eta abar. Mundu erre-alaren, edo hiztunak bere gogoan irudikatzen duen munduaren sistimaren aldetik, berriz, hitz egin genezake esaldi baten egiaz edo gezurraz, zentzua duela edo ez duela esan genezake, edo mundu erre-alaren edo irudikatuaren alderdiren bat deskribatzen duela esan (ekintza bat, gertaera bat, prozesu bat, eta abar).

Filosofilariaren sailkapena hizkuntzalariarena ez bezalakoa da. Filosofilariak esaldi batek mundu errealeko nahiz irudikatuko zein alderdi deskribatzen duen hartzen du kontutan. Hau dela eta, Menzelek honako sailkapen hau proposatzen digu:

a) Proposizioak.— Proposizioak egiazko edo gezurrezko izan daitezke. Esan nahi baita, "egia ala gezurra da?" galdera hizkuntzalarien sailkapenaren araberako adierazpenei buruz bakarrik da egokia, perpaus bakunei buruz ari garelarik. Hots: adierazpen perpaus bat egia edo gezurra izan daiteke, baina galdera bat edo agindu bat ez da ez egia ez gezurra. Hortaz, hauei buruz ezin egin daiteke "Egia ala gezurra da?" bezalako galderarik.

b) Gertaerak.— Menzelen iritziz, konplementazioari begira interesgarrienak gertaerak, ekintzak eta prozesuak dira. Aditz aktiboek gertaerak, ekintzak eta prozesuak deskribatzen dituzte. Egoera aditzek, ostera, egoerak eta propietatek deskribatzen dituzte. Horrela, honako perpaus honek gertaera bat deskribatuko luke:

(7) Jonek okela jan zuen.

Menzelen ideia da perpaus bateko aditza nolakoa den, halakoa izango dela perpaus horrek deskribatzen duen mundu errealeko nahiz irudikatuko alderdi deskribatua ere.

Egia da ez dagoela beti argi zein perpaus diren gertaera, zein ekintza, zein prozesu eta abar: "When I noted earlier that there is some disagreement about which sentences describe events, which describe actions, and which describe processes, I was in a sense over-simplifying. There is even some disagreement between "what is a fact" and "what is an event"" dio.¹²

Vendler-i¹³ jarraituz, Menzelek dio gertaerak deskribatzen dituzten perpausak bakunak diren bitartean ezin dela berezi ea proposizioak diren (hots: egia edo gezurra izan daitezkeenak) ala gertaerak. Baina perpaus hauek nominalizatuak daudenean, edo konplementu direnean, orduan bai, orduan bereiz ditzakegu proposizioak eta gertaerak, "because as nominalizations (and complements) they can occur with certain matrix verbs (in certain frames), but

not with other matrix verbs. It is therefore only as nominalizations and complements that we can say that a certain clause is a fact, or an event, or an action, etc. While the simplex underlying that clause can only be said to make a proposition and describe an event. Moreover, while a simplex can at the same time, e.g. make a proposition and describe an event, the appropriate nominalizations of that simplex can be only one of these; i.e. either a proposition or an event, but not both. This means that it is only after nominalization that clauses become unambiguously propositions, facts, events, actions, states, and processes. Before nominalization, simple declarative sentences belong to more than one description type."¹⁴

Aldatu dudan testu zatian bertan ikusten ahal denez, proposition eta fact nahastu egiten dituela ematen du Menzelek.¹⁵ Dena den ideia bat behintzat garbi dagoela esango nuke: (7) perpausa proposizio bat dela garbi dago: Jonek okela jan zuen egia edo gezurra izan daitekeen zerbait dugu, baina, aldi berean, gertatu zen zerbait deskribatzen du perpaus horrek, hots: gertaera baten aurrian gaude. Garbi dago, baita ere, -eta hau da Menzelen lanaren muina- perpaus horrek gauza bat bakarra deskribatuko duela beste perpaus baten barnean txertatua agertzen den momentutik. Alegia, (7) perpaus horrek forma desberdina hartuko du proposizio gisa txertatua dagoenean, ESAN aditzaren menpean doanean, adibidez, eta gertaera gisa txertatua doanean, HARRITU-ren menpean, adibidez:

(8) a. Andonik Jonek okela jan zuela esan zuen.

b. Jonek okela jateak biziki harritu zuen Andoni.¹⁶

(8a) perpausean Andonik esan zuena egia edo gezurra izango da. Hots: Andonik proposizio bat esan zuen. (8b) perpausean, berriz, Andoni harritu duena ez da egia edo gezurra. Hots: Andoni ez du proposizio batek harritu, gertaera batek baizik.

Perpaus batek gertaera deskribatzen duen ala ez jakiteko testik onena honako testuinguru honetan ager daitezkeen ala ez ikustea da:

(9) / _____ hamarretan gertatu zen.¹⁷

Ingelesez, antzeko testuinguruan gerundive delakoa eta izenki erakarria ager omen daitezke. Euskaraz, izenki erakarria agertzeko problemarik ez dago:

(10) a. Julenen etorrera hamarretan gertatu zen.

b. Lapurreta joan den urtean gertatu zen.

(11) ere zilegi dela esango nuke, batez ere GERTATU-ren ordez IZAN aditza ezarriko bagenu:

(11) a. Jonek atea istea hamarretan gertatu zen (izan zen).

b. Haurrak eskolako kristala haustea atzo gertatu zen.

Baina garbi dago, ingelesez for-to eta that konplementuak ezinak diren bezala, euskaraz ere -(E)LA konplementuak ez duela lekurik testuinguru horretan:

(12) a. *Haurrak kristala hautsi zuela atzo gertatu zen.

b. *Jonek atea itxi zuela hamarretan gertatu zen.

Dena dela, ohar bat egin behar da behin puntu honetara iritsiz gero. GERTATU aditza aipatu dugu gertaera baten aurrean gauden ala ez jakiteko erabili dugun testean. Hala ere, GERTATU-k bi balio desberdin dituela esan behar da: a) bata hemen aipatu berri duguna, hots: denbora une jakin batean gertatzen dela esaten dugunean, eta b) bestea, honako perpaus honen antzekoetan erabiltzen dugunean:

(13) Gertatzen da gizon horrek ezer ez dakiela nitaz.

Hemen gizonaren ezer ez jakite hori ez da une jakin batean gertatzen den zerbait. Ezin galde daiteke, bestalde,

zenbat aldiz gertatu den.¹⁸ Ezin esan daiteke, horregatik, (14):

(14) $\left\{ \begin{array}{l} *Beti \\ *Momentu honetan \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{gertatzen da gizon horrek ez dakiela} \\ \text{ezer nitaz.} \end{array} \right.$

(13)-ko gertatzen da hori kontua da edo antzeko zerbait (arazoa da, adibidez) esango bagenu bezala da. (13) esaten dudanean, zerbaiten egia agerian jarri nahi dudala ematen du, eta ez, ezer berezia gertatu edo gertatzen dela. Hortaz, GERTATU-k egiazki ez du berezko baliorik. Esate baterako, honako bi esaldi hauek, GERTATU-ren agerpena gorabehera, zeharo baliokideak ditugu:

(15) a. Polizia informazio bila dabil eta tabernaria eramane dute berekin. Baina GERTATZEN DA GIZON HORREK EZER EZ DAKIELA.

b. Polizia informazio bila dabil eta tabernaria eramane dute berekin. Baina GIZON HORREK EZER EZ DAKI.

Ordena bera ere normalean horrelaxe da. Alegia, ez litzateke oso normala (13)-ren ordez (16) ematea:

(16) ?Gizon horrek ezer ez dakiela gertatzen da.

c.- Ekintzak.- Hizkuntzaren filosofoak ez omen dira ados jartzen ekintzen eta gertaeren arteko diferentzia zein den erabakitzerakoan. Menzelen ustez, gertaerek ez dute egilerik, ajenterik, behar. Ekintzek, oro har, egilea eskatzen dute: "An ACTION is performed by a (volitional) agent".¹⁹

d.- Prozesuak.- Mundu errealean gertaeren eta prozesuen arteko diferentzia bat bada: prozesuek iraupena dute. Baina, Menzelek dioenez, arazoa da, iraupenik gabeko gertaerak badira ere, ez direla gertaera asko zeharo iraupenik gabeak.

Hortaz, eta nolabait laburbilduz, Menzelen eta Vendler-en²⁰ lanaren azpian datzan ideia nagusia hau da: perpaus txertatu batek forma desberdinak agertzen ditu proposizio bat denean, edo gerta-
era bat edo ekintza e.a. denean. Hortik aparte, aditz edo predika-
tu bakoitzak ez ditu era guztietako konplementuak ametitzen. Adi-
bidez, proposizio bat edo adierazpen bat egia izan daiteke baina
ez ona edo txarra. Ostera, ekintza bat ezin izan daiteke egia
baina bai ona edo txarra, edo komenigarria edo alperrikakoa e.a.
Horregatik:

(17) a. Loreontzia apurtu dugula egia da.

b. Loreontzia apurtzea $\left\{ \begin{array}{l} \text{ona} \\ \text{txarra} \\ \text{komenigarria} \\ \text{alperrikakoa} \end{array} \right\}$ da.

Baina:

(18) a. *Loreontzia apurtzea $\left\{ \begin{array}{l} \text{egia} \\ \text{gezurra} \end{array} \right\}$ da.

b. *Loreontzia apurtu dugula $\left\{ \begin{array}{l} \text{ona} \\ \text{txarra} \\ \text{komenigarria} \\ \text{alperrikakoa} \end{array} \right\}$ da.

Azken batean, honako hitz hauetan laburbiltzen du Menzelek
bere ideia nagusia: "In fact, it is the main contention of this
work that there are such meaning differences, and that we can
account for the surface form of embedded sentences only by accounting
for their semantic differences in terms of the description type
of the complement or nominalization."²¹

1.4.- Perpaus konpletibo hauen sakoneko egitura.-

- Konpletiboak ametitzen dituzten aditz nagusiak, perpaus txertatuak deskribatzen duenaren arabera subkategoriza daitezke: "Most verbs, in fact, allow only propositions. Thus, factive verbs and verbs of belief and assertion, allow only embedded propositions, but no other sentence types"²² dio Menzel-ek. Gramatikak aditz nagusiaren eta perpaus txertatuaren arteko debeku hauen berri eman behar digu. Horretan saiatu ziren Rosenbaum eta Kiparskytarak eta horretan saiatzeko da Menzel ere.

Gorago aipatu ditugun deskribapen moten arabera tasun semantikoaren bidez subkategorizatzea proposatzen du Menzel-ek aditz nagusiak. Horrela, aditzek era honetako tasunez hornituak agertuko balira hiztegian, hots: [+__ PROP.], [+__ FACT], [+__ PERF.], [+__ EVENT], [+__ ACTION], [+__ STATE], [+__ PROPERTY], eta abar,²³ perpausen sorrera zuzena ziurtatuko omen genuke. Oinarriko erregelak ez lixketen biderik itxiko ezekin motatako perpausari. Egin-kizun hau interpretazio semantikoaren erregelari utziko litzaieke.

Ingelesez perpaus txertatuak, sarritan, deskribatzen dutenari dagokion izena ere (adibidez, proposition, action, event) eraman dezaketenez, aditz nagusiaren subkategorizapen honek lortzen du era bateko eta besteko perpausak sortzea: "Verbs of assertion were shown to take embedded propositions and, with the exception of say, claim, and declare, shown to take the noun proposition as a head noun, followed by an embedded proposition, as they do"²⁴ dio eta honako adibide hau ematen du:

(19) John $\left\{ \begin{array}{l} \text{asserted} \\ \text{stated} \end{array} \right\}$ the proposition that Harry is a fiend.

Teoria Standard delakoa onartuz gero, honako erredundantzi erregela hau proposatuko omen luke Menzel-ek:

"Aditz nagusi batek konplementu txertatu bat onartzen badu, konplementua karakterizatzen duen deskribzio mota gerta daiteke nahiz dagokion konplementuaren buru-izen gisa, nahiz izen soil gisa perpaus nagusian konplementua gerta daitekeen lekuan."²⁵

Proposamen honen arabera, izen abstraktua onartzen ez duten aditz nagusiak (hots: "verbs of belief and some of the verbs of assertion", hauek PROPOSITION eta horrelakorik ez baitute ametitzen) [-DAGOKION IZENA] gisako salbuespen tasun batez markatuak etorriko omen lirateke hiztegian.

Euskarari gagozkiola, ordea, izen eta guztiko perpaus hauek salbuespenak direla esango nuke. Beraz, perpaus txertatu bat proposizio den ala gertaera ala ekintza eta abar aditzera emateko ez genuke horrelako izen abstraktuak sakonean txertatu beharrik izango. Aditz nagusiak berak markatu beharko luke hori, eta, ikusiko dugun bezala, perpaus txertatu horren axaleko itxurak berak ere bai, parafrasietara jo gabe. Alegia, euskaraz (20a)-k ekintza edo gertaera bat deskribatzen duela eta (20b)-k proposizio bat deskribatzen duela aditzera emateko bidea izan behar dugu:

(20) a. Erabaki genuen Andoniri ezer ez esatea.

b. Uste genuen Andoni etorriko zela.

Baina hori interpretazio semantikoa ematen duten erregelak ziurtatu beharko dute (21)-eko itzulimuruetara jo gabe:

(21) a. *Erabaki genuen Andoniri ezer ez esateko ekintza.

b. *Uste genuen Andoni etorriko zelako proposizioa.

Honek ez digu eragozten IDEIA, USTE, KONTU, BERRI eta antzeko izenak, behar ditugunean, ezartzea. Azken batean, Menzel-en erredundantzi erregelak balioko liguke, baina alderantziz formulatua. Esan nahi baita, (20b) bezalako perpaus batean perpaus txertatuak proposizio balioka duela jakin araziko liguke gramatikak,

horretarako sakoneko egituran PROPOSIZIO hitza ezarri gabe. Baina interpretazio bera gordeko genuke, funtsean, (22) moduko perpausentzat ere:

(22) Andoni etorriko zelako (kontu)a berehala zabaldu zen.²⁶

Dena den, gu ez gaitu hainbeste kezkatzen gertaera, ekintza eta abarrak berezi beharrak: proposizio eta ez-proposizio bereiztea aski genukeela uste dut. Euskaraz ingelesez baino konpletibo forma gutxiago ditugunez -funtsean bi forma nagusi besterik ez baititugu-, guretzat egiazki garrantzizko dena bi forma horien arteko bereizketa da. Gure tesia, gutxi gora behera, honako hau izango litzateke: axalean bi forma nagusi ditugularik --(E)IA eta -T(Z)E - sakonean ere bereizketa bikoitza da, funtsean bi esanahi nagusi bereizten ditugularik.

Menzel-en lanari jarraituz, ikusi dugu nola loturaren bat badela, konplementazioari dagokionez, perpaus txertatuari dagokion deskribapen motaren eta perpaus horrek ageri duen axaleko egituraren artean: "There are restrictions between the class to which a matrix verb belongs and the type(s) of embedded sentences it allows. The surface forms of the embedded sentences (i.e. whether they are that clauses, gerundives with or without surface structure subject, or infinitival) was found to be largely a surface structure reflex of the sentence type the matrix verbs allows."²⁷

Menzel-ek dioenez, txertatutako proposizioak that perpausaren forma ageri dute axalean; txertatutako gertaerek gerundioarena; eta txertatutako ekintzek, egoerek eta prozesuek sujeturik gabeko gerundio eta infinitiboena. Perpaus bakunak, proposizio bat adierazi dezake eta aldi berean gertaera bat eta ekintza bat deskribatu. Adibidez, (23) perpausak proposizio bat adieraziko luke:

(23) Jonek liburu bat erosi du.

Baina perpaus txertatuek mota bateko edo besteko izan behar dute: "embedded sentences can only belong to one sentence type, and the fact that the embedded sentence is that clause, a gerund with a subject, or a subjectless gerund or infinitive is determined by the restriction of the matrix verb (i.e. the type of embedded sentence the matrix verb allows)".²⁸

Gauzak ikusteko modu hau zuzena bada, pentsa liteke euskaraz ere konpletibo batek -(E)LA konplementatzailea eramatea edo -T(Z)E formakoa izatea, nolabait perpaus konpletibo horrek deskribatzen duenak mugatua datorrela, eta bestalde, forma bat ala bestea agertu, aditz nagusiari zor zaiola. Esan nahi baita: aditz nagusi batek era bateko konpletiboa ametituko du eta beste batek beste era batekoa. Hau intuizio hutsez ere ikusten den zerbait da: denok dakigu ESAN-ek -(E)LA formako konpletiboa eskatzen duela baina LORTU-k, adibidez, -T(Z)EA formakoa. Behar bada, intuizioz ikusten ez dena beste zerbait da, alegia ea zergatik aditz batek ESAN-ek adibidez, -(E)LA eskatu behar duen eta beste batek -T(Z)EA. Bikoizketa honen azpian -eta euskaraz bikoizketa baten aurrean gaudela esan daiteke- ba ote dago inolako bikoizketa semantikorik? Edo bestela esan: -(E)LA konpletiboa eskatzen duten aditz guztiek ba al dute inolako batasun semantikorik?

Menzel-ek dioena zuzena izanez gero, pentsa liteke aditz multzo batek konplementutzat proposizioak hartzen dituela edo gertaerak edo dena delakoa eta hau aditz nagusiaren eduki semantikoak gobernatua legoke. Hau zuzenago da aditz jakin batek THAT edo POSS-ING konplementatzailea hartzen duela -hori zergatik den horrela ez dakigularik-pentsatzea baino.²⁹

- Hortaz, euskaraz -(E)LA konplementatzailea eskatzen duten aditz nagusi guztiek bakoite dute zerbait batera? Edo, bestela galdetzeko, -(E)LA konplementu guztiak ez ote dira Menzel-ek aipatzen dituen perpaus mota horietakoren batekoak? Nik baietz uste, eta, hain zuzen, badirudi -(E)LA konpletibo hauek azken batean Menzel-en proposizio direlako horiek besterik ez direla. Alegia, proposizioak, zentzu honetan, egia edo gezurra izan daitezke. Horrela esplika daiteke zergatik EGIA DA edo GEZURRA DA predikatuen sujetutzat -(E)LA konplementatzailea duten perpausak bakarrik ager daitezkeen:³⁰

- (24) a. Bi eta bi lau direla egia da.
- b. Egia da bihar amaituko zaizkidala oporrak.
- c. Andonik etxea erosi duela gezurra da.

Konpara ditzakegu (25)-ekoekin:

- (25) a. *Bi eta bi lau izatea egia da.
- b. *Oporrak bihar amaitzea egia da.
- c. *Andonik etxea erostea gezurra da.

Beraz, egia edo gezurra izan daitezkeenak proposizioak baldin badira, garbi dago (24)-ean -(E)LA-dun perpausak proposizioak ditugula, baina (25)-ean agertzen direnak beste zerbait izango lirateke.³¹

Kontutan hartzen baditugu orain ekintzei edo gertaerei dagozkien predikatuak, adibidez, ON, KALTEGARRI, KOMENI, e.a. zeharo alderantziz gertatzen dira gauzak, (26) eta (27)-an ikusten den bezala:

- (26) a. Ona da ardo piska bat edatea.
- b. Kaltegarri(a) da hainbeste lan egitea.
- c. Ez zait komeni hainbeste gauza jakitea.

(27) a. *Ona da ardo piska bat edaten duela.

b. *Kaltegarri da hainbeste lan egiten dugula.

c. *Ez zait komeni hainbeste gauza jakiten ditudala.

Ekintza bat edo gertaera bat edo egoera bat ONA, KALTEGA-
RRIA edo KOMENI DENA izan daiteke, baina proposizio bat ez da ez
ona ez txarra. Era berean, proposizio bat ezin izan daiteke komeni
den zerbait. Adibidez, (28)-k ez du zentzurik, baina bai (29)-k:

(28) *Bi eta bi bost direla komeni zaio.

(29) Bi eta bi bost izatea komeni zaio.

Hortaz, badirudi proposizio direnen eta ez direnen artean
dagoela bereizketa: -(E)LA konplementatzailea proposizioei dagokie
eta -T(Z)E ez-proposizioei, direla gertaera, ekintza nahiz egoera.³²

- Dena dela, -(E)LA aipatzen dugunean ohartxo bat egin
behar da: /indikatio + -(E)LA/gisako konpletiboez ari baikara eta
ez, subjuntiboez. Nire ustez, garbi dago subjuntiboak ez duela
proposizio bat deskribatzen, ekintza bat baizik. Hain zuzen, sub-
juntiboak agindua edo eskaria edo erregua adierazten du. Beraz,
inperatiboarekin du zerikusia eta badakigu inperatiboak ekintza
bat adierazten duela. Alegia, agindu bat ez da ez egia ez gezurra.
Agindu bat agindu bat da:

(30) Isilik egon zedila erregutu zioten.

(30) esaten dudanean, isilik egon zedila perpaus txertatuak ez
du ez egia ez gezurra den ezer adierazten, burutu behar den ekin-
tza edo, hobeto, egoera bat baizik, EGON aditzak egoera bat adi-
erazten baitu.

Bestalde, (30) perpausa dela eta, batek honako galdera
hau egin dezake:

(31) Zer izan zen erregutu ziotena?

Galdera honi era askotara erantzun dakioke, adibidez (32)-ko perpausetako baten bidez:

(32)a. Isilik egon zedila.

b. Isilik egoteko.

c. Isilik egotea.

baina inola ere ez (33):

(33) Isilik egongo zela.

Eta alderantziz, (34) perpausaren aurrean (35) galdetzen duenari ezin erantzun dakioke (36)-ren bidez, (37)-ren bidez baizik:

(34) Jonek txakurra berak hil zuela aitortu du.

(35) Zer da Jonek aitortu duena?

(36) a. *Txakurra berak hil zezala.

b. *Txakurra berak hiltzeko.

c. *Txakurra berak hiltzea.

(37) Txakurra berak hil zuela.

Beste argumentu bat ere aipa daiteke oraindik. Har ditza-gun honako bi perpaus hauek gogoan:

(38) a. Ordu gehiago sartzeko eskatu didate.

b. Ordu pila bat sartu ditudala adierazi diot.

Bi perpaus hauek esaten dituenari entzuleak "Gezurra da" edo "Hori gezurra da" erantzuten badio, erantzun honek kasu batean eta bestean balio desberdina du: (38a)-ren kasuan gezurra dena zerbait eskatu didatelako kontu hori besterik ez litzateke izango. Alegia, gezurra dena da zerbait eskatu didatela. (38b)-ren kasuan, berriz, erantzunak perpaus osoa harrapa dezake bere azpian edo, perpaus txertatua bakarrik. Hots: gezurra izan daiteke edo ordu pila bat sartu ditudala edo, baita ere, ordu pila bat sartu ditudala adierazi diodalā.³³ Honek esan nahi du -(E)LA-dun konpletibo

horrek proposizio bat adierazten duela eta horregatik gezurra edo egia izan daitekeela. -T(Z)E formako konpletiboa, berriz, ez da sekula egiaztat edo gezurtzat hartuko.

Beraz, indikatibozko eta subjuntibozko perpaus konpletiboak ezin ditugu zaku berean sartu, subjuntibozkoak, normalki -T(Z)E gisako konpletiboekin batera joan baitaitezke, askotan elkarren ordain garbiak direlarik. Horregatik, ez diet zuzen irizten Menzel-en honako hitz hauei: "More important, however, is the well-known fact that verbs of request take that clauses which can occur as complements on verbs of request as embedded propositions, and account for the fact that they must be in the subjunctive by the feature [+REQUEST]; that is, the subjunctive form of that clauses embedded under verbs of request (verbs marked [+REQUEST]) is determined by this feature. The relationship of verbs of command and verbs of request is expressed by the fact that these two classes share all features except [+COMMAND] and [+REQUEST]."³⁴

"Proposition" badira egia edo gezurra izan daitezke.³⁵ Baina [+REQUEST] tasuna duen aditz baten mende doazenak ezin dira ez egia ez gezurra izan, aginduak edo nahiak edo erreguak egia edo gezurra ez direlako. Hortaz, kontraesan batean gaude.³⁶

Adibidez, honako perpaus

(39) Elkarrekin lan egitea proposatu nion.

perpaus txertatua ez da proposizio bat, alegia egia edo gezurra izan daitekeen zerbait, ekintza bat edo, baizik. Eta, hain zuzen perpaus txertatu hori subjuntibo forman ager daiteke:

(40) Elkarrekin lan egin genezan proposatu nion.

Horrela bada, esan dezagun/indikatibo + -(E)LA/ gisako konpletiboek gezurra edo egia izan daitezkeen proposizioak deskribatzen dituztela. Gainerako konpletiboek, subjuntibozkoak barne

direlarik, berriz, gertaerak, ekintzak eta abar.³⁷

Terrell-ek ere, gaztelaniaren egoera zeharo euskararena bezalakoa ez bada ere, indikatiboa aditz asertiboentzat gordetzen du: "any sentence which is an assertion must contain an indicative verb form. We can thus hypothesize that in independent and noun clauses the indicative is associated with assertion while the subjunctive is associated with non-assertion".³⁸

Hortaz, euskararen gramatikari bakarrik dagokion zerbait ezezik, fenomeno zabalago bat ere bada ahotan darabilgun hau.

- Ikus dezagun, hortaz, -(E)LA konpletibodun perpaus txertatuak ametitzen dituzten aditzak zein diren. Gramatika tradizionalan hizkuntz eta adimen aditzek errejimen hau dutela esan ohi da. Villasantek, adibidez, Axularrengandik jasotako zenbait adibide aurkeztu ondoren, honela dio: "predominan con mucho los verbos llamados de entendimiento y lengua".³⁹ Horrela, komunikazio aditzak ditugu lehenbizi era honetako konpletiboak onartzen dituztenak: ABISATU, ADIERAZI, ADITZERA EMAN, AGERTU, AGINDU, AIPATU, AITORTU, HITZEMAN, ESAN, e.a. Kasu hauetan garbi dago adierazten dena edo aipatzen dena edo esaten dena e.a. egia edo gezurra izan daitekeela. Beraz, problemarik ez dago aditz hauen konplementuak proposizioak direla onartzeko. Horiguchi-k⁴⁰ dioen bezala, "there are groups of verbs that characteristically incorporate a proposition expressed by a that-clause. These verbs can be described as psychological verbs and communication verbs because of their semantic property and they are 'propositional attitude verbs' in Leech's (1976:97) terms".

Adimenarekin nolabait zerikusia duten aditzek ere konpletibo mota bera eskatzen dute euskaraz: JAKIN, PENTSATU, USTE, AHAZTU, ASMATU, IRUDITU, OHARTU, GOGOAN EDUKI, GOGORATU, ...

Ez dakit multzo honetan sartu beharko genituzkeen konpletibo bera eskatzen duten beste aditz hauek ere: ESPERO IZAN,
ERABAKI, BELDUR IZAN,...⁴¹

Dena den, -(E)LA konpletiboa onartzen duten aditz horiek, denek, edo gehienek behintzat bai, badute tasun bat elkarrekin: beren konplementua proposizio bat da, proposizio hemen darabilgun zentzu hertsian ulertuz. Hots: aditz hauek guztiak proposizionalak direla esango dugu. Esan nahi baita, konpletibozko perpaus horri buruz egia ala gezurra den galdetzea zilegi dela.

Zenbait aditzek bi eratako konpletiboa onartzen dute. Eta hauek dira -(E)LA / -T(Z)EA oposizioa finkatzeko erizpidea hobekien argi dezaketena. Adibide batzurekin berehala ikusiko dugu:

(41) a. Bihar jai dela bururatu zaio.

b. Kantatzen hastea bururatu zaio.

(42) a. Gizon hori gaiztoa dela erabaki dugu.

b. Bihar Zumaiara joatea erabaki dugu.

(43) a. Andoniri ahaztu egin zitzaion eksuak poltsikoan sartu zituela.

b. Andoniri ahaztu egin zitzaion eskuak poltsikoan sartzea.

(41)-(43) adibideetan argi ikusten da diferentzia: (a)-ko perpausetan Andoniri ahaztu zitzaiona, edo bururatu zaiona edo guk erabaki dugun hori egia edo gezurra izan daiteke. AHAZTU-ren kasuan, nahi eta ez, egia da, baina bati bururatu zaiona edo guk erabaki dezakeguna egia edo gezurra izan daiteke.

Ostera, (b)-ko adibideetan Andoniri ahaztu zaiona edo bururatu zaiona ez da ez egia ez gezurra, zerbait egitea baizik, hots: ekintza bat. Era berean, guk erabaki duguna ez da egia ez gezurra, zerbait egitea baizik. Hortaz, proposizio/ekintza.gertaera.

ezarri dugun bereizketak nahikoa bidezkoa dirudi. Hala ere, kasu batzutan ez da hain garbi ikusten bereizketa hori:

(44) a. Espero dut guk irabaziko dugula.

b. Espero dut guk irabaztea.

Bi perpaus hauen arteko diferentzia ez da hain argi ikusten, baina ez dut uste gauzak gehiegi bortxatzea izango litzatekeenik esango bagenu (44a)-n espero dena egia edo gezurra izango dela bere garaian. Horren ordeaz, uste dut guk irabaziko dugula esan daiteke, esanahia aldatu gabe. (44b)-n, berriz, espero dena zerbait egitea da, edo zerbait gertatzea. Horregatik, kasu honetan ez ginateke proposizio baten aurrean egongo, gertaera edo ekintza baten aurrean baizik.

GERTATU aditzarekin ere gauza bera dugu, gorago aipatu dugun bezala:

(45) a. Gertatzen da bost gizon galdu direla mendian.

b. "Ascotan guertatzen da Cristaua arquitzea confesioac berritzeco premian".⁴²

Hemen ere, (45a)-n zerbaiten egia azpimarratu nahi dela esango nuke. Alegia, GERTATU aditz hori izkutaraziko bagenu, perpausak ez luke ezer galduko. (46).esatea eta (45a) esatea, funtsean, gauza bera esatea litzateke:

(46) Bost gizon galdu dira mendian.

(45b)-tik, berriz, ez dirudi hain erraz ken daitekeenik aditz hori.

Gainera, (45a)-k ez du onartzen ASKOTAN eta antzeko adberbio esapiderik:

(47) a.*Askotan gertatzen da bost gizon galtzen direla mendian.

b. *Beti gertatzen da dirurik ez dudala.

Bestalde, ez nago oso ziur GERTATU aditz bakarra ote den beti. Gorago aipatu dugu gertaerentzako test modura erabil daitekeen testuingurua eta esan dugu nola gertaerak deskribatzen dituzten perpausak honako testuinguru honetan ager daitezkeela: / eguerdian gertatu zen. Testuinguru horretan ezina gertatzen da (45a)-ko perpaus txertatua agerrerazte:

(48) *Mendian bost gizon galdu direla eguerdian gertatu da. Baina honen ondoan, (49) bidezkoa dela esango nuke:

(49) Mendian bost gizon galtzea joan den urtean gertatu zen. Horregatik, Agirre Asteasukoarenetik jaso dugun adibidea zuzena da: hemen, egiazki, zerbait gertatzen da. Askotan gertatzen dela esaten digu kristaua konfesioak berritzeko premian aurkitzea.

Ostera, (50) perpausean GERTATU aditzak ez du esan nahi ezer gertatu denik momentu edo aldi jakin batean, gauzak horrela direla baizik. Alegia, esaldi baten egia markatzeko bide bat besterik ez dela ematen du:

(50) Gertatzen da dirurik ez dudala.

Horrelaxe esplika daitezke, beste zenbait esapide ere: ARAZOA DA, ONENA DA, OKERRENA DA, e.a.

(51) a. Arazoa da oraindik ez direla etorri.

b. Onena da gauza guztiak ahazten zaizkiola.

c. Okerrena da hau dela azkeneko trena.

Hauetan, gertatzen den arazoa, gertatzen den onena edo gertatzen den okerrena edo antzeko zerbaiten ordain edo laburdura direla esan daiteke. Beraz, adierazpen bati indarra emateko modu bat besterik ez lirateke.⁴³ Bestela, nola esplika (51) eta (52) arteko diferentzia?:

(52) a. Gu beti berandu etortzea arazo bat da.

b. Onena da denok joatea.

c. Okerrena da edari desberdinak nahastea.

(52)-ko perpausetan garbi dago gertaera edo ekintza batzuren aurrean gaudela: gertaera bat arazo izan daiteke, eta arazo larria, eta baita ere, gertaera bat izan daiteke beste askoren artean onena edo okerrena. Horregatik, (52b)-ren ondoan (53) ere zilegi da:

(53) a. Hobe ^{da} denok joatea.

b. Ona da etxean egotea.

Baina ez dugu (53)-ren antzekorik -(E)LA konplementatzailerekin:

(54) a. *Hobe da denok etorriko direla.

b. *Ona da denok etxean egongo direla.

Eta arrazoia da, onena da gertatzen den onena bezala parafrasea daitekeela baina ona da ezin parafrasea daitekeela *gertatzen den ona bezala.

Era berean analizatu beharko genituzke beste esapide hauek ere, proposizio balioa baitute, nire ustez:

(55) a. Eskerrak aurkitu zaitudala!⁴⁴

b. Aitatxo, Olatz dela neskarik politena?!⁴⁵

Hortaz, -(E)LA konpletiboa onartzen duten aditzak aditz proposizionalak direla esan genezake. Demontek⁴⁶ aditz faktiboak eta proposizionalak bereizten ditu eta bakoitzarentzat egitura desberdina proposatzen, Kiparskytarrei jarraituz. Orain arte aurkeztu dugunaren arabera, faktibotasunak ez du halako eraginik konplementatzaille bat ala beste bat aukeratzeko orduan.⁴⁷ Horregatik, aski dugula esango nuke aditz proposizionalak bereiztearekin, alde batetik.

- Aditz proposizional hauek honako tasun honen antzeko baten bidez bereziko genituzke: [4PROPOSIZIONALA]. Honela egiten du Menzel-ek ere, baina honen kasuan tasun zehaztapen horrek beste

zeregin bat ere betetzen du, zeren tasun hori duten aditzek onartzen dituzte: a) that konplementuak; b) buru-izen bat (fact, proposition, idea, e.a.) + that konplementua eta c) izena soilki. Euskaraz, ordea, zenbait izen ager daitezke konpletibo hauekin: KONTUA, BERRIA, USTEA, e.a., baina ez dugu, esaterako, fact-en ordezkorik, ez eta proposition-enik ere, seguru asko. Hala ere, horrelako perpausen interpretazioa hori da. Hortaz, multzo honetako aditz hauek tasun berezi horrekin hornituak etorriko lira-tekeenez hiztegian, erredundatzi erregelaren bat formulatu beharko da interpretazio zuzena ziurtatzeko. Gutxi gora behera honelatsu:

"[+PROPOSICIONAL] tasuna duen aditzak /Indikatibo + -(E)LA/ erako konpletiboa eramango du eta, bestalde, konpletibo hori proposizio gisa interpretatuko da".

/Izena + that konplementua/ erako egiturek, Menzel-en⁴⁸ ustez beste zeregin bat ere badute, egitura horrek, Ross-en COMPLEX NP CONSTRAINT delakoa⁴⁹ medio, esplikatzen baititu zenbait transformazio aurkitzen dituzten debekuak (Raising, Neg Raising, Erlatiboaren eraketa, Galderaren eraketa, Extraposizioa e.a.). Transformazio horiek euskaraz ere badituzte debekuak, baina beste bideren bat aurkitu beharko da. Dena den, transformazio horiek zertan diren ere ez dakigu oso garbi euskaraz eta, horrenbestez, beste baterako utzi genezake arazoa.⁵⁰

1.5.- Ondorio gisa.-

"Proposizio" Menzel-ek dioen zentzuan hartzen badugu, nahikoa garbi dago euskaraz proposizio den perpaus konpletiboak -(E)LA Konplementatzailea hartuko duela. Balio hori ez duenak, berriz, aditz mugagabea hartuko du.

Demontek hiru sakoneko egitura direla dio hiru aditz

mota bereizten dituelarik: faktiboak, proposizionalak eta ekintzazkoak.⁵¹ Nire ustez, bi egitura desberdin proposatzea aski litzateke, faktiboek ez baitute, itxura denez, egitura berezirik eskatzen. Faktibo direlako horiek gorago aipatutako bi multzo horietan bana daitezke. Adibidez, HARRITU faktiboa izango da, KONTURATU edo JAKIN bezala, hots: aditz hauen konpletiboak egiazkotzat jotzen ditu hiztunak:

- (56) a. Gizon horrek hainbeste zor izateak harritu ninduen.
- b. Konturatu naiz gizon horrek zor handiak dituela.
- c. Badakit gizon horrek zor handiak dituela.

Faktibotasunak ez dakar inolako ondoriorik perpaus txertatuaren formari dagokionez. Ondorio horiek beste nonbaitetik datoz: (56a)-ko perpaus txertatuak gertaera bat deskribatzetik, eta horregatik -T(Z)E. Beste biei proposizio izatetik datorkie -(E)LA forma. Eta forma honek ez du zer ikusirik faktibotasunarekin, zeren forma bera izango dute faktibo ez diren beste aditzekin ager daitezkeen konpletiboek ere, (57) lekuko:

- (57) Bi eta bi hamabost direla esan diot.

Eta aditzak bi sailetan banatze hau bidezkoa bada, euskaldun jatorrak bere hizkuntza ikasten duenean, hain erraz konpletiboak bereizten zergatik ikasten duen problemarik gabe esplikatzen da. Aditz bakoitzak, zergatik ez dakigula zeharo irregularra litzatekeen errejimena duela onartuz baino errazago behintzat. Aditz bakoitza ikastea aditz horren semantika ere ikasten da. Adibidez, JAN eta JOAN aditzen esanahi desberdina ikasi beharko da. Ikastea horretan bertan sartuko da, nik uste, batako objektua eskatzen duela eta besteak ez, ikastea. Aditzak ikasten dituenak, era berean, ikasi beharko du aditz bati dagokion objektua ekintza izan daitekeela baina ez egia edo gezurra izan daitekeen zerbait, adibidez.

Adibidez, AGINDU ('hitz eman') aditzaren objetua egia edo gezurra izango da. Esaterako, pertsona batzuk sekula betetzen ez dituzten promesak egiten dituzte. Hauek agintzen dituztenak beti gezur gertatuko dira, baina beste batzurenak agian egia ere izango dira. Eta bada beste AGINDU bat ere. Honen esanahia 'manatu' izango litzateke, eta kasu honetan agintzen dena egia ala gezurra den galdetzeak ez du zentzurik. Beraz, aditz bakoitzak ametitzen duen konpletibo mota zein den jakiteko aski dugu aditz horren esanahia zein den jakitea. Eta esanahia jakiteak, aditz horri zer nolako konplementua dagokion jakitea ere (alegia ea proposizioa den ala ekintza eta abar) eskatzen du. Horregatik, (58a)-ko perpausaren gramatikaltasunak (58b)-koarenak dituen arrazoi berak ditu. Eta alderantziz, (59)-ko bi perpausak arrazoi beragatik dira ez-gramatikalak:

(58) a. Berri hori egia da.

b. Pinochet berehala eroriko dela egia da.

(59) a. *Ekintza hori gezurra da.

b. *Liburuak erretzea gezurra da.

Hiztunak aski du egia da, gezurra da eta abarren esanahia menderatzea: (a)-ko perpausen gramatikaltasunaren edo ez-gramatikaltasunaren berri emateko gauza bada, era berean gauza izan behar du (b)-koen gramatikaltasunaren edo ez-gramatikaltasunaren berri emateko ere. Horretarako, aski du -(E)LA / -T(Z)EA-ren arteko diferentziaz ere jakitun izatea: bata proposizioei dagokiela eta bestea ekintzei edo gertaerei. Eta informazio hori, formalki, gramatikan, hiztegian eman daiteke, tasun zehaztapenen bidez eta erredundantzi erregelen bidez.

Hortik aparte, Menzel-en beste ideia, hots: perpaus konpletibo guzti hauen sakoneko egituraren izen bat aurkitzen dela

(fact, proposition, action, event, e.a.) ez dirudi, euskarari dagokionez behintzat, nahitaezko denik. Mantecaren arrazoiek balioko ligukete: "La interpretación semántica no nos permite ahondar tanto y proponer una hipótesis sintáctica en que aparezca el hecho, la idea,... La hipótesis no es plausible por demasiado abstracta (semántica) y ad hoc."⁵² Euskaraz, IDEIA, BERRIA, KONTUA, USTEA eta abar ager daitezke, ezkerretara konplementu bat dutelarik. Kasu hauetan ez da zaila izen horiek agerrerazteko bidea bilatzea gramatikaren tresneria formalean, zeren izen hauei beste edozein izeni ematen zaion tratu bera eman dakieke:

- (60) a. Zuk zabaldu duzun berriak harrituta utzi du jendea.
 b. Pinochetek agintea utziko ez duelako berriak harrituta utzi du zenbait jende.

Eta izen hauek besteak bezalakoxeak direla ikusteko aski dugu pentsatzea adjetibo baten laguntzaz ere ager daitezkeela:

- (61) a. Bi eta bi hamabost direlako ideia bitxi horrek farregurea eman dit.
 b. Txinarrak Europa inbadituko dutelako berri ikaragarria zabaldu da egunotan.

Eta, bestalde, -T(Z)EA gisako konpletiboentzat ere ez dugu zertan egitura bitxirik bilatzen ibili beharrik. Alegia, EKINTZA, GERTAERA eta antzeko izenak sartu beharrik ez dugu. Izen horiek sartzea pentsatzen badugu, berehala sartu beharko dugu ezabatuko dituen erregela ere, zeren izen hori agerian duten axaleko egiturak aski bitxiak eta seguru asko ez-gramatikalak gertatzen baitira:

- (62) a. *Langileek korbata eramateko gertaera gustatzen zaio Joxeri.
 b. *Denok zu etortzeko gertaera nahi dugu.

Bestalde, euskaldun normalek, batek galdetzen badie
 "Nola esango zenuke euskaraz acción de andar edo acción de comer?"
 ez dut uste ibiltzeko ekintza edo jateko ekintza esango luketenik,
ibiltzea edo jatea baizik, besterik gabe.

2.- Zehargalderak direla eta.-

Konpletiboen semantikaz eta sintaxiaz ari garelarik, zerbait esatea komeni dela uste dut zehargalderei buruz ere. Hauek ere konpletibo mota berezi bat osatzen baitute bere ezaugarri sintaktiko eta semantikoekin. Orain arte, $-(E)LA / -T(Z)EA$ formako konpletiboen artean dagokeen erlazioaz aritu gara. Orain, $-(E)N / \emptyset, (-TU)$ gisakoez arituko gara. Ikusiko dugun bezala, $-(E)N / \emptyset$ artean zer diferentzia dagoen jakitea ez da erraza. Errazago dirudi galderazko eta ez-galderazko konpletiboen arteko diferentzien berri ematea. Dena den, gramatikak era bateko eta besteko konpletiboak zein predikatuk onartzen dituzten esan beharko digu.

Ondoko lerroetan erabateko erantzun borobilik aurkitu usterik gabe, arazoari irtenbideren bat bilatzen saiatuko gara.

Har ditzagun lehenbizi kontutuan honako perpaus hauek:

- (1) a. Andonik etorriko nintzen ala ez galdetu zidan.
 b. Joxek ez zidan esan etorriko zen ala ez.
 c. Guk noiz etorriko zen galdetu genion Itziarri.
 d. Zenbat ordaindu zuten ez ziguten esan.
- (2) a. Ez zekien joan ala ez (joan).
 b. Bihar erabakiko dut joan ala ez (joan).
 c. Ez genekien zer egin.
 d. Nik esango dizut non geratu.

- (3) a. ??Joxek ez zidan esan geratu ala ez.
 b. *Andonik etorri ala ez galdetu zidan.
 c. *Andoniri ahaztu egin zaio joan ala ez joan.
 d. *Ezagun du etorri ala ez.
- (4) a. ??Andonik nora joan galdetu zidan.
 b. ??Noiz joan ahaztu egin zait.
 c. *Ezagun du nora joan.

Galderak, badakigu funtsean bi motatakoak direla: zati galderak, hots: galdetzailea daramatenak, eta bai-ez galderak (edo zabalago hartuta, ala galderak dei genitzakeenak). Kontua da jakitea ea zer gertatzen den 'galdera' hauekin, txertatuak daudenean. Gauzak nahikoa nahasturik dabiltzala dirudi.

2.1.- Datuak.-

-T(Z)EA formako konpletiboa onartzen duten predikatuek normalki ez dute inolako zehargalderarik ametitzen:

- (5) a. Ez dugu lortu
- | | |
|--|---|
| <p>*nora joan behar dudan.
 *joan ala gelditu.
 *joan ala ez (joan).
 *nora joan.
 MENDIRA JOATEA.</p> | } |
|--|---|
-
- | | | | |
|-------------------|--|---|------------------|
| <p>b. Andonik</p> | <p>*joan ala gelditu
 *joan ala ez (joan)
 *nora joan behar nuen
 *nora joan
 NORABAIT JOATEA.</p> | } | proposatu zidan. |
|-------------------|--|---|------------------|

	}	*joan ala gelditu.
		*joan ala ez joan.
c. Andonik ez du nahi		*nora joan behar dudan.
		*nora joan.
		ANDONI ETXERA JOATEA.

Salbuespentzat har litezke, behar bada, zenbait aditz: ERABAKI, PENTSATU, AHAZTU (nahiz eta AHAZTU-k, behar bada, mota guztietako zehargalderak onartu ez: ahaztu egin zaio nora joan behar duen; ?ahaztu egin zaio nora joan; *ahaztu egin zaio joan ala ez joan; ahaztu egin zaio joan behar duen ala ez) eta agian beste bakarren bat:

(6) a. Bihar erabakiko dugu	}	joan ala ez.
		joan ala etorri.
		joango garen ala geratu egingo /garen.
		nora joan behar dugun.
		nora joan.

Hala ere, kontutan izan beharko litzateke hiru aditz hauek -T(Z)EA formako konpletiboaz gainera -(E)LA formakoa ere ametitzen dutela. Hortaz, agian gauzak beste modu batera esan beharko genituzke: -T(Z)EA konplementua onartzen dutenek zehargalderazko konpletiborik onartzen ez dutela esan beharrean, zehargalderak -(E)LA konpletiboa ametitzen duten zenbait aditzek bakarrik onartzen dituztela. Baina hau ere ez da egia. Zeren, (7)-ko perpausak kontutan hartzen baditugu, EDUKI edo UKAN ez dira, berez, -(E)LA konpletiboa onartzen dutenetarikoak. Hala ere, hor dugu (7):

(7) a. Badut liburua non sal(du).

b. Ez daukat zer esan(ik).

Honek esan nahi du, aditzak edo predikatuak, ametitzen dituzten konpletibo moten arabera subkategoriza daitezkeela, baina

desberdin agertzen dituztela: $-(E)N$ eta $\emptyset$ (edo $-TU$):

(8) a. Badakit non bizi zaren.

b. Badakit non bazkal(du).

Ba ote da bi forma hauen artean erlazorik? Alegia, orain arte $[-GALD]$ daukagunean aditz mugatua duen perpausaren eta aditz ^{KONP} mugagabea duenaren artean erlazorik ez dela (transformazio bidezko erlazorik, alegia) ontzat eman dugu. Hots: (9a) eta (9b)-ren artean transformazio erlazorik ez dugu ezarri:

(9) a. Tribunalak, Pierra libro utziko duela erabakitzen du.⁵³

b. Tribunalak, Pierra libro uztea erabakitzen du.

(9a) eta (9b) esanahiaren aldetik aski hurbilak direla ezin uka.⁵⁴ Dena den, sorrera desberdina dutela onartu dugu. Sakoneko egitura desberdina eman diegun bezala honako perpaus hauei:

(10) a. Ahaztu egin zitzaion eskuak poltsikoan sartu zituela.

b. Ahaztu egin zitzaion eskuak poltsikoan sartzea.

Baina zehargalderetan, alegia KONP $[+GALDERA]$ denean ere berdin jokatu behar ote dugu? Ez ote genuke pentsatu behar zehargalderetan aditz mugagabeko perpausak aditz mugatuzkoetatik erakarriak ditugula? Zenbait autorek, gaztelaniaz edo ingelesez ari direlarik⁵⁵ infinitiboaren agerpena transformazio prozesu bati esker esplikatzeko dute: infinitiboa perpausa sujeturik gabe gertatzearen ondorio bat besterik ez litzateke izango. Infinitibozko zehargaldera hauek direla eta, zenbait hizkuntzalarik modu berean erakartzeko proposatzen dute. Hots: hemen agertzen den infinitiboa transformazio prozesu bati esker agertuko litzateke. Bresnan-ek adibidez, honela dio: "there is evidence that such infinitives may be predictable from the deletion or case-marking of their subjects".⁵⁶ Hizkuntzalari honen ustez, (11) perpausa erakartzeko (12)-tik pa-

satu beharra dago:

(11) John didn't know how to amuse himself in the forest.

(12) John₁ didn't know how he₁ amuse himself in the forest.

Horretarako aski omen da "the deletion of the subject he₁ under identity to John₁ and the automatic formation of the infinitive"⁵⁷. Eta jarraitzen du: "Evidence that infinitive-formation in these structures is the result of subject deletion and not of complementizer choice is provided by this fact: where the subject has no antecedent -and hence deletion under identity is impossible- the WH-plus-infinitive construction is impossible"⁵⁸.

Dena dela, aditz mugagabeko zehargaldera hauek BEHAR edo antzeko zerbaiten bidez osatutako aditz mugatuzko perpaus bat dute ordaintzat. Gehienek hala dute. Orduan, tentagarria da pentsatzea bata bestearengandik erakarria dela. EQUI bidez erakartzekotan, gainera, transformazio hori aukerakotzat eman beharko litzateke, zera (13) eta (14), biak baitira gramatikalak:

(13) Ez zidaten esan nora joan behar nuen.

(14) Ez zidaten esan nora joan.

Baina ustezko transformazio hori -aukerakoa litzatekeena berau- ez litzateke beti aplikatuko. Adibidez, AHAZTU aditzarekin ezin da batetik bestera pasatu, galdetu diedan zenbait euskaldunen ustez behintzat:

(15) a. Ahaztu egin zitzaion nora joan behar zuen.

b. ?Ahaztu egin zitzaion nora joan.

(16) a. Nora joan behar nuen galdetu nion.

b. *Nora joan galdetu nion.

c; *Joan ala ez galdetu nion.

Bestalde, galde hitza ZERGATIK baldin bada, ez da posible batetik bestera "pausoa" ematea:

(17) a. Zergatik joan behar zuen $\left\{ \begin{array}{l} \text{galdetu zidan} \\ \text{esan zidan} \\ \text{bazekien} \end{array} \right\}$

b. *Zergatik joan $\left\{ \begin{array}{l} \text{galdetu zidan} \\ \text{esan zidan} \\ \text{bazekien} \end{array} \right\}$

Gainera, badira era honetako perpaus mota batzu, aditz mugatuzko ordainik -ordain argirik behintzat- ez dutenak. EDUKI edo UKAN-en mende horrelako perpausak agertzen dira eta hauek ez dute inolako parafrasirik, aditz mugatuzko zehargaldera formakorik behintzat:

(18) a. Ez daukat non lo egin.

b. Badut agintariei zer eska(tu).

c. Aurkituko dut lan hori nork egin.

Hauen parean ez dut uste aditz mugatuzko ordainik jar daitekeenik:

(19) a. *Ez daukat non lo egin $\left\{ \begin{array}{l} \text{behar dudan.} \\ \text{dezakedan.} \\ \text{-go dudan.} \end{array} \right\}$

b. *Badut agintariei zer $\left\{ \begin{array}{l} \text{eskatu behar diedan.} \\ \text{eska diezaiekedan.} \\ \text{eskatuko diedan.} \end{array} \right\}$

c. *Aurkituko dut lan hori $\left\{ \begin{array}{l} \text{nork egin behar duen.} \\ \text{nork egin dezakeen.} \\ \text{nork egingo duen.} \end{array} \right\}$

Hauen ordeaz, dextente hurbiltzen zaie, esanahiz, erlatiboazko parafrasia:

(20) a. Ez daukat lo egin dezakedan lekurik.

b. Badut agintariei eska diezaiekedan zerbait.

c. Aurkituko dut lan hori egin dezakeen norbait.

Hortaz, nahikoa badaezpadakoa da transformazio bidezko erakarpen hori. Egia da nora joan eta antzeko konpletiboetan izen sintagma sujetua hutsik dagoela, hots: PRO (edo pro) dela eta horrenbestez kontrolatua.⁵⁹ Hau, hala ere, ongi esplikatu daiteke forma mugagabea -T(Z)EA bera bezala- sakoneko egitura bertan agertzen dela onartuz, inolako "infininitibatze" edo antzeko transformazioetara jo gabe. Horrenbestez, aditz mugagabea ez litzaioke zor izango inongo transformaziorik. Eta sujetuaren lekuan agertzen den PRO kontrolatua gertatzea ez da egitura hori derrigorrezko kontrola eskatzen duen egitura delako. Aditz nagusiaren "kontura" joango litzateke arazoa hemen ere. Adibidez, badakigu -T(Z)EA konpletiboa ametitzen duten aditzik gehienek ez dutela zehargalderarik onartzen konpletibo gisa, baina ERABAKI, PENTSATU, AHAZTU (?) eta beste bakarren batek onartzen dute zehargaldera mugagabe hau. Hala ere, kontrolari dagokionez, ERABAKI-k badakigu ez duela kontrolik ezartzen -T(Z)EA formako konpletiboaren sujetuaren gainean.⁶⁰ Horregatik, ez da harritzeko zehargalderetan ere kontrolik ez ezartzea eta horregatik ager daiteke izen sintagma lexiko bat. Eta ez bakarrik hori: sujetua bera ere galdetzaille izan daiteke:

- (21) a. Ez dugu erabaki zuek nora joan.
- b. Ez dugu erabaki nork ekarri ardoa.
- c. Bihar pentsatuko duz etxean nor gelditu.

Hau konpara daiteke kontrol aditz baten mende doan zehargaldera batekin. Adibidez JAKIN aditza dugularik aditz nagusi:

- (22) a. Badakigu nora joan.
- b. *Badakigu nor joan.
- c. *Badakigu zu nora joan.

Dena den, perpaus hauek aski marjinalak dira. Hala ere, gramatikalak direnak eta ez direnak konparatuz atera daitekeen on-

dorioa hau da: zehargaldera mugagabe hauetan sujetua kontrolatua badago, hori ez zaio zor hainbeste egiturari berari, aditz nagusiari baizik. ERABAKI bezalako batek ez du ezartzen kontrolik, ez ez-galderazko konpletiboetan, ez galderazkoetan. Hala ere, gehienek kontrol hori ezartzen dutela dirudi. Hortaz, aditz bakoitzari buruz lexikoiak eman beharko digu informazio hori.

Bestalde, bilatu egin beharko litzateke zeintzu diren zehargalderak ametitzen dituzten aditz nagusiak eta baita ere, bi zehargalderen arteko diferentzia zein den esplikatuz egin beharko litzateke, bata (mugagabea) bestetik (aditz mugatua duenetik) erakarrria ez dela esan dugunez gero. Baina horretan sartu baino lehen beste arazo bati irtenbidea bilatu beharko diogu eta hau da zehargaldera hauen balioa zein den jakin beharko dugu.

2.3.- "Zehargaldera" direlakoan balio semantikoaz.-

Xehetasun handiegieta sartzeko asmorik gabe, zehargaldera direlako horiek zer diren esplikatuz beharra dago, zeren horrela deitzen ditugun horiek ez baitira gehienetan egiazko galdera, beste zerbait baizik.

Konplementatzaileek funtzio semantiko desberdinak dituztela dio Bresnan-ek eta funtzio hauek direla konplementatzaile bat predikatu batekin ager daitekeen ala ez erabakitzen dutenak. Garbi dago -(E)N, -(E)LA, -T(Z)E-ren artean diferentzia semantikoak direla edo, beste era batera esateko, semantikazko diferentzien agerpen direla atzizki horiek. Froga bezala, hona hemen perpaus hauek:

- (23) a. Ez zigun esan joan egin behar genuela.⁶¹
 b. Ez zigun sekula esan joan behar genuen(entz).
 c. Ez zigun sekula esan joateko.

"To 'say that' (hots: ... -ela esan) is to make a definite

statement; to 'say whether' (=en(entz) esan) is to state a decision; to 'say for' (=t(z)eko esan) is to enounce an order" dio Bresnan-⁶²ek.

Zehargaldera direlako hauek gehienetan ez dira galdera. Galdera egitea informazio eskatzea bada, garbi dago zenbait "zehargaldera" ez direla egiazki "galdera", ez baita askotan zehargaldera direlako horien bidez inongo informaziorik eskatzen. Askotan, interpretazio desberdinak hartzen dituzte predikatu nagusiaren arabera eta konplementuak berak daraman laguntzailearen arabera. Baina desberdintasun guztien gainetik (edo azpitik) bada "an invariant residual meaning which we may assume is contributed by the WH morpheme itself" dio Bresnan-ek.⁶³

Aditz nagusia GALDETU bada, argi dago konplementua egiazko galdera izango dela, egiazko informazio eskatzea:

(24) Galdetu zidaten ea Jon etorriko zen.

Hau honelatsu parafrasea liteke:

(25) Galdera hau egin zidaten: "Jon etorriko al da?".

Baina gehienetan ez da hori gertatzen, honako perpaus hauetan bezala:

(26) a. Badakit nork esan dizun.

b. Bihar esango digute etor gaitzkeen ala ez.

c. Ez dit inork esan nora joan.

Baker-i jarraituz,⁶⁴ Bresnan-ek⁶⁵ dio WH-ren efektua hurbilagotik ikus daitekeela "viewing it as a semantic function on determiners". Honen arabera, ohizko galderek honako interpretazio hau izango lukete:

(27) Zein nahi duzu? = zuk WH(hura) nahi duzu: hura-k erreferentzia determinatu gabea duelarik.

Eta zehargalderak ere honelatsu interpreta litezke. Adibidez:

(28) Zein nahi zenuen galdetu zuen = [Zuk WH(hura) nahi zenuen;

hura-ren erreferentzia determinatu gabe dagoelarik] galdetu zuen.

Hots: "Zuk X nahi zenuen horretan

X-en erreferentziaz galdetu zuen".

(29) Badakit zein ederra zaren = Badakit [zu WH(hain) ederra

zara: hain-en erreferentzia deter-

minatu gabea delarik]. Hots: "Ba-

dakit X-en erreferentzia Zu X mai-

laraino zara ederra baieztapenean"

"In summary -dio Bresnanek- WH is a function on determiners mapping either, so, some, etc. onto whether, how, what, etc. In a sense, WH "undetermines" a particular part of the complement it governs. What is "undetermined" is well defined: WH picks out a specific semantic gap (or several such) in a domain which is otherwise semantically complete. The WH complement may thus be compared to the "open sentence" of logic. An open sentence is essentially a sentence containing free variables (e.g., "x saw John at time y"), it can be neither true nor false."⁶⁶

Hortaz, Spears-en kritikak gorabehera, zehargalderak deitzen ditugun horiek era honetan ulertu behar direla esan daiteke. Ez dira gehienetan egiazko galderak. Adibidez, honako perpaus hauek era desberdinean ulertu behar dira:

(30) Esan diot zer eskatu zidan = Zerbait eskatu zidalarik,

zerbait horren erreferentzia

ezagutarazi diot.

(31) Ez dakigu joango garen = Joango gara edo ez gara joango. Aukera dugularik, ez dugu ezagutzen azken hautapena.

(32) Bihar erabakiko dugu nora joan = Norabait joango garelarik, bihar finkatuko dugu "norabait" horren erreferentzia.

Hala ere, problema bat behintzat badatorkigu berehala gogora. Alegia, (33) eta (34) perpausetan bi konplementu desberdin ageri dira eta bien artean nahikoa diferentzia bada: bata proposizio bat dela onartu dugu eta bestea, ekintza bat:

(33) Ahaztu egin zaio bi urte pasatu dituela gartzelan.

(34) Ahaztu egin zaio gartzelara joatea.

Hots: aditza mugatua izan edo mugagabea izan, bada aldea. Hortaz, zehargalderetan ere ba ote da horrelako diferentziarik? Ezetz dirudi:

(35) a. Ez dakit nora joan.

b. Ez dakit joan ala ez joan.

c. Ez dakit nora joan behar dudan.

d. Ez dakit joango naizen ala ez.

(35a) eta (35c)-ren artean ez du ematen diferentzia handiegirik dagoenik, ez eta (35b) eta (35d)-ren artean ere. Hala ere, nora joan, zer esan eta antzekoek beti dute halako obligazio kutsu bat eta beti, hori bai, gertakizun den zerbaiti dagozkio. Aditz mugatuzko zehargalderetan berriz, normalki askatasun osoa dugu denboraren aldetik eta baita aspektuaren aldetik ere.

Dena den, bi zehargaldera moten arteko diferentzia zertan datzan esateko gauza ez bagara ere, gauza bat dago argi: gehienetan

horrela ez bada ere, badira zenbait aditz era bateko edo besteko zehargaldera ametitzen dutenak eta ez biak. Horrek esan nahi du ezin direla beti trukatu, beraz diferentziaren bat badagoela bien artean. Horregatik, zail samarra egiten zait pentsatzea nora joan, zer egin, joan ala ez, e.a.⁶⁷ nolabaiteko laburduraren baten bidez edo, aditz mugatua duten perpausetatik erakartzea. Dena den, hemen mota bateko baino gehiagotako zehargalderen aurrean aurkitzen gara rela ematen du eta, horregatik ezin konklusio behin betikorik atera.

2.4.- Konpletibotzat zehargalderak onartzen dituzten predikatuak.

Esana dugu zehargalderek aditzak subkategorizatzen dituztela eta tasun honek ez duela zer ikusirik bestelako konpletiboekin. Hots: zehargalderak onartzen dituzten aditzek ez dute osatzen bestelako konpletiboak onartzen dituztenen azpimultzo bat: zein bere aldetik doa eta, horregatik, aditz bakoitza posible diren konpletibotz mota guztien arabera azpikategoriza daiteke.

Kontua litzateke, hortaz, jakitea zein diren ^{KONP}[+GALD] onartzen duten aditz nagusiak. Hizkuntzalariak arduratu dira honetaz, baina, nire ustez, argi gehiegirik ez digute eskaintzen.⁶⁸ Dena den, Bresnan-en ikuspegitik badirudi soluzioren bat etor daitekeela. Hizkuntzalari honek dioen bezala, "The characterization of WH as an "undeterminer" suggests why complements occur with intrinsically interrogative and dubitative predicates such as ask, inquire, wonder, doubt, (...). It also suggests why certain predicates, which sometimes seem incompatible with WH complements, nevertheless occur with WH in contexts implying uncertainty or "openness" (...). The WH complements often exploited in holding back, concealing, or⁶⁹ deliberately leaving open certain information..." Azken batean,

hemen ere aurrerago esan duguna gertatzen da, hots: predikatuek proposizioak edo gertaerak edo ekintzak eta abar onartzen dituzten bezala, eta onartzen dituzten konplementuen arabera subkategorizatzen diren bezala, era berean zenbait predikatuk 'galderak' -Bresnan-en zentzuan ulertuak- ametitzen dituzte konplementutzat. Beste hitz batzutan esateko, (36) perpausa zilegi da (37)-ko interpretazioa ere zilegi delako:

(36) Ez dakit nork esan dizun.

(37) Ez dakit (=ez dut ezagutzen) X-en erreferentzia X-ek esan dizu perpausan.

Bide beretik esplika daiteke zergatik JAKIN-ek zehargalderak onartzen dituen baina USTE IZAN-ek, adibidez, ez.⁷⁰ Izan ere, (38) ez-gramatikala dugu (36) ez-gramatikala den arrazoi beragatik:

(38) *Ez dut uste nork esan dizun.

Perpaus honek interpretazio bat izatekotan, (39) moduko zerbait izen beharko luke:

(39) *Ez dut uste X-en erreferentzia X-ek esan dizu perpausan.

Baina (39) ezina gertatzen da ezeren erreferentziarik ezin uste izan daitekeelako. Zerbaiten erreferentzia ezagut daiteke, jakin daiteke, esan daiteke, zerbaiten erreferentziaz galde egin daiteke, pentsa daiteke eta abar. Baina ezin daiteke uste izan, nahi izan eta abar. Horregatik dira ez-gramatikalak (40)-ko perpausak:

(40) a. *Lortuko dugu nora joan diren.

b. *Andonik nahi zuen norðik etorri zen.

Zehargalderazko perpausak osatzen ditugunean, X-en erreferentzia jakiteaz, ahazteaz, galdetzeaz, erabakitzeaz eta abar arduratzen gara. Hori adimenari edo hizkuntzari dagokion zerbait da. Horregatik, ez da harritzeko orain arteko zehargaldera hauen

"container"-ak, Vendler-en hitza erabiltzeko⁷¹, pentsamentuari eta hizkuntzari dagozkion predikatuak izatea. Hauek aparte, hala ere, badira beste aditz gutxi batzu (UKAN, EDUKI, AURKITU, EGON, IZAN,...) zehargaldera mota berezi bat (alegia, galdetzailearen perpaus mugagabeak -nora joan, zer egin, non lo egin perpausen tankerakoak- baina ez bai-ez erako galderarik -joan ala ez joan eta antzekoak⁷²) ez eta aditz mugatuzko zehargalderak ere) ametitzen dituztenak. Hauetan ere X-en erreferentzia "undetermined" gelditzen da eta perpaus horiek esan nahi dutena, hain-zuzen, da badudala edo badaukadala edo aurkitu dudala edo badela, erreferentzia determinatu gabea aurkezten den X hori. Esan nahi baita, (41)-en interpretazioa (42) den bezala, (43)-rena (44) izango da. Gertatzen dena da, batean X-en erreferentzia (ostatu bat, adibidez) EZAGUTU egiten dela eta bigarreanean, berriz, ezagutzea aski ez delarik, EDUKITZEAZ ari gara. Hots: kasu honetan, (43)-n alegia, ez daukat ostaturik, beraz ez daukat non lo egin:

(41) Ez dakit non lo egin.

(42) "Ez dakit (=ez dut ezagutzen) X-en erreferentzia X-en lo egingo dut perpausean"

(43) Ez daukat non lo egin.

(44) "X-en lo egin beharko nukeelarik, ez daukat X hori"

Beste arazo bat da zergatik era honetako esapideak EDUKI, UKAN, AURKITU, IZAN, EGON, (behar bada, IKUSI) aditzekin zilegi diren eta ez, adibidez, beste zenbait aditzekin, EMAN edo EROSI-rekin, esaterako. Alegia, (45) esan daiteke baina ez, (46):

(45) Ohe bat erosi dut eta badaukat gaur gauean non lo egin.

(46) *Bihar erosiko dut non lo egin.

Demontek, Bresnan-en iritzia jasoaz, honako arrazoi hau ematen du ahotan darabiltzagun egitura hauen antzekoez ari delarik: "Las construcciones de 'que+infinitivo' que estamos considerando también son caracterizables de una manera definida en cuanto a su significado. Bresnan (1974, pag. 89) sugiere que los verbos que permiten esta construcción son verbos 'intencionales': verbos que no implican la existencia de su objeto, o cuyo objeto está inespecificado o indeterminado (buscar, necesitar, haber, traer). Por eso esta construcción no tiene lugar cuando el verbo entraña una relación muy concreta entre el sujeto y el objeto (comprar, romper, quemar, etc.)".⁷³ Dena den, egitura hauek erlatiboetatik oso hurbil dabiltza, eta bataren eta bestearen arteko erlazioa zertan datzan ere aztertu beharko litzateke. Problema asko, nik uste, hemen aztertzeko. Gainera, oraingoz ezezagunak zaizkigun -neuri behintzat bai- arrazoi semantikoak dabiltza jokoan eta ez da erraz hemen aipatu ditugun arazo hauei denei esplikazio zuzen eta egokia eskaintzea.

OHARRAK (VII atala)

1. Ik. Rosenbaum 1967; R. Lakoff 1968 eta abar.
2. Beste kontu bat da euskaraz ikasten ari den pertsona haziari gertatzen zaiona. Baina honen arrazoiak beste batzuk dira, jatorrizko hizkuntzak eragin handia izaten baitu.
3. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970.
4. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970, 72 orr.
5. Salbuespen bakarra, behar bada, euskarari gagozkiola, surpass belief-i eman diogun ordaina izango litzateke. Hau sinistezina gisa itzul badaiteke, predikatu honek euskaraz -T(Z)EA ala -(E)LA eskatuko du?:
 - (a) Gizon hori hain aberatsa dela sinistezina da ala
 - (b) Gizon hori hain aberatsa izatea sinistezina da.
 (a) hartzen badugu, behar bada sinistezin-ek sinistu-ren errejimen bera izango luke. (b) baldin bada ontzat eman daitekeen bakarra, ezkerreko eta eskuineko zerrenden artean dagoen diferentziak ez luke inolako salbuespenik izango.
6. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970, 72 orr.
7. Karttunen-ek ere aitortzen du hau: "in general there appears to be no connection between the semantic properties of a verb and the syntactic type of complement clause it takes. There are factive verbs with infinitival complements; for example, glad and proud; and there are also if-verbs which take that-complements. Some of them are listed in (23):
 - (23) bring it about
 - make sure
 - see to it
 (Karttunen 1970, 334 orr.)
8. Dena den, Karttunen-ek AHAZTU ez luke faktibotzat hartuko inpliktibotzat baizik.
9. Hala ere, ez dut aurkitu zeharo bete nazakeen subjuntiboari buruzko lanik, zeren Manteca 1981 berak ez baitio arazo honi heltzen. Subjuntiboa MOD adabegiaren azpian sakoneko egituran agertzen dela frogatzera mugatzen baita honen lana. "la pregunta ¿a qué se debe la aparición del subjuntivo? es la que ha guiado a los gramáticos tradicionales, los cuales trataban de responder mediante conceptos semánticos intuitivos, que se resumen en la oposición de lo real frente a lo irreal" dio Mantecak (ik. 46 orr.).

10. Ik. Menzel 1975, 35 orr.
11. Ik. Menzel 1975, 36-62 orr.
12. Ik. Menzel 1975, 42-43 orr. Ikus, baita A. Mourelatos 1978.
13. Ik. Vendler 1968, 72-82 orr.
14. Ik. Menzel 1975, 44 orr.
15. Bereizketa askoz hobeto egiten du Vendler-ek, nik uste:
 "Truth and falsity do not depend upon the maker of the statement or the holder of the belief. What is stated, what is believed, is true if it agrees with what is the case, if it fits the facts. Facts (...) are "made of the same stuff" as propositions (...). Yet it is not enough to say that a fact is a true proposition; a true proposition is not a fact, it merely fits or corresponds to the facts" (Z. Vendler 1970, 95 orr.).
16. Hala ere, "there is another reason, too, for attributing objective existence to facts and, for that matter, to possibilities. We are often affected by entities of this kind. The fact that my friend is ill may shock or surprise me, and the possibility of his loss may upset or worry me, whereas the same fact and the same possibility may please or delight his enemy. There are not only "propositional actions", such as thinking or saying, but "propositional passions" such as surprise or delight. Of course, in all these cases one might also say that it is the thought of my friend's illness, or the idea of his possible demise, that really shocks or upsets me. This, however, by no means proves that the fact or possibility in question is a merely subjective, thought-dependent entity. These things are apprehended in the form of a proposition, but this is merely the subjective appearance of an objective reality" dio Vendler-ek (Ik. Vendler 1970, 95-96 orr.).
17. Ikus, baita ere Mourelatos 1978. Honek dioenez, gertaerak izen zenbakarrien pare dira: "Ontologically speaking, events are defined as those occurrences that are inherently countable" dio.
18. Ik. Mourelatos 1978.
19. Ik. Menzel 1975, 50 orr. Ideia hau Lees-ek azpimarratua zuen jadanik: "It would seem then that these nominal are each of two subtypes: one with or without the genitive subject (or subject after for) or the auxiliaries and which refers to "facts", and one which cannot have any expressed subject, nor any auxiliary, which refers to "actions". (Ik. Lees 1960, 72 orr.)

20. Ikus, bereziki, Vendler 1968, 74-79 orr.
21. Ik. Menzel 1975, 77 orr.
22. Ik. Menzel 1975, 71 orr.
23. Ik. Menzel 1975, 79 orr.
24. Ik. Menzel 1975, 85 orr.
25. Ik. Menzel 1975, 90 orr.
26. Hauentzat, Manteca 1981-ek proposatzen duen bidea onartzea aski genuke. Ik. 122 orr.
27. Ik. Menzel 1975, 202 orr.
28. Ik. Menzel 1975, 202 orr.
29. Hau dela eta, Demonte 1977-k (ik. 51 orr.) Kiparskytarren lanaren merezimenduak aipatzerakoan, honela dio: "Las ventajas de su enfoque son evidentes: al descubrirse unas interrelaciones entre los niveles sintáctico y semántico y proponerse unas estructuras profundas y un conjunto de reglas que dan razón del sistema de la subordinación sustantiva, se echa por tierra una vez más la necesidad de marcar cada verbo por respecto a su compatibilidad con cada una de las estructuras superficiales de subordinación y se descarta la creencia transformacionista de que este subsistema de la gramática es algo básicamente irregular e impredecible..."
 Hemen ere horrelako zerbait egin nahi genuke. Konplementazioaren sistema ikasteko buruhauste handiegirik ez badugu izaten, euskaraz ikasten dugunean, ezin izan daiteke gramatika zati hau "algo básicamente irregular e impredecible". Egia da aditz bakoitza (eta ez aditz bakoitza, hitz bakoitza ere bai, noski) berezia dela eta aditzak sailkatu nahian abiatzen bagara eta bakoitzaren banaketa aztertzen hasten bagara xehetasun osoz, behar bada aditz adina aditz klase aurkituko ditugula, aditz bakoitzak normalean bere esanahi propioa izango baitu. Alde honetatik, hizkuntza ikasterakoan, eta bereziki hiztegiaren jabe egiterakoan, hiztegi horretako banako guztiak bana banaka ikasi beharko ditugu, baina, hitz bakoitzaren berezitasunen gainetik beti izango da posible zenbait ezaugarriren arabera aditz multzoak osatzea. Ikus, hala ere, M. Gross 1975, 214 orr.
30. Alde honetatik, gure herrian argitaratzen diren egunkarietako batetik hartutako esaldi hau oker legoke: "Gure herriaren egoeran "normalizazio juridikoak eta demokratikoak" ematen direla esatea gezur hutsa da" (Ik. L.M^a Mujika, Egin, 83/1/4, 19. orr.).
 Gaur egun hain modan dagoen EMAN hori albora utzita, zerbait

esatea ezin izan daiteke gezurra ez egia. Zerbait hori, esaten den hori, alegia, izan daiteke gezurra edo egia -eta horrela gertatzen dira gauzak gainera- baina esatea bera gezurra dela ezin esan daiteke. Perpaus horrek, zuzena izateko zerbait falta du, hortaz. Honela izango litzateke perpaus hori zuzen jarrita: "... ematen direla esatea gezur hutsa ESATEA da".

31. Huot 1981-ek dioenari, hortaz, zeharo bidezko dèritzat. Hizkuntzalari hau "Où aller?" eta, "Moi, faire cela!" gisako infinitibo lokabeei buruz ari delarik, honela mintzo da: "dépourvu de marques temporelles et personnelles, l'infinitif ne peut exprimer que la notion verbale pure, indépendamment de tout ancrage dans le temps. Si l'on admet par ailleurs qu'il ne saurait y avoir d'assertion, susceptible d'être vraie ou fausse, en dehors du temps, on doit alors s'attendre à ce que l'infinitif apparaisse dans une phrase chaque fois qu'il est impossible que celle-ci puisse avoir une valeur de vérité. C'est le cas de ces tours indépendants dont la modalisation, interrogative ou exclamative, exclut tout jugement de vérité. C'est aussi le cas de ces subordonnées dont il est couramment reconnu qu'elles n'ont pas d'ancrage dans le temps ni de valeur assertive indépendamment du verbe introducteur, et que c'est seulement l'ensemble formé par le verbe introducteur et la subordonnée qui constitue une assertion susceptible de recevoir une valeur de vérité". Ik. H. Huot 1981, 147 orr.

32. ESAN aditzaren mende doan konpletiboa ere badakigu /indik. + ela/ formakoa dela, eta, horregatik, esaten diren gauzak proposizio izan daitezke, gezurra edo egia den zerbait esan baitaiteke. Beraz, batek esan duena proposizio izan daitekeenez, proposizio edo baieztapen hori ager daiteke perpausean leku desberdinetan. Baina funtzio desberdinek atzizki desberdinak eskatzen dizkiote. -ELA-ri, ordea, ezin zaio atzizkirik erantsi aldezturik -KO atzizkia ezartzen ez bazaio. Bide hori jarraituarren, hala ere, delako perpaus hori beti proposizio bat izango da eta ez ekintza edo gertaera bat. Horregatik, ezin egon gaitzke ados Villasante-ren baieztapen honekin. Honela dio: "La perífrasis "eso de que", "lo de que", se obtiene en vasco por el sufijo -lako, que puede recibir el artículo -a, o bien ser seguido por los demostrativos. Gogoak ematen dionean etorriko delakoa, ez zait ongi iruditzen. La dicha oración sujeto puede ir en otro caso de declinación, según lo pida el régimen del verbo: Gogoak ematen dionean etorriko

delako horri ez derizkiot ongi. O más breve aún, se puede decir (sin -lako): Gogoak ematen dihonean etortze hori... "Ese venir cuando le dé la gana..." " (Ik. Villasante 1976, 42 orr.).

Izan ere, kontua ez da perpaus bat laburrago edo luzeago gertatzen den. Bi perpaus horiek -eta gaztelaniazko itzulpenak ere gauza bera adierazten duela esango nuke- ez dira esanahi berekoak: batean ongi erizten ez diodana norbaitek esan duena da, alegia, ez dela etorriko. Bigarrenetan, berriz, etortzeari berari ez diot ongi erizten. Hots: batean proposizio bat iruditut zait gaizki, bestean, berriz, gertaera bat.

Era berean, honako bi perpaus hauek zeharo esanahi desberdina dute:

(a) Praile batzuk hainbeste edateak harritzen nau

(b) Praile batzuk dexente edaten dutelakoak harritzen nau.

33. Eta horren arrazoiak Hooper-ek ematen digu: "Any sentence with an assertive predicate and a sentential complement may have at least two different semantic readings, according to the relative importance given the main sentence and the embedded sentence (...). A sentence like (19) contains two claims to truth, listed as (20a) and (20b):

(19) He says he wants to hire a woman.

(20) a. He says X.

b. He wants a woman.

Syntactically, assertion (20a) is the main proposition of sentence (19). Semantically, however, there are two asserted propositions. The second assertion is, in this case, an assertion attributed to another speaker, an indirect assertion..." (Ik. Hooper 1975, 95-96 orr.).

34. Ik. Menzel 1975, 193-194 orr.

35. Ik. Menzel 1975, 41 orr.

36. "any type of reference to proposition in the characterization of that complements confronts insoluble problems due to the fact that certain that complements do not express propositions. This is notably true with that subjunctives and other types (...). Consequently, it cannot ^{be} that that complements are definitized in the sense that they express only one definite, specific, proposition or in the sense that they express only one event" dio Spears-ek (Ik. Spears 1977, 61-62).

37. Ikus daiteke bide batez Z. Vendler 1968, 56-61 orr. Eta baita Bresnan 1972, 74-76 orr. Azken hau kritikatu egiten du Spears-ek (ik. Spears 1977, 45-46 orr.)
38. Ik. Terrell 1974, 487 orr. Dena dela, assertion hau guk propozizio erabili dugun zentzuan erabilia dagoela pentsa daiteke.
39. Ik. Villasante 1976, 51 orr.
40. Ik. Horiguchi 1978, 31 orr. Aditz psikologikoen artean hiru azpimultzo berezten ditu Horiguchi-k: a) "cognitive verbs which deal with mental processes including belief and assumption; b) perception verbs which deal with sensory perception; eta c) "emotive verbs which deal with emotional reactions such as joy, sorrow, wonder, love and hatred". Dena den, emotive direlako hauek zentzatetara ino onartzen duten that konplementua ez dago oso argi: "some emotive verbs such as dislike, hate, ignore, intend, like and love are reluctant to take the that-clause as subject" dio Horiguchi-k 34. orrialdean.
41. Horiguchi-k hope "cognitive" direlako horien artean sartzen du. "The verb hope may be interpreted as either an emotive verb or a cognitive verb semantically, but behaves like a cognitive verb semantically". (Horiguchi 1978, 77, 2. oharra).
42. J.B. Agirre, Erak. I, 139.
43. Bizkai aldean entzuten den "erresultaten da ze..." delakoaren antzekoa, hain zuzen.
44. Kasu honetan eskerrak aurkitu zaitudan ere esan daiteke. Hemen, jakina, nahiz eta -EN atzizkia izan ez ginateke egiazki zehargaldera baten aurrean egongo, -ELA-ren aldaera baten aurrean baizik.
45. Bestalde, ohartu behar genuke (51) eta (52) alderatzerakoan bateko eta besteko perpausek ordena desberdina dutela: (51)-koek nekez onartuko dute ordena aldaketarik, baina (52)-koek askatasun handia dute:
- (a) ??Oraindik ez direla etorri arazoa da.
 - (b) ??Gauza guztiak ahazten zaizkiola da onena.
 - (c) ??Hau dela azkeneko trena da okerreana.
- Baina
- (d) Denok joatea da onena.
 - (e) Edari desberdinak nahastea da okerreana.
- eta abar.
46. Ik. Demonte 1977, 122 eta hurr.

47. Ez bada -(E)LA / -(E)NA bereizkuntza finkatzeko; baina hau beste arazo bat da eta hemen ez dugu honetaz ezer esango.
48. Ik. Menzel 1975; eta baita Demonte 1977-ren ustez ere (ik. 122-125 orr.).
49. Ik. Ross 1967, 66-88 orr.
50. Ik. Manteca 1981.
51. Ik. Demonte 1977,
52. Ik. Manteca 1981,
53. Haritschelhar-ek Etxahun-i buruzko liburuxkan dakarrena berau: Ik. Etxaun Barkoxeko, Donostia 1983, 25 orr.
54. Zenbaitek, hala ere, jatorra behar bada (b) dela uste du eta ez (a).
55. Ik. Kiparsky & Kiparsky 1970, Nuessel 1972, Horiguchi 1978, eta abar.
56. Ik. Bresnan 1972, 31 orr.
57. Ik. Bresnan 1972, 32 orr.
58. Hala ere, badirudi hau ez dela zeharo egia: It's unclear who to visit eta antzekoak badira. Bestalde, euskaraz behintzat, normalki egitura hauek kontrol egiturak baditugu ere, posible dira, erdaraz ez bezala, honako perpaus hauek: Ez dugu erabaki nork egin; ez dugu aurkitu pakete hau nork eraman e.a.
 Horiguchi-k ere antzeko erakarbidea proposatzen du (Ik. Horiguchi 1978, 322 orr.). Honela dio: "Wh-clauses may undergo Equi followed by infinitivalization if the subject of the WH-clauses is coreferential with the higher subject or the higher object of the matrix clause (...) In infinitivalization, modality and tense of the embedded clause are neutralized". Baina inon ez zaigu ematen xehetasunik. Bestalde, ez dakit ezabatze hori neutraltzea ote den. Zeren, nere ustez, "modality" delako hori ez da inolaz ere neutraltzen. Hain zuzen, aditz mugatuzko zehargalderak aditz mugagabezkoarekin zerikusirik baldin badu nolabaiteko obligazioa edo, gutxienez, gertakizun den zerbait adierazten duenarekin du zerikusia, ez, adibidez, kutsu hori ez duenarekin. Alegia, (a) perpausak (b) edo (c) perpausarekin izango luke zerikusia eta ez, (d)-rekin:
 - (a) Noiz joan esan zidan.
 - (b) Noiz joan behar nuen esan zidan.
 - (c) Noiz joan nintekeen esan zidan.
 - (d) Noiz joaten nintzen esan zidan.
 Hala ere, ez dakit (b) edo (c) (a)-ren zeharo baliokidetzat har daitekeen.

59. Ik. Chomsky & Lasnik 1977.
60. Ik. VI atala.
61. Guk genuenik esango genuke, baina genuela ere bai. Hemen perpaus nagusia ezezka dagoenean ere -(E)LA dela suposatzen dugu.
62. Ik. Bresnan 1972, 60 orr.
63. Ik. Bresnan 1972, 61 orr.
64. Ik. Baker 1969.
65. Ikus, hala ere, Spears 1977-ren kritika (53-60 orr.).
66. Ik. Bresnan 1972, 65 orr.
67. Antzeko problema bat planteatzen du Demontek nada que comer, mucho que hablar, una casa que limpiar eta antzeko egiturez ari delarik. Sauer-en "modal abstracto" delakoaren hipotesia (Ik. Sauer 1972, 194-212 orr.) jasotzen du baina ez du ontzat ematen zenbait arrazoiengatik. Hipotesi honek, un trabajo que hacer-en azpian un trabajo que yo deba hacer edo antzeko zerbait egongo litzatekeela dio. Nolabaiteko aditz abstraktu bat proposatzen du, hortaz. Baina Demonterentzat egitura hauek /izena + preposizioa + infinitiboa /egituraren kidekoak dira. Horregatik, NORA JOAN eta antzekoek agian halako aditz abstrakturen bat eskatzen dute. Baina proposamen honek, Demontek ongi dioen bezala, nahikoa arazo sortarazitzen ditu (Ik. Demonte 1977, 98 orr.)
Alde honetatik, behar bada arazorik larrienak ez daukat nora joan eta horrelakoetan sortzen zaizkigula uste dut. Ez bait nago ziur euki eta antzeko aditzekin egiazko zehargalderak ditugun eta ez nolabaiteko erlatiboak.
68. Ik. Vendler 1968, V kapitulua; Horiguchi 1978, 306-315; Bresnan 1972, 66-67; e.a.
69. Ik. Bresnan 1972, 66-67.
70. Alegia, Villasantek zehargalderei buruz dio "constituyen una sección importante de las complementarias directas. Se trata de unas oraciones subordinadas en que la pregunta se hace depender de un verbo de los llamados de entendimiento y lengua, como "saber", "entender" (...)". Baina argibide honekin ez dugu esplikatzen ahal uste izan "verbo de entendimiento" izanik, nolatan ez den zehargalderak onartzen dituzten predikatuetakoa. Ik. Villasante 1976, 61 orr.

71. Ik. Vendler 1968.

72. Joan ala ez joan eta horrelakoek bai eta ez-en arteko aukera dagoela esaten digute. Normala da, hortaz, ERABAKI edo JAKIN, adibidez, mota horretako zehargalderekin ongi "konpontzea", zentzua baitu esateak: "bai eta ez-en artean erabaki behar dut" edo "bai eta ez-en arteko aukera zein den ez dakit" e.a. Baina euki-ren kasuan hori ezina da. Horregatik:

(a) Ez dakit $\left\{ \begin{array}{l} \text{zer egin} \\ \text{joan ala ez} \end{array} \right\}$

Baina

(b) Ez daukat $\left\{ \begin{array}{l} \text{zer egin} \\ \text{*joan ala ez} \end{array} \right\}$

73. Ik. Demonte 1977, 99 orr.

VIII ATALA

IZENKI ERAKARRIAK

Aurreko atal batean genitibodun aditz-izenezko zenbait egituraz mintzatu gara (txakurraren erostera joan dira eta antzekoez, alegia). Baina genitibodunen artean bereziki aipagarri direnak izenki erakarriak ditugu. Hots: -T(Z)E atzizki izentzaileaz gainera badira beste atzizki batzu ere: -ERA, -KETA, -PEN, -MENDU, -KUNTZA, -DURA, -KIZUN, -(TZAI)LE, eta abar.¹ Adibidez:

- (1) a. Zure etorrerak poz eman dit.
 - b. Liburuaren zabalkundea handia izan da.
 - c. Zure konponketak ez nau erabat bete.
- eta abar.

Baina (1)-eko perpaus horien parean orain arte aztertu ditugunak ere, (2)-koa bezalakoak, hor ditugu:

- (2) Zu etortzeak poz eman dit.

Bestalde, (1) eta (2)-ren ondoan (3)-ko perpausaren antzekoak ere zilegi dira, nere hizkuntz gaitasunaren arabera behintzat:

- (3) Zure Ameriketara joateak ez dit pozik ematen.²

(2) bezalako perpausetan agertzen diren aditz-izenezko egitura horiek perpaus direla ontzat eman dugu orain arteko lerroetan. Azken batean, euskaraz perpaus txertatuak har ditzakeen itxuretako bat besterik ez da. (1) eta (3)-ko perpausen erakarbi-dea zein izan daitekeen jakitea da orain gure arazoa. Ondoko lerroetan horretaz arituko gara. Lehenbizi, (1)-eko perpausen antzekoez mintzatuko gara, izenki erakarriak dituztenei buruz, gero besteez aritzeko.

1.- Hipotesi transformazionalista versus Hipotesi lexikalista.

ZURE ETORRERA, LIBURUAREN ZABALKUNDEA, ZURE KONPONKETA eta antzekoak perpaus dira ala izen sintagma soilak? Hots: izen sintagma horiek IS adabegiaren azpian P adabegia ere badute ala ez?

ETORRI aditzaren eta ETORRERA izenaren artean erlazio bat badela argi dago, KONPONKETA eta KONPONDU-ren artean dagoen bezalaxe. Hizkuntz teoriaren historian zehar, aldi batean behintzat, banako lexikalek elkarrekin dituzten erlazioez kezkatu¹ ibili dira hizkuntzalariak: nola erlazioa daitezke aipatu aditzak dagozkien izenkiekin, edo nola eman aditzera erlazio hori? Garbi dago gramatikak, eta gure kasuan euskal gramatikak, erlazio horren berri eman behar duela.

Gramatika Sortzailearen barrutian arazo horren aurrean bi bide desberdin proposatu izan dira. Bi bide hauek Gramatikak izan behar duen formari buruzko kontzepzio desberdinei dagozkie: a) bata, Hipotesi transformazionalista dei daiteke. Kronologiaz hau dugu lehenena. Teoria honek izenki erakarriaren eta bere iturrian dagoen aditzaren arteko erlazioa transformazio erregelen bidez bakarrik eman daitekeela aditzera dio. Jarrera honen lehenbiziko eredua³ Lees izango genuke. Baina Gruber-en⁴ teorian oinarrituz, McCawley-k, Lakoff-ek eta Ross-ek landu duten modeloak ere funtsean hasierako jarrera transformazionalistari eusten segitzen dio. Aipatu hizkuntzalariok Semantika Sortzaile izenekoa proposatu dute⁵. Jakina denez, hauentzat ez da jadanik sakoneko egiturarik. Eta irudikatze semantikoaren eta axaleko egituraren artean egingo lukete lan erregela sintaktikoek.

b) Bigarren jarrerari Hipotesi lexikalista deitzen zaio eta Chomskyk, Jackendoff-ek eta beste zenbaitek landu dute.

Ikus dezagun, laburkiro, jarrera bakoitzaren nondik-norakoa.

1.1.- Hipotesi transformazionalista.-

Hipotesi honen funtsa da sakoneko egituran perpaus osoa dena, Nominalizaziozko transformazio baten ondoren, perpaus nagusi baten barruan agertzen dela, izen sintagma txertatu gisa.⁶

Aditz baten eta aditz honetatik erakarritako izenki baten arteko erlazio morfologikoa eta semantikoa aztertzen saiatu da Gramatika Sortzailea, eta erlazio hauze izan da, hain zuzen, Gramatika Sortzailea zehazten ahalegindu den lehenbiziko erregular-tasuna: "Le traitement de ces faits a d'abord donné lieu à une solution syntaxique, ce qui n'est pas étonnant, tant l'idée de règle est liée à la syntaxe et difficile à associer au lexique: on a proposé des transformations de nominalisation qui dérivait les noms de verbes. Par exemple: Jean refuse de partir ==> Le refus de Jean de partir."⁷

1.1.1.- Lees (1960).-

Chomskyren ideiei jarraituz, nominalizazio fenomenoari eskaini zaion lehen lan handia J.R. Lees-en hau dugu. Idatzi zuen garaiagatik, Chomskyren lehenbiziko modeloari jarraitzen zaio: badira muin perpausak (= 'kernel sentences') eta perpaus erakarriak. Eta badira, horrenbestez, transformazio bakunak eta transformazio orokorrak. Transformazio orokorretako bat izango litzateke nominalizazioa. Transformazio honek perpaus bat hartzen du, nominalizatzen du eta perpaus nagusi baten barruan txertatzen du. Adibidez:

- | | | |
|-----------------------|---|--|
| (1) a. Harrigarria da | } | ==> Andoni hara joatea harrigarria da. |
| b. Andoni hara doa | | |

(b) perpausa (a) perpausean, "Complement" baten lekuan txertatzen

du, nominalizatu ondoren.

Lees-en asmoa da "to characterize various nominal expressions by giving simple grammatical rules to enumerate them"⁸. Hirugarren kapitulua da Lees-ek bereziki nominalizazioari eskaintzen diona. Action nominal delakoa da batez ere interesatzen zai-guna.

Lehenbizi forma berak ingelesez adiera desberdinak izan ditzakeela oharitzen da: honako perpausotan his drawing hiru era desberdinetara uler daiteke:

- (2) a. His drawing fascinated me (because he always did it lefthanded).
(="Haren marrazteak (edo marrazkerak) liluratzen ninduen, beti ezker eskuz egiten baitzuen.")
- b. His drawing fascinated me (because I didn't know he could be persuaded so easily)
(="Hark marrazteak liluratu ninduen, ez bainekien hain erraz limurtuko genuenik".)
- c. His drawing fascinated me because it was so large.
(="Haren marrazkiak liluratu ninduen, oso handia baitzen.")

Adibide hauetan, hirugarrena izen konkretu bat litzateke Lees-en ustez, beste biek, ordea, itxuraz berdinak izan arren, zeharo zentzu desberdina dute, euskal itzulpenak nolabait agerian jartzen duen bezala: bata ekintza bat adierazten duen bezala, besteak factum bat adieraziko luke, gertaera bat.

Nominalizazio morfema -ING (gerundioarena bera, gure -T(Z)E-ren antzekoa) izan daiteke baina baita beste zenbait ere: -TION, -ITY, -MENT, eta abar. Dena den, garbi dago Lees-entzat construct eta

construction; destroy eta destruction artean dagoen erlazioa adierazteko modu bakarra transformazio bidea dela.

Beste nominalizazio mota batzu ere aipatzen ditu Lees-ek: Agentive nominal edo Egile izenkia adibidez. Ekintza izenkiak, ekintzak eta ekintza hauen modua adierazteko erabiltzen ditugun bezala, baditugu ekintza hauen egileentzako izenak eratzeke modu erregularrak ere.⁹

1.1.2.- Katz eta Postal (1964).-


Lees-ek his drawing bezalako sintagma baten zentzu desberdintasuna moduzko/factum gisa esplikatzen zuen. Diferentzia hau gorabehera, bi nominalizazioei sakoneko egitura bera ematen zien transformazio desberdinetik pasaeraziak baziren ere.

Katz-ek eta Postal-ek aldi batean klasiko bihurtu zen hipotesi gogor bat egiten dute. Alegia, perpausaren informazio semantiko guztia sakoneko egituren irudikatua dagoela eta, horrenbestez, transformazioek ez dutela esanahirik aldatzen.¹⁰

(3) I dislike John's driving.

perpauza, adibidez, egituraz anbiguo omen da, zentzu faktiboa nahiz moduzkoa izan baitezake.¹¹

Kontuan izanik "moduzko" egitura hau eredu zabalago baten kasu berezi bat besterik ez dela, John's driving bezalako kate batek John's way of driving edo John's manner of driving bezalako perpausekin duelarik zerikusia, denentzat sakoneko egitura bera proposatuko dute: erlatibozko perpauz bat, (4)-ren tankerakoa hain zuzen:



John's driving-en zentzu faktiboa ere sakoneko egitura bereziak emango liguke, parafrasi desberdina duenez gero. Aski da horretarako the fact that John drives edo, proposatzea sakoneko egituratzat.¹³

Hortaz, Katz eta Postal-entzat ekintza-nominalizazioa -berek manner nominalization deitzen dutena- erlatibozko perpaus batetik sortua da. Hots: Honen jatea pausatua da esaten dudanean, hipotäsi honen arabera, Jonek jaten duen modua edo, izango genuke sakonean.¹⁴ Varelak dioenez,¹⁵ Katz eta Postal-en analisi honen alde onenetarikoa -ING atzizkidun egituraren eta beste zenbait atzizkiz baliatzen diren izenkiek dituzten egituren arteko parekotasun semantikoaz ohartzea litzateke, denentzat sakoneko egitura bera proposatuz, horrela zentzu faktiboa duten beste -ING formako izenkietatik bereziz.

Hala ere, moduzko interpretazio hori ez da beti posible

gertatzen, nahiz eta -ERA morfema eramán. Adibidez, ETORRERA ez da etortzeko modua, SARRERA nahi eta ez sartzeko era ez den bezala. Baina IBILERA, HIZKERA, e.a.-ek era, modu, bat adieraziko lukete, nire hizkeran behintzat.¹⁶ Hau inportantea da eta hemen, besteak beste, oinarrituko da Chomsky transformazio bidezko erakarbidea gaitzesteko eta hipotesi lexikalista proposatzeko.¹⁷

1.1.3.- G. Lakoff (1970).-

G. Lakoff-en lan honetan nominalizazioa oso zeharka baizik ez da ikutzen, sintaxian gertatzen diren irregulartasunak esplikatzeko proposatzen duen aparato formalaren adibide gisa edo.

Lees-ek erakutsi zuenez, ingelesezko izen abstraktu asko sistematikoki erlazionatua dago aditzekin. Hark izen horiek sakoneko perpausetatik erakartzea proposatu zuen, horretarako arrazoiak bazirela ikusirik: lehenbizikoa, adibidez, izenkiak eta dagokien aditzak hautapen debeku berak izatea. Izenkiak aditzetik erakartzea hartzen baditugu, ongi esplika daiteke izenkia eta aditza agertzen diren perpausetan gramatika erlazio berak izatea:

(5) Jainkoak gu maite gaitu.

(6) Jainkoaren gureganako maitasuna.¹⁸

Lakoff-en ondorioa argi dago: "It seems clear, then, that abstract, agent, and object nouns that have corresponding verbs must be transformationally derived from those verbs".¹⁹ Hala ere, Lakoff-i aurkezten zaion arazoa da badirela zenbait izen abstraktu teoriaz legokiekeen aditz hori ez dutenak. Adibidez, transgressor izenak alboan transgress aditza duen bezala, aggressor izenak ez du *aggress-ik. Kasu hauek garaiko teoria gramatikalak era desberdinez tratatuko omen lituzke: aggressor eta aggression-ek hiztegian sarrera berezia izango lukete izen gisa. Nahiz eta

aggression aggressor-ekin, transgression transgressor-ekin bezala erlazionatua dagoela dirudien, erlazio hau aditzera eman gabe geldituko litzateke. Eta desegokitasun hau konpontzeko, Lakoff-ek lexikoian sartzea proposatzen du egiazki gertatzen ez diren banako hipotetikoak ere. Ingelesaren gramatikak egokitasun deskriptiboa lortuko luke to aggress aditz hipotetikoa hiztegian sarreraziz. Jakina, aggress debeku egokiak dituela agertuko da hiztegian, *China is aggressing against India edo I don't like *China to aggress against India sor ez daitezen.

Horrelako kasuetarako asmatu zituen Lakoff-ek erabateko salbuespenak: Aggress ingelesezko perpaus gramatikal batean gertatuko bada, perpaus horrek, nahi eta ez, nominalizaziozko transformazioaren Egitura Deskribapena izan behar du. Hortaz, erabateko salbuespen positiboa izango da.²¹

Erabateko salbuespen hauek tresna ahaltsuegia gertatzen direla dirudi eta ez dute, antza, beste justifikaziorik iturrian behar luketen aditza falta zaien izenkien erakarpénari bidea ematea baizik. Gainera, Lakoff-ek berak ere ez du zeharo argi uzten noiz proposatu behar diren direlako aditz hipotetiko hauek. Adibidez, izenki abstraktuez mintzo delarik, honela dio: "We leave open the question as to whether all abstract nouns which are not correlated with any actually occurring verbs are to be derived from hypothetical verbs. It appears that where the above arguments can be made, where we have clear intuitions about the grammatical properties of nonoccurring verbs, we must hypothesize those verbs simply to account for the facts. It is our guess that this will be true for an overwhelming number of abstract nouns. It would not be surprising if all abstract nouns turned out to be derived from verbs (or adjectives), hypothetical or otherwise".²²

Egile eta objektu izenei legozkiekeen zenbait aditz ere

ez dira egiazki gertatzen hizkuntzan. Hala ere, badiren aditzetatik transformazio bidez erakarritako beste izenki erakarriak bezala ulertzen omen ditugu. Adibidez, ruler eta king edo writer eta poet izenen artean legokeen diferentzia izango litzateke ruler eta writer-ek badutela egiazko aditz pare bat jatorrian, baina beste biek ez. Honako perpaus hauek gogoan hartuz gero:

(7) a. John is a good writer.

b. John is a good poet.

"good seems to modify writer in the same way as it modifies poet",²³ baina (7a)-k (8a)-tik erakarria izan behar omen du. Honek esan nahi du good-ek (7a)-n adberbio izan behar duela jatorriz. Honen berri eman dezakegu poet-entzat jatorrian izango lukeen aditz hipotetiko bat onartuz:

(8) a. John writes well.

b. *John poetizes well.

Objetu izenkiekin ere gauza bera gertatuko litzateke, Lakoff-en ustez. Belief erakar liteke believe aditzetik. Baina orduan idea bezalako izen batentzat ere *ideate bezalako aditz hipotetiko bat pentsa genezake:

(9) a. What John believes shocks me.

b. John's beliefs shock me.

c. John's ideas shock me.

(10) a. John believes that there is no God.

b. *John ideates that there is no God.²⁴

Zaila omen litzateke ikustea nola eman litekeen gauza hauen berri izenki hauen azpian aditz hipotetikoak badirela suposatu gabe.²⁵

1.1.4.- McCawley (1968) eta J. Levi (1978).-

Semantika Sortzaileak dienez, transformazio erregelak egitura abstraktuak hartzen dituzte gogoan. Lexiko txertakuntza zenbait transformazioren ondoren gerta daiteke. Horrela, Lakoff-ek aipatzen zituen erabateko salbuespen haientzako lekuri ez legoke: izenki batentzat iturri hipotetiko bat eskatu ordez, aski da nominalizaziozko transformazioaren ondoren izenkiari dagokion hitza txertatzea. Nominalizazioa transformazio prelexikal horietako bat litzateke.²⁶ Transformazio prelexikoak materiale semantikoan eta ez materiale lexikoan amaitzen diren arbolei aplikatzen zaizkienak dira.²⁷ Hauetako bat omen da aditz erazleak osatzeko proposatzen duen Predikatuaren Igotzea delako erregela.²⁸ Eta beste bat, hain zuzen, nominalizaziozko transformazioa.

Egiazki badira arrazoiak -dio McCawley-k- nominalizazio guztiak birtualki transformazio prelexiko bakar baten bidez lortzen direla uste izateko. Hain zuzen, denek honako indikadore semantikoa dute: "Halako x, non f(x)". Adibidez:

EGILE NOMINALIZAZIOA: The inventor of the wheel

(ιx) (x-ek kurpila asmatu zuen)

EKINTZA NOMINALIZAZIOA: The invention of the phonograph by Edison

(ιv) (Edisonek fonografoa asmatu zuen).








ONDORIO NOMINALIZAZIOA: John's invention

(ιy) (Jonek y asmatu zuen).²⁹

Izen sintagmaren ardatza den izena perpaus txertatuko aditzaz eta aldagaiaren eta perpaus honen artean dagoen erlazioa adierazten duen elementu batez osatua dago. Nominalizaziozko trans-

formazioak perpaus txertatuko aditza igoerazten du eta dagokion elementua erasten dio.³⁰


Hortaz, McCawley-ren arabera, honako hauek izango lira-teke sarrera eta irteera zuhaitzak direlako transformazio horietan:



Transformazio honek batzutan hiztegia inolako banako lexikorik ez dagokion materiale konbinaketak sortuko ditu. Adibidez, pass an examination-i legokiokkeen *passer egile nominalizaziorik ez dago hiztegia. Hots: Lakoff-en aditz hipotetikoan antze-
ra, hemen transformazioaren ondorioari hitzik ez badagokio hizte-
gia, "zuhaitza" osatu gabe geldituko litzateke.


Nominalizazio hauetan perpaus txertatu bat izan behar dugula erakusteko aski da ikustea izenki hauek attempt 'saiatu' bezalako aditz baten objektu gisa doazenean perpaus osoak balira bezala jokatzeko dutela.³¹

J. Levi-k³² ere funtsean McCawley-ren bide honi beroni jarraitzen dio. Berezi la nominalizazio motatan fijaszen da: act, agent, product eta patient direlako nominalizazioetan. Funtsean McCawley-ren analisisa bera baldin bada ere, Levi-k erlatiboarekin zerikusia izango lukeen egitura bakarra proposatu beharrean, bi egitura desberdin proposatzen ditu. Erlatiboazko perpausaren egitura agent eta patient direlako nominalizazioetarako gorteko du. Hauek, gutxi gora behera, honelako egitura izango dute:



Act eta Product nominalizazioek, berriz, honako egitura hau izango dute:³³

(15)




Proposamen honekin guztiz lasai gelditzen ez bada ere, datuek horretara bultzatzen omen dute. Act eta Product nominalizazioak antzekoak dira honako puntu hauetan: a) beren esanahiak badirudi aldagai uztartu edo menpeko baten eta perpaus txertatu baten bidez soilki irudika ez daitekeen materiale semantiko zenbait beregan duela: horrela justifikatzen dira /ACT/ eta /PRODUCT/ buruen premia bi nominalizazio mota hauentzat³⁴ eta b) egitura hauek permititzen digute zeharo zehaztuak agertzea bai izen sintagma sujetua eta bai izen sintagma objetua, izenkiaz beraz gainera.

Alderantziz, Agent eta Patient motakoetan berriz: a) onar daitezkeen parafrasi bakarrak erlatibo formakoak dira, nolabait zehaztugabeko burua duten erlatiboak eta b) ezina da azpiko argumentu jakin bat lexikoki espezifikatua agertzea. Hau da, egile nominalizazioetan ezin ager daiteke izen sintagma sujeturik³⁵ ez eta objeturik ere paziente nominalizazioetan.

"We may note in addition that the meaning of Agent and Patient Nominalizations is such that in any semantic representation for these forms, there must be an argument in the embedded S that is coreferential to the head of the whole construction; in contrast no such requirement of coreferentiality is forced upon us for the Product Nominalization and perhaps not for the Act Nominalization

either. These similarities between the Act and Product types on the one hand, and the Agent and Patient types on the other, make a two-pronged analysis like that suggested here a more plausible approach than one might at first believe."³⁶

Eta lau nominalizazio desberdin hauek irteera egitura bera izango lukete:



Leviren ustez, honelako analisi batek duen alderik onena da ondo besarkatzen dituela lau nominalizazio hauek duten elkarren antza eta baita elkarren arteko diferentziak ere: "The crucial differences among the four basic types are reflected in the fact that the head noun combines the underlying verb with any one of four possible morphemes, each of which corresponds to a fundamentally different set of semantic and syntactic characteristics"³⁷

1.1.5.- Beste transformazio bide bat: Varela (1977).-


Soledad Varela ere gaztelaniazko nominalizazioak aztertzerakoan transformazio bidea hautatzen du, baina bereziki bi eratako nominalizazioak hartzen ditu gogoan: Infinitivo II deitzen duena (un suave rozar de pies bezalakoak) eta ekintza nominaliza-

zioak edo izenki erakarriak. Baina azken hauetan ez ditu, adibidez, izen erakarri konkretuak gogoan hartzen. Hortaz, McCawley eta Levi-rena ez bezalakoa izango da proposatuko digun bidea.

"En nuestra opinión, la relación evidente entre los llamados nombradores derivados y sus verbos homófonos recibe justa expresión en la gramática cuando derivamos aquéllos de éstos o, más precisamente, cuando dotamos a los sintagmas con nombrador derivado de estructura oracional a nivel profundo, eliminando así de la base esta categoría" ³⁸ dio Varelak. Baina bide hau -dio- ezin har daiteke nolanahi, apetaz. Zenbait baldintza bete behar dira bide hori zilegi izan dadin: a) erlazonaturik dauden bi elementuek interpretazio semantiko baliokidea izan behar dute. Beraz, bi formek aukera debeku berak izango dituzte; b) forma bat oinarritzkoa izango da eta bestea erakarria. Hortaz, bi formek ez dute barne egitura bera izango. Eta c) bi sintagmen arteko erlazioak emankorra izan behar du: hots: ez dagokio banako lexiko kopuru txiki bati, aitzitik, aski hedatua izan behar du, prozedura bidezkoa izango bada. Bestela, prozedura hori ad hoc izango litzateke. ³⁹

Lehenbiziko baldintza salbatzeko, Varelak perpaus konpletiboaren aurretik joango litzatekeen ardatz-izen gisa egituraren zernolako semantikoa erakutsiko ligukeen elementu abstraktu bat suposatuko du, Ross-en erara. ⁴⁰ Adibidez, (17) perpausak (18) egitura izango luke:

(17) La condena del asesinato por muchas gentes.



Izenkia, ekintza-izenkia izan beharrean, infinitivo faktiboa bada edo moduzkoa, orduan SN-ren ardatza den N-ak ez luke [+Acc.] tasun soila izango, baizik [+FACT] faktiboen kasuan eta [+Acc.]
⁴¹ moduzko infinitiboen kasuan. [+Mod.]

Egitura hau onartuz gero, ez omen genuke oztoporik izango acto, hecho edo modo izenez osatutako parafrasiak esplikatzeke. Era berean, testuinguru-debekuen berri ere modu erraz batez eman go omen genuke. Adibidez, zenbait nominalizaziok dituzten debekuak, dituzten ezaugarri semantikoei zor zaizkie. Esaterako, (19) perpauseko nominalizazio faktibo batek ezeztapena onartzen duen bitartean, (20)-koek ez dute onartzen:

(19) La no llegada de aviones estos días está provocando trastornos.

Perpaus honetan ageri den izenkiaren ezaugarrien artean [+Fact.] tasuna aurkitzen dugu.

- (20) a. *El no lloriqueo del niño se produjo al amanecer.
 b. *El no lloriquear del niño me agrada.
 c. *El acto (la acción) de no lloriquear el niño...
 d. *El modo en que no lloriquea el niño...

Bestalde, (21) bezalako perpaus batean eta (22)-an gramatika erlazio berak agertzen dira:

(21) Los estudiantes apoyan a sus representantes.

(22) El apoyo de los estudiantes a sus representantes.

Hala ere, lehenago aipatua dugunez, hau ez litzateke benetako eragozpena izango hipotesi lexikalistarentzat eta ez dirudi egia denik Varelak dioena, alegia: "Si tratáramos de definir estas relaciones funcionales basándonos exclusivamente en la estructura interna de los propios SN's, nos encontraríamos con problemas de difícil resolución, como en el caso de las construccio-

nes ambiguas, llamadas tradicionalmente de "genitivo subjetivo" y "genitivo objetivo" dio Varela.⁴²

Beste anbiguitateak ere gertatzen dira izenki erakarriekin. Eta anbiguitate horiek askatzeko aukera ematen omen digu sakoneko egituren ardaztatzat izen abstraktu bat proposatzeak:

(23) a.-La muerte de mi loro fue una sorpresa para mí.
[+Fact.]

b. La muerte de mi loro fue lenta.
[+Acc.]

Hala ere, honi erantzun ziola esango nuke Chomsky.⁴³

Bigarren baldintzari buruz, ba omen dira gaztelaniaz izenki erakarriak nominalizazio prozesuaren aurretik zenbait transformazio ikusi dituztela frogatuko liguketen adibideak:

(24) Los pueblos detestan el sometimiento a una autoridad extranjera.

Perpaus honetan EQUI transformazioa gertatu bide da nominalizazioaren aurretik, Varelaaren ustez. Baina transformazio honen ordez Teoria Standard Hedatuak beste zerbait proposatzen du orain, kontrolaren bidez. Eta ez dirudi alde horretatik hipotesi transformazionalista bereziki indartua ateratzen denik.

Erreflexibatzea ere gertatzen omen da:

(25) a. Zeure buruaren apainketa.

b. Bere buruarekiko maitasun gehiegizkoa.

eta abar aipa genitzake euskararen aldetik. Hala ere, transformazio horren status-a bere horretan utzita ere, hipotesi lexikalistak gramatika erlazioak aditzera emateko bidea eskaintzen badigu eta erreflexiboa interpretazio erregelen bidez esplikatzen,⁴⁴ ez genuke hemen hipotesi transformazionalistaren aldeko inolako

arrazoi bortitzik aurkituko. Varela bera ere konturatzen da argumentu honen ahuleziaz eta honela dio: "Sin embargo, sabemos que no todos los nombres que permiten el pronombre reflexivo son derivados verbales del tipo de "gobierno" (gobierno de sí mismos eta antzekoez ari da); tenemos también los llamados "nombres-tipo-retrato" (Vid. Chomsky, 1967, p. 165 y ss.) que como se ha señalado a menudo, se constituyen, al igual que los derivados, en nombres-núcleo "relacionales" de un sintagma nominal: (19) El retrato de sí mismo, o en "Forma pasiva": (20) el retrato de Aristóteles por Rembrandt.

Sin duda, todos estos datos tendrían que ser considerados a la hora de proponer formalmente la aplicación de la T-de-REFLEXIVIZACION a una estructura nominal como la contenida en (18)⁴⁵ ((18) El gobierno habría traspasado a los nativos el gobierno de sí mismos.)"

Eta sujetuaren igotzea (La tendencia de los hombres a ser libres) edo pasibarena ere (El robo de las joyas por los ladrones) izenki hauei aplikatu omen dakizkiekeen transformazioak ditugu.⁴⁶

Hirugarren baldintza ere betetzen omen da transformazio bidea: erroposaturik. Kasurik zailena izenki erakarriena da, aditz/izen erlazioa ez baita erregularra izaten, ez morfologiaren aldetik, ez semantikaren aldetik. Varela ustez, hala ere, transformazio bidea da egokiarena. Tradizioz, gramatika eta hiztegia kontrajarriak daude: gramatikan "araupean" jar daitezkeen oro sartuko litzateke; hiztegian, salbuespenak, arauz kanpokoak eta abar. Lexikalistek proposatzen dutena gramatika ikerkuntzan ondo errotua dagoen zerbait da, erakarpen morfologia fenomeno lexiko gisa ulertzen baita, horregatik hiztegiarabialtzen delarik. Prozesu emankor eta araupekoak,

orokorrak baldin badira, gramatikaren esparruan sartuko dira. "Por el contrario -dio Varela- lo que los transformacionalistas pretenden es eliminar el caso excepcional y tratar de encontrar una base común para fenómenos aparentemente dispares, remontándose a un pasado muy anterior, recurriendo a una estructura subyacente que puede estar muy alejada de la estructura manifiesta. En última instancia, lo que se conseguirá es reducir el ámbito del diccionario y dar cabida en la gramática -la parte explicativa del sistema que ordena la lengua por excelencia- a mayor número de hechos".⁴⁷

Hortaz, Varela-entzat dudarik ez da: biderik egokiena transformazio bidea dugu. Eta orain arte aipatuez gainera ematen dizkigu beste zenbait argumentu ere:

a) Ekintza izenkiak eta infinitiboak koordina omen daitezke: "Dado que se ha justificado con sólidos argumentos el carácter oracional de los infinitivos castellanos (...) su coordinación en oraciones como (1) con un nombre de acción parece secundar también la derivación del nombre abstracto a partir de una oración plena:

- (1) Tomaron las medidas necesarias no sólo para impedir el cumplimiento de tales amenazas sino también para el castigo de los autores de ellas".⁴⁸

Baina Chomskyren arabera,⁴⁹ koordinatu ahal izateko, bi osagaiak "mota berekoak" izatea eskatzen da, baina horrek ez du esan nahi biak perpaus izan behar dutenik. Aski da bata eta bestea izen sintagma izatea, nahiz eta batek IS adabegiaren azpian P adabegia izan eta besteak ez.

b) Aditz multzo handi batek beren menpean perpaus osoak nahiz izenkiak onartzen dituzte: Deseo mi marcha / deseo que te marches.

Alde honetatik, zenbait aditzekin ez da posible perpaus osoa bi perpausen sujetuak erreferentzirikideak direnean. Gauza bera gertatzen da izenki erakarri bat dugunean: *Mario pretende que Mario engañe / *Mario pretende el engaño de Mario.

c) Semantikaren aldetik, infinitibo guztiei izenda dakieke sujetu bat, eta izenki erakarriei ere bai:

(26) a. Trabajar es una lata (sujetu zehaztugabea)

b. El trabajo es una lata (baita)

Kontua da Varelak aipatzen dituen datu hauen guztien berri hipotesi lexikalistak ere oso ondo eman dezakeela.

d) Ugari dira hoscide, baina bata konkretua eta bestea abstraktua, diren izen pareak. Varelak dio izenki abstraktuen analisi transformazionalistaren alde jartzeko arrazoi bat izan daitekeela biak bereiztea, "máxime cuando las diferencias de articulación sintáctica que existen entre ambos coinciden a menudo con las que es posible observar entre un verbo y un nombre concreto"⁵⁰. Horrela, paso izen konkretua (= 'lugar por donde se pasa') izen gisa tratatukodu Varelak, baina paso (= 'acción de pasar') perpaus batetik erakarria izango litzateke. Baina hau ere, beste behin, hipotesi lexikalistak ongi esplika lezake. Gainera, ez da oso argi ikusten zergatik Varelak ekintza balioa duten izenkientzat bakarrik proposatzen duen transformazio bidea. Alde honetatik, semantika sortzailearen aldekoen proposamena askoz koherenteagoa zen. Zergatik kasu batean paso $\left[\begin{smallmatrix} +\text{Acc.} \\ N \end{smallmatrix} \right] \left[\begin{smallmatrix} \text{SN} \text{ pasar} \\ O \end{smallmatrix} \right]$ -en antzeko egitura batetik erakar daiteke baina paso (= 'lugar por donde se pasa') ezin erakar daiteke era berean, hots: $\left[\begin{smallmatrix} +\text{Lugar} \\ N \end{smallmatrix} \right] \left[\begin{smallmatrix} \text{SN} \text{ pasar} \\ O \end{smallmatrix} \right]$? Eta emankortasuna aipatuko balitz jokabide honen alde, esan beharko litzateke/lugar por donde + aditza/ erara parafrasea daitezkeen izenak paso-z aparte ere aurki ditzakegula: entrada, salida, residencia, eta abar, adibidez.

e) Perpaus bakun batean ezina omen da aldi differenteei dagozkien denbora-adberbioak agertzea. Baina perpaus elkartuetan -eta baita izenki erakarri bat dugunean ere- aditz bakoitzak bere adberbioa eraman dezake. Honek esan nahiko luke -Varelaren eritziz- izenki erakarriek azpian benetako perpaus bat dutela. Hona hemen Varelaren adibidea:

(27) El torero murió el domingo a causa de la fatal cogida del sábado.

Baina honek ezer frogatzen ote du? Nik ez dakit juerga bezalako izen bat ekintza izenki erakarritzat hartuko lukeen Varelak. Dena den, posible da (28) perpausa:

(28) La juerga del domingo la notaremos el lunes.

Kontua da bai (27) eta bai (28), biak, (29) erara parafrasea daitezkeela, eta, orduan, Varelaren argumentuak indar guttia galtzen du:

(29) a. El torero murió el domingo a causa de la fatal cogida que se produjo el sábado.

b. La juerga que $\left\{ \begin{array}{l} \text{tendrá lugar} \\ \text{haremos} \end{array} \right\}$ el domingo la notaremos el lunes.

f) Forma progresioban dagoen aditz bat (^{bo} estar trab jando) pronominaltzen denean, en ello gisa egiten omen du, ekintza izenkiak bezalaxe, hain zuzen:

(30) a Estaba trabajando y aún sigue en ello.

b. Les dejé en animada conversación y aún siguen en ello.


Argumentu honek juerga bezalako izen bat ekintza izenki erakarritzat hartzera eramango gintuzke.⁵¹

g) Pronominaltzearekin zerikusia duen beste argumentu bat


gehiago eskaintzen digu Varelak. Har ditzagun gogoan honako bi perpaus hauek:

- (31) a. *El convencimiento de que Juan₁ será desgraciado
no le₁ preocupa.
- b. El convencimiento de que (él₁) será desgraciado
no preocupa a Juan₁.

Bi adibide hauek erakusten dutenez, ezkererantzako pronominaltzea zilegi da baina, dirudienez, eskuinerantzakoa ez, nahiz eta azken hau izan normalena. Hipotesi lexikalistaren arabera, Varelak dioenez,⁵² (31)-ko perpausak (32) egitura izango omen lukete:



eta hemen ez omen dago ezer aurrerantzako pronominaltzearen blokeatzea esplikatuko duenik. Baina horren ordezt, (33) bezalako egitura bat proposatuz gero:



Hemen, lehenbiziko zikloan eskuinerantzako pronominal-tzea gertatuko da. Baina ez ezkererantzakoa, zeren hau gerta dadin, honako Ross-en baldintza bete behar baita:

Condition on backward pronominalization

"If one element precedes another, the second can only pronominalize the first if the first is dominated by a subordinate clause which does not dominate the second".⁵³

eta hemen bi Juan izen sintagmak O beraren mende daude. Horrela, honako egitura hau lortuko omen genuke: Juan está convencido de que él será... Ondoren, Nominalizazioa gertatuko da eta, azkenik, EQUI. "De este modo -dio Varela- demuestra Ross que las restricciones establecidas por motivos independientes para la pronominalización se cumplen a la perfección en el caso de estos sintagmas nominales cuando derivamos el N-núcleo de una O-plena".⁵⁴

Dena den, kontrako hipotesian ere, hots: hipotesi lexicakalistan, aski litzateke convencimiento bezalako izenki bati sujetu bat egotzea. Interpretatu, horrela interpretatzen da gainera.

Sujetu hori genitibo forman joango litzateke baldin eta hotsez gauzatua balego: el convencimiento de Juan.

Bestela, berriz, kontrol arazoaren aurrean izango ginateke. Hori da, hain zuzen (31)-n gertatzen dena. Alegia, aditz nagusiak finkatuko du zein izango den convencimiento izenkiari dagokion sujetua. Alegia, preocupar-en zehar objetuaren erreferentzikide gisa interpretatuko dugu hutsik ageri den sujetuaren leku hori. Hori onartuz gero, (31) esplikatzeke ez genuke (33) bezalako egitura bat proposatu beharrik, [El convencimiento de que...] izen sintagmak ere sujetua izango bailuke. Beraz, (30) ez, egitura piska bat konplikatuzeagoa izango genuke.

Azken batean, hortaz, Varelairen argumentu honek ere ez du bestelako soluzioei bidea isteko adinako indarra.

1.2.- Hipotesi lexikalista.-

Izenki erakarriak esplikatzeke transformazio bidea proposatzen duten zenbait autoreren iritziak aztertu ditugu, bereziki Varelairenak, eta ez zaizkigu oso etsigarriak iruditu. Jadanik, esan dezagun hipotesi lexikalistaren alde jarriko garela lan honetan. Ez dugu, hala ere, zehatz-mehatz aztertuko jarrera hau. Badirudi arrazoi asko direla beraren alde eta horietan fidaturik euskarari aplikatzen saiatuko gara.

Eta zein dira aipa daitezkeen arrazoiak, hasiera bateko arrazoiak, alegia? Aipa dezakegu lehendabizi, adibidez, transformazioen aldeko amorratuenak Semantika Sortzailearen aldekoak izan direla eta jakina dela, hala ere, semantika-sortzaile-zale hauek gaurko Teoria Sortzailean baztertuak gertatu direla eta, alderantziz, Teoria Standard-ak bere bideari jarraitu diola. Bestalde,

Teoria Standard Hedatuaren azken formulazioetan transformazioen zeregina bera ere oso murriztua dago: "mugi &" delako agindura mugatzen dira transformazio guztiak eta, dirudienez, hau ere zenbaitetik albora utzia omen dute. Hortaz, gehiegi litzateke orain transformazio bidez esplikatzen hastea nominalizazioa bezalako fenomeno bat, beste bide egokiago bat eskuetan jarria zaigularik. Horregatik, atal honetan hipotesi lexikalistaren bidea hartuko dugu eta ikusten saiatuko gara zenbatetaraino egokitzen zaion euskarari.

1.2.1.- Chomskyren hasierako jarrera.-

Nominalizazioa aipatzen duten Chomskyren lehenbiziko lanak⁵⁵ transformazionalistak ditugu. Adibidez, his drinking sintagmaren ambiguitasuna esplikatu nahirik, honako perpaus honetan:

(34) I don't approve of his drinking.

honela dio: "Chomsky (1955) propuso una explicación de esto, pero ahora puede formularse mucho mejor y con más fundamento gracias a varias observaciones ingeniosas de Lees (...) y de Klima (...). Entre las diversas formas de convertir las oraciones declarativas en frases nominales, en inglés (cf. Lees 1960) hay, en particular, dos que pueden describirse informalmente de la siguiente manera:


(10) FN-Aux₁-(Aux₂)-FV₁ ==> FN+Posesivo -ing (Aux₂)-FV₁

(11) FN-Aux-Verbo-(FN) ==> FN+Posesivo -nom+Verbo(of+FN)!⁵⁶

Eta aurrerago honela dio: "Hay una regla obligatoria que asigna al morfema nominalizador nom introducido en (11) la forma /ing/ cuando va afijado a "drink", "drive", etc. de la misma manera que asigna a nom la forma /æ l/ cuando se afija a "refuse" y la forma /yɪn/ cuando se afija a "reject".⁵⁷

Garbi dago, hortaz, garai honetako Chomskyren jarrera zer nolakoa zen.

Chomsky (1965)-ean ere deribazioa, eta beraz, nominalizazioa transformazio bidez tratatzen da. Prozesu deribatiboek arazo gehiago sortzen dizkiote edozein gramatika sortzaileri flexio prozesuek baino -dio Chomskyk. Honen arrazoia da prozesu hauek noizpehinka gertatzen direla eta erdi-emankorrek direla. Deribazio prozesuak emankorrek direnean, oztopo larririk ez omen dute sortzen. "Considérese, por ejemplo -dio- transformaciones nominalizativas como las que forman las oraciones their destruction of the property (...) their refusal to participate (...). Evidentemente, las palabras destruction, refusal, etc., no serán registradas como tales en el lexicon. Lo que se hará es registrar en el lexicon destroy "destruir" y refuse "rehusar" con una especificación de rasgos que determina la forma fonética que adoptarán (mediante reglas fonológicas ulteriores) cuando aparezcan en oraciones nominalizadas. En el estadio apropiado de la derivación se aplicará una transformación nominalizativa al Ahormante generalizado que contiene la configuración they destroy the property (...) dominada por S, formando por último el ahormante (43), donde se omite los detalles no pertinentes, y donde $F_1 \dots F_n$, $G_1 \dots G_n$ representan rasgos especificados:



Ez omen da zeharo begien bistakoa destruction edo refusal Izentzat hartu beharra. "Cabría decir, como alternativa, que la Frase Predicativa nominalizada entera ocupa la posición del Nombre".⁵⁸

Deribazio prozesuak erdi-emankorrek direnean (cf. horror, horrid, horrify baina terror, *terríd, terrify) ez omen da inolako orokortasunik duen erregelarik hitz erakarri horiek sortzeko. Hortaz, elementu hauek zuzenean lexikoian jasoak behar ditugula dirudi. Hala ere, ondorio okerra omen da hori, "ya que es evidente que desde el punto de vista de la interpretación semántica y fonológica es importante representar la estructura interna de estas palabras. Su significado es desde luego hasta cierto punto predecible (o al menos limitado) mediante las propiedades semánticas inherentes de los morfemas que contienen, y es fácil de mostrar que hay que asignar estructura interna a estos elementos para una aplicación adecuada de las reglas fonológicas al formar sus representaciones fonéticas".⁵⁹

Dilema hau emankortasun maila desberdinetako hainbat eta hainbat kasutan gertatzen da eta ez omen da guztiz segurua ad hoc ez den aterabiderik bade: entz ere.⁶⁰

1.2.2.- Chomskyren "Remarks on Nominalization" (1967).-

Emankortasun kontzeptua zertan datzan garbi ez dagoenez, eta Chomsky kontzeptu horretaz baliatzen denez elementu bat transformazio bidez esplikatu behar den ala lexikoian esplikatu behar den erabakitzeke, Chomskyren jarrera aldatuz joan da puntu honetan. Alde honetatik, lanik garrantzitsuena 1967-an argitaratu zuen artikulua dugu: "Remarks on Nominalization".

Izenkiak (=nominals) hiru motatakoak dira ingelesez, Chomsky-ren arabera:

1) GERUNDIOZKOAK:

(35) John's refusing the offer.

2) IZENKI ERAKARRIAK:

(36) John's refusal of the offer.

3) NAHASTEKO IZENKIAK:

(37) John's refusing of the offer.

Lehenbiziko biez arituko da batez ere lan honetan. Gerundiozko izenkiek azpian perpaus bat dutela onartzen du, baina izenki erakarrientzat hipotesi lexikalista izenekoa proposatuko du. Dena den, bi izenki mota hauen artean badira diferentziak eta ugari, gainera:

a) Gerundiozko izenkiak:

- oso erraz era daitezke sujetu-predikatu erako perpausetatik. Emankortasun osoa dute, beraz.

- izenkiaren eta perpausaren esanahiaren artean dagoen erlazio semantikoa zeharo erregularra da.

- barne egitura ez da izen sintagma batena bezalakoa.

Adibidez, John's izen sintagmaren ordez ezin daiteke beste determinatzaillerik jar, that adibidez edo erlatibozko perpaus bat. Adjetiborik ere ezin ager daiteke.

Eta hauexek dira -Chomskyren ustez- hain zuzen, gerundiozko nominalizazioa perpaus batetik transformazio bidez erakarria dela suposatuz jaulkitzen diren ondorioak. Horrexegatik, erregela sintagmatikoen artean beharko da baten bat IS honako era batez berri-datzi beharko duena:
$$\left[\underset{P}{IS} \quad \text{nom (Aspektua)} \quad \underset{P}{AS} \right]^{61}$$

Horrela, gerundiozko nominalizazioaren interpretazio semantikoa zeharo zuzena eta argia da, sakoneko egiturako perpausean diren gramatika erlazioak direla medio.

b) Izenki erakarriak:

- askoz emankortasun txikiagokoak ditugu.
- perpausaren eta izenkiaren arteko erlazio semantikoak oso bereziak eta ugariak dira.
- izenkiaren barne-egitura izen sintagma batena da. Hau oraindik nabarmenago gertatzen da euskaraz, ikusiko dugun bezala, zeren salaketa bezalako izenki batek euskaraz oso konplementu gutxi eraman baititzake: juxtu-juxtu beste edozein izenek eraman ditzakeenak.

Arazoa, hortaz, da ea izenki hauek egiazki transformazio bidez erlazionatuak dauden dagozkien perpausekin. Ikusi ditugu bide hau proposatzen duten zenbait lan. Gramatika Sortzailearen lehenbiziko azterketetan, Lees-enean adibidez, transformazio bidea zuzentzat ematen zen, besterik ezean. Baina tasun sintaktikoak gehituz, gramatika teoria zabaldu egin da eta jadanik⁶² jarrera lexikalistarentzat ere bada lekurik.

Chomskyk gramatikaren transformazio atala xoliltzea proposatzen du, izenki erakarriak, inongo transformaziorik onartu beharrik gabe, oinarrian agerrerezaz. Hipotesi lexikalistak, Chomskyren beraren hitzetan esateko, honako hau proposatzen du: "Una gran cantidad de las piezas léxicas aparecen en el lexicon provistas de rasgos selectivos y de subcategorización estricta fijos, pero que permiten elegir en lo que respecta a rasgos vinculados a las categorías léxicas de nombre, de verbo y adjetivo; y la rúbrica léxica podrá especificar que los rasgos semánticos de-

penden en parte de la elección que se haga entre aquellos rasgos categoriales".⁶³ Hitz gutxitan esateko, izenkiak eta aditzak sarrera bat izango dute lexikoian. Eta aditzaren adiztasuna edo izenkia-
ren izentasuna geroago markatuko da, zein kategoriaren mende da-
goen.⁶⁴

Hortaz, Chomsky, gerundiozko izenkiak eta izenki erakarriak konparatzerakoan, hiru desberdintasun nabarmenetan oinarritzen da bere hipotesi lexikalista aurrera ateratzeko:

a) Egitura Erakarriaren argumentua: badira gerundiozko egiturak jadanik transformazioen bat ikusi duten perpausari dagozkienak, baina ez izenki erakarririk.

b) Zentzukidetasunaren argumentua: gerundiozko konplementuaren eta aditz mugatuzko perpausen arteko erlazioa beti bat den bitartean, izenki erakarriaren eta dagokion perpausaren artean ez dago horrelako erlazio argirik.

c) Barne-egituraren argumentua: izenki erakarriek IS-en barne-egitura duten bitartean, gerundiozko konplementuek ez dute horrelako egiturarik, perpaus batena baizik.

Ikus ditzagun astiroago argumentu hauek:

a) Egitur erakarriaren argumentua.-

Chomskyk honako perpaus hauek aipatzen ditu:

- (38) a. John is easy (difficult) to please.
- b. John is certain (likely) to win the prize.
- c. John amused (interested) the children with his stories.

(38)-koen parean (39)-koak baditugu, baina ezin onartu (40)-koak:

- (39) a. John's being easy (difficult) to please.
- b. John's being certain (likely) to win the prize.
- c. John's amusing(interesting) the children with his stories.

- (40) a. *John's easiness (difficulty) to please.
 b. *John's certainty (likelihood) to win the prize.
 c. *John's amusement (interest) of the children with
 his stories.

Gramatikaltasunari dagokionez, zergatik dira gauzak diren bezala? (38)-ko hiru perpausek transformazioren bat ikusi dute: (38a)-k Tough Movement delakoa, (38b)-k Raising delakoa eta (38c)-k Erazlearena.⁶⁵ Eta horrela, (39) eta (40)-ko perpausen artean gertatzen den kontrastea guztiz nabarmena da: transformazio horiek tartean badira ere, gerundio formako nominalizazioa zilegi da, baina ez izenki erakarria. Beraz, jadanik transformazioren bat ikusi duen perpausa ezin ager daiteke izenki forman. Hipotesi lexicalistaren arabera, izenkiak oinarrian txertatuak daudenez, ongi esplika daiteke hori.

Hala ere, badira zenbait kontraexenplu. Postalek,⁶⁶ adibidez, dio Raising operazioa tartean izan duten nominalizazioak badirela:

- (41) a. Melvin tends to lie about his age.
 b. Melvin's tendency to lie about his age.

(41) a)-ren sal oneko egitura funtsean honelako zerbait izango litzateke:

- (42) Tend $\left[\begin{array}{c} \text{Melvin lie about his age} \\ S \end{array} \right]$

Postal-entzat tendency, likelihood, continuation eta persistence bezalako nominalizazioak Raising bidez analizatu behar dira. Hala ere, "The original observations that motivated Chomsky's formulations about the relation between nominalizations and clausal structures derived by rules like Raising remain approximately correct -they indicate a real tendency, if not an

absolute law"⁶⁷. Honen esplikazio bat Ross-en squish⁶⁸ delakoan bilatu beharko litzatekeela dio Postalek.

Kontrako exenplurik larriena, hala ere, pasibarena izango litzateke. Nola esplika (43) bezalako egitura bat?:

(43) The city's destruction by the enemy.

Chomskyk proposatzen duena da zenbait transformazioren esparrua zabaltzea. Pasiba, adibidez, ez litzateke perpaus mailan bakarrik aplikatuko. Izen sintagma mailan ere aplikatzekoa izango da.⁶⁹

Varelaren ustez,⁷⁰ transformazio batzu -pasibarena, esaterako- izenkidun izen sintagmetara zergatik hedatzen diren baina beste batzu zergatik hedatzen ez diren esplikatzeko ez den bitartean, egitura erakarriaren argumentuak ez du baliorik hipotesi lexikalista oinarritzeko. Ross-en kritika da funtsean Varelak jasotzen duena. Chomskyk The destruction of the city by the enemy esplikatu nahian, dio "Para obtener este resultado sólo necesitamos ampliar la operación de que nos estamos ocupando de modo que su dominio pueda ser un SN"⁷¹. Ross-ek gehitzen du: "The problem here lies in the words "need only". Because obviously, by the same token, the operation of Tough-Movement and the operation of Promotion "need only" be generalized so that their domains may be NP's as well as sentences, and the ungrammatical phrases in *(3-51) (gure (40)-koak, alegia) will result"⁷². Arazoa, hortaz, da ea zergatik ezin diren transformazio horiek izen sintagmetara hedatu eta besteak bai.

- Aditz erazleak eta hauei dagozkien izenki erakarriak.-

Egitura erakarriaren argumentua garatzerakoan, Chomskyk amusement⁷³ izenkia aipatzen du. Chomskyk zalantzaz bezala aurkezten du arazo hau: lehenbizi, badirudi aditz erazleak transformazio baten ondorio

direla eta horregatik aipatzen ditu *John's amusement (interest) of the children with his stories perpausaren ez-gramatikaltasuna esplikatzeko. Nominalizaziozko transformaziorik ez bada, eta, horrenbestez, izenkiak bere horretan oinarrian agertu behar badu, esan nahi du ez dugula izenkirik izango jadanik transformazioren bat ikusi duen egiturari dagokionik. Horrela, goiko perpaus hori John amused the children with his stories-ekin erlazionatua legoke. Hau erazleen transformazio bati esker sortua litzatekeenez, esplikatua geldituko litzateke goiko perpaus horren ez-gramatikaltasuna.

Baina aurrerago beste bide bat proposatuko du, artikulua berean. Orain (44) egitura proposatu beharrean, (45) proposatuko du ahotan darabiltzagun egiturak esplikatzeko:

(44) John [+cause] [the children were amused with his stories]

(45) John [+cause, amuse] the children with his stories

Hortaz, orain Chomskyk [+cause] tasun bat badela proposatzen du. Tasun hau zenbait aditzen ezaugarria izango litzateke, beste ezaugarri lexikoen parekoa. Tasun hori, bestalde, zenbait erredundantzi erregelekin batera agertuko da, unibertsalak izango dire arik berauek, hots: ez lirateke izango ingeles gramatikaren osagai, edozein gramatika interpretatzeko erabiltzen ditugun printzipioen sailekoak baizik. Printzipio hauek esanga digute, adibidez, [+cause] tasuna duen aditz iragangaitz bat iragankor bihurtzen dela⁷⁴ eta bere hautapen tasunak sistematikoki aldatuak gertatzen direla antzinako sujetua objektu bihurtzen delarik. Era berean, interpretazio semantikozko erregelei ere antzeko erredundantzi printzipioak aplikatu beharko zaizkio.⁷⁵

Aditz erazle hauek aski tinta kurrierazi dute Gramatika
Sortzailearen historian zehar. Hemen aurkitu uste izan zuten, adi-

bidez, Semantika-Sortzaile-zaleek beren tesirik nagusienerako oinarria, alegia, zenbait transformazio lexiko txertakuntzaren aurretik gertatzen direlakoaren alde. Luze joango litzaiguke eztabaida guzti honen berri eman nahi bagenu, baina esan dezagun aditz erazle hauen transformazio bidezko erakarbidearen kontra "interpretatibistek" lexiko bidezko esplikazioa eskaintzen dutela. Jackendoff-ek, aipatu dugun Chomskyren lehenbiziko jarrera ahotan hartuz, honela dio: "La relación entre He was amused at the stories y the stories amused him⁷⁷ puede ser expresada en el lexicon sin que haya que recurrir a ninguna transformación causativa del tipo de la que propone Chomsky. La nominalización his amusement at the stories contrasta con the stories amusement of him, ya que amusement está más directamente relacionada con el adjetivo amused at que con el verbo amuse".⁷⁸

Gainera, beste erazle batzuk badituzte nominalizazioak. Adibidez, honako hau aipatzen du Jackendoff-ek:

(46) The excitation of the protons by gamma rays.

Gainera, horrelakoak askotan anbiguo gertatzen omen dira interpretazio trantsitiboaren eta intrantsitiboaren artean.⁷⁹ Horrenbestez, Jackendoff-en ondorioa da amusement-ek posible diren forma guztien artean forma bakarra izatea zerbait ad hoc dela eta lexikoian aditzaera ematen dela.⁸⁰

Chomskyk dio grow aditzaren erabilera iragankorrak (John grows tomatoes) ez duela nominalizaziorik ematen: *The growth of tomatoes by John. The growth of tomatoes izenkia tomatoes grow iragangaitzarekin erlazionatua dago. Hau ere -dio Jackendoff-ek lexikoian aditzaera eman daiteke: grow aditz iragankorrari bere nominalizazioa dagokio: The growing of tomatoes by John. Horregatik, Jackendoff-en ustetan, ez da zuzena erazleak hipotesi lexikalista-

ren alde erabiltzea, Chomskyk egiten duen bezala, erazleek bai baitituzte nominalizazioak, Chomskyk bestela bazioen ere.

Dena den, badirudi bi erazle desberdinen aurrean aurkitzen garela. Aditz erazle gehienetarik erakarritako izenkiek iragankor / iragangaitz arteko anbiguitatea aurkezten zutela esan dugu. Hala ere, badira erazle berezi batzu -edo Varelairen arabera, "sasi-erazleak"⁸¹- inolako anbiguitaterik erakusten ez duten izenkiak dagozkienak. Jackendoff-ek zioen⁸², John's amusement sintagmaren interpretazio bakarra John is amused at something edo horrelako zerbaitekin zerikusia duelarik egin omen daiteke eta ez something amuses John-ekin. Datu honetan oinarriturik, emotibo direlakoan multzoa bereizten du Varelak. Aditz hauek iragankor gisa erabiliak direnean, axaleko sujetua ez da egiazko EGILE edo ajentea. Sintagma hau sakonean kausazko sintagma bat izango litzateke. Axaleko sujetua, berriz, "pairatzailea" (?) edo experimentatzailea izango omen litzateke. Eta nolatan iritsi da sakoneko egituren kausa dena axaleko egituren sujetu bihurtzera? Hau FLIP edo mugida psikologiko transformazioaren ondorio izango litzateke. Honako perpaus hauetan bezala:

FLIP

(47) Andoni nire proposamenaz harritu egin zen ==>

Nire proposamenak Andoni harritu egin zuen.⁸³

Baina hauek ez omen dira egiazko erazleak. Gainera, "la estructura básica es la intransitiva y sólo derivadamente -por FLIP- es posible obtener la transitiva o pseudo-causativa -dio Varelak- ocupando el SP causal, o parte de él, la posición de sujeto"⁸⁴. Bestalde, bakanketa lexikoaren printzipioa onartuz, dio, aditz hauek bi predikatutan bakarrik bakan daitezke: (1) inkotiboa eta (2) ondoriozkoa. Kontua da FLIP delako transformazioa

ikusi duten aditzei ez dagokiela nominalizaziorik edo, bestela esan, gertatzen diren izenkiek aditz iragangaitzarekin dute zerikusia eta ez iragankorrarekin. Alegia, orrazketa bezalako bat era batez baino gehiagoz interpreta daitekeen bezala, harridura ezin interpreta daiteke era bakar batez baizik:

(48) Andrearen orrazketa luze joan da gaurkoan.

interpreta daiteke:

(49) a. Andrea orraztu da eta hori luze joan da.

b. Andrea orraztu dute eta hori luze joan da.

c. Andreak norbait orraztu du eta hori luze joan da.

Baina

(50) Andrearen harridura sekulakoa izan zen.

(51)-ko a. eta b.-rekin erlazioa daiteke baina ez c.-rekin:


(51) a. Andrea harritu zen eta hori sekulakoa izan zen.

b. Andrea harritu dute eta hori sekulakoa izan zen.


c. *Andreak norbait harritu zuen eta hori sekulakoa izan zen.

Fenomeno hau bi erataria interpreta daiteke, Varelairen ustez: a) "el hecho de que no se produzca con estos verbos emotivos más que la nominalización correspondiente a la estructura base parece corroborar en principio la tesis de Chomsky de que los nombradores de acción no se aplican a estructuras derivadas y que por lo tanto deben ser considerados como nombres auténticos en la base".⁸⁵ Eta b) Aditz emotiboak dituzten egitura hauei ezin aplika daieke ekintza nominalizazioa, forma iragankorra egiazki aktiboa ez delako eta, horrenbestez, axaleko sujetua kausazko sintagma bat delako. Ildo honetatik, Varelairen ustea da (52) perpausaren sako-neko egitura (53) dela:

(52) Daniel convenció a sus padres.



Hemendik lor daitezkeen nominalizazio bakarrak, Varelaeren ustez, dira "las correspondientes al verbo de proceso incoativo y al de estado"⁸⁶. Hots: el convencimiento de los padres uler daiteke "los padres están convencidos" perpausaren nominalizazio gisa (hots: egoera aditz baten nominalizazio gisa) nahiz "los padres se han convencido" perpausaren nominalizazio gisa (beraz, aditz inkoatibo baten nominalizazio gisa). Eta ezin uler daiteke "Daniel convenció a sus padres" perpausaren nominalizazio gisa, horretarako, (53) gabe, (54) egitura beharko baikenuke:



b) Izenkiaren eta aditzaren arteko zentzuketetasunik ezaren argumentua.-

Izenki erakarriaren eta dagokion aditzaren arteko erlazioa oso aldakorra da eta nominalizatutako formaren esanahiak desberdinak dira, eta askotan izenki bakoitzak bere esanahi berezia du.

"Fijémonos, por ejemplo -dio Chomskyk- en nombradores tales como laughter, marriage, construction, actions, activities, revolution, (...) con sus peculiares gamas de significado y las diversas relaciones semánticas que guardan con sus respectivas formas base; y aunque se han notado a menudo unas pocas subregularidades en ellos, su campo de variación y su carácter notablemente accidental, son típicos de la estructura del léxico. Para hacer un sitio a estos hechos dentro del enfoque transformacionista (suponiendo (...) que sean las relaciones gramaticales en la estructura profunda lo que determine el significado) es necesario recurrir al artificio de asignar una gama de significados a la forma básica y estipular que ésta tiene que poderse nominalizar con ciertos rasgos semánticos, mientras que con otros no puede hacerlo; a lo que se une que la apelación a semejante recurso, tan insatisfactoria (que convierte en casi totalmente vacua la hipótesis de que las transformaciones carecen de contenido semántico), tendría que hacerse en una enorme cantidad de casos".⁸⁷

Eta ohar batean erasten du Chomskyk: "Tal artificialidad podría reducirse derivando los nombradores a partir de nombres subyacentes que incluyeran cierto tipo de elemento oracional, cuyo significado podría así expresarse; por ejemplo, John's intelligence se derivaría de the fact that John is intelligent (...) (en John's

intelligence is undeniable) (...) y de the extent to which John is intelligent (...) (en John's intelligence exceeds his foresight (...)); pero es difícil encontrar una estructura natural que sea origen de ese nombrador en el caso de oraciones tales como John's intelligence is his most remarkable quality (...). Por lo demás, esta idea tropieza con otras dificultades; así, podemos decir: John's intelligence, which is his most remarkable quality, exceeds his foresight (...); pero de acuerdo con este análisis, la cláusula apositiva de semejante oración habría de derivarse de *the extent to which John is intelligent is his most remarkable quality. (...) Cuando se adentra en este problema surgen muchas cuestiones no resueltas acerca de la recuperabilidad de lo elidido en las transformaciones de borrado."⁸⁸

Kritika honek nahikoa bidezkoa dirudi. Hala ere, Chomskyk iradokitzen duen -nahiz eta onartu ez- bide honetan zehar abiatzen da Ross.⁸⁹ Hizkuntzalari honentzat Chomskyk hipotesi transformazionalistari kontrajartzen dion alternatiba, hipotesi lexikalista alegia, ez da irtenbidea. Zaila omen da ikustea nolatan argumentu honek bultzatzen gaitzakeen analisi lexikalista batera eta ez transformazio bidezko analisisira. Sinpletasuna aipatzeak behintzat ez omen du balio. Ross-ek proposatzen duen bidea -"a derivational rout for nominalizations which has not been suggested before in the literature that I am familiar with, and which shows a lot of promise, in my opinion, as a way of overcoming several of the objections that Chomsky raises to previous transformationalist analyses"⁹⁰- eskema honen bidez erakusten da:

a) URRUNEKO EGITURA: nominalizazio oro perpaus baten laguntzan agertzen den buru-izen abstraktu batez hasten da.

b) NOMINALIZAZIOA: izen abstraktu hori aldarazten duen

91

perpauza Ross-ek berak proposatzen duen squish delakoan mailaz jaisten da gerundio edo izenki erakarri bihurtuz.

c) BURU-MOZTEA: buru den izena ezabatu egiten da.

Adibidez:

- (a) The interval during which he was imprisoned (was interminable)
- (b) The duration of Fred's imprisonment (was interminable)
- (c) Fred's imprisonment (was interminable)⁹²

Dena dela, Ross-en proposamena gorabehera, hipotesi lexicalistak, hain aldakor agertzen zaigun semantika erlazio multzo hori lexikoian bertan agerrerezaz gauzak ongi esplikatzen dituela dirudi. Gainera, kontutan izan lexikoian ematen zaizkigun hitz-eraketa-erregerek ez dutela zerikusi handirik transformazio erregelekin: "The rules of word formation -dio Aronoff-ek- are rules for generating words which may be stored in the dictionary of a language. The rules are a part of the grammar of that language. I assume that these rules are completely separate from the syntactic and phonological rules of the grammar".⁹³

c) Barne-egituraren argumentua.-

Ingeleseztik -eta hau Chomskyk behin eta berriro aipatzen duen izenki erakarriek determinanteak onartzen dituzte. Eta ez bakarrik hori: izenki erakarri honekin agertzen den genitiboaren ordezt the artikulua edo whose galdetzailea ager daiteke.

Bestalde, izenki erakarriek adjetiboak onartzen dituzte, bestelakoek adberbioak eskatzen dituzten bezala:

- (55) a. John's sudden refusal.
- b. John's obvious sincerity.

Bi egitura datozkigu berehala burura -dio Chomskyk- adjetibo horien iturri izan daitezkeenak: a) erlatiboa (John's refusal, which is sudden eta John's sincerity, which is obvious); edo b) egitura adverbial bat: John refused suddenly; John is obviously sincere.

Baina Chomskyk ez du ontzat ematen azken iturri hau: John refused in such and such a manner eta John was sincere to such-and-such an extent bezalako egituretatik izenki erakarriak osatzea zilegi dela esan nahi izango bailuke, baina ez da horrelakorik gertatzen, perpaus hauen ez-gramatikaltasunak erakusten duen bezala: *John's refusal in that manner; *John's sincerity to that extent. Gainera, sarritan izenki erakarriekin agertzen diren adjetiboak ezin dira agertu, adverbio forman, izenki horiei dagozkien aditzekin: John's uncanny (amazing, curious, striking) resemblance to Bill zilegi da, baina ez *John resembled Bill uncannily (amazingly, curiously, strikingly).

Izenki erakarriek plurala onartzen dute, besteek ez.

Izenki erakarriek ez dute aspekturik, besteek bai.⁹⁴

Eta bereizgarri hauetatik guztietatik Chomskyk honako ondorio hau ateratzen du: "Aunque queda todavía una gran cantidad de interesantes problemas acerca de los adjetivos en construcciones con nombradores nominales (y en muchas otras construcciones), no encuentro nada que a este respecto entre en conflicto con la hipótesis lexicista".⁹⁵

Jaso ditugun hiru argumentu hauetan oinarrituz proposatzen du Chomskyk bere hipotesi lexikalista. Lees-en garaian izan zitekeen bide bakarra transformazionalista omen zen; ezin zen beste era batera esplikatu refuse aditz bezala agertzen zen testuin-

guruak eta refusal izen bezala agertzen zen testuinguruak elkarren artean zuten erlazioa. Baina lexikoia kategoriazko osagaitik bereizten denean eta lexikoi horretako sarrerak tasun bidez analizatzen direnean, zailtasun hau deuseztu egiten omen da. Horrela, refuse zenbait hautapen-tasunez eta azpikategorizatze hertsizko tasunez hornitua agertuko zaigu. Tasun hauek finkoak izango dira. Bestalde, hitz hori izen edo aditz kategori tasunik gabe agertuko da. Gero, erregela morfologiko berezi batzuk zehaztuko dute refuse, destroy eta abarren forma fonologikoa, elementu horiek izenaren lekuan agertzen direnean. Eta refuse-k, aditz nahiz izen delarik, konplementu gisa IS bat nahiz P bat eraman dezakeela, sarrera lexiko "neutral" horren tasun egituraren bidez adieraziko da. Halaber, destroy-k IS bakarrik eraman ahalko du.⁹⁶

Beraz, lexikoiko banako multzo handi batek aukeran utziko du banako horren izen-, aditz-, edo adjetibotasuna. Eta sarrera lexikoak determinatuko du ezaugarri semantikoak, hein handi batean, hautatzen den kategori tasun horren arabera joatea.

2.- Hipotesi lexikalistaren alde.-

Aurreko lerroetan aurkeztu dugun Hipotesi Lexikalista eta Hipotesi Transformazionalistaren arteko burzuka horretan euskararen Gramatikak zein bide hartu behar lukeen jakitea komeni da. Alde honetatik, Chomskyk hipotesi transformazionalistari egiten dion kritika nahikoa bidezkoa dela dirudi, batez ere lexikoiaren teoria berri batez lagundurik baldin badator. Euskararen gramatikari behintzat, Hipotesi Lexikalistak hobeki funtzionatzeko duela ematen du. Ondoko lerroetan Hipotesi hori euskarari aplikatzen saiatuko gara, euskal egiturak sortzen dituen arazoak begien aurrean ditugularik. Lehenbizi, Chomskyren argumentuez euskarak zer esan dezakeen azaltzen saiatuko gara, eta, ondoren, izenki erakarrien kasuan sortzen diren interpretazio arazoez mintzatuko gara.

Chomskyk Hipotesi Lexikalistaren alde ematen dituen hiru argumentuetatik, euskarari dagokionez, pisurik handiena dutenak bigarrena (aditz-izen arteko erlazio semantikoarena) eta hirugarrena (barne egiturarena) ditugu. Lehenbizikoa, egitura erakarriarena, alegia, nahikoa eztabaidatua izan da⁹⁷ eta, euskarari dagokionez ere, ez du joko handiegirik ematen, nik uste.

Lehenbizi, esan behar da, Chomskyk gerundiozkoen eta izenki erakarrien artean egiten duen bereizketa guztiz bidezkoa gertatzen dela euskararen ikuspegitik ere. Lan honetan ontzat eman dugu hasiera hasieratik aditz izenezko egitura hauen perpaustasuna, zeren ikusia dugun bezala, TO-GEN delako transformazioa duten euskalkiak aparte utziz gero, -T(Z)E aditz izena duten egiturak euskaraz zeharo perpaus taxukoak baitira: ingelesez ez be-

zala, hain zuzen, genitiborik ere agertzen ez baita:

(1) Aitonak horrelako gauza bat esatea....

Hemen zeharo perpaus itxurako zerbaiten aurrean gaudela esan daiteke.

Dena dela, -a mugatzailea derrigorrezkoa gertatzen da, atzizkiren batek, inesiboarenak adibidez, galerazen ez badu behintzat.⁹⁸

2.1.- Izenkiaren eta aditzaren arteko erlazioa.-

Izenkiaren eta aditzaren artean bada erlazio bat. Gertatzen dena da, Chomskyk ongi dioen bezala, erlazio hori oso aldakorra izan ohi dela. Hala ere, esanahi aldakortasun hori gorabehera, erlazio honetan oinarritzen ziren, funtsean, transformazio bidearen aldekoak ere. Hauek aditzak eta izenkiak hautapen debeku berak dituztela ikusten zuten eta, azken batean, aditzaren eta hemendik erakarritako izenkiaren arteko erlazio semantikoa begien bistakoa gertatzen dela. Ez du inork ukatuko, adibidez, ETORRI eta ETORRERA-ren artean, edo MAITE eta MAITASUN-en artean badela semantikazko lotura bat. Hala ere, ETORRERA eta IBILERA taxu bereko izenkiak izan arren, bata ekintza modura interpretatuko dugu (etortzeko ekintza gisa, hain zuzen) baina bestea, modu gisa (ibiltzeko modu gisa, hain zuzen) nahiz ekintza gisa.

Bestalde, badakigu atzizki batzuk joan daitezkeela erro batzuri lotuak eta beste batzuk beste bati; baina ez nolanahi. Hau dena transformazio bidez esplikatutako nahi izanez gero, eta gertatzen diren debeku guztien berri era horretara eman nahi izanez gero, oso konplikatua izango litzateke gure gramatika hori.

Honi erantsi behar zaio Lakoff-ek bere erabateko salbuespenen bidez konpondu nahi zuen oinarriko forma falta duten izenkien arazoa. Hau hizkuntza guztietan gertatzen da. Eta, adi-

biderik nabarmenena hitz mailebatuena izango litzateke. Adibidez,, poeta egile izena -Lakoff-ek dakarren adibide bat aipatzeko- jatorriko hizkuntzan TOLÉV aditzari dagokion egile izena bada ere, ez luke zentzu handiegirik euskaraz ez dugun *poetatu edo antzeko aditz hipotetiko batetik erakarri nahi izateak idazle idatzi-tik erakar daitekeen bezala.

Kontua da beste alternatiba bat bilatzea, lexikoiaren teoria landuaz, adibidez. Hain zuzen, Jackendoff 1975 izango litzateke horrelako saio bat.

Chomskyk DECIDE eta DECISION hitzek sarrera bakarra izango luketela zioen, izenak eta aditzak elkarrengandik bereziko litzuzkeen kategoria markarik ezarriko ez bailitzaieke. Jackendoff-ek berriz, DECIDE eta DECISION hitzek sarrera bana izatea nahiago du: sarrera desberdinak baina erlazionatuak. Arazoa, hiztegi-sarrera desberdinen arteko erlazioak hiztun jator baten intuizioaren arabera aditzera emango dituen tresneria formala lantzea da.⁹⁹

Lexikoiaren barruan ditugun jeneralizazioak adierazteko bada erregela mota bat: erredundantzi erregela. Hala ere, Jackendoff-ek dioenez, oso gutxi egin da egundaino erregela horiek formalizatzeko. Bi teoria proposatzen ditu: a) sarrera murriztuen teoria alde batetik. Teoria honetan sarrera bat osoa izango da eta besteak, berriz, informazio berjabea bakarrik emango du. Bien arteko erlazioa adieraztea erredundantzi erregelari bakarrik uzten zaio. Eta b) sarrera osoen teoria. Teoria honek suposatzen du DECIDE eta DECISION zeharo zehaztuak agertzen direla hiztegian. Erredundantzi erregelak ez luke inongo paperik izango perpausen deribazioan, teoria transformazionalen eta sarrera murriztuen teorien ez bezala. Erregela horrek informazio erredundantea emango du. Informazio hau ahaidea den hitzaren sarreran ematen den informaziotik iragar daiteke.

Adibidez, sarrera lexikoek honako itxura hau izango luke-
tenez, hots:

$$\left[\begin{array}{c} \text{zenbakia} \\ \text{/irudikapen fonologikoa/} \\ \text{tasun sintaktikoak} \\ \text{IRUDIKAPEN SEMANTIKOA} \end{array} \right]$$

DECIDE aditzaren kasuan honela gauzatua legoke sarrera lexiko hori:

$$\left[\begin{array}{c} 784 \\ \text{/ decid /} \\ +V \\ + \left[\text{SN}^1 \text{ ______ on } \text{SN}^2 \right] \\ \text{SN}^1 \text{ DECIDE ON } \text{SN}^2 \end{array} \right]$$

DECISION izenkiak, berriz, honako sarrera izango luke:

$$\left[\begin{array}{c} \text{zenbakia} \\ \text{/ decid + ion /} \\ +N \\ + \left[\text{SN}^1, \underline{s} \text{ ______ on } \text{SN}^2 \right] \\ \text{ABSTRACT RESULT OF ACT} \\ \text{OF } \text{SN}^1, \underline{s} \text{ DECIDING } \text{SN}^2 \end{array} \right]$$

Eta bi sarrera hauez gainera, honako erredundantzi erregela
hau beharko dugu:

$$\left[\begin{array}{c} x \\ \text{/ y + ion /} \\ +N \\ + \left[\text{SN}^1, \underline{s} \text{ ______ (P) } \text{SN}^2 \right] \\ \text{ABSTRACT RESULT OF ACT} \\ \text{OF } \text{SN}^1, \underline{s} \text{ Z-ING } \text{SN}^2 \end{array} \right] \quad \Longleftrightarrow \quad \left[\begin{array}{c} w \\ \text{/ y /} \\ +V \\ + \left[\text{SN}^1 \text{ ______ (P) } \text{SN}^2 \right] \\ \text{SN}^1 \quad \text{Z} \quad \text{SN}^2 \end{array} \right]$$

Hala ere, atzizki bat -ION adibidez- duten izenkien eta hauei dagokien aditzen arteko erlazio semantikoak ez dira beti bat gertatzen. Bestalde, atzizki izentzaile askok (-MENT, -AL, ...) adierazi dezakete ABSTRACT RESULT OF ACT OF V-ING esanahia. Beraz, erregela bat baino gehiago behar dugu. Horrela, batetik zenbait erredundantzi erregela morfologiko izango dugu, oro har itxura honetakoa:¹⁰¹

$$\left[\begin{array}{c} / y + \text{atzizkia} / \\ + I \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{c} / y / \\ + A \end{array} \right]$$

Eta bestetik, izenki-aditz arteko erlazio semantiko desberdin guztiak jasoko dituen erredundantzi erregela multzo bat.

Bi hitzi dagokien erlazio semantikoa ezin eman daiteke erredundantetzat hitz horien artean erlazio morfologikorik ez bada. Horrela, rule aditza badenez, ruler izenaren edukia erredundantetzat eman daiteke, baina king-en eduki semantikoa informazio berjabetzat eman beharko da, ez baitagokio morfologiaz zerikusirik duen aditzik.¹⁰²

Adibidez, har ditzagun honako bi hitz hauek, beren izatea frogatu beharrik izango ez ditelakoan: ETORRERA eta EROSKETA. Garbi dago bakoitzak baduela erlazionaturiko aditz erro bana: ETOR eta EROS. Erlazio hori honako erregela morfologiko hauen bidez eman daiteke aditzera:

$$\begin{array}{l} M_1: \left[\begin{array}{c} / y + \text{era} / \\ + I \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{c} / y / \\ + A \end{array} \right] \\ M_2: \left[\begin{array}{c} / y + \text{keta} / \\ + I \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{c} / y / \\ + A \end{array} \right] \end{array}$$

Eta bestalde, honako erregela semantikoa izango dugu, baldin eta besterik ez bada:

$$S_1: \left[\begin{array}{c} + I \\ + [IS-en \text{ ---}] \\ IS \text{ Z-TZEKO EKINTZA} \\ ABSTRAKTUA \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{c} + A \\ + [IS \text{ ---}] \\ IS \text{ Z} \end{array} \right]$$

Jakina, gauzak konplikatu egiten dira EROSKETA eta honen erroa den EROS aditz iragankorra erlazionatu nahi ditugunean, zeren EROS-i dagokion inguramendu sintaktikoa ez da goiko erregela horrek aditzera ematen duena beste bat baizik. Hortaz, beste honako erregela honen antzekoren bat ere beharko dugu:

$$S_2: \left[\begin{array}{c} + I \\ + [IS-en \text{ ---}] \\ IS \text{ Z-TZEKO EKINTZA} \\ ABSTRAKTUA \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{c} + A \\ + [IS^1-ek IS^2 \text{ ---}] \\ IS^1-EK IS^2 \text{ Z} \end{array} \right]$$

Gertatzen dena da, aurrerago ikusiko dugunez, izenkien testuingurua aditzena baino askoz mugatuagoa denez (funtsean inguramendu hori honako hau da: hots: IS-en ---) genitibo hori ajente modura (edo nahiago bada IS^1 modura) interpretatu behar den ala objektu modura (hots: IS^2 modura) jakin behar dugula. Hots: nola eman gizonaren erosketa bezalako izen sintagma baten anbiguitatearen berri.

Gainera, beste era batera ere interpreta daiteke izen sintagma hori, erosketa ekintza modura ezezik ekintza baten ondorio modura ere interpreta baitaiteke:

(2) Zure erosketa biziki gustatu zait.

dioenak ez du esaten ekintza bat gustatu zaionik, nahi eta ez. Ekin-

horren emaitza, produktua, baizik, erosi duzuna biziki gustatu zait esango bagenu bezala. Horrelakoetan, hortaz, beste erregela hau ere beharko dugu:

$$S_3: \left[\begin{array}{l} + I \\ + [IS-\underline{en} \quad \underline{\quad}] \\ IS^1-EK \quad IS^2 \quad Z-TZEAREN \\ EMAITZA \end{array} \right] \longleftrightarrow \left[\begin{array}{l} + A \\ + [IS^1-ek \quad IS^2 \quad \underline{\quad}] \\ IS^1-EK \quad IS^2 \quad Z \end{array} \right]$$

Erlazio hauen berri erredundantzi erregela hauen esku geldi daiteke, dena dela eta, hain zuzen, horixe da teoria lexikalistak proposatzen duena. Hortaz, arazoa lexikoira bialtzen da.

Baina ikus dezagun astiroago izenki erakarriak agertzen diren izen sintagmen egitura zein den eta egitura honek sortzen dizkigun arazoak.

2.2.- Barne egituraz.-

Chomskyren hipotesi lexikalistaren aldeko hirugarren argumentua barne egiturari dagokiona zen. Euskaraz, ingelesez baino areago esan daiteke izenkiak agertzen diren izen sintagmak izen "arruntak" agertzen diren izen sintagmen egitura berbera dutela. Edo bestela esan: izenki erakarriek eta bestelakoek zeharo jokatibide bera dute.

2.2.1.- Izenki erakarrien izentasunaren ezaugarriak.-

Izenki erakarrien izentasuna salatzen duten zenbait ezaugarri aipa genitzake:

a) Adibidez, euskaraz, genitiboa ager daiteke bai izenkien aurrean, bai, noski, izenen aurrean:

(3) Aitaren erosketak harritu nau.

(4) Aitaren etxea defendituko dut.

Baina aditz mugagabedun perpausetan ez da genitibo hori agertzen:

(5) Aitak erostea nahi dut.

Hortaz, genitiboaren agerpena izenkiaren izentasunaren seinale dugu. Ingelesez his writing, gorago ikusi dugunez, ambiguo da, baina ez honen euskal ordaina, genitiboa batean bakarrik agertuko baitzaigu:

(6) a. Hark idaztea...

b. Haren idaztea (nahiz idazkera)...

Dena dela, euskaraz, genitiboa agertzea bera aski izentasun marka dela esan behar. Haritschelhar-ek dioen bezala, "Genitiboa enpleatzen delarik, izen sintagma batean sartzen da aditz izena, eta, beraz, izen da berez dudarik gabe" Baieztapen hau Iparraldeko euskalkietako trantsitiboaren objektuaren genitibatzeaz ari delarik egiten du. Dena den, baieztapen honek askoz zuzenago dirudi oraindik izenki erakarriekin agertzen zaigunean.

b) Adjetiboaren eta erlatibozko perpausaren agerpena ere izentasun seinale dira:

(7) a. Aitonaren lan egite isil hura...

b. Aitonak isilik lan egitea...

Honako hau, berriz, ez da gramatikala:

(8) *Zuk hainbeste liburu eroste miresgarria...¹⁰⁵

Eta erlatiboekin -erlatibo murrizgarriekin, noski, ager daitezke:

(9) a. Aitonari gustatzen zitzaion $\left\{ \begin{array}{l} \text{gidatzea} \\ \text{abiadura} \end{array} \right\}$ arri-kutsua zen.

b. *Aitonari gustatzen zitzaion Jonak gidatzea arri-kutsua zen.

c) Izenki erakarriek plurala ere onartzen dute:

(10) a. Zure joan-etorriak ez ditut batere atsegin.

b. Gaurko gazteen gauezko ibilerak zaindu behar dira.

d) Aspektua markatzeko aukera aditzei dagokie, eta, horrenbestez, perpausari eta ez, izen sintagmei:

(11) Damu dut zu nahigabetu (izan)a.

Iena dela, aspektu kontu honek aditz mugagabezko perpausetan ere, ez du ematen indar handiegia duenik. Badirudi aspektu balio desberdinak testuinguruaren arabera gertatzen direla, eta ez hainbeste aditz mugagabeak berak aspektu perfekturako forma berezia hartu duelako, (11)-n bezala. Alegia, (12)-ko biak, (a) eta (b), dira zilegi, eta bietan aspektuari dagokionez balio bera dugu, nahiz eta batean forma perfektua ageri eta bestean ez-perfektua. Izan ere, perpaus nagusiko aditzak markatzen du gehienetan perpaus txertatuko aspektua:

(12) a. Biziki poztu ninduen zu hain argi mintzatu (izan)ak.

b. Biziki poztu ninduen zu hain argi mintzatzeak.

Hortaz, euskararen kasuan, argumentu honek pisu handiegirik ez badu ere, forma bikoiztasun hori ez da gertatzen inolaz ere izenki erakarriekin, hots: genitiboa ametitzen dutenekin:

(13) *Zure mintzatu izanak biziki poztu ninduen.

106

d) Varelak zioenez, nominalizazio faktiboaren eta ekintza nominalizazioaren arteko bereizketa markatzen du EZ partikularen agerpenak. Alegia, la no llegada de aviones me sorprende bezalako perpausak posible diren bezala, ezina gertatzen da EZ hori egiazki ekintza soilak adierazten duten izenkiekin. Hain zuzen, euskarari gagozkiola, argumentu hau hipotesi lexikalistaren euskarritzat har liteke, zeren ezeztapena perpausaren ezaugarria denez, EZ hori perpaus diren egituretan bakarrik aurkituko baitugu eta ez, izen sintagma soiletan:

(14) a. Aita ez etortzeak harritzen nau.

b. Zu ez joatea nahi dugu.

(15) a. *Aitaren ez etorrerak harritzen nau.

b. *Liburuaren ez erosketak kalte egin digu.

Dena den, honekin ez dugu esan nahi perpaus diren guztiek onartzen dutenik EZ elementua:

(16) a. ?Ahaztu egin zaigu liburua ez erostea.

b. ?Debekatu egin diogu ez etortzea.

Hauetan arrazoi semantikoak bilatu beharko dira, behar bada, perpausen bitxitasunaren berri emateko. Honako kasu honetan bezala:

107

(17) a. Etorri naiz irakasleari liburu bat eskatzera.

b. *Etorri naiz irakasleari liburu bat ez eskatzera.

Hemen axola duena da izen batek, berez, ez duela EZ-ik onartzen:

- (18) a. *Ez liburua.
- b. *Ez etxea.
- c. *Ez berrikuntza
- d. *Ez mugapena ¹⁰⁸

Gaztelaniaz llegada, comparecencia eta antzeko izenkiak ezeztatuak ager daitezkeen arren, horien ordain izan litezkeen etorrera edo agerpena, adibidez, ezin ager daitezke EZ-en laguntzan. EZ erabili behar badugu, orduan nahi eta ez -T(Z)E atzizkidun izenkiaz baliatu beharra dugu eta, gainera, genitiborik gabe. ¹⁰⁹ Hortaz, esan daiteke horrelako izenkiak egiazki izentzat har ditzakegula euskaraz.

2.2.2.- Era bereko konplementuak izen sintagma guztietan.-

Hipotesi transformazionalistaren aldekoek transformazio bidearen alde zuten arrazoi nagusia zen aditzak eta honi dagokion izenkiak funtsean hantapen debeku berak zituztela eta, azken batean, batak eta besteak konplementu berak ametitzen zituztela. Hau, hipotesi lexikalistak, erredundantzi erregelez baliatuz konpon dezakeela ikusi dugu. Bestalde, hipotesi lexikalistaren aldeko arrazoi nagusienetakobat zen izenki erakarriak ageri diren izen sintagmek izen sintagmei dagozkien barne egitura zutela. Eman dezagun -dio Chomskyk- eagerness (for John) to please, refusal of the offer, belief in a supreme being, e.a. oinarriko izen sintagmak direla. Hau honela bada, eta hipotesi lexikalistak hau ontzat ematen du, oinarriko kategori osagaiko erregelek konplementu sail handi bat sartu beharko dute izen sintagmen barnean, aditz sintagmetan edo adjetibo sintagmetan egiten duen bezala. Baina horretarako, oinarriko erregelek era honetara hedatu beharko genituzke:

(19) IS → I Konp

AS → A Konp

AdjS → Adj Konp

Konp → IS, P, IS P, IS PospS, PospS PospS, e.a.

110

Baina erregela sail hori ez dugu izenki erakarriak ditugunearn bakarrik behar. Hain zuzen, IS ugari eman daitezke, Det - Izena - Konpl. egitura dutenak izenki erakarririk izan gabe ere. Chomskyren ustez, (19) erregelak premiazko bihurtzen dituzten kasuak izango lirateke, adibidez, ingelesez guztiz normalak diren izen sintagma hauek:

(20) a. The weather in England.

b. The weather in 1956.

c. The story of Bill's exploits.

d. The bottom of the barrel.

e. The back of the room.

f. The message from Bill to Tom about the meeting.

g. A war of aggression against France.

h. Atrocities against civilians.

i. The author of the book.

j. John's attitude of defiance towards Bill.

k. His advantage over his rivals.

l. His anguish over his crimes.

m. His mercy towards the victims.

n. A man to do the job.

o. A house in the woods.

p. His habit of interrupting.

q. The reason for his refusal.

r. The question whether John should leave.

s. The prospects for peace.

t. The algebra of revolution.

- u. Prolegomena to any future metaphysics.
- v. My candidate for a trip to the moon.
- w. A nation of shopkeepers.¹¹¹

Alternatiba bakarra izango litzateke esapide osoa transformaturat hartzea, azpimarratua dagoen elementua nominalizaturiko aditza edo adjetiboa litzatekeelarik, edo, bestela, konplementua erlatibo perpaus murriztu bat dela pentsatzea, dio Chomskyk.¹¹²

Chomskyk honelatsu egiten du gogoeta: izenki erakarriak konplementu sail handi bat inguruan daramatela ager daitezke. Izenkiak perpaus batetik transformazio bidez erakarriak balira, problemarik ez genuke, alde honetatik. Baina hipotesi lexikalista onartuz, izenki erakarriak ere oinarriko formak badira, konplementu horiek agertzeari bide emango dioten erregelak behar dira. Erregela horiek bestelako izen sintagmak sortarazteko ere behar direla frogatzera datoz (20)-ko adibide horiek denak. Zerrenda horretan ageri diren izenak izenki erakarritzat hartzeko eskubiderik ez dugu, Lakoff-en erara derrigorrez nominalizatu beharreko aditz abstraktuak ezartzen ez baditugu behintzat.

Eta konplementu horiek erlatibo murriztuak direlako hipotesiari ere Chomskyk bidea ixten dio. Hortaz, bidezkoa dirudi

[Det - I - Konp] egitura sortaraziko duen erregela proposatzea.
IS

Euskararen aldetik begiratuta, ondorio berera iritsi gaitezke: alegia ISak beti, ardaztat izenki erakarri bat nahiz izen ez-erakarri bat duelarik, egitura bera izango dute. Hala ere, Chomskyk proposatzen duen erregela hedapenaren beharrik ez dugula esango dugu. Esan nahi baita, IS normalentzako behar dugun erregela saila aski dugu IS horien ardatza izenki erakarri bat denean ere. Alegia, Chomskyk proposatzen duen Konp hori -gero, transformazio erregelatan inongo zereginik jokatzen ez duelako

$\bar{X}$ teoriak albora utziko duena- agertzeko oztopo berberak ditugu IS guztietan. Ikus, bestela, nola itzul daitezkeen euskarara Chomskyk ematen duen adibide sail hori. Itzulpenak erakusten duenez, euskaraz izen $\bar{X}$ sintagma baten barruan ager daitezkeen konplementuak lau eratakoak izan daitezke:

1) -EN genitibo atzizkia daramatenak. Horrela, (20)-ko zerrendako zenbait adibideren itzulpena honela izango da gutxi gora behera:

(21) c. Bill-en balentrien kontaketa.

d. Upelaren hondoa.

e. Gelaren atzekaldea.

i. Liburuaren egilea.

q. Haren ezetzaren arrazoiak.

t. Iraultzaren algebra.

2) -KO atzizkidun sintagmak. Hauetan, /Alg + -KO/¹¹³ egitura dutenak eta, behar bada, /-T(Z)E + -KO/ (eta baita /-(E)LA + -KO /¹¹⁴ formakoak sartu beharko dira:

(21) n. Lan hori egiteko gizon bat.

p. Haren (elkarriketa) eteteko ohitura.

Baina hemen -eta hau oso gogoan hartzekoa da- gauza kurioso bat gertatzen da: (a) edo (b) edo (f) eta beste asko euskaraz jarri nahi ditugunean, bi jokabide desberdin agertzen dira:

(21) a. Eguraldia Ingalaterran.

b. Eguraldia 1956an.

f. Bill-en mezua Tomi bilerari buruz.

h. Izugarrikeriak pertsona zibilen kontra.

eta abar.

Hau izango litzateke, adibidez, sintagma horiek idazki baten izenburu balira, egunkari batean adibidez. Arazoak, ordea, izen sintagma

horiek izen sintagma bezala perpaus baten barruan kokaturik agertu behar dutenean gertatzen dira. Orduan, -KO atzizkiaz baliatu behar dugu:

(21) a'. Ingalaterrako eguraldia.

b'. 1956ko eguraldia.

h'. Pertsona zibilen kontrako izugarrikeriak.

Dioguna frogatzeko, hona hemen adibide hauek:

(22) a. ? Izugarrikeriak pertsona zibilen kontra salatu dituzte.

b. *Izugarrikeriei pertsona zibilen kontra garrantzi handia ematen diete egunkarietan.

Baina, beste hauek zeharo zuzenak ditugu:

(23) a. Pertsona zibilen kontrako izugarrikeriak salatu dituzte.

b. Pertsona zibilen kontrako izugarrikeriei garrantzi handia ematen diete egunkariek.

3) Erlatibo bidezkoak:

(24) a''. Ingalaterran izaten den eguraldia.

b''. 1956an izan zen eguraldia.

f''. Bill-ek Tom-i bilerari buruz bidali zion mezua

(edo nahiago izanez gero: Bill-ek Tomi bidali zion bilerari buruzko mezua.)

4) Bada, azkenik, beste laugarren bide bat ere, behar bada genitiboarekin edo, zerikusia duena: hitz elkarketa:

(25) j. Jonek Bill-en kontra duen mesfidantza jarrera.

s. Bake-itxaropena.

w. Dendari nazio bat.

Mesfidantza jarrera, bake itxaropena eta dendari nazio
 izen elkartutzat hartuko ditugu. Bide hau euskaraz guztiz eman-
 korra dugu eta hiztunak beti eskura duena. Arazo bakarra hitz
 elkartu horren interpretazioa ziurtatuko duen erregela multzoa
 formulatzea litzateke. Alegia, zein den bi osagai horien arteko
 erlazioa.¹¹⁵

Ikusi dugu izen soilekin doazen konplementuei zer gertatzen
 zaien. Baina izen sintagma horietan agertzen diren izenen ordez
 izenki erakarriren batzu bagenitu, direlako izenki horiek ere
 ez lukete beste era bateko inguratzailerik izateko aukerarik izan-
 go, aditz batekin zerikusia duten izenkiak direla eta. Dioguna-
 ren lekuko, hona hemen adibide batzu:

- (26) a. Gizonaren etorrera.
 b. Etxearen erreketeta.
 c. Gaztetako ibilaldiak.
 d. Zure taberna(tika)ko irteera.
 e. Etxe berri horren konponketa.
 eta abar.

Hortaz, genitiboa denez izenaren berezko konplementua
 -euskaraz bi "genitibo"(?) ditugularik- izenkiek ere gainerako
 izenen jokabide bera dute.

Era berean, izenki erakarri batek ez du ametitzen dati-
 bozko zehar objeturik, beste edozein izenek bezalaxe, hain zuzen.
 Ez eta ere, nere hizkuntz gaitasunaren arabera behintzat, ine-
 sibozko edo adlatibozko konplementurik:¹¹⁶

- (27) a. *Chomskyren Hipotesi Transformazionalistari kritika.
 b. *Andoniren Ondarrura etorrera.
 c. *Abadearen elizan sarrera.

Eta konplementu horien ordeztu gehienetan erlatiboetako perpaus batez balia gaitzakeenez, ez dirudi euskaraz hain erraz gaitzetsi daitekeenik Chomskyk bazterreraz uzten duen alternatiba hori. Azken batean, debeku berberak gertatzen direlako izen sintagma guztietan -berdin dio ardaztat izenkia ala izen bat duen- denetan jo daiteke erlatiboetara.

Bestalde, arrazoi gogorrek dira -KO atzizkidun konplementuak erlatibo bidez erakarriak direla pentsatzeko. Baina -KO-dun konplementuak ere era guztietako izen sintagmetan ager daitezke. Beraz, berdin dio, alde honetatik, -KO erlatibotik erakarria den ala bestela erakarria den. Bide hori ontzat eman nahi ez bada, beti da posible pentsatzea badela euskal gramatikan erregela bat -KO atzizkia ezarri eratzen duena delako konplementu horren eta izenaren artean. Ingelesez of ezartzen den bezalatsu. Alegia,

- (28) a. Ni elizara sartu nintzen.

baina b. Nire elizarako sarrera.

Kontua da euskaraz izenki erakarriak ere bestelako izen sintagma guztien tajura moldatu beharra dutela.

Garbi dago, hortaz, perpausaren egitura eta izen sintagmarena nahikoa bereziak direla, izenkiaren inguratzaileak aditzarenak baino askoz mugatuagoak direlarik. Bi egitura horiek alderatzen baditugu, honako koadro honekin aurkituko gara:

Perpausa	NOR NORK (NORI)	GAINERAKO KONPLEMENTUAK	ADITZA
Izen Sin- tagma	 GENITIBOA	 -KO	IZENA

Eta hau izen sintagma sortarazteko ditugun erregelak direnak direlako gertatzen da. -KO-dunak erlatibo bidez sortuak badira -baina hori ez da nahitaezko- honako erregela hauetara moldatu beharko du izen sintagmaren egiturak:

$$(29) \quad I \quad S \quad \rightarrow \quad \left\{ \begin{array}{l} \overline{P} \quad IS \\ \text{GEN. IS} \\ I \quad (\text{mug}) \end{array} \right\}$$


Geroago, Chomskyk (19)-ko erregela hedapenean ageri den Konp hori alhora uzten du eta $\overline{X}$ teoria proposatzen. Xehetasunetan murgilduko ez bagara ere, teoria honen ondorio nagusienetako bat aipa dezakegu: izenki erakarria agertzen den ISak eta izenki erakarri horren jatorrian legokeen aditza ageri den perpausak funtsean egitura bera dutela erakustea, konplementuei dagokienez. Notazio honek hein handi batean izen sintagmari eta perpausari egitura sintaktiko bera ezartzen die. "El reconocimiento de una articulación interna al SN permite salvar muchas de las dificultades que se le presentaban a la solución lexicalista a la hora de analizar aquellos sintagmas nominales cuyo núcleo estaba constituido por un nombrador derivado (del tipo: "La construcción del edificio por los albañiles"). Efectivamente, ahora es posible señalar las relaciones "oracionales" que se establecen entre sus constituyentes sin tener que acudir a su derivación de una oración plena, ni tener que postular categorías tan poco "básicas" como la de complemento" dio Varela.¹¹⁷

Hala ere, aditzaren eta honi dagokion izenkiaren arteko erlazio semantikoa gehienbat idiosinkratikoa den bezala, bataren eta bestearen arteko parekotasun sintaktikoa ere ez da erabatekoa izaten. Chomskyk berak dioenez, aditz bat eta dagokion izenkia erabat testuinguru sintaktiko beretan agertzea kasurik sinpleena da.¹¹⁸

Hortaz, $\bar{X}$ notazioaren bidez, (30) eta (31) perpausek funtsean egitura bera izango lukete:

(30) Aitaren etorrera.

(31) Aita etorri da.



Egitura hauek bide ematen digute aitaren eta aita nolabait sujetu gisa interpretatzeko bietan. Baina izen sintagmek duten egitura mugatuagatik, izenkiek, bestelako izenek bezalaxe, inguruan ametitzen dituzten konplementuek aldeztu aurretik finkatua dagoen moldearen barruan sartu behar dute. Har dezagun, adibidez, erosi/erosketa pareak. Erosi, iragankorra denez gero, sujetu eta objektu eta guzti agertuko zaigu perpausean:

(32) Andonik etxe polita erosi du.

Erosketak, ordea, izenki batek bi genitibo ezin eraman ditzakeenez, ezingo ditu bi izen sintagmak eraman. Ditugun aukera

bakarrak honako hauek ditugu:

(33) a. Andoniren erosketa.

b. Etxe polit baten erosketa.¹¹⁹

Eta objetua eta sujetua, biak agerrerazi nahi baditugu, ezin dugu (c) eman:


c. ?? Andoniren etxe polit baten erosketa.

Hori adierazi nahi badugu, dugun bidea objetua eta izenkiaren artean izen elkartu bat eratzea dugu:

(34) Andoniren etxe-erosketa.

Hau posible izango da, goian bezala, objektu hori izen sintagma generiko bat denean.

Baina, dena dela, (29)-ko erregela horrek zilegi egiten badu ere IS batean genitibo bat baino gehiago agertzea, funtsean honelako egitura bat osatuz:



genitibo bat baino gehiagoko ISak baztertu egiten ditugu. Horretarako beste bide bat ere posible izaten da sarritan. Adibidez, Chomskyk berak behin eta berriro aipatzen duen harako The destruction of the city by the enemy hura ezingo genuke


(36) ??Etsaiaren hiriaren suntsiketa

gisa eman. Honen ordez, erlatiboa erabiltzea askoz zuzenago litza-teke:


(37) Etsaiak egin duen hiriaren suntsiketa.

Hortaz, euskal datuen arabera, badirudi Chomskyren "the simplest case" delako hori benetan dela sinpleena. Zeren izenkia aditz iragangaitz bati ez, iragankor bati baizik, badagokio, IS-ren eta P-ren arteko parekotasuna itxuragabetzen hasten baitzaigu. Itxuragabetze hau IS-ren eta P-ren egitura sintaktikoak desberdinak direlako gertatzen da.


Perpaus batena, honelako zerbait izan daitekeela pentsa daiteke:



Baina IS-ren egitura, funtsean, beste era honetakoa izango da:



edo ¹²¹



2.2.3.- Genitiboaren interpretazioa.-

(39) eta (40) egiturek begien aurrean jartzen digute genitiboaren interpretazioaren arazoa. IS-ren egiturak genitibo batentzako bakarrik duela dirudi lekua. Izenkietan behintzat, normalean, hala gertatzen da.¹²² Kontua da, bi izen sintagma hauek badira posible.

(41) a. Andoniren erosketa.

b. Liburuaren erosketa.

genitiboaren eta izenkiaren arteko lotura bi modutara ulertzeko bidea eman behar zaigula, batean ekintzaren egile bezala ulertuko baitugu, eta bestean, ekintzaren objektu modura. Hau lexikoan konpondu behar den kontua dugu.

Irtenbide posible bat honako hau izango litzateke: (42)-ko perpausak baditugunez:

(42) a. Andonik liburua erosi du.

b. Liburua erosi da.

(41b) perpausa nolabait (42b) perpausarekin erlazionatua dagoela pentsa liteke. Hiztegian erredundantzi erregela egokiek emango ligukete (42a) eta (42b)-ren arteko erlazioaren berri -transformazio bidez esplikatu nahi ez badira behintzat- eta era berean, pentsa liteke (41b) eta (42b)-ren arteko erlazioaren berri ere eman dezakeela erregelaren batek. Esan nahi baita, liburuaren erosketa liburua erosi da perpausarekin erlazionatua dagoela pentsa liteke. Hau, lehen begiratuan, bidezkoa dirudi dela, baina baditu bere oztopoak. Alegia, (41b)-ko EROSKETA (42b)-ko EROSI aditz inbertsonalarekin erlazionatua badago, (41a)-ko EROSKETA zein EROSI-rekin behar dugu erlazionatu?, (42a)-koarekin ala (42b)-koarekin? Izatekotan ere, (42a)-koarekin behar luke. Baina (42a)-n liburua objektua agertzen bada ere, horrelakorik ezin

dugu izan (41a)-n. Orduan, askoz bidezkoago dirudi (41)-eko bi EROSKETA izenkiei irtenbide bertsua ematea. Aski genuke hiztegian esatea genitiboak berez bi interpretazio posible dituela. Hori izenki hauekin guztiekin beti gertatzen denez, erredundantzi erregelei utzi dakieke zeregin hori. Saio modura, honelatsu formula liteke:

(43)

$$\left[\begin{array}{c} +I \\ +[IS-Genit. \text{ ---}] \\ \left\{ \begin{array}{l} IS^1-EK [PRO] Z-TZEKO EKINTZA \\ [PRO] IS^2 Z-TZEKO EKINTZA \end{array} \right. \\ IS^1 \end{array} \right] \leftrightarrow \left[\begin{array}{c} +A \\ +[IS^1-ek IS^2 \text{ ---}] \\ IS^1-EK IS^2 Z \end{array} \right]$$

EROSKETA-ren kasuan, adibidez, honako sarrera lexiko hau izango genuke, gutxi gora behera!²³

(44)

$$\left[\begin{array}{c} / \text{ EROSKETA } / \\ +I \\ +[IS-Genit. \text{ ---}] \\ a) IS^1-ek (Agentek) \\ \text{zerbait EROSTEKO EKINTZA} \\ \text{edo} \\ b) Norbaitek (Agente ezeza- \\ \text{gun batek) } IS^2 \text{ EROSTEKO EKINTZA} \end{array} \right]$$

Eta hau, (43)-ko erregelari esker EROSI aditzaren sarrera lexiko-arekin erlazionatua egongo litzateke, hots, sarrera honekin:

$$\left[\begin{array}{c} / \text{ EROS } / \\ + A \\ +[IS^1-ek IS^2 \text{ ---}] \\ IS^1 \text{ ek } IS^2 \text{ EROS} \end{array} \right]$$

Eta kasu bakoitzean zein aukerarekin gelditzen garen hiztegian bertan finkatu beharko dugu. Zeren gehienetan genitiboan doan izen sintagmaren tasunek berek esango digute teoriatzat posible liratekeen bi interpretazioetatik zein den zuzena. Adibidez, EROS aditzak agente bat eta objektu bat eskatzen dituela badakigu hiztegitik. Bestalde, hiztegian bertan esaten zaigu agente horren funtzio gramatikala sujetua izango dela, eta objektuarena objektua. Agente bat biziduna da, horrenbestez, tasun hori duen izen bat ageri bada eros-en sujetu modura problemarik ez dago. Problemarik ez dagoen bezala izen hori genitiboan agertzen bada EROSKETA izenkiarekin, agente modura interpretatzeko. Baina, tasun hori ez badu genitibo horrek, ETXE-k, adibidez, ETXEAREN EROSKETA izen sintagman ageri den genitiboak izango duen interpretazioa ezingo da ajentearena izan.

Dena dela, euskaraz aditz iragankor gehienak -denak ez badira- iragangaitz modura erabil daitezkeenez, eta bestetik hauen artean aditz erazleak baditugunez, nahikoa problema sortzen dira. Baina hiztegia behar bezala aberastuz, erregela lexikoak aberastuz, alegia, arazoak konponbidean jar daitezke. Adibidez, har ditzagun honako izenki hauek: EROSKETA, HILKETA eta ERREKETA. Hauekin problemarik ez dugu nahiz eta batzu erazleak izan: hauek beti forma iragankorrarekin erlazionaturik interpretatuko ditugu. Hala ere, etxearen erosketa 'norbaitek etxea erosi du' perpausarekin eta, beraz, 'etxea erosi da' perpausarekin erlazona daitekeen bezala, nekazarien hilketa ez genuke erlazionatuko 'nekazariak hil dira' perpausarekin -horretarako dugu nekazarien heriotza', 'norbaitek nekazariak hil ditu'-rekin baizik. Aditz erazleekin badirudi hau dela beti interpretazioa. Hain zuzen, HILKETA-k eta ERREKETA-k, aditz erazleak diren neurrian dute duten interpretazioa. Etxearen errequeta-ren interpretazio normala ez litzateke 'etxea erre da', 'norbaitek etxea erre du' baizik. Esan nahi baita, HILKETA eta

ERREKETA HIL eta ERRE [+Erazlea] tasuna duten aditzekin daude erlazionatuak, ez HIL eta ERRE aditz hoskide baina [+Inkoatiboa] tasuna dutenekin. Horrek esan nahi du Andoni hil da bezalako batekin ezin erlazioa daitekeela Andoniren hilketa. Ez eta Andoniren erreketa ere Andoni erre da perpausarekin. Interpretazio zuzena ematen digu, hortaz, goragoko erredundantzi erregelak.

Hala ere, oztopoak badira. Normalki, ez dirudi ugariegia direnik -KETA atzizki hau onartzen duten aditz iragangaitzak. Bakarren batzu bai, hala ere. Esaterako, hor dugu ALDAKETA. Eta badirudi honekin, goragokoekin debekatua badago ere, zilegi dela aditz inkoatiboarekin erlazioan jartzea. Hortaz, Andoniren aldaketa bezalako sintagma bat hiru eratara uler daiteke:

(45) a. Andonik zerbait aldatu du.

b. Norbaitek Andoni aldatu du.

eta baita c. Andoni aldatu da.

Jakina, hirugarren interpretazio honen berri ez digu ematen (40)-ko erregelak. Besteren bat behar dugu. Honako hau adibidez:

$$\begin{array}{ccc}
 (46) & & \\
 \left[\begin{array}{c} +I \\ + \left[\text{IS GENIT. } ___ \right] \\ \text{IS Z-tzeko EKINTZA(?) } \end{array} \right] & \longleftrightarrow & \left[\begin{array}{c} +A \\ + \left[\text{IS } ___ \right] \\ \text{IS Z} \end{array} \right]
 \end{array}$$

Hala ere, HILKETA, ERREKETA eta besteren kasuan ezin dugu erregela hau kontutan izan. ALDAKETA-ren kasuan bakarrik, nahiz eta garbi ikusten ez den zergatik den ALDAKETA-ren eta gainerakoen arteko diferentzia hau. Aipatu gorabehera guzti hauen berri behar bezala emango duen tresneria gramatikala lexikoian kokatzen da. Dena den, lexikoaren eta hitz erakarbidearen azterketa sakonagoak beharko ditugu. Hemen bidea markatzearekin aski dugu.

Dena dela, argi dago aditz iragankor batekin erlazionatua dagoen izenkian ez dagoela genitibo batentzako lekua baizik. Interpretazioa bikoitza izan daitekeenez, goragoko erregela semantiko horrek emango du horren berri. "Entseiukarrean" bezala eman ditugu erregela horiek. Eta entseiukarrean eginda badaude ere, interpretazio semantikorako suposatuta behar izan dugun PRO horrek ere badu bere mamia, nik uste. Izan ere, genitiboa sujetua ez objetua baizik, denean, PRO tankerako sujetu bat "ulertu" beharra dagoela esan dugu. Hots:

(47) Gazteriaren goraipamena.

diogunean "norbaitek gazteria goraipatzeko ekintza" gisa interpretatzen dugula esan dugu. Norbait hori nor den testuinguruak esango digu. Gehienetan erreferentzia arbitrarioa izan behar duela dirudi. Baina beste batzutan, ez da hori gertatzen. Eta hain zuzen, objetua genitibo forman agertzen delarik sujetua adierazi nahi badugu, erlatibo bidez aditzera eman daitekeela esan dugu sujetu hori. Adibidez:

(48) Joxek egin duen gazteriaren goraipamena.

Hemen Joxe interpretatzen dugu izenkiaren sujetu gisa. Hau esplikatu liteke, behar bada, kontrol fenomeno berezi modura. Alegia, ageri ez den PRO horren erreferentzia EGIN aditzaren sujetua den JOXE-k finkatuko liguke. Ikuspegi honetatik EGIN nolabait derrigorrezko kontrol-aditza izango litzateke eta besteak ez. Esan nahi baita, (48) perpausean gazteria goraipatu duena, nahi eta ez, Joxe dela ulertzen dugu. Interpretazio hori EGIN-ek dituen ezaugarriari zor zaie. Baina erlatibo bidez eman daitezke beste zenbait esaldi ere:

(49) Joxek $\left\{ \begin{array}{l} \text{nahi} \\ \text{aipatu} \\ \text{proposatu} \end{array} \right\}$ duen gazteriaren goraipamena.

Hemen proposatu dugun PRO horren erreferentzia arbitrarioa izango da. Hots: ez du zertan Joxe bera izanik.

Hortaz, bidezkoa dirudi PRO horren antzeko zerbait proposatzeak, irudikapen semantikoari dagokionez behintzat. Izenki erakarriak eta dagokion aditzak argumentu egitura bera badute ere, ez dute nahi eta ez -eta gehienetan ez gertatzen da- egitura sintaktiko bera. Hain zuzen, antzeko arazo bat agertzen zitzaigun gorago aipatu ditugun erazleekin. Badakigu aditz erazleak ezin duela datibo bat baino gehiago eraman. Hala ere, askotan, testuinguruari esker, falta den datiboa interpretatzeko gauza izaten ¹²⁴ gara. Honen antzeko zerbait daukagu izenkiekin ere. Debeku sintaktiko bat bada genitibo bat baino gehiago agertzeko. Agertu ezinik gelditu den ~~argumentua~~, hala ere, interpretatu ezinik ez dago. Bide bat erlatibozko perpausarena izango genuke. Gainerakoan, testuinguruak esango digu zein den agertzen ez den izen sintagma horren erreferentzia.

Dena dela, izenkiaren eta perpausaren arteko diferentzien berri ematea, azken batean, izenkian eta perpausaren argumentu egituratik egitura sintaktikorako proiezioa (= 'mapping') gobernatzen duten printzipioen desberdintasuna zertan datzan finkatzea litzateke. Arazo lexikoa, azken batean. ¹²⁵

2.2.4.- Gainerako konplementuak.-

Genitiboari dagozkion gorabehera zenbait aipatu ditugu. Gainerako adizlagunek aukeran dute -KO bidea nahiz erlatibo bidea:

(50) a. Atzoko zure erosketa.

b. Atzo egin zenuen erosketa.

Dena dela, -KO formako konplementu hauek direla eta, beste ohartxo bat ere komeni da egitea. Alegia, bada, dirudienez,

beste bide bat ere konplementuak izenkiari lotzeko eta da berez aditzari legozkiokeen konplementuak, beren horretan, inongo eras-kinik gabe, izenkiaren ondoan, eta ondoren, ezartzea. Ez dakit bide hau zeharo jatorra ote den. Hona hemen, dena dela, Añibarrrogandik jasotako zenbait adibide:

(51) a. "Lelengo sartzaeran Ceruan cer asmauco dot?"¹²⁶

b. "Sacerdotearen urtereac Sacristiatic Altarara, adierazoten dau..."¹²⁷

c. "Azquenengo Bedincaciñoac adierazoten dau, Cristoren Igoerea Ceruetara..."¹²⁸

Adibide hauek erakusten digutenez, IGOERA, IRTEERA, SARRERA eta antzeko izenkiek eraman ditzakete dagozkien konplementuak eta ez bakarrik perpaus batetik kanpo daudenean, izenburuetan eta abarretan bezala, baita perpaus baten barruan agertzen direnean ere. Baina pentsa liteke erdararen joeraz edo, taxutuak egon litezkeela sintagma horiek. Bestela, nola esplika delako konplementu hori beti izenkiaren ondoren agertzea eta inoiz ez izenkiaren aurretik? Egia esan, ez dakit zenbatetaraino diren zilegi era horretako egiturak, alegia izen baten, edo izenki baten; konplementu litzatekeena izen edo izenki horren atzera pasatzea eta horrela, inolako atzizkirik (-KO alegia) gabe ematea.¹²⁹ Nire ustez, jakabide jatorrena, konplementu hauei dagokien bezanbatean, -KO atzizkiaz baliatzea litzateke, edo -konplementu bat baino gehiago dugunean, adibidez- erlatibozko perpaus baten barruan sarreraztea.

3.- Beste izenki mota bat: /GENITIBOA + ... -T(Z)E-A/ egitura.-

Orain arte atal honetan aipatu ditugun izenki erakarriek izen normalen jokabide bera agertzen dutela ikusi dugu. Eta ikusi dugu, baita, egitura hau, konplementuei dagokienean, nahikoa mugatua gertatzen dela. Ikusi dugu, hala ere, badirela muga horiek gainditzeko bideak: EGIN eta erlatiboa sartuz, adibidez. Ondoko lerroetan atzizki izentzaile gisa -T(Z)E erakusten duten egiturak aipatu nahi genituzke, hauek, batez ere adizlagunei dagokienez, jokabide berezi samarra baitute. Adibidez, bestelako izenkiekin adizlagunak izenlagun bihurtuak behar ditugun bitartean, -KO atzizkiari esker, orain ahotan hartuko ditugun hauek ez dute atzizki hori erakusten beren konplementuetan. Baina ikus dezagun astiroago.

3.1.- Aditz izena, izenkia.-

Har ditzagun gogoan honako perpaus hauek:

- (1) a. Gurasoak Ondarrura etortzea ona da.
- b. Ni Ondarrura etortzea ona da.
- c. Ni Ondarrura etortzea ez zaio gustatzen.
- d. Gurasoak Ondarrura etortzeak poz ematen digu.

Hauetan ez dago inolako gramatikaltasun problemarik: aditz mugagabeko perpaus guztiz arruntak ditugu. Baina beste hauek hartzen baditugu orain:

- (2) a. *Gurasoen Ondarrura etorrera ona da.
- b. *Nire Ondarrura etorrera ona da.
- c. *Gurasoen Ondarrura etorrera atzeratu egin dute.
- d. *Gurasoek Ondarrura etorrera atzeratu egin dute.
- e. $\left. \begin{array}{l} *Neure \\ *Nire \end{array} \right\}$ Ondarrura etorrera atzeratu egin dut.
- f. *Nire Ondarrura etorrera ez zaio gustatzen.

g. *Gurasoen Ondarrura etorrerak poza ematen digu.

Perpaus hauen ez-gramatikaltasunaren arrazoia aurreko lerroetan esplikatzen saiatu gara: hemen ETORRERA izenki erakarrriak, hipotesi lexikalistaren arabera, izen sintagmaren egitura errespetatu behar du. Alde horretatik, *Ondarrura -etorrera segida ez da zilegi. Horretarako, -KO atzizkia behar dugu bien tartean.¹³⁰

Eta, hain zuzen, nire ustez ez-gramatikalak diren (2)-ko perpaus horien ordez, posible da beste irtenbide bat:¹³¹

- (3) a. Nire Ondarrura etortzea ona da.
- b. Gurasoen Ondarrura etortzea atzeratu egin dute.
- c. Nire Ondarrura etortzea atzeratu egin dut.

Hortaz, IGOERA, ETORRERA, IBILERA eta antzeko izenkiek, genitiboaz gainera beste konplementuren bat erantsi nahi diegunean, edozein izenek bezala jokatzeko dute eta orduan konplementu horrek -KO atzizkia eskatuko du. Baina -T(Z)EA formako izenkiak, (3)-ko perpausari buruzko nire gramatikaltasun epaia zuzena bada, askatasun handiago du alde honetatik.¹³²

Beraz, (4) eta antzekoak guztiz normalak direla esan behar. Eta ez bakarrik hori: sarritan, beste izenkiaren ordez aditz izenaz baliatu beharrean aurkitzen gara. Alde horretatik, (4)-ren baliokidea izango litzateke (5):

- (4) Jesusen Zerura igotzea.¹³³
- (5) Jesusen Zerurako igoera.

baina inola ere ez, (6)

- (6)*Jesusen Zerura igoera.¹³⁴

Guri orain (4) perpausaren -eta (3)-koen- tankerakoek ajola digute.

Garbi dago, lehenbizi, genitiboaren ondoren datorrena

izen bat dela, genitiboa, ikusia dugun bezala, izen den zerbaiten aurrean agertzen baita beti. Baina, bestalde, horrelakoetan adjetiboa ere ager daiteke. Horrenbestez, adjetiboak ere izenari laguntzen dionez, ZERURA IGOTZE, edo ONDARRURA ETORTZE nolabaiteko izenak izango ditugu:

(7) a. Jesusen zerura igotze miresgarri hura...

b. Gurasoen atzoko Ondarrura etortze susmagarriak
kezkatua nauka.

Alde horretatik aurkituko genuke, baita, beste desberdintasun baten esplikazioa ere. (1) sailekoak perpausak diren neurrian galderazko izan daitezke:

(8) a. Ondarrura NOR etortzea da ona?

b. Andoni NORA joatea komeni zaigu?

Baina, (8)-koak zilegi badira ere, (9)-koak oso bitxiak gertatzen direla esan behar:

(9) a. *Andoniren NORA joatea atzeratu duzue?

b. *Eduernerren ZER erostea da aspergarria?¹³⁵


Ez dut oso argi ikusten (9) perpausen ez-gramatikaltasunaren arrazoa. Behar bada, beste honako perpaus hauen bitxitasunaren esplikazio bertsua izango luke, egiazki ez-gramatikalak badira behintzat:

(10) a. ? Nire zer gustatzen zaizu?

b. ? Patxiren zerkezkatzen zaitu?

Hauek ez-gramatikalak badira, esan nahiko luke IS-ren muina den atalaz ezingo litzatekeela galdera egin. Eta arrazoi beragatik izango lirateke (9)-koak ere ez-gramatikalak.

Hortaz, hizpidea eman diguten esamolde hauek honako egitura izango dute funtsean:



Beste kontu bat da, ea nola den posible zerura igotze bezalako izenki bat jakitea.

3.2.- Aditz izenaren konplementuak.-

Baina (11)-ko I adabegiaren azpian aditz izenaz gainera joan daitezkeen konplementuak zein dira?

Lehen begiratu batean, nominalizazio mota honek guztiz emankorra dirudi, baina berehala konturatzen da bat oso konplementu gutxiren zama onartzen dutela ETORTZE, IGOTZE, EROSTE eta antzeko aditz izenez osatutako izen sintagma hauek:

a) Zer gertatzen da, adibidez, aditz izen horren konplementu gisa izen sintagma objetua dugunean? Kasu honetan, aditz izen horrek beste edozein izenki erakarrik bezala joka zen duela pentsa daiteke: jadanik genitibo bat agertzen bada (sujetuari dagokiona, alegia) orduan objektuak aditz-izenarekin batera izen elkartu bat osatzen du:

- (12) a. Zure liburu erostea ez da sekula amaitzen, ala?
 b. Zure ardo edateaz nazka nazka egina nago.
 c. Arrantzaleen sare konpontzea zaila izan da.
 d. Andoniren nobela idazte horrek kezkatzen nau.
 e. "Baiña zeure azeri artzeiaz aztu zara".¹³⁶

Jakina, izen sintagma objetua bera genitibo forman ager daiteke:

- (13) a. Tratuaren berritzea bihar izango da.
 b. Euskararen berpiztea denok nahi dugun zerbait da.
 eta abar.

Bai kasu batean, bai bestean, aditz izenak beste izenki erakarrak bezalaxe jokatzeko du. (12)-ko perpausak begien bistan ditugularik, ARDO, LIBURU, SARE, NOBELA, izen mugagabeen ordez posible ote da izen sintagma oso bat, bere erreferentzia zehaztua duena, agertzea testuinguru horretan? Ezetz dirudi, ondoko perpaus hauek aditzera ematen dutenez:

- (14) a. *Zure hiztegia erostea luze joan da.
 b. *Zure ardo hau edateaz nazka nazka egina nago.
 c. *Arrantzaleen sare zaharrak konpontzea zaila izan da
 d. *Andoniren nobela pornografiko hori idazteak kezkatzen nau.
 e. *Zeure azeri handi hori hartzeaz ahaztu zara. ¹³⁷

Hortaz, izen sintagma objetua litzatekeena agertzeko debeku larriak ditugu, mugagabeen izen elkartu modura, ez bada ezin baitaiteke ager. Alde honetatik, aditz izena benetako izen dela dirudi.

Eta izen da, baita ere, berez perpaus txertatuak agertzen diren testuinguruetan agertzen denean ere. Esan nahi baita, perpaus egitura dutela uste izan daitekeen batzutan ere gertatzen direla horrelakoak:

- (15) a. Belarra ebakitzen ari dira segalariak.
 b. Belar ebakitzen ari dira segalariak.
 (16) a. Bizarra mozten ez du oraindik ikasi.
 b. Bizar mozten ez du oraindik ikasi.

Ikusten dugunez, objetua bi eratara agertzen da: BIZAR MOZTEN nahiz BIZARRA MOZTEN. Baina gogoratzen badugu ARI, HASI eta beste zenbait aditzi buruz esaten genuena, (ikus lan honen 193 orrialdea), ikusiko dugu nola aditz hauek ekintza izenak onartzen dituzten:

(17)	{	Dantzan	}	{	ari	}
		Lanean			hasi	
		Borrokan			ikasi	
		Bertsotan			ahaztu	
		...			...	

Horrenbestez, LAN edo BORROKA ekintza izenak baldin bada, esan nahiko du BIZAR MOZTE eta antzekoak ere ekintza izenkitzat hartu behar direla eta ez perpaustzat. Hain zuzen, horregatik, HASI-k edo IKASI-k perpausak nahiz izenak ametitzen badituzte ere konplementutzat:

(18)	{	Dantzan	}	ederki ikasi du Peruk.
		Gezurak esaten		
		Gari jotzen		

beste zenbait aditzek perpausak bakarrik ametitzen dituzte, ez izenak:

(19) a. Bizarra moztea erabaki dut.

baina b. *Bizar moztea erabaki dut.

c. *Lana erabaki dut.

Hots: (19b eta c) arrazoi beragatik dira ez-gramatikalak.¹³⁸

Hortaz, BIZARRA MOZTEA perpaus den bitartean BIZAR MOZTE izenki erakarritzat hartu beharko dugu. Zenbait testuingurutan biak ager daitezkeen arren, beste askotan perpausa den esapidea bakarrik da zilegi.

Eta aditz izen hauen izentasunaren aldeko beste froga bat gehiago nahi izanez gero, aski dugu (12)-ko aditz izenen ordez beste zenbait izenki erakarri jartzea:

(20) a. Zure liburu erosketa ez da sekula amaitzen ala?

b. Arrantzaleen sare konponketa zaila izan da.

EDATE-ri eta HARTZE-ri ez dagokie, nire hizkuntz gaitasunaren arabera behintzat, izenki erakarrik eta, horrenbestez ezin beste era batera eman. Kasu hauetan, hortaz, HARTZE eta EDATE izango lirateke izenki erakarriak, beste edozein izenki erakarri bezala sortaraziak, baina oraingoan -T(Z)E atzizkiaren bidez.¹³⁹

b) Objektuarekin zer gertatzen den ikusirik, zer esan beste konplementuez? Hemen ere debeku larriak daudela dirudi:

(21) a. Jesusen zerura igotzea ospatzen da bihar.

b. Gurasoen Ondarrura etortzea neketsua izan da.

c. Geure Ameriketara joatea atzeratu beharra izan dugu.

d. "Noyz yçanen da juzgatcera etorce ori?"¹⁴⁰

(21)-eko aditz izen guztiak iragangaitzak dira, edo aditz iragan-gaitz batekin dute zerikusia: IGOTZEA, ETORTZEA, JOATEA. Eta agertzen den konplementua adlatiboan dugu, IGO, ETORRI, JOAN bezalako mugimendu aditzek eskatzen duten konplementu tipikoa, hain zuzen. Beraz, ZERURA eta IGOTZE-ren artean pentsa liteke aditz iragankor baten eta honi dagokion objektuaren artean legokeen lotura bera dagoela, eta, horregatik direla zilegi (21)-eko perpausak.

Gauza bera gertatzen dela esango nuke (22) perpausean ere, ERREGEENGAN eta SINISTEA-ren arteko erlazioa dela eta:

(22) Haurren erregeengan sinistea...

Inesibozko konplementuak, aditzarekin estuki lotuak dauden horietakoak ez badira (BIZI, EGON, adibidez), nekez gertatzen direla dirudi:

(23) a. Elefantearen teilatu gainean egote hura miresgarria zen.

b. Beren han egotea esplikatu zuten.

Hala ere, azken hauen antzekoetan joera dagoela esango nuke -egitura hauen marjinaltasunarekin "joeraz" hitzegin daitekeen neurrian- delako inesibo hori -KO-dun konplementu bihurtzeko. Honek ere aditz izenaren izentasuna salatuko luke, nik uste. Gainera, aditza ez badago inesiborako azpikategorizatua, orduan -KO agertuko da, nahiz eta beste konplementuak, aditzari estuki lotuak daudenak, alegia, atzizkirik gabe agertu. Hori da, hain zuzen, ondoko perpaus hauek erakusten digutena, zeren perpaus egitura duten (24)-eko perpausen parean ez ditugu (25)-ekoak ontzat ematen, (26)-koak baizik:

- (24) a. Gurasoak atzo Ondarrura etortzeak harritu ninduen.
 b. Zuk liburuak denda hartan erostea komeni da.
 c. Ikasleek lanak etxean irakurtzea ondo dago.

- (25) a. ?Gurasoen atzo Ondarrura etortze hura susmagarria zen.
 b. *Zure denda hartan liburu erostea luze joan zen.
 c. *Ikasleen etxean lan irakurtzea bultzatu egin behar da.

- (26) a. Gurasoen atzoko Ondarrura etortze hura susmagarria zen.
 b. Denda hartako zure liburu erostea luze joan zen.
 c. Ikasleen etxeko lan irakurtzea bultzatu egin behar da.

c) Datiborik ere badirudi ez dela horre'akoetan agertzen:

- (27) Andonik haurrei ipuinak kontatzen dizkie.

esan daiteke eta ez dugu inolako trabarik perpaus horretan HAURREI izen sintagma agertzeko. Hala ere, honekin zerikusia izango lukeen nominalizazioan ez dirudi zilegi denik datibo hori agertzea:

(28) *Andoniren haurrei ipuin kontatzea...

Datu hauek izen sintagma hauen izentasunaren alde datozela ematen du eta, dirudienez, izenki hauek ekintza balioa izatearekin ere ados datorrela esango nuke zeren izenki erakarriekin ere datiboa agerrerazi nahi badugu erlatibo bidez adieraztera behartuak gaude:

(29) Andonik haurrei egin dien ipuin kontatzea (=kontaketa).

Hortaz, hemendik atera daitekeen ondorioa argi dago: posible da -T(Z)E formako aditz izenarekin gainerako izenki erakarriekin baino konplementu aukera zertxobait handiagoa izatea, adizlagunei dagokienez behintzat, baina beti ere aditz izen horrek eta dagokion konplementuak nolabaiteko izen elkartu bat edo, osatzen dutelarik. Gauzak horrela badira, kasu hauetan ere hipotesi lexikalista aplikatzeko problemarik ez genuke izango. Bakar bakarrik, "izen elkartu" hori osatzeko aukera duten izenkiak eta konplementuak zein diren jakin beharko genuke. Badakigu oso gutxi direla eta, gainera, aditz izenaren "azpian" dagokeen predikatuari bereziki lotutako konplementuak izan behar dutela.

Horrelako egituretan, beraz, izen sintagma baten aurrean gaudela suposatzeke eskubidea badugu.

Beraz, agian sinpleena aditz izena ere izenki erakarritzat hartzea litzateke. Kasu honetan atzizki izentzailea -T(Z)E izango litzateke eta zeharo emankorra dela esango genuke. Hots: edozein aditzi erants dakioke. Hala ere, kasu batzutan, gutxienez, beste atzizki izentzaile batzu ere erabiltzen ditugu. Baina hauen erabilpena askoz mugatuagoa denez, batez ere konplementuak agerrerazi nahi ditugunean, -T(Z)E atzizkira jotzeko aukera beti dauka hiztunak. Banaketa konplementarioan edo, egongo lirateke atzizki izentzaile hauek. -T(Z)E-ren jokamoldea ingelesezko -ING-

ena bezalatsukoa izango litzateke.

Hala ere, hemen esplikatu gabe gelditu zaiguna da ea nola ematen den -TZEA-k zenbait konplementu -KO erantsi gabe -bereziki lekuzkoak- eramatearen berri. Alegia, Zerurako sarrera baina Zerura sartzea banaketa badugu, bien arteko diferentzia nola esplika? Tartean debeku morfologikoak direla dirudi. Baina horren berri eman beharko luke gramatikak. Zeren debeku morfologiko horiek sintaxiarekin ere bai baitute zerikusia. Honek, hala ere, beste azterketa bat eskatuko luke. Aski bekigu hemen arazoa aipatzea.

3.3.- /Genitiboa + ... BEHARRA / egitura.-

Sarritan, /Genitiboa + ... -T(Z)EA/ egituraren ordez, askoz egokiago gertatzen da perpausa /Genitiboa + ... partizipioa +BEHARRA/ emanaz:

- (30) a. Gizon horren gauza guztiak atzekoz aurrera ulertzea amorragarria da benetan.

perpausaren ordez, nire iduriko, askoz egokiago da beste hau:

- b. Gizon honek gauza guztiak atzekoz aurrera ulertu beharra amorragarria da benetan.

(30a)-ren gramatikaltasunari buruzko zalantza argi dago nondik datorren: GAUZA GUZTIAK objetutik, hain zuzen. Zeren, genitiboa tartean dugularik, ondorengoak izena izan behar duenez, objetuak eta aditz izenduak izen elkartu bat osatu behar baitute eta hau ezina da GAUZA GUZTIAK bezalako izen sintagma mugatu eta zehaztu batekin.

(30b)-ren taxukoa litzateke (31) perpausa ere:


- (31) Senarraren beti alde batetik bestera, jende guztia amorraerazten ibili beharrak ez zion pozik ematen.

Horrelako egiturak erakartzeko problemarik ez dago, BEHAR-en aurrean dagoen partizipioa aditza baita eta, horrenbestez, aditzari dagozkion konplementu guztiak baitagozkio. Izen sintagma objetua ere bere horretan, mugatzaile eta guzti, ager daiteke:

- (32) a. Andoniren gauza guztiak ikutu beharrak lotsa ematen zidan.
b. Pertsona batzuren edozertaz hitzegin beharra aspergarria gertatzen zait.

Kasu hauetan, hasieran agertzen den genitiboak ondoren datorren osagaia izena edo izen sintagma dela adierazten du. Alde honetatik, gauza guztiak ikutu beharra izen sintagmari dagokion genitiboa izango litzateke Andoniren. Genitibo honek "intrinsic connection" delakoa izango luke ¹⁴²ondorengoarekin.

Egitura, funtsean, honelatsu litzateke:



BEHAR, berez, izena dela ez dago dudarik. Hortaz, Andoniren beharra sintagma esplikatzeko eragozpen larririk ez dugu, Andonik beharra du ere tartean dugularik, nahi izanez gero. Andoniren eto-
rrera esplikatzeko izan ditzakegun oztopoak baino larriagoak ez
ditugu izango behintzat. $\left[\begin{smallmatrix} \text{PRO} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \text{ gauza guztiak ikutu} \right]$ BEHAR-en kon-
plementu litzatekeenez, konplementu horren barruan gertatzen denak
ez du zer ikusirik goragoko izen sintagman gertatzen denarekin,
konplementu hori perpausa baita. Horregatik, IKUTU-k aditz izaten
jarraitzen du eta, horrenbestez, dagozkion konplementuak bere
hartan gertatzen dira. Bestalde, PRO horren kontrolatzailea ANDONI
izango da, Andonik gauza guztiak ikutu behar ditu perpausean
bezalaxe, hain zuzen. Perpaus honek sakonean itxura hau izango
bailuke:

$$(34) \left[\begin{smallmatrix} \text{Andonik} \\ \text{IS} \\ \text{P} \end{smallmatrix} \left[\begin{smallmatrix} \text{PRO} \\ \text{P} \\ \text{AS} \end{smallmatrix} \text{ gauza guztiak ikutu} \right] \text{ behar} \right]$$

Edo, lehenago proposatu dugun bezala, IKUTU BEHAR, IKUTU
NAHI bezala, aditz gisa funtzionatzen duen izen elkartu bat izango
litzateke. Horrela izanez gero, arazoak sortzen zaizkigu zeren or-
duan ez baita garbi ikusten zergatik jarraitzen duen objektuak bere
horretan, mugatzaile eta guzti.

Era berean, zail gertatzen da EROSI BEHAR izen bihurtu-
tako aditz (elkartu) ~~bada~~^t bada, nolatan ez duen EROSTE-k bezala
jokatzen. Izan ere, EROSTE-ren objektuak bi hiede ditu: 1) edo muga-
gabean doa eta, orduan, izen elkartu bat osatzen du: LIBURU EROSTE
bezala; edo 2) genitiboan doa, sujeturik adierazten ez dugularik:
LIBURUAREN EROSTEA. Eta, hain zuzen, EROSI BEHAR-ekin ez da posi-
ble ez bata, ez bestea:

(35) a. ?Liburu erosi beharra.

b. *Liburu berri horren erosi beharra.

(36) a. Liburuak erosi beharra.

b. Liburu berri hori erosi beharra.

Dena den, honen esplikazio bat hau izango litzateke:

EROSI BEHAR izen elkartuaren lehenbiziko atala, EROSI ez da aditz izena, partizipioa baizik. Aditz izaten jarraituko luke, hortaz. Eta horregatik, objektuak aditzaren aurrean jokatuko lukeen bezala jokatzen jarraituko du.

Dena den, honako perpaus guztiek funtsean eskema sintaktiko berari erantzungo liokete:

(8) a. Zure Ondarrura joan beharra.

b. Zure Ondarrura joan nahia.

c. Zure Ondarrura joan ezina.

(9) a. Zure etxe hori erosi beharra.

b. Andoniren denei loreak erregalatu nahia.

c. Aitaren zorrak ordaindu ezina.

Bestalde, esan behar da /GENIT. ... BEHARRA / itzuliak esanahi berezia duela. Ez da normalki BEHAR-ekin ulertu ohi duguna ulertzen. Gehiago da nolabaiteko maiztasuna edo insistentzia. Alegia, ekintza baten maiztasuna. Orduan, aditz izenak edo izenki erakarriak berak ez duen tasun bat gehiago erasten dio BEHAR horrek. Gaztelaniaz, Varelak dioenez,¹⁴³ Infinitivo II delakoak [+Frecuentativo] tasuna du: El rezongar de la abuela. Euskaraz, esanahi hori aditzera eman nahi dugunean BEHAR-ez baliatzen gara. Horregatik gertatzen da itzuli hau hain sarritan BETI, ETENGABE(KO) eta antzeko esapideekin batera:

(10) a. Dendariaren etengabeko galdetu beharrak aspertzen ninduen.

- b. Txakurraren beti atzera eta aurrera ibili beharra ez zitzaion gustatzen atso zaharrari.

3.4.- Laburbilduz.-

Lerro hauetan zehar frogatzen saiatu gara -T(Z)E formako aditz izenak /GENITIBOA + ... -T(Z)E / egituran agertzen direnean izenki erakarritzat hartzeko eskubide osoa dugula. Hala ere, aditz izen honek bestelako izenki erakarriak baino konplementu gehiago har ditzakeela badirudi ere, diferentziak morfologiarekin du zer ikusia eta ez beste ezerekin. Azken batean, aditz izenaren forma duen izenkiak (-T(Z)E formakoak, alegia) adizlagunak -eta batez ere lekuzkoak- aditzari lotuak doazenean duten forman hartzen ditu. Bestelako izenkiek, berriz, konplementu hauei -KO atzizkia eramatea eskatzen diete. Hortaz, batak eta besteak funtsean konplementu berak onartzen dituzte, baina forma berezia ezarri. Hortaz, funtsean aditz izena beste izenki erakarriak bezain izen litzateke, nahiz eta morfologiaz aditz itxura handiagoa izan. Hain zuzen, horrek esplikatuko luke -T(Z)E formako izenkiak -KO atzizkirik gabeko konplementuak ametitzea, -ERA edo -KETA edo -PEN atzizkia dutenek ez bezala, hain zuzen.

Garbi dago, bestalde, -T(Z)E atzizkia dugula emankorra eta hedatuena. Kasu batzutan, honen parean beste atzizki batzu izan daitezke. Orduan, bigarren mota honetako izenkiak hobetsiko dira. Baina askotan konplementuak agerrera nahi baditugu batez ere, aditz izena hautatzen dugu. Adibidez, nik neuk GURE ETORRERA hobetsiko nuke GURE ETORTZEaren aurrean, baina GURE GASTEIZA ETORTZEA egokiagotzat joko nuke GURE GASTEIZAKO ETORRERA baino, nahiz eta azken hau ere zuzena izan. Dena den, zer esanik ez da -T(Z)E dela beste atzizkirik ezean, eskura daukagun atzizki izentzaila

nagusia. Eta hau ere kontutan izan behar da.

Azkenik, /GENIT. + ... BEHARRA/ egitura ere posible dela ikusi dugu. Hemen ez gaude jadanik izenki baten aurrean, BEHAR izenak nolabait erantsita daraman perpaus baten aurrean baizik. Esapide hauetan ekintza edo gertaera baten maiztasuna edo ekintza hori behin eta berriro gertatzen dela ematen da aditzera.

OHARRAK (VIII atala)

1. Ik. Villasante 1974, adibidez.
2. Jakina, (3)-ren ondoan (a) ere zilegi da:
 - (a) Zu Ameriketara joateak ez dit pozik ematen.
 Hau (2) bezalakoxea dugu. Baina guri interesatzen zaiguna da (3) bezalakoak ere zilegi izatea. Beste kontu bat litzateke jakitea ea (3) eta (a)-ren artean ere baden inolako diferentzirik. Kasu honetan ez dirudi bi perpausen artean alde handiegirik dagoenik, POZ EMAN delako aditz nagusia, baina kontua da (3)-ko perpaus txertatua LUZATU DUGU bezalako aditz baten konplementua izan daitekeen bezala, (2)-koa ezin izan daitekeela:
 - (b) *Zu etortzea asko luzatu dugu.
3. Ik. Lees 1960.
4. Gruber 1965.
5. Ikus daiteke jarrera honi buruzko sarrera bat Galmiche 1975-ean.
6. Varela dioenez, "... con respecto al fenómeno de la nominalización, diremos que entendemos con Vendler 1968 que es ésta una transformación sintáctica que convierte a una oración en un nombrador para ser recibido por la oración matriz adecuada. (...) nos encontramos ante formas derivadas que han pasado por la transformación nominalizadora así como que poseen unas características típicamente oraciones que aconsejan su derivación de oraciones plenas". (Ik. Varela 1977, 24). Ikus daiteke, baita, Dubois 1979, 447 orr.
7. Delesalle 1976, 18-19 orr.
8. Ik. Lees 1960, XXVI orr.
9. Dena dela, esan behar da Lees-entzat nominalizazioaren arlo oso zabala dela that-konpletiboetatik eta zehargalderetatik hasi eta erlatiboetaraino hedatzen baita prozedura horren eremua.
10. Ik. Katz & Postal 1964, 64 eta hurr.
11. Ik. Katz & Postal 1964, 173 orr. Euskaraz, noski, inolako anbiguasunik ez dugu: Jonek gidatzea / Jonen gidatzea izango bailirateke (3)-ren ordain zuzenak.
12. Ik. Katz & Postal 1964, 189 orr.
13. Ik. Katz & Postal 1964, 201 eta hurr.
14. Askotan esanahi honen aurrean gaudela argi dago, zeren nire euskalkian behintzat, JAN-i adibidez ibilera edo pentsakera-ren antzeko izenkirik ez dagokionez, JATEA izango bailitzateke

JAN-i dagokion egiazko ekintza izenkia. Dena dela, Azkuek Hiztegian jakera 'acto de comer' badela dio. Niretzat, esana dudanez, izenki hori JATEA izango litzateke, dudarik gabe.

Hala ere, euskarari gagozkiola, interpretazio modal hau genitibodumari bakarrik legokioke: JONEN JATEA formakoari bakarrik eta ez, JONEK JATEAri.

15. Ik. Varela 1977, 29 orr.

16. Ikus, hala ere, Villasante 1974, 71 orr.

17. Ikus Chomsky 1967.

Beste kritika bat ere egingo dio Chomskyk planteamendu honi: izenki desberdinek izan ditzaketen esanahi desberdin guztiak Katz eta Postal-en erara esplikatzen nahi badira, transformazioak huskeria bihurtuko lirateke. (Ik. bereziki 19 orr.).

18. Gramatika erlazioak perpaus barruan bai baina ez izen sintagma mailan gertatzen badira, arrazoi handia litzateke hau izenkiak perpausetatik erakartzeko, transformazio bidez, adibidez. Baina hipotesi lexikalistak gramatika erlazioak perpaus mailan eta izen sintagma mailan, bietan, gertatzen direla dio (Ik. Chomsky 1965, 489 orr.). Dena dela, ikus aurrerago 410 eta hurr.).

19. Ik. G. Lakoff 1970, 58 orr.

20. Ik. G. Lakoff 1970, 59 orr.

21. Lakoff-ek irregulartasunak esplikatzean honako kasu hauek hartzen ditu gogoan: a) "Cases in which an item meeting the structural description of a rule may not undergo the rule": hauek salbuespen sinpleak izango dira. b) "Cases in which most items which meet the structural description of a rule must not undergo it, but a few items may": hauek "minor rules" deitzen ditu. Adibidez, Object nominalization, Instrumental nominalization, inkoatiboak, erazleak...; c) "Cases in which an item must not meet the structural description of some rule" eta d) "Cases in which an item must meet the structural description of some rule". Azken bi hauek ABSOLUTE EXCEPTIONS dira, bata negatiboa eta bestea positiboa. Ik. Lakoff 1970, 49 eta hurr.

22. Ik. G. Lakoff 1970, 63 orr.

23. Ik. G. Lakoff 1970, 65 orr.

24. Ik. G. Lakoff 1970, 65 orr.

25. Ik. G. Lakoff 1970, 66 orr.

26. "The nominalization transformations discussed by Lees and Lakoff were POSTLEXICAL, that is they applied to structures whose terminal elements were morphemes of the language in question rather than some kind of semantic units. The possibility of prelexical transformations was raised in Gruber 1965, and in Mc Cawley 1968a. I proposed that the facts discussed by Lakoff are more naturally accounted for by treating the nominalization transformation(s) as prelexical than by invoking Lakoff's exception features and postlexical transformations" dio Mc Cawley-k (Ik. Mc Cawley 1982, 17 orr.).
27. Ik. Mc Cawley 1968b, 267 orr.
28. Ekus honi Chomskyk egiten dion kritika, Chomsky 1968b, 475 orr.
29. Ik. Mc Cawley 1968b, 267 orr.
30. Ohar batean honela dio Mc Cawley-k: "Como el tipo de estructura que en mi hipótesis subyace a las nominalizaciones posee la forma que asimismo subyace a las cláusulas de relativo, puede muy bien ocurrir que aquéllas compartan algunas de las transformaciones que entran en éstas; por ejemplo, el "indicador de relativo" tal vez sea identificable con un pronombre relativo" Mc Cawley 1968b, 268 orr., 4. oharra.
31. Ikus daiteke arazo honetaz Chomskyren jarrera: Ik. Chomsky 1968a, 283 orr. eta baita Chomsky 1968b 478 orr. Bestalde, predikatu-aren igoerak ere ez omen du, Chomskyk uste duenez, inolako oinarri sintaktikorik (Ik. Chomsky 1968b 475 orr.)
32. Ik. J. Levi 1978, 174-183 orr.
33. Ik. Levi 1978, 174-179 orr.
34. Ik. Fraser 1970 eta Newmeyer 1970 ere.
35. Rotaetxe-ri miresgarri egiten bazaio ere. Izan ere, guztiz harritzekoa da honek dioena: "Por fin -dio- pensando en los "nombres de agente" que tan fácilmente admiten en lenguas como español o francés complemento de nombre, hemos encuestado frases con este tipo de sustantivos para comprobar si en ellas la relación de complementación convierte en sintagmas con -ren los ergativos" (Ik. Rotaetxe 1978, 375-376). Nolatan genitiba liteke ergatiboa, hau egile nominalizazioetan egilea bera, ajentea, izango bailitzateke? Egilea ezin ager daiteke, erlatibozko parafraasiak ongi erakusten duen bezala:
- arrain saltzailea = arraina saltzen duen pertsona
- Eta hau [[pertsona batek arrain saltzen du en] pertsona] egitura-tik erakarra litzateke gutxi gora behera (Ik. De Rijk 1972).

Beraz, egilea den IS ezin agertu axalean, ez genitibo modura ez inola.

36. Ik. Levi 1978, 180 orr.
37. Ik. Levi 1978, 194 orr.
38. Ik. Varela 1977, 220 orr.
39. Ik. Varela 1977, 221 orr. eta baita Aronoff 1976, 35-45 orr.
40. Ik. Ross 1973, 217 eta hurr. eta baita Newmeyer 1969 eta 1971, eta Fraser 1970.
41. Ik. Varela 1977, 222-223 orr.
42. Ik. Varela 1977, 224 orr.
43. Ik. Chomsky 1967, 143 orr. 10 oharra.
44. Ik. Jackendoff 1972, 108-174 orr.
45. Ik. Varela 1977, 233 orr.
46. Argumentu hauek, gutxi gora beheera, Postalek ateratakoak dira. Zenbaitetan, pasibaren kasuan, adibidez, transformazio honen aplikazio eremua hedatzea proposatuko du Chomskyk (Ik. Chomsky 1967 eta honi Ross-ek egiten dion kritika: Ross 1973, 212 orr.)
47. Ikus Varela 1977, 227 orr. Ikus, baita ere, Aronoff 1976, 22-23 orr.
48. Ik. Varela 1977, 229 orr.
49. Chomsky 1957, 54 orr.
50. Ik. Varela 1977, 230 orr.
51. Bestalde, gogora dezagun, euskarari gagozkiola, gorago esana LAN, DANTZA, NEGAR eta antzekoei buruz:

<u>lanean</u> <u>dantzan</u> <u>negarrez</u> <u>hizketan</u>	} <u>ari da gizona</u>
---	------------------------

Euskaraz behintzat, izen hauek ez dakigu zer-nolako aditzetatik erakarritako izenkitzat hartu beharko genituzkeen. Badirudi, ordea, hipotesi lexikalistaren arabera, lexikoian jaso daitekeela LAN eta LAN EGIN-i buruzko informazio guztia, esanaz, besteak beste, LAN-ek [+EKINTZA] tasuna edo, duela. Adibidez, sesioan ari dira esan daiteke, baina hortik sesio izenki erakarritzat hartu beharra eta, okerrago dena, honen azpian perpaus bat dugula onartzea askotxo iruditzen zait. Aski genuke hiztegian SESION-ri buruz ematen zaigun informazioa, esanaz batez ere [+EKINTZA] tasuna duten etariko delat.

52. Ik. Varela 1977, 234 orr.
53. Ik. Ross 1967, 195 orr.
54. Ik. Varela 1977, 235 orr.
55. Ik. Chomsky 1962, 50 eta hurr. eta Chomsky 1965, 173 orr.
56. Ik. Chomsky 1962, 51 orr.
57. Ik. Chomsky 1962, 53 orr.
58. Ik. Chomsky 1965, 174 orr.
59. Ik. Chomsky 1965, 175-176 orr.
60. Aditz erazleak ere transformazio bidez erakartzeko prest zegoen garai hartan Chomsky (Ik. Chomsky 1965, 178 orr.).
61. Ik. Chomsky 1967, 139 orr.
62. Ikus, hala ere, Mc Cawley 1982, 13 orr.
63. Ik. Chomsky 1967, 145 orr.
64. Jakina, gero Jackendoff-ek, adibidez, beste era batera aurkeztuko du hau, baina funtsean hori da.
65. Erazlearen kontu hau ez da oso argi ageri Chomskyren lan honetan.
66. Ik. Postal 1974.
67. Ik. Postal 1974, 353 orr.
68. Ik. Ross 1973.
69. Ik. Mc Cawley-ren kritika (Mc Cawley 1982, 14 eta hurr.).
70. Ik. Varela 1977, 74 orr.
71. Ik. Chomsky 1967, 168 orr.
72. Ik. Ross 1973, 212 orr.
73. Ik. Chomsky 1967.
74. Honetaz mintzo delarik, hau dio Mc Cawley-k: "There is clearly an inconsistency here, since a redundancy rule cannot make an intransitive verb become transitive" (Mc Cawley 1982, 27 orr.)
75. Ik. Chomsky 1967, 186-187 orr.
76. Ikuspegi historiko argi bat eskaintzen zaigu Shibatani 1976-an.
77. Edo euskarari aplikatuz: Hura harritu egin zen kontu horiekin eta kontu horiek harritu egin zuten hura.
78. Ik. Jackendoff 1975, 101 orr.
79. Ik. C. Smith 1972.
80. Ik. Jackendoff 1975, 101-102 orr.
81. Ik. Varela 1977, 296 eta hurr.
82. Ik. Jackendoff 1975, 101 orr.
83. FLIP delakoaz ikus R. Lakoff 1965 eta 1968; Postal 1970a eta 1970b; Lee 1969.
84. Ik. Varela 1977, 313 orr.

85. Ik. Varela 1977, 315 orr.
86. Ik. Varela 1-77, 316 orr.
87. Ik. Chomsky 1967, 142-143 orr.
88. Ik. Chomsky 1967, 143 orr.
89. Ik. Ross 1973, 221 orr.
90. Ik. Ross 1973, 217 orr.
91. Ik. Ross 1973, 188-190 orr.
92. Varelak ere, gorago aipatu dugunez, bide honi jarraitzen dio (Ik. Varela 1977, 87). Proposamen honekin -dio Varelak- "se demuestra que otro de los argumentos en los que se fundamentaba la hipótesis lexicalista, el de la múltiple relación semántica entre estos N's subyacentes, no es ni mucho menos definitivo ya que tal circunstancia puede reflejarse en otros modelos descriptivos" (Ik. 88-89 orr.)
93. Ik. Aronoff 1976, 22 orr. Ikus baita ere M. Halle 1973, 15-16 orr. Eta beste lan bat aipatzekotan, oso interesgarria, nahiz eta hemen baliatzerik izan ez, beranduegi eskuratu bainuen, Selkirk 1982 izango litzateke. Honek zehazki ematen ditu hitz eraketa erregela hauek, testuingurutik aske den gramatika baten bidez.
94. Ik. Chomsky 1967, 153 orr.
95. Ik. Chomsky 1967, 154 orr. Ikus, hala ere, Newmeyer 1971, 794-796. Honek dioenez, bi hipotesiek antzeko oztopoak dituzte alde honetatik.
96. Ikus, dena dela, aurrerago izenkiaren eta aditzaren artean dagoen diferentzia, bata eta besteak onar ditzakeen konplementuei dagokienez.
97. Ikus Mc Cawley-ren kritika, adibidez (Mc Cawley 1982, 13-17 orr.)
98. -a horren zereginaz honela dio, arrazoi osbz ene ustez, Heath-ek: "In infinitive constructions the presence or absence of definite -a is largely determined by the following nominal suffix. Beraz, mugatzaile horren zeregina mugatzea baino gehiago beste zerbait da. Hots: -KO, -RA eta -N atzizkien zereginetik oso hurbil dago. Horregatik sartu dugu geuk ere KONP-en azpian.
99. Ik. Jackendoff 1975, 75 orr.
100. Ik. Jackendoff 1975, 76 eta hurr.
101. Beste bide bat eskaintzen digu Selkirk 1982-k.
102. Hau zen, hain zuzen, G. Lakoff-en arazoa. Ikus Jackendoff 1975, 89 orr.

103. Hala ere, euskararen kasuan, zailena erredundantzi erregela semantikoak formulatzea izango litzateke. Atzizki batzuren esanahia oso garbi dago, adibidez, -TZAILLE, -LE edo -ART egile izenkiak osatzen dituzten atzizkiena, baina nolabait ekintza adierazten duten atzizkien arteko diferentzia zein datekeen ez da batere erraz jakiten, eta badirudi arazoak zaildu egiten direla hiztegiak hitz posibleak sartzen saiatzen direlako, egiazki erabiltzen direnak zein diren jakiten baino. Har ditzagun, adibide soil gisa, honako atzizki izentzaile hauek: -KUNTZA, -KUNDE, -KETA eta -MEN (-PEN). Ez dakigu -nik neuk behintzat ez dakit, eta hiztegiek eta hiztegitigileek ere ez didate gehiegi laguntzen- ba ote den hauen artean inolako diferentziarik, diferentzia semantikorik alegia. Problema da, atzizki hauek asko ez direlarik, badirudiela erro bakoitzak bere atzizkiarenganako zaletasuna agertzen duela eta ezin lot daitezkeela nolanahi erro bat eta atzizkia. Adibidez, badakigu badela ZABALKUNDE hitza baina ez, seguru asko, ZABALPEN eta agian ezta ZABALKETA ere. Eta ZABALKUNTZA? Ez dakit. Baina BERRIKUNTZA baden bezala, BERRIPEN-ik ez dakigu ba ote den ez eta BERRIKUNDE ere. Eta BERRIKETA-k berritu aditzarekin ez du zerikusirik. Hortaz hitz eraketa erregelak edo, Jackendoff-en tresneriaren arabera, erredundantzi morfologikozko erregelak zein diren ez dakigu ez eta ere erregela semantikoak. Kontu hauek denak argitu beharko genituzke lehenbizi. Eta ez du balio L.M² Mujikak esaten duen bezala, euskaldunak -T(Z)E atzizkiaz gehiegi baliatzen garela esateak. Atzizkien arteko diferentzia non datzan esan behar zaigu, baina ez nork bere kolkotik atereaz direlako diferentzia horiek, eta baita ere, erro jakin baten eta atzizki jakin baten artean izenkia osatzeko modurik baden ala ez. Hortaz, lehenbizi zein hitz sartuko diren jakin behar dugu hiztegian eta gero behar diren erregela semantikoak ere eman. Dena dela, euskarak gaur bizi duen egoeran arazo hau benetan da larria, hitz berriak sortzeko premia ere larria baita.

104. Ik. Haritschelhar 1980, 448. Hala ere, genitibodun egiturak bi eratakoak dira: a) TO-GEN delakoaren ondorioz, genitiboz hornituak agertzen diren perpausak (AITAREN IKUSTEKO joan da), eta b) genitiboa egiazki IZEN den baten konplementua denean: LIBURUAREN hastea (=hasiera). Gure ikuspegitik behintzat aditz izena aditz izan daiteke, nahiz eta objetua genitiboan agertu,

eta orduan perpaus baten aurrean geundeke. Eta genitibo hori ez da zure gidatzea izen sintagman agertzen dena bezalakoa. Aditz izena nolabait izena bada ere, gidatzea oraindik izenago dela esan behar.

Villasantek ere honela dio: "Apurando las cosas, cuando se dice haren ikustea parece que ikustea se toma como nombre. Cuando se dice hura ikustea, en cambio, ikustea se toma como verbo. La costumbre de colocar el complemento directo en caso posesivo es de los dialectos orientales y se justifica por tratarse del complemento de un nombre. De hecho, sólo se usa cuando se trata del complemento del nombre verbal" Villasante 1978, 196, 2. oharra] Baina esplikazio honekin ezin jakin zergatik ez den, esaterako, aditz intrantsitiboaren sujetua litzatekeena genitibo bihurtzen. Hau genitiboan ager daitekeenean, seinale ondoren doana izenkia dela, nahiz -TZE atzizkia eraman, nahiz beste atzizki izentzaile bat eraman. Bestalde, aditz hauek konplementu bat baino gehiago dutenetan zergatik objektu zuzena bakarrik genitibatzen da eta ez besteak? Hortaz, izena da, baina ez hainbeste.

105. Hauetan ohartu behar dugu badela zilegi dirudien adjetibo bat HUTS alegia:

Zuk gauza horietan pentsatze HUTSAK amorratzen nau.

Adjetibo honen sorrera behar bada adberbio batean egon daiteke. Alegia, esango bagenu bezala: zuk gauza horietan pentsatzen duzu eta hori, huts-hutsik, aski da ni amorratzeko edo horrelako zerbait. Dena den, HUTS hau agertzeko factum baten aurrean egon behar dugula dirudi. Horregatik, honen itzulpena ere honako honen antzeko zerbait izango litzateke: "el mero hecho de...". Alegia, bestelakoetan ezin ager daiteke adjetibo hori: *Zu isilik egote hutsa nahi dut.

106. Ikus gorago, 365 orr.

107. Hain zuzen, zenbait hizkuntzatan aditz hauen konpletiboa ezezka joan ohi da: "d'éfendre de ne pas..."; "forbid not to...". Euskara, honetan, gaztelaniarekin batera doala dirudi: *Se nos ha olvidado no comprar el libro; *le hemos prohibido no venir.

108. Eta ez du balio libururik eza eta berrikuntzarik eza eta antzekoak aipatzeak, hauen azpian libururik ez izatea edo berrikuntzarik ez egitea eta abar suposatu beharko bailirateke. Kontua da, ene ustez, Varelairen argumentu honek ez diola berez hipotesi transformazionalistari laguntzen.

109. Hala ere, ez nago oso ziur azken honetaz, zeren aurrerago ikusiko ditugun egituzetan bai baitirudi ez ager daitekeela: Gurasoen Ondarrura ez etortze harrigarriari esplikazio bat aurkitu nahi nioke. Horrelakoak, behar bada, izenaren eta aditzaren erdibidean bezala egongo lirateke. Arazo bat, dena dela.
110. Ik. Chomsky 1967, 154 orr.
111. Ik. Chomsky 1967, 155-156 orr.
112. Ik. Chomsky 1967, 156 orr.
113. Adizlagun deitzen diogu, Sarasola 1977 eta Goenaga 1980-ren arabera, objetu ez den aditz konplementuari.
114. Azken hauek $\left[\begin{smallmatrix} \bar{P} & I & Det \end{smallmatrix} \right]$ egitura izango lukete.
115. Honetarako bide bat markatzen zaigu Selkirk 1982an (ik. 22-28 orr.).
116. Ikus, hala ere, aurrerago, 419 orr.
117. Ik. Varela 1978, 71 orr.
118. Ik. Chomsky 1967, 164; eta baita M.K. Johnson Anderson 1979, 38-40 orr.
119. Ba omen da Albaniaren konkista bezalako izen sintagmak gaitzes-ten dituenik "La conquista de Albania" adierazteko. Hala ere, ez dut uste arrazoi dutenik horrela pentsatzen dutenek. Albaniaren konkista, aurrerago diogunez, era batera baino gehia-gotara uler daiteke: 'Albania norbaitek konkistatu du', nahiz 'Albaniak zerbait konkistatu du' nahi 'Albaniak konkistatu duena'. Baina horrek ez digu eskubiderik ematen Albaniaren konkista izen sintagma txartzat emateko.
120. Hemen, erraztasunaren faboretan, ez gara $\bar{X}$ notazioaz baliatuko ohizkoaz baizik.
121. Ik. L. Trask 1983.
122. Genitibo bi ditugula dio Chomskyk: batak jabego besterenduezina adierazten du eta besteak jabego besterenkorra. Izenkiaren ajente edo objetu modura interpreta daitekeena besterenduezina izango litzateke. Ik. Chomsky 1967, 163-164 orr.
123. Edo, bestela, utzi liteke honelatsu:
- $$\left[\begin{array}{c} \text{/EROSKETA/} \\ +I \\ +[IS_{\text{genit}} \text{ ---}] \\ IS^1_{\text{ek}} (\text{Ag.-ek}) IS^2(\text{Obj.}) \\ \text{EROSTEKO EKINTZA.} \\ \text{edo} \quad IS^1(\text{Ag.}) \text{ papera genitiboari egozten zaio} \\ \quad IS^2(\text{Obj.}) \text{ papera genitiboari egozten zaio.} \end{array} \right]$$

124. Hain zuzen, eman dezagun honako honen antzeko zerbait esan nahi dugula, hots:

- (a) Dekanoak₁ gu egunero hari₁ informe bat aurkeztera behartzen gaitu.

Hau ERAZI-ren bidez ezin dugu (b) forman eman, ematekotan ere (c) forman eman beharko dugu:

- (b) *Dekanoak guri egunero informe bat aurkeztu erazten digu berari.

- (c) Dekanoak egunero informe bat aurkeztu erazten digu.

Badakigu AURKEZTU-k eskatzen duen egitura argumentalean datibo bat, edo datibo forman agertu ohi den argumentu bat, badela: GUK (Ag.) - INFORMEA (Thema) - DEKANOARI (Helburua)- A U R K E Z T U. Baina sintaxi debekuak direla medio, AURKEZTU-ren sujetua AURKEZTU-ERAZI-ren datibo gertatzen baita eta, horrenbestez, DEKANOARI datiboarentzako lekurik ez denez, ezin agerrerazi dezakegu AURKEZTU-ERAZI-ren zehar objektu modura. Hala ere, nola edo hala, datiboan joan behar lukeen argumentu hori ulertu egiten dugu, testuinguruari esker, adibidez, eta beti ere AURKEZTU edo dena delako aditzaren egitura argumentala -hiztegian ematen zaiguna berau- azagutuz.

125. Ik. Rappaport 1982, Marantz 1984, Bresnan 1982, Selkirk 1982.

126. Añibarro, Escu liburua, 61

127. Añibarro, Escu liburua, 92

128. Añibarro, Escu liburua, 121

129. Dena den, lerro hauek idazten ari denari berari atera zitzaien behinola honako esaldi hau: "Altuberen legeak hitzen ordenari buruz, ezagunak dira" (Ik. Goñaga 1980, 201). Hemen, jakina, ez gaude inolako izenki baten aurrean, lege izen soil bat besterik ez baita. Hala ere, hitzen ordenari buruzko Altuberen legeak ezagunak dira esan beharrean goiko perpaus hori atera zitzaidan.

Ez dakidana da ea jalki zitzaidan hori euskal senari dagokion ala, aitzitik, ez ote den erdararen eraginez kanporatu. Bildur naiz hala izango dela. Eta Añibarroren kasuan ere, behar bada, gauza bera dugu.

130. Hala ere, Rotaetxek hauek denak ontzat ematen ditu. Nere konpetentziari jaramon eginez gero behintzat, ezin onartuzkoak dira. Ik. Rotaetxe 1980.

131. Rotaetxek hauek ez ditu ontzat ematen.

132. Ikus, adibidez, Lardizabalen Testamentu berriko... non horrelako eta bestelako adibideak ugari aurki daitezkeen.
133. Ik. Lardizabal, 156 orr.
134. (6) perpausa, noski, beste ordena batean zilegi litzateke:
Jesusen igoera zerura.
 Horrelakoak, gainera, ugari ditu Lardizabalek. Bestelakoak ere bai, noski.
135. Noski, noren Ondarrura joatea? esan daiteke baina hemen galdetzailea izenlagun dugu.
136. Peru Abarka, 115 orr.
137. Jakina, (14)-eko perpaus hauek gramatikalak lirateke zure eta gainerako genitiboak aditz izenaren sujetu gisa interpretatu beharrean, hurrengo izenaren konplementutzat ulertuko bagenitu.
138. Horregatik ez du zentzurik ez Txillardegik dioenak (Ik. Txillardegia 1977, 54-58 orr.) ez Luis M^a Mujika-ren planteamentuak ere bizarmoztu eta antzeko 'aditz elkartu'ak proposatzen dizkigunean (Ik. L.M^a Mujika, Hiztegi orokor teknikoa).
139. Gauza bera gertatuko da -ERA atzizkia ezagutzen ez duten euskalkietan ere: hauetan -T(Z)E da atzizki erakarlea.
140. Beriayn DC, 112 v. Azken honetan genitiborik ez da ageri, baina nik neuk, sujetua jarri behar izanez gero, ez nuke jarriko Jesus, Jesusen balzik: Noiz izanen da Jesusen juzgatzaera etortze hori? Neretzat, kasu honetan etortze egiazko izenkia izango bailitzateke. Bestea ere, behar bada, zuzena litzateke, baina lehenbizikoa normalagoa egiten zait. Dena den, ez dut garbi ikusten zein izan daitekeen bien arteko diferentzia, ez bada, batean gertaera bat adierazten dela, eta bestean norbaiten ekintza bat.
 Dena dela, ez sujeturik ez genitiborik, agertzen ez denean ez da beti erraza izaten egiazki perpaus baten aurrean gauden -beraz sujeturik agerian ez duen perpaus baten aurrean- ala izen sintagma baten aurrean, burutzat izenki erakarri bat duen izen sintagma baten aurrean. Aditz nagusia zer nolakoa den ikusi behar horretarako.
141. Perpaus hau goiz batez irratiz entzuteko aukera izan nuen, euskaraz barra-barra ari zen andereño hizlari baten ahotik.
142. Ik. Jackendoff 1977, 13 orr.
143. Ik. Varela 1977, 211-215 orr.

O N D O R I O A N T Z E R A

Lan honetako atal guztietan barrena, han hemenka, zenbait ondorio jaulki dira eta behar bada aski litzateke horrekin. Hala ere, nolabaiteko epilogo antzeko zerbait idatzi beharra senditu dut lan hau amaitzean. Kontua litzateke nolabaiteko balantzea egitea: zer da ikasi duguna, batetik eta, zer da oraindik ikas- teko gelditzen zaiguna, bestetik.

Lehenbizi, garbi dago lan hau -denak bezala, baina agian nabarmenago hau- hurbiltze bat izan dela. Arazo gehiegi ditugu zerbait behinbetikotzat emateko. Nik neuk behintzat ez dut horren uste handirik. Dena den, egin dudan bidea nahitaezko izan dut iritsi naizen puntura iristeko. Hona hemen, laburkiro, zein diren, ene ustez, lan honetatik atera daitezkeen ondorio zenbait:

1.- Euskal konpletibeak, funtsean, lau eratakoak ditugu: bi zehargalderazko eta beste bi, galderazko ez direnak. Eta haue- tako bakoitzean, aditz mugatua dutenak eta aditz mugagabea dutenak berezi ditzakegu. Dena den, badirudi haue- tako bakoitzak ez duela bestearekin zerikusirik, alegia ez dela bata bestetik erakartzen ahal, transformazio bidez, esate baterako.

2.- Honek esan nahi du aditzak, aditz nagusiak, onar ditza- keten konpletibo desberdinen arabera subkategorizatuak agertzen direla lexikoian: batzuk ez dute inolako konpletiborik onartuko, ongi dakigunez; beste batzuk konpletibo mota horietakoren bat onartuko dute eta beste batzuk, azkenik, era bateko baino gehia- gotako konpletiboak onartuko dituzte. Kasu hauetan ez dago oso argi aditz bakarra dugun ala gehiago. Batzutan badirudi egiazki bi aditz ditugula. Dena dela, honen berri lexikoian eman daiteke aditz bakoitzaren sarreran. Baina:

3.- Ikusi dugu nola aditz batek zer nolako konpletiboa eskatzen duen ez dela zerbait arauz kanpokoa, irregularra eta iragarri ezina, hasierako konpletiboei buruzko azterketek aditza ematen zuten bezala. Tartean arrazoi semantikoak badirela ikusi dugu eta nahikoa bidezkoa dela /indikativoa + -ela / tajuko perpaus konpletiboak eta aditz izenezkoak aski erraz bereizten direla pentsatzea kasurik gehienetan behintzat: lehenbizikoek adierazpenak, edo agian hobeto proposizioak, deskribatzen dituztela ikusi dugu, hots: egia edo gezurra ote diren galdetzea zilegi da hauetan. Besteak, berriz, ez-proposizio izango lirarteke. Normalki, ez-proposizio direlako hauek ekintza, gertaera edo horrelako zerbait deskribatzen dutela erakutsi dugu. Hau horrela izanez gero, bidezko dirudi pentsatzea aditz baten osagarria, adibidez, ekintza izatea eta ez, proposizioa, eta alderantziz. Horrela bereizten ditugu, adibidez, egia da eta ona da predikatuak: proposizioak egia izan daitezke, ekintzak ez. Eta alderantziz, ekintza bat edo gertaera bat ona izan daiteke, proposizio bat nekez.

Era honetara enfokatuz gero aditzen sailkapena, oso ongi ikusten da aditz baten esanahiak berak mugatua datorrela era bateko edo besteko konpletiboarekiko "atxikimendua". Beraz, ez gaude jadanik aldezturik aurretik iragar ezin daitekeen zerbaiten aurrean. Horrela, gainera, hizkuntzaren ikasketa ere errazago esplikatzen ahal da.

4.- Beste arazo batekin ere egin dugu topo geure bidean: zein da perpaus hauen egitura? Hizkuntzalari batzurentzat dudarik ez da perpaus hauek denak izen sintagma direla. Beste batzuk, berriz, nahiago dute perpaus soilak direla pentsatzea -konplementatzailea baldin badaramate ere-. Zenbaitek era desberdinetako

egiturak proposatzen ditu perpaus hauentzat. Guretzat izen sintagmaren zenbait ezaugarri badituzte ere, eta denak modu bakar batez tratatzea egokiagoa delakoan, egitura hauek $\bar{P}$ dira. Eta X-barra notazioak horretarako eskubidea ematen digulakoan, KONP osagaiaren esku utziko genuke perpausaren zenbait ezaugarriren berri ematea. Horien artean, perpaus hauek dituzten "izenezko" ezaugarriak eta, bereziki, kasua. Horrenbestez, konplementu perpaus horrek perpaus nagusiaren barnean zer nolako funtzioa bete-ko duen esatea ere KONP-en esku gelditzen da. Dena dela, bide hau idaroki besterik ez dugu egin eta, hor zehar dabiltzan X-barra notazio desberdinen artetik zein den egokiena ikusi beharko litzateke. Baina aztertzea merezi duen bidea dirudi.

5.- Egiturari dagokion bezanbatean, zenbait aditz klase aztertu dugu, batez ere -TZEN formako konplementua eskatzen dutenak. Hauetan denetan badirudi sujetua hutsik agertzen dela. Horrek perpaus hauen egitura zein izan daitekeen eztabaidatzera eramán gaitu. Biderik sinpleena aurkitu uste dugu, igotzea bezalako transformazio eztabaidagarria, kasu bakan batzutan ez bada, bazterrera utzi dugularik. Kontua da HASI edo ARI bezalako aditzen bereiztasunari esplikazio bat eman behar zaiela. Hala ere, ez dugu hemen behinbetikotzat eman daitekeen soluziobiderik aurkitu. Agian, arazo hauek denak lexikoiran "bida" daitezke. Dena den, hau ere azterkizun dugu.

6.- Izen sintagma ala perpaus soil, garbi utzi dugu, aditz izenezko konpletibo hauek perpaus direla, eta perpaus oso, gainera. Denbora osagaia falta duten perpausak direla frogatu dugu. Eta horretarako arrazoirik nagusia izan da perpaus hauek beste gainerako perpaus guztiak bezalakoxeak direla: sujetua dute -nahiz eta askotan hutsik agertu sujetuaren leku hori- eta bestelako konplementu guztiak ere aditzaren inguruan ageri ohi

dira. Horregatik, beste hizkuntzalari batzuk gaztelaniaz edo ingelesez ari direlarik, infinitiboa zenbait transformazioen ondorio dela esaten badute ere, euskaraz dudarik ez da aditz izendun perpaus hauek bestelakoak bezain perpaus direla, sujetu eta guzti ere noiznahi ager baitaitezke gehienak. Hortaz, aditz izena agertzea ere ez zaio inongo transformaziori zor. Sakoneko forma da, hortaz. Guretzat, perpaus txertatuak har ditzakeen bi formetako bat da aditz mugagabea duena. Bestea, noski, aditz mugatua daramana litzateke. Baina ez dugu behar inolako erregelarik bata bestetik sortarazteko.

7.- Aditz izendun perpaus hauek askotan sujeturik gabe ageri ohi direnez axalean, horren berri ematen saiatu gara. Eta hemen honako ondorio honetara iritsi gara: askotan sujetua ageri ez bada, ez da, ageri ezin delako, testuinguruak "sobera" dagoela esaten digulako baizik. Dena den, falta den izen sintagma horren erreferentzia nola edo hala finkatu beharra dago, perpausa behar bezala interpretatzeko. EQUI-ren ordezk kontrol teoria proposatzen da gaur. Teoria horrek euskaraz bi eratako izenordain "hutsekin" aritu beharko duela esango digu, baldin eta euskara bezalako hizkuntza "ez-konfigurazional" batean izenordain horiek aurkitzen badira: pro erakoak, gehienak, eta PRO erakoak, aditz jakin batzuren mende doazen perpaus txertatuetan gertatzen dena berau. Zenbaitek uste du perpaus mugagabeetan PRO bakarrik gerta daitekeela. Guk frogatu dugu PRO-ren ondoan pro ere agertzen dela, perpaus mugatuetan bezalaxe, hain zuzen. Eta badirudi euskaraz izenordainaren erreferentzia nola edo hala finka daitekeenean, izenordain hori bazterrera uzten dugula. Erreferentzia hori, perpaus mugatuetan, aditzak, komunztadura dela medio, emango digu aditzera. Perpaus mugagabeetan, aditzak komunztadura markarik

ez badu ere, testuinguruaren esku gelditzen dela betebeharrak hori. Ikusi dugu, adibidez, nola perpaus bat, besterik ezean era batera interpretatuko bagenuke ere, -izen sintagma hutsari dagokionez, noski, testuinguru jakin batean zeharo bestela uler daitezkeela. Eta kontrol aditz deitu ditugunetan, berriz, aditzak ezartzen dituen erreferentziazitasun sareek ziurtatuko digute zein den kontrolatzailea, beraz, zein izan behar duen ageri ezin den PRO horren erreferentzia.

8.- Eta azken atalean aditz izena beste testuinguru batean ere agertzen dela ikusi dugu: izen sintagma normal baten buru egiten duela. Era honetara ageri den aditz izena ez da gehiegi bereizten gainerako izenki erakarrietatik. Izenki erakarri hauen-tzat, gaur gehienek egiten duten bezala, ez dugu onartu transformazio bidea. Egokiagotzat jo dugu hipotesi lexikalista izenekoa eta horren aldeko argumentuak euskaraz ere topa daitezkeela ikusi dugu. Azken batean izen guztiak, izenki direla nahiz izen soil direla, testuinguru beretan agertzen dira. Izenkiaren eta honi dagokion erroaren arteko erlazioa lexiko mailako erregelen esku utzi dugu. Hau ere euskaraz hein handi batean eginkizun dugu, baina bidea zein den garbi dago. Dena dela, arreta berezia merezi duela uste dut izenki batek duen argumentu egituraren eta berari dagokion egitura sintaktikoaren arteko erlazioa ziurtatuko duen tresneria bilatzeak. Hemendik doaz, hain zuzen, zenbait hizkuntzalariren proposamenak, lexikalismoa azken ondorioetara eramanez nahirik "Lexical Grammar" izenekoa proposatzen dutenean.

Beraz, oraindik ere asko da bide honetatik eginkizun duguna. Gaur egun ikertzen ari diren bide berriak guk ere arakatu behar ditugu. Euskarak bai baitu, nik uste, zer esana. Eta horretarako nor egokiago euskaldunok baino? Adibidez, kontrola dela eta ez dela, lexikoaren egituraz, eta abarrez galdera ugari

aurkezten dizkigu euskarak. "Configurationality" delakoaren arazoa ere hor dugu (Ikus adibidez, Rebuschi-ren azken azterketak). Gauza asko ditugu, beraz, eginkizun.

Lanari ekin nionean zerbait distiratsuagoa egin asmo nuen. Baina bidean gora abiatua nintzelarik, gero eta sasiarte handiagoetan murgiltzen ari nintzenez, hasierako distira usteak hantxe galdu ziren. Dena den, azken urteotan ugaltzen ari diren euskalarien lanen -eta bereziki sintaxiari dagozkionen- multzoan tartetxo bat aurkituko ahal du ene honek!

B I B L I O G R A F I A

- AKMAJIAN, A. eta F. W. HENY, An Introduction to the Principles of Transformational Grammar. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- ABAD eta beste (1978), Metodología y gramática generativa. Madrid: S.G.E.L.
- ADAMS, J. R. (1976), Abstract Nominalizations in General Sentences of English. Tesi argitaragabea, Ann Arbor, Michigan.
- ANDERSON, J. M. (1968), "On the status of 'Lexical Formatives'", Foundations of Language 4, 308-318.
- ALARCOS LLORACH, E. (1968), "Análisis sincrónico de algunas construcciones del infinitivo español", Actas del XI Congreso de Lingüística y Filología IV. Madrid: C.S.I.C.
- ALTUBE, S. (1929), Erderismos. Bermeo: Gaubeka. Bigarren argitalpena, 1975.
- ALTUNA, P. (1971), Euskal aditza. Batua? ... Baturakoa. Bilbao: Etor.
- ALTUNA, P. (1979), Etxepareren hiztegia. Bilbao: Mensajero.
- ALTUNA, P. (1980), Bernard Etxepare, Linguae Vasconum Primitiae. (Edizio kritikoa). Bilbao: Mensajero.
- ALTUNA, P. (1981), "Fray Bartolomez puntu batzuk", Euskera XXVI, 367-377.
- AREJITA, A. (1978), Euskal joskera. Durango: Leopoldo Zugaza.
- ARONOFF, M. (1976), Word Formation in Generative Grammar. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- AUSTIN, J. L. (1962), How to do things with words. Cambridge, Mass.: Harvard University Press.
- AZKARATE, M. eta beste (1982), "Governed Anaphors in Basque", argitaragabeko artikulua.
- AZKUE, R. M^{te}. (1905), Diccionario Vasco-Español-Francés. Bigarren argitalpena: Bilbao (1969): La Gran Enciclopedia Vasca.
- AZKUE, R. M^{te}. (1923), Morfología vasca. Bigarren argitalpena: Bilbao (1969): La Gran Enciclopedia Vasca.

- BACH, E. (1967), "Noun and Noun Phrases", BACH eta HARMS (arg.), 90-122. *Gaztelaniazko itzulpena*: S. ZAVALA (1976a), 207-250.
- BACH, E. (1976), Teoría sintáctica. Barcelona: Anagrama.
- BACH, E. (1982), "Purpose Clauses and Control", JACOBSON, P. eta G.K. PULLUM (arg.), 35-57.
- BACH, E. eta R. T. HARMS (arg.) (1968), Universals in Linguistic Theory. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- BAKER, C. L. (1970), "Notes on the Description of English Questions: The Role of an Abstract Question Morpheme", Foundations of Language 6, 197-219.
- BAKER, C. (1978), Introduction to Generative-Transformational Syntax. New York: Prentice Hall.
- BERMAN, A. (1974), "Infinitival Relative Constructions", Papers from the tenth Regional Meeting of the Chicago Linguistic Society, 37-46.
- BICKERTON, D. (1969), "The Linguistic Validity of Verb-nominalizing Transformations", Lingua 22, 46-62.
- BIERWISCH, M. eta K. E. HEIDOLPH (arg.) (1970), Progress in Linguistics. A Collection of Papers. The Hague: Mouton.
- BOAS, H. (1974), "On Halle's 'Prolegomena to a Theory of Word Formation' or what is a Linguistic Generalization?", Linguistics 134, 5-8.
- BOLINGER, D. L. (1971), "The Nominal in the Progressive", Linguistic Inquiry 2, 2, 246-250.
- BOLINGER, D. L. (1974), "One Subjunctive or two?", Hispania 57, 462-471.
- BOSQUE, I. (1976), "Sobre la interpretación causativa de los verbos adjetivales", S. ZAVALA (1976b), 101-117.
- BOTHA, R. P. (1968), The Function of the Lexicon in Transformational Grammar. The Hague: Mouton.
- BOWERS, F. (1969), "The Deep Structure of Abstract Nouns", Foundations of Language 5, 520-533.
- BOWERS, F. (1981), The Theory of Grammatical Relations. Ithaca, Londres: Cornell University Press.

- BRAME, M. (1975), "On the Abstractness of Syntactic Structure: The VP Controversy", Linguistic Analysis 1. 2, 191-203.
- BRESNAN, J. (1970), "On Complementizers: Toward a Syntactic Theory of Complement Types", Foundations of Language 6, 297-321.
- BRESNAN, J. (1972), Theory of Complementation in English Syntax. MIT-ko tesia, 1979an argitaratua: New York: Garland.
- BRESNAN, J. (1976), "On the Form and Functioning of Transformations", Linguistic Inquiry 7, 1, 3-40.
- BRESNAN, J. (1982), "Control and Complementation", Linguistic Inquiry 13, 3, 343-434.
- CAMPBELL, J. eta beste (arg.) (1974), Linguistic Studies in Romance Languages. Georgetown: Georgetown University Press.
- CHAFE, W. L. (1970), Meaning and the Structure of Language. Chicago: The University of Chicago Press.
- CHAPIN, P. C. (1967), On the Syntax of Word Derivation in English. Tesi argitaragabea, MIT.
- CHAPIN, P. C. (1970), "On Affixation in English", M. BIERWISCH eta K.E. HEIDOLPH (arg.), 51-63.
- CHOMSKY, N. (1957), Syntactic Structures. The Hague: Mouton. Gaztelaniazko itzulpena, Mexico (1974): Siglo XXI.
- CHOMSKY, N. (1958), "A Transformational Approach to Syntax", FODOR, J. eta J.J. KATZ (arg.) (1964), 211-245.
- CHOMSKY, N. (1962), "The Logical Basis of Linguistic Theory", FODOR, J. eta J. J. KATZ (arg.) (1964), 50-118.
- CHOMSKY, N. (1964), Current Issues in Linguistic Theory. The Hague: Mouton.
- CHOMSKY, N. (1965), Aspects of the Theory of Syntax. Cambridge, Mass.: MIT Press. Gaztelaniazko itzulpena, Madrid 1970: Aguilar.
- CHOMSKY, N. (1967), "Remarks on Nominalization", JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.), 184-221. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 133-187.
- CHOMSKY, N. (1968a), "Deep Structure, Surface Structure and Semantic Interpretation". Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 276-334.

- CHOMSKY, N. (1968b), "Some Empirical Issues in the Theory of Transformational Grammar", PETERS, S. (arg.), 63-130. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 444-524.
- CHOMSKY, N. (1971), "Conditions on Transformations". Indiana University Linguistics Club. Frantses itzulpena, CHOMSKY, N. (1977), 99-201.
- CHOMSKY, N. (1975a), "Questions of Form and Interpretation", Linguistic Analysis 1, 75-109. Frantses itzulpena, CHOMSKY, N. (1977), 35-78.
- CHOMSKY, N. (1975b), Reflections on Language. New York: Pantheon.
- CHOMSKY, N. (1977), Essais sur la forme et le sens. Paris: Editions du Seuil.
- CHOMSKY, N. (1980), Rules and Representations. Oxford: Basil Blackwell.
- CHOMSKY, N. (1981), Lectures on Government and Binding. Dordrecht: Foris Publications.
- CHOMSKY, N. (1982), Some Concepts and Consequences of the Theory of Government and Binding. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- CHOMSKY, N. eta H. LASNIK (1977), "Filters and Control", Linguistic Inquiry 8, 3, 425-504.
- CHOMSKY, N. eta beste (1979), La Teoría Estandar Extendida. Madrid: Cátedra.
- COMRIE, B. (1976a), "The Syntax of Action Nominals: A Cross-Language Study", Lingua 40, 177-201.
- COMRIE, B. (1976b), "The Syntax of Causative Constructions: Cross-Language Similarities and Divergences", SHIBATANI, M. (arg.), 261-312.
- CONTRERAS, H. (arg.) (1971), Los fundamentos de la gramática transformacional. Madrid: Siglo XXI.
- COWEN, J. (arg.) (1970), Studies in Thought and Language. Tucson: University of Arizona Press.
- CRESSY, W. (1971), "The Subjunctive in Spanish: a Transformational approach", Hispania 54, 895-96.
- CRITZ, J. Th. (1976), Assertion and Presupposition in Factive Clauses. Tesia (University of Washington). Ann Arbor, Michigan

- CULICOVER, P. W., WASOW, T. eta AKMAJIAN, A. (arg.) (1977), Fermal Syntax. New York: Academic Press.
- DEARMOND, R. C. (1969), "The Concept of Word Derivation", Lingua 22, 329-361.
- DELESALLE, S. (1976), "Le lexique entre la lexicologie et l'hypothèse lexicaliste", Langue Française 30, 4-33.
- DEMONTE, V. (1977), La subordinación sustantiva. Madrid: Cátedra.
- DIK, S. C. (1979), "Some critical remarks on the treatment of morphological structure in Transformational Generative Grammar", Lingua 18, 352-383.
- D'INTRONO, F. (1979), Sintaxis transformacional del español. Madrid: Cátedra.
- DUBOIS, J. (1962), Étude sur la dérivation suffixale en français moderne et contemporaine. Paris: Larousse.
- DUBOIS, J. (1969), Grammaire structurale du français: la phrase et les transformations. Paris: Larousse.
- DUBOIS, J. (1979), Diccionario de Lingüística. Madrid: Alianza.
- DUBOIS, J. eta F. DUBOIS-CHARLIER (1970), Éléments de linguistique française: Syntaxe. Paris: Larousse.
- DUBOIS-CHARLIER, F. (1972), Éléments de linguistique anglaise: la phrase complexe et les nominalisations. Paris: Larousse.
- DUBSKY, J. (1966), "Composition, dérivation et décomposition", Lingua 16, 190-198.
- EMONDS, J. (1969), Root and Structure Preserving Transformations. Indiana University Linguistics Club.
- EMONDS, J. (1976), A Transformational Approach to English Syntax. Root, Structure-Preserving, and Local Transformations. New York: Academic Press.
- EMONDS, J. (1978), "El complejo verbal V'-V en francés", CHOMSKY, N. eta beste (1979), 43-71.
- EUSKALTZAINDIA (1981), Euskalarien nazioarteko jardunaldiak. Bilbao.
- EUSKALTZAINDIA (1983), Piarres Laffite-ri emenaldia. Bilbao.

- FALK, J. S. (1969), Nominalizations in Spanish. Tesia (Univ. of Washington), Ann Arbor, Michigan.
- FILLMORE, Ch. J. (1969), "The Case for Case", BACH, E. eta HARMS (arg.), 1-88.
- FODOR, J. eta J. J. KATZ (arg.) (1964), The Structure of Language. Readings in the Philosophy of Language. Englewood Cliffs: Prentice-Hall.
- FRASER, B. (1970), "Some remarks on the action nominalization in English", JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.), 83-98.
- FUJIMURA, O. (arg.) (1973), Three Dimensions of Linguistic Theory. Tokyo: TEC.
- GALMICHE, M. (1975), La Sémantique Générative. Paris: Larousse. Gaztelaniazko itzulpena: Madrid 1980, Gredos.
- GAZDAR, G. (1982), "Phrase Structure Grammar", JACOBSON, P. eta G. K. PULLUM (arg.), 131-186.
- GIRY, J. (1978a), Nominalisations en français. Genève: Droz.
- GIRY, J. (1978b), "À propos de quelques Nominalisations", Langue Française 39, 30-48.
- GOENAGA, P. (1979), "Perpaus konpletiboei buruz", Euskera XXV (2. aldia), 1980-2, 581-596.
- GOENAGA, P. (1980), Gramatika bideetan. Donostia: Erein.
- GOENAGA, P. (1982), "Euskal Nominalizazioari buruz zenbait ohar: "zail da", "erraz da" predikatuen errejimena", Euskefa XXVII (2. aldia), 623-637.
- GROSS, M. (1968), Grammaire transformationnelle du français: Syntax du verbe. Paris: Larousse.
- GROSS, M. (1975), Méthodes en syntaxe: Régime des constructions complétives. Paris: Hermann.
- GROSSBERG, D. (1977), Nominalization in Biblical Hebrew. Argitaragabeko tesia, Ann Arbor, Michigan.
- GRUBER, J. S. (1965), Studies in Lexical Relations. Indiana University Linguistics Club.
- GUILBERT, L. (1975), La productivité lexicale. Paris: Larousse.
- GUNTER, R. (1972), "English Derivation", Journal of Linguistics 8, I, 1-19.

- HALLE, M. (1973), "Prolegomena to a Theory of Word Formation", Linguistic Inquiry 4, 1, 3-16.
- HARITSCHELHAR, J. (1979), "Aditz izenen morfosintaxia", Euskera XXV (2. aldia), 447-454.
- HEATH, J. (1972), "Genitivization in Northern Basque Complement Clauses", Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" VI, 46-66.
- HERNANZ, M^a L. (1980), "Las perífrasis verbales de infinitivo en español: hacia una posible solución transformacional", Revista Española de Lingüística 10, 2, 411-443.
- HERNANZ, M^a L. (1982), El infinitivo en español. Barcelona: Publicaciones de la Universidad de Barcelona.
- HESTER, Th. R. (1978), "Some arguments against equi as a test for subject-of in basque", Fontes Linguae Vasconum, X, 23-34.
- HOECKSTRA, J. eta beste (1981), Lexical Grammar. Dordrecht: Foris Publications.
- HOOPER, J. eta S. A. THOMPSON (1973), "On the Applicability of Root Transformations", Linguistic Inquiry 4, 4, 456-496.
- HOOPER, J.B. (1975), "On Assertive Predicates", KIMBALL, J. P. (1975), 91-124.
- HORIGUCHI, I. (1978), Complementation in English Syntax: a Generative Semantics Approach. Tesi argitaragabea (Univ. of Washington) Ann Arbor, Michigan.
- HOUSEHOLDER, F. W. (1962), "Review of Lees 1960". Word 18, 326.
- HULL, R. D. (1975), "A Semantics for superficial and embedded questions in natural languages", KEENAN, E. L. (arg.).
- HUOT, H. (1981), Constructions infinitives du français. Le subordonnant DE. Genève: Droz.
- JACKENDOFF, R. (1968), "An Interpretive Theory of Pronouns and Reflexives". Indiana University Linguistics Club.
- JACKENDOFF, R. (1972), Semantic Interpretation in Generative Grammar. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- JACKENDOFF, R. (1975), "Morphological and Semantic Regularities in the Lexicon", Language 51, 3, 639-671. Gaztelaniazko itzulpena CHOMSKY, N. eta beste (1979), 73-116.

- JACKENDOFF, R. (1977), X-Syntax: A Study of Phrase Structure. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.) (1970), Readings in English Transformational Grammar. Waltham, Mass.: Blaisdell.
- JACOBSON, P. eta G. K. PULLUM (arg.) (1982), The Nature of Syntactic Representation. Dordrecht: Reidel.
- JOHNSON ANDERSON, M. K. (1979), Noun Phrase Structure. Tesi argitaragabea, University of Connecticut.
- KAC, M. (1972), "Action and Result: Two Aspects of Predication in English", KIMBALL, J. (arg.), 117-124.
- KARTTUNEN, L. (1970), "On the Semantics of Complement Sentences", CAMPBELL, J. eta beste (arg.), 329-339.
- KARTTUNEN, L. (1973), "Presuppositions of Compound Sentences", Linguistic Inquiry 4, 2, 169-193.
- KARTTUNEN, L. (1974), "Presuppositions and Linguistic Context", Theoretical Linguistics 1, 181-194.
- KATZ, J. eta P. M. POSTAL (1964), An Integrated Theory of Linguistic Descriptions. Cambridge, Mass.: MIT Press. Gaztelaniazko itzulpena, Madrid 1981: Aguilar.
- KEENAN, E. L. (arg.) (1975), Formal Semantics of Natural Language. Cambridge: Cambridge University Press.
- KEYSER, S. J. (arg.) (1978), Recent Transformational Studies in European Languages. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- KIMBALL, J. P. (arg.) (1972), Syntax and Semantics I. New York: Seminar Press.
- KIMBALL, J. P. (arg.) (1973), Syntax and Semantics II. New York: Seminar Press.
- KIMBALL, J. P. (arg.) (1975), Syntax and Semantics III. New York: Seminar Press.
- KIPARSKY, P. eta C. KIPARSKY (1970), "Fact", BIERWISCH, M. eta K. E. HEIDOLPH (arg.). Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1976a), 31-76.
- KOSTER, J. (1978), "Why Subject Sentences Don't Exist", KEYSER, S.J. (arg.), 53-64.

- LAFITTE, P. (1944), Grammaire basque (Navarro-Labourdin Littéraire). Baiona: Librairie "Le Livre".
- LAFON, R. (1943), Le Système du verbe basque au XVIIe siècle. Bordeaux: Delmas.
- LAKOFF, G. (1966), "Deep and Surface Grammar", Indiana University Linguistics Club. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 47-132.
- LAKOFF, G. (1969), "On Derivational Constraints", Papers from the Fifth Regional Meeting, Chicago Linguistic Society, 117-139.
- LAKOFF, G. (1970), Irregularity in Syntax. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- LAKOFF, G. eta J. R. ROSS (1970), "A Derived Nominal Requiring a Sentential Source", Linguistic Inquiry 1,2, 265-267.
- LAKOFF, R. T. (1968), Abstract Syntax and Latin Complementation. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- IASNIK, H. eta R. FIENGO (1974), "Complement Object Deletion", Linguistic Inquiry 5, 535-571.
- LAZARO CARRETER, F. (1971), "Transformaciones nominales y diccionario", Revista Española de Lingüística 1, 2, 371-379.
- LEES, R. B. (1960), The Grammar of English Nominalizations. The Hague: Mouton.
- LEES, R. B. (1970), "Problems in the Grammatical Analysis of English Nominal Compounds", BIERWISCH, M. eta K. E. HEIDOLPH (arg.), 174-187.
- LEECH, G. (1974), Semantics. Harmondsworth: Penguin. Gaztelaniazko itzulpena: Madrid 1977, Alianza.
- LETAMENDIA, J. A. (1979), "Leizarragak partitiboz dakartzan partitipioak Duvoisinien ordainekin alderaturik", Euskera XXV (2. aldia), 455-482.
- LEVI, I. (1978), Syntax and Semantics of Complex Nominals. New York: Academic Press.
- LIGHTNER, R. (1974), "Preliminary Remarks on Derivational Morphology of French", ROHRER, C. eta N. RUWET (arg.), 142-164.

- LUDTKE, J. (1976), "Sur les niveaux d'analyse des nominalisations predicatives", Cahiers de Lexicologie 28, 51-59.
- LUJAN, M. eta F. HENSEY (arg.) (1976), Current Studies in Romance Linguistics. Washington: Georgetown University Press.
- LUJAN, M. (1980), Sintaxis y Semántica del Adjetivo. Madrid: Cátedra.
- LYONS, J. (1968), Introduction to Theoretical Linguistics. Londres: Cambridge University Press. Gaztelaniazko itzulpena: Barcelona (1973), Teide.
- LYONS, J. (1970), New Horizons in Linguistics. Harmondsworth: Penguin. Gaztelaniazko itzulpena: Madrid 1975, Alianza.
- LLEÓ, C. (1976), "La presuposición y los verbos factivos en castellano", S. ZAVALA (1976b), 119-142.
- LLEÓ, C. (1979), Some Optional Rules in Spanish Complementation. Tübingen: Niemeyer.
- MAHMOUDIAN, M. (1970), Les modalités nominales en français. Paris: PUF.
- MANTECA, A. (1980), Gramática del subjuntivo. Madrid: Cátedra.
- MANZINI, M. R. (1983), "On Control and Control Theory", Linguistic Inquiry 14, 3, 421-446.
- MARANTZ, A. P. (1981), On the Nature of Grammatical Relations. Tesi argitaragabea, MIT.
- MARCHAND, H. (1969), The Categories and Types of Present Day English Word-Formation. Munich: Verlag, C. H. Beck.
- MARTINEZ CELDRAN, E. (1975), Sufijos nominalizadores del español con especial atención a su morfofonología. Barcelona: Edic. de la Universidad de Barcelona.
- MATHEWS, P. H. (1970), "Evolución de la morfología en los últimos años", LYONS, J. (1970), 99-117.
- MATHEWS, P. H. (1974), Morphology: an Introduction to the Theory of Word Structure. Londres: Cambridge University Press.
- MCCAWLEY, J. D. (1968a), "Where do Noun Phrases come from?", JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.), 166-183. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 232-258.

- McCAWLEY, J. D. (1968b), "Lexical Insertion in a TG without Deep Structure", Papers from the 4th Regional Meeting, Chicago. Linguistic Society, 71-80. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1974), 259-275.
- McCAWLEY, J. D. (1973), Grammar and Meaning, Papers on Syntactic and Semantic Topics. Tokyo: Taishukan.
- McCAWLEY, J. D. (1982), Thirty Million Theories of Grammar. Londres: Croom Helm.
- MENZEL, P. (1973), "A Constraint on the deletion of embedded subject" Papers in Linguistics 6, 2, 141-178.
- MENZEL, P. (1975), Semantics and Syntax in Complementation. The Hague: Mouton.
- MICHELENA, L. (1972a), Zenbait hitzaldi. Bilbao: Etor.
- MICHELENA, L. (1972b), "Etimología y Transformación", Homenaje a Antonio Tevar, 305-317.
- MICHELENA, L. (1977), "Notas sobre compuestos verbales vascos", V. García de Diego-ren omenaldian, Revista de Dialectología y Tradiciones populares XXXVIII, 1^o-4^o, 245-271.
- MICHELENA, L. (1981), "Galdegai eta mintzagaia euskaraz", Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak, 57-81.
- MOURELATOS, A. P. D. (1978), "Events, processes, and states", Linguistics and Philosophy 2, 415-434.
- MUJICA, J. A. (1979), "Zenbait konpletiboren azterketa J. Leizarragagan", Euskera XXV (2. aldia) 1980, 597-629.
- MUJICA, J. A. (1982), "-(e)LA eta beste konpletibatzailleak", Euskera XXVII (2. aldia), 295-327.
- NEWMAYER, F. (1969), "The Derivation of English Action Nominalization Papers from the 6th Regional Meeting, Chicago Linguistic Society, 408-415.
- NEWMAYER, F. (1970), "Nominalized causatives", Papers in Linguistics 3, 1, 1-10.
- NEWMAYER, F. (1971), "The Source of Derived Nominals in English", Language 47, 4, 786-796.

- NEWMAYER, F. (1974), "The Precyclic Nature of Predicate Raising", Indiana University Linguistics Club.
- NEWMAYER, F. (1982), El primer cuarto de siglo de la Gramática Generativo-transformatoria (1955-1980). Madrid: Alianza.
- NEY, J. (1981), Semantic Structures for the Syntax of Complements and Auxiliaries in English. The Hague: Mouton.
- NIQUE, Ch. (1978), Grammaire Générative: hypothèses et argumentations. Paris: Armand Colin.
- NUESSEL, F. H. (1973), Complement Structures in Spanish. Tesis de doctorado (Univ. of Illinois), Ann Arbor, Michigan.
- ORTIZ DE URBINA, J. M. (1983), "Empty Categories and Focus in Basque". Fotokopiatutako lana. Studies in the Linguistic Science 13, 1.
- PERLMUTTER, D. (1970), "The two verbs 'Begin'", JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.), 107-119.
- PERLMUTTER, D. (1971), Deep and Surface Constraints in Syntax. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- PETERS, S. (arg.) (1972), Goals of Linguistic Theory. Englewood Cliffs, N.J.: Prentice Hall.
- POSTAL, P. (1970), "On Coreferential Complement Subject Deletion", Linguistic Inquiry 1, 4, 439-500.
- POSTAL, P. (1974), On Raising. One Rule of English Grammar and its Theoretical Implications. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- QUICOLI, A. C. (1972), Aspects of Portuguese Complementation. Tesis, State University of New York.
- RADDEN, G. (1976), "Transitive Nominalizations", Leuvense Bijdragen: Tijdschrift voor Germaanse Filologie 65, 15-32.
- RAPPAPORT, M. (1980), "On the Derivation of Derived Nominals", argitaragabeko lana, MIT.
- REBUSCHI, G. (1984), "Positions, configurations et classes syntaxiques. Aspects de la construction de la phrase simple en basque". Euskaltzaindiaren X Kongresura aurkeztutako lana (oraindik argitaragabea).
- REIBEL, D. A. eta S. A. SCHANE (arg.) (1969), Modern Studies in English. Readings in Transformational Grammar. Englewood Cliffs: Prentice Hall.

- RIJK, R. P. G. de (1972a), Studies in Basque Syntax: Relative Clauses. Argitaragabeko tesia, MIT.
- RIJK, R. P. G. de (1972b), "Partitive Assignment in Basque", Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" VI, 130-173.
- RIJK, R. P. G. de (1978), "Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque", Frank JANSEN (arg.) Studies on Fronting, Lisse, 81-112.
- RIJK, R. P. G. de (1981), "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera", Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak, 83-101.
- RIVERO, M^a L. (1971), "Mood and Presupposition in Spanish", Foundations of Language 7, 305-336. Gaztelaniazko itzulpena, RIVERO (1977)-an.
- RIVERO, M^a L. (1977), Estudios de Gramática Generativa del Español. Madrid: Cátedra.
- ROGERS, A. (1971), "Three Kinds of Physical Perception Verbs", Papers from the Seventh Regional Meeting Chicago Linguistic Society. Gaztelaniazko itzulpena, S. ZAVALA (1976a), 141-163.
- ROHRER, C. eta N. RUWET (1974), Actes du colloque franco-allemand de Grammaire Transformationnelle. Tübingen: Niemeyer Verlag.
- ROLDAN, M. (1974), "Complementation in Spanish", Revista Brasileira de Linguística I, 58-71.
- ROSE, J. (1973), "Principled limitations on productivity in denominal verbs", Foundations of Language 10, 509-526.
- ROSENBAUM, P. (1967), The Grammar of English Predicate Complement Constructions. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- ROSS, J. R. (1967), Constraints on Variables in Syntax. Indiana University Linguistics Club.
- ROSS, J. R. (1970), "On Declarative Sentences", JACOBS, R. eta P. ROSENBAUM (arg.), 222-272.
- ROSS, J. R. (1973), "Nouniness", O. FUJIMURA (arg.), 138-257.
- ROTAETXE, K. (1978), Estudio estructural del euskera de Ondárroa. Durango: Leopoldo Zugaza.

- ROTAETXE, K. (1980), "Nominalizadores y complementarizados en euskara", Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XII-XIII, 247-266.
- RUWET, N. (1972), Théorie syntaxique et syntaxe du français. Paris: Ed. du Seuil.
- SALABURU, P. (1984), Gobernu eta uztardura teoriei buruzko oharrak. Argitaragabeko apunteak.
- SANCHEZ DE ZAVALA, V. (arg.) (1974), Semántica y Sintaxis en la Lingüística Transformatoria, I. Madrid: Alianza.
- SANCHEZ DE ZAVALA, V. (arg.) (1976a), Semántica y Sintaxis en la Lingüística Transformatoria, II. Madrid: Alianza.
- SANCHEZ DE ZAVALA, V. (arg.) (1976b), Estudios de Gramática Generativa. Barcelona: Labor.
- SARASOLA, I. (1977), "Sobre la bipartición inicial en el análisis en constituyentes", Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo" XI, 51-90.
- SARASOLA, I. (1982), Corpus zerrendatua. Donostia: Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala.
- SAUER, K. E. (1972), Sentential Complementation in Spanish. Tesis argitaragabea (Univ. of Washington), Ann Arbor, Michigan.
- SCHACHTER, P. (1962), "Review of 'The Grammar of English Nominalization' of R. Lees", International Journal of American Linguistics 28, 2, 134-146.
- SCHWARTZ, A. (1970), "On Interpreting Nominalizations", BIERWISCH, M. eta K. E. HEIDOLPH (arg.), 295-305.
- SCHWARZE, Ch. (1974), "Les constructions du type 'Je le vois qui arrive'", ROHRER eta RUWET (arg.) (1974), 18-30.
- SELKIRK, E. O. (1982), The Syntax of Words. Cambridge, Mass.: MIT Press.
- SHIBATANI, M. (1972), "Three reasons for not deriving 'kill' from 'cause to die' in Japanese", KIMBALL, J. (arg.) 125-137.
- SHIBATANI, M. (arg.) (1976a), Syntax and Semantics VI. New York: Academic Press.

- SHIBATANI, M. (1976b), "The Grammar of Causative Constructions: a Conspectus", SHIBATANI, M. (arg.), 1-40.
- SILENSTAN, M. (1979), "La complementation verbale en français: quelques problèmes", Studia Neophilologica 51, 315-334.
- SMITH, C. (1972), "On causative verbs and derived nominals in English", Linguistic Inquiry III, 1, 136-138.
- SPEARS, A. K. (1977), The Semantics of English Complementation. Tesi argitaragabea (Univ. of California), Ann Arbor, Michigan.
- STOCKWELL, R., SCHACHTER, P. eta PARTEE, B. H. (1973), The Major Syntactic Structures of English. New York: Holt, Rinehart and Winston.
- TRASK, R. L. (1980), "Basque Verbal Morphology", EUSKALTZAINDIA (1981), 285-304.
- TRASK, R. L. (1983), "Euskal izen sintagmaren egituraz", EUSKALTZAINDIA (1983), 599-611.
- TERRELL, T. D. (1976), "Assertion and Presupposition in Spanish Complements", LUJAN, M. eta F. HENSEY (arg.), 221-245.
- TERRELL, T. D. eta HOOPER, J. (1974), "A Semantically Based Analysis of Mood in Spanish", Hispania 57, 484-494.
- TUTESCU, M. (1972), Le groupe nominal et la nominalisation en français moderne. Paris: Klincksieck.
- TXILLARDEGI (1977), Oinarri bila. Donostia.
- TXILLARDEGI, (1978), Euskal Gramatika. Donostia: Ediciones Vascas.
- VARELA, S. (1977), Estudios de Gramática Transformacional: La nominalización en castellano. Tesi argitaragabea (Univ. Autónoma de Madrid).
- VARELA, S. (1978), "Categorías sintácticas y teoría gramatical", ABAD, F. eta beste (1978), 53-80.
- VENDLER, Z. (1967), Linguistics in Philosophy. Ithaca, New York: Cornell University Press.
- VENDLER, Z. (1968), Adjectives and Nominalizations. The Hague: Mouton
- VENDLER, Z. (1970), "Say what you think", COWEN, J. (arg.), 79-98.
- VILLASANTE, L. (1973), Axular-en hiztegia. Oñate: Ed. franciscana Aránzazu.

- VILLASANTE, L. (1974), Palabras vascas compuestas y derivadas.
Oñate: Ed. franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1976), Sintaxis de la oración compuesta. Oñate:
Ed. franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1978), Estudios de sintaxis vasca. Oñate: Ed.
franciscana Aránzazu.
- VILLASANTE, L. (1980), Sintaxis de la oración simple. Oñate:
Ed. franciscana Aránzazu.
- WILBUR, T. H. (1979), Prolegomena to a Grammar of Basque.
Amsterdam: John Benjamin.
- WILBUR, T. H. (1980), "Basque Syntax", EUSKALTZAINDLA (1981),
169-186.
- WOEHR, R. (1975), "Grammar of the Factive Nominal in Spanish",
Language Sciences 36, 13-19.

ADIBIDETZAT EMATEN DIREN ZENBAIT PERPAUSEN ITURBURUAK.-

- AGUIRRE, Juan Bautista, Eracusalduak (I). Donostia 1978: Hordago.
- AÑIBARRO, Pedro Antonio, Escu-Librua, ta berean eguneango cristifau-
cereguiñac. Donostia 1978: Hordago.
- ARGAIÑARATZ, P. D', Devoten breviarioa. Donostia 1978: Hordago
- ARRATIBEL, Jose, Kontu zarrak. Bilbo 1980: La Gran Enciclopedia Vasca.
- AXULAR, P., Gero. Barcelona 1964: Juan Flors. A. Villasantek pres-
tatutako argitalpena.
- BARTOLOME DE SANTA TERESA, Euscal-Errijetaco olgueeta, ta dantzeen
neurritzco-gatz-ozpinduba. Donostia 1978: Hordago.
- ETXEPARE, B., Linguae Vasconum Primitiae. Patxi Altunak paratutako
edizio kritikoa, Bilbao 1980: Euskaltzaindia eta Ed. Mensa-
jero.
- MOGUEL, J. A., Peru Abarka. Bilbao 1966: La Gran Enciclopedia Vasca.
- ORIXE, Santa Kruz Apaiza, Bilbao 1974: Etor.
-

A U R K I B I D E A

SARRERA.....	2
I ATALA: <u>Euskal konplementazioaren ikuspegi orokorra</u>	10
1.- Aditz mugatukoak	10
2.- Aditz mugagabekoak	12
OHARRAK	22
II ATALA: <u>Perpaus konpletiboen erakarbidea</u>	24
1.- Konplementatzaileak	26
2.- Hipotesi transformazionalista vs. Perpaus- egitur-hipotesia	32
2.1.- Rosenbaum (1967).....	33
2.2.- Robin Lakoff (1968)	38
2.3.- Perpaus-egitur-hipotesia: J. Bresnan	40
2.4.- Demonte (1977)	46
OHARRAK	57
III ATALA: <u>Euskal konpletiboen egitura</u>	62
1.- -(E)LA konpletiboa	64
2.- Zehargalderak	70
3.- Aditz mugagabeko perpausa	78
4.- KONP-en osagaiak	87
5.- Aditz nagusia eta KONP	93
6.- Euskalkien arteko bereizkuntzak: TO-GEN	96
OHARRAK	112

IV ATALA: <u>-T(Z)EN</u> formako konpletiboak	121
1.- Hautemate aditzak: IKUSI, ENTZUN, SENDITU, HAUTEMAN, SOMATU,	122
1.1.- Bi axaleko egitura desberdin	122
1.2.- Konplementu hauen sakoneko egitura	125
1.3.- Egitura bera eskatzen duten beste aditz batzu	136
2.- ZAIL, ERRAZ, NEKE, ... predikatuak	138
2.1.- Hiru esamolde	138
2.2.- <u>-T(Z)EN</u> / <u>-T(Z)EA</u> : diferentzia bat	139
2.3.- Beste <u>-T(Z)EN</u> bat.....	140
2.4.- Perpaus txertatuak ala aditz sintagma soilak?	143
2.5.- Laburtuz	147
3.- Ezagutza aditzak	150
3.1.- Aditz bat ala gehiago?	152
3.2.- Aditz hauei atxikitako konpletiboen egitura	163
3.3.- Amaitzeko	168
4.- Aspektu edo denbora kutsuko zenbait aditz ...	170
4.1.- Datuak.....	170
4.2.- Perpaus hauen egitura	175
4.3.- Zenbait oztopo	193
4.4.- <u>HASI</u> aditz iragankorra denean	203
4.5.- Laburtuz	210
5.- <u>UTZI</u> aditza	213
5.1.- Datuak	213
5.2.- Datiboaren eta absolutuaren erabileraz	214
5.3.- <u>UTZI</u> -ren bi adiera	217
5.4.- Zenbait iruzkin	224
OHARRAK	226

V	ATALA: <u>Aditz berezi batzu: NAHI eta BEHAR</u>	241
	1.- EQUI-ren inguruan	241
	2.- Partizipioaren agerpenari buruzko hipotesi bat	245
	3.- Beste zenbait datu	251
	4.- Komunztadura	255
	OHARRAK	260
VI	ATALA: <u>Kontrolaren arazoa</u>	263
	1.- Arazoa zertan datzan	263
	2.- Soluzioak	264
	2.1.- EQUI eta Rosenbaum-en "Tarte txikienaren printzipioa"	264
	2.2.- Jackendoff-en teoria interpretatibista	270
	2.3.- Chomskyren soluziobidea	277
	3.- PRO eta pro	278
	4.- Euskararen datuak	282
	5.- Proposamen bat	290
	OHARRAK	293
VII	ATALA: <u>Konpletiboen semantikaz eta sintaxiaz</u>	297
	1.- <u>-(E)LA</u> vs. <u>-T(Z)EA</u>	297
	1.1.- Konpletibo desberdinak eta aditz nagusia ...	297
	1.2.- Kiparskytarren sailkapena	298
	1.3.- Beste bide bat: Menzel (1975)	303
	1.4.- Perpaus konpletibo hauen sakoneko egitura ..	309
	1.5.- Ondorio gisa	322
	2.- Zehargalderak direla eta	326
	2.1.- Datuak	327
	2.2.- "Nora joan" vs. "Nora joan behar dudan".....	329
	2.3.- "Zehargaldera" direlakoan balio semantikoaz	334

2.4.- Konpletibotzat zehargalderak onartzen dituz-	
ten predikatuak	338
OHARRAK	342
VIII ATALA: <u>Izenki erakarriak</u>	351
1.- Hipotesi transformazionalista versus Hipotesi	
lexikalista	352
1.1.- Hipotesi transformazionalista	353
1.1.1.- Lees (1960)	353
1.1.2.- Katz eta Postal (1964)	355
1.1.3.- G. Lakoff (1970)	357
1.1.4.- McCawley (1968) eta J. Levi (1978)	360
1.1.5.- Beste transformazio bide bat: Varela (1977)	364
1.2.- Hipotesi lexikalista	374
1.2.1.- Chomskyren hasierako jarrera	375
1.2.2.- Chomskyren "Remarks on Nominalization"(1967)	377
2.- Hipotesi lexikalistaren alde	393
2.1.- Izenkiaren eta aditzaren arteko erlazioa	394
2.2.- Barne egituraz	400
2.2.1.- Izenki erakarrien izentasunaren ezaugarriak	400
2.2.2.- Era bereko konplementuak izen sintagma guz-	
tietan	403
2.2.3.- Genitiboaren interpretazioa	414
2.2.4.- Gainerako konplementuak	419
3.- Beste izenki mota bat: /GENITIBOA + ... -T(ZEA	
egitura	421
3.1.- Aditz izena, izenkia	421
3.2.- Aditz izenaren konplementuak	424
3.3.- /Genitiboa + <u>BEHARRA</u> / egitura	430
3.4.- Laburbilduz	434

OHARRAK	436
ONDORIO ANTZERA	447
BIBLIOGRAFIA	453
AURKIBIDEA	470